Hauxe da, dudarik gabe, XVI. mendean Aoristo Perifrastikoaren (*ekar zezan*) eta Iraganeko Perfektu-Perfektiboaren (*ekarri zuen*) artean gertatzen eta gertatu zen lehia lehenaldi perfektiboaren esanahia adierazteko. Aoristo Perifrastikoa (eta Iragan Trinkoa) forma zaharragoak ziren (defektiboak eta elkarrekiko osagarriak behar-bada), Iraganeko Perfektu-Perfektiboa forma berriagoa zen bitartean. Azken hau, garbi dago, Mendebaldeko Europa osoan hedatu zen forma berri bat zen, Latin Berantiarretiko jatorria zuena. Area edo eremu fenomenotzat har daiteke, beraz, Perfektu-Perfektiboen hedapena Mendebaldeko Europan.<sup>3</sup> Hortaz, forma berriagoa (Iraganeko Perfektu-Perfektiboa) forma zaharragoa(k) (Aoristo Perifrastikoa eta Iragan Trinkoaren erabilera perfektiboa edo aoristikoa) ordezkatu zituen, prozesu historiko baten bitartez. XVI. mendeko testuetan atzematen dugun egoera ordezkapen prozesu horren azken mementoa bide da.

Hasieran, forma berria (*ekarri zuen*), lehenaldi perfektibo orokorra adierazi baino lehen, testuinguru perfektibo espezifikoko batzutan hasiko zen erabiltzen. Gerago, forma berria hedatu eta forma zaharra (*ekar zezan*) testuinguru guztietatik desplazatzen joango zen, lehenaldi perfektiboko forma bakarra (edo ia bakarra) bihurtu arte. Edozein kasutan, eta ikerketa gehiagoren faltan, ez dago batere garbi XVI. mendeko testuetan oposaketa garbirik dagoenik *ekarri zuen* eta *ekar zezan* formen artean, biak perfektiboko forma orokorrak bide zirelarik. Garbi dagoena zera da: Traskek eta beste autore batzuk proposaturiko *erabateko* kontrasteek ez dutela orain arte ezer argitu. Izan ere, perfektiboak eta aoristoak esanahi bera adierazi ohi dute, eta hauen barruan izaten da narratiboa ere (ikus, dena dela, 4. atalean egiten dudana proposamena).

Esan bezala, Aoristo Perifrastikoak laguntzaile dinamikoak erabiltzea ez litzateke harrigarria izan beharko. Niretzat harrigarriagoa da autore guztiek normaltzat hartzen dutena: hots, nola Mendebaleko Europako hizkuntzetan pluskuanperfektu den forma batek (formalki *egin zuen* = *había hecho* = *had done* = *haveva fatto* = *avait fait*)

<sup>3</sup> Eta ez euskarak egindako kalkoa edo hartutako erdarakada, Sarasolak eta beste autore batzuk errazegi salatu nahi duten moduan.

lehenaldi perfektibo bat adieraz dezakeen euskaran. Baina honetaz hurrengo ataletan jardungo dut.

#### 4. Iraganeko Perfektu-Perfektiboa<sup>4</sup> (*egin zuen*)

Esanda dago Iraganeko Perfektu-Perfektiboa (*etorri zen, etorri nintzen, ekarri zuen, ekarri nuen*) eta bere “anaia” dena Oraineko Perfektu-Perfektiboa (*etorri da, etorri naiz, ekarri du, ekarri dut*) oso adizki ezagunak direla Mendebaleko Europan, Latin Berantiarren ereditutik hedatu baitziren, eremu fenomeno bat osatuz. Alabaina, artikulu honen hasieran azaldu den bezala, hizkuntzen arteko konparaketa egiteko, ez da nahikoa adizki horien forma kontuan hartzea. Euren esanahia ere kontuan hartu beharrekoa da. Areago, esanahiaren aldaketa ere hartu behar da kontuan. Beraz, sinkronia bakarrik ez, diakronia ere kontsideratu behar da azalpen osoa egiteko asmoz.

Zehazkiago esateko, Mendebaleko Europan hedatu zena izan zen adizki berri batzuk gramatikalizatzeko jatorri edo iturburu berri bat. Gramatikalizazio iturburu berdin horretatik, ordea, denboraren poderioz, hizkuntza bakoitzean emaitza ezberdinak ditugu gaur egun. Laguntzaileen hautaketa alde batera utzita, batez ere, esanahiari dagokionez dira ezberdinak adizki horiek. Orain, tempus-aspektu-modu formen esanahiaren aldaketa *neurri handi batean* unidirekzionala denez (gramatikalizazio lerroak edo lerro semantikoak osatzen direlarik), esan dezakegu Mendebaleko Europako Perfektu-Perfektibo adizkien arteko ezberdintasun handiena gramatikalizazio lerroan zehar ibilitako bidea dela. Hots, Perfektu-Perfektiboaren lerro semantikoei dagokienez, hizkuntza batzuk kontserbadoreak izan diren heinean, beste batzuk nahiko aurrerakoiak izan dira. Hortaz, ezberdintasun hauek ezin dira azaldu diakronia kontuan hartu gabe. Euskararen kasuan, Iraganeko Perfektu-Perfektiboaren eboluzio semantikoa oso aurrerakoa izan da, inguruko hizkuntzekin konparatuta. Ikus dezagun.

<sup>4</sup> Terminologiara bihurtuz, “Perfektu-Perfektibo” terminoa erabiltzen dut nik, adizki hauen natura bikoitza azaltzeko asmoz.

Nahiz eta euskarazko lanetan garbi ez dagoen, perfektua eta perfektiboa ez dira sinonimoak. Perfektuek esanahi erlatiboa duten bitartean, perfektiboak esanahi absolutua dauka. Hau da, perfektiboa deiktikoa da; besterik gabe, ekintza bat lehenaldian kokatzen du. Perfektuek, ordea, beti hartzen dute kontuan erreferentzia puntu bat. Hau da, lehenaldian gertaturiko ekintza bat, baina geroagoko erreferentzia puntu batekiko errelebantzia daukana, da perfektuek adierazten duten esanahia.

Gertatzen dena da (oso ezagunak diren) gramatikalizazio lerroak daudela, perfektuetatik perfektibora pasatzen direnak. Hortaz, perfektuak eta perfektiboa, sinkronian ez, baina diakronian lotuta egon daitezke (gai hauetaz, ikus Comrie 1976 eta 1985, Dahl 1985, Bybee & Dahl 1985, eta batez ere Bybee et al. 1994: 51-105).

Euskarazko Oraineko Perfektu-Perfektiboa eta Iraganeko Perfektu-Perfektiboa biak dira, aldi berean, perfektu eta perfektiboa. Jatorriz, biak erresultatiboak izan ziren (ikus 5. oharra). Esanahi paraleloak zeuzkaten iturburuan: bata oraineko erresultatiboa, bestea iraganeko erresultatiboa. Gero, Orainekoak perfektu esanahia hartu zuen, eta Iraganekoak pluskuanperfektua. Gaur egun, Orainekoak (*egin du*) gehien bat perfektu adiera dauka (baina baita perfektibo hodiernala Euskal Herri Penintsularrean, eta baita perfektibo orokorra Euskal Herri Kontinentalean: ikus 5. atala). Iraganekoak (*egin zuen*), aldiz, gehien bat (aspaldiko) perfektiboa adierazten du (eta pluskuanperfektua noizbehinka). Hortaz, euskara modernoan ez daukate esanahi paralelorik. Hala ere, nahiago izan dut bieci termino paraleloak ezartzea, euren iturburuak, eta hortaz euren forma, kontuan harturik.

Mendebaleko Europako hizkuntza guztietan bezala, euskararen Iraganeko Perfektu-Perfektiboaren gramatikalizazio iturburua lehenaldiko erresultatibo<sup>5</sup> bat izan zen: lehenaldiko partizipioa + *izan/edun*-en Iragana. Gaur egun, euskarak badauka beste forma berriago bat lehenaldiko erresultatiboa adierazteko: alegia, *etorria zen*, *ekarria zuen*. Adizki berriago honek *-a* artikulua dauka partizipioari itsatsia, euskararen beraren eboluziotik auresan daitekeenez. Lehenaldiko erresultatibotik, aldaketa semantiko baten bitartez (seguruena, zabalkuntza semantikoaren bitartez: ikus Bybee et al. 1994: 68-69) pluskuanperfektura heldu zen gure adizkia.

Inguruko hizkuntza gehienak fase honetan geratu diren arren (gaztelaniaren *había hecho*, frantsesaren *avait fait*, ingelesaren *had done*, eta abar), euskara, ares-tian esan denez, oso aurrerakoa izan da honetan, eta beste aldaketa semantiko bat pairatu zuen. Lehenbizi, pluskuanperfektu tipikoak, bere eremua zabaldu eta, “bukaturiko marko tenporal” esanahia barneratu zuen (Dahl 1985: 147). Hauetako testuinguru batzuk badira adierazten Pluskuanperfektu baten bidez inguruko hizkuntzetan, batez ere italieraz (baina baita batzutan gaztelaniaz eta frantsesez). Alabaina, oro har, euskararen kasua askoz zabalagoa da gaztelania edo frantsesarena baino, eta baita italierarena baino.

Adibidez, “bukaturiko marko tenporal” etiketarekin ondoko ingurunea izendatu ohi da. Demagun argazki batean etxe bat ikusten dugula, baina badakigula gaur egun eraitsia dagoela. Orain, galdetu nahi badugu nork eraiki zuen etxe hura, lehenaldi perfektibo bat erabili behar dugu, baina perfektibo hau bukatutako marko tenporal baten barruan kokatzen da (cf. Dahl 1985: 147). Hizkuntza batzuk perfektibo tipikoa adierazten duen adizki bera erabiliko lukete hemen ere, baina beste hizkuntza batzuk pluskuanperfektu tipikoa adierazteko balio duen adizkia erabiltzen dute kasu honetan. Gaztelanian, esaterako, biak dira posible: *¿Quién construyó esta casa?* edo (beharbada, arruntago eta hobeto) *¿Quién había construido esta casa?* Horrela bada, testuinguru hau pluskuanperfektuaren zabalkuntza semantiko bezala uler daiteke. Dena dela, aurreko adibideak “alderantzikatutako egoera” bat adierazten du baita ere.

Italierak, ordea, “alderantzikatutako egoera” gabeko “bukaturiko marko tenporalak” adierazteko ere Pluskuanperfektua erabil dezake. Adibidez, demagun orain marrazki baten aurrean gaudela, eta adierazi nahi dugula nork eta noiz egin zuen marrazki hori. Marrazkia apurtuta balego, alderantzikatutako egoera bat izango litzateke, eta Pluskuanperfektuaren erabilera nahiko arrunta izango litzateke gaztelanian eta frantsesean, behintzat. Baina marrazkia apurtu gabe ere, italieraz (barietate batzutan bederen) ondoko hau esan daiteke: *quel disegno lo avevo fatto io il primo giorno che lavoravo all'istituto* ‘marrazki hori neuk egin nuen (Pluskuanperfektua) institutuan lan egiten nuen lehenengo egunean’. Kontuan hartu behar da egoera hau, alderantzikatua ez, baina amaitutako marko batean kokatzen dela, ulertzen baita narratzaileak ez duela dagoeneko institutuan lanik egiten.

Goian aipatutako inguruneak izan ohi dira pasabide bat behinolako Pluskuanperfektu bat “aspaldiko perfektibo” bezala erabil dadin. Euskara kenduta, Mende-

<sup>5</sup> “Erresultatibo” kontzeptua, eta beraz hura izendatzeko terminorik, ez dut inoiz ikusi euskarazko idazlanetan. Hortaz, ingelesezko kalkoa erabiltzen dut hemen (cf. Bybee et al. 1994: 54, 63-68).

baleko Europan ez dago holako adibiderik. Hortaz, euskara nahiko berezia eta aurrerakoa izan da honetan, inguruneko hizkuntzekin konparatuz. Hala ere, hindi-urdu, bengali, amarikoa eta armenierak, besteak beste, erakusten dute euskarak jasane duen eboluzio bera; hots, behinolako Pluskuanperfektua aspaldiko perfektibo bihurtzea (Comrie 1985: 69; Dahl 1985: 147).

#### 4.1. Aoristo Perifrastiko eta Iraganeko Perfektu-Perfektiboaren arteko lehia

Hauxe da, beraz, nik proposatzen dudana eboluzioa euskararen Iraganeko Perfektu-Perfektiboaren (*egin zuen* bezalako adizkien) esanahia azaltzeko: alegia, lehenaldiko erresultatibo batetik pluskuanperfektu batera; eta hemendik aspaldiko perfektibo batera, gaur egun adierazten duen esanahia, hain zuzen. Galdera da ea XVI. mendeko euskaran ba ote dagoen eboluzio horren aldeko ebidentziarik; hots, *egin zuen* bezalako formek ba ote daukaten pluskuanperfektuaren esanahia. Egia esan, 3. atalean aipatu dudanez, ez dago oso ebidentzia garbia horren alde. Aldiz, ematen du XVI. menderako hartua daukala Iraganeko Perfektu-Perfektiboak aspaldiko perfektiboaren adiera. Hortaz, Aoristo Perifrastikoa eta Iraganeko Perfektu-Perfektiboak testuinguru berdintsuetan erabil zitezkeen XVI. mendean zegoeneko.

Alabaina, Leizarragaren testua hartzen badugu kontuan, nahiz eta Iraganeko Perfektu-Perfektiboak perfektiboaren esanahia adieraz dezakeen, maiztasunari begira, oso gutxitan erabiltzen du Leizarragak adizki hori perfektibo adierazteko. Beraz, maiztasuna kontuan harturik, ematen du Aoristo Perifrastikoa dela ohikoena perfektibo espresatzeko Leizarragarengan. Orduan, zer adierazten du, gehien bat, Iraganeko Perfektu-Perfektiboak Leizarragaren testuan? Hiru adiera nagusi bide ditu adizki honek. Batetik, gaztelania zaharrean “Pretérito Anterior” zena; hau da, pluskuanperfektu antzeko adiera bat, baina perfektibo kutsuarekin, sekuentzia narratibo batean aurretikotasuna adierazten duena; hala nola, *Eta sarthu zenean Jesus Capernaumen, ethor zedin harengana zentener bat* (Mt 8, 5); hots, ‘Jesus Capernaumen sartu ondoren, zenturion bat etorri zen harengana’. Bigarren, badirudi Iraganeko Perfektu-Perfektibo erabiltzen duela Leizarragak perfektibo adiera espresatzeko, baina ez Jesukristoren garaiko kontakizunak egiteko (hauetarako Aoristo Perifrastikoaz baliatzen baita gehien bat), baizik eta amaitutako marko tenporal batean kokatzen diren kontakizunak egiteko. Adibidez, profeten garaian gertatutako ekintzak kontatzeko, Iraganeko Perfektu-Perfektibo erabil dezake Leizarragak; hala nola, *Jaunak profetaz erran ukhan zuena konpli ledintzat* (Mt 1, 22). Hirugarren, Iraganeko Perfektu-Perfektibo erabil dezake Leizarragak pluskuanperfektu antzeko adiera bat espresatzeko; adibidez, *Josefek egin zezan aingeruak manatu zeraukan bezala* (Mt 1, 24). Ikusten denez, hiru adiera hauek nahiko hurbil daude pluskuanperfektuaren esanahitik. Bestalde, esan behar da Iraganeko Perfektu-Perfektiboaren adibide gehienak mendeko perpausetan agertzen direla Leizarragarengan. Egia esan, gauzak konplikatuagoak dira esandakoa baino, zeren Iraganeko Perfektu-Perfektibo ez ezik, Perfektu-Perfektibo Bikoitza (ikus Mt 1, 22 aurreko adibidea) eta, batzutan, Oraineko Perfektu-Perfektibo ere erabiltzen baititu Leizarragak aipatutako testuinguruak adierazteko.

Leizarraga, dena den, autore bat da XVI. mendeko autoreen artean. Beste autoreengan gauzak ez bide dira hain garbiak, eta ikerketa gehiago egin beharko litzateke.

Etxeparek, adibidez, Iraganekoa ez ezik, Oraineko Perfektu-Perfektiboa erabiltzen du maiz perfektiboa adierazteko (ikus 5. atala). Edozein kasutan ere, aurreko datuek ebidentzia apur bat eskaintzen dute proposaturiko hipotesiaren alde. Hortaz, onar genezake Iraganeko Perfektu-Perfektibo (*egin zuen*) adizkiak garai zaharretan (XIV. mende aldera edo) pluskuanperfektua adierazten zuela, gero “bukaturako mar-ko tenporala” adierazteko erabiltzen hasi zela, eta azkenez, zabalkuntza semantikoaz, “aspaldiko perfektiboa” adierazten hasi zen. Horrela, perfektiboa adierazteko forma-rik arruntena bilakatu zen, Aoristo Perifrastikoa forma zaharra desplazatu arte.

XVI. mendean, Euskal Herri osoan gertatu zen ordezkapen prozesu hau nahiko aurreratua bide zegoen, baina ezberdintasun txikiak zeuden eremu batetik bestera. Euskal Herriko mutur bietako euskalkietan (bizkaiera mendebaldean, zuberera ekialdean) Aoristo Perifrastikoa geroxeago galdu bide zen erdiko euskalkietan baino. Hala-ber, beharbada autore batzuk (Leizarragak kasu) arkaizanteago jokatu zuten beste batzuk baino. Dena dela, Aoristo Perifrastikoaren ordezkapena euskalki guztietan gertatu zen fenomeno ia izan zen, nahiz eta, zoritxarrez, XVI. mendeko testuek oso modu partzial eta berantiarrean erakusten duten ordezkapen horren eboluzioa. Beste konplikazio bat da Aoristo Perifrastikoa ez zuela Iraganeko Perfektu-Perfektiboak soilik ordezkatu. Arestian aipatu bezala, Oraineko Perfektu-Perfektiboak ere parte garrantzitsu bat jokatu zuen ordezkapen prozesu honetan, baina, antza denez, hau bakarrik gertatu zen Euskal Herri Kontinentaleko euskalkietan, segidan ikusiko dugunez.

## 5. Oraineko Perfektu-Perfektiboa (*egin du*)

Goian aipatu denez, Oraineko Perfektu-Perfektiboa (*etorri da, etorri naiz, ekarri du, ekarri dut*), Iraganeko Perfektu-Perfektiboaren parean, Latin Berantiarren egitura erresultatiboa eredu harturik, Mendebaleko Europan zehar hedatu zen. Hortaz, Mendebaleko Europako hizkuntza nagusietan forma bera azaltzen zaigu, laguntzaileekin gertatu diren hautaketa ezberdinak gora behera. Hau da, formalki, *egin du = has done = ha hecho = ha fatto = a fait*, eta abar. Alabaina, esanahia kontuan hartzen badugu, ingelesaren Present Perfect (edo Perfect, besterik gabe), esate baterako, ez da frantsesaren Passé Composé-ren parekoa, ez eta gaztelaniaren Presente Perfecto-aren berdina.

Ingelesarenak (oraineko) perfektua adierazten du hertsiki; alegia, ez du lehenaldiko adberbio zehatzik edo deiktikorik onartzen: *I have never been there* ‘Hor ez naiz inoiz egon’; baina *\*I have woken up at 6 o'clock this morning / I woke up at 6 o'clock this morning* ‘Gaur 6etan altxatu naiz’. Frantsesarenak, ordea, askoz eremu zabalagoa betetzen du. Frantses mintzatuan, bederen, perfektibo orokorra adierazten du, adberbio deiktikoak onartuz. Are gehiago, lehenaldiko edozein adberbio onartzen du, ez bakarrik duela gutxiko gertakizun bat adierazten dutenak, hala nola *Napoléon est mort l'année 1821* ‘Napoleon 1821 urtean hil zen’. Italiaren kasuan ere (italiera mintzatuan behintzat) frantsesaren antzeko egoera daukagu. Gaztelaniaren Perfecto-a, aldiz, erdiko posizioan azaltzen zaigu. Ingelesarenak baino eremu zabalagoa du, batzutan adberbio deiktikorik onar baitezake, baina eremu murriztagoa dauka frantsesarena eta italiararenaren ondoan. Izan ere, gaztelaniaren Presente Perfecto-ak perfektuaz gain, “perfektibo hodiernal” adiera ere espresa dezake, hau



da egunaren barruan (edo astearen barruan, urtearen barruan) jazo diren gertakizunak kontatzeko erabil daiteke. Beraz, oraineko perfektuaren gramatikalizazio lerro (unidirekzionala) badagoela onartzen badugu, esan dezakegu ingelesa nahiko kontserbadorea izan dela honetan, frantsesa eta italiera oso aurrerakoia izan diren bitartean, eta gaztelaniak erdibideko eboluzioa jasan duela (gramatikalizazio lerro honetatik informazio gehiago jasotzeko, ikus bereziki Bybee et al. 1994: 68-69, 81-87). Hortaz, gaur egun, ingelesaren Perfect delakoak perfektua izaten jarraitzen duen arren, frantsesarena eta italierarena ez dira perfektuak, perfektiboak baizik (nahiz eta perfektu adiera ere barnean har dezaketen). Gaztelaniaren Presente Perfecto-a perfektua litzateke gehien bat, baina baita, esan bezala, perfektibo hodiernala ere.

Orain agertzen zaigun galdera ondokoa da: nolako joera diakronikoa izan du euskarak Oraineko Perfektu-Perfektiboaren esanahiari dagokionez? Iraganeko Perfektu-Perfektiboarekin bezain aurrerakoa izan da euskara? Aldiz, kontserbadoreago jokatu du kasu honetan? Nahiz eta gutxitan aipatu, galdera honen erantzuna ez da berdina Euskal Herri Penintsularrerako eta Euskal Herri Kontinentalerako. Euskal Herri Penintsularrean, Oraineko Perfektu-Perfektiboaren esanahia gaztelaniaren Perfecto-aren antzekoa da. Euskal Herri Kontinentalean, ordea, frantsesarenaren parekoa litzateke. Horrenbestez, Euskal Herri Penintsularreko Oraineko Perfektu-Perfektiboa perfektua da gehien bat, baina perfektibo hodiernala ere adierazten du. Euskal Herri Kontinentaleko Oraineko Perfektu-Perfektiboak, ostera, perfektibo orokorraren eremua besarkatzen du, perfektu adiera ere espresatzen duelarik.

Horrela bada, Lafittek (1962: 373) esaten digunez, nafar-lapurteraz posible da esatea *iaz egin genuen*, baina baita *iaz egin dugu*. Hau da, ez bakarrik Iraganeko Perfektu-Perfektiboa, baizik eta Oraineko Perfektu-Perfektiboa ere erabil daiteke aspaldiko perfektibo (ez-hodiernal) bat adierazteko. Kontuan hartu behar da bi forma hauen gramatikalizazio lerroek perfektiborantz eboluzionatzen dutela. Beraz, Euskal Herri Kontinentalean biak oso aurrerakoia izan direnez, biak etorri dira bat aspaldiko perfektibo adiera espresatzeko. Aldiz, ezinezkoa dena da Iraganeko Perfektu-Perfektiboak perfektu edota perfektibo hodiernal adierak espresatzea (adibidez, \**aurten egin genuen*), esanahi horiek ez baitira inoiz egon bere gramatikalizazio lerroaren barruan.

Errepikatu beharra dago, beraz, XVI. mendean, Euskal Herri Kontinentalean behintzat, aspaldiko perfektiboa adierazteko, Aoristo Perifrastikoaren (*egin zezan*) ordezkapen prozesuan Iragan Perfektu-Perfektiboak (*egin zuen*) ez ezik Oraineko Perfektu-Perfektiboak (*egin du*) ere hartu zuela parte. Etxeparek, kasu, *egin zuen* eta *egin zezan* (eta *zegien*) bezalako adizkiez gain, *egin du* bezalako adizkiak erabiltzen bide ditu perfektiboa adierazteko. Askotan ez da erraza jakitea *egin du* tankerako adizkiek benetako perfektiboa adierazten duten, baina batzutan inguruneak argitzen digu arazoa. Adibidez, *Hark [Jesukristok] erio haritu dik* 'hark heriotza hartu du' esaldia (Etx I, 43) uler daiteke problemarik gabe perfektu moduan, orainarekiko errelebantzia balu bezala, nahiz eta orain dela asko jazotako gertakizuna kontatu. Honek, beraz, ez digu argitzen perfektibo ala perfektu baten aurrean gauden. Alabaina, adibide honetan jarraitzen duen mendeko perpausak gauzak argitzen dizkigu: *Hark erio haritu dik, hiri leian bizia* '... , zuri bizia eman ziezazun'. Mendeko perpausak aspaldiko lehenaldiko esanahia adierazten du argiro. Hortaz, perpaus nagusiak ere perfektiboa adierazten du, ez perfektua; hots: 'Hark heriotza hartu zuen, zuri bizitza eman ziezazun'.

### 5.1. Esanahi ebidentzialik euskara zaharrean?

Amaitu aurretik, azken hausnarketa bat egin beharko genuke. Ikusi berri dugu, Euskal Herri Kontinentalean eta XVI. mendetik hasita, bai Iraganeko Perfektu-Perfektiboak nola Oraineko Perfektu-Perfektiboak biek adieraz dezaketela aspaldiko perfektiboaren esanahia. Orain plazaratu behar den galdera da ea, XVI-XVII. mendeetan behintzat, *egin du* formaren adiera perfektiboa berdina ala ezberdina zen *egin zuen* formaren adiera perfektiboarekin konparatuz. Aldai (2002) lanean proposatu nuen *egin du* eta *egin zuen* bezalako adizkien artean, beharbada, bazegoela diferentzia bat, biek adiera perfektiboa zutenean ere. Hango proposamenaren arabera, *egin du* formak adiera perfektiboa espresatzen zuen, baina narratzaileak berak ez-ikusitako gertakizun bat kontatzen zuenean, edota fikziozko egoera bat kontatzen zenean. Hau da, *egin du* adizkiak perfektibo ez-ebidentziala (ez-ikusia) adieraziko luke, *egin zezan* eta (geroago edo) *egin zuen* adizkiek perfektibo ebidentziala (narratzailea lekuko izanik) adieraziko luketen bitartean. Oraineko Perfektu batek balio ez-ebidentziala adieraztea nahiko arrunta da hizkuntzen artean. Izan ere, gertakizun bat presentziatzen ez denean baina bere emaitzagatik sumatu edo egiten denean, ohikoa da Oraineko Perfektu bat erabiltzea; hala nola: *Bart euria egin du, Lapurrek ostu dute koadro bat*.

Nik proposaturiko hipotesi hau datu gehiagoren aurka erkatu beharko litzateke. Ivan Tartasen *Onsa hilzako bidia* liburuaren sarrera hartzen badugu ikergai, adibidez, aurki dezakegu nola Tartasek lehenaldian gertaturiko amets bat kontatzen duen. Ametsaren kontakizun osoan zehar, hots, fikzioaz ari denean, Tartasek *egin dut* bezalako adizkiak erabiltzen ditu beti. Aldiz, ametsaren kontakizuna amaitutakoan, *inartzartu ninzan* forma erabiltzen du. Distribuzio hau, beraz, ebidentziala (*egin zuen*) vs. ez-ebidentziala (*egin du*) arteko kontraste baten alde egongo litzateke. Alabaina, esan bezala, testu gehiago ikertu beharko lirateke hipotesi hau neurtzeko asmoz.

### 6. Perfektu-Perfektibo Bikoitzak<sup>6</sup> (*egin ukan du, egin ukan zuen*)

Gure adizki zerrenda amaitzeko, aipatu beharra dago Perfektu-Perfektibo Bikoitzek ere paper garrantzitsua jokatzen zutela XVI. mendeko aditz sistema barruan, batez ere Euskal Herri Kontinentalean. Perfektu-Perfektibo Bikoitzek Perfektu-Perfektiboen egitura berbera daukate, baina *izan* edo *ukan* laguntzaileen partizipio estra bat gehitzen diote beren partizipio lexikalari. Horrela, Oraineko Perfektu-Perfektibotik, Oraineko Perfektu-Perfektibo Bikoitza daukagu: *egin du* → *egin ukan du*; *etorri da* → *etorri izan da*. Aldiz, Iraganeko Perfektu-Perfektibotik, Iraganeko Perfektu-Perfektibo Bikoitza daukagu: *egin zuen* → *egin ukan zuen*; *etorri zen* → *etorri izan zen*.<sup>7</sup>

Perfektu-Perfektibo Bikoitzek espresatzen dituzten adierak ez dira errazak jeneralizatzeke, ez euskara barruan ez hizkuntzen artean. Esan beharra dago, Europako

<sup>6</sup> Izen hau literatura tipologikoan erabilitako “double-compound forms” (cf. Squartini 1999) terminotik hartu dut; azken hau, aldiz, frantseseko “temps surcomposés” terminotik dator azken batean. Eta hau berau da Lafittek (1962: 386) erabiltzen duena.

<sup>7</sup> Geroago, XVII-XVIII. mendeen bitartean edo, *izan* laguntzailearen aldeko generalizazio bat gertatu zen, *ukan* laguntzailea aditz transsitibotik desagertuz. Hortaz, euskara modernoan *egin izan dut* eta *egin izan nuen* bezalako formak ditugu.

Mendebaleko Perfektuek eremuko fenomeno bat osatzen dutela esan badaiteke, arrazoi gehiagoz esan daitekeela gauza bera Perfektu Bikoitzei buruz. Izan ere, munduan zehar oso leku gutxitan gertatzen dira Perfektu Bikoitze hauek. Ondoko hizkuntzen gramatiketan, bederen, aurki daiteke Perfektu Bikoitzen berri: alemana (bereziki Suitzako alemana), frantsesa, okzitaniera, eta, jakina, euskaran, batez ere Euskal Herri Kontinentalean. Garbi dago hizkuntza horiek kontaktuan daudela elkarrekin, eta beraz pentsa daiteke dagokigun fenomenoaren eremu horretan zehar hedaturiko berezitasuna dela. Zorritarrez, esan bezala, Perfektu Bikoitzen erabilera ez dago oso ondo ulertua.

Litekeena da Perfektu-Perfektiboak semantikoki eboluzionatzerakoan, jatorrizko perfektu esanahiak galdu ahala, eta perfektibo adiera irabazi ahala, beste forma batzuk sortu zirela perfektuen adierak berreskuratzeko. Horrela, badirudi euskararen Iraganeko Perfektu-Perfektiboa pluskuanperfektu inguruko adierak galtzen joan zenez, Iraganeko Perfektu-Perfektibo Bikoitza hasi zela erabiltzen galdutako ingurune horietan, bereziki “*Pretérito Anterior*” bezala eta “*amaitutako marko tenporala*” adierazteko. Paraleloki, euskararen Oraineko Perfektu-Perfektiboa perfektiborantz eboluzionatu ahala, Oraineko Perfektu-Perfektibo Bikoitzeak berreskuratuko zituen jatorrizko adieretako zenbait, adibidez ez-ebidentzialarena. Alabaina, aurrekoari zuzen baderitzot ere, onartu behar da Perfektu-Perfektiboen eta Perfektu-Perfektibo Bikoitzen artean, askotan ez dela erraza ezberdintasun semantiko garbirik aurkitzea. Bestaldetik, Oraineko Perfektu-Perfektibo Bikoitza, Euskal Herri Penintsularrean, erabiltzen da gehien bat ohiko perfektuaren adiera espresatzeko; hau da, adierazteko lehenaldiko gertakizun habitual bat, orainarekiko errelevantzia daukana, hainbeste aldiz *gertatu izan dela*. Amaitzeko, Perfektu-Perfektibo Bikoitzeak erabiltzen dira, euskara modernoan, perfektuaren pasiba adierazteko ere.

Edozein kasutan, Perfektu-Perfektibo Bikoitzen azterketak ikerlan sakona mereziko luke.

## 7. Ondorioak

Lantxo honetan aurkeztu nahi izan ditut XVI. mendean perfektibo esanahia eta erlazonaturiko adierak espresatzeko euskarak erabiltzen zituen adizkiak. Lanean zehar ikusi denez, nahiko esparru konplexua zen XVI. mendean hemen ikertu dena. Lan honetan ezin izan ditut gai teorikoak sakonki aztertu, batez ere aldaketa semantikoen nondik norakoak. Alabaina, konklusio modura esan genezake, ikerturiko adizkien gramatikalizazio iturburuak eta gramatikalizazio lerroak ondo aztertu ezker, ez bakarrik XVI. mendeko egoera, baina gaurko aditz sistema ere askoz hobeto ulertu eta azal dezakegula.

Orokorrean, XVI. mendean azaltzen den egoera forma zahar baten (biren) ordezkapen prozesuan datza. Baina, batetik, ordezkapen prozesu hau ez da forma bateraezinen artean ematen den berehalako sustituzio bat, baizik eta, gehiago, forma zaharkitu baten desplazamendua, antzeko esanahia (baina ez erabat berdina) daukaten forma berri batzuk hedatzen direnean. Bestetik, forma zaharra desplazatzen duten forma berriak bat baino gehiago dira, ez bat bakarra (nahiz eta hauen artean Iraganeko Perfektu-Perfektiboa garrantzitsuena bide den). Hortaz, ikertu beharra dago forma hauen guztien artean dauden berdintasun eta ezberdintasunak, alde sinkroniko zein diakronikotik, euskalkiak ere kontuan harturik (batik bat, Euskal

Herri Kontinental eta Penintsularraren artean dauden diferentziak), eta bai alde formala zein semantikoari erreparatuz.

Bereziki ikertu nahiko nituzkeen puntuak ondoko hauek lirateke: a) ea Aoristo Perifrastikoa eta Iraganeko Perfektu-Perfektiboaren artean distribuzio semantikoren bat suma daitekeen (adibidez, “Pretérito Anterior”, “bukaturiko marko tenporala”, eta abar), XVI. mendeko autore guztietan berdina datekeena (batez ere Lazarraga eta Leizarragaren testuetan); b) ea Oraineko Perfektu-Perfektiboan (eta beharbada bere kide Bikoitzean) ez-ebidentzialtasun adiera suma daitekeen, fikziozko egoeretan ere erabil litekeena, behintzat Euskal Herri Kontinentaleko testuetan. Ikerketa hauek, aipatu beharra dago, maiztasun kontaketat eta portzentaia esanguratsuetan oinarritu beharko lirateke, ez nahitaz erabateko oposizioetan.

### Erreferentziak

- Aldai, G., 1994, “Euskal aditz sistema zaharraz: aspektu oposaketatik modu oposaketara”, *Enseiukarrean* 10, 67-82.
- , 1998, “A propósito del aoristo vasco”, *FLV* 30, 377-86.
- , 2000, “Split ergativity in Basque: the pre-Basque antipassive-imperfective hypothesis”, *FLH* 21, 31-97.
- , 2002, *The grammaticalization of present and past in Basque*. Doctoral dissertation. University of Southern California.
- Bybee, J., 1985, *Morphology: A study of the relation between meaning and form*. Amsterdam / Philadelphia: John Benjamins.
- & Ö. Dahl, 1989, “The creation of tense and aspect systems in the languages of the world”, *Studies in Language* 13: 51-103.
- , R. Perkins & W. Pagliuca, 1994, *The evolution of grammar: Tense, aspect and modality in the languages of the world*. Chicago / London: University of Chicago Press.
- Comrie, B., 1976, *Aspect: An introduction to the study of verbal aspect and related problems*. Cambridge, UK: Cambridge U.P.
- , 1985, *Tense*. Cambridge, UK: Cambridge U.P.
- Dahl, Ö., 1985, *Tense and aspect systems*. Oxford / New York: Blackwell.
- Euskaltzaindia, 1987, *Euskal gramatika. Lehen urratsak - II*. Bilbao: Euskaltzaindia.
- Hopper, P. & E. Traugott, 1993, *Grammaticalization*. Cambridge, UK: Cambridge U.P.
- Lafitte, P., 1962, *Grammaire basque: navarro-labourdin littéraire*. 2<sup>nd</sup> edition. Ber-inprimatua 1979 urtean, Donostia / Baiona: Elkar / Ikas.
- Lafon, R., 1943, *Le système du verbe basque au XVI<sup>ème</sup> siècle*. 2 liburuki. Ber-inprimatua 1980 urtean (liburuki bakarrean), Donostia: Elkar.
- Larramendi, M., 1745, *Diccionario trilingüe del castellano, bascuence y latín*. 2 lib. San Sebastián: Bartolomé Riesgo y Montero.
- Lightfoot, D., 1999, *The development of language: Acquisition, change, and evolution*. Malden / Oxford: Blackwell.
- Squartini, M., 1999, “On the semantics of the Pluperfect: Evidence from Germanic and Romance”, *LT* 3, 51-89.
- Trask, R. L., 1997, *The history of Basque*. London / New York: Routledge.
- Zavala, Juan Mateo, 1848, *El verbo regular vascongado del dialecto vizcaino*. San Sebastián: Imprenta de Ignacio Ramón Baroja.

# ¿VASCUENCE EN LA INDIA DRÁVIDA?

José Andrés Alonso de la Fuente

(Universidad Complutense de Madrid - UPV/EHU)

## 1. Introducción<sup>1</sup>

Dada la peligrosa tendencia que se ha venido registrando durante los últimos años en lo que respecta a la búsqueda de parientes lingüísticos del eusquera, euskara, vascuence o vasco, como se prefiere, este breve trabajo no puede comenzar sino negando cualquier tipo de intención para con el descubrimiento de pistas que lleven, directa o indirectamente, hasta los antepasados lingüísticos de esta antiquísima lengua peninsular.<sup>2</sup> En esta tesitura, es imperioso aclarar el contexto del título,

---

<sup>1</sup> Me gustaría expresar mi más sincero agradecimiento a los profesores Joseba Andoni Lakarra e Iván Igartua por haber leído, comentado y corregido una versión previa de este escrito. Por supuesto cualquier error queda bajo mi entera responsabilidad.

<sup>2</sup> Como fácilmente puede suponerse, el vasco ha sido relacionado con las lenguas drávidas en más de una ocasión. Aunque Trask (1997: 358-429) ofrece una panorámica más o menos completa de las propuestas que buscan solventar la cuestión de los orígenes lingüísticos vascos, la familia drávida sólo aparece citada cuando se menciona el nombre de Roslyn Frank (1980). Para ejemplificar la situación que vive la comunidad académica vasca vinculada a estos asuntos, puede comentarse que esta autora, Frank, relaciona entre otros latín FOCUS ‘chimenea’, de etimología desconocida, con vasco *su* ‘fuego’. Para ello, necesita establecer un puente semántico de unión y recurre a palabras indoeuropeas para ‘sol’, p.ej. latín SŌL, y para ‘sudor’, sin ir más lejos español *sudor*, que según la autora derivaría de vasco *\*su da* ‘es fuego’. El análisis, por supuesto, es erróneo, ya que no está sujeto a ninguna regla gramatical del vasco y es puramente *ad hoc*. Por si esto fuera poco, Frank menciona una raíz homónima *su-* en las lenguas drávidas y comenta que éstas, al no ser indoeuropeas, al menos conformaron “[...] the background in which Sanskrit developed” (*apud* Trask 1997: 378), por lo que diversos cambios de significado pudieron acontecer durante el período de contacto y formación entre éstas y el sánscrito. Sea como fuere, lo más parecido a *\*su-* que puede encontrarse en la familia drávida es por ejemplo tuŕu *tũ* ‘fuego; brillante, fiero’. Sin embargo, la palabra habitual para fuego deriva de una raíz proto-drávida *\*kic-* ‘fuego’, que genera tamil *kiclu*, kannada *kicc/u*, *kirc/u*, tuŕu *kitt/tu* ‘relámpago’, telugu *ciccu*, kolami, olari *kis*, naikri *kicc*, naiki, parji *kic*, konami *sis/u*, malto *cic/u* (DEDR 1514). Entre las grandes ausencias de Trask, destacan sobremanera los fantasiosos estudios de Federico Krutwig Sagredo (1921-1998), entre otros su monografía *Garaldea* (1978), y los no menos imaginativos de Nicolas Lahovary, cuya prolijidad (Zvelebil 1970: 21, n. 31) es tan acentuada como el silencio en el que sus propuestas se han sumido. Lahovary cree haber descubierto un vínculo genético no sólo entre las lenguas drávidas y el vasco, sino entre éstas y otras variedades del Mediterráneo. Zgusta y Zvelebil (1961: 130) comentaron en una ocasión que «[...] some degree of first-hand knowledge is absolutely necessary for a work based on comparison of different elements. If one does not possess at least

por cuanto que malas intenciones o incómodas costumbres adquiridas podrían conducir a erróneas y precipitadas conclusiones.<sup>3</sup>

Si bien es cierto que se ha descrito la presencia de pequeños, y no tan pequeños, grupos poblacionales vascos en prácticamente todos los rincones del mundo,<sup>4</sup> no menos lo es el hecho de que la India ha sido visitada en contadísimas y brevísimas ocasiones, menos su parte meridional, donde se localizan las lenguas drávidas, sin duda debido a circunstancias de muy diverso orden. No sería extraño que en este preciso instante la pregunta con la que se abre el escrito resultara aún más confusa: si hay dificultades para documentar la presencia física, prolongada o no, de vascos en la India, ¿cómo es posible que se pretenda siquiera plantear la observación de elementos lingüísticos? Por supuesto, a esta cuestión podría responderse de muchas maneras. De hecho, seguro que términos como ‘préstamo’ o ‘interferencia lingüística’ ya han calmado la inquietud de algunos. Por desgracia o por fortuna, ni el préstamo ni la interferencia lingüística serán los temas de este trabajo, sino la amplitud y diversidad de conocimientos en el arte de las lenguas que un obispo exhibió durante su estancia en la localidad india de Tinnevely, hace más de un siglo y medio.

---

some knowledge of the things compared, the comparison may be absolutely grotesque». Otro excelso dravidólogo, Bhadriraju Krishnamurti, calificaba el trabajo de Lahovary como “[...] a colossal adventure in ‘time’ and ‘space’” (2001: 119). Dados los antecedentes, que no son pocos, se confirma nuevamente una perogrullada como que el vasco y las lenguas drávidas no guardan ninguna relación, al menos genética. No obstante, y teniendo en cuenta las últimas tendencias en lingüística histórica, no está de más aclararlo y subrayarlo. En lo que atañe a la visión particular de los dravidólogos, en general muy recelosos para con otras hipótesis que excedan el límite geográfico y lingüístico de Asia Central, Austerlitz (1971), Krishnamurti (2003: 43-47) y Zvelebil (1990, 1991) mencionan el vasco muy de pasada, en ocasiones simplemente como elemento enumerativo. Hasta la fecha ningún especialista en estas lenguas ha elaborado trabajo alguno sobre la conexión vasco-drávida, y no parece que vaya a elaborarse en un futuro próximo.

<sup>3</sup> Al hilo de lo comentado en la nota primera, la literatura vasca también cuenta con un partidario ilustre y optimista en cuanto a la vinculación de los términos “eusquera” e “India”. Como cabría esperar, se trata del escritor vasco-francés José Agustín Chaho (1810-1858). Criticado contundentemente ya por Miguel de Unamuno (1864-1936) en su tesis doctoral (1958), pero corroborado en su momento por el padre Fidel Fita en su discurso de recepción en la Academia de la Historia de Madrid (1879), la hipótesis vasco-aria no ha pasado desapercibida a lo largo de estos años y como consecuencia de ello, está en el origen de algunos episodios más célebres y curiosos de la historia de la lengua vasca, como por ejemplo el calificativo de “hegeliano” que Tovar (1980: 183-184) dio a la recién mencionada crítica de Unamuno, donde el escritor vasco comentaba que Chaho únicamente estaba comparando términos reales con algunos trascendentales.

<sup>4</sup> Existen varias obras imprescindibles sobre los vascos en el mundo, p.ej. Sayas Abengoechea (1994). América ha sido sin duda el lugar por antonomasia de los vascos y su papel como balleneros en Alaska pervive en la memoria de muchas generaciones de historiadores. En este sentido, el libro de Arana Pérez (1990) es una lectura obligatoria. En cuanto a relaciones lingüísticas vasco-“indias”, que también las ha habido, puede citarse uno de los testimonios más tempranos, el caso del jurisconsulto de la audiencia de Lima, pero español de nacimiento, Diego Andrés Rocha (¿1615?-¿?), que defendía en su tratado *El origen de los indios* que una de las pruebas más contundentes en cuanto al origen español (sí, sí, español) de los indios americanos era la similitud que se hallaba entre algunas palabras vascas e “indias”, p.ej. vasco *gache* - *gacha* ‘sal’ vs. “indio” *machar*, *liñua* ‘lana’ vs. *millua*, *vura* ‘agua’ vs. *jurac* ‘blanco, a imitación del agua’ (Alcina Franch 1988: 83-84).

## 2. Robert Caldwell, lenguas drávidas y lingüística comparada

En 1856 Robert Caldwell (1814-1891), obispo de Tinnevely, una pequeña población de habla tamil situada en la gran región de Madras, publica *A Comparative Grammar of the Dravidian or South Indian Family of Languages*,<sup>5</sup> obra que marca los inicios de la filología drávida o dravídica. La importancia y calidad de este trabajo supera con mucho cualquier estudio inaugural en el campo de la lingüística indoeuropea, la austronesia o la urálica. De hecho, estas disciplinas deberán esperar algún tiempo para que vean la luz trabajos comparables, aunque nunca alcanzarán las implicaciones que en su momento tuvo la aparición de la obra de Caldwell. Krishnamurti y Zvelebil coinciden en que, dadas las herramientas de la época, no se podría haber hecho mejor.<sup>6</sup> Y no es para menos, ya que gracias a los conocimientos que poseía tanto en lenguas drávidas como indo-iránicas, pudo demostrar que las primeras constituyen una familia independiente que nada tienen que ver con el sánscrito y que poseen una tradición y una historia propias. En esta misma obra, además, se emplea por vez primera el calificativo de drávida < *drāvida-*, palabra que en sánscrito significa ‘tamil’, referido a estas lenguas en cuestión.

Resultaría excesivamente tedioso, a la par que innecesario, enumerar todas y cada una de las novedosas ideas que Caldwell expone en este magnífico volumen. Ni siquiera haciendo una selección de las más destacadas se podría evitar la redacción de un extenso artículo. Sin embargo, al menos una de ellas debe ser descrita para la correcta comprensión del estudio que aquí ocupa. En esta ocasión no se trata del excelente magisterio exhibido por Caldwell en lo que a lenguas drávidas se refiere, sino a la inclusión de una ingente cantidad de material lingüístico proveniente de otras familias, a cada cual más diversa, con el objetivo de poder explicar desde el mismísimo principio los fenómenos lingüísticos que atañen a la familia drávida.<sup>7</sup> No importa si hay o no hay vinculación genética de por medio —algo sobre lo que el propio Caldwell siempre hace espacial hincapié—, lo importante es obtener un modelo paralelo que sirva para resolver un problema estrictamente drávida. Si además se localiza una prueba potencial que resuelva el origen genético de las lenguas drávidas, mucho mejor, pero en Caldwell no hay ningún tipo de búsqueda compulsiva que le lleve a forzar el material o destruir una base filológica tan particular y magnífica como la disponible en el caso de la lingüística india. Desde las indoeuropeas hasta las chukotko-kamchatkas, pasando por las semíticas, túrcicas o urálicas, estas dos últimas englobadas dentro de las que Caldwell, aunque de prestado,<sup>8</sup> denominaba “lenguas escitas”, todas tienen cabida. Y entre ellas precisamente se contará el vasco, para el que por supuesto también hay un lugar reservado.

<sup>5</sup> Aparecerá una segunda edición en 1875, revisada y ampliada por el propio Caldwell, y una tercera en 1913, ésta revisada y editada por el reverendo J. L. Wyatt y el académico T. Ramakrishna Pillai. La versión empleada para este artículo corresponde a la segunda reimpression de esta última (Asian Educational Services, New Delhi and Madras 1998).

<sup>6</sup> Véanse entre otros Krishnamurti (2001: 102) y Zvelebil (1970: 13-14).

<sup>7</sup> Caldwell se refiere a este material mediante las expresiones “extra-Dravidian affinities” o “extra-Dravidian relationship”.

<sup>8</sup> Caldwell reconoce utilizar el término tal y como lo hace Rasmus Rask (1913[1998]: 61-62).

Aquí debe ser donde la pregunta formulada nada más comenzar este estudio quede finalmente resuelta.

### 3. El vasco, las lenguas ‘escitas’ y el comparativismo a larga distancia

La lengua vasca aparece citada únicamente en dos ocasiones. Sin embargo, ambas poseen una significación especial.

#### 3.1. Vasco *ne* o *ni*

En la primera de ellas vasco *ne* o *ni* ‘yo’ aparece como comparanda en la sección dedicada al sistema pronominal (Caldwell 1913[1998]: 382). Caldwell, en uno de los pocos puntos donde incurre en error, considera que todos los pronombres de primera persona drávidas derivarían de una forma original *nâ*, *yâ* o *â* (Caldwell 1913[1998]: 371), siendo la primera la que más parecía convencerle, ya que pese a la existencia de tamil *yān* o tulu dialectal *yāni*, el resto de lenguas presenta una estructura *Vn*. Esto le da pie para insertar multitud de pronombres en otras lenguas del ámbito euroasiático que en efecto reflejan una nasal dental como consonante principal. Estudios posteriores demostrarán que la reconstrucción proto-drávida presenta *\*yān*: *\*yan-* ‘yo’ (DEDR 4234), siendo el fonema nasal la marca correspondiente de singular, en oposición a *\*yām*: *\*yam-* ‘nosotros’ (DEDR 4231), donde la nasal bilabial desempeña funciones de plural.<sup>9</sup> Con independencia de lo descrito para el caso drávida, el material vasco se resiente aún en el ámbito formal. Resulta obvio que *ni* ‘yo’ es la forma regular del pronombre personal vasco, pero *ne* debe ser el pronombre intensivo *neu* ‘yo (mismo)’ < *ni* ‘yo’ + *hau(r)* ‘este’, también *nihaur*, o *nerau* < *nihaur* ‘mío’ + *hau(r)*. Lo más lógico es pensar que toma la forma *neu*. Esto, por supuesto, siempre y cuando no se trate de una información errónea obtenida a través de alguna fuente poco fiable. En cualquier caso, puede descartarse con total tranquilidad la variación dialectal, ya que no se tiene testimonio de ninguna alternancia *ni* ~ *ne*. Por lo tanto, debe tratarse del pronombre de persona intensivo *neu*.<sup>10</sup> A lo meramente formal súmense algunos problemas metodológicos. Algunos autores como Lyle Campbell han observado que el uso de palabras fonéticamente breves aumenta el número de probabilidades de dar con efímeras y desgraciadas casualidades, es decir, de fallar a la hora de establecer lazos de unión genéticos.<sup>11</sup> Por esa razón, suscribe Campbell, dichos segmentos deben ser excluidos de la comparación, al menos en las primeras etapas de investigación.<sup>12</sup> Al margen de comenta-

<sup>9</sup> Entre otros Zvelebil (1977: 37). De todas formas Caldwell estaba sobre la pista de estas marcas morfológicas (1913[1998]: 370).

<sup>10</sup> Hualde y De Urbina (2003: 152-54). La sección dedicada a la descripción morfológica nominal (sustantivos, pronombres, determinantes, nombres propios y otros modificadores) de esta importante gramática vasca corre a cargo del homenajeado Robert L. Trask.

<sup>11</sup> Entre otros Campbell (1988, 1994, 1999a: 322; 1999b: 199; 1998: 125) o Igartua (1996).

<sup>12</sup> Algunos autores, como Blažek (1999/2000: 99-100), opinan en tono casi indignado que juicios como los de Campbell son algo excesivos, ya que “[t]he first pioneers in the Indo-European linguistics (e. g. Bopp) started just from the gramatical morphemes. The reserve of the author to



rios ceñidos al material, gracias a la comparación de los pronombres es posible saber que Caldwell consideraba al vasco, pese a su localización geográfica, como una lengua “escita”, o al menos es lo que se deduce del único contexto utilizable:

In a few of the Scythian languages, the isolated pronoun, including its nominative, seems to be almost identical with that of the Dravidian family -e.g., *na* in the Quasi Qumuk, a Caucasian dialect; and *ne* in Motor, a dialect of the Samoiede; *na* or *nai* in Corean; *ne* or *ni* in Basque (Caldwell 1913[1998]: 382).  
[Texto normalizado. Nota del autor]

Esto contradice diametralmente lo que Caldwell comenta en las páginas introductorias al respecto de cómo empleará el término “escita”.<sup>13</sup> Quizá la misma vaguedad que reconoce el autor le haya empujado a colocar allí, como si de un cajón de sastre se tratara, al vasco por su condición de lengua aislada. Sea como fuere, se trata de una mera especulación que jamás podrá ser resuelta.

### 3.2. Vasco *iri*

La segunda aparición de material vasco no es menos significativa. El sustantivo *iri* ‘ciudad’ (Caldwell 1913[1998]: 613), que se compara con tamil *ūr* ‘pueblo, ciudad, villa’<sup>14</sup> y con las formas semíticas del hebreo *ār* o *’r* ‘ciudad’, babilonio *er*, asirio *uru* y acadio *’uri*, siempre en terminología del propio Caldwell, es acreedor de una extensa bibliografía, así como las palabras semíticas, dada la problemática que envuelve a estos términos. Por su parte, tamil *ūr*, exactamente ‘aldea, poblado’, deriva de proto-drávida \**ūr-* ‘aldea’ > tulu *ūru*, kannada *ūr*, malayalām *ūr*, kota, toda *ūr*, telugu *ūru*, kolami *ūr* ‘aldea’, *ūran* ‘aldeano’, naikri, naiki *ūr* (DEDR 752), brahui *ur-ā* ‘casa, esposa’ (DEDR 698).<sup>15</sup>

La palabra *iri*, en la traducción de Caldwell ‘ciudad, pueblo, aldea’, pero a juzgar por lo toponimia algo mucho más reducido como un pueblecito o un agrupamiento de pocas casas, es uno de esos no muy numerosos términos vascos que pueden ras-

---

pronominal stems is rather excessive. With his logic we cannot connect, e. g. Latin *tū*, German *du* and Russian *ty*, because they are too short and too frequent in many world’s languages”. Esta crítica no ha lugar ya que la comparación indoeuropea se ha visto sustentada *a posteriori*, es decir, hay un sistema que se sostiene sin necesidad de la similitud pronominal, mientras que en el caso de propuestas hechas en el ámbito de la comparación a larga distancia la gran mayoría se ha quedado en la fase de similitud pronominal, sin dar el paso siguiente de confirmación.

<sup>13</sup> Caldwell (1913[1998]: 61-62): “In using the word ‘Scythian’, I use it in the wide, general sense in which it was used by Rask, who first employed it to designate that group of tongues which comprises the Finnish, the Turkish, the Mongolian, and the Tungusian families. [...] The term ‘Scythian’ having already been used by the classical writers in a vague, undefined sense, to denote generally the barbarous tribes of unknown origin that inhabited the northern parts of Asia and Europe, it seemed to me to be the most appropriate and convenient word which was available”.

<sup>14</sup> Caldwell utiliza el diacrito <^> para notar la longitud vocálica.

<sup>15</sup> La aparente distancia semántica entre brahui y el resto de lenguas drávidas permite recordar un hecho bien sabido entre los especialistas, y es que algunas etimologías del DEDR necesitan ser revisadas con urgencia, ya que en muchos casos existe una confusión obvio en la configuración de algunas etimologías, algunos de cuyos cognados pueden ser redistribuidos o simplemente eliminados (Vacek 1999). Brahui *ur-ā* podría ser uno de ellos.

trearse hasta el mismo aquitano, en cuyas inscripciones aparece el nombre de una divinidad, ILIXONI [deo], cuyo formante primero es obviamente *iri*, pero con un lateral en vez de una vibrante. La análisis morfémico del nombre parece más o menos claro: ILI- + -(s)xo- (diminutivo en vasco moderno -txo?) + -o-n-is, sufijos habituales en la formación de nombres tanto de persona como de dioses, p.ej. *Arixoni* frente a *Arixo* o *Ilurberrixo*[i] frente a *Ilurberrixo*. La posibilidad de rastrear desde tan antiguas fechas permite observar con más naturalidad algunos fenómenos diacrónicos del vasco, como la evolución de proto-vasco \*-l- o -l- en vasco antiguo a -r- en algunas variedades modernas.<sup>16</sup> Así, a vasco antiguo *ili* y *uli*, esta última con disimilación vocálica *ili* > *uli*, p.ej. en *Ulibarri*, le siguen vasco moderno central y oriental *iri* y vasco oriental *uri*, p.ej. en los topónimos *Zeanuri* o *Basauri*.<sup>17</sup> En ambos casos está documentada una variante con aspiración inicial, resultando *hiri* o *huri*.<sup>18</sup> La relevancia del término *iri* < \**ili* es inmensa, ya que en su momento fue identificada satisfactoriamente<sup>19</sup> con el *Ili-* de muchos topónimos prerromanos, p.ej. *Iliberris*, que se extiende no sólo a lo largo de la Península Ibérica, sino también por el sur de Francia.<sup>20</sup> Por desgracia para Caldwell, su etimología se ve abocada al fracaso puesto que la forma más antigua resulta ser *ili*, que ya obviamente no casa de ninguna forma posible con el resto de cognados citados por el obispo de Tinnevely. Llama poderosamente la atención el hecho de que Caldwell, dado el ambiente religioso en el que se movía, no viese una comparación que resulta más obvia y jugosa que las anteriores: latín *urbs*, *urbis* 'ciudad'. Aunque la etimología de esta palabra es oscura, algunos autores como Walde ya la habían relacionado con el propio vasco, en su variante *uri* e incluso con el sumerio /*uru*/, cuya importancia se verá a continuación.<sup>21</sup>

<sup>16</sup> Este cambio fonético de hecho produce una de las alternancias más curiosas de la lengua vasca, p.ej. *euskara* 'lengua vasca' frente a *euskaldun* 'persona que habla vasco' o *Euskal Herria* 'País Vasco', *zamari* 'caballo' ← latín *sagmarius*, frente a *zamaldu* 'jinete' (Trask 1997: 143-44) o *gari* 'trigo' frente a *galbabe* 'cadazo'. Recuérdese, además, que proto-vasco \*-L- generaría vasco moderno -l-, p.ej. \**iLun* > *ilun* 'oscuridad', ya en préstamos *gatzelu* 'castillo' ← CASTELLU frente a (*h*)*aizkora* 'hacha' ← ASCIOLA.

<sup>17</sup> La utilización de esta palabra, en concreto de esta forma dialectal, ha deparado igualmente episodios memorables de la historia de la lengua vasca. El erudito abogado Andrés de Poza (?-1575) propuso en una ocasión que la etimología de Asturias era vasco *aztu* 'olvidar' + *uri* 'pueblo', basándose en el hecho de que supuestamente en aquella comunidad autonómica española hay muchos pueblos fantasma (Trask 1997: 50).

<sup>18</sup> El origen de *hiri* podría explicarse a través de una etimología interna \**her* 'cerrado' + participio -i > *hiri*. Otra posibilidad, menos plausible, sería considerar un proceso análogo con *herri* 'país, tierra; gente, nación, pueblo'. En cualquier caso, hasta que no se aporten más datos, *h-* debe ser considerado un fonema original y no secundario.

<sup>19</sup> En palabras del propio Trask: "[...] which everyone is happy to identify with the element [...] found in so many town names in the Roman period" (1997: 143).

<sup>20</sup> Gorrochategui (1984: 332-33). Ya en Hervás se comparaba erróneamente *iri* - *uri* con el elemento -*briga* presente en multitud de topónimos españoles. Esta idea fue esbozada por el historiador vasco Estaban de Garibay (1533-1599), a quien se le atribuyen otras etimologías, p.ej. entre el monte armenio de Ararat y el vasco Aralar o el río Araxes, situado en el Cáucaso, con el río vasco Araiça u Orío, sin duda ambas influenciadas por el tubalismo (Tovar 1980: 49).

<sup>21</sup> Walde (1982, II: 839). El autor considera que la forma latina derivaría de ide. \**urd<sup>h</sup>is*, presente en sánscrito *várđhati*, avéstico *verōdaiti*, *verōdayeite*, lituano *vir̃bas* e incluso latín *verbēna*. En un momento dado se llega a citar antiguo eslavo eclesiástico *gradъ* < proto-eslavo \**gordъ* y lituano

El material semítico es si cabe algo más problemático, puesto que las circunstancias que envuelven los testimonios de esta familia no acaban de aclararse, debido en esencia al confuso papel que desempeñan las formas sumerias /iri/, /iri<sup>ki</sup>/, /iri<sub>11</sub>/ (estas tres lecturas pueden estar reflejando igualmente /eri/), /uru<sub>2</sub>/, /uru<sub>11</sub>/, todas con el significado de ‘ciudad’,<sup>22</sup> algo confirmado por la traducción acadia *ālu* ‘id’.<sup>23</sup> El principal problema viene dado por la consideración y el estatus que han venido mereciendo las formas semíticas. Hasta hace relativamente poco tiempo se postulaba la existencia de una lengua intermedia para explicar determinadas palabras sumerias que no se consideraban nativas. Dado el testimonio semítico, una de ellas era ‘ciudad’. Con el paso de los años los especialistas se han mostrado cada vez más reticentes a aceptar la existencia de una lengua de substrato cuya conservación, siquiera rastro, es por completo inviable, a excepción de las palabras que precisamente la originan, pero que se encuentran localizadas en léxicos ajenos.<sup>24</sup> El panorama se ha aclarado bastante gracias a un magnífico trabajo del sumerólogo Gonzalo Rubio, quien demuestra que las palabras que supuestamente deberían venir de esa lengua intermedia de substrato son palabras nativas sumerias, préstamos del semítico o *Kulturwörter*. De hecho, Rubio considera que las palabras sumerias referidas a ‘ciudad’ o *vel sim* antes comentadas son un préstamo de las voces semíticas (Rubio 1999: 7, n. 13).

Por lo tanto, Caldwell escogió una de tantas palabras viajeras, cuya presencia en multitud de lenguas no se explica por origen genético, sino por difusión. Aun así, resulta muy complicado por el momento discernir cómo un prototipo \*/VrV/ ‘ciudad’ pudo llegar hasta el vasco, si bien para las lenguas drávidas parece más sencillo.

#### 4. ¿Qué fuentes empleó Caldwell?

El fondo bibliográfico del que debía disponer Caldwell tuvo que ser ciertamente amplio y surtido. Con toda seguridad mantenía una profusa correspondencia con otros orientistas afincados en la India, así como con otros académicos de la talla de Friedrich Max Müller (1823-1900) o Franz Bopp (1791-1867). Si no es a través de estos intermediarios, resulta francamente complicado imaginar como Caldwell llegó a hacer acopio de semejante biblioteca. En este sentido, aunque el material vasco no es excepcionalmente extenso, hay cierto margen para divagar acerca de las fuentes empleadas por el autor para obtener información de esta lengua. La fecha

---

*gārdas*, y plantea la posibilidad de derivar latín *urbs* de \**g<sup>h</sup>or-d<sup>h</sup>o-s*, cuando lo normal es considerar *hōrtus* ‘jardín’ como la derivación natural de esa raíz (Watkins 2000<sup>2</sup>: 30). Por su parte, Ernout y Meillet (2001[2002]: 754) se limitan a las formas latinas y no arrojan nada de luz sobre el tema.

<sup>22</sup> El término en cuestión también está documentado en compuestos: /iri<sub>2</sub>-bad<sub>3</sub>/, /uru-bad<sub>3</sub>/ ‘ciudad alta’, /iri-bala/ ‘ciudad rebelde’ o /iri-tus/ ‘ciudad populosa’.

<sup>23</sup> Incluso en una herramienta tan elemental para la etimología semítica como el diccionario de Klein aparece citada la conexión con el sumerio (1987: 470).

<sup>24</sup> Véase un alegato a favor en Bauer (1999: 436) y otro en contra Michalowski (2005). A modo de curiosidad, Igartua (1999) trata una cuestión de detalle en relación al concepto de sustrato y una posible etimología para vasco *gorosti*, en tanto en cuanto se vincula con sardo *golostrì* y ruso *xvorost*. Por supuesto, la conclusión que alcanza el autor aleja convincentemente la forma eslava de las dos precedentes y da cierta credibilidad al sustrato que explicaría las similitudes y diferencias entre las palabras vasca y sarda.

de la primera edición de su gramática comparada, 1856, y de la segunda, 1875, ediciones en las que Caldwell tuvo plena participación, permiten manejar un amplio abanico de posibilidades.<sup>25</sup> Manuel de Larramendi (1690-1766) ya ha publicado la primera gramática y diccionario de la lengua vasca. No obstante, el trabajo está en español, y dadas las informaciones que ya se han comentado en otro lugar sobre el empleo del español por Caldwell (Alonso de la Fuente 2006), es fácilmente deducible que no habrían sido de mucha ayuda para el obispo. El trabajo de Pedro Antonio de Añibarro (1748-1830) no sería publicado hasta principios de 1960, con lo que también puede descartarse como fuente para Caldwell, así como cualquier conocimiento, siquiera de pasada, sobre el astaríoismo.<sup>26</sup>

Diferente es la situación de Joseph-Dominique Garat de Ustaritz, que publicaría un artículo en 1785 en la *Encyclopédie méthodique*. Si bien este artículo no fue consultado con seguridad por Caldwell, o si lo fue no emplea lo que viene en él, sí pudo ser el punto de arranque, ya que a partir de éste Wilhelm von Humboldt (1767-1835) comenzaría sus investigaciones sobre el vasco, publicidad ésta suficiente para que el artículo de Garat de Ustaritz se convirtiese en trabajo de referencia. Dadas las aparentemente magníficas relaciones de Caldwell con Müller y Bopp, ambos de procedencia alemana como von Humboldt, no sería descabellado pensar que consiguió los datos a través de alguno de ellos, bien con su libro (Humboldt 1821[1959]), bien mediante notas de otros autores. La investigación de Humboldt no fue especialmente profunda, lo cual queda refrendado en el estudio de Caldwell.

El último gran vascólogo al que pudo tener acceso Caldwell es Louis Lucien Bonaparte (1813-1891), que en 1858 publicaría *Le Verbe basque*. Bien es cierto que durante la segunda parte del siglo XIX aparecerían multitud de gramáticas vascas completas, así como diversos diccionarios; sin embargo, es casi imposible que Caldwell tuviera acceso a las obras de Arturo Campión, Jean Ithurry o Maurice Harriet. Además, la primera gramática vasca escrita en inglés no aparecerá hasta 1883, a cargo del gran lingüista holandés W. J. van Eys, y en caso de haberse hecho con una copia del *Manuel de la langue basque*, publicado en 1826 por Fleury Lélouche,<sup>27</sup> es obvio que habría sido incluido algo más de material vasco. Además, dado el ávido interés de Caldwell por el origen de las lenguas, no parece lógico que otras obras de Lélouche, como *Sur l'origine de la langue basque* (1830), hayan pasado desapercibidas, tal y como ha sucedido.

Es prácticamente imposible saber con certeza cuál o cuáles fueron las fuentes vascas empleadas por Caldwell. El hecho de citar *iri*, y no *uri*, *huri* o *hiri*, denota que la fuente consultada utilizaba formas vascas centrales y occidentales. Sin embargo, ese dato no resulta ser de mucha ayuda, ya que disquisiciones dialectales a este nivel tendrían que esperar unos cuantos años.<sup>28</sup>

<sup>25</sup> Obviamente la opción de un informante nativo queda descartada de antemano.

<sup>26</sup> Trask (1997: 52) y especialmente Tovar (1980).

<sup>27</sup> Sobre esta obra en concreto véanse los trabajos de Lakarra (1987) y Lakarra y Urgell (1988), que entre otras incluyen la reedición de la misma.

<sup>28</sup> Por ejemplo, Hugo Schuchardt (1842-1927) aprendió vasco en la ciudad de Sara, en Lapurdi (País Vasco francés), lo que implica dialecto oriental y por lo tanto nada que ver con las formas (*h)iri* - (*h)uri*. Sea como fuere, Schuchardt está eliminado por cuestiones cronológicas, ya que el lingüista nacido en Gotha no se interesaría por el vasco hasta 1887 (Trask 1997: 58).

## 5. Conclusión

Sería muy injusto no aclarar que Caldwell en ningún momento pretende demostrar o solucionar el asunto relativo a los orígenes lingüísticos del vasco, a diferencia de otras lenguas. La prueba más clara radica en el hecho de que el material vasco aparece usado en la sección dedicada al estudio de semejanzas entre las lenguas drávidas y las semíticas. Tan poca es la confianza que dicha comparación inspira a Caldwell que el autor comenta:

The number of such words in the Dravidian languages is not great; and it might be objected that in attempting to establish the existence of this class of affinities, in addition to affinities of the Indo-European and Scythian classes, I prove nothing by attempting to prove too much. I answer, that I do not attempt to establish anything or to prove anything. I content myself with adducing facts. I submit to the reader a list of words which exhibit some interesting points of resemblance between the Dravidian vocabulary and the Hebrew. I am doubtful whether any of those resemblances is of such a nature as to furnish evidence of relationship, but I am not doubtful of the desirableness of giving them a place in this list. They will serve at least to show whether further investigation in this direction is likely to be rewarded with important results or not. In some of the instances which will be adduced, the Semitic words appear to resemble Indo-European words, as well as words belonging to the Dravidian languages; but it will be found that the Dravidian analogies appear in general to be closer than the Indo-European, and it is for that reason that the words are inserted in this list rather than in the preceding one. In some instances, again, the only resemblances to the Semitic words are such as are Dravidian.

If the existence of Semitic affinities in the Dravidian languages could be established, it would not be possible to explain those affinities by supposing them to have been introduced by the Jews who have settled on some parts of the Malabar coast; for the Jews, whether “black” or “white,” have carefully preserved their traditional policy of isolation; they are but a small handful of people at most; they have never penetrated far into the interior, even on the Malabar coast, whilst on the Coromandel coast, where Tamil spoken, they are entirely unknown; and the Dravidian languages were fully formed, and Tamil, it is probable, had been committed to writing, long before the Jews made their appearance in India. Whatever words, therefore, might appear to be the common property of Hebrew and the Dravidian languages, would have to be regarded wither as indicating an ancient pre-historic intermixture or association of the Dravidians with the Semitic race, or rather perhaps as constituting traces of the original oneness of the speech of the Noachidæ (Caldwell 1913[1998]: 605-606). [Texto normalizado. Nota del autor]

La figura de Caldwell demuestra que la sapiencia desmedida en una materia no implica ni muchísimo menos la competencia en otras. Caldwell, al menos, se muestra desde un principio honesto con respecto a sus investigaciones. El vasco de nuevo confirma su papel estelar entre las lenguas aisladas y su presencia en tratados de temática dispar, muy a menudo exótica. No obstante, es posible extraer alguna

conclusión del análisis de los vocablos vascos, ya que aunque estas comparaciones se hicieron hace casi siglo y medio, mantienen su vigencia en el plano de los errores metodológicos. Aunque resulte sorprendente, las mismas inconveniencias que se han detectado en los procedimientos de Caldwell siguen registrándose hoy en día. En este caso concreto han sido la no viabilidad comparativa de determinados elementos léxicos de brevedad fonética marcada, p.ej. pronombres o desinencias morfológicas, así como el desconocimiento o no aprovechamiento de las fuentes propias de cada lengua. Sin conocer el aquitano, sería muy complejo, si no imposible, alcanzar la conclusión de que *uri* y sus variedades derivan de \**ili*.

Por el momento, en la carrera por averiguar de dónde viene el vasco parece llevar la delantera el recientemente desaparecido Robert L. Trask, quien se plantea la pregunta existencial de si en efecto esta lengua viene de algún lado (Trask 1999: esp. 157-63). Sea como fuere, las opciones vasco-aria o vasco-drávida no parecen ser las mejores a seguir.

## Abreviaturas

DEDR - Burrow, T. y M. B. Emenau, 1984, *A Dravidian Etymological Dictionary*, 2.<sup>a</sup> ed. revisada. Oxford: Clarendon Press.

## Bibliografía

- Alcina Franch, J. (ed.), 1988, *El origen de los indios*. Madrid: Historia 16.
- Alonso de la Fuente, J. A., 2006, "Sobre la presencia de la lengua castellana en una obra cumbre del siglo XIX sobre indología", *Revista de Filología de la Universidad de La Laguna* 24, 25-36.
- Arana Pérez, I. (ed.), 1990, *Los vascos y América*. Madrid: Espasa Calpe.
- Austerlitz, R., 1971, "Long-range comparisons of Tamil and Dravidian with other language families in Eurasia", en R. E. Asher (ed.), *Proceedings of the Second International Conference-Seminar of Tamil Studies*, 2 vols. Madras: International Association of Tamil Research, vol. 1, 254-61.
- Bauer, J., 1998, "Der vorsargonische Abschnitt der mesopotamischen Geschichte", en J. Bauer, R. K. Englund and M. Krebernik (eds.), *Mesopotamien: Späturuk-Zeit und Frühdynastische Zeit*. Freiburg/Göttingen: Universitätsverlag/Vandenhoeck and Ruprecht, 429-585.
- Blažek, V., 1999/2000, "Review of *Nostratic. Sifting the Evidence*. Edited by J. C. Salmons and B. D. Joseph", *Philologica Fenno-Ugrica* 5-6, 93-105.
- Caldwell, R., 1913[1998], *A Comparative Grammar of the Dravidian or South Indian Family of Languages*. New Delhi and Madras: Asian Educational Services.
- Campbell, L., 1988, "Review of *Languages in the Americas*, by Joseph H. Greenberg", *Lg* 64, 3, 591-615.
- , 1994, "Problems with the Pronouns in Proposals of Remote Relationships among Native American Languages", en M. Langdon (ed.), *Proceedings of the Meeting of the Society for the Study of the Indigenous Languages of the Americas and the Gokan-Penutian Workshop*. Berkeley: University of California, 1-20.

- , 1998, “Nostratic: A Personal Assessment”, en J. C. Salmons y B. D. Joseph (eds.), *Nostratic. Sifting the evidence*. Amsterdam and Philadelphia: John Benjamins, 107-52.
- , 1999a, *Historical Linguistics. An Introduction*. Massachusetts: The MIT Press.
- , 1999b, “Nostratic and linguistic palaeontology in methodological perspective”, en C. Renfrew y D. Nettle (eds.), *Nostratic: Examining a Linguistic Macrofamily*. Cambridge: The McDonald Institute for Archaeological Research, 179-230.
- Ernout, A. y A. Meillet, 2001[2002], *Dictionnaire étymologique de la langue latine*. Paris: Klincksieck.
- Frank, R. M., 1980, *En torno a un mito: el euskara y el indoeuropeo*. Donostia: Hordago.
- Gnana Giri Nadar, K. C. A., 1982, *A Statement in Tamilo-european Linguistics in the Matter of Greek and Latin Words of Tamil Origin*. Madurai: K. C. A. Gnana Giri Nadar.
- Gorrochategui, J., 1984, *Estudio sobre la onomástica indígena de Aquitania*. Bilbao: Universidad del País Vasco.
- Hillyer Levitt, S., 2000, “Some More Possible Relationships Between Indo-European and Dravidian”, *JIES* 28, 3-4, 407-38.
- Hualde, J. I. y J. O. de Urbina (eds.), 2003, *A Grammar of Basque*. Berlin: Mouton de Gruyter.
- Humboldt, W. von, 1821[1959], *Primitivos pobladores de España y lengua vasca*, trad. F. Echevarria. Madrid: Minotauro.
- Igartua, I., 1996, “Sobre el factor de la casualidad en la comparación lingüística”, *ASJU* XXX, 1, 99-125.
- , 1999, “Eusk. *gorosti*, sardinierazko *golostri*, eta errusiar *xvorost*. Ohar etimologikoa”, *ASJU* XXXIII, 2, 453-62.
- Klein, E., 1987, *A comprehensive etymological dictionary of the Hebrew language for English readers*. Jerusalem: The University of Haifa.
- Krishnamurti, Bh., 2001, *Comparative Dravidian Linguistics*. Oxford: Oxford U.P.
- , 2003, *The Dravidian Languages*. Cambridge: Cambridge U.P.
- Krutwig Sagredo, F., 1978, *Garaldea*. San Sebastián: Txertoa.
- Lakarra, J. A., 1987, “Lécluse-ren euskal gramatika. Euskalaritzaren Historiarako Lanabesak I”, *ASJU* XXI, 3, 813-916.
- , y B. Urgell, 1988, “Lécluse-ren hiztegia. Euskalaritzaren Historiarako Lanabesak II”, *ASJU* XXII, 1, 99-211.
- Michalowski, P., 2005, “The Life and Death of Sumerian Language in Comparative Perspective”, *Acta Sumerologica*, en prensa.
- Michelena, L., 1977<sup>2</sup>, *Fonética histórica vasca*. San Sebastián: Publicaciones del Seminario Julio de Urquijo.
- Rubio, G., 1999, “On the alleged pre-Sumerian substratum”, *Journal of Cuneiform Studies* 51, 1-16.
- Tovar, A., 1980, *Mitología e ideología sobre la lengua vasca*. Madrid: Alianza.
- Sayas Abengoechea, J. J., 1994, *Los vascos en la antigüedad*. Madrid: Cátedra.
- Trask, R. L., 1997, *The History of Basque*. London and New York: Routledge.
- , 1999, “Why should a language have any relatives?”, en C. Renfrew y D. Nettle (eds.), *Nostratic: Examining a Linguistic Macrofamily*. Cambridge: The McDonald Institute for Archaeological Research, 157-76.
- Unamuno, M. de, 1958, “Crítica sobre el origen y prehistoria de la raza vasca”, en *Obras completas*. Tomo 6, *La raza y la lengua*. Madrid: Afrodísio Aguado, 87-142.
- Vacek, J., 1999, “Tamil Etymological Notes 1”, *Journal of Dravidic Studies* 8, 2, 133-45.

- Walde, A., 1982, *Lateinisches etymologisches Wörterbuch*, 2 vols. Heidelberg: Winter.
- Watkins, C., 2000<sup>2</sup>, *The American Heritage Dictionary of Indo-European Roots*. Boston: Houghton Mifflin.
- Zgusta, L. y K. Zvelebil, 1961, «Review of four works by N. Lahovary», *Archiv Orientální* 29, 127-30.
- Zvelebil, K., 1970, *Comparative Dravidian Phonology*. The Hague and Paris: Mouton.
- , 1977, *A Sketch of Comparative Dravidian Morphology. Part One*. The Hague and Paris: Mouton.
- , 1990, *Dravidian Linguistics: an Introduction*. Pondicherry: Pondicherry Institute of Linguistics and Culture.
- , 1991, “Long-range language comparison in new models of language development: the case of Dravidian”, *Journal of Dravidic Studies* 1, 1, 21-31.



# NAFARRERAZKO «ROMANCE BAZQUENZE A LA DEUOCION DE MARIA SANTISSIMA» (1656)

Fidel Altuna Otegi

(UPV/EHU)

## 0. Sarrera\*

Bonaparte, Vinson, Dodgson, Urquijo eta beste hainbatek bazterrak ondo miatuta utzi zituztenez geroz, inor gutxik pentsatuko du, honezkero, euskarazko liburu zahar ezezagunik aurkitzea posible denik.<sup>2</sup> Badirudi Elsoarena bezalako lanak agertzea ere ez litzatekeela gutxi, eta konforme ginatekeela horrekin, edo, are gehiago, oraintxe bertan gustora egingo geniokeela uko balizko inpreso zahar ezezagunen bat aurkitzeko aukera hipotetikoari, baldin eta, hipotesi horiek ahazte aldera, aditzez baino ezagunak ez diren eta galdutzat jo ohi ditugun lan inprimatuak —edo horietarik batzuk— aurrean jarriko balizkigute. Euskarazko inpreso zahar ezezagunik aurkitzeko aukerak hain urriak direlarik, izan ere, egindako truke horretan irabazten aterako ginateke, ene aburuz, eta saria izateko aukera gehien duen loteria txartelari atxikiko genioke.

Zeharka bezala eta honen edo haren aipamenen bitartez ezagutzen ditugun lan horietako bat aurkitzea ere ez delarik, bada, ahuntzaren gauerdiko eztula, euska-

---

\* A. Ibisateri eskerrak eman nahi dizkiot testu honen berri eman didalako, eta artikulua osatzeko behar nuen edozein datu edo laguntza, txikiena ere, emateko bere esku zegoen edozer egiteko beti prest agertu zaidalako. I. Camino, J. I. Hualde eta J. Lakarrari ere eskerrak ematen dizkiet, halaber, testuari buruz beren iritzia emateko hartu duten betagatik. Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Espainiako Zientzia eta Teknologia Ministerioaren bi proiekturen laguntza izan du egileak artikulua hau gauzatzeko: «Tradición clásica y textos vascos» EHU 00106.130-HA-8117/2000 eta «Monumenta linguae vasconiae» MCYT 00033.130-14505/2002 (2002-05 bitarteko epean garrantzia, 2005-08 bitartean jarraipena daukana).

<sup>1</sup> Moldeko letretan ezarritako testuez ari gara, jakina, desberdina baita kontua aspaldiko inprenta zahar haietako batera iritsi ez ziren izkribuen kasuan. Lazarragarena bezalako muturreko adibideetara iritsi beharrik gabe, ehundaka euskal testu lotan dautza agiritegi eta liburutegietan, beren garaia noiz iritsiko: XVIII. mendearen bigarren erditik aurrerakoak dira gehienak, baina badira zaharragoak ere; erlijio testuak eta batik bat sermoiak dira nagusiki, baina erlijioz landa bestelako gaiak ere lantzen dituzte. Euskarazko literaturaren historian hirugarren edo laugarren mailako garrantzia duten testuak izan ohi dira baina tartean ez da arraroa izaten egile ezagun honen edo haren testuren bat agertzea, hala nola artikulua honen egileari behinola agertu zitzaion bizkaitar klasiko baten testu ezezaguna. Halakoetan, baina, aurkitzaile horri komeni zaio delako klasiko horren ordena bereko ezein aitajauni aurkikuntzaren berri ez ematea eta testua paretako zuloren batean gordetzea, bestela gerta baitakioke argitaratzeko asmotan zebilen testu hura aipatu aitajaun horrek atera duela ikustea, eta, deskuidatuz gero, aurkitzaile abixatu gabe horrek berak utzitako transkripzioaz baliatuz gainera.

razko testu zaharrak aurkitu nahi dituen edozeini ezingo genioke ziurtatu lantegi erraza suertatuko zaionik. Eredu elkor samarra dirudi. *Refranes y Sentencias* bezalako liburuak, hau da, zatika baino ezagutzen ez ditugunak osatzeari buruz ere beste hainbeste esan dezakegu: garestiak daudela halako balentriak. Ezagunak diren liburuen edizio galduak aurkitzeak, aldiz, ez du beharbada hainbesteko garrantziarik, ez behintzat aurreko kasuek duten adinakorik; Etxepareren bigarren edizio galdua eskuratzea adibidez, ez litzateke, dena dela, inportantziagatik ez ezik baita zailtasunaren aldetik ere, lorpen makala.

Denboran gure garaiotara gerturatu ahala testuen bilaketa lan hori erraztu egingen dela pentsa genezake. Gipuzkerazko XVIII. mendeko panoramari begiratu bat ematen badiogu, adibidez —bibliografia aldetik ezagunena zaidan eremu eta garaia aipatzearren—, Kardaberazek 1744an argitaratu zuen lehen liburu haren ale bakar eta ez osoa dugularik, eskertzekoa litzateke hura osatuko zuen beste aleren bat agertzea. Antzeko zerbait esan daiteke ezagunak izan arren edizio galdu bat edo beste duten lanei buruz. Adibidez:

- a) Alkizako Juan de Irazuak 1739an —Hernialden erretore zegoela— dotrina bat argitara zuelarik, 1742an ateratako bigarren edizioan aldaketak zirela badakigu (Irazuak berak eginak izan daitezke): *Pascoa* (33) > *Pazcoa* (33), *certaz* (18) > *certzaz* (00), *cerren* (49) > *ceren* (49), *egunoroco* (03) > *eguneroco* (00), etab. Aditzetan bada zenbait aldaketa deigarriago: *diozcatzu* (1739: 25) > *diuzcatzu* (1742: 26), *dator* (1739: 41) > *diatorde* (1742: 41), etab. Bigarren edizio honen ale bakarra zirudiena, Berlingoa, 1945az geroztik galduz jatzat jotzen delarik, baina, aldaketa horiek noraino iristen ziren ezingo dugu jakin beste alerik agertzen ez den bitartean.<sup>2</sup>
- b) «Franciscu Xavier Láriz apaizac» Donostian argitara zuen lehen aldikoz bere dotrina, 1757an, eta hamasei urte geroago, 1773an, Madrilén atera zuen bigarren edizio elebiduna, euskaraz eta gaztelaniaz. Bigarren edizioa oso ugaria den bitartean, badirudi lehen edizioko alerik ez dela aurkitzen, eta donostiar batek idatzitako testu zahar bakan horietako bat delarik, eta gainera, testu gutxitan bezala, azentua markatu izana posible denez, lehenengo edizio horrek izan zezakeen zer erakutsia. Gogora dezagun, horrekin lotuta, 1773an dotrina «lendaníc landuagoa ta ascoz gueiagotua» argitara zela portadan esaten zaigunez.<sup>3</sup>
- c) Hirugarren Pedro Joseph de Aldazaval y Murguia Debako apaizak idatzitako lanetako baten kasua ere aipa dezakegu. Bederatziurrena argitara zuen, 1768an, Itziarko Ama Birjinaren omenez, baina lehen edizio honen alerik ez dugu eta bai, ordea, 1790eko bigarren edizioko hiruzpalau. Hizkuntza aldetik izan lezakeen interesa ikusirik —*Jesusa* 'Jesus' (17), *jaquiunde* 'jakinduria'

<sup>2</sup> Dodgsonen liburuxka bat erabili dugu bigarren edizioaren datuak eskuratzeko (Dodgson 1901).

<sup>3</sup> Gipuzkoako Artziprestazgo Nagusiak Astetearen itzulpen berri baten bi edizio atera zituelarik, 1867 eta 1879an, Larizen lehen edizioa erabili omen zuten esku artean itzulpen horretaz arduratu zirenek (Gorostegui & Zelaya 1881: 13). Bigarren edizioari dagokionez: Láriz, Francisco Xavier de, 1773, *Cristau dotrinaren explicacioa. Explicacion de la doctrina cristiana*, Madril, Antonio Sancha.

(07), *epeñi* ‘ipini’ (05), *zidin* ‘zedin’ (09), *aguiz* ‘hagitz’ (30), *ziutzun* ‘zizkizun’ (22)...— mereziko luke lehen edizio hura eskuratzea, izan ere, aurreko zerrendan tartekatuta gipuzkera zaharreko zenbait ezaugarri daudelarik, baliteke lehen edizio hartan ezaugarri horiek ugariagoak izatea.<sup>4</sup>

Hauetako bat edo beste agertzeari, bada, litekeena deritzogu eta merezi luke hango edo hemengo liburutegiak hauen bila arakatzea. Baliteke, ordea, lehenago aipatu dugun euskal testu zaharren alegiazko gure ehiztari horrek, egonarri gutxikoa delako edo, arrakasta ziurragoa nahi izatea. Zerbait egin al lezake? Baietz dirudi. Halakoentzat ehiza leku aproposa izan daitezke, esate baterako, ospakizun eta festa zenbait aitzakiatzat hartuta garai batean ohikoak izan ziren poesia bildumak.<sup>5</sup> Nagusiki erdaraz idatzita egon ohi diren arren sarritan gertatzen da —ospakizun edo festa horrek zuen garrantzia eta hedaduraren erakusgarri— bestelako hainbat hizkuntza ere agertzea, eta halakoetan, hizkuntza «bitxiak» daudenean, euskarak ere bere tartea izaten du batzuetan.<sup>6</sup> Euskarazko testu zaharrak aurkitzeko aukera handiago horren trukean, dena dela, zenbait gauzari uko egin behar izaten zaio zerga moduan edo: aurkitutako testua laburra izango da, ezinbestez, eta gehienetan, gainera, hobe izaten da kalitate kontuez ahaztea. Baina baliteke testuak ezusteko bat edo beste ekartzea ere: Larramendiren poesia baten edizio ia ezezagun batekin topo egin daiteke, edo hizkuntzaren aldetik harribitxi bat edo beste aurkitu.

Orrialde hauetara dakargun testuak ere poesia bilduma horietako batean du, hain zuzen, jatorria, Ama Birjina Sortzez Garbia ospatu eta goratzeari eskainitako liburu batean.<sup>7</sup> Bartzelonan 1656an argitaratua da eta oraintxe arestian aipatu

<sup>4</sup> Aldazaval y Murguia, Pedro Joseph de, 1790, *Ama Virgina Santissima Yciarcuaren bederatzi urrena*, Tolosa, Fermin Huarte. Bigarren edizio honen azalean aipatzen da lehen edizioa.

<sup>5</sup> Artikuluaren hasieran esan den bezala euskal bibliografiaren alorra aspaldi xamarretik landua izan delarik, izan ere, osoki euskaraz idatzitako testu luze edo liburuak baino errazagoa baita, gaur egun, poesia bilduma horien tankerako erdarazko testuetan txertaturiko euskal testu zaharrak aurkitzea, gogoan izanik, hori bai, beti ere inprimatutako testuez ari garela, eta ez bestelakoez. Cf. 1. oharra.

<sup>6</sup> Mitxelena *TAV*en horrelako lau testu badakartza: «Poesías premiadas en Pamplona en 1609» (111), «Poesía premiada en Pamplona en 1610» (118), «Elogio de Fabri de Peyrasc» (131), «Elogio fúnebre de Felipe IV» (136). Zerrenda horretan jada halako testuek jorratu ohi dituzten bi gai nagusiak ageri zaizkigu: erlijioaren ingurukoak ditugu batetik, eta bestetik, berriz, pertsonaia ezagunen bizitza eta heriotzari dagozkionak. Horrelako idazlanek, bestalde, poesia lanak ez ezik, egin dako festen prosazko deskribapen edo sermoi distiratsuak ere izaten dituzte gehienetan, baina horiek, nonbait, eginkizun serioagotzat zituztenez, gatzelania edo latina erabili ohi zuten halakoetan.

<sup>7</sup> Gasteizko Apaizgaitegiko A. Ibisate izan da testu honen berri aurkitu eta guri helarazi diguna. Ibisatek espainiar literaturaren bibliografia bateko gaikako aurkibidean topatu du arrastoa «poesías en idioma vasco» aipamenari jarraituz. Bibliografian euskarazko testua daraman liburua deskribatzen da eta hor diren poesia gutzieren zerrenda eskaintzen: 33-34. zenbakiak hartzen dituzte euskarazko poesiak eta beronen itzulpenak. Francisco Bustamante ematen zaigu hor euskal testuaren egileztat eta liburu bereko poesien zerrendan egile beraren beste bi erdarazko konposizio ere badirela ikus dezakegu: «Glosa» (7. zb.), «Siguidillas» (36. zb.). Cf. Simón Díaz 1992: 86-88. Bibliografia honen egileen aurkibidean aurrekoek gainera egile beraren beste lan bat ere badator: 1652ko soneto bat erdaraz. Cf. Simón Díaz 1992: 167-68. Azkeneko honen aipamen zaharrago bat ere badaukagu, 1653ko beste erdal soneto batekin batera, bibliografia beraren beste ale batean, eta egileari buruz bertan zera irakur dezakegu: «Comisario de muestras de la Artillería del ejército de Cataluña». Cf. Simón Díaz <sup>2</sup>1973: 700.

diren patroï nagusi horiei erantzuten diela esan daiteke: orrialde pasatxo baino ez du hartzen luzeraz, eta literatur kalitatearen aldetik ere eskas eta lander ageri zaigu.<sup>8</sup> Egilearen aldetik eta hizkuntzari dagokionez ere ezer gutxi du aipagarri, eta, beraz, garrantzi handirik gabeko testua dela esan genezake.<sup>9</sup> Zernahi gisaz ere, XVII. mendeko euskal testu zahar baten aurrean gaudenez, dataren ezaugarri horrengatik besterik ez bada ere uste dugu «romance bazquenze» honek merezi dukeela ezaguna izan dadin, eta horrengatik ekarri dugu omenaldi liburu honetara.

## 1. Liburua

Bartzelonan 1656an argitaratua da euskarazko poesia hau daraman liburua, lehenago ere esana dugunez, eta azalean izenburu hau darama: *Iusta poetica consagrada a las festivas glorias de Maria en su Immaculada Concepcion, mantenida en la parroquial iglesia de Santa Maria del Mar de la ciudad de Barcelona. Relacion de las sumtuosas fiestas que esta ilustre parroquia hizo en honrosas memorias de tan soberano misterio*. Kataluniako hiriburuan Ama Birjinaren Sortzezko Garbitasuna gaitzat hartuta antolatua zen norgehiagoka baten berri ematen zaigu, bada, eta aurkeztu ziren poesiak bildu eta eskaintzen zaizkigu. Francisco Modolell y Costa litzateke egile edo biltzailea, liburuaren azalean bertan esaten zaigunez.

Liburuaren azalean ageri diren izenen artean bada bat nabarmendu beharrekoa: Francisco de Orozco euskal jatorriko militarri dago eskainia poesia bilduma. Orozcotarrak, Bizkaitik aterata, Gaztelako Guadalajara inguruetan kokatu ziren aspaldian, XIII. mendean; Errekonkista deitu izan den prozesuan parte hartu zuten eta itzal handiko familia ziren gaztelauen erresuman. Francisco de Orozco Hondarribia 1638ko setiotik askatzen parte hartu zutenetakoa izan zen, besteak beste,<sup>10</sup> eta Bartzelona hartzea lortu zuelarik, 1652an, hiriaren konkistari buruzko liburu bat ere argitaratu zuela —edo ziotela— dirudi.<sup>11</sup> Kataluniako erregeorde izan zen bi garai-

<sup>8</sup> P. Urkizugan testu honi eta bere egileari buruzko aipamena dugularik, oraintxe esan berri denarekin bat dator testuaren literatur balio eskasa dela eta hor egiten den kritika zorrotza (2000: 179): «Se trata de un romance en honor de la Virgen, pero en el que faltan la rima, el ritmo y casi todo sentido poético». Eta Urkizuren lana aipatu dugunez, deigarria egiten da oso liburu honek euskal testuen historiarako garrantzia izan lezaketen eta niretzat behinik ezezagun diren hainbeste datu ekartzea. «Licenciado Portal» delakoaren aurkako prozesu horretatik, adibidez, 1610.ean argitara zen poesiaren egilearen jatorria ezagutu ote dezakegu? Cf. Urkizu 2000: 169. Are deigarriagoa, berriaz, Urkizuren liburuan —eta hau ez da lehen aldía— ezezagun edo ia ezezagun diren euskal testu zaharren berri aurkitu dugulako. Cf. Altuna 2001: 275 (11. oharra).

<sup>9</sup> Bartzelonan, hots, Euskal Herritik kanpora, argitaratua izatea ere bat dator testu mota hauekin gehien-gehienetan gertatu ohi denarekin. Ezaugarri honek, bistan denez, nahikoa zailtzen du euskal testu labor hauen bilaketa lana.

<sup>10</sup> Hernaniko nahiz Hondarribiako bertako agiritegietan aurki ditzakegu, adibidez, bizkaitar jatorriko militarra hemendik pasatu izanaren arrastoak («Badator» datu basearen arabera): «Hernanikoen konpainiak» Hondarribia askatzeko Orozcoren tertzioan eginiko lanaren ziurtagiria (1639), «Hondarribiako lagunak» Kataluniako gerran Orozcorekin zebiltzala dioen dokumentua (1642), etab. Orozcoren ondorengoak, gainera, Butroeko Jaun eta Aramaioko Konte tituluakin agiri zaizkigu —«Badator» datu base horren beraren arabera— XVIII. mendeko hainbat agiritan, Aramaio eta Mungia inguruetan ondasun ugariren jabe eta hainbat elizatako patroï izateaz gainera.

<sup>11</sup> Mortarako Markes zena Olias eta Mortarako Markes izatera pasatu zen ekintza honen ondorioz, Espainiako erregeak emandako titulu berria erantsi baitzion aitagandik jasoa zuenari.

tan —1650-1653 eta 1656-1659 bitartean— eta Francisco de Orozco bigarren aldiz erregeorde izendatu berria zen, beraz, liburu hau atera zenean. Milanen hil zen 1668an, bertako gobernadore karguan.<sup>12</sup>

Honelako lanetan ohi den bezala, liburuan bi zati nagusi ditugu: Ama Birjina Sortzez Garbiaren ohoretan egin ziren festen kontaketa, batetik (001-031); bestalde, ospakizun horien barne deitu zen poesia lehiaketaren gorabeherak (032-184). Lehiaketari dagokion bigarren zati honen barruan lehenik lehiaketa horren oinarriak datozkigu (032-046). Lehiaketak zazpi sail desberdin zituen eta gehieni jainko erromatarren baten izena jarri zitzaien: «Saturno», «Jupiter», «Luna», «Marte», «Mercurio», «Venus» eta «Apolo». Bosgarren sail horretan aurkeztu zen euskarazko erromantzea, oinarriek horretarako bidea ematen baitute (045):

### MERCURIO

Su eloquencia promete mas que mediana facundidad en la composicion de varias lenguas. Ablalas todas, que quien anda el mundo estafeta de nuevas viejas a de saberlas con perfeccion. Encargasele su officio, ausando con cuidado de la justa literaria a los estranjeros poetas, que como tales hablan peregrino. Daseles opcion del metro y asunto, con que sea de los del cartel, y la lengua no sea latina, española ò catalana. Premiara al mas elegante una pieça de valor de 8 escudos.

Lehiaketaren zatian, hurrena, lehiaketara aurkeztu ziren poesiak eskaintzen zaizkigu (047-135). «Mercurio» atalean, zehatzago, hiru poesia datozkigu: lehenbizi sail honetan irabazle gertatu eta ontzako urrea eraman zuen italierazko sonetoa (107), euskarazkoa eta bere gaztelaniarako itzulpena datoz hurrena (108-10), italierazko «otava» batzuk ditugu hirugarren (110-12). Frantsesez, hebreeraz eta Paraguaiko hizkuntza batean ere aurkeztu omen ziren poesia bana baina ez omen ziren onartu arrazoi desberdinak zirela bitarteko, lehiaketako epaileek ohar baten bidez azaltzen digutenez (113-14). Euskarazkoa ez ezik Francisco Bustamantek gaztelaniazko beste bi poesia ere bidali zituen, bestalde, lehiaketa horretara: «Saturno» atalean «Glosa III» (057-58), «Venus» atalean «Siguidillas» (114-17).<sup>13</sup>

Lehiaketaren zati hau amaitzeko, azkenik, aurkeztutako poesia lanei buruzko epaileen juzku eta iritzia datozkigu hitz neurtuetan (136-84). Bustamanteren poesiei buruz zati honetan diren lau aipamenetan lehena da deigarriena, erromantzeari buruz, eta, orokorrean, euskarari buruz eskaintzen digun iritziatik (161):

<sup>12</sup> Pertsonaia honen bizitzari buruzko datuen iturburua: *Espasa* s. u. *Orozco* (XL: 664-65). Interneteko honako bi helbideotan diren datuak ere baliatu ditugu gainera: «Marqués de Mortara» in [www.biografiasyvidas.com/biografia/m/mortara.htm](http://www.biografiasyvidas.com/biografia/m/mortara.htm) (Orozcori buruzko informazioa), «Los Orozco en la Alcarria conquense» in [www.alcarria.com/template\\_historias.cfm?key=226](http://www.alcarria.com/template_historias.cfm?key=226) (Orozcoren familiaren ingurukoa). Erabilitako iturriak ez datoz beti bat datu guztietan eta gure iritzirako egiantz gehien duena hautatu dugu halakoetan.

<sup>13</sup> Lehenago 7. oharrean aipatuak. Modolell y Costa liburua osatzeaz arduratu zen pertsonak lehiaketak zituen atal guztietara —lehiatzeko asmorik gabe bada ere— aurkeztu zituen poesiak ere badatuz liburuan, besteekin batera argitaratuak (052, 067, 089, 104, 110, 123, 124, 135).

El tercero fue admirado  
 Por lo nuevo y peregrino,  
 Pues siendo al fin bizcayno  
 Sin hierro alguno fue hallado.

Bien que los pies no ajustò  
 Con rigor mucho à su musa,  
 Mas desta falta le escusa  
 La aspereza en que nació.<sup>14</sup>

Gainerako hiru aipamenek ez digute inolako argibiderik eskaintzen euskarari buruz eta ez dago inolako notiziarik, halaber, egileari berari buruzkorik (163, 175, 183).<sup>15</sup>

Ediziorako erabilitako originalari dagokionez, «Catàleg Col·lectiu del Patrimoni Bibliogràfic de Catalunya» deritzon katalogoan bost aleren berri ematen da eta hauetako batetik lortutako kopia bat dira batik bat esku artean ibili ditugunak, Kataluniako Liburutegian den aletik ateratakoak. Montpellier-eko Émile Zola Mediatekako alearen eta Bartzelonako Unibertsitatean diren bi aletako baten kopia ere erabili ditugu. Azkeneko ale hau baliatu dugu zenbait zalantza argitu eta alderdi batzuk osatzeko.<sup>16</sup> Laugarren kopia bat ere iritsi dugu azken momentuan, eta berau da, gainera, aurreko kopiek baino kalitate hobea duelako, artikulua honetara facsimile gisa dakarguna (73-76).<sup>17</sup>

## 2. Francisco Bustamante

Lehenago 7. oharrean esan direnak dira egile honi buruz ezagutzen ditugun datu bakarrak, eta, funtsean, Urkizuren gorago aipatu lan horretan hango datuak errepikatu beste gauzarik ez da egiten (2000: 179). Bustamantek Kataluniako espainiar armadan kargu bat zuela dakigu ondorioz, eta, izenaz gainera, lanbidearen datu horixe da dugun berririk aipagarriena. Urkizuren iritzirako, bestalde, Isastiren liburuan ageri den itzultzaile batekin zerikusiren bat izan lezake poesiagileak. Isastiren aipu labur horretan zera irakur dezakegu (1850: 390):

<sup>14</sup> Euskararen poesiarako ezintasunarena garai hartan oso iritzi hedatua zen dirudienez, Iruñeko 1610. urteko sariketan ere ageri baita adibidez: «No hubo mas de un romance bueno en bascuence, y no me espanto, que es propio desta lengua faltar en romance» (Mítxelena 1964: 119 & Urkizu 2000: 168).

<sup>15</sup> Lehiaketara aurkeztu zirenen artean badira bi izen euskal jatorrikoak: Iuan Antonio Gonzales de Garnica (130, 178), Fray Ysidoro Azizaleta (133, 179). Lehenengo horren deiturak garai hartako erdal testuetan ohikoena zen idazkera islatzen du. Cf. Legarda 1954: 395. Bigarrenari dagokionez, Arizaleta bati dagokiola pentsa dezakegu.

<sup>16</sup> Honakoak dira hiru aleen signaturak: Biblioteca de Catalunya (F. Bon. 223), Médiathèque Émile Zola de Montpellier (V12082), Universitat de Barcelona (C-239/6/2-1).

<sup>17</sup> Laugarrena A. Ibisateren bitartez lortutakoa: Biblioteca Pública Episcopal del Seminario de Barcelona (849.9 Mod). Gasteizko Koldo Mítxelena Liburutegiko Lourdes Sáenz de Castillori eskerrak ematen dizkiet, eskerrik beroenak, ez bakarrik kopia lehenbailehen hel zitezen eginiko lanagatik, baizik eta aspaldiko urteotan handik eta hemendik era guztietako liburu nahiz bestelako dokumentuen kopia eskatu dizkiodan bakoitzean burutu duen lan bikainagatik, eta, horrezaz gain, zorretan nagokio, halaber, laguntza eske edo zerbaiti buruz galdezka joan natzaionero, endredo ugari sortuagatik eta makina bat atzera-aurrera eginarazi arren, beti eskaini didan abegi on, arreta eta, batez ere, pazientziagatik.

Martin de Bustamante, vecino de la villa de San Sebastian. Fué entretenido por Su Magestad por haberle servido de lengua en negocios de gran secreto, porque se vió en grandes peligros y escapó por su buena industria. Era natural del valle de Toronzos, de la casa de Guijas, en tierra de Burgos, de que sacó carta egecutoria. Sabia las lenguas francesa, inglesa y flamenca y otras. Murió en esta Córte por junio de 1621.

Irargiren datu basetik atera ditugun zenbait izen goiko honekin lotuta egon litezke beharbada, Donostiako hainbat pertsona ageri baita deitura honekin eta baita administrazioko goi kargu zenbait ere: Juan de Bustamante, Gipuzkoako Merio Nagusia (1555); Martin de Bustamante, Gipuzkoako Korregidorea (1595). Euskarazko testuaren hizkera, ikusiko dugunez, nafarra delarik, baina, Urkizuk —ezagutzen dizkiogun lanik gehienak erdaraz daudelako— «autor castellano» deritzon egile honek beste pertsonaia horiekin izan lezakeen lotura ez zaigu batere garbia begitantzen.

### 3. «Romance bazquenze»

#### 3.1. Testua

Modolellen liburuan «romance bazquenze» delakoa ez ezik egileak berak egina omen den itzulpena ere ikus dezakegu. Originalak 108-109 orrialdeak hartzen ditu eta honela du izenburua: «Romance bazquenze a la deuocion de Maria Santissima». Egilearen izena dator jarraian: «De Don Francisco Bustamante». Konposizio hau launa bertsoko zortzi ahapalditan —32 lerrotan— zatituta daukagu, eta errimaz bezala neurritz ere ez du zer goraiatu handirik. Erromantze den aldetik zortzi silabako neurriari erantzun behar lioke baina ugariak dira motzegi edo luzeegi geratzen direnak: 06, 14 (motzegiak) / 04, 11, 13, 19, 24, 25 (luzeegiak). Gainerakoak, nola edo hala, neurrira ekar daitezke. Errimaren gainean ere ezin daiteke esan gauza on handirik: azkeneko bokalera mugatzen da gehienetan. Cf. gorago aipatu den epaileen iritzia (51-52. or.).

Itzulpenak 109-10 orrialdeak hartzen ditu eta izenburu hau darama: «Traducion del sobredicho bazquenze». Egilearen izena dator, berriro ere, ondoren: «Por el mismo Don Francisco Bustamante». Deigarria da zortzi silaben neurria zein ederki betetzen den itzulpen omen den honetan, eta errima ere, berebizikoa ez den arren, euskarazkoa baino txukunagoa behinik bada. Honekin ez da esan nahi erdal bertsoia askoz hobea denik, ezta hurrik eman ere: Urkizuren hitzetan gorago aipatu dugun harako «sentido poético» hura ez zen, antza, egilearen dohainetako bat, ez erdaraz eta ez euskaraz ere. Itzulpena, bestalde, bi bertsoietarik edozein delarik ere, ez da beti hitzez hitz egina, ikusiko den bezala.

Euskarazko poesiaren gaiari buruz hitz bi esan nahi genituzke. Poesiaren izenburua aipatu dugu goraxeago: «Romance bazquenze a la deuocion de Maria Santissima». Zehatzago, Mariaren Sortzezko Garbitasunari eskainia dagoela erantsi behar litzateke, liburua bera bezala, poesiatik bertatik lerro bat edo beste irakurriz gero neke handirik gabe ondoriozta litekeenez: *Culpa gabe andre gurenau / Ysandu çen consebitua...* Jaungoikoaren Ama gainerako gizon-emakumeak lohitzen zituen sor-

ttezko bekatutik libre ote zegoen ala ez eztabaida bizia zegoen garai haietan, Elizak artean ez baitzuen «iritzi» hau «dogma» gisa onartua, eta, ondorioz, Garbitasun horri dudagabeke irizten ziotenen eta ideia horren aurka zeudenen arteko auziak euskal literaturan utzi zuen lekukotza baten aurrean geundeke.

Bustamantek Sortzezko Garbitasuna onartzen duela ez dago esan beharrik: gora-zeago oraintxe arestian aipatu berri diren hitz gutxi horiek ikusi besterik ez dago horretaz jabetzeko. Sortzezko Garbitasuna bultzatzen zutenak nagusitzen ari ziren ordurako, izan ere, XVII. mendean, eta Espainian «iritzi santu» horren aldekoen nagusigoa beste inon baino gehiago nabaritzen zen gainera.<sup>18</sup> Espainiak, hain zuzen, Ama Birjina Sortzez Garbia bere zaintzailatzat hartu zuen 1761. urtean, eta Kardaberaz hernaniar jesuitak, esate baterako, Astetearen gipuzkerazko bertsioan honela esplikatzan du ([1761?]: 88):

Gure erregueac aurtan, Aita Santuaren bendicio ta indulgenciaquin, España gucian Maria S(antissi)ma bere Concepcio Garbian patronatzat artu du.  
Zori oneco gure provincia gucziz nobleac lenagotic bere amandre, echandre ta patrona ori zuen, eta Concepcio Garbiaren mantu pean dicha andiaz gu jaio ta aci izan guerade.

Eta bizkaieraz ([1762?]: 101-102):

Gueure erreguec igaz, Aita Santu en bendicio ta indulgenciac gaz, España guztian Maria Santissima bere Concepcio Garbian patronatzat artu dau.

Kardaberaz bera zein iriztitakoa zen ez dago esan beharrik.<sup>19</sup> Sortzezko Garbitasunak geroz eta aldeko gehiago zituen eta eztabaida hurrengo mendean erabaki zen,

<sup>18</sup> Bustamante Sortzezko Garbitasun horren alde zegoen bitartean, adibidez, Inkisizioak arazoak ekarri zizkion urte batzuk geroago, 1663an, eztabaida hartan ideiak behar bezain «garbi» ez zituen beste euskal egile bati, Domingo de Azubiari. Itsasondoko apaiza —Loinazko San Martini buruzko euskarazko zortzi sermoiren egilea, gutxienez— Sortzezko Garbitasun horren aldeko zen, Telletxeak kontatzen digunez, baina, aldi berean, baita aurka zeudenen iritziak errespetatzearen aldeko ere (Telletxea 1974a): «Azubía era favorable a la pía opinión, pero arremetía contra los que molestaban de mil maneras a los dominicos que defendían la opinión contraria». Cf. Alzola (1974) & Telletxea (1974b).

<sup>19</sup> Bidebar, goragoko aipamenei esker data gabeko bi itzulpen horiek noiz idatzi ziren jakin dezakegu, eta, argitaratu ere, baliteke urte horietan bertan argitaratuak izatea. Bilbaok 1762. urtea ematen du, dena dela, bientzat (1972: 231). *Egercicioac* bildumako lehen alearen ondoren atera zirela gauza segurua da behintzat, gipuzkeraz bezala bizkaieraz ale hori aipatzen baitzaigu. Cf. Kardaberaz [1761?]: 75 & [1762?]: 85. Dodgsonen artikuluko batean, besteak beste, bizkaierazko bertsioaren datazioari buruzko zenbait datu ematen zaizkigu (Dodgson 1906). *Eusqueraren...* liburuaren bukaeran ere gipuzkerazko dotrina argitaratzeko asmoa zuela ikus dezakegu, hots, argitara gabe zuen oraindik. Cf. Kardaberaz 1761: 63. Urquijoren arabera, pasarte honen berri ematean dioenez, asmoa bizkaierazko dotrinari ere bazegokion, baina, gure ustez, horretan ez du asmatzen: Kardaberazek hor argitaratzeko dituen hiru liburu aipatzen dituelarik, hirugarren aipamena gipuzkerazko dotrinari soilik dagokiola deritzogu; bizkaierazko dotrina eta liburuak atera beharra aipatzen du beherago, baina lan hori besteren esku uzten duela dirudi, eta, zehatzago, bizkaitarren baten eskuetan (Urquijo 1906).



1854. urtean: *Ineffabilis Deus* buldaren bitartez Sortzezko Garbitasun horren aldeko «iritzia» —Bustamantek «opiniò ona» deritzona— Pio IX.ak «dogma» deklaratu zuen urte horretan, hots, fededun orok sinistu beharreko.<sup>20</sup>

Testuaren transkripzioa ematean ohikoak diren arauak jarraitu gatzazkio. Puntuazioa gaurko ohituretara egokitu dugu eta ber gauza egin dugu letra xehe eta larriekin (originalak bezala letra larria beti lerro hasieran). Gaurkotu egin dugu ere hitzen banaketa, gehienbat aditz multzoko osagaiak banatuz: *erranbèça* > *erran bèça* (05), *nàydu* > *này du* (07), *escogituçuen* > *escogitu çuen* (18), *geldiùedi* > *geldi vèdi* (29), etab. Aitzitik, <nb> grafiari eutsiz eta bereizi gabe utzi dira bi osagaiak hurrengo bi kasuotan (-ld- taldean gertatu soilketa dela bitarte): *balinbàdu* (11), *balinbàdago* (22). Aditzaren eremutik aterata, bereiztu egin dira gainera: *amaçen* > *ama çen* (19), *eguièta* > *egui èta* (32). Halaber: *suguebàt* > *sugue bàt* (02), etab. Kontrako bidea jarraitu da beste hitz honekin: *vere taco* > *veretaco* (17). Dauden bezala utzi dira bestalde: *gurenau* (09), *pruiilijioau* (11).<sup>21</sup> Erdaraz ere inoiz hitzak bereiztu egin behar izan ditugu: *paraque* (05), *seengrie* (05), *asus* (21), *atanto* (27), etab.

Aipatzekoak dira ere zein irizpide jarraitu ditugun grafiaren alderditik. Lehenbizi, <u> bokalen artekoa mantendu egin dugu kontsonante balioarekin; <v> berri-datzi dugu, ostera, gainerako kasu guztietan. Bestalde, <y> mantendu egin dugu bere horretan. Halaber, *equsten* moduko grafiak ere mantendu egin ditugu; <s> luzeak, berriz, aldatu egin ditugu, <s> arrunten gisara idatzirik. Azkenik, azentuak dauden bezala mantendu ditugu.<sup>22</sup> Jarraibide bera izan dugu erdarazko testua ematerakoan, azentuaren kasuan ez ezik beste kasu guztietan. Bestaldetik, <n> berridatzi dugu sudurkaritasun adierazle den bokal gaineko zeinua eta ez ditugu ukitu testuan diren bi parentesiak.

Honezkero, bada, testuaren transkripzioa ematea izango da hoberena. Testuaren ondoren oharrak erantsi ditugu, denak nahasian. Irakurketa oharrak daude batetik, horietarik zenbait zalantza dezente eragin —eta eragiten— diguten puntu batzuei buruzkoak: *gurenau* (09), *minçua* (24), *Andreonea* (26), *seguredá* (26). Hauekin batera hizkuntzazko oharrak ere badatoz, eta testuaren ulermenerako beharrezko jo ditugun esanahiaren inguruko hainbat azalpen. Besterik gabe, bada, gatozen testua ikustera:

\* \* \*

<sup>20</sup> *Ineffabilis Deus* buldaren itzulpen ugari daude hainbat euskalkitara. Artikulu honen helburua ez delarik euskal testuetan auzi honek utzi dituen aztarna ugariak biltzea, buldaren kontu honetan ere ez dugu xehetasunetan sartzeko asmorik; E. Knörren bi artikulu aipatuko genituzke, hori bai, eskuragarrien egon litezkeen artean, buldaren euskarazko bertsioez zerbait gehiago jakin nahi duenarentzat (1983 & 1991). Espainiar literaturan ere, bestalde, euskalduna mirari honen aldeko sutsu bezala ageri zaigu batzuetan (Legarda 1954: 372-75).

<sup>21</sup> Gainera, bestelako zenbait banaketa arraro ere badira testuan, gehienbat euskarazko testuan gaztelaniazko hitzak ikusi nahiak eraginda: *no la* (13), *y sandu* (14), etab.

<sup>22</sup> Azentuok ez dira baitezpada edonon eta txiripaz bezala ezarriak; guztiak ez behintzat. Esaterako, hurrengo bi baldintza hauetan osagai bera da azentua daramana: *balinbàdu* (11), *balinbàdago* (22). Aginterazko forma hauetan, bestalde, adibide guztietan azentua leku berebetean daukagu: *audi bèza* (01), *guedli vèdi* (29), etab. Bestelakoa: *ysillic begò* (25). Gainontzean azentu grafiko gehienak mugatzaile singularrak daramatza, eta honelako gehienak lerro amaieran doazenez, litekeena da azentu grafiko hori errima markatzeko ere erabiltzea.

ROMANCE BAZQUENZE a la deuocion de Maria Santissima de Don Francisco Bustamante	TRADUCION del sobredicho bazquenze por el mismo Don Francisco Bustamante
01 Audi bèza sugueàc, Sugue bàt nay diòt eman, Mùsquerra ère yçandu bazen Guiçonàren contra baraçeàn.	01 Escucheme la serpiente, Que culebra darle quiero, Aunque fue gentil lagarto Contra el hombre alla en un guerto.
05 Zerengatic, erran bèça, Vere ago çiquiña Eçarri này du, atrebitua, Ama Virginaren Çeruan?  Culpa gabe andre gurenau	05 ¿Para que se engrie (diga) Contra quien por priuilegio Fue su concepcion sin culpa (Que es escupir contra el Cielo)?  Tal es la paloma pura
10 Ysandu çen consebitua; Priuilijioau, nay balinbàdu, Eman dezaque Jangoichoàc.  Estaqui nola preuinitua Ysandu cen Birgiña	10 De la que diò ser al Verbo, Y aunque preciado de sabiò Iamas alcanço el misterio.  ¿No saue que preuenida Y esenta fue de <i>ab eterno</i> ,
15 Eternidadeàn eta, orla, Ozca baten esque ylseà?  Veretaco Ama Virgiña Escogitu çuen Jangoichoàc. Vere ama çen. Esta orrengatic	15 Y que un bocado no pudo Enpecerla, siendo açedo?  Si para Madre de Dios La elijiò Dios, ¿no es muy cierto Que huuo de guardarla limpia
20 Guztien culpatic libreà?  Vere oñetan biçi gàve Balinbàdago gayçoà, Nola estu orày equsten Verris dela burriña minçua?	20 De todo comun defeto?  Si està a sus pies sojuzgado Por soberano precepto, Ociosa es la duda, y es Mas euidente su yerro.
25 Ysillic begò vada. Victoria, Andreonea, da segurèa. Orla, umillic vere burua Eçarri bèça òynpeàn.  Arrengàtic gueldi vèdi	25 Calle pues. Triunfa sin duda Sin la çoçobra del riesgo, Que a tanto asunto invencible Es preciso el rendimiento.  Para que vencido quede
30 Deusgabe vere minçoá, Eta, orla, opiniò ona Dela egui èta fedea.	30 Su teson en tal empleo, La inmunidad se acredite Y la opinion logre aciertos.

### 3.2. Oharrak

01: Benetako erabilera islatzen ez duen aldetik kultismoa bide dugu honako aditz honetan: *audi bèza* 'escucheme'. Grafiari dagokion kultismoa halaber behe-rago: *Jangoichoàc* (12, 18). Amaieran *-tu* atzizkirik gabe biluzik ageri zaigu hor aditz izena eta berdín beherago: *gueldi vèdi* (29). «Romance»a XVII. mendekoa izanik eta,

gainera, ekialdeko hizkeran idatzia dirudiela, *-i* atzizkiaren kasuan ere emaitza bera espero zitekeen, baina bestelako zerbaít da hor ageri zaiguna: *eçarri bęça* (28).

02: Bustamantek *sugea eman* esamoldea hartu du erdaratik: ‘norbaiti, uste ez duela, egurra eman’. Cf. *Diccionario de Autoridades* Espainiako Erret Akademiako hiztegian datorren definizioa (1729: 695): *dar culębra* ‘dar algun chasco pesado, que suele ser con golpes’. Erdarazko *serpiente* eta *culebra* sinonimo biek sortzen duten hitz jokoa nekez eraman zezakeen euskarara, dena dela, poesiaren egileak, esamolde hori mailegu harturik ere.

03: Cf. *mųsquerra* oraingoan ere erdaratik hartu den adierarekin: ‘maltzurra’. Cf. *Diccionario de Autoridades* Espainiako Erret Akademiako hiztegian datorren definizioa (1734: 351): *lagarto* ‘taimado, pícaro y reservado’. Bustamante Paradisuan Ebaren eta sugearen artean gertatu zenaz ari zaigu nabarmen, Infernuko etsai maltzurak —«muskerrak», egilearen hizkera bera erabiliz— lehenengo emakumea engainatu zueneko gertakari ezagunaz. Deabruak, sugearen itxura harturik, sagarra eskaini zion lehen emake hari eta hortik dator erdarazko bertsioan *gentil* izenondoa: ‘adeitsua, atsegina’.<sup>23</sup>

Sortzezko bekatuaren orbanaz jaio da orduz geroz munduan izan den pertsona oro: Mariaren Sortzezko Garbitasuna salbuespena delarik, bada, Ama Birjina Sortzez Garbia irudikatu nahi izan duten margolari nahiz irudigileek *sugea* zapalduz aurkeztu izan digute askotan, sugearen bitartez eragindako sortzezko bekatua saihestu zuela adierazi nahirik, eta Bustamante bera ere, Elizaren misterio hau ospatu nahi duelarik, horregatixe zuzentzen zaio, halaber, sugeari.

Erdarazko itzulpen omen den hori ikusita, bestalde, hiperbaton nabarmena dugu euskarazko bertsioan: *Mųsquerra ęre yęandu bazen* ‘muskerra izandu bazen ere’. Garaitu hartan bertan ez da antzeko kasurik falta euskal poesian: *Hala deitzen duc faltaren cutsutic illkhi gabe / Ecin errenda gaitęzquen ceren Ceręen iabe* ‘hala deitzen duk zeren faltaren kutsutik...’ (Etxeberri <sup>2</sup>1669: 368), *Nescasso bat amataco, / Galileaco / Nasaretęn hasia, / Baderauca hautat’ukan / Baizeducan / Seinec isen Maria* ‘neskaso bat amatako... zeinek baitzedukan...’ (Oihenart 1657: 55-56), etab.<sup>24</sup>

Erdarazko bertsioari men eginez hirugarren lerro horri aurkaritza zentzua ematea nahiago badugu ere, irakurketa hori erabat lehenetsi arren, beharbada bigarren irakurketa bat ere ez da guztiz ezinezko. Bustamantek poesiaren euskarazko eta erdarazko bertsioetan funtsean gauza bera esanik ere ez baititu beti hitz berdinekin eta modu berean adierazten, hori dela eta, kausaren adierazpena ere izan liteke aurrean daukaguna: *Mųsquerra ęre yęandu bazen* ‘muskerra ere izandu baitzen’. Kausaletako *bait-* aurrizkiaren *bat-* aldaeraren inguruan, Ataungo XVIII. mendeko sermoi batean dugu gutxienez: *bazituan* ‘baitzitzen’ (05), *vaciren* ‘baitziren’ (14). Nafarroako mugako herri gipuzkoar horretako lekukotza honetaz landa ez daukagu, ordea, antzeko beste ezeren berririk.<sup>25</sup>

<sup>23</sup> Bustamantek beste batzuetan ere badarabil: *Engaño a todo el mundo / Con un bocado, / Porque fue en un combite / Gentil lagarto* (Modolell 1656: 115).

<sup>24</sup> Cf. Altunaren edizioan ordena aldaketa hauetaz esaten zaiguna (Etxeberri <sup>2</sup>1669: 21).

<sup>25</sup> Adizkiotan *bat-* fonetikoki baldintzatua ote dago beharbada? Antzekoena *noizbat* ‘noizbait’ litza-teke zenbait hizkeratan. Adibideak —Ataungoak— denbora luzea baino lehen argitaratu asmo dugun eskuizkribu batetik kopiatuak.

04: Oinarrian ziurrenik *baratze* duelarik —*baratz* geroago sortua dela dirudi— ekialde kutsuko aldaera: *baraçean* ‘en un guerto’.

05: Hasierako *zerengatic* itzultzeko —itzulpena euskaratik erdarara egin dela suposatuz— zuzenagoa litzateke *para qué* beharrean *por qué* erabiltzea. Cf. 29. ler. (laburdura hau erabiliko dugu momentuoro ‘lerroa’ adierazteko). Deigarria da bigarren ahapaldi honetan, lehen hitz honetan izan ezik, bestelako gauza gehienak ia guttiz desberdin egotea euskal eta erdal bertsoetan. Gaztelaniaz —05-08. lerroetan— *engreír* ‘harrotu’ eta *escupir* ‘txistua jaurti’ aditzekin adierazi nahi izan zai-guna, adibidez, euskaraz guttiz bestela datorkigu: *Ama Virginaren Çeruan vere ago çiquiñà eçarri* (06-08. lerroetan). Erdarazko ahapaldiko lehen eta azken lerroak adierazteko euskarazko ahapaldi osoa behar izan duelarik, bada, Bustamanteri ez zaio geratu, antza, erdarazko bigarren eta hirugarren lerroak euskarazko hurrengo ahapaldira pasatu beste erremediorik. Horrekin beste arazo bat sortu zaio, ordea, egileari: euskarazko bigarren eta hirugarren ahapaldiak erdarazko bigarrenaren ordaina direlarik, non kokatu erdarazko hirugarren ahapaldia? Soluziorik errazena hautatu zuela dirudi, euskaraz ez baitago, ia, hirugarren ahapaldi horren aztarnarik.

Bestalde, euskararen eremuan ekialdeko kutsu nabarmena daukagu, aurreko le-roan aipatu den hitzean bezalaxe, hurrengo aditzean: *erran bēça* ‘diga’.

06: Ekialdera begira jartzen gaituen beste hitz bat dugu jarraian, Nafarroa gehienez aspalditik oso hedatua dagoena: *ago* ‘aho’.

08: Bustidura gabekoa: *Virginaren*. Beherago, ordea, bestela ageri da birritan: *Birgiñà* (14), *Virgiña* (17). Benetako ahoskera islatzen dutenak azken hauek direla ez dago dudarik eta aurrekoa, ziurrenik, etimologia oinarri duen grafia litzateke. Badago hainbat adibide ideia horren aldeko: *çiquiñà* (06), *oñetan* (21), *burriña* (24), *ysillic* (25), *umillic* (27). Desberdina da kontua mailegu berrietan —*priuilijioau* (11), *preuinitua* (13)...— edo bestelako ingurune fonetiko batzuetan: *balinbà-dun* (11), *ylseà* (16), *òynpeàn* (28), etab.

09: Originalak *gurebau* dakarrenez, nabarmena da hor badela hutsen bat zuzendu beharrekoa. Lehenbizi *gureau* edo *gurebau* zuzentzea iruditu zaigu egokiena: *gurebau* > *gurehau* zuzenketa, batez ere, grafikoki garbiena da eta hutsa hobekien azaltzen duena, hots, merkeena. Bestela <h> testuan inon ageri ez delarik, baina, aukera hori alde batera uztea komeni dela dirudi. Cf. *priuilijioau* (11), etab. Ondorioz, <h> gabeko aldaera da geratu zaigun aukera bakarra: *Culpa gabe andre gureau / Ysandu çen consebitua*. Zuzenketa honek ondo isla dezake originalak zioena eta ez dugu pisuzko arrazoirik, egia esateko, poesiagileak horixe idatzi nahi izan zuela ukatzeko, baina, hala ere, bestelako irakurketa da azkenik hautatu eta testuan proposatzen duguna: *Culpa gabe andre gurenau...* Hautagaiak *gureau* eta *gurenau* ditugula, izan ere, aurrenekoa agian erosoagoa izanik ere, uste dugu egon litezkeela arrazoiak —testuaren zentzua eta ulermena indartzen dutenak, gainera— *gurenau* hobesteko.<sup>26</sup>

<sup>26</sup> Testuetan *gure* eta *guren* agertzeko aukera oso desberdina duten bi hitz diren aldetik, izan ere, lehena askoz ere usiago agertu ohi delako, erosoena *gure* irakurtzea litzateke. Baita genitiboak hemen duen posizioa, izenaren ondorengoa, arruntena ez dela kontuan hartuta ere. Cf. *Nuestra Se-*

Lehenbizi euskal testuaren parean den erdarazko lerroa ikus dezagun: *Culpa gabe andre...* (eusk.) / *Tal es la paloma pura* (gazt.). Subjektua Ama Birjina delarik nahiz batean nahiz bestean, alderdi bietan antzeko izenondoa erabili izana baliteke,<sup>27</sup> eta erdarazko *pura* izenondoa euskarazko testuan nolabait islatzeko *gureau* bainoago *gurenau* litzateke egokiena.<sup>28</sup> Bigarrenik, *-n-* irakurketa lehenetsiz gero daukaguna *andrauren* edo *anderauren* hitzaren aldaera litzateke, Ama Birjinari ezartzeko izen guztiz egokia eta garaisu hartako beste testu batzuetan ere aski ezaguna. *Refranes y Sentencias* bildumako adibide bat ematearren (RS 655):

317. Andra hurenac ese husa betatu.  
La muger principal la casa vacia hinche.

Oihenartek, Euskal Herriko beste muturrean, birritan dakar hitz hau bera bere testuetan. Adibidez (1657: 41 & 76):

473. Urruneco nescac anderauren hots.  
Une servante de païs lointain, a bruit de damoiselle.

Hegoaldeko Nafarroan hitz hau dakarren testurik zaharrena litzateke, eta bakarra, Zaraitzun Azkuek bildutako kanta bateko adibidea alde bat uzten badugu. Cf. *OEHan* s. u. *anderauren*. Gainera, proposatu dugun irakurketa zuzena izatera, *-guren* bigarren osagaiko hasierako herskaria bere horretan gordetzen duen lekukotza bakarra litzateke. Cf. *FHV* 116 & *SHLV* 526 (hitzaren osaerari buruz eta batez ere bigarra osagai horren gainean).<sup>29</sup>

Bukatzeko, euskaraz ageri ez den erdarazko hirugarren ahapaldi horri buruz mintzatu garenez, baditugu hor pare bat puntu argitzeko. Bustamantek Ama Birjina Hitzaz nola erditu zen diosku, batetik, lehenengo bi lerroetan: Jesukristo eta Hitza egileak gauza bakartzat dituela ulertu behar dugu ondorioz.<sup>30</sup> Hurrengo bi lerroetan, berriz, ilunxeago geratzen da zein den «misterioa iritsi ez zuen» pertsonaia.

---

*ñora* erdarazko baliokidea. Bestalde ezer gutxi da testu baten transmisioan gertatu ohi diren kopiaketa hutsen tipologiak erakusten diguna: inpresoko *-b-* akastuna *-ø-* ala *-n-* zuzendu berdintsu dela pentsa daiteke.

<sup>27</sup> Euskarazko testuaren gutxi gorabeherako erdal baliokidea, berez, goragoko ahapaldian dagoela esana dugu lehenago (euskaraz *gure* ala *guren* hobetsi behar dugun jakiteko argirik ez dugu ikusten, baina, erdal bertsoian): *Culpa gabe andre gurenau* / *Ysandu çen consebitua* (09-10) 'Contra quien por priuilegio / Fue su concepcion sin culpa' (06-07). Euskarazko hirugarren ahapaldiak erdarazko bigarrenarekin lotura handiagoa izateak ez du esan nahi derrigor, ordea, parean duen erdarazko hirugarrena erabat arrotz izan behar zaionik. Adibidez, Sortzezko Garbitasuna Ama Birjinari nondik nora datorkion azaltzen zaigu euskarazko hirugarren ahapaldiko azken bi lerroetan: *Priuilejioau, nay balinbâdu, / Eman dezaque Jangoichoac* (11-12). Deabruak azalpen hau ulertzeko duen ezintasuna aipatzen zaigu, berriz, erdarazko bertsoian parean ageri diren bi lerroetan: *Y aunque preciado de sabiò / Iamas alcançò el misterio* (11-12).

<sup>28</sup> Adieraz 'nagusi, noble, goi mailako'. Gainera —erdarazko *pura* horretatik are hurbilago— euskaraz *guren* 'garbi' esanahia ere aurkitzen dugu, baina aztertzen ari garenekin testutik aski urrun, XX. mendera arte agertzen ez denez gero. Cf. *OEHan* hitzaren laugarren adiera.

<sup>29</sup> Mitxelenak bi lan horietan hitz hau beste hainbat bider ere aipatua: *FHV* 227 & 533; *SHLV* 118 & 237.

<sup>30</sup> Identifikazio hori San Joanen idatzietan dago batik bat oinarritua (*EAB*): «Eta Hitza gizon egin zen eta gure artean jarri bizitzen» (Jn 1, 14). Cf. *Espasa* s. u. *verbo* (LXVII: 1.395-99).

*Escucheme la serpiente* hasierako lerro hura ikusita, sugeari zuzenduko zitzaiola pentsa zitekeen: *serpiente* femeninoa dugularik, baina, zergatik erabili maskulinoa suge hori aipatzean? Cf. *preciado* (11), *sabiò* (11), *sojuzgado* (21), *vencido* (29). Bustamantek sugeak ordezkatzten duen deabrua izango zuen gogoan ziurrenik, gaztelaniaz maskulinoa.

10: Txistukari nahasketa: *ysandu*. Txistukaria nahasten du berriro lau lerro beherago: *ysandu* (14). Lehenago ondo idatzia ikusi dugu alabaina: *yçandu* (03). Hamargarren lerro honetan bertan txistukari nahasketa beste kasu bat ere badaukagu, oraingo honetan mailegu batean: *consebitua*. Hurrengoa ere ez da espero zitekeena: *ylseà* (16). Gainerako nahasketa kasu gehienak herskari aurreko posizioari dagozkio, eta, beraz, arruntagoak iruditzen zaizkigu: *estaqui* (13), *esta* (19), *estu* (23). Bestelakoak: *ozca* (16), *guztien* (20). Nafarroako hizkera bati ondo egokitzen zaio hurrengoa: *verris* (24).

11: Goraxeago —*gurenau* (09)— aipaturiko adibidean bezala hemen ere erakusle enklitikoak daukagu: *priuilijioau*. Hurrengoa ere hitz bakar gisa mantendua (*balinbàdun* jatorrizkoa zuzendurik): *balinbàdu*. Beherago: *balinbàdago* (22). Cf. transkribaketa irizpidez gorago esandakoak.

12: Kultismoa grafiari dagokionez: *Jangoichoàc*. Cf. 01. ler. Diptongorik eza ere aipagarria. Liburuaren 196. orrialdeko erraten zerrendan oinarrituta, erdarazko zatian zuzenketa: *alcanço > alcanço*.

13: Txistukari nahasketa: *estaqui*. Cf. 10. ler. Asimilazio bokalikoa: *preuinitua*. Antzekoa da gorago ikusitakoa: *priuilijioau* (11).

14: Txistukari nahasketa: *ysandu*. Cf. 10. ler. Latinezko esamolde hori hitz bakarrean dator erdarazkoan: *abaterno*. Bustamantek *de* preposizioirik gabe erabiltzen du hau bera beste bi poesiatan (057, 116).

15: Zuzenketa: *esta orla > eta orla*. Ekialdeko hizkera baten aurrean baldin ba-gaude, aditzondoko sinkopa hori ez da harritzekoa. Errepikatu egiten da beherago: *orla* (27). Beherago sinkopa ez ezik goiko zuzenketa berbera ere errepikatua: *esta orla > eta, orla* (31). Juntagailuak hasten duen galderaren bigarren zatia ez da garbiegia, ordea, eta, egindako zuzenketa bide onez egina bada eta joskera aintzat hartzen badugu, badirudi bigarren zati hori goragoko *preuinitu* aditzaren mendean egon litekeela. Adierari begiratuta, ordea, galderaren bi zatiek aditz desberdin bana eskatzen dutela esan genezake, eta bigarren zatiari dagokion aditza erantsiz honelako zerbait geratuko litzaiguke: *Ez daki nola prebinitua / Izandu zen Birjina / Eternidadean eta horrela / Nola saihestua izandu zen / Hozka baten eske hiltzea?* Behar-bada, *prevenir* erdarazko aditzaren adiera aniztasunean egon liteke irtenbidea. Cf. *Diccionario de Autoridades* Espainiako Erret Akademiako hiztegian datozen honako bi definiziook (1737: 374): ‘preparar, aparejar y disponer con anticipacion las cosas necessarias para algun fin’ eta ‘estorbar ò impedir alguna cosa’. Litekeena da, guk uste, galderaren bi zatiek aditz nagusi bera izatea baina adiera desberdinaz, joskeraren aldetik apur bat behartua izan daitekeen arren. Hartara: Birjina bera prebenitua izan zela esan daiteke, batetik, eta prebenitua izan zela, halaber, hozka baten erruz

hura hiltzea, hots, bekatuan jaiotzea. Aurrena *prebenitu* ‘prestatu’ daukagu; ondoren *prebenitu* ‘saihestu’.<sup>31</sup>

16: Erdarazko zatian dago lerro honetako lehen hitzaren itzulpena: *ozca* ‘bocado’. Seguruenik *esque* ‘bila’ interpretatu beharrekoa, bestaldekik: ‘(sagarraren) hozka baten bila edo hozka bat bilatzeagatik’.

Gaztelaniaz *enpecerla* ‘kaltetu’ litzateke. Cf. *Diccionario de Autoridades* Espainiako Erret Akademiako hiztegian datorren definizioa (1732: 407): *empecer* ‘dañar, ofender, causar perjuicio, mal y daño à uno’. Euskaraz *ylseà* daukagu horren itzulpena. Euskarazko zatian ez dago ondoren datorrenaren arrastorik. Cf. *Diccionario de Autoridades* Espainiako Erret Akademiako hiztegian datorren definizioa (1726: 43): *acedo* ‘lo que tiene punta de agrio, ò es poco grato al gusto’.

17: Destinatiboan *-tako* atzizkiarekin: *veretaco*.

18: Grafiaren aldetik kultismoa: *Jangoichoàc*. Cf. 01. ler.

19: Txistukari nahasketa: *esta*. Cf. 10. ler. Birritan *esta* > *eta* zuzendu dugu testuan baina ez dirudi hemen gauza bera egitea komeni zaigunik, erdarazko testuaren zentzuari eutsiko badiogu behintzat. Cf. 15. & 31. ler. Zuzenketa bera hemen egingo bagenu, dena dela, galdera erretoriko bat baieztapen bihurtzea beste aldaketarik ez luke horrek ekarriko, eta, egia esateko, bi bertsioren artean badira hori baino alde askoz ere handiagoak.

20: Aipagarria itzulpenaren egokitasuna: *guztien culpa* ‘comun defeto’. Bidenabar, *guzti* aldaerari ere erreparatu nahi genioke: Nafarroa Garaian XVIII. mendera arte bi aldaerak, *guzi* nahiz *guzti*, erabiltzen baitziren; XVIII. gizalditik aurrera, berriz, lehengo aldaera nagusitu zen eta bigarrena erabat bakandu. Cf. *OEHan* s. u. *guzti*.

Erdarazko zatiari buruz zerbait esatearren, bestalde, kontsonante taldea desberdin islatu da honako bi hitzotan: *defeto* (20) / *precepto* (22). Cf. honako beste bikote hau gorago ageri zaiguna: *esenta* (14) / *concepcion* (07).

21: Hots, Ama Birjinaren oinetan. Aipatu da gorago irudi honen zergatia. Cf. 03. lerroa & 31. oharra. Gehienetan bezala itzulpena oso gutxi gorabeherakoa dela ikus dezakegu: *biçi gàve* ‘sojuzgado’.

22: Banatzeke utzi dugu hitz bakarrean: *balinbàdago*. Cf. 11. ler. Ekialdeko forma da hurrengoa, bestalde, bustidura faltagatik: *gayçòà* ‘dohakabea’.

23: Txistukari nahasketa: *estu*. Cf. 10. ler. Ekialdeko aldaera, orain ere, hemen duguna: *orày*. Ondoren datorren hitzean forma zaharra: *equsten*.

<sup>31</sup> Sortzezko Garbitasunaren funts eta oinarria den Bibliako pasartearen ere bi adiera hauek ageri zaizkigu (*EAB*): «Jainko Jaunak sugeari esan zion: “Hori egin dualako, [...]. Elkarren etsai egingo zaituztet hi eta emakumea, [...]; honek burua zapalduko dik [...]”» (Has 3, 14-15). Paradisuan Adan eta Ebak sagarrari hozka egin ziotenean handik aurrerako gizon-emakumeak bekatuan jaiotzera kondenatu bazituzten, Ama Birjina Sortzez Garbia bekatu hori gabe jaio zelarik, hots, bekatua saihestu edo prebenitu zuelarik, gertaera hau aurrikusia dator jada pasarte horretan, prebenitua, bekatuaren ikur eta sinbolo den sugeari burua zapalduko ziola iragartzean. Cf. *Espasa* s. u. *concepción* (XIV: 912-923).

24: Txistukari nahasketa: *verris*. Cf. 10. ler. Harrigarria, esanahiaren aldetik suposatzen duen erdarakada dela bitarteko: *burriña* ‘yerro’.<sup>32</sup> Deigarria egiten da halaber fonetika aldetik, Nafarroan *-rd-* > *-rr-* asimilazio hau daraman aldaera, izan ere, nahikoa hedatua baitugu zenbait eremutan geroago aipatuko dugunez. Ekialdeko kutsu nabaria du ere hurrena datorrenak: *minçua*. Beharbada *minçua* > *minçoa* zuzentzea zilegi litzateke, nahiz guk bere horretan utzi dugun, aldatzeko nahikoa arrazoi dagoenik ez baitzaigu iruditzen.<sup>33</sup>

Euskaraz galdera gisa dago esanda —galdera ikurra falta zaiolarik euskal testuari bai hemen eta bai zeinu honek agertu behar duenoro— erdaraz bestela adierazi den eduki beretsua. Testuaren esanahiari dagokionez, poesiaren egileak intentzio makur xamarra darabil sugea bere mintzoaz *verris* okertzen dela dioenean. Lehenengo aldiz noiz huts egin zuen badakigu: *baraçèan*. Lehenengo ahapaldian aipatu zaigu hori jada eta oraintxe bertan esan zaigunez, Ama Birjinaren oinetan *biçi gàve* daukagu sugea ekintza haren ondorioz. Bigarren hutsegitea ere ezagutzen dugu dagoeneko bigarren ahapaldirik: Ama Birjinaren kontra *vere ago çiquiñà* ezartzean datza oraingo honetan delitua. Baina zer esan nahi du honek? Sortzezko Garbitasuna zalantzan jartzen dutenen aurka ari da nabarmen, deabruaren mende daudela eta honek haien ahotik hitz egiten duela iradokiz.

25: Zuzenketa: *degò vado* > *begò vada*. Erdarazko bertsioak garbi erakusten digu zuzenketa honen nondik norakoa, lehenengo hitzari dagokionez gehienbat. Zalan-tza *vada* ulertzeko moduan egon zitekeen: ondorioa adierazten du, eta, horrenbes-tez, gorago esan berri denarekin erlazionatu behar da, ala kausala da eta, beraz, ondoren datorrenarekin lotu beharrekoa? Jatorrizko testuan den puntuazioari begiratuta *vada* ondoriozkoa izan litekeela pentsatu dugu eta horren arabera jokatu dugu, halaber, puntuazio hori egokitzean.<sup>34</sup>

<sup>32</sup> Espainiar literaturan Euskal Herriari buruz garai hartan egiten ziren aipamenetarik asko burdinari lotuta doazelarik, eta, gainera, aipamen horietan *hierro* eta *yerro* hitzekin jolasteko halako joera bat nabari delarik, baliteke goiko nahasketa bitxia hitz joko horrekin lotuta egotea. Cf. Legardak euskal burdinari buruz hitz egitean esaten dituenak (1954: 520 & 532). Legardaren laneko beste leku batzuetan ere badira hitz joko horren arrastoak (1954: 212 & 368).

<sup>33</sup> Hemengo hitz hau berbera *-oa* amaieraz ikus dezakegu beherago: *minçoa* (30). Bustamantek —*su-guèac* (01), *yiseà* (16), *gayçoa* (22)...— bilakabide fonetiko hau beste inon ez agertzeak ez du esan nahi derrigor, baina, erabil ezin zezakeenik. Cf. 1609. urteko poesia batean (adbz.): *aguàren* ‘ahoaren’ (TAV 112). Aipaturiko *minçua* > *minçoa* aldaketa, bestalde, ahapaldi honetan bertan den erri-mari —jatorrizko *gayçoa* eta *minçua* zuzenketa horren bitartez *gayçoa* eta *minçoa* bihurturik— ez litzaiokie batere gaizki etorriko. Gainera, hemengo *minçua* apropos idatzia baldin bada eta benetako ahoskera islatzen badu, norbaitek pentsa lezake ea zer dela eta ez den arau fonetiko bera ezartzen errima kaltetu partez errimaren mesedetan izan daitekeen beste kasu batzuetan: *Ysandu çen consebi-tua* (10) / *Eman dezaque Jangoichoac* (12). Lehenago ere esan den bezala, ordea, ez dirudi egileak errimaren alderdi hau gehiegi lantzen duenik, eta, gainera, azkeneko bokalera mugatzen duela esan daiteke.

<sup>34</sup> Jatorrizkoan euskarazko zatiak inolako puntuazio zeinurik ez duelarik, ezingo dugu hortik ondorio handirik atera, baina, erdarazko bertsioan, aldiz, puntuazio zeinuren bat badenez —euskarazko *va-daren* baliokide *pues* hitzaren ondoren—, eta, gainera, erdarazko puntuazioa euskarazko zatiarena baino askozaz koherenteagoa baita, iruditzen zaigu zilegi izan litekeela *vada* horrekin ondorioa adierazi nahi izan dela pentsatzea.



26: *Andre one, ada* > *Andreonea, da* berridatzi dugunean sortu zaigun zalantza bakarra da hitza hiru zatitan banatu zutenean ea bi lehen zati horien artean inprentakoei *-d-* kontsonantea itzuri ote zitzaien ala benetan egileak letra hori gabe idatzi ote zuen hitz hau eskuzko originalean. *Andradone* XVI. mendearen hasiera inguruan agertzen zaigu dagoeneko, bizkaieraz (*TAV* 143). Aurrerantzean *Andrane* eta *Andrana* kontrakziodun aldaerak dira euskalki horretan aurkitzen ditugunak. Iparraldean, *Andredona* aurkitzen dugu aurrena nahiz gerora beste bi aldaera berriago nagusitu: *Andredana* eta *Andredena*. Nafarroa Garaian, berriz, lekukotzen arabera bi eremu bereiztuko genituzke. *Andredena* darabilte, batetik, Bordelek eta Luzaideko katiximak esate baterako, eta, geroago, Nafarroa ipar-ekialdeko autore gehiagok: Laphitzek, Zubirik eta Irigaraik. Nafarroako ipar-mendebalde eta hegoaldeko lekukotzak, bestalde, zaharragoak ere badirenez, espazio-denbora aldetik aurreko lekukotza horiekiko dagoen aldeak eragina bide du erabiltzen dituzten hitz honen aldaeretan: *Andredone* (Isastigan), *Andredona* (Berriainek eta Elizalde). Amezkoan 1634ko agiri batean zera daukagu: *Andre Done Maria Aldea* (*FLV* 36, 2004, 568. or.).

*Andreonea* irakurtzean, bada, ekialdeko eremu honetan beste lekukotza guztiek diotenaren aurka goaz nolabait, *-d-* mantentzen baita kasu guztietan.<sup>35</sup> *Andreonea* bestelako ezaugarri batengatik ere berezia dugu alabaina: Ama Birjinaren izenaren aurretik agertzen zen hitz hau lehen adibide ezagunetik —*Andradone M(aria) birgineari*— Irigaraik bestelako erabilera bat ematen dion arteko laurehun urteetan. Irigarainen erabilera —*Zeruko eta lurreko Andredenak berezi zuen bere egoitzarako...*— lehenik ere ezaguna zela dakigu, bada, poesiako adibide honekin.<sup>36</sup>

Lerroaren bukaeran, bestalde, atentzioa ematen duen hitza daukagu: *seguredá*. Hitzaren *-eá* amaiera hori ez da inondik ere hemen espero duguna, eta, hori dela eta, zuzentzea ere gogo emanda egon gara nahiz eta azkenean bere horretan uztea erabaki. Gehienbat, bestelako hizkuntz ereduren baten eragina tartean ibiltzea ezin delako erabat baztertu, liburua non argitaratu zen ikusirik. Bigarrenik, gainera, dagoenean utzita errima aldetik hobeto geratzen zaigulako: *seguredá / ònpeàn* errimari kalte egingo litzaioke, izan ere, *seguroá* zuzenduz.<sup>37</sup>

27: Lehengo sinkopa bera berriro: *orla* ‘horrela’. Cf. 15. ler. Hurrengo hitza aditzondo adieraz: *umillic* ‘umilki’.

28: Zuzenketa: *escarri* > *eçarri*. Lehenago ere agertu da hitz hau bigarren aha-paldian: *eçarri* (07).

29: *Arrengàtic* ‘hargatik’. Lehenago ere agertu zaizkigu honen antzekoak: *zerengatic* ‘zergatik’ (05), *orrengatic* ‘horregatik’ (19). Zuzenketa: *geldi* > *gueldi*.

30: Ekialdekoa: *deusgabe* ‘vencido’. Berebat esan daiteke hurrengo hitzagatik: *minçoa*. Cf. 24. ler.

<sup>35</sup> *Andreonea* irakurri beharrean *-d-* berridatzi behar dela erabakiz gero egokiena hitza bitan banatuta idaztea litzateke —*Andre Donea*—, testuetan beti ez bada ere gehienetan horrela ageri zaigulako.

<sup>36</sup> Cf. *OEHan* s. u. *Andredena*. Mitxelenak *OEHan* aipatzen ez diren zenbait datu ematen dituenek hauek ere erabili ditugu (*SHLV* 589).

<sup>37</sup> Cf. 33. oharraren bukaeran esandakoa. Ondorioz, *seguroá / ònpeàn* errimari ez lioke egileak, *se-guru* asko, *desegoki* iritziko. Cf. 18-20. eta 30-32. lerroen errimak.

31: Zuzenketa: *esta* > *eta*. Cf. 15. ler. Sinkopaz: *orla* ‘horrela’. Cf. 15. ler. Sorzezko Garbitasuna artean dogma ez zela hementxe ikus dezakegu, Bustamantek *opiniò ona* izenarekin aipatzen baitu fedeko egia ukaezin —bestela esanda, dogma— bihurtzea eskatzen duen bitartean.

32: Lerroaren hasierako adizki trinkoa subjuntibo adierakoa: *dela* ‘izan dadila’.<sup>38</sup> Aipagarria *-a* itsatsirik ez egotea hurrengoan: *egui*. Originalean *eguièta* dugularik, batera, elisioren bat egotea izan liteke azalpena: *Dela egui’èta fedeà*. Edozein modutan, Beriain XIX. mendeaz aurretik *-a* gabeko aldaera darabilen idazle bakane-takoa izatea ere gogoan hartu behar dela iruditzen zaigu.

#### 4. Ondorioak

Testuaren nongotasuna da ondorio hauetan argitu nahi genukeen datu nagusia eta ia bakarra, poesiaren inguruko bestelako alderdi denak ez badira ere gehienak garbi xamar geratu direla uste baitugu. Testuaren ekialdeko izaera salatzen duen hainbat hitz badirela orain baino lehen ere esana dugu oharretan: *baraçèan* (01), *erran* (05), *orla* (15), *gayçoà* (22), *orày* (23), *deusgabe* (30), *minçoà* (30), etab.<sup>39</sup> Ezaugarri bakarra ikusten dugu honen aurkakoa: *segureá* (26).<sup>40</sup> Lehenago ere esan dugunez, baina, baliteke honen atzean errima kontuak edota beste hizkuntz ereduren bat aurkitzea. Ekialdeko etorki nabarmen hori zertxobait zehaztea komeni zaigunez, bada, Iparraldeko jatorria da beste ezer baino lehen baztertu behar genukeena: egilearen izena eta ofizioa aski argigarriak dira alderdi honetatik, eta egileari buruzko datuetatik atera dezakegun iritzia sendotu baino ez dute egiten testuaren beraren ezaugarriek (hasperenik ezak eta mailegu batzuen itxurak, esaterako).<sup>41</sup>

Nafarroa Garaian kokatzen garelarik, bada, oraindik gehiago zehazten saiatu behar ginatkeela dirudi. Nafarroa Garai horretan bereizi izan diren bi hizkuntz eremu nagusiak hartzen baditugu, baina, testuaren ezaugarriak biotako zeini dagozkion ez da erraza erabakitzen, nafarreraren barruan testuak oso itxura estandarra eta ‘kolore’ falta nabarmena duela ez baitago, izan ere, ukatzerik.<sup>42</sup>

<sup>38</sup> Beriainek adibidez: *ala dela* ‘hala izan dadila’ (1626: 26, 27, 27, 53, 69).

<sup>39</sup> Zerrendaz kanpo uzten dugu ekialdean oso hedatuta egon arren bestelako eremu zabalak ere hartzen dituen zenbait ezaugarri. Cf. 42. oharren amaieran. Aipatutako ezaugarri bakoitzak, bada, XVII. mendeko edozein testu ekialdekoa den ala ez erabakitzeke balioko liguke, salbuespenak salbuespen (Landucciok zerrendako bigarren hitza ez bide zuen erabat ezezagun; XIX. menderako behintzat mendebaldean ezaguna zen hirugarrena).

<sup>40</sup> Ekialdean hurrengo hau ere ez da ohikoena: *eçarri bèça* ‘ezar beza’ (28). Beriainek, baina, halakoren bat badakar: *ycusi deçaquela* / *ycus deçaquela* (1626: 47).

<sup>41</sup> Orreagaz hegoaldera begira jartzen duten beste ezaugarrien artean honako hitz hau daukagu: *ago* (06). Cf. OEHan s. u. *aho*. *Jangoikoa* diptongorik gabeko aldaera ere lurralde horretan omen da ugarriena: *Jangoichoàc* (12, 18). Cf. OEHan s. u. *Jaungoikoa*.

<sup>42</sup> Francisco de Alesonek Felipe IV.aren omenez poesia aski ezagun bat argitaratu zuelarik, 1666an, Mitxelena hari buruz zioena garai beretsukoa den gure poesia honi buruz ere esan daiteke, neurri batean: «Muestra rasgos navarros —o, mejor, orientales— no muy marcados, por lo general» (TAV 137). Bustamanteren kasuan definizio falta hori gehiago dagokio, ordea, ekialde kutsu edo nafar itxurarik ezari baino, hizkera nafarren artean dagokion lekuari. Bustamante eta Alesonen testuak erkatzen baditugu, izan ere, nafarrera «usain» handiagoa du lehenak, gorago aipatu diren ezauga-

Hiztegiaren alderditik, dena dela, hegoaldeko nafarrerara begira jartzen gaituzten zenbait arrasto egon litezkeela deritzogu. Hurrengoa *-a* itsatsirik gabe erabiltzea, adibidez, ez da normalena: *egui* ‘egia’ (32). Hegoaldeko nafarreran omen da eza-guna, batez ere, hurrengoa: *escogitu* ‘hautatu’ (18). Utergako Beriain da garai hartan lehen hitzaren aldaera hori dakarren egile ia bakarra eta bigarrena ere, besteak beste, Beriainek berak darabil.<sup>43</sup> Deigarriagoa da hiztegi aldetik hurrengoa (testuan, esan bezala, hemen aipatzen denaz besteko adieraz erabilia): *burriña* ‘burdina’ (24).<sup>44</sup>

Hiztegiko datu gutxi hauekin nekez ezar genezake, dena den, testuaren jatorria, are gutxiago esku artean ditugunak datu baino gehiago zantzu huts direnean (aurreneko biak gehienbat). Hiztegiaren esparru horretatik kanpora, gainera, poesiaren testutik ezer gutxi atera dezakegu berau hegoaldeko nafarreran kokatzen lagun leza-keenik.<sup>45</sup> Fonetika alderdian, adibidez, hegoaldeko nafarreran *daus* zabalpen handiko aldaera den bitartean, bestelakoa dugu poesia honetan: *deusgabe* (30). Hiztegi-gian *bage* edo *zerik* bezalako aldaerarik ere ez dugu aurkitzen: *gabe* (09), *nola* (23), etab. Aditzaren morfologiak dioskunak inportantzia handiagoa izan lezake testua zein hizkerari atxiki behar zaion ezartzeko, baina, hemen ere, estandarrak dira oso testuak eskaintzen dizkigun aztergaiak: *audi bèza* (01), *nay diòt eman* (02), *yaçandu bazen* (03), *erran bèça* (05), *ysandu çen* (10), *nay balinbâdu* (11), *eman dezaque* (12), *ysandu cen* (14), *escogitu çuen* (18), *çen* (19), *balinbâdago* (22), *eçarri bèça* (28). Hegoaldeko nafarreran oso hedatuak diren zenbait aldaeraren arrastorik ez: *eman draucot*, *erran bez*, *nay barinbadu*, *eman zaque* edo *escogitu çue* gisakorik ez da hor ageri.<sup>46</sup>

Datuokin esan ote dezakegu, beraz, hegoaldeko nafarrera behin bazterturik, besrelako nafar hizkeraren baten aurrean gaudela? Ez dirudi horren erraza. Lehenbizi, fonetika kontu hori eta hiztegiko adibide pareia geroago —XVIII-XIX. mendeaz geroztik— lekukotzen dira hegoaldeko nafarreraz, eta, halaber, aditzaren morfolo-

---

riak ez ezik beste zenbait ere biltzen baititu —nafarreraz aukera bakarra ez diren arren eta hortik kanpora ere ezagunak izanagatik— nafarreraren halako estereotipo bati hobeto erantzuten diotena: *yaçandu bazen* (1656) / *izan da* (1666), *veretaco* (1656) / *verezat* (1666), etab.

<sup>43</sup> Cf. *OEHan* s. u. *egia* eta *eskogitu*.

<sup>44</sup> Cf. *EAEL* 107. zb. Halaber: *OEHan* s. u. *burdina*. I. Caminok *burrin* hegoaldeko nafarreraren «ia esklusibo» diren hitzen artean aipatzen du, hizkuntz eremu honen eskualde guztietara iristen ez den arren. Beriainek, adibidez: *burniac* (114r). Nafarroan testu hau non kokatu jakiteko bidea eman lezakeen hitza dugu, beraz, honakoa. Hegoaldeko nafarreratik at ere Aezkoan eta Bizkaian —sartaldeko bizkaieraz— *burrin* ezaguna izatea ez zaigu, berriz, hemen gehiegi inporta, aurrean dugun testuak ez baitirudi aezkera, eta are gutxiago bizkaiera.

<sup>45</sup> I. Caminoren berriki ateratako artikulua erabiliko dugu, nagusiki, hegoaldeko nafarreran zer nolako ezaugarri ageri diren erreferentzia gisa (Camino 2003).

<sup>46</sup> Hegoaldeko nafarreraren ohikoak diren beste zenbait ezaugarri, aldiz, agertzen zaizkigu. Adibidez, (*h)ar-* hirugarren pertsonako erakuslearen erroari atzizkia eranstea *-rr-* dardarkari bikoitza daukagu: *arregàtic* (29). Hegoaldeko nafarreraren ezaguna bide da halaber hurrengoa: *zerengatic* ‘zergatik’ (05). Hirugarrenenik, *-(e)s* instrumentala ere hizkera honetan da beste inon baino ugariagoa: *verris* (24). Honelakoak, ordea, Nafarroako beste leku batzuetan ere aurki ditzakegu. Lehenengoa Intzako sermoi batean dugu esate baterako: *arren* ‘haren’ (*ETZ* 180), *arri* ‘hari’ (*ETZ* 181), etab. Etxalarren ditugu, berriz, bigarren horren kidekoak: *zerengatic* ‘zergatik’ (*Contr.* 139), *orregatic* ‘horregatik’ (*Contr.* 139), etab. Amaitzeko, *-(e)s* instrumentala ezaguna da halaber iparraldeko nafarreraren zenbait eremutan. Cf. *FHV* 282. Caminok *-(e)s* edo *-(e)z* aldaeren banaketa zehatzago dakar aipatu artikuluan (2003: 453).

giako aipatu alderdietako batzuez ere horixe bera esan dezakegu: *nay barinbadu* edo *eman zaque* gisakoak ere geroago agertu zirela testuetan.<sup>47</sup>

Bustamantek *eman draucot* edo *escogitu çue* erabiltzea ere erabakigarri gerta zeki-gukeen, halaber, testuaren nongotasuna ezartzeko, baina, oraingoan ere, erromantze honetan ez dugu halakorik. Gehienbat bigarren hori hegoaldeko nafarreraren ezaugarririk behinena jo izan den arren, halaz guztiz ere, ezaugarri bi horietarik ez bata ez bestea ez da ezinbesteko testu bat hegoaldeko nafarreratzat hartzeko, Bustamantek idazten zuen garaian forma aniztasuna baitugu inguru honetako testuetan bi alderdi horiei dagokienez: Beriainek *digu* nahiz *draugu* sailtako adizkiak nahasian erabiltzen ditu, adibidez;<sup>48</sup> *-n* atzizkidun adizkiak ageri dira iraganean, gainera, autore horren beraren testuetan.<sup>49</sup>

Ondorioz, XVII. mendeko testu bati nekez eskatu ahal izango diogu, hegoaldeko nafarreraren sailkatzeko, goragoko zerrenda hartan aipatu diren baldintzak, gehienak behintzat —*eman draucot*, *nay barinbadu*, *eman zaque*, *escogitu çue*—, betetzerik. Salbuespena *beza* aginterazko adizkia izan daiteke beharbada: Nafarroaren hegoalde inguruko testu zaharrek nahiz datu berriagoek *bez* erabiltzen zela dioskute (Camino 2003: 455-56).<sup>50</sup>

Laburbilduz: Bustamanteren testuari hegoaldeko nafarreraren halako tankera bat ematen dioten zenbait elementu ditugu, hiztegiko daturen bat gehienbat, eta, horren kontra, aditzaren eremuko oraintxe arestian aipaturiko apokopea, edo, ondo esateko, apokoperik eza. Gainontzeko datuek testu nafar baten aurrean gaudela ziurtatzen dute, baina jatorri hori gehiago zehazten ez digute laguntzen. Hiztegiko arrasto urri horiek eta aditzaren ezaugarri bakar hori hartzen ditugula, bada, bi datuok oinarri guztiz ahula eskaintzen digute, batak bezala besteak, nongo euskararen aurrean gauden jakiteko. Horrenbestez, hortik aurrera esan daitekeen oro espekulazio hutsa izango dela jakitun izanik ere, hala ere ez diogu uko egin nahi gure iritzia emateari, eta, errazenera joz eta elkarrekin bat ez datozen bi datu horietan oin harturik, iparralde eta hegoaldeko bi nafarrek bat egiten zuten inguruko testu baten aurrean egon gaitzkeela deritzogu. Egileari buruz gehiago jakiteak auzi hau argitzen lagun lezake, eta espero dezagun noizbait arrazoa emango —edo kenduko— diguten datu berri horiek agertzea.

\* \* \*

<sup>47</sup> Beriainek adibidez: *baldin badauil* (1621: 93r), *eguin dezaque* (1621: 90r), etab. Bigarrena 1609ko poesietan ere badator: *deçaque* (TAV115). Beriainek *çaque* / *deçaque* bikoteko bi elementuak omen dakartza, ordea, Intzaren arabera, nahiz guk, gainetik begiratu bat emanda, aurkitu ez ditugun. Cf. Intza 1921: 13.

<sup>48</sup> Cf. Beriainen adizkiok: *diçudan* (1621: 77r) / *drauçut* (1621: 76v), *digu* (1621: 10v) / *draugu* (1621: 18r), *diçuna* (1621: 44v) / *baytrauçu* (1621: 76v), etab. Beriainek erromantzean dugun adizki berbera ere bietara: *escacen diot* (1626: 52) / *eguiten draucot* (1626: 33). Beharbada, baina, hirugarren pertsona singularreko datiboa duten adizkietan *-i*-erroarekin dabil gehienetan: *diöçu* (1621: 59r), *dio* (1621: 53r), *diogu* (1621: 77r), *diotela* (1621: 18r), etab. Cf. Yrizar 1992: 480-481. Alabaina, 1609ko poesia batean *ematen dion* daukagu batetik, eta, bestetik, adizki horren beraren baliokide trinkoa: *drauco* 'ematen dio' (TAV113-114).

<sup>49</sup> Bestelakoak, *-n* atzizkidun adizkiekin nahasian, 1609ko poesietan: *nîçu* 'nizun' (TAV112), *baçe* 'bazen' (TAV114), *çigu* 'zigun' (TAV116), etab.

<sup>50</sup> Cf. Beriainen hau esate baterako: *errambez* (1621: 90v). Beriainek berak beste hau ere badakar: *baldin eguin badez* (1626: 58).

**ERANSKINA:**  
**EUSKARA XVII. MENDEKO**  
**ARTZAIN KANTA BATEAN (1629)**

Erdarazko artzain kanta batean ageri den euskal testu zati bat emateko ere hauxe iruditu zaigu lekurik egokiena, Bustamantek idatzi omen zuen eta artikulua honek ekarri dugun beste testu horrekin bai baititu lotura batzuk. Lehenbizi, euskararen bi lekuko hauek garaitu batean idatziak dira biak, hogeita hamar bat urteren aldearekin, eta, gainera, erlijio gaiko poesiak dira bata bezala bestea. Honekin lotuta, Ama Birjinaz hemen ematen zaigun irudia Bustamantek duenaren oso antzekoa da, sugeari burua zapaltzen ageri baita, eta, horrekin, bekatua garaitzen: *Al serpiente y culebras / Con valor... / Cabeças y cascos quiebras, / Rasgas caras, rompes sienes, / Queiebras puertas infernales* (06-10).

Urkizuren lehen esandako liburuan aurkitu dugu euskal testu labur hau dakarren lanaren aipamena (Bustamanteri buruzko datuak biltzen genbiltzala, hain zuzen ere, eta kasualitatez):<sup>51</sup> *Ramillette de divinas flores para el desengaño de la vida humana recopiladas con diligencia de los mejores y mas famosos poetas de nuestros tiempos*. Urkizugan, bada, Belgikako Antwerpen hirian artean espainiarren mende zegoela 1629an argitaratu atera zen lan honi buruz zera irakur dezakegu (2000: 179):<sup>52</sup>

A lo largo del XVII al igual que en el XVI no faltan villancicos en diversas lenguas entre las que aparece el personaje del vizcaíno mezclando a su castellano «sui generis» palabras en euskera como en éste cuyo título es: *Villancicos nuevos en seys lenguas, castellano, portugués, vizcayno, gallego, morisco y guineo*.

Urkizuren aipuan kurtsibaz den hori liburuaren zati baten izenburua litzateke, 242-61. orrialdeak hartzen dituen liburuaren azken aurreko zatiaren izenburua. Orrialde hauetan bederatzi konposizio ikus ditzakegu (izenburuan hizkuntza aipatu ezean gaztelania arruntean idatzirik): «Villancico primero» (242-44), «Villancico en gallego» (244-45), «Otro en portugues» (245-46), «Coloquio» (246-54), «Villancico» (255-56), «Otro en guineo» (256-57), «Otro en vizcayno» (257-58), «Otro en morisco» (258-59), «Seguidillas al Nacimiento» (259-61). Zazpigarren hori da guri interesatzen zaiguna, jakina, «vizcayno» deritzon hizkuntza horretan idatzitakoa: aurrerago ikusiko dugunez, baina, hegoaldeko euskaldunen ahotan garaiko espainiar literaturak jarri ohi zuen erdara gaiztoa baino ez da artzain kanta horretan daukaguna, gehienetan —ondoko «guineo» edo «morisco» horiek bezala— irakurle edo entzulei barre eragiteko erabiltzen zen gaztelania mordoilo estereotipoz betetakoa. Salbuespena aski itxuragabetuak egon arren euskarazko diruditen tarteko bi lerro genituzke: horietan izan dira, hain zuzen, eranskin honen eragileak.

<sup>51</sup> Cf. 8. oharrean esanikoa.

<sup>52</sup> Palaugan 1620 aipatzen da ale baten edizio urtetzat; Palauk berak urte hori hustzat bide du alabaina (Palau y Dulcet 1962: 43).

Liburuari buruz beste ezer gutxi dugu eransteke, gainerako zatieta ez baita ezer hemen interesatzen zaigunik. Erabilitako alez den bezanbatean, Espainiako Erret Akademiako alearen kopia erabili dugu batetik, eta, bestetik, Londresko British Library-tik bidalitako beste kopia batez ere baliatu gara halaber. Bigarren hau da facsimile gisa eskaintzen duguna (77-79).<sup>53</sup>

Egiletzari dagokionez, liburuan jasotzen diren literatur piezen biltzailearen izena da ezagutzen dugun datu bakarra, izenburuari jarraitzen dioten hitzotan laburdura batez adierazia: *Ramillette... Recopiladas con diligencia de los mejores y mas famosos poetas de nuestros tiempos por P. F. G. C. D.* Aipaturiko BL liburutegi horren katalogoan laburdura honen esanahia ikus dezakegu: Zaragozako Padre Fray Geronimo Carmelita Descalzo delako fraidea izan zen testu horiek bildu eta argitara zituen. Zaragozan 1590ean jaioa genuen eta gaztetan militarra izandakoa: Flandriara armadan joan zelarik, ordea, 1613an fraide sartu zen aipatu ordena horretan.<sup>54</sup> Geronimo de la Madre de Dios erlijio izen berriarekin lauzpabost liburu argitaratu zituelarik, bada, Antwerpen hirian bertan hil zen handik urteetara, 1661ean.<sup>55</sup>

Biltzailea nor izan zen ezaguna da, beraz, baina egilea nor izan zenik ez dakigu. Liburuaren azalean garaiko poetarik hoberenek, osperik gehiena zutenek, eginak dirrela ikusi dugu arestian, eta sarreran ere antzeko zerbait irakur dezakegu: Iuan Bravo delako horri eskaini dion obra hau omen da, esaten denez, «forxada en la fragua de los mejores y mas eminentes ingenios que en materia de poesia fomentò Espanna». Originala eskuizkribu edo lan inprimatu batetik jaso zuen ere ez dakigu, eta denbora faltaz saiatu ere ez gara egin aurkitzen. Gainera, ezagutzen ditugun euskal artzain kantetakoaren batean euskarazko hitz horiek ageri diren ere ez dugu begiratu. Oraingoz bego gai hau, horrenbestez, bere horretan.

Euskarazko testua dakarren artzain kantari heltzen diogularik, bada, bestelako ezer baino lehen testua bera eskaini nahi genuke. Originaleko testuak ez du aldaketa handiren beharrik: <s> luzeentzat ere grafia arrunta erabili dugu eta egokitu egin dugu halaber, zertxobait, puntuazioa (euskarazko testua dugu honetan salbuespen, kurtsibaz idatzi duguna, oraingoz hor originaleko puntuazioari eusten baitiogu). Aldaketa txiki hauek sarturik, bada, testuaren transkripzioa honako hau litzateke:

Otro en vizcayno

Oy principias nuestros bienes,  
Oy feneces nuestros males,  
Porque en pesebre y portales  
A Iuan Guaicoa le tienes.

<sup>53</sup> Honakoak dira erabili diren bi aleen signaturak: Academia Española (37-X-25), British Library (11450.aa.32).

<sup>54</sup> Euskarazko testu zatia duen liburua, dena dela, militar bati dago eskainia: «Al maestre de campo Iuan Bravo de Lagunas, del Consejo Supremo de Guerra de Su Magestad, y su castellano del castillo de Amberes».

<sup>55</sup> Biografiari buruzko datuetarako: *Bibliotecas antigua y nueva de escritores aragoneses de Latassa aumentadas y refundidas en forma de diccionario bibliográfico-biográfico* in 155.210.60.15/latassa/latassa.html (Gómez Uriel 1999). Zehatzago, hurrengoa izan da erabili dugun artikulua: «Jeronimo de la Madre de Dios (de Flandes)» in 155.210.60.15/latassa/J/Latassa\_J1404.html. Bibliografia gaiterako: Palau y Dulcet <sup>2</sup>1954-1955: 52; Simón Díaz 1982: 194.

- 05      Andrana Maria, vos  
 Al serpenton y culebras  
 Con valor, juras a Dios,  
 Cabeças y cascos quiebras,  
 Rasgas caras, rompes sienes,  
 10      Quiebras puertas infernales,  
 Porque en pesebre y portales  
 A Iuan Guaicoa le tienes.

*Gueire, cerue, tacoa,  
 E me e derba, guachinda.*

- 15      Aunque desnudo està,  
 Es hermoso Iuan Guaycoa.  
 Tu le traes, tu le vienes,  
 Tu nos das tesoros tales,  
 Porque en pesebre y portales  
 20      A Iuan Guaicoa le tienes.

Oy principias nuestros bienes,  
 Oy feneces nuestros males, &c.

Euskarazko zatiari dagokionez, iruditzen zaigu hitzen banaketa moldatu eta dauden huts ugariak zuzendurik originala honelako zer bait izan zitekeela:

*Gueure ceruetacoa,  
 Ume eder bat guacean da.*

Ez dut uste lekuz kanpo dagoenik euskara estandarraren eta euskalkien edo hizkeren arteko eraginetan sakontzen hasi aurretik gai honek orain artean ezagutu duen iragan eta bizi duen errealitateatik askatuz, etorkizunerantz begiratzea eta nolako hizkuntza nahi dugun itauntzea proposatzea. Gure seme-alabek eta ondorengoek 40 urte barru nolako hizkuntza, nolako hizkuntza erregistroak edo mailak izan ditzaten nahi dugun galdetu beharko geniokeela geure buruari uste dut: hizkuntza oso monolitiko edo monoestilistikoa, ia aldaera diatopiko, diastatikoa eta diafasikorik gabea; ala hizkuntza aldaera indartsu bat, ondoan kolore desberdinak gordeko lituzketen aldaera desberdinekin; ala hizkuntza aldaera orekatu eta mailakatu, herriko hizkeratik hasi eta goren mailara doana; ala...

Zer nahi dugun horrek erakutsiko liguke jarraitu beharko litzatekeen bidea. Oraindik hizkuntza mailak planifikatzeko daukagun aukera izanik, sasoia dela deritzot, berandu baino lehen, orain arte gertatu dena aztertu, inguruko hizkuntzetan gai honetan egin diren ikerketetatik ikasi eta aurrerantzean euskararen kasuan gerta daitekeena planifikatzen hasteko.



Euskararen munduan bada oraindik euskara batua edo aldaera estandarraz bes-telako alderen promozioaz ezer entzuterik gura ez duenik; eta oraindik diot kon-bentzituta bainago euskarak bizi-irauteko batua ezinbestekotzat jotzen zen sasoi-an bizi izandako shock hura gainditu ez duen jendea badelako edota euskalkiak pro-mozionatzen aritzea alferrikako indar galtzea dela uste dutenak badirelako. Horiek garbi dute hizkuntza mailei dagokienez zein planifikazio egin behar den. Badira beste batzuk, oraindik planteamendu hau egiteko ordua ez dela heldu uste dutenak ere; euskara estandarra guztiz gorpuztu gabe anabasa sor daitekeelako euren aburuz. Bada, azkenik, hirugarren multzoa, zeinak aldaera estandarraz peko aldaeren pro-mozioan diharduen, promozio hau euskararen aberasgarri gisa ulertzen duen eta al-daera desberdinen nola edo halako oreka bilatzen duen.

Azken multzo honetan kokatzen direnen artean ere ez dago batasunik, egia esan behar bada; eta, ondorioz, norabide berean ez doazen eta elkarren artean osagarri ez diren mota askotako lanak egiten dira: batzuk itsu-itsuan dihardute euren aldaeren promozioan, beste batzuk askoz ere modu orekatu eta integratzaileagoan lan egitea proposatzen dute. Dispersioa eta noraeza direla ezaugarri nagusia esango nuke, indar horien lanari buruz esaldi batean nire iritzia ematera behartuko banindute. Bada sasoi indar horiek koordinatu eta zuzentzeko helburuak argitu ondoren nora-bide zehatzetan lan egiteko.

Gai honek hizkuntza kalitateaz ere lotura izan lezake, ukitzen dituen edo lituz-keen alderdi desberdinak aipatuz gero. Baina aipamen hutsean uztea gurago dugu kontzeptu bera definitzean bat etortzeko bakarrik ere arazo bat baino gehiago izango genituzkeelako.

## 1. Hizkuntza estandar eta dialektoen arteko dinamika

Hizkuntza edo aldaera estandarren eta dialektoen arteko bateratze joerak az-tertzea du helburu lan honek, gorago esan bezala. Gai hau behin baino gehiagotan izan da jorratua historian zehar. Euskararen kasura mugatuz ikuspuntu diakroniko-tik begiratuz ikerketa lana aurreratuta dagoela esan behar da.<sup>1</sup> Bego hor, aipamen hutsean, ez delako gure jomugaren norabidean aurkitzen.

Ikuspuntu sinkronikotik begiratuz ere hasi dira metodologia berriak aplikatzen egoera desberdinak ikertzeko. Arlo honetan kokatzen da gure ekarria. Izan ere, dia-lektologia sozialaren ikuspuntutik, hizkuntza aldagarritasuna hizkuntza aldaketaren manifestazio sinkroniko legez eta hizkuntza aldaketa hizkuntza harremanen ondo-rio legez ikertu gura da.

Europa osoan 20. mendean zehar dialekto tradizionalak gero eta nahasiago bihurtuz joan dira. Dialektoek historikoki ezagutu duten trinkotasun eta egonkorta-suna galdu egin dute, euren ezaugarriak urtuz, desagertuz joan dira. Dialektoen di-luitze honen eragileen artean hizkuntzen estandarizazioa, industrializazioaren ondo-ria den hirietaranzko giza-mugimendua, eta eskolatze eta komunikabideak aipatu izan dira, gaiko literatura tradizionalan. Bilakaera demografiko eta kultural honek dialekto tradizional eta estandarren artean hitzuna 'hizkuntza continuum' batean

<sup>1</sup> Interesatuak K. Mitxelena (1992) eta J. A. Lakarraren (1986 eta 1992) lanak eskuragarri ditu.

kokatu du, maiz aldaera berrien sorleku bihurtuz. Aldaera berri hauek egitura difusoa, ez-zehaztua, izan dezakete edo oso konkretua eta zehatza, bai hizkuntza ezaugarri dagokiolarik, bai eredu geografikoari dagokiolarik.

Dialekto tradizionalen galtzeko arrisku honek eragin du Auer ta Hinskens-ek deitzen duten (1996: 5) ‘dialektoen berpizkundera’ mugimendua. Mugimendu hau 70. hamarkadan hasi zen Europan. Euskal Herrian bestelako beldurrak jota zegoen sasoi horretan euskaldungoa: euskara beraren heriotzea, hain zuzen ere. Bestalde, sasoi horretan hasi zen euskara batua eta estandarra bere lehen urratsak ematen, plano “teorikoan” iskanbila eta eztabaida amaiezinetan murgildua zegoen bitartean. Hamarkada bi eta euskara estandarra gorpuztea behar izan dira euskararen kasuan ere euskalkien eta hizkeren aldeko mugimenduak “euskalkien berpizkundera” eman arte.

Mugimendu hau ikerketaren bultzagile izan da. Aldaera desberdinen arteko bateratze joera mota asko daude ikerketetan zehar bilduak. Arazoa edo gaia dimentsio askotan izan daiteke aztertua eta neurtua: batetik, badira ‘bateratze horizontalak’ eta ‘bateratze bertikalak’ (Auer 1998); bestetik, badira ‘bateratze indartsuak’ eta ‘bateratze ahulak’; azkenik, badira osoraino heltzen diren konbergentzia joerak eta gutiz burutu gabeko konbergentziak.

Kontzeptuak eta terminoak zehaztuz, ‘bateratze bertikala’ aldaera estandar eta dialektoen arteko bateratzeari deitzen zaio; ‘batzeratze horizontala’, aldiz, dialektoen artekoari; hots, maila berean dauden dialektoen arteko bateratze joerei. Guk bateratze bertikalaz jardungo dugu ikerketa honetan.

### 1.1. Bateratze bertikalak

Konbergentzia bertikalak aldaera estandarren eta dialektoen arteko bateratzei deitzen zaie. Goragoko mailan dagoen prestigiodun aldaeraren indar zentripetoaren eraginez sortzen da konbergentzia edo bateratze mota hau.

Horrela, dialektoak aldaera estandarren ezaugarriak eurenganahalegin-tzen dira, prestigiodun aldaeraren distirak eraginda. Dialektoek euren ezaugarri propioak eta bereziak galduz doazen heinean estandarrenak hartzen dituzte. Bateratze mota honi bateratze dialektal monozentrikoa deitzen zaio.

Bateratze hauek gertatzen diren lurraldeetan, sarritan, dialektoak barietate primitibotzat jotzen dira inplizituki, estandarri lekua utzi behar dioten barietatetzat, alegia. Aldaera estandarra berria, gaztea, etorkizuna eta antzeko kontzeptuez inguratu eta jantzirik azaltzen da, dialektoa zaharkitu, iraganari lotu eta etxerakotzat jotzen den bitartean.

Bateratze bertikalak maiz konbergentzia horizontala ere badakar edo ekar lezake, behintzat, ondorio bezala. Izan ere, estandarrenzko prozesuan dialektoak elkarrekin batera doazenean eta estandarrak modu bertsuan eragiten dienean, estandarren eta dialektoen arteko distantzia txikituz doan bitartean, dialektoen arteko forma desberdinak ere urrituz joaten dira (Auer & Hinskens 1996).

Konbergentzia edo bateratze bertikal eta horizontalaren prozesua, hizkuntza komunitate nazionalaren perspektibatik ikusten denean, noiz edo noiz dialekto eta estandarren arteko (eta batzuetan dialektoen arteko) aldaera berri bat edo gehiago sor daiteke. Aldaera berri hauek sortzea hizkuntza komunitatearen hiztun dinamikoen zeregina izaten da.

Elkar-eragintzatik sortutako aldaera berriok izendatzeko ‘erregiolekto’ edo ‘eskualde-berbete’ (‘regiolect’) eta ‘estandar erregionala’ (‘regional standard’) terminoak erabiltzen dira (Auer 1998: 2).

‘Erregiolekto’ edo ‘eskualde-berbete’k dialekto tradizionala eta aldaera estandarren arteko harremanetatik sortzen dira. Sortze hori bi ikuspunturen arabera azter daiteke: lehena, dialekto tradizionalak estandarren ezaugarri batzuk hartu eta bereganatzen ditu; kasu honetan dialektoak modu dinamikoan hartzen du parte, bera da eragile. Bigarrena, aldaera estandarren indarrak dialekto tradizionaletan eragiten du bere ezaugarri batzuk harraraziz. Lehenean dialekto tradizionalak funtzio aktiboa izango luke, aldaera hartzailea litzateke; bigarrenean, aldiz, haren zeregina pasiboa litzateke, hots jasotzailea.

Desberdintasun hau garrantzitsua da dialekto berri edo ‘erregiolektoa’ sortzean, egitura berriaren norabidea berak kudea dezakeelako batean, bestean noraezean joango litzatekeen bitartean.

Honelako prozesuetan gerta liteke hasierako egoera *diglosikoa* (aldiera estandarra dialekto askoren gainetik dagoela adierazten da) desegin eta Bellmann-ek deitzen duen *diaglosikoa* bihurtzea (1998: 24).<sup>2</sup> Egoera diglosikoan “behean” aurkitzen den aldaerak egoera egonkorra ezagutzen du hizkuntza korpusean: korpusean ez du aldaketarik ezagutzen, aurretik baliatzen zituen hizkuntza baliabide berak erabiltzen ditu. Hizkuntza aldaera bat egoera diaglosikoan dagoela esaten denean, berriaz, bere ezaugarri nabarmenen eta berezkoenak galduz doala adierazi gura da; bere korpua aldatuz, urrituz doala eta estandarren ezaugarriez betetzen doala.

Termino hau oso ezaguna ez izan arren baliabide berriak eskaintzen ditu egoera honetan aurkitzen diren aldaerak modu zehatzago batean aztertzeko. Euskararen kasuan aldaera gehienetan gertatzen ari dena azaltzeko garrantzitsutzat jo behar da. Izan ere, egoera diglosikoan izan ordez egoera diaglosikoan aurkitzen dira euskalki eta hizkerak, hizkuntza edo aldaera estandarren ondoan. Euskalki batek erगतibo pluralerako inoiz ezagutu ez duen *-ek* atzizkia hartzen duenean eta arrazoietan “bereaz, *-ak* da sartalde eta erdiko euskalkietakoa, baina batukoa asko zabaldu da aspaldiko denporetan; gainera, *-ek* atzizkiak hobeto bereizten dira *Nor* eta *Nork* kasuak” (Labayru Ikastegia 2001: 129) esaten denean eta euskalki horretarako *-ek* atzizkia onartzen denean, euskalki horren sisteman ezagutzen ez zuen morfema bat sartzen ari gara sistema desegonkortuz. Egoera honi deitzen zaio egoera diaglosikoa izatea.

Euskararen gaurko egoeran euskalki guztiak egongo lirateke egoera diaglosikoan, ikuspuntu honen arabera.

Euskararen barnetik begiratuta, eta hizkuntza beraren aldaeren arteko harremanez ari garela, egoera diaglosikoak ez du nahitaez iritzi ezkorra izan beharrik. Gehiago oraindik, harreman horiek menpekotza edo morrontza legez ulertzen badira; hau

<sup>2</sup> *Diaglosia* kontzeptu honela definitzen du Bellmannek: ematen diren bi muturreko hizkuntza aldaeren artean, ezaugarrien kontinuum bat dago, zeinetan, dialektoa, hizkuntza interferentziaren ondorioz, substandarraren parte izanik, bere ezaugarriak, batez ere ezaugarri nabariak, galtzen doan. Auer-ek Bellmann-en diaglosia aipatzean honela azaltzen du: gainerako aldaera edo formen kontinuumak guztiz betetzen du estandar eta dialekto tradizionalen arteko espazio estrukturala (1998: 24).

da, aldaera estandarra funtzio batzuetarako eta aldaera subestandarrek (eskualdeberbeta, herri-hizkera...) beste funtzio batzuetarako erabiltzeko hizkuntza erkidegoa adostasun batera heltzen bada. Gauzak horrela eratuz gero, euskalkiek edo hizkerek aldaera estandarrekin “dependentzian”, beste hitz bat erabiltzearen, bizitzea euskararen gizarteak onartuko balu, sortzen den egoera diaglosikoa ez litzateke txartzat edo okertzat jo beharko.

Honekin esan gura dena ondokoa da: berez kontzeptu hori, besteak bezala, zuzentzat edo okertzat jotzen duena egoera horretan dagoen hizkuntza edo aldaera erabiltzen duen gizartea dela eta berari dagokiola, hain zuzen ere, onartzea edo ez. Zeren, geroago agertuko den legez, egoera hori gizarte horrek bilatu ere egin lezake, bere interes linguistikoak hobeto defenditzeko sortzen duen trikimailua ere izan baitaiteke. Eta izatez hala gertatzen ari dela iruditzen zait eskualde-berbetak biltzen ari diren ezaugarriak kontuan izanik, geroago erakutsiko den legez.

## 1.2. Bateratze horizontalak

Bateratze horizontalak dialektoen arteko konbergentziak dira. Bateratze prozesu hauek dialekto/estandarren arteko dinamikatik independentetzat hartzen dira, nahiz gorago esan legez, dialekto eta estandarren arteko harremanen ondorio ere izan daitezkeen. Maila berean kokatuta dauden bi dialektoren arteko bateratze joerak dira.

Dialektoen arteko bateratze eta urruntze joerak aldaera estandar indartsurik eza gutzen ez den sasoi eta lurraldeetan ematen dira nagusiki eta errazen. Baina ezaugarri hau ez da bakarra, ezta determinatzailea. Gure ustez estandar indartsurik ez egoteaz gain, hizkuntza polizentrikoa izan behar da; hau da, hizkuntza hori biltzen duten dialektoek gune dinamiko propioak izan behar dituzte. Gune dinamiko eta eragile horiek hartzen dituzten norabideen arabera azalduko dira dialektoen arteko bateratze edo urruntze joerak.

Aldaera estandarra nagusitzen denean dialektoen arteko harremana ahuldu, eta dialekto eta aldaera estandarren artekoa indartu egiten da. Honelako egoeretan zail izaten da dialektoen arteko urruntze joerak izatea, aldaera estandarren eraginez honen ezaugarriak direlako hedatzen direnak eta dialektoek barneratzen dituztenak.

Hurbilketa hauek dinamika orekatu baten bidez eman daitezke (bateratze joeran biek hartzen dituztenean bestearen ezaugarriak) edo dinamika desorekatuan (dialekto batek bestearen ezaugarriak hartzen ditu, baina honek ez harenak).

Mota honetan kokatzen dira ikuspuntu diakronikotik nagusiki K. Mitxelenak lehenik eta J. A. Lakarrak ondoren egindako eta gorago aipatutako ikerketak.

Baina bateratze horizontala eman daiteke *estandar erreģionalen* inguruan ere. Bateratze mota hauetan bateratze dialektalaren prozesu edo bateratze dialektal polizentrikoaz hitz egiten da. Bateratze joera desberdinak ere eman daitezke aldi berean eta gune geografiko desberdinetan. Bateratze bakoitza independentea izaten da eta ez du gainerakoekin zerikusirik izaten.

Auer-en esanetan (1998: 5) gaur egun dialektologian arazo garrantzitsuena aldaera dialektalen egoera estandarrenazko konbergentzia-urrats gisa interpreta daitezkeen jakitea da. Badirudi ez dela nahitaezkoa estandarrenazko konbergentzia-urrats gisa ulertzea eta ikerketa enpirikoak adierazten dutela aldaera erreģionalen bilakaera eta hedatzeak aldaera estandarretik dibergentzia inplika dezakeela.

Bai batzeratze bertikala, bai bateratze horizontala gradu, indar eta eragin diferenteetan eman daitezke.

### 1.3. Bateratze indartsu eta ahulak

Bateratze joerak izan daitezke indartsuak edo ahulak: ‘bateratze indartsua’ deituko zaio dialektoa desagerrarazteraino eraman lezakeen bateratzea denean; ‘bateratze ahul’ edo motela deituko zaio estandar edo beste aldaera baten eraginez dialektoak ezaugarri batzuk baino galtzen ez dituenean.

Bateratze joera bi mota hauek aurki daitezke hizkuntza berean zein dialekto berean: dialekto batzuetan mota bat eman daitekeen bitartean ondorengoan bestea gerta liteke (izan liteke, adidibez, bizkaierak bateratze ahula ezagutzea, gipuzkerak bateratze indartsua ezagutzen duen bitartean); baina dialekto berean ere eman daitezke: lexikoan, adibidez, dialekto batek ezagut lezake bateratze mota bat eta gramatika alorrean bestea. Honen arabera, berez, hizkuntza alor bakoitza besteetatik independente izan daiteke eta ez luke beste alor bat behartuko.

Konbergentzia edo bateratze tipo biak aurkitzen dira alemanean, esaterako: Saxonia Garaian, Thuringia Mendebaldean eta Brandenburg Hegoaldean, adibidez, bateratze mota indartsua ematen omen da. Saxonia Garaia adibide bereziki hunkigarria omen da, zeinetan estandarren interferentziaren ondorioz dialektoa ia-ia desagerrarazi den (Bellmann 1998: 25). Konbergentzia tipo ahul edo motela Alemania Garaiko dialektoen eremuan eman da, zeinek nagusiki ez diren hizkuntza kolokial deitutako formetara zuzenean egokitu, dialekto berria (‘new dialekt’ / ‘Verkehrsmundarten’, ‘Großmundarten’), erdi-dialektoa (‘semi-dialekt’ / ‘Halbmundarten’) edo dialekto erregionalak deitu formetara baino.

Bellmann-ek *Rhine Erdialdeko Hizkuntz Atlasa (MRhSA)* ikerketako datuak erabili zituen bateratze joera hauen azterketa burutzeko (Bellmann 1998). Atlas honetan inkesta-lekuetan bi belaunaldi inkestatu eta bien datuak maparatu ziren: 70 urteko belaunaldia eta 30-40 urtekoa. Horrela, belaunaldi bien arteko erantzunak batera ipiniz mapa kontrastiboak lortu ziren. Lanaren erdia inguru hartzen dute era honetako mapek. Ondorioz, aukera ederra eskaintzen du hizkera edo inkesta-leku bakoitzaren dialektotasun maila aztertzeke, bi talde-datuak konparatuz hizkuntza aldaketa-joeraren norabidea eta gradua neur baitaiteke: dialekto bakoitzaren edo inkesta-leku bakoitzean ezagutzen den forma zaharra, autoktonoa ere dei daitekeena, eta forma berria, edo mailegatutakoa, aztertzeke aukera dugu. Mailegatutako formen jatorria aztertzeke aukera ere eskaintzen dute mapek, ondoko adibidean ikus daitekeen legez: ‘garaua edo bihia’ kontzeptua lantzen duen maparen bidez bi hitzen arteko azterketa proposatzen da: batetik Germaniako erdi-mendebaldean erabiltzen den edo zen *Gesäms* berba eta, bestetik, Germaniako hizkuntza estandarreko formarekin identifikatzen den *Samen* aldaera. Belaunaldi bietan bi berba hauen ezagutza neurtzen da lanean: mapek erakusten dutenez, adinekoen erantzunetan jadanik badira ekialde partean, *gesäms* hitza bakarrik jasotzea itxaroten zen eremuan, aldaera lehiakidearen agerrera batzuk, kopuru txikietan bada ere; 30-40 urtekoen artean, aldiz, *gesäms* eta *samen* formen arteko harreman kualitatiboa alderantziz jarri da; zaharrenek jatorrizko hitza %88an gordezen duten bitartean, 30-40 urte bitartekoek %35ean baino ez dute ezagutu eta

erabiltzen. Belaunaldi desberdinen artean dialektoko forma zaharraren gutxitzeak eta forma berriaren gehitzeak erakusten du hizkuntza estandarrezko konbergentzia eta kontrastearen urritzeko joera.

Euskararen kasuan bateratze edo hurbiltze joerak azterzeko Bizkaiko Arratian egindako ikerketan agertzen den joera ere adierazgarria dela deritzot. Ikerketa hau bateratze joera indartsu edo ahula den jakin asmoz burutu da. Bertan hizkuntzaren arlo desberdinak landu dira: aspektu fonologikoak, izen eta aditz morfologiakoak, sintaktikoak eta lexikoak. Guztira 100 ezaugarri ingururekin egin da galdesorta eta itaundu dira egindako datu-bilketan.

Informazio-emaileak hiru adinetakoak dira: adinekoak (60 urte baino gehiagokoak), helduak (40-45 urtekoak) eta gazteak (16-22 artekoak).<sup>3</sup>

Inkesta bidez jasotako datuak hiru multzotan banandu dira hizkuntza emaitzak modu ulergarrian ikusteko: hizkeraren oinarri dialektalari dagozkion datuak “bertakoa” izendatu dira, “kanpokoak” sailean hizkeraren oinarri dialektalari ez dagozkion datuak bildu dira eta “biak” sailean kokatu dira itaun bati erantzutean bi forma edo hitz jaso direnean: herriko oinarri dialektalari dagokion forma eta kanpokoak.


Datuen aurkezpenetarako metodologikoki bi gune nagusi irudikatu dira: bertako hizkeren oinarri dialektala (bertan “betidanik” erabili izan diren forma eta hitzak) eta euskara estandar edo beste hizkuntza batetik oraintsu mailegatutako hitzak. Horrela, betidaniko formak, alde batetik, eta berriak edo kanpokoak, bestetik, bereizteko abagunea izango dugu. “Kanpokoak” izendapenean sartzen dira aldaera estandarren eraginez bertan erabiltzen direnak eta beste hizkuntza batetik mailegatutakoak; kasu guztietan belaunaldi zaharrek erabiltzen ez zituzten aldaera eta berbak.

Bertako oinarri dialektala edo “adinekoen” a zehazteko aurreko ikerketa batean herri hauetan jasotako datuak erabili dira.

Helduen datuak kontuan hartuta (ikus 1. irudia) esan daiteke Arratian bertako hizkerari heltzen diotela nagusiki, hizkerako datuak Dimako %92tik Igorreko %82ra bitartean dira eta (Lemoan ez da jende helduen daturik). Belaunaldi honetako jendea ez da euskaraz eskolatua izan, bai ostera euren seme-alabak. Aldaera estandarrekin duten harremana nagusiki euren umeen eta telebista edo komunikabideen bidezkoa da; bakar batzuk alfabetatze eskoletan ere izanak dira, hala ere. Honenbestez, esan daiteke aldaera estandarrekin ez dutela harreman iraunkorrik, gehienetan oso harreman puntuala edo noizean behingoa dela. Hala eta guztiz ere jada batz besterik %8,6an euskara estandarreko ezaugarriak erabiltzen dituzte (gehien Areatzan %11rekin eta gutxien Diman %0rekin). Arratiako hizkerako ezaugarriak batz besterik %86an erabiltzen dira. Itaun batzuetan erantzun bikoitzak jaso dira (bertoko eran eta kanpokoan, Arratiako hizkeraren ezaugarria eta estandarrekoa); hala ere, oso ehuneko txikietan gertatu da hori (Diman %8arekin gehien eta Zea-nurin %3rekin gutxien).

<sup>3</sup> 60 urtez gorakoak aurreko ikerketa batean jasotakoak dira. Adin honetakoei jasotako datuek osotzen dute hizkera hauei dagokien oinarri dialektala. Inkestaren helburua hizkera informala, lagunartekoa aztertzea izan da. Informazio-emailei bereziki aipatu zaie zehaztasun hau; hau da, eurak egunero kalean, lagunekin, etxean... egiten duten moduan egiteko eskatuz. Jakina da era honetako inkestetan izaten diren arazoak handiak direla; hori dela eta datuok tentuz hartu beharrekoak direla esan behar da.

Galtzen ari diren bertoko hitzen artean kokatzen dira, beteak beste, *olgau* (jolaustu), *ustrukue* (ortzadarra), *leie* (izotza), *artega* (urduri), *artesa* (zuzena), *udagoien* (udazken), *bagile* (ekaina), *semendi* (azaro)...



### 1. irudia


Hurbiltze joera Arratian: helduak

Gazteen kasuan gauzak aldatuz doaz; gauzak asko aldatu dira, hobeto esanda. Belaunaldi hau euskaraz eskolatua izan da (askok oraindik ikasten dihardute) eta ondorioz aldaera estandarrekin harreman iraunkorra eta etengabea dute.

Jasotako datuei erreparatuz lehen begiradan bertako aldaeraren erabilera, Igorreko kasua salbu, Zeanuritik Lemoarantz apalduz doala esan behar da. Baserritik hiri-ranzko bidea hartzen du bertako hizkeraren galtzeak; edo bestela esanda, hiritik baserrirantz dator euskara estandarren indarra: hiritik zenbat eta urrunago izan euskararen aldaera estandarren eragina txikiagoa da. Hala, Zeanurin jaso dira bertako hizkerari erakusten dioten atximenduaren datu esanguratsuenak; %81ean eusten eta erabiltzen dituzte herriko forma eta berbak gazteen artean. Hiriranzko bidean, bertako hizkeraren ezaugarriak apalduz, Areatza dator ondoren %75ko erabilerekin eta Artea hurrengo %73koarekin. Gorago esan legez, Igorreko %79ko erabilerak mozten du beheranzko joera, baina Lemoak berriro jartzen du beherantz %71koarekin (ikus 2. irudia). Beraz bertako hizkeraren ezaugarrien galera %15tik (Zeanurin) %27ra (Lemoa) bitartean kokatzen da. Dimako kasua berezia dela uste dut eta iruzkin bat behar duela. Erantzun bikoitzen garrantzia oso txikia da Dimako %8 kontuan ez bada hartzen (Zeanurin %4, Areatzan %3, Artean, Igorren eta Lemoan %2).

Dimako kasuan kontuan hartu behar da informazio-emaileak 16 urteko gazteak izan zirela; hau da, gainerako herrietan baino gazteagoak.<sup>4</sup> Hala izanik ere, benetan beldurtzeko moduko datuak agertzen direla ezin da ukatu: %52an baino ez diete eusten bertako ezaugarriari eta %40an erabiltzen dute aldaera estandarra. Euskaraz

<sup>4</sup> Beste xehetasun batzuen artean inkestagilea alde zuzenetik ezagutzeak dakartzan ondorioak ere aipatu beharko lirake, datuak behar den zehurtiaz hartzeko.



## 2. irudia

Hurbiltze joera Arratian: gazteak herrika %etan

eskolatua den lehen belaunaldia dela jakinik bertako formen desagertzea hain indartua izateak zer pentsa eman beharko ligukeela uste dut.

Datuak datu, ezagutza pasiboari dagokionez behintzat, helduen eta aitaita-amamen berbakera ulertzeko gai direla pentsatu behar dugu euren arteko komunikazio-arazoen berririk ez dugulako.

Lemoako %71 horrek ere badu iruzkindu beharra. Izan ere, inkestatu ziren sei gazteren artean batek 16 urte zituen. Inkestatu gazteena izan zenak gainerakoengandik bestelako datuak eskaini zituen: %46tan kanpoko legez sailkatu diren aldaera estandarreko ezaugarriak jaso dira, gainerako inkestatu gazteetan %38tik 17ra bitartean eta batz bestea %21ean dagoenean.

Dimako gazteen eta Lemoako gazteenaren datuak kezkarriak dira tokian tokiko hizkeraren aldeko jarrera dutenentzat eta, oro har, hizkuntzaren zelan edo halango orekaren aldeko jarrera dutenentzat. Dimako %40 eta Lemoako gazteenaren %46ko datuak garbi adierazten dute eten bat dagoela hauen eta 20-22 urteko gazteen artean. Urte gutxitan aldaketa handia eman da eta datuen norabideak horrela jarraituz gero urte gutxi barru ikaragarritzko aldaketa emango du gaiak.

Belaunaldi honetan aldaera estandarren sartzea indartsua da eta %21,6an kokatzen da batz besteko datuetan agertzen denez (Zeanuriko %15etik Lemoako %27ra bitartean).

Helduen datuok gazteenekin erkatuz jatorrizko oinarri dialektalaren indarra neur daitekeela uste dugu. Horretarako helduak alde batetik eta gazteek bestetik zenbatetan erabiltzen duten kontuan hartuko dugu: batetik esan behar da helduen atxikimenduari buruz %86,2an gordetzen dituztela oinarri dialektaleko datuak; hau da, %13,8an galdu dituztela hor “betidaniko” hizkerako forma eta egiturak.<sup>5</sup> Datu

<sup>5</sup> Azteketa honetan ez dugu “biak” saila kontuan hartuko, datuak ulergarriagoak izan daitezen, beste era batera jokatzeko ere bidezkoa den arren.



hau esanguratsua da, gorago esan den legez, belaunaldi honek ez delako harreman iraunkorrik izan aldaera estandarrekin. Bertako ezaugarriak ondoen gordetzen dituen herria, datu hauen arabera, Dima da, %92an eusten die eta; eta gutxien gordetzen dituen Igorre (%82). Dimako datuak, beste behin, gainerako herriek erakusten duten joeratik aldendu egiten dira, jasotako erantzun batean ere ez delako aldaera estandarreko formarik jaso. Bitxitzat jotzen da datu hau; batetik berez delako ez-ohikoa, eta bestetik, gainerako herrietako joeratik guztiz aldentzen delako. Arratia ezagutuz ez dirudi herri honek gainerakoek ez duten aparteko ezer duenik hizkera mailari dagokion atxikimenduan; ez da bereziki nabarmentzen herri horretako hiztunen ezaugarrien artean hizkeraz ingurukoak baino kontserbatzaileagoak direnik. Eta ez da uste, gainera, inkestako egoerak baldintzatu duenik, ezta informazio-emaileek halako izaera berezirik dutenik.

Heldu eta gazteen arteko desberdintasuna aztertuz belaunaldi batean bertako hizkerari dagokionez zer galdu den eta aldaera estandarra zenbateraino sartu den neurtuko da. Aldaera dialektala Zeanurin belaunaldi batean %6an galdu da (helduek %87an eusten diete eta gazteek %81ean), Areatzan %9an (helduek %84an eta gazteek %75ean), Artean %13an eta Igorren %3an. Dimako datuetan, aldiz, %40an (gehien gordetzen duten helduak eta gutxien gordetzen duten gazteak biltzen dira herri honetako datuetan). Dimako datu hauek salbu, %7,75ean galdu dira belaunaldi batean oinarri dialektaleko datuak Arratian.

Datuak kontrastatu eta ziurtasun batekin tratatzen hasteko ikerketa gehiago egin behar den arren, eta datu hauek huts-hutsean hartuz, esan daiteke Arratian, orain arteko bilakaera ikusiz eta aldaketarik ematen ez bada, belaunaldi bakoitzean gutxi gora-behera %10ean galtzen dela bertako hizkera.


Baieztapen honek, hala ere, zehaztasun batzuk behar ditu: batetik aipatzen dihardugun galera hau ez dela aritmetikoa izaten geometrikoa baino; zenbat eta aurrerago joan orduan eta abiadura handiagoa hartzen du, gainerako faktoreak aldatzen ez diren bitartean. Bestetik, aldaera estandarren sartzean eskolak daukan zeregina oso garrantzitsua dela ezin ukatuzkoa da eta Arratian ere hala gertatu da, oraintsu arteko eta oraindik ere kasu batean baino gehiagotan, eskolan irakasten izan den hizkuntza eredia aldaera estandar "puru-purua" izan delako. Alabaina, gauzak aldatuz doaz astiro-astiro eta gaur irakasten den hizkuntza eredia eta duela, demagun, 10 urte irakasten zena bera izan arren, herriko forma, egitura, esamolde eta lexikoari garrantzi handiagoa ematen zaio eta zelan edo halango prestigioa ere lortu du. Honek, itxura batean hala izan beharko luke behintzat, bertako ezaugarriei modu doiago batean eutsi eta erabiliko direla uster aipatzen gaitu.

Bada oraindik beste alderdi bat sakonki ez bada ere aipatu beharrekoa. Sarri aipatzen eta itauntzen da gaiko literaturan hizkuntza aldaketa gertatzen denean zein alderdi edo arlotatik hasten den aldaketa hori. Egia aitortu behar bada, orain artean ez da teorizazio mailan gaia behar bezala sakondu eta maila teoriakoan arazoari ekin aurretik datu gehiago eta aberatsagoak batu behar dira, era honetako ikerketak ugarituz eta bide batez dialektologia sozialari garrantzi handiago emanez.

Arratian egindako ikerketan lortu diren datuak hasiera baino ez izan arren, eta ondorioz behin behinekotzat jo behar diren arren, gaiaren lehen planteamendua

egiteko gaitasuna ematen digute. Izan ere, galdesortak fonologia, morfologia, sintaxia eta lexikoari buruzko itaunak biltzen ditu. Horregatik lortutako emaitzak arloka aztertuko ditugu, euren arteko desberdintasunak agerian utzi asmoz. Datu hauek gazteei bakarrik jaso zaizkie, ez da helduekin ez datu fonologiko, ezta morfosintaktikorik jaso.

Hizkuntza arlokako datuak azterturik Arratian egin den ikerketa honetan hizkuntza aldetaren aintzindaritzat datu morfosintaktikoek erakusten dute. Artean izan ezik beste herri guztietan kanpoko ezaugarrien kopuru handienak arlo honetan biltzen dira. Emaitzak bi multzotan sailkatu dira (ikus 3. irudia): batetik, Zeanuri (%26), Areatza eta Artea (%25na) eta Igorre (%24) agertzen dira kopuru berdintsuekin; bestetik, Lemoa eta Dima askoz ere kopuru handiagoekin baina ezaugarri morfosintaktikoak gailen dituztela (%42 eta %44, hurrunez hurren). Hots, datu morfosintaktikoak izango lirateke aldetaren aintzindariak.



### 3. irudia


Hurbiltze joera Arratian: gazteak hizkuntz arloka

Datu morfosintaktikoen ostean lexikoa dugu, Diman izan ezik, herri guztietan oinarri dialektala arinen galtzen den arloa: Zeanurin puntu bateko alde dago lexikoa eta fonologiaren artean (fonologian %12 eta lexikoan %13), Areatzan 9 puntukoa (fonologian %14 eta lexikoan %23), Artean 10ekoa, Igorren 14koa eta Lemoan 13koa. Dimaz gainerako herrietan lexikoaren eta fonologiaren arteko desberdintasuna antzekoa da. Azken herri honetan fonologia lexikoaren aurretik agertzen da (%36 fonologian eta %34 lexikoan).

Hizkuntza arlo desberdinen arteko desberdintasunak erregularitasun handi batez jasotzek emaitzen fidagarritasuna indartu egiten dute, zalantzarik gabe. Sei herri-tatik lautan hurrenkera berean azaltzen dira (morfosintaxia, lexikoa eta fonologia), eta hurrenkera hori jarraitzen ez duten bi herrietan oso kopuru txikiengatik ez dute jarraitzen (Artean lexikoa gailentzen zaio morfosintaxiari puntu bitan eta Diman fonologia lexikoari beste bitan). Azken bi herrietako datuek ez dute gainerakoetan jarraitzen den hurrenkera desitxuratzen, gure ustean behintzat.

Ondorioz, esan daiteke, Arratian eta ikerketa honen arabera, hizkuntza aldaketa ezaugarri morfosintaktikoekin hasten dela eta fonologikoekin amaitu. Lexikoa bien artean kokatzen da eta ez da, maiz hala dela uste izan dugun arren, hizkuntza aldatetaren motor edo piztaile.

Bada, azkenik, datuotan beste aspektu bat iruzkindu nahi nukeena, herri bakoitzak bere ezaugarriei dion atxikimendua; nolabait esateko datuen dialektotasuna.



#### 4. irudia

Arratiako hizkeraren dialektotasuna

Horretarako herrika datu guztiak (gazte eta helduenak) baturik taula bakar batean ezarri dira hiru multzotan banandurik: bertako ezaugarriak, kanpoak eta erantzun bikoitzak. Era honetan neur daiteke herri bakoitzak zein portzentajetan eusten dien jatorrizko ezaugarriei edo bestela esanda herri bakoitzaren dialektotasuna.

Datuotan azaltzen denez Zeanuri da Arratian dialektotasun handiena erakusten duena. Dialektotasun kopuru handienak hirigunetik urrun diren herri txiki eta isolatuetan jasotzen direla uste izan da aspaldidanik. Datu hauetan uste hori baieztatuta gelditzen da; izan ere dialektotasun handiena biltzen duena hirigunetik urrunen den herrian ematen da; eta herri horretatik abiatuz hirigunerantz jaisten goazela dialektotasuna ere beherantz doakigu (Dimako datuak salbuespentzat utziz). Horrela Zeanuritik Lemoara dialektotasuna urrituz doa gradualki portzentaje txikietan (%84-tik %80ra lehen lau herrietan, gero 11 puntuko beheratze bat ezagutzeko Lemoan).<sup>6</sup>

Dialektotasunaren kopuruari dagokionez datu fidagarriak izateko ikerketa gehiago eta sakonagoak egin behar diren arren, datu hauek norabidea adierazten dute eta intuitiboki pentsatzen zenarekin ez dago kontradikziorik, alderantziz baino.

<sup>6</sup> Datu hauetan kontuan izan behar da Lemoan helduak ez direla inkestatuak izan eta Dimako informatzaile gazteenen eragina nabarmena dela.

#### 1.4. Bateratze osoa eta guztiz burutu gabekoa

1.4.1. Aldaera estandarrezko konbergentzia oso-osoan, bere egitura fonologiko edo morfologikoan, eman daiteke. Kasu hauetan dialektoa guztiz galtzen edo desagertzen da.

1.4.2. Guztiz burutu gabeko konbergentzia. Kasu honetan dialekto eta estandarren arteko aldaera berri bat sortzen da. Christen-en arabera (1998: 57-58) Suitzako aleman dialektoan mintzo den gazteak atzizki “berriak” erabiltzen ditu adjektibo atributiboetan nominatibo eta akusatibo singularrean, tradizionalki ‘zero’ atzizkia izan den lekuan atzizkidun beste forma bat sortuz:

Forma zaharra: *di alt frau* (‘andre zaharra’)

Forma berria: *di alt-i frau*

Atzizki berria itxuraz aldaera estandarretik (*di alt-e frau*) desberdina izan arren, estandarren teknika morfologiko berak (atzizkia *vs.* zero atzizkia) erabiltzen ditu eta dialektoa estandarren antzekoago egiten du.

Hau izan daiteke aldi berean kostuak txikitu eta ondorioak maximalizatzeko aldaera erregional berriek duten bideetarik bat. Aldaera estandarretik urrun diren ezaugarriak eusteak kostu handia du, ahalegin handia egin behar da eta. Aldiz, aldaera estandarren teknikak erabiliz, egituralki antzekoagoa bihurtuz desberdintasunari eusteko indar gutxiago gastatu behar izaten da.

Kontzeptualizazio lan honetan Günter Bellmann-ek (1998: 23) ‘Base dialektala’ kontzeptua erabiltzea proposatzen du, eremu txiki baten, herri txiki eta urrunduetan batez ere, berba egiten den eta estandarrekin hizkuntz ezaugarri kopuru handienaz bereizten den aldaera izendatzeko. Alemanaren eremuan %10 inguru izango dira base dialektalean mintzatzen direnak haren ustez. Gaur egun base dialektalak herriz kanpo mugitzen ez diren eta komunitate lokaleko kide zaharrentzat bakarrik dira komunikazio era.

‘Base dialektala’ “betidaniko” hizkeran ari diren hiztunek osatzen dute; dialektologia tradizionalan hiztun “ez-kutsatuak” deitu izan direnak, alegia. Beraz, gurasoak herrikoak dituzten herritik irten gabeko hiztunak. Hiztun hauek dira, hain zuzen ere, dialektologia tradizionalerako baliagarri diren informatzaileak.

Aldaera dialektala beste aldaera dialektal batekin edota aldaera estandarrekin bi forma desberdinez hurbildu zein urundu daiteke: barne berregituraketa bidez edo berrikuntzen ondorioz. Gainera, barne berregituraketa eta beste aldaketa endogeno batzuk dialektoen arteko ukipenak eraginak izan daitezke. Hipotesizat jotzen da aldaera estandarrezko konbergentzia indarturik izango dela aldi berean prozedura ‘naturalagoa’ bada; hau da, barne aldaketen aldekoagoa bada. Oztopatua izango da forma estandarra dialektokoa baino ‘eznaturalagoa’ bada.

Horrela dio Taeldeman-ek (1998): estandarren prozesua oso ‘antinaturala’ bada eta aldaera dialektalari dagokion prozesua ‘naturala’ bada, dialektoak gorde egiten du bere egitura.

Estandarren eta dialektoen arteko edo dialekto bi edo gehiagoren arteko konbergentzia prozedurak ulertzeko hiztunek hurbiltze edo urruntze prozesu sozialetan, adibidez, “identitate ekintzetarako” hizkera nola erabiltzen duten aztertu behar da

(Auer 1998: 8). Gizarte konplexu batean taldeak ez daude eta muga geografiko gisa definituak, espazio sozial dinamikoko bezala baino.

Konbergentzia indartsuek errazago dute guztiz burutuak izateko konbergentzia ahulak baino.

### 1.5. Bateratzearen abiadura eta ereduak

Gure arteko hainbatek hizkerak eta dialektoak modu pasibo batean ikusten baditu ere, eta dialekto edo hizkeretako hitzunen ereduak pertsona zaharrak, inoiz herritik irten bakoak, guraso eta aitaita-amamak bertakoak dituztenak, senar edo emaztea bertakoa dutenak, inoiz ez dutenak irakurtzen eta kanpoko berbakera inoiz entzun bakoak badira ere, errealitatea jada ez da hori; hori baino nabarragoa da. Hizkera edo herri baten ordezkari ezin da, besterik gabe, ezaugarri horiek biltzen dituen jendea izan; ez hizkuntza kontuetan, ezta bizitzaren gainerako alderdietan ere.

Ingurumen batean bizi den jendeak hitz egitean sortzen duena da bertako hizkera. Hizkera hori monolitikoa ez dela begi bistakoa da. Herri horretan bizi diren adinduak eta gazteak, ez ikasiak eta ikasiak, bulegariak eta baserritarrak, kanpotik etorritakoak eta bertan jaiokoak elkarrekin bizi dira eta elkarren artean mintzamolde heterogeneo batean ulertzen dute.


Gazte eta zaharren artean mintzamolde guztietan desberdintasunak badira ere, egungo euskararen kasuan are nabarmenagoak dira. Jende zaharren oinarri dialektala arrailduz doakigu bereak ez diren eta beretik sortu ez diren ezaugarriak sartuz doakiolako gazteenen ezpainenatik.

Diogunaren adibide Arratiako ikerketan fonologia arloan gazte eta helduen arteko azterketako datuek erakusten dutena (ikus 5. irudia). Dimako datua (%36 kanpo ezaugarriak erabiltzen dituzte gazteek) benetan ikaragarria edo beldurgarria<sup>7</sup> den datua albo batera utziz, Artea, Lemoa eta Zeanurin kopuru berdintsuak jaso dira (%17, %15 eta %12, hurrenez hurren). Euskara estandarrean eskolatu den lehen belaunaldiak herriko lagunekin eta etxean, hizkuntza informalean, portzentaje hauetan kanpoko ezaugarriak erabiltzeak aldaera estandarren indarra noraino hel daitekeen erakusten du. Igorre eta Areatzako sail honetako datu baxuak “biak” saileko (herriko eta estandarreko erantzunak biltzen ditu) kopuru handietan ezkutatzen dira.

Oro har, euskal eredueta eskoletan hezitako gazteak direla kontuan hartuz, eta euskara batuan hezi behar zela defendatzen zen sasoian eskolatuak, esan daiteke (Dimako kasua aparte utziz) eredu propioa, “betiko” dialektoaren formak arraildu badira ere oraindik gordetzen direla.

Hizkuntza arlo honetan galduz doazen ezaugarrien artean bat aipatuz berba bokalez amaitzen denean artikulua hartzean “betidaniko” arratieran ohikoak ziren arau morfonologikoak desagertzea da: *-a* amaierako absolutiboa (*-ea / -a*), *-u* amaierako absolutiboa (*-ue / -ua*) edo *-i* amaierako absolutiboa (*-ie / -ia*) aurkitzen dira.

<sup>7</sup> Herri honetan gazteen mailan 16 urtekoak baino ez ziren inkestatu, gainerako herrietan 18 urtetik gorakoak (Lemoan bat izan zen 16 urtekoa).




5. irudia

Hurbiltze joera Arratian: fonologiari buruzko datuak

## 2. Dialekto eta estandarren arteko aldaera berrien sorrera

Dialekto eta estandarren arteko harremanetan, bateratze joeretan, bitarteko aldaerak sortu ohi dira usu, ikerketa desberdinek erakusten dutenez. Peter Auer eta Frans Hinskens-ek (1996: 7) lau aldaera maila bereiz daitezkeela diote: estandar nazionala, estandar erregionalak, dialekto erregionalak edo erregiolektoak eta dialekto tradizionalak, 6. irudian ikus daitezkeenez.



Auer / Hinskens 1998: 7-tik hartua.

6. irudia

Aldaera estandar nazionala kokatzen da hirukiaren goi erpinean; aldaera hori da maila jasoena eta prestigioetsuena. Hirukiaren oinean, behe aldean, ohiko dialektoak edo dialekto tradizionalak kokatzen dira. Gainerako aldaerak kontuan izan gabe ere, bi aldaera hauek bestelako aldaera diafasikoak ere izan ditzakete.

Hirukiaren goi eta behealdearen tartean beste aldaera batzuk ere sor daitezke, bateratze motaren arabera, baina ez da nahitaezko eta ez dira, berez, beti sortzen. Sor litezkeen aldaerak bi dira: aldaera erregional estandarrak edo eskualdeko aldaera estandarrak eta erregiolektoak edo eskualde-berbetak.

Aldaera erregional estandarra edo eskualdeko aldaera estandarra nazioko aldaera estandarraren azpialdaera bat da: hots, eskualde horretako hiztunek hizkuntza estandarrean dihardutenean ekoizten duten aldaera. Itxura guztien arabera oinarri dialektal desberdina duten hiri bitan, adibidez, ez da aldaera estandar berean hitz egiten. Maila handiagoko edo txikiagoko desberdintasunak izaten dira.

Euskararen kasuan ez da honelako ikerketarik gauzatu orain artean eta ezin da baieztatu hiri desberdinetan ekoizten den hizkera estandarra oso homogeneous den ala oinarri dialektalari dagozkion desberdintasunak azaltzen diren. Dena den, aldaera hauek dinamikotzat jo behar direnez, baieztatu daiteke duela demagun 20 urte Bilbon eta Donostian edo Iruñean, kasurako, ekoizten ziren aldaera estandarrak hurbilago zeudela gaur egiten direnak baino? Hala balitz esan gurako luke hiztunen gogoaren arabera aldaera erregional estandarrak aldatuz joan daitezkeela, hurbilduz nahiz urrinduz.

Erregiolekto, dialekto erregionalak edo eskualde-berbetak, aldiz, euskalkian edo dialektoan arituz, herriko hizkera baino modu jasoago batean jarduteko gogoz egingako ahalegina da; edo gura bada, herriko hizkeraren eredu idatzia. Euskararen kasuan, kasu batean baino gehiagotan, euskalki literario historikoekin erka daitezkeen kontzeptua dela esango genuke. Jatorriz bi kontzeptuok, eskualde-berbeta eta euskalki literarioa, ez lukete inolako loturarik, bi helburuz lortutako aldaerak direlako. "Euskalki literarioa" aspaldi asmatutako kontzeptua dugu, garai batean ekoizten ziren idatzi mota desberdinei lotua. Euskara batuaren sorreran eta euskara estandarra hedatuz gero beste funtzio batzuk hartuz joan da euskalki literarioa kontzeptua: hain zuzen ere, batua edo estandarra baino hiztunengandik hurbilagoak ziren eredu edo aldaerena. Horrela, euskararen kasuan eskualde-berbetatzat aldaera hau izan da proposatua eta erabilia eremu desberdinetan, baina ez denetan.

Hirukiaren inguruan bildutako aldaeren rola ere aztertua izan da. Horrela egiten du, adibidez, Van Coetsem-ek (1992: 30 eta h.) aldaera emaile edo aktiboa eta aldaera hartzailea bereizten dituenean. Dialektoko hiztunek estandarreko material lexiko zein hizkuntza ezaugarriak bereganatzen dituztenean rol agentea dutela esaten da. Horrela estandar erregionala dialektoko hiztunek nazio mailako estandarra lortzeko egiten duten arrakasta partzialeko ahalegina baino ez litzateke izango. Gai honen inguruko ikerketa asko dago, baina aldaera berrien sorreran ematen diren hizkuntza mekanismoak oso gutxi ezagutzen dira oraindik.

Bateratze prozesu hauek lehen-lehenik lexikoan agertzen omen dira eta ondoren gramatikan. Arlo hauetan aldaera ez-estandar eta estandarraren arteko desberdintasunak oso nabariak dira entzunenerako, arlo fonetikoan eman daitezkeenak baino gehiago. Hala ere, gorago esan denez, gure ikerketan ez da horrela azaltzen, Arratian egin den ikerketan forma estandarerako joera nagusia morfosintaxian agertu delako.

Dialekto erregional edo erregiolektoen eta estandar erregionalen sorreran hiri handien rola handia omen da ikerketen arabera. Gehienontzat ezaguna den adibidea jartzeko, Andaluzian gaztelania estandarraren bi erregional aldaera sortu dira: 'norma sevillana' eta 'malagueño' deituak (Villena 1996).


Auer eta Hinskens-ek diotenez (1996: 10), eskualde-berbeta edo erregiolektoen garatzeak ez dakar automatikoki dialekto tradizionalen heriotzea. Aitzitik, bizi-iraupearen berme omen lirerateke (hori gertatzen omen da Calabria eta Italiako hegoaldeetan Trumpert/Maddalon 1988 eta 1994-en arabera).

Erregiolektoa edo eskualde-berbeta, edonola eratuta egonda ere, ohiko dialekto eta hizkerak babesteko tresnatzat ulertzen badira (eta dialektoko ezaugarriez eraikita badago) dialekto horiek babesteko aldaera berri hau indartzea izango litzateke jokabide egokiena. Ondorioz, eskualde-berbeta ondo normalizatzen ez den bitartean aldaera estandarren indarrez baturanzko joera ez da geldituko. Erregiolektoa dialekto tradizionalak eusteko dituen baliabideetarik indartsuena da.

Hala ere, kontrako kasuak ere gerta daitezke, gututz desagertu ere egin baitaitezke (Goi Saxonian gertatzen omen da).

Dena den, eta kasu guztiak aipatzeko, estandar eta dialektoen arteko bateratzeak edonon ematen badira ere, itxuraz oinarrizko baldintza bat bete behar da hori gerta dadin: dialektoak denek onartzen duten goi mailako estatusa izan behar du. Suizako aleman dialektoek, adibidez, ez dute ezagutu estandar erregionalerako hurbiltze edo bateratzerik. Eta izaera hori omen da, hain zuzen ere, bateratze joera galeratzen duena.

Kasuistika gutzia biltzen duen irudia sortu dute Auer eta Hinskens-ek (1996: 11):



Auer & Hinskens 1996: 11-tik hartua.

### 7. irudia

Horixe gertatu omen da Danimarkan Tore Kristiansen-en esanetan (1998: 120), non dialekto tradizionalan %5 baino gutxiagok hitz egiten duen, zaharrak barne; denak jabetu dira Copenhage-ko aldaeraz.

Euskararen estandarizatzeko lanetan norantz goazen eta zein abiaduretan itaundu beharra dugu, nor edo nork kontrolatzen duen edo inork kontrolatzen ez duen edonora ote goazen.

Iduriz inork planifikatu gabe eta inork kontrolatzen ez duen aldaerak sortuz omen doaz euskararen eremuan. Hori da, esaterako, ondoko esaldiarekin "hizketa



hibrido bat, ez batua ez euskalkia, nagusitzen ari da eskualde askotan, belaunaldi berrien artean” salatzen duena J. M. Elexpuruk (1996: 524). Baina zantzu guztien arabera delako “hizketa hibrido” hori ez ote da Auer eta Hinskens-en hirukiko aldaera estandar berriari dagokion estatusa lukeen aldaera?

Terminologia eta aztertze eredu hau aintzat hartuz, Goikoetxeak bere tesian (2003: 225-29) proposatzen duen *euskalki literarioak* ‘aldaera erregional estandarra’ eta ‘erregiolektoaren’ papera beteko luke. Goikoetxeak euskal diglosiako zer irakatsi zehazten duenean hiru hizkuntza maila proposatzen ditu: a) euskara batua; b) euskalki literarioa; eta c) azpieuskalkiari dagokion maila. Auer-Hinskens-en lau mailako sistemaren ordez hirukoa proposatzen du Goikoetxeak. Lehen edo gorengo maila bi ereduetan bera izango litzateke: estandar nazionala edo euskara batua. Goikoetxearen b) maila ere (euskalki literarioa) arautua eta normalizatu egongo litzateke. Hirugarren eta azken maila (herriko edo etxeko aldaera), aldiz, arautu gabe. Goikoetxearen lana ondo interpretatu badugu 8. irudia genuke.



Egia esan, aldaera estandar nazional eta dialekto tradizionalen defendatzaileak batetik, eta bestetik eredu bien tartean beste aldaera bat proposatzen dutenak indar handiak jarri dituzte.

Goikoetxeak b) puntuan aipatzen duen euskalki literarioaren lekuaz hainbat urte lehenago gogoeta eskatu zuen B. Oihartzabalek ere (1993: 88) ondokoa zioenean: “Literatur euskalkien egoera, ordean, ez da hain argia, eta, ene aburuz, komeni litzateke haietaz berriz gogoeta zenbaiten egiten has bagintez, osoki aldatu baita Arantzazuko biltzarraren garaian zegoen egoera. Are gehiago bazter euskalkien kasuan”. Aburu argia, izan ere, batuaren sorreratik ordura arteko euskalki literarioek, ordura arteko aldaera estandarrek, beste estatus bat behar zuten ez baitziren jada, ordura arte bezala behintzat, beharrezko euskara idatzirako.

Deba Ibarrean, aldiz, hizkuntza plangintzan diharduen taldeak bi aldaerataro mugatzen dute euren proposamena: herriko hizkera eta euskara batua.

Horretarako Elexpuruk (1996: 525) ‘berbeta-eskualdea’ kontzeptua lantzen du; Leintz (Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta agian Aramaio), Oñati, Bergara, Eibar eta Elgoibar izango lirateke ‘berbeta-eskualdeak’ Deba-arroan, adibidez. Elexpuruk


ez du sakontzen kontzeptuaren nozioan, baina itxuraz dialektologian sarri erabiltzen den ‘hizkera’ kontzeptuaren pareko edo izan daiteke, ematen dituen gune geografikoak kontuan izanik. Hots, hizkera bera edo oso antzekoa darabilen eskualdea. Nozio geolinguistikoa litzateke eta ez hizkuntza aldaerari dagokiona. Gune geolinguistikoko horietan sortu beharko liriateke, haren aburuz, berbeta aldaera trinko-idatziak bertako ekoizpenak eredu horren bidez bideratzeko. Eredu idatzi hori inguruko hizkuntza ezaugarrirez osatu eta hornituko litzateke, ahozko aldera bizitik oso gertu. Eredu idatzi hori ahozkoan oinarrituz, ahozkotasunari dagozkion ezaugarriak ezabatuz eta kode idatziari dagozkionak gehituz lortuko litzateke. Aldaketak urriak dira oso.

Deba-arroan eredu propioa lantzen dihardutenek ez dute “erregiolekto” edo “euskalki literarioaren” beharrik ikusten edo, hobe esanda, herri hizkera bihurtu dute “dialekto erregional”.

Erabaki honen inguruan aurkako iritzi asko bildu da, nahiz gutxi idatzi den. Euren ereduaren ezaugarrien inguruko eztabaida alde batera utziz, arrazoi historiko, linguistiko eta soziolinguistikokoak aipatzen dituzte euren proposamenaren defentsan.

Denetarik garrantzitsuenak azken hauek direla esango nuke. Izan ere, euren herri hizkeratik oso urrun eta arrotz ikusten dituzte bai batua, bai bizkaiera klasiko edo literarioa. Deba ibarrak baldintza asko betetzen ditu honelako esperientzia bat aurrera ateratzeko; bestalde, sasoi konkretu batean abiatzen da. Kontuan izan behar da euren eredu osorik eta gaur ezagutzen den indar eta finkotasunez gorpuztu aurretik sortuz joan diren herri aldizkari eta telebistak, batetik; hirigune garrantzitsuak biltzen dituztela eskualdean eta batuaz kanpo eredu idatzirik ez dutela izan. Hau da, faktore soziolinguistikoko asko eta aldekoak izan dituztela proposamena aurrera ateratzeko, nahiz kanpotik nagusiki kritikak egin zaizkien.

Proposatzen duten eskemaren irudia ondokoa litzateke (9. irudia):



9. irudia

Euskalki literarioen erabilerak Iparraldean Hegoaldean baino arrakasta handiagoa izan du: “Badakigu iparraldean lau euskalkietatik biga direla publikoan erabili: zuberera eta lapurtera. Idatziz bederen, ez dute hanbateko tokirik ukan ekialdeko behenafarrerak eta mendebalekoak” (Davant 1996: 531).

| Eta, hala, ene chedeua ezta jeus ere bertceric içan, baicic escualdunei bere hitzcuntçaren ethorquia eta hatsapenac gaindiroqui eta pasajaz bere hitzcuntça propialean eracustera eta eçagutcera eman nahizco desircundea; eta, dembora berean, jaquin deçarentçat escuara ezteła salbaja, ez eta ere bertcetaric ethorquiric duena, aicitic munduan içan diren eta oraı ere causi ahal ditezquen çaharrenetaric, garbietenaric eta noblenenaric bat, ceinac gramaticaco erreguelen laguntçaric bathere gabe hambat mendez mende baitirau. | Itaque nullum habui alium scopum, praeter desiderium Cantabris vernaculo sermone sui idiomatis originem principiaque superficialiter et transeunter significandi atque patefaciendi; eodemque tempore, ut eis notum sit Cantabrisum non esse agrestem neque ex aliis dependentem, imo unum ex universis qui in hoc orbe fuerunt, quique etiam modo reperiri possunt antiquissimi, nitidissimi ac nobilissimi, qui grammaticae regularum ope carens per tot saeculorum curricula perdurat. | Mi intento solo a sido mostrar su origen i principio, que como no a sido de lengua barbara, sino de la mas prima i elegante que á tenido el mundo, suficiente causa es de su estima i loa, i para preciarnos della, i no tenerla en poco como algunos hazen. Hasta en esto a sido semejante a su madre la latina, que tarde fue admitida en cosas graves, i no sin murmuracion de sus mismos naturales. |

| <i>EHats 275-276</i><br>euskaraz                                                                                                                                                                       | <i>EHats 275-276</i><br>latinez                                                                                                                                         | Aldrete,<br>368-369                                                                                                                                                                                                          |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Beraz, cinez erran diteque gure escuara dela laudaquieun, çeren, egundaino batera antçatua içan eztelarican, halarican ere munduan diren etsairic borthitçenen contra mantenatu eta mantentacen baita. | Iure ergo affirmari licet nostrum Cantabrisum laude dignum esse, quia cum prorsus nunquam cultus fuerit, contra fortissimos tamen orbis inimicos permansit et permanet. | Grande alabança del romance es que, sin aver la procurado cultivar, antes desmanparado, aia florecido con tanta excelencia; evidencia manifesta que, si lo uvieran con artificio dispuesto i con lo mismo que tiene lo uvie- |

| <i>EHats 275-276</i><br>euskaraz                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                       | <i>EHats 275-276</i><br>latinez                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                               | Aldrete,<br>368-369                                                                                                                                                                                                                                    |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <p>Hargatic, bere gendaquiari edo bere umei deraue obligacino guti, ceren, hequien laguntcen bidez, jeusic ez baitu errecibitu; duen guztia bere propiala du. Lur edo landa bere baitharic eman-cara dagoenac, laguntça eta ontcailluric gabe, asco arbola progotchos, çuhaitz eder eta belhar on bere baitharic emaiten tuen beçala, hunec ere, guisa berean, eracutsi tu bere naturaleara onaren effectu aberatsac, halaco moldez non erran baiteçaquegu baldin causitcen baliz hitzcuntça naturazoric hau dela.</p> | <p>Ob hanc rationem parva eius extant in suam gentem sive natos suos merita, quia per eorum auxilia nihil recepit; omne quod possidet proprium habet. Quemadmodum ferax terra seu fertilis ager, sine cultura et fimo, plures ex natura sua producit fructuosas arbores, iucunda arbusta, utilesque herbas, hic etiam suae probae naturae effectus copiosos similiter ostendit, ita ut affirmare nobis liceat si aliquis adesset sermo nativus hunc esse.</p> | <p>ran enjoiado, estuviera muchas a delante. Poco debe a los suyos, pues ni de su industria ni solicitud nada le a venido, i todo es de su cosecha lo que tiene. Porque como campo fertil, que sin que nadie le aia puesto la mano se viste [...].</p> |

| <i>EHats 276-281</i><br>euskaraz                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                        | <i>EHats 276-281</i><br>latinez                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 | Aldrete,<br>369-370                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                  |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <p>Ordea, halatan da berenez eta naturalqui ahal tuzquen calitate eder guztiez hain beztitua eta dothatua, non bertec hainitz hitzcuntçari eracar-aracico baitiote ohore eta errespetu.</p> <p>Ecen, dasta badadi hunen ez-titasuna, berac gombidatcen du.</p> <p>Nahi baduçu causitu onhestasuna eta gravetasuna, ikhusico duçu baituela urguilliaric eta er-gueltasunic gabe.</p> <p>Baldin desiratcen badugu garbitasuna, hunen baithan hain da manera çahuan, non ez baitu onhesten notharen cutsuric gutiena; hargatic hainitcec bilhatcen ohi dute çahutasuneco eguinbidetan.</p> | <p>Sed ideo singulis qualitatibus egregiis, quibus per se et naturaliter gaudere potest, est tam ornatus ac munitus, ut plura alia idiomata astricturus sit, ut eum honore et reverentia prosequantur.</p> <p>Si enim degustetur huius dulcedo, ipsa invitat.</p> <p>Si ingenuitatem severamque gravitatem intendis invenire, videbis possidentem eas sine superbia et levitate.</p> <p>Puritatem si cupis, tam castè inhaeret huic, ut neutiquam consentiat aliquod minimum labe-culae contagium; ideo multi solent eum perquirere in puritatis muneribus.</p> | <p>Este es el estado de nuestra lengua: mui falta de arte i artificio, i mui llena de todo lo bueno que cualquiera lengua tiene mui digno de estima i que nos precie-mos della.</p> <p>Si buscamos suavidad i dulçura, ella la tiene, acompañada de gran ser i magestad, conviniente a pechos varoniles i nada afeminados.</p> <p>Si gravedad, tienela tan apazible que no admite arrogancia ni liviandad.</p> <p>Si candidez i pureza, hallase en ella con tanto primor i compostura que no sufre cosa lasciva ni descompuesta.</p> |

| <i>EHats 276-281</i><br>euskaraz                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           | <i>EHats 276-281</i><br>latinez                                                                                                                                                                                                                                                                                     | Aldrete,<br>369-370                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                    |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <p>Considera badadi hunen agudotasuna, hain da vicia, çorrotça, agudoa eta lasterra, non çaurthu gabe piccatcen baitu, eta mimberatu gabe alde batetic bertcera passatcen eta iragaiten.</p>                                                                                                                                                                               | <p>Si diligenter perpendatur huius solertia, est tam vivax, acuta, celeris et velox, ut sine læsione scindat atque a latere ad latus penetret absque dolore.</p>                                                                                                                                                    | <p>Si agudeza, la suia es con tal biveza que pica sin lastimar.</p>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                    |
| <p>Mintçatceco maneretan ere ezta hitzcuntçaric hurbiltcen çajoenic eta bere perpauasac hain justuqui comuntztatcen eta neurtcen tuenic, non, hitcen berriçaduracic gabe, misteriosqui gauçac compasatuac beçala deçlaratcen baititu, hunen çuhurtçiaz mintçatu garenean ikhusi duçun beçala.</p>                                                                          | <p>Et penes loquendi modos nullum est idioma illi affine, suasque orationes tam recte concordans et metiens, ut sine tumida verborum ostentatione res quasi libra exploratas mirifice significet, ut vidisti quando sermonem de huius sapientia fecimus.</p>                                                        | <p>Si modos de dezir, en ellos ninguna lengua le haze ventaja; tan proporcionados i ajustados que sin afectacion declaran i contienen gran emphasis i significacion.</p>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                               |
| <p>Hitzcuntçaren mintçairaz beçambatean, guztieci abantail eramaiten deraue bere garacia eta araitasunaz.</p>                                                                                                                                                                                                                                                              | <p>In ordine ad pronuntiandi sonum, omnes suo dicendi lepore atque hilaritate antecellit.</p>                                                                                                                                                                                                                       | <p>Si donaire i gracia, excede a las demas con tan buen gusto que todo los que lo tienen la reconocen sin exceptuar, los que della no tienen buen agrado.</p>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                          |
| <p>Mintçatcean ezpainic eztu luçatcen ez biltcen, ez eta ere mihiric bere toquitic atheratcen. Aitcitic letrac miragarriqui errepartitcen tu: batçuetan, <i>d</i> gambiaturic eta khenduric, eçartcen du <i>t</i>; bai halaber <i>z</i> khenduric <i>t</i>, eztiçuiago hitcei soinu eraguiteco. Halaco moldez non hunentçat higuinçta dutenei berei ere eder baitçaje.</p> | <p>Cum loquitur, labia non extendit nec retrahit, neque linguam e sede sua educit. Imo elementa literaria miro ordine distribuit: aliquando mutata et sublata <i>d</i> ponit <i>t</i>, necnon expulsa <i>z</i> supplet <i>t</i>, ut verba suavius personent. Ita ut etiam ipsis qui odium prosequuntur placeat.</p> | <p>[Por no alargarme no digo de su pronunciacion:<sup>37</sup> quan facil i suave es, como reparte las letras que en el ablar no causen fealdad, Huie en las finales la <i>m</i> i la <i>t</i>, dificiles i duras, que con razon Quintiliano (lib. I, c. II &amp; lib. 12, c. 10) deseó ver quitadas en la lengua latina. Quando es menester, ablanda la <i>ce</i> mudandola en <i>ge</i>, i la <i>te</i> en <i>de</i>; para que suenen bien las varia. I otra muchas cosas que todas hazen, que ni saqueis los labios ni lengua de sus quicios, sino con toda buena compostura se hable llanamente i sin estorvo]</p> |
| <p>Hitcen abundantçiaz beçambatean ere ezta escasa ez erromesa, batçuec uste duten beçala. Aitcitic, baitu asco hitz diferent, diferentqui mintçatceco eta pin-</p>                                                                                                                                                                                                        | <p>Vocabulorumque copia non est inops nec mendicus, ut quidam putant. Pluribus vocabulis potius abundat diversis, ad dissimiliter loquendum et exprimen-</p>                                                                                                                                                        | <p>Si copia i abundancia, alcança la tan grande que no mendiga, como algunos piensan, sino antes como riquissima describe, pinta i enseña con variedad i buen ador-</p>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                |

<sup>37</sup> Zati hau beste guztiaeren ondoren dago Aldreteren liburuan, 370. orrialdearen amaieran.

| <i>EHats 276-281</i><br>euskaraz                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                               | <i>EHats 276-281</i><br>latinez                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                     | Aldrete,<br>369-370                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| tatceco, hitcezco aparailu eder batequin.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                      | dum, cum quodam dictionum apparatu specioso.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                        | no de palabras una gran multitud de cosas que en otras lenguas no se allan; corresponde a manifestar con propiedad sin limite ni tasa todo lo que el entendimiento humano concibe i alcança i en lo criado se conoce.                                                                                                               |
| <p>Perpau lanoan, eztu uzten jeus ere bere bocantça ederraz erreguelec manatcen duten eredura complitu eta beztitu gabe. Badu halaco eta hunelaco manera sinhetsaraz-teco, non gaitz bailçateque bertcebat indartsuago içaitea.</p>                                                                                                                                                            | <p>In prosa nihil relinquit quin sua formosa eloquentia adimpleat ac ornet iuxta regularum ordinem. Tali gaudet more persuadendi, ut vix alius virium efficacia polleat.</p>                                                                                                                                                                                                        | <p>En la oratoria no dexa requisito a que complidamente no satisfaga con eloquencia, hinche todo lo que las reglas della piden; tiene gran fuerça i energia en persuadir i disuadir, siendo en el mover vehementissima.</p>                                                                                                         |
| <p>Istorioan, umoqui eta majestaterequin parte guztiac biltcen eta juntatcen tu. Erraitceco maneran garaciusua eta arraja da, eta errefinetan aberatsa, Axular famatuac eta Aita Materrac arguitara eman tuzten obretan clarqui agueri den beçala.</p>                                                                                                                                         | <p>In historia universas partes mature et sermonis augusta dignitate congregat et connectit. Secundum loquendi morem, amoeni ingenii et iucundae consuetudinis est, axiomatibusque locuples, ut manifeste patet ex operibus quae famosus Axular et Pater Materra in lucem ediderunt.</p>                                                                                            | <p>En la poesia es admirable, no liviana ni licenciosa; excluie lo que otras admiten cortar, alargar i abreviar; con que requiere que el verso sea sonoro, limpio, terso, sin que le falte numero. Los que esto no guardan a nadie agradan, i sireven solo de lo que el lirico dixo, de papel para cubiertas en las especerías.</p> |
| <p>Copletan ere ezta erguella ez muthiria. Khentcen tu bertceconhesten tuzten gauça batçuec, hala nola luçatcea eta laburtcea. Nahi du copla içan dadin ocn, garbi, licher eta compli, conturicedo numeric faltatu gabe; eta condicino hauc gabeco coplac nihori etçazco agradatcen. Hau hala dela exempluz eracusten darocuetcheverry Ciburuco jaun appeçac eguin çuen liburu coplazcoan.</p> | <p>In carminibus non est vanus nec impudens. Aliquas demit res, ut productionem et contractionem. Vult ut metrum sit resonans, nitidum, libere fluens, et omnibus suis numeris et partibus expletum; et carmina quae huiusmodi qualitibus carent nemini arrident. Hoc ita esse exemplo nobis ostendit dominus Etcheverry sacerdos Ciburuensis, in versificato libro quem fecit.</p> | <p>En la historia, con grandeza i magestad todas sus partes abraça i aun las colma. Es facil i graciosa en el decir, aguda i facunda en las sentencias; discurre con libertad modesta, de suerte que a todo lo hinche, sin que por ella se quede.</p>                                                                               |
| <p>Theologiaren capetaric haltoenera eta guionaren adimendua dohaqueen cucuilloric gorenera eta garraiteric chutenera hedatcen</p>                                                                                                                                                                                                                                                             | <p>Ad quodlibet sacrae theologiae altissimum cacumen, excelsissimumque culmen quo humana mens accedere potest, sublimissi-</p>                                                                                                                                                                                                                                                      | <p>En la philosophia i medicina a todas las cosas acude i da gran punto. En la facultad de ambos derechos en nada es corta; ni de las unas ni las otras sus terminos particulares le impiden para que con facilidad se explique con tanta destreza i cortesia que parece que en ella fueron nacidas i criadas.</p>                  |
|                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                     | <p>A lo mas alto de la sagrada theologia quanto nuestra capacidad sufre se encumbra i levanta.</p>                                                                                                                                                                                                                                  |



| <i>EHats 276-281</i><br>euskaraz                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                              | <i>EHats 276-281</i><br>latinez                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                   | Aldrete,<br>369-370                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                   |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| eta hegaldatcen da, bathere traburic, behaztoparic eta mothelduratic gabe.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                    | mumque verticem pervenit et subvolat, absque ullis impedimento, prolapsione et linguae hesitatione.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                               | Sin que se muestre torpe o muda, en todo habla despiertamente sin tropieço ni impedimento.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                            |
| Mihia libre eta sufle du eta ausartqui mintço da, gauça guztia chehero, bat banazca, beregainqui eta bereciqui aditcera emaiten tuelarican.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                   | Linguam habet expeditam et flexilem, et audacter verba facit, omnia minutatim, sigillatim, disiunctim et separatim indicans.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                      |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                       |
| Lekhucõ dira erran escualdun autor hauquien liburuac, ceinetan garbiqui agueri baita, nahiz perpausean edo dela copletan, trebea eta boccantçaz bethea dela escuara.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                          | Testes sunt praedictorum auctorum libri, in quibus aperte patet Cantabrisium, sive in prosa sive in carminibus, solertem et dicendi facultate munitum esse.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                       | Testigos son de aquesto los libros que desta soberana materia an sacado varones insignes en sanctidad i doctrina de nuestros tiempos dichosos en esto, que assi los ilustra i ilustrara en los venideros. Con que claramente muestra para las alabanças divinas, ora sea en prosa ora en verso, es mui a proposito. I si todo lo bueno que con bivo sentimiento i espiritu venido del cielo se a cantado i dicho se viera recogido i puesto en orden, como vemos lo griego i lo latino, no fuera a estos inferior ni de menor estima. |
| Isquiribu Sainduetan causitcen diren gauçac eta sainduen pentsamendu halto eta sothilac modestqui eta garaciosqui declaratcen tu, devocino eta consolamendu emaiten darocularican. Baldin grequez eta latinez isquiribatu diren gauçac, eta ceruco izpiritu biciarequin cantatu eta erran direnac, erran eta eçarri içan balira escuaraz eta Escual Herria, diot berriz ere munduaren artean etcela hec baino estimu gutiagoccoa içanen; aiticitic ueste dut ecen abantail eramanen ceravela. | Quae in Sacris Codicibus occurrunt sanctorumque cogitationes erectas et subtiles modeste ac iucunde explanat, afficiens nos pietate et solatio. Res quae Graece et Latine literarum monumentis commendatae fuerunt, quaeque caelesti vivo spiritu decantatae et celebratae sunt, si Cantabrice et in Cantabria promulgatae ac compositae fuissent, etiam dico iterum in orbe terrarum neutiquam illis inferiorem fuisse nominis existimatione; potius arbitror praestantiorum eis futurum fuisse. |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                       |

| <i>EHats 283-284</i><br>euskaraz                                                                                                                                                                                                                                            | <i>EHats 283-284</i><br>latinez                                                                                                                                                                                                            | Aldrete,<br>44                                                                                                                           |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Lehen autorec erran tuzten gaucei plegadura berri baten emaita, edo hor-hemen vanaturic ceudecinac elkhargana biltcea eta escuarara gambiatcea, bide hunetaz escualdunec bertce hitz-cuntcetaco istorioetaco itçalaren azpian dauntçan gauçac jaquin detçaten amoreacgatic. | Rebus quas olim auctores praedicaverunt novam adhibere plicaturam, vel quae huc atque illuc sparsa erant in unum adiungere et in Cantabrisium transferre, ut hoc pacto rebus quae sub aliorum sermonum historiis latent calleant Cantabri. | I Iustino llama a la lengua latina nuestra, con que denota que era vulgar, porque assi llamamos la que ordinariamente usamos. Dixo assi: |

| EHats 283-284<br>euskaraz                                                                                                                                                                                | EHats 283-284<br>latinez                                                                                                                                                                                                       | Aldrete,<br>44                                                                                                                                |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Hartaracotçat valiatu naiz Trogo Pompejoren exemplua, Greceinac Greceinac eta mundu gutzico istorioac latinez isquiribatu baitcituen, latindunec grecoenac eta grecoec latindunenac iracur cetçatentçat. | Ad hunc finem usus sum exemplo Trogi Pompei, qui Graecas et totius orbis historias Latino sermone composuit, ut cum Latina Graeci, Graecaque Latini lingua legere possent. Ideo igitur ego quoque scribo Latine et Cantabrice. | «Trogus Pompeius Graecas et totius orbis historias Latino sermone composuit, ut cum nostra Graeci, graeca quoque nostra lingua legi possent». |

Ikusten denez, nabarmen handiagoa da Aldreterenetik hartu duenaren neurria, beste edozein idazlerenetik hartu duenaren aldean. Bestalde, Oihenarten aipuekin ikusi dugun bezala, Aldreteren aipuak eta zatiak hartzen ditu Etxeberriek, baina ez ditu haren helburuekin eta ondorioekin erabiltzen, bere helburuetarako eta ondorio desberdinak (are kontrakoak) ateratzeko baino. Ikus, adibidez, Severo enperadorearen eta Leptitana arrebaren pasarte (EHats 226-27, Aldrete 1606: 70); Aldretek Afrikako hizkuntza latina zela erakusteko erabiltzen duen aipuak beste zerbaitetarako piztu du Sarakoaren interesa, hain zuzen norberaren sorterriko hizkuntza ez jakitea lotsagarri dela erakusteko. Gainera, Etxeberriren lan guztian zehar sakabana-turik daude Aldreterenetik harturiko zatiak, eta Aldreteren liburuko atal guztietatik hartuak dira.<sup>38</sup> Ez da horrela gertatzen, esaterako, Axularrekin; Axularrenek harturiko guztia dago Etxeberriren pasarte jakin batean («Escual Herrico gazteriar / *Iuvenibus Cantabriae*» atalean) eta Axularren hiru gunetan (*Guero* 25-29; 34-49; 86-97). Baina harturikoaren gaiak dira Aldrete benetan desberdina egiten dutenak, gainerako harrobietan bigarren mailako kontuetarako eta are betelenerako aipu eta zatiak hartu baititu Etxeberriek (“rhéthorique des citations” deitu denaren bidetik), eta Aldreteren *Del origen* liburuan, berriz, hizkuntza-kontuekin zerikusia duten gaiak gehienbat: hogeita hamazazpi zatitik soilik bi (EHats 273 / Aldrete 1606: 80-81 eta EHats 273 / Aldrete 1606: 367) erabili ditu Etxeberriek hizkuntzaz bestelako gaiez jarduteko.

Izan ere, Etxeberri Sarakoak bere proiektuarentzat aitorturiko helburuek (latina euskaraz ikasteko eskuliburua da *Escuarazco hatsapenac latin ikbasteco*; euskaraz idaztera bultzatu eta horretarako laguntza eskaini nahi du; euskarak beste hizkuntzek bezainbeste balio duela frogatu behar du lehenbizi) asko gogorarazten dute Aldreterenak. Egiantan berdin-berdinak dira bigarrena eta hirugarrena (eta lehenengo soilik Etxeberriren gramatika-lanari dagokio), zeren eta Aldreteren *La causa que movio a escribir este tratado* (Aldrete 1606: 1-6) atala ez da Etxeberriek hitzez hitz erabili dituenetakoa, baina hor agertzen diren helburu eta xedeak denak eza-gutu ditu Etxeberriek bereak bezala (jakina, batek gaztelaniarekin eta besteak euskarekin):

<sup>38</sup> Aldreteren hirugarren liburua izan da, gaztelaniak latina ez beste hizkuntzetatik harturiko hitzak aztertzen dituelako, kopuru aldetik harrobirik eskasena. Baina, aurrerago ikusiko denez, hain zuzen hirugarren liburu horretako azken kapitulutik harturikoa da balio erlatibo handiena duena.

I si los que saben i tienen caudal de eloquencia la tratassen i enseñassen a disponer como la latina, no dudo sino que la igualaria, i en algunas cosas se le aventajaria. Impresa seria esta digna de los animos grandes i valerosos que España produce invidiados de otras naciones, i no menos gloriosa que la que con tanto esfuerço an llevado tan adelante con sus armas i navegaciones [...]; no es justo olviden la [lengua] propia, que bien merece qualquiera honrra que se le haga; i su gravedad, acompañada de primor i dulçura, es digna de ser favorecida i levantada.

Esta consideracion me despertó a otra del principio i origen della, sin que me impediessa que, siendo nuestra natural i vulgarmente usada, seria de poca estima mi trabajo. (Aldrete 1606: 3)

Are gehiago, orain badakigu Etxeberriren testu programatiko nagusia (*EHats* 274-75: «Eta, hala, ene chedea ezta jeus ere bertceric ičan... / *Itaque nullum habui alium scopum, praeter...*») Aldreteren liburutik hitzez hitz euskaratua dela:

Mi intento solo a sido mostrar su origen i principio, que como no a sido de lengua barbara, sino de la mas prima i elegante que á tenido el mundo, suficiente causa es de su estima i loa, i para preciarnos della, i no tenerla en poco como algunos hazen. (Aldrete 1606: 367)

Hitz horiek Aldreteren liburuko azken kapitulukoak dira, eta kapitulu osoa liburuaren kolofoi gisa sortua da. Etxeberri ere ez ditu horko hitzak edozein ataletan erabili, «Iracurtçaileari / *Lectori*» izeneko kapitulu berezian baino, eta, gainera, ia osorik erabiliaz izenburu aski adierazgarria duen azken oharra: *De las grandes partes dignas de mucha estima que la lengua castellana tiene*.<sup>39</sup>

Ez dugu pentsatu behar, ordea, Etxeberri Aldreteren hizkuntza-ideia guztiak beretzat hartzen dituenik. Liburuaren kontzeptua bera da, gure ustez, Etxeberri lili-ratu duena eta «nik halako bat egin nahi dut euskararentzat» pentsatzera eraman duena. Eginkizun horretan, behar izan duena hartu du hitzez hitz, behar izan duena egokitu du, eta behar izan duena eraldatu. Bien ideien arteko desberdintasun nagusia Espainiako lehenengo hizkuntzari buruzkoa da, jakina: Etxeberri gauza jakintzat ematen du Tubalen hizkuntza euskara zela (*EHats* 45, 51, 91-95), eta ez du onartzen Aldreteren eszeptizismoa eta aniztasunaren aldeko apustua:

La lengua que se hablava en España antes que los romanos vinieran a ella, entiendo que no se puede saber con certidumbre ni aun probabilidad, si bien ai diversos pareceres sobre ello. Unos afirman que fue la caldea; otros dicen que la primera que traxo Tubal fue la vascuence o vizcaina, como procura provar Estevan de Garibai (lib. 4, c. 4 & Poza *supra*) i otros [...]. (Aldrete 1606: 227)

Esto bien lo confessan los que dicen que [la vascuence o vizcaina] fue lengua general porque lo fue tambien al tiempo que vino Tubal i que con las venidas de otras naciones se fue perdiendo i se conservó en Vizcaia, i que esta fue una de las setenta i dos. Si esto les es de consuelo, nunca por mi lo pierdan, que aora no trato de quitarselo. (Aldrete 1606: 229)

<sup>39</sup> Muñoz-ek (1994) aztertzen du berariaz kapitulua.

De los autores antiguos consta la diversidad de la lenguas que España tenía quando los romanos vinieron a ella. (Aldrete 1606: 229)

Dena den, uste dugu frogatuta geratu dela Etxeberriren mahaian leku berezia izan zuela Aldreteren *Del origen* liburuak, *Enciclopedia rinascimentali* deiturikoen ondoan, Covarrubiasenaren moduko hiztegien alboan, *Bibliotheca Veterum Patrum* edo antzeko bildumaren batekin, Axular edo Oihenart bezalako autoreekin batera, prosa-lanerako *inventio*-a errazteko tresna gisa. Horrela, lanaren hasieran eman dugun Aro Berriko idazleen zerrendaren balioa asko erlatibizatzen da, orain badakigulako Vives, Scaligero, José Sigüenza, Davila... ez zituela berak zuzenean irakurri; geratu dira oraindik batzuk nondik hartu dituen zehazki azaldu gabe (Bodin, Godard, Moret...), baina esango nuke horiek ere bigarren eskuko aipuak direla. Zer esanik ez idazle klasikoez.

Garaiko ohiturak ezagututa ere, Etxeberri Axularri buruz esandakoa esan behar harko dugu guk autore horiei guztiei buruz, Aldretez batik bat (*EHats* 177-178):

Ordea, eztiote mercedien erraitea «Hau Axular famatuac dio», bertce hainitz autor arrotz mendreagori ohore hunen emateaz batere dudaric eguiten ezutelarican. [...] Ordea, nahi nuque jaquin cer arroçoinez eztioten nahi eman çor çajoen ohore hau, ala mesprecio eta laido othe çajen haren icendateca, ala, haren obraz bere buruac beztituric, gogoan pasatcen othe duten munduaren artean guiçon jaquin eta habiltçat bere buruen iragaitea.

Sed ne utiquam promerito illum dignantur ut proclament ac personent «Hoc inquit famosus Axular», licet pluribus aliis inferioribus extraneis auctoribus huiusmodi reverentiam concedere non recusent. [...] Scire tamen optarem propter quam causam nolint ei annuere hanc debitam veniam, vel utrum apud eos despectui et ludubrio sit eius invocatio, vel illius opere ornatu inter viros doctos putentne numerari.

## Erreferentziak

- Aldrete, B. J., 1972 [1606], *Del origen y principio de la lengua castellana o romance que oi se usa en España*, Madril [Erromako 1606koaren facsimila].
- Altuna, P., 1988, “Axularren eta Sarako Etxeberriren hizkera”, in *II. Euskal Mundu-Biltzarra. Euskara biltzarra*, Gasteiz, 234-49.
- Blair, A., 2003, “Copying with information overload in Early Modern Europe” [Princeton Unibertsitatean 2003-02-14an emandako hitzaldia] <web.princeton.edu/sites/english/csbn/papers/blairpaper.doc>.
- Covarrubias, S., 1673 [1. arg. 1611], *Tesoro de la lengua castellana o española... añadido por el Padre Benito Remigio Noydens*, Madril.
- Decio, F., 1548, *Epitome in Erasmi copiam*, Valentzia.
- Fumaroli, M., 2002 [=1980], *L'âge de l'éloquence. Rhétorique et res literaria de la Renaissance au seuil de l'époque classique*, Geneva.
- Haskell, Y., 1997, “Round and round we go: the alchemical *opus circulatorium* of Giovanni Aurelio Augurello”, *Bibliothèque d'Humanisme et Renaissance*, LIX-3, 583-606.

- Lakarra, J. A., 2001, "Práctica lexicográfica y teoría lingüística en el País Vasco (siglos XVII-XVIII)", in *Actas del II Congreso Internacional de la Sociedad Española de Historiografía Lingüística. León, 2-5 de marzo de 1999*, 603-21.
- López Poza, S., 1990, "Florilegios, polyantheas, repertorios de sentencias y lugares comunes. Aproximación bibliográfica", *Criticón* 49, 61-76.
- , 2000, "Poliantes y otros repertorios de utilidad para la edición de textos del Siglo de Oro", *La perinola, Revista de Investigación quevediana* 4, 191-207.
- Mitxelena, K., 1984 [1970], "Estudio sobre las fuentes del diccionario de Azcue", in R. M.<sup>a</sup> de Azkue, *Diccionario vasco-español-francés*, Bilbo.
- Muñoz Cortés, M., 1994, "Elogio y defensa de la lengua española en Bernardo de Aldrete", in R. Escavy, M. Hernández Terrés eta A. Roldán (arg.), *Actas del Congreso Internacional de Historiografía Lingüística. Nebrija V Centenario III*. liburukia, 451-468.
- Oihenart, A., 1656, *Notitia utriusque Vasconiae*, Paris (= *idem*, Eusko Legebiltzarra, Vitoria-Gasteiz, 1992).
- Quondam, A., 2003, "Strumenti dell'officina classicistica: Polyanthea & Co", *Modern Philology* 101 (2), 316-36.
- Rausell, H., 2002, "Un texto escolar del siglo XVI: el epítome de Francisco Decio del *De duplici copia verborum ac rerum* de Erasmo de Róterdam", *Estudis: revista de historia moderna* 28, 473-82.
- Riquer, Martín de, 1943, "Introducción", in *Tesoro de la lengua castellana o española: según la impresión de 1611, con las adiciones de Benito Remigio Noydens publicadas en la de 1674*, I-XV.
- Salaberri Muñoa, P., 2002, "Etxeberri Sarakoaren *Escual-herrico gazteriari* eta kultura klasiakoaren transmisioaz", *FLV* 34, 90, 307-21.
- Serrai, A., 1988, *Storia della bibliografia I: Bibliografia e Cabala. Le Enciclopedie rinascimentali (I)*, Erroma.
- , 1991, *Storia della bibliografia II: Le Enciclopedie rinascimentali (II). Bibliografi universali*, Erroma.
- Villasante, L., 1972, *Axular: mendea, gizona, liburua*, Arantzazu.



# ATZIZKIAK AZTERGAI AUTORE EZBERDINEN BEGIRADAPEAN

Ane Bueno Berridi  
(UPV/EHU)

Eratorpen atzizkiez orokorrean eta gure ikerketan aztergai izango ditugun *-dura*, *-(k)era*, *-(k)eta*, *-kuntza*, *-men*, *-mendu* eta *-pen* atzizkiez bereziki, orain arte dakigun guztia jasotzeko helburuarekin, gaiari buruzko aurreko bibliografia miatu dugu.<sup>1</sup>

## 1. Larramendiren *El imposible vencido* (1729)

Garai diferenteetan autore ezberdinek esandakoaren erreposoa Larramendirekin eta euskararen lehen gramatika denarekin hasiko dugu. 1729.ean argitaratutako gramatikaren bigarren partean, *Formación de los nombres substantivos, y adjetivos* deitutako atal laburrean, euskarak hitz konposatu eta eratorriak eratzeko dituen baliabideen berri emango digu. Bost talde bereiziko ditu; nahiz eta oinarriak garrantzia izan, garrantzitsuagoa da atzizkia erantsita zein hitz mota sortzen den eta zein adiera duen. Zeregin honetan lagungarri erromantzeko eredia izango du gehiengotan.

1. Adberbioak sortzen dituztenak, *-ka*: erromantzez à pedradas *arríca*, à cachetes *ucabilca*. Era berean adberbioei *-da* erantsita izen bat sortuko da: *arricadá* pedrada, *osticadá* patada.
2. Izen abstraktuak sortzen dituztenak, *-tasun*: *guizatásuna*, *guizontasúna* humanidad; *aunditasúna* grandeza. *-keria* (*querí*, ò *quería*): *eroquería* locura, *liquisquería* porquería.
3. Talde honetan “verbales del activo” deitzen dituenak nola eratzen diren azalduko digu. Erromantzez eta latinez *-or* amaiera dutela *doctor*, *lector*, *auditor* euskaraz hiru modutara, *-tzaile* amaiera dutela: *eracastzalle*, *iracurtzálle*, *aditzálle*. *-le* bidez: *eracásle*, *iracúrle*, *adíle*. Eta *-ari* (*taria*, ò *aria*): *eracastaria*, *iracurtaria*, *aditaria*.

---

<sup>1</sup> “Nominalizazio atzizki deitutakoen azterketa historikoa eta morfologikoa” (J. A. Lakarra Andriñua zuzendari) E.H.U-ko Euskal Linguistika eta Filologia Doktorego programaren ikerkuntza lanaren ataletako bat da. Proiektu horretako beste datu eta pasarte batzuk ere ekarri ditugu hona hemen esandakoen osagarri.

4. Erromantzez ofizioa adierazi eta *-ero* amaiera dutenen kideak dira talde honetakoak, *-gile*: *bizarguille* barbero, *osaguille* medico, *burniguille* herrero. *-gin* (*guiña*): *oguiquiñá*, *oquiñá* panadero, *sorguiñá* hechizero brujo. Baita erromantzez *-or* amaiera duten beste hauek ere *bienhechór*, *malhechór* euskaraz *onguille*, *gaizguille* esaten baitira.
5. Larramendik “verbales del neutro, y passivo” deitzen dituenak eta euskaraz *-kor* eta *-koi* atzizkien bidez eratzen direnak ditugu azkeneko taldean: *ibilcorra* andariago, *iragancorra* facil de passarse, ò transitorio; *ibilcoi*, *iragancoi*. Baita izenekin ere *barrencoi*, intrinseco, interior, y retirado; *campocoi*, extrinseco, superficial, y amigo de bulla.

Larramendik berak aditz izenak eratzeko modu asko dagoela esan arren, azalpen labur hau nahikoa omen da euskararen nondik norakoak ezagutzeko. Gainerakoak ezagutzeko hiztegiara jo beharko dugu:

Dexo algunos otros modos de formacion en los nombres verbales, que se pondran en el Diccionario: pues para el fin de que conozcan todos, quan regular, y oportunamente forma sus derivados el Bascuenze, bastan estos. (1729: 268)

Hiztegitik zaharrez ari garela ezinbestekoa da, Lakarraren ustez, hiztegiaren eta gramatikaren arteko erlazioa ikertzea. Pouvreauren kasuan, esaterako, hiztegiaren oinarri dugu gramatika; hiztegiaren hasierako gramatika oharretan bildurik dago morfologiaz dakiena eta hauetan oinarrituta osatuko ditu hitz-familiak. Pouvreau bat dator antzinako hiztegitikarekin (1995b: 21-25). Larramendi labur arituko da eratorpen moduez gramatikan, gainerakoak hiztegitikarekin utziko ditu. Baina hau ere ez da bere berezitasun bat Lakarrak dioenez:

Eratorriak gramatikan azaldu arren beren kokagunetzat hiztegia esleitzean Larramendi bat dator bai Nebrijarekin (...), bai *Grammaire generale et raisonnée*-arekin ere. (1995b: 33)

1745.ean argitaratutako *Diccionario trilingüe del castellano, bascuence y latin* hiztegian, atzizki bidez eraturako hitz ugari aurki daitezke. Guri dagokigunez, *-(k)eta* nahiz *-(k)era* atzizkien erabilera nabarmena azpimarratu behar da. Badirudi atzizki diferentek izan arren adiera bera dutela, maiz erromantzeko hitz beraren euskarazko ordain desberdinetan aurkitzen baitira. Esaterako:

Arranque, el acto de arrancar, sacar de raiz, *arraquera*, *urtiguindea*, *irazueta*, *idoquiera*. (I, 97. or.)

Vision, *icusquera*, *icusqueta*. (II, 375. or.)

Nahiz eta maiztasun handikoak izan, ez dira hauek aditz bati lotu eta izena sortzen duten atzizki bakarrak. Hiztegian aurki daitezke *suertapen* “acaecimiento”, *sine nestamen* “artículo de la fe”, *irekuntza* “boquerón”, *itsasmen* “conexión”, *idoropen* “encuentro en que se halla algo”, *seinalamendu* “señalamiento”, *irazkidura* “urridura” eta beste hamaika. Hitz hauetako asko ez ditugu Larramendiren hiztegitik aurkituko, bertan izango dute lehen agerraldia eta azkena.<sup>2</sup>

<sup>2</sup> *Orotariko euskal hiztegi*-ra jo dugu Larramendiren Hiztegitiko eratorriak ondorengo literatur tradizioan dokumentatzen diren ala ez jakiteko.



Gramatikatik *Hiztegi Hirukoitz*-era atzizkietan dagoen aldea nabarmena da, hauek jatorri anitzekoak dira. Ahozko eta, batez ere, idatzizko iturriek badute lekurik hiztegian, eta eratorpenean uste baino garrantzitsuagoa Urgellen esanean:

Beste horrenbestetsu gertatzen da, neurri batean behinik behin, literaturatik datozkeen hitzekin. (...) Besteak beste, honek bide eman digu *HH*-an euskal liburu eta hiztegiak, betebeharrak anekdotikoaz gainera (hitz gehiago edo gutxiago eskaintzea, alegia), Larramendik hartu zituen erabaki orokorretan eragina izan zutela somatzen hasteko: *-kide* atzizkia emankor bihurtzeko Leizarraga bere aldera dakarren moduan, antzeko gertakari gehiago egon izan zirela iradoki dut azterketan zehar: *-di* eta Etxeberri Ziburukoa, *-kiro* eta Beriain, *-ro* eta Beriain edota Landucci..., baita agian *-era* eta Otxoa ere, adibidez. (2000: 676-77)

Baina testuak ez ezik, bere aurreko hiztegiak ere erabili zituen, Landuccirena, eta Larramendik aitortu baino zertxobait gehixeago Martin Harrietena, *Gramatica escuaraz eta francesez* (1741) lanaren amaieran dagoen hiztegia (edo hiztegiak), Lakarrak frogatu zuenez. Larramendik Harriet *Eranskin*-ean ez ezik *HH*-ean ere erabili zuela, baieztatu zuen. Harrietenetik hartutako artean hitz eratorriak ere badaude. Batzutan hitzak bere horretan hartzen ditu bestetan, berriz, erroa gorde eta atzizkia aldatu egiten du:

Larramendik oinarriak onartu arren, atzizkiok (*-mendu* agerriki) ez bide gogoko eta bestez ditu aldatzen. Hertsi-hertsian hitzberriok Larramendiren sorkuntza direla esan beharko bada ere, zehaztasunak moldakuntza baino ez direla kontuan hartzea garrantzitsua da (...). (1995a: 65)

Hona hemen esandakoaren adibidetzat emandako zenbait:

Abatimiento, *beeratzapena* (...), beeratzea: abaissement, *beheramendua*.  
Abreviatura, *laburrera*, chaburrera: abbreviation, *laburqunça*.  
Asseguración, segurutzia, *segurundea*, bermea, bermegoa: assurance, *seguramendua*.

Larramendik ez zuen nonbait *-mendu* hain gogoko, bai ordea *-kuntza*. Hau ere Harrietengandik hartua, berari zor baitio Lakarraren esanean atzizki honen erabileraren ideia. *-Dura*-ri dagokionez, “Ez dirudi (...) atzizki honen erabileran H-k L zaletu zuenik *-kuntza*, edo, beste neurri batean, *-katu*-rekin egin bezala” dio Lakarrak (Ib., 56. or.). *E*-ko sarrera bakar batek du jatorria Harrietenengan; Hiztegian, ia ziurtasun osoz harenak direnen artean badira bakarren batzuk:

Austeridad, mortificación, *hildurá*, illerazqueta: appesantissement, *hildura*.  
Atadura, lotura, lotera, *estecadura*, estecallua: attachment, *estequadura*. (Ib., 65. or.)

Gure lanean aztertutako *HH*-ko adibide<sup>3</sup> gehienak aurretiaz lekukotu gabeak dira, oraintxe azaldutakoek, ordea, beste ikuspuntu batetik aztertzea eraman gaituzte.

<sup>3</sup> *HH*-ren bolumenta kontuan, Larramendiren hiztegiak atzizkien azterketarako euskarazko ordaintan *i* eta *s* hizkiez hasitako eratorriak soilik baliatu ditugu (gaztelarazko ordainak *a*-tik *v*-ra bitartekoak dira). Osatutako corpusa honakoa da: *-(k)era* 45 sarrera/49 aldaera; *-(k)eta* 19 sarrera/20 aldaera; *-men/-pen* 17 sarrera/18 aldaera; *-dura* 14 sarrera; *-mendu* 5 sarrera/6 aldaera; *-kuntza* 2 sarrera.

Eratorrien artean *-kuntza* atzizki bidezkoak ditugu gutxien, bi besterik ez: *irekuntza* “boquerón”; *sarkuntza* “entrada”. Hiztegian atzizki honen bidez eraturako hitz gutxi batzuk baino ez zituela jaso dirudi,<sup>4</sup> eta ez zuela eratorri berriak sortzeko erabili, ez behintzat beste atzizki batzuk bezain beste, baina saiakeraren bat egin zuen gure zerrendako *irekuntza* Larramendiren uztakoa delakoan baikaude. Bigarrena aldeztetik dokumentatua da, Harrietenean hain zuzen. Oraingo honetan Larramendik handik hartua duela ez dugu zalantzarik izan:

Entrée, *sarrilguia, sarqunça, sarbidea*. (Ht)

Entrada, *sarrera, sarcunza, sarbidea, sarrilguia, sartzea, barrutea, barrendea*. (Lar)

Larramendik Harrietanak jasotzeaz gain, *-era* atzizkidun eratorri berria, aurretik dokumentatu gabea bederen, eta *-tze* formaduna gehitu ditu. Hauxe dugu jasotako *-kuntza* bakarra, izan ere gainerakoetan atzizki gehiketaz baino ordezkapenez hitz egin beharko genuke. Hona hemen adibideak:

Abertura, *idiquitza,...*, *idiquiera, idiquipena, zabaldura*.

Ouverture, *idequidura*.

Enseñanza, enseñamiento, *eracasdea, iracasquera*.

Instruction, *irakhasqunça*.

Lavadura, *garbitzea, icuztzea, garbiqueta, icuzqueta*.

Lavement, *icuzdura*.

Limpia, limpiadura, *garbiera, garbitzea, icuzera, icuztea*.

Sentido, sensación, *sentiera, cordea*.

Sens, *sentiqunça, senxua*.

Sentimiento, percepción de el sentido, *sentiera, bidadia*.

Sentiment, *sendimendua, sendiqunça*.

Venta, *salgoa, saldura, salera*.

Vente, *salpena, salçapena*.

Goragoko adibidean ez bezala, *-kuntza* atzizkiz eratuak ez ditu jasotzen, ez eta *-mendu* bidez eratu ere, *-(k)era* bidezko eratorriak ditugu maizen haien ordeztu honetan atzizki ordezkapenez hitz egin genezakeen). Aldiz, *-pen* eta *-dura* ez ditu baztertzen, baina, ikusten denez, atzizki hauen bidezko eratorriak ez ditu zuzenean hartzen. Modu batera edo bestera, Lakarrak aipaturako moldaketen aurrean geundeke.

<sup>4</sup> Atzizki honen bidez gure zerrendan jasotakoez gain, *irakaskintza* eratorria ere badugu HH-ean: manejo de caballos, *zaldien irakaskintza*. OEH-an *irakaskintza* sarrerapean dago jasoa eratorri hau, haren aldaera baillitza. Bertako informazioaren arabera *Maiztasun Hiztegian* 238 *irakaskintza*, 49 *irakaskintza*, 1 *irakaskintza* daude jasota. Ez dirudi, baina, *-kintza* eta *-gintza -kuntza* atzizkiaren aldaeratzat har daitezkeenik, atzizki ezberdintzat baizik.

Urgellek azaltzen digunez, *kintza (-gintza)* “*ikazkintza* bezalako hitzetatik abiatuaz, ingurune fonetikoari erreparatu gabe eta *ekintza* jatorritzat emanaz (...)” aldaera nagusitzat hartu zuen Larramendik (2000: 570). Hemen kokatuko genuke *irakaskintza* (< *irakatsi*), zalantzaren bat izatekotan erroak sortarazia, *-gintza* atzizkiak izena hartzen baitu oinarritzat, aditzioa zeharo ezohikoa dela diosku Urgellek, berak jasotakoen artean bakarra, *antzeskintza* hain zuzen; hortaz bigarrena gurea.

Adibideek garbi erakusten dute Larramendiren joera *-(k)era* atzizkiarekiko, bereziki emankorra gertatu zitzaion, goikoez gain zerrendako gainerako adibideak ikusita. Neurri apalagoan *-keta*, maiz *-(k)era*-ren ondoan agertzen dena.

*-Dura* atzizki bidezko hamalau eratorritatik lau Iparraldeko idazleen lanetan dokumentatuak ditugu jada, badago bosgarren bat, hiztegian aurreneko agerraldia edukita, Larramendiren sorkuntza ez dirudiena: *sumindura* eratorriaz ari gara. Eratorri honen ondorengo erabilerak, Haraneder, Larregi, Duhalde, Duvoisin... ekialdeko hizkeraren batean entzundakoa izan daitekeela dio.<sup>5</sup> Baditugu bestalde, mailegu itxurako honako hauek: *sacadura*, *sakadura*, un *corte...*; *selladura*, *ciguillera*, *ciguillatzea*, *selladura*. Orain arte horrelakorik topatu ez, eta harritu egin gaitu, batez ere, Larramendik hauen jatorriaz azalpenik ez ematea aldamenean. Gainerakoak, berriak dirudite, tartean kalko modukoa “*urdidura*, *irazkidura*”, e.a.

*-Men/-pen* atzizkiei dagokienean, lau baino ez dira (espero baino gutxiago) aldez aurretik dokumentatuak, guztiak *-pen* atzizkiak. Lehenengo lekukotasuna hiztegian dutenetatik bi, *ibilpen* (He) eta *ilkipen* (He, Dv), Haranederrengan dokumentatuko dira beranduago (1749). Haranederrengan Larramendiren eraginik ez dagoela esan berri dugu (eta *sumindura* eratorriari azalpena bilatu). *-Pen* atzizkidun eratorri berri hauekin, baina, zalantza sortu zaigu; Lar-enean aipatu eta He-gan dokumentatutako eratorri gehiago ba ote dagoen aztertu beharko litzateke.

*-Mendu*-ri dagokionez, gure zerrendako eratorri gehienek badute aldez aurretiko lekukotasuna, *sarmentu* eta *señalamentu* sarrekek izan ezik. Aitzitik, argi dago ez direla Larramendiren uztakoak, maileguak baizik (mailegaketaren norabideaz Larramendik bestelako iritzia badu ere).<sup>6</sup>

## 2. Ithurriren *Grammaire Basque* (1895)

Mende eta erdi pasatxo geroago beste gramatika bat argitaratu zen, Jean Ithurri Sarako apaizaren *Grammaire Basque* hain zuzen ere.<sup>7</sup> Larramendirenean bezalaxe luze aditaz eta ataltxo bat (hartan baino zabalagoa) hitz eraketaz eta eratorpenaz sintaxiari dagokion partean.

<sup>5</sup> Areago, Haranederrek berak (bere itzulpen lanean dokumentatzen baita lehenengoz *sumindura*) “Escara garbiago batetarat, edo herri Escaldunak mintzo diren molderat itçulia” dela berea, esango digu. Eta, beraz, Haraneder baitan ez dagoela Larramendiren eraginik zehazten du Urkizuk. (1992: 315). Hortaz, garaiko euskarari erabilitakoa, ezagututakoa behintzat, ematen du.

<sup>6</sup> “Sarmiento, de el Bascuence sarmientua, su origen es sarrimentua (...)” *Sarri* hitzak “frecuente” esan nahi du, *mentua* “el renuevo, vastago, ramo tierno”, ondorioz “el que da repetidos ramitos tiernos” izango litzateke *sarrimentu*, *sarmentu*. Larramendiren ustetan *mentu* ez da atzizkia, izena baizik. Beharbada, Larramendirenak badu zentzua, euskaraz *mentu* izena, “injerto; vástago, púa de injerto” esanahia duena, badela jakinda.

<sup>7</sup> F. Krutwigek gramatika filologikoen tipokoetan sartuko du Ithurriarena. Gramatika hauek arau-emaileak dira eta literaturatik bertatik ateratzen dituzte adibideak. Literatur hizkuntza tratatzen dute. Gramatikaren hitzaurrean “Dudarik gabe Grammatika hau, orain-arte euskarari buruz izkiriatu diren grammatiketarik onena da. (...) Ithurry abadeak bere Grammatika hunen bidez euskarazko hizkuntza literario autentikoari balio handiko lana eman derauko, zeren-eta literatur hizkuntzak behi izkiriatazile hoberekek erabilten duten hizkuntza tradizionalekoa bait da. Eta euskararen kasuan (...) laburdara klasikoan dugu” idatziko du.

Oinarriaren arabera sailkatzen ditu eratorpen atzizkiak Ithurrik: 1. Izena eta adjektiboa dutenak oinarrian, 2. Pertsona eta leku izena, 3. Galdetzailea eta erakuslea, 4. Aditzoina (infinififs capitaux), 5. Partizipioa (infinififs passés et des participes passés). Aztergai ditugunetatik hiru azaltzen dira gramatikan: *-dura*, *-keta* (eta *-keta-ri*), *-tzapen*. Azken honetaz dio zenbaitek *-pen* erabiltzen duela. Bitxia iruditzen zaigu *-mendu* atzizkiari esaterako, lerro bat ere eskaini ez izana forma hau iparraldeko idazleen artean hain erabilia izanda.

Izenari nahiz adjektiboari lotzen zaizkien artean dugu *-dura* atzizkia. Axularren bi adibide ematen ditu *hasserredura* (A., 271), *graziaren berretura* (A., 538) eta Etxeberri Ziburukoaren *uzkurdura* (E., 109). Besterik ez atzizki honi buruz, aditzari lotutako ereduez aipamenik ez.

*-Keta* atzizkia ere talde honetakoa genuke, erroan dagoen adjektiboak edo izenak adierazten duenaren bila aritzea izanik bere adiera. Hona hemen Martin Harrieti hartutako adibidea: *ohatze*, nid, *ohatzeketa*, à la recherche de nids. (H., 475). Axularrek gainera, aditzei atzizki hori bera erantsi eta izenak sortzen dituela aipatzen du. Ondorengo aipua jasotzen du:

*Zertako ibili behar zara seinalatzekeetan eta bertzeri kargu emanketan* (A., 242). (1895: 435)

Testuinguru honetan beste euskalki batzutan *seinalatzen* eta *ematen* formak izango genituzke: *-tel-tze + -n* (inesiboko kasu-marka).

Ithurriren haritik planteatutako gaiak, *-keta* atzizkiaren bidezko izen eta *-ketan* zenbait euskalkitan partizipio burutugabea adierazteko formen arteko loturak, alegia, kapitulu oso bat eskatuko luke. Hala ere, Trasken beraren iritzia ekarri nahiko genuke hona Azkaratek eta Altunak egindako laburpenean oinarrituta (2001: 196):

(...) zuzentzat dauzka Trasken (1995: 221-222) beste bi hizkuntzalariek, Schuchardtek eta Lafonek, proposatutako paralelotasunak: *-te* bera da *jakite* aditz izenekoa eta *eurite* izen eratorrikoa; *-tze* bera da *sartze* aditz izenekoa eta *jendetze* izen eratorrikoa. Bide beretik, Gipuzkoako mendebaldean aditz izenetan aurki daitezkeen *-keta* (*bialketan*) ere, *-keta* erator atzizkiarekin lotzen du (*ogiketa*, *jendeketa*, *hizketa*...). Azken finean, hiru erator atzizkiak, *-te*, *-tze* eta *-keta*, izenari lotzen zaizkio, eta izenak sortzen dituzte, (...). Beraz, behin eta berriz defendatu duen ikuspegian oinarrituaz, ez da harritzekoa azken batean izenak diren *ibil-*, *ikus-* edo *etor-* aditsoinei ere lotu izana (...).

Axularren adibidean inesiboan agertzen diren aditz izen horiek Pouvreuren eta Duvoisinien hiztegietan aurkituko ditugu. Lehenak bere hiztegian *seinalatzekeetak*<sup>8</sup> sarrera dakar. *OEH*-k diotenaren arabera Axularren aipu hau bera izan daiteke hiztegiaren iturburua. Pouvreauk Axularri hartutakoak izan daitezkeen beste adibide batzuk ere aurkitu ditugu bere hiztegi eratorriak<sup>9</sup> aztertu ditugunean. Gure da-

<sup>8</sup> *Seinalatzekeetak*, billets qu'on s'entrevioie SP. *OEH*, XIV, 646. or.

<sup>9</sup> Oraingo honetan, lan orokorrean eta *HH*-ren azterketan ez bezala, hiztegi letra guztiak hartu ditugu kontuan. Kerejetak prestatutako edizioa erabili dugu (hiztegia informatizatuta edukitzeak izugarri lagundu digu). Honako corpusa eratu dugu: *-dura* atzizkidun 214 sarrera; *-mendu* 108 sarrera; *-(k)eta* atzizkidun 32 sarrera; *-men/-pen* bidezko 31 sarrera; *-kuntza* 3 sarrera.

tuetan badira Pouvreau baino lehenagoko agerraldia edo aipamena duten *-keta* bidezko zenbait. Horietako batek iturri marka darama, Axularren esaldi baten zatia da:

Behin aztura hartuz gero, trebatuz gero, anhitz gauza egiten da, gogoa pentsatze-  
ketan eta borondatea ere *hautatze-ketan* ibili gabe. (Ax)

Honela Pouvreaurenean:

*Pensatze-quetac*.

*Gogoa pensatze-quetan ibilli gabe* A.9: sans que l' esprit s'en aille a diverses pen-  
sées.

Pouvreauk beraz, Axularren adibideaz gain, *-keta* bidez eratutako izena ematen digu itzulpenik gabe. Esaldiak badu jarraipenik, ordea, eta hiztegian jasota azaltzen da modu berean baina iturri markarik gabe oraingoan:

*Hautatze-quetac*.

*Hautatze-quetan ibiltea*: chercher a choisir.

Axularrenean inesiboz aurki daitezke Pouvreauren hiztegi-*ko* beste hainbat sarrera ere. Hona hemen Axularren pasarte hau:

*Behin (...) adiskidetuz gero (...) eta elkharrekin solhasean, hitz-ketan, elbe-  
ketan, present-ketan, gosalketan eta bisitaketan hasiz gero, peril handia da arima-  
rako.* (Ax)

Pouvreaurenean:

*Elhe-quetan ibiltea*.

*Gosal-quetac*.

*Hitz-quetac*: caqueteries.

*Hitz-quetan egoitea*: caqueter.

*Present-quetac*: presents qu'on se fait l'un a l'autre.

*Visita-quetac*: entrevisites.

*Visita-quetan ibiltea*: aller de visite en visite.

Barietatea eskaintzen digu Pouvreauk sarrerak aurkezteko eran. Goiko ereduari jarraiki bitan, gerundio eran soilik behin eta izen soila beste bitan. Azken hauei dagokienez, bata, *gosalketa*, itzulpenik gabe ematen du eta bestea, *presentketak*, adiera berriaz, Axularrenean “acción de regalar” izango litzatekeelako eta Pouvreaurenean objektua bera (ondorioa). Sarrera honi buruz, “la fuente de Pouvreau tal vez sea el ejemplo de Axular citado” esaten digu *OEH*-k (gorago eman dugun hori bera, alegia).

Badugu, bestalde, “*emanketa*, quantité de présents” izena Duvoisinengan, esanahiagatik Ithurriren hurrengo taldean sartuko genukeena. Izan ere, Ithurrik hirugarren *keta* bat jasotzen du, ez eratorpenean hitz-elkarketan baizik, aurretik izen nahiz adjektibo bat duela kantitatea adierazten duena. Duhalderen adibideak ematen ditu: *hutsketa* (D., 59), *bekhatuketa* (D., 56); *Hitzketa* (D., 140) (443. or.). Beraz, Duvoisinin *emanketa* esanahia dela eta talde honetan sartu badugu ere, oinarrian aditza edukita salbuespena izango litzateke.

Azkuez geroxeago hitz egingo badugu ere, esan dezagun, berak ere jaso zuela *keta*<sup>10</sup> forma hau bere *Morfología*-n “Derivativos nominales colectivos” multzoan. Ithurrirentzat hitz-elkarketako elementua dena, eratorpeneko atzizkia da Azkueren-tzat. *Alde* formaz ari dela, hona hemen zer dioen:

El hecho de que como sufijo no forme más vocablos se debe(...), a que su función es también desempeñada por otros elementos: temas independientes como *saldo* (...) y sufijos como *-keta*, *-tegi* (...). (1923-25: 81)

“Pila, mordo, talde” adiera duela euskalki guztietan aurkituko dugu, bizkaieraz eta gipuzkeraz izan ezik. Baliteke jatorrian *-eta* izatea, *k* epentetikoaren ondoren erantsiko litzaioke. Azkuerentzat *-eta* atzizki honek “Derivativos evolutivos” taldean aipatzen duenarekin<sup>11</sup> harremanik duen, atzizki beraz ari den, ezin jakin ez baitu lotura zuzenik egiten. Dena dela, Ithurrik ematen dion erabileraz ez du ezer aipatzen. Baliteke, Azkuek jasotako adibideak lexikalizatuta egotea ordurako. *OEH*-k izena den *keta* honi buruz horixe dio, jada lexikalizatuta dauden hitz ugari eman dituela, hala nola: *arrainketa*, *bihiketa*, *diruketa*, *gizonketa*, *jendeketa*, *lurketa*...<sup>12</sup>

Baina hauen aldamenean Azkueren garaian eta baita beranduago ere, *keta* bereizirik idatzita duten beste elkarketa batzuk beste elkarketa batzuk aurki daitezke, guztiak Iparaldeko autoreenak. Adibidez:

*Ustex etxe eta mutil ketak egiten abal dakotela nausitasun zerbeit.* JE Bur 49.

*Aitortzera behartuak gara ipuin-beretsu keta ederra kausi ditakeela nonhai.* Lf *ELit* 65. (Ib.)

Sarako apaizaren gramatikara itzuliz, aditzoinari lotu eta izen bat eratzen duten atzizkien artean *-tzapen* aurkituko dugu. Adibide gehienak Axularrenak dira. Honela: *galtzapen* (A., 233), *perte*; *goratzapen* (A., 234); *erakas*, enseigner, *erakast zapen*, enseignement. Amaitzeko, aipatzen du askok, Axularrek esate baterako, *erakuspen* esaten dutela.

Larramendiren gramatikarekin alderatuta atzizki kopuru handiagoa aztertzen du, dudarik gabe. Aztertu baino, jaso eta deskribatu, ez baitu bestelako azalpenik ematen.<sup>13</sup> Hala ere, alde handia dago aditzari ematen zaion trataera eta eratorpenari ematen zaionaren artean. Bestalde, eratorpenaren eta hitz-elkarketaren arteko muga zehatzik ez dago; gorago aipatutako *keta* formaz gain, egun eratorpen atzizki diren beste hainbat ere (*-tegi*, kasu) elkarketan azaltzen dira Ithurrirenean.<sup>14</sup>

<sup>10</sup> Azkuek jasotzen dituen adibideetan ere izena dugu oinarrian: *ardiketa*, *lurketa*, *egurketa*, *lagunketa*, *zaldiketa* e.a. (1923-25: 84).

<sup>11</sup> “*Eta*. Sufijo evolutivo que por olvido no se incluyó en el lugar correspondiente (117-129). En Toponimia, (...) denota pluralidad. En vocablos no toponímicos denota acción”. (1923-25: 113)

<sup>12</sup> *OEH*, X, 547. or.

<sup>13</sup> Honexegatik hain justu goraiatzten du Krutwigek Ithurri. Hona hemen zer dioen gramatikaren hitzaurrean: “Liburu hunen egileak, egiazko *jakintzalar* baten umiltasunaz —....— eredu serio eta onest batetan lan egin du. Ez du egin bertze alegia-jakintzalariek egiten ohi duten araura Euskalherrian, zeinek ez bait dira askiasten registrarzeaz, eta faktu grammatikalei buruz teorizatzen dutela, beren legezko eginbeharraren harantz bait dioaz”. Ithurri, Sarrera I.

<sup>14</sup> “De donde se sigue que Composición y Derivación, en el fondo, serían una misma cosa” dio Villasantek (1974: 11). Azkaratek ere “Badira, ordea, hitz elkarketaren mugan dauden egiturak ere, edo hitz elkartu ala hitz eratorri ote diren, eztabaida sortu dutenak” aipatzen du (1990: 10).

### 3. Azkueren *Morfología vasca* (1923-25)

Euskaltzaindiko bere kideek hala eskatuta euskal hizkien azterketari ekin zion Azkuek, baina hasiera batean hizkien tratatua izan behar zuena *Morfología vasca*<sup>15</sup> lan erraldoia bihurtu zen, beste atal batzuk erantsi baitzizkion lanari.

Lan honetan lehenengo aldiz eratorpen atzizkien deskribapen eta azterketa zabal aurkituko dugu, ikuspegi orokor ezin hobea. Gainera, egiten duen sailkapena, eduki daitezkeen desadostasun eta zalantzak gorabehera, abiapuntu erabat lagungarria zaio gaur egun atzizkien azterketan sakondu nahi duen orori.

Azal dezagun baina, Azkuek hizki edo afijoez egiten duen sailkapena gure lanean zein eremutan ibiliko garen zehazteko. Zazpi talde bereizten ditu eginkizunaren arabera: oinarrizkoak, eratorpenezkoak, graduatzaileak, adberbialak, determinatzaileak, deklinabidekoak eta loturazkoak. Era berean, eratorpen hizkiak lau azpitaldetan banatzen ditu sortzen den hitz berriaren kategoriaren arabera (hauxe da gramatiketan eta, maizen aurkituko dugun eredu): izenak sortzen dituztenak, adjektiboak sortzen dituztenak, aditzak sortzen dituztenak eta numeralak.

Lehenengo taldean kokatzen dira gurean aztergai ditugunak, hau da, erro bati lotu eta izen bat erortzen dutenen multzoan. Azkuek mota honetako ehun eta berrogei atzizkiren azalpena ematen digu, berau errazagoa eta argiagoa gerta dadin hamabi taldetan banatuko ditu. Hamar adieraren araberrakoak dira: 1. Agentes (74. or.); 2. Colectivos (80. or.); 3. Efectos (85. or.); 4. Instrumentales (97. or.); 5. Locales (100. or.); 6. Materiales (102. or.); 7. Operativos (112. or.); 8. Patronímicos (116. or.); 9. De tiempo (119. or.); 10. Toponímicos (124. or.). Bilakaera bidez atzizki izatera iritsi direnek osatzen dute beste talde bat: 11. Evolutivos (89. or.). Adiera diferentea duten atzizkiak aurkituko ditugu bertan, gainera batzuk errepikatuak dira, aurretik beste talderen batean azaldutakoak (*-en* atzizkiak, esaterako, patronimikoen taldean badu lekua). Amaitzeko, izen abstraktuak erortzen dituztenak dauzkagu: 12. Abstractos (59. or.). Aurrekoan bezalaxe adieraz diferentek diren atzizkiak aurkituko ditugu. Dena den, badira gainerako taldeetan bareriatuta izen abstraktuak sortzen dituzten beste atzizki batzuk ere.

Adieraren araberrakoei dagokienez, zenbaitetan ez dugu argi ikusten talde batzuen eta besteen artean dagoen aldea. *-Era* atzizkia, esate baterako, “efectos” eta “operativos” taldeetan aurkituko dugu, baina gure ustez adibide gehienak batekoak nahiz bestekoak izan daitezke.

Hona hemen Azkueren sailkapenaren arabera gure zazpi atzizkiak:

- *-men*: izen abstraktuak sortzen dituztenen taldekoa. Adibidez: *aipamen* (AN, G), *aiphamen* (BN, L, S) *mención*; *entzumen* (B, G) *oído*, *sentido* *auditivo*.
- *-mendul-mentu*: abstraktuak. Ad: *baimendu* (Axul) *consentimiento*.
- *-kuntza*: abstraktuen taldekoa. Ad: *atzerakuntza* (B) *retraimiento*, *izkuntza* (AN, B, G) *lenguaje*; *abadekuntza* *sacerdocio*.

<sup>15</sup> Azkueren lana gramatika linguistikoen tipokoetan kokatzen du Krutwigek. Tipo honetako gramatiketik hizkuntzaren forma bizidunak tratatzen dituzte batez ere. Azkuerena mota honetako lan onen taldean sartuko du. Ithurri, Sarrera III.

- *-dura (tura, kura)*: “efectos” taldekoa. Ad: *abiadura* (c.) impulso, *oitura* (AN, B, G) costumbre, *lokura* (AN, G) atadura.
- *-etal-keta*: abstraktuak. Ad: *asmetan* (B), *bialketan* (*bialduten, bidaltzen*); mul-tzoa, kantitatea adierazten dutenen taldekoa. Ad: *ardiketa* muchedumbre de ovejas, *lurketa* montón de tierra; bilakaera bidez atzizki izatera iritsi direnen taldekoa; toponimikoetan; ekintza, jarduera adierazten dutenen taldekoa. Ad: *lapurreta* (B, G) robo.
- *-eral-kera*: denbora adierazten dutenen taldekoa. Ad: *ibilera* (c) paseo, *ilun-kera* (B-otx.) anohecer (momento); “efectos” taldekoa. Ad: *luzera* largura; *lankera* (B) estilo, forma de trabajo, *salakera* (G) denuncia; bilakaera bidez atzizki izatera heldu direnen taldekoa; ekintza adierazten dutenen taldekoa. Ad: *yaera* (B) acto de comer, *yakera* manera de comer.

Sailkapenaz gain, Azkue arduratzen duten beste gai batzuk atzizkien jatorria eta bilakaera dira. Euskarak erabiltzen dituen atzizkien bertako izaera frogatzeko premia erakutsiko du. Onartuko du, hala ere, laurehun inguru aurrizki, artizki eta atzizkiren artean jatorri arrotzeko gutxi batzuk badaudela.

Badira euskaraz garai batean elementu aske izan eta bilakaera bidez afijo izatera iritsi direnak. Eratorpen hizkiak omen dira horrela sortutakoak. Hitz aske izatetik menpeko izatera dagoen tartean hitz-elkarketa legoke.

Izenak ez ezik, bestelako elementu batzuk ere bihurtu dira hizki:

Hay afijos evolutivos de origen nominal, de origen numeral, declinativo y adverbial. (1923-25: 89)

Guri dagokigunez *era* (acto, ocasión, oportunidad) hitzetik *-era, -kera* atzizkia sortuko litzateke, oinarrian aditza duela eratorri ugari eman dituen. Epentesirik gabe: *egieran* al hacer, *etorreratik* desde la venida e.a. *K* epentesitikoaz, berriz: *edakera* acto de beber, *yoakera* ida, acto de ir, e.a.<sup>16</sup>. Herriak bi forma hauek semantikoki bereizteko joera duela esaten du. Honela: *ibilera* andanza eta *ibilkera* porte; *egoera* estancia eta *egokera* postura, eta beste.

Ekintza adierazten duten izenez gain, atzizki izatera heldu den *era* hitzak “anverso” esanahia duela, honelakoak eman ditu: *egutera, ekerera* oriente, cara al sol, *eskuera* jurisdicción, alcance de la mano, *aukera* elección, alcance de la boca (90. or.).

Modu honetan sortutako beste atzizki bat *-eta* da, baina Azkuek ez du azaltzen bilakaera prozesua nola burutu den. Hala ere, kapitulu diferentetan barreiatuta ematen dituen azalpenengatik deklinabidetik heldu dela suposatuko dugu. Izan ere, badakigu, atzizki honek ekintza adierazteaz gain aniztasuna adierazten duela toponimian. Eta aipatua du lehenago (30. or.) deklinabideko *-eta*- artizkia, *eskuetan, eskuetara* hitzetan azaltzen den hori bera dela *Arrieta* pedregal, *Ilarrieta* cementerio, *Arizketa* robledal, bezalakoetan dagoena.

Bestalde, kontrako bidea egin dutenak ere badira, hau da, atzizki izatetik tema morfologiko izatera heldu direnak. Mendiburu<sup>17</sup> izan omen zen *-tasun* atzizkia, esa-

<sup>16</sup> 14. orrialdeko adibide horiez gain, beste hauek ditugu 89. orrialdean: *ibilera* acto de andar, *igoera* ascensión, *ikusera* acto de ver, *sorrera* nacimiento, e.a.

<sup>17</sup> *Gauza bakar bat dira bi tasun oriek; eta tasun bat dagoen tokian dago, nai-ta-ez, Jesusen beraren Jaungoikotasuna ere.* (Mend. *Owitzgayak* III 156-4); (1923-25: 17).



terako, izen bihurtu zuena. -*Kuntza* atzizkia ere izen izateraino bilakaera bidez iritsi ote den galdegiten du Azkuek, hainbat tokitan entzun daitekeen “*kuntza txarreko gizona da ori* es de mala traza ese hombre”, adibidearen (68. or.) arabera.

Azkenik, lehentxeago aipatu bezalaxe jatorri arrotzekoak leudeke, Azkuek “Sufijos alienígenas” (21. or.) izenburupean jaso zituenak. Oso gutxi laurehun inguru aurrizki, artizki eta atzizkiren artean hamabost baino ez ditu aipatzen eta. Are gehiago, horietako bi, -*ari*: *pelotari, salatari...* eta -*tasun*: *edertasun, anditasun...* askoren ustearen kontra, bertakoak direla defendatuko duela esaten du.

Talde honetakoa dugu aztergai dugun -*dura* atzizkia. Esaterako: *bedadura* extensión, *oitura* costumbre, *aztura* experiencia, *baitura* prenda, prendamiento, *txikitura...* e.a. Jatorriaz ondokoa dio Azkuek:

Su origen estará en el femenino del futuro activo, *scriptura, lectura...* etc. (1923-25: 23)

Hemen kokatu beharko genituzke, Azkuek zuzenean egiten ez badu ere, -*men* atzizkia eta baita -*mendu/-mentu* ere. Azken honi buruz, agian latineko -*mentum* atzizkiaren seme dela dio:

Parientes de -*men* y tal vez hijos del latino -*mentum* son nuestros derivados -*mendi* y especialmente -*mendu* y -*mentu*. (1923-25: 69)

-*Men* atzizkia aditz izenak eratzen dituen atzizki garrantzitsua da. Bi adiera izan ditzake: a. Ekintza, b. Ahalmena. Bigarren adiera duela ez omen da hain erabilia, hitz gutxi batzutan aurkituko dugu: *entzumen* oído, sentido auditivo; *irudimen* imaginación, e.a. Ekintza adierazten dutenak, besteak beste: *erakusmen* 1. (B, L) manifestación, 2. (B) muestra, modelo; *galmen* (BN, G, L) pérdida; *goramen* (AN, B, G) elevación; *irudimen* 1. (G) recelo, 2. (G) ilusión; *salmen* (B) venta; *sendamén* (G) curación; *sinismén* (B, G) creencia (68-69. or.). Sail honetan -*pen* atzizkia aipatu ere ez du egiten, ez du adibide bakar bat ere ematen, nahiz eta aurreko guztiek baduten Azkuek eman ez zuen, edo eman nahi izan ez zuen -*pen* atzizkidun aldaera: *galpen, gorapen, irudipen...* Gipuzkerari eta bizkaierari dagozkion neurrian egokiak dira -*men* bidez ematen dituenak. Lapurterazko *galmen* eta *erakusmen*, berriz, ezinezkoak direnik ez dugu esango, bai ordea ezohikoak, euskalki honetan -*pen* nahiz -*tzapen* baitugu maiztasun handiagoz.

Urte batzuk lehenago argitaratutako *Diccionario vasco-español-francés* hiztegian ere -*men* atzizkiari bi adiera horiek ematen zizkion, baina orduko hartan atzizkiak hiru aldaera onartzen zituela zioen. Aldaerak -*mendi*, -*mendu* eta -*pen* dira. Ez omen dago lau formen arteko funtsezko ezberdintasunik.<sup>18</sup> Argi dago beraz, Azkue-ren ustez -*men/-pen* atzizki beraren aldaerak baino ez direla eta ez dagoela haien arteko ezberdintasun semantikorik. Adibide gisa:

*Kriston sinizmena daukan gizona.* A Cat 5.

*Gizon txaldar, narrats, lotsagaberik, sinespena galdu duen gizonik.* A Ardi 28.<sup>19</sup>

<sup>18</sup> Gainera, -*pen* atzizkiak, aldaera besterik ez den arren, badu bere tokia hiztegian. Aditz izenak sortzen dituen eratorpen atzizki honek ekintza adierazten du. Ad: EROSPEN (c), compra. OROIPEN (AN, G), recuerdo. SALPEN, venta (Duv.). (1905-06: 28-29; 162).

<sup>19</sup> Lehen adibidea 1896.eko Dotrina argitaragabea, bigarrena 1918.ean argitaratutako *Ardi Galdua* lanean. *OEH*, XIV, 738. or.

Harrigarria iruditzen zitzaigun, hala ere, hainbeste datu eta zehatzapen ematen dituen *MV* lan ikaragarri honetan, gure hizkuntzan hain erabilia den atzizkia albo batera utzi izana. Baina, Severo Altuberi esker, adjektiboak sortzen dituzten atzizkien artean ezkutatuta aurkitu genuen. Bertan, bost lerro eskaintzen dizkio atzizki honi. Zegokion lekuan eta gainerako atzizkiak bezala zergatik ez zuen garatu ez dakigu.

Aipamen txiki horretan irakur daiteke *-pen* atzizkia hainbat aditzi lotuta hone-lako adibideak ematen dituela: *erospen* compra, *irakaspen* enseñanza, *iraupen* duración... e.a. Atzizkia zuzenean lotzen zaio aditzari kasu hauetan. *-Tu* amaiera duten aditzekin, berriz, *-tza-* elementuaren bidez eransten zaie: *edertzapen* embellecimiento, *galtzapen* pérdida, *othoitzapen* (?) recuerdo (?), goi-nafarreraz, behe-nafarreraz eta lapurteraz (159. or.). Dezente beranduago, *-men/-pen* atzizkiei buruzko artikulua batean *-tzapen* aldaeraz ari dela, *-tul/-du* amaiera duten aditzei lotzeaz gain, *i* ez den bokalez amaitzen direnei ere eransten zaiela esango digu de Rijkek. Salbuespen bakarra *hastapen* izango litzateke, partizipioa “hasi” *i* bokalez amaitu arren, *haspen* forma baino erabiliagoa dena (1991: 316).

Honen harira, Altubek *Morfologiari* egiten dizkion oharretan eta eratorpena arautzearen, nolabait, partizipioaren amaierari baino nominalizazio atzizkiei erreparatuko die. Horren arabera, aditz-izena *-te* bidez egiten duten aditzek, *-taile*, *-tapen*... aldaerak baliatzen dituztelako partizipioa ematen du. Esaterako:

|                |                   |                   |
|----------------|-------------------|-------------------|
| <i>As-te</i>   | .....             | <i>as-tapen</i>   |
| <i>Ikus-te</i> | <i>ikus-taile</i> | <i>ikus-tapen</i> |

*-Tze* bidez egiten dutenek, berriz, nahiago dituzte *-tzaile*, *-tzapen*... aldaerak:

|                 |                    |                    |
|-----------------|--------------------|--------------------|
| <i>eder-tze</i> | <i>eder-tzaile</i> | <i>eder-tzapen</i> |
| <i>ixil-tze</i> | <i>ixil-tzaile</i> | <i>ixil-tzapen</i> |

Zenbait euskalkitan *-ta* zein *-tza* artizkien elisioa gertatzea ez da arau honentzako oztopo (1934: 29). Eredu berriagoek ordezkatu dituzte artizkidun formak euskalki horietan: *asi-pen*, *oroi-pen*; *eros-le* eta beste. Hala ere, *-tzapen* da, Altuberen esanetan, artizkiaren galerari oztopo gehien jartzen dion atzizkietako bat, beraz, bi eratako formak aurkituko ditugu:

|                                   |                          |
|-----------------------------------|--------------------------|
| <i>sartzapen</i> (Duv.)           | <i>sarpen</i> (L?)       |
| ( <i>orhoi-tzapen</i> (BN, L, S)) | <i>oroipen</i> (37. or.) |

Altubek ez du azaltzen zergatik ematen ote den artizkiaren galera. Mitxelenak txistukarien gaineko kapituluaren Leizarragaren adibiderako ematen duen azalpena baliagarria izan daiteke goiko kasuren baterako. Mitxelenak dio hitz barnean txistukariaren galera ematen dela batzutan disimilazioa dela eta, hori izan omen daiteke *iziapen* “espanto” (Leiz.) hitzaren kasuan *-tzapen* atzizkiarekin gertatu dena (1961: 293). De Rijkek galeraz baino “derrigortasunaz” hitz egiten du gorago aipatu artikuluan. Hein batean *-pen/-tzapen* alternantziak *-le/-tzaile* egoera gogorarazten badigu ere, partizipioaren formak baldintzatzen baitu bata ala bestea izatea, badago diferentzia. Azken honetan partizipioak erabat baldintzatzen du *-le* ala *-tzaile* izatea, eta *-tzaile* eskatzen den tokietan forma hori derrigorrezkoa da. *-Tzapen* atzizkiaren erabileraz, berriz:

Il n'est pas de même pour *-tzapen*, dont l'usage n'est jamais obligatoire, sinon pour des motifs purement stylistiques. (...) pour des raisons historiques, certaines bases verbales qui font leur participe passé en *-tu* ont l'option d'intercaler entre elles et le suffixe *-PEN* un formant *-tzat-* (...). (1991: 317)

#### 4. Mitxelenaren *Fonética histórica vasca* (1961)

Mitxelenak *FHV* lanean ez zituen atzizkiak aztertu bereziki, baina tarteka erabili zituen, atzizkiak beraiek edo hitz atzizkidunak, hainbat gertaera fonetikoren lekuko gisa. Han-hemen emandako azalpenek hainbat atzizki hobeto ezagutzeko aukera eskainiko digute.

*-Men* atzizkia *-pen* atzizkiaren sinonimoa da.<sup>20</sup> Bi atzizkien arteko alternantziak, *-t + -m > p* gertatu den kasuetan izan lezake jatorria Mitxelenaren ustez, eta adibide moduan ondokoa ematen du:

*oroipen* (AN, G “recuerdo”) < \**oroit-men*, cf. S *orhitmen* (Onsa, 158). (Ib., 346. or.)

De Rijkek, bi atzizki hauek gaitzat hartuta idatzita duen artikulu luzean, Mitxelenaren ideia jasotzen du bere azalpena osatzeko. De Rijken azterketaren arabera *-men* atzizkia *-pen* izan daiteke fonologikoki. Aldaketa fonetiko honen kausa asimilazioa nahiz disimilazioa lirateke.

Asimilazioaren lekuko izango genuke Mitxelenaren adibide hori bera, zeinetan oinarriak duen leherkaria atzizkiaren *m*-rekin ukipenean *p* eman duen. Adibidea onartu arren, de Rijkek zehaztapen bat egingo dio *oroipen* hitzak bi adiera izan ditza keelako, “souvenir, recuerdo” batetik, “mémoire” bestetik. Gipuzkeraz lehen adiera du, hortaz morfologikoki *-pen* atzizkia dagokio. Goi-nafarreraz, berriz, “memoria” adieraz dezake, *-men* atzizkia dagokio, beraz. Morfologikoki *-men* dugun neurrian da baliagarria Mitxelenaren analisia, izan ere, *-men* atzizkia *oroitu* aditzaren erroari lotuko litzaioke, *oroit* goi-nafarreraz parte handi batean, *oroit + -men > oroipen* emango lukeelarik. Gipuzkeraz, berriz, *oroimen* erabiltzen da “memoria” adierazteko, *oroitu + -men* banaketa modernoago baten emaitza dena (1991: 310).

*-Men* atzizkiaren jatorria dela eta, Mitxelenak zalantzan jartzen du Schuchardten planteamendua, zeinaren arabera gure atzizkiaren jatorrian ez legoke latineko *-men*, okzitanierazko *-men(t)* baizik (1961: 271).

*FHV*-n aipatzen den beste atzizki bat *-mendu* da. Oraingo honetan Schuchardtekin bat dator latineko *-mentum* duela jatorrian esaten duenean. Egia esan, kontsultatu ditugun autore guztiak, nabardurak gora behera, bat datoz puntu honetan. Azkuek ez du erabat ziurtatzen hala denik, Luis M.<sup>a</sup> Mujikarentzat, berriz, agerikoa du latindar izaera. Gainera, Azkue bera latindar jatorriaren alde egin izana darabil argudioa indartzeko (1978: 196). Eta bukatzeko, de Rijkek erromaniko jatorriko<sup>21</sup> atzizkitzat jotzen du *-mendul-mentu*.

<sup>20</sup> Dio Mitxelenak (271. or.) parentesi artean, Azkuek *-men* atzizkiaz esandakoa jasotzen duen aipu batean. Parentesi artekoa berdin izan liteke Azkuerena berarena.

<sup>21</sup> “(...) à l'existence préalable du suffixe d'origine romane *-mendu /-mentu* de sens voisin”; (1991: 319).

Jatorriarena argituta, euskarak atzizkia mailegatu zuenean hartu zuen formaz ari-tuko gara segidan. Mitxelenak dio mailegu zaharretan latineko leherkari ahoska-been ordeztu leherkari ahostunak aurkituko ditugula euskaraz sudurkari eta *l* ondoren, zubereraz eta erronkarieraz izan ezik, euskalki hauetan ahoskabeak gorde baitira. Horrela, besteak beste, *-mendu* < lat. *-mentum*, *-mentu* erronk., *-mentü* zub.<sup>22</sup> Mailegu berriagoetan, berriz, leherkari ahoskabeak ez dira ahostun bihurtu, jatorriko kontsonante taldea, sudurkaria/ *l* + leherkari ahoskabea, mantendu egin da. Areago, eredu erromanikoekin antza duten formek ordezkatu dituzte zenbaite-tan antzinako formak. Hau dela eta, *-mentu* izango dugu mendebaldean, ekialdeko *-mendu* formaren ordeztu (1961: 230, 352-353, 360).

Mujikaren ustez, *-mentu* litzateke mailegu formarik zaharrena. Beranduago, euskaraz gertatzen diren konstante fonetikoaren kausaz, *n* sudurkariaren ondorengo *t* leherkari ahoskabea ozendu egin zen, *-mendu* izanik ondorioz, erronkarieraz eta zubereraz izan ezik. Euskalki hauetan aldaketa fonetikorik eman ezenez *-mentu* izaten jarraitu zuen (1978: 197).

Atzizki hasierako posizioan *k* eta *t* kontsonante leherkariak dituzten formak eta kontsonanterik gabekoak aurki ditzakegu. Alternantzia hau ezaguna da atzizki askotan: *-(t)ar*, *-(t)asun...k* dutenak ugariagoak: *-(k)ara*, *-(k)ide*, *-(k)izun*, *-(k)or...* Baita *-(k)eria*, *-(k)era* eta *-(k)eta* atzizkien kasuan ere. Baina hauetan leherkariaren jatorria beste bat da Mitxelenaren ustez:

(...) *-(k)eria* por las apariencias procede del rom. *-eria* (cast. *tontería*, *bellaquería*, etc.) y cuya oclusiva inicial se deberá a división equivocada de modelos romances. (1961: 247)

Badirudi mendebaldeko *-(k)era* eta euskalki guztietakoa den *-(k)eta* atzizkiekin beste horrenbeste gertatzen dela. Lehena, goian aipatutako *-(k)eria* bezalaxe, mailegua omen da, Azkueren bertako jatorriaren ideiarekin kontra.

Mujikaren iritziz, latineko *-arius* atzizkiaren forma arrunta da *-era*. Euskaraz ekintza edo gertakaria, dimentsioa, denbora (momentua, unea) eta modua adieraz ditzake. Azken semantika edo adiera duela erabiltzen den *-era* atzizkiaren jatorrian, *era* “modo, semejanza” hitza egon daitekeela aipatzen du. Era berean, euskarazko hitza bera mailegu erromanikoa ez ote den galdegiten du. Nolanahi ere, atzizki honen bidez eraturako hitz askotan esanahi diferentek nahasteak, atzizkiak dituen semantika guztien jatorrian latin-erromantzeko afijo bera dagoela adierazten du (1978: 90, 95, 97).

Bigarrena, *-(k)eta*, euskalki guztietakoa esan bezalaxe, toponimian ere oso erabilia da eta garrantzitsua bizkaitar aditz-jokoan. Schuchardtez gero, latineko *-eta* (*-etum* kolektiboaren plurala) forman duela jatorria uste da, “aunque quedan graves dificultades” zehazten du Mitxelenak (248. or.).

<sup>22</sup> Erronkarierak eta zubererak antzinako egoera mantenduko lukete baldin eta, sudurkari nahiz *l* ondorengo leherkari ahoskabearen ozentzea latineko lehen maileguen ondorengoa balitz. Alderantziz, euskalki berritzaileak lirakeke, posizio horretan leherkariak ahostun ahoskatuko balira eta maileguak ere egoera horretara moldatu izan balira. Zub. eta erronk. lirakeke aldatzen lehenak. (1961: 355)

Azkueren esanean deklinabideko *-eta* toponimiako hainbat hitzetan ere badela, aipatu dugu bere garaian (2.3). Ideia bera dugu Mitxelenarengan (238. or., 28. oharra), toponimiak eta pluraleko zenbait kasuk atzizki komuna dutela, *-eta* alegia, dioenean. Gainera, batean zein bestean jokaera bera du atzizkiak, erroari lotzen zaionean, oinarrian ez baita aldaketarik ematen. Beste horrenbeste gertatzen da *-aga* atzizkiarekin.

(...) *-aga* y *-eta*,... se diferencian de los demás debido a que el tema nominal a que van unidos no sufre los cambios regulares (...) a que están sujetos en composición y derivación. Se conducen, en otras palabras, como sufijos de flexión: *Harriaga* como *harriak*, *Harrieta* como *harrietan*, etc. (529. or.)

Mujika bat dator Schuchardtekin toponimiako *-eta* atzizkiaren jatorria dela eta. Euskaraz atzizki hau landare eta zuhaitz izenei lotzen zaie batez ere, eta ugaritasuna, pluraltasuna adierazten du. Ad: elordiet*a*, ariztiet*a*, e.a. Euskal hizkuntzan ordea, toponimiaz haratago doa eta bestelako adierak dituela aurkituko dugu, ugaritasuna esate baterako: egurket*a* AN, montón de leña; larruket*a* BN, L cantidad de pieles; sabelet*a* S, exceso de comida, e.a. Baita ekintza ere: salaket*a* G, denuncia; berriket*a* AN, G, L habladuría, broma, e.a. Zenbait adibidetan *k* epentetikoz ikusten denez.

Deklinabidean ere badugu, inesiboan. Zaharra goa ziurrenik ere:

En efecto, la sufijación *declinativa* supone, en general, en euskara un estadio *anterior* y más *primitivo* que la *abstractiva* (...). Pensamos que en un idioma las ideas de *localidad*, *procedencia* o *dirección* son más elementales y primitivas que las de *cualidad* o *negatividad*, de estructura más abstractiva y desarrollada, y por tanto posterior. Es posible, por ello, que el euskara contara ya con un *-ETA* en su declinación, aunque luego influyera específicamente en la *botánica* por efecto de la incidencia del latín y de sus romances. (1978: 101)

Latineko *-etum* atzizkiak euskaraz gazteleraz baino eragin handiagoa izan du. Zer esanik ez gainerako erromantzeekin (italiera, frantsesa, e.a) alderatzen badugu, hauetan eskasa baita atzizkiaren eragina. Mujikaren iritziz badirudi gure hizkuntzan alde zuzenetik zegoen deklinabideko atzizkiak indartu egingo lukeela latineko pluraren eragina toponimian eta “ugaritasuna” adieran, oro har.

Honenbestez, *FHV*-n barrena egin dugun bidaia amaituta, Mujikaren lanean zentratuko gara. Hainbat atzizkiren jatorriaz esaten dituenak ezagunak ditugu jada, Azkuek eta Mitxelenak ematen dituzten azalpenekin alderatu baititugu.

|----------|----|----|----|----|----|----|----|---|----|----|----|----|----|----|----|----|----|----|----|----|----|
| Sil Kop  | 1  | 2  | 3  | 4  | 5  | 6  | 7  | 8 | 9  | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 | 21 |
| Meñaka   | 4  | 13 | 8  | 15 | 7  | 12 | 9  | 7 | 12 | 3  | 2  | 1  | 4  | 1  | 0  | 1  | 0  | 0  | 0  | 1  |    |
| Ondarroa | 6  | 9  | 14 | 22 | 9  | 12 | 6  | 4 | 4  | 5  | 5  | 1  | 1  | 1  | 1  |    |    |    |    |    |    |
| Orozko   | 9  | 11 | 12 | 11 | 5  | 8  | 7  | 6 | 8  | 4  | 6  | 5  | 3  | 0  | 1  | 2  |    |    |    |    | 2  |
| Otxandio | 16 | 12 | 9  | 5  | 9  | 11 | 6  | 4 | 7  | 4  | 3  | 5  | 2  | 4  | 1  | 1  | 1  |    |    |    |    |
| Zaldibar | 5  | 7  | 9  | 6  | 16 | 12 | 10 | 6 | 7  | 5  | 4  | 5  | 6  | 0  | 1  | 0  | 0  | 1  |    |    |    |
| Zamudio  | 4  | 14 | 10 | 16 | 11 | 5  | 8  | 8 | 5  | 7  | 2  | 2  | 1  | 1  | 1  | 1  | 2  | 1  | 1  |    |    |
| Zornotza | 13 | 16 | 17 | 11 | 9  | 5  | 13 | 7 | 4  | 2  | 3  |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |

Herri guztien arteko batezbestekoak egin ondoren, honako emaitzak dauzkagu silaba kopuruen arabera:

### 8. Taula

Silaba kopuruen batezbestekoak orotara

| Silaba kopurua | Orotara | %     |
|----------------|---------|-------|
| 1              | 181     | 9,05  |
| 2              | 239     | 11,95 |
| 3              | 209     | 10,45 |
| 4              | 234     | 11,7  |
| 5              | 211     | 10,55 |
| 6              | 206     | 10,3  |
| 7              | 177     | 8,85  |
| 8              | 127     | 6,35  |
| 9              | 127     | 6,35  |
| 10             | 94      | 4,7   |
| 11             | 67      | 3,35  |
| 12             | 45      | 2,25  |
| 13             | 34      | 1,7   |
| 14             | 13      | 0,65  |
| 15             | 9       | 0,45  |
| 16             | 11      | 0,55  |
| 17             | 6       | 0,3   |
| 18             | 3       | 0,15  |
| 19             | 2       | 0,1   |
| 20             | 2       | 0,1   |
| 21             | 3       | 0,15  |



### 12. Irudia

Silaba kopuruen batezbestekoak orotara


8. taulan ikusten den moduan, talde prosodikoen kopururik handienak silaba bat eta hamar bitartean kokatzen dira. Ondoko taulan talde horien portzentaiak ikus daitezke herrika:

### 9. Taula

Silaba bat eta hamar bitarteko talde prosodikoen portzentaiak herrika

| Herria     | Ehunekoa |
|------------|----------|
| Abadiño    | 97       |
| Amaroto    | 95       |
| Axangiz    | 92       |
| Berango    | 93       |
| Bermeo     | 93       |
| Buja       | 92       |
| Dima       | 93       |
| Elantxobe  | 97       |
| Errigoitia | 89       |
| Jatabe     | 84       |
| Leioa      | 88       |
| Lekeitio   | 94       |
| Lemoa      | 85       |
| Meñaka     | 90       |
| Ondarroa   | 91       |
| Orozko     | 81       |
| Otxandio   | 83       |
| Zaldibar   | 83       |
| Zamudio    | 88       |
| Zornotza   | 97       |





### 13. Irudia

Silaba bat eta hamar bitarteko talde prosodikoen portzentaiak herrika

Badirudi Navarrori (1944, zita hau Sosatik hartua da, 1999) jarraikirik hizkuntza bakoitzak talde prosodiko batzuk gurago izaten dituela beste batzuk baino. Gaztelaniarako 5 eta 10 silabako tartean kokatzen da (gehienak 7 eta 8koak izanik). Aztertu ditugun herrietan zelanbaiteko bariazioa agertzen den arren, talde gehienak 1 eta 7 silabakoen artean kokatzen dira; 2, 3, 4, 5 eta 6 silabakoek guztien %56 a izanik. Badirudi ezen, aldeari eragin diezaioketen faktoreetan testu mota ere badagola. Berori erkatu ahal izateko, Euskal Telebistatik jasoko Teleberri baten testuak aztertu ditugu. Kontuan hartu behar diren aldagaietan formaltasun maila, testu mota eta testua irakurria izatea ditugu.

Jaso ditugun talde prosodikoak 145 izan dira. Silaba kopuruaren arabera ondoko era honetara banatzen dira:

### 10. Taula

Silaba kopuru desberdinen arabera Euskal Telebistako testuetako talde prosodiko kopuruak (Kop.)


| Silabak | Kop. | Silabak | Kop. | Silabak | Kop. | Silabak | Kop. |
|---------|------|---------|------|---------|------|---------|------|
| 1       | 3    | 8       | 11   | 15      | 5    | 23      | 2    |
| 2       | 14   | 9       | 4    | 16      | 2    | 24      | 1    |
| 3       | 10   | 10      | 13   | 17      | 2    | 30      | 2    |
| 4       | 12   | 11      | 6    | 18      | 3    | 31      | 1    |
| 5       | 10   | 12      | 4    | 19      | 2    | 32      | 1    |
| 6       | 11   | 13      | 3    | 20      | 4    | 35      | 1    |
| 7       | 9    | 14      | 7    | 21      | 1    | 36      | 1    |

Taulan ikusten den moduan, silaba 1 eta 7 bitartean 69 talde prosodiko daukagu (% 47,59) eta hortik gorakoak 76 dira (% 52,41). Oro har, era honetako testuetako talde prosodikoak hainbat luzeagoak dira herrietan jaso ditugunen aldean.

Talde prosodikoen luzeraren eragileen artean, testua bat-batekoa izatea edo ez, testu mota bera eta esaldi motak dauzkagu besteak beste. Eragile bakoitzaren eragina neurtzea eta kuantifikatzea ikerkizun geratzen da oraingoz.


#### 4. Etenak eta muga tonuak

Etenekin batera zer nolako tonuak agertzen diren aztertzea da azpi-atal honen helburua. Horretarako etenaldietan gertatzen diren tonuak etiketatu dira. Tonu horiek bost motatakoak dira; beheranzko tonua (B), goranzkoa (G), aurreko tonuari eusten diona edo, gurago bada, luzatu egiten duena (E); azken tonu honek hiru norabide eduki ditzake, izan ere, aurreko tonuaren norabideari eusten badio ere, batzuetan laua izaten da. Azkenik, tonu bikoitzak ere agertzen izan dira; bate-tik beheranzko-goranzkoa (BG) eta, bestetik, goranzko-beheranzkoa (GB). Ondoko grafikoetan bakoitzeko adibide bat ikus daiteke:



#### 14. Irudia


Beheranzko tonua (B)  
 /estotzu esan /e/ gure marikarmenek /e/ txinda/a/  
 (ez dizu esan, gure Mari Karmenek, Txinda)



15. Irudia


Goranzko tonua (G)

/imini an/  
 (ipini ban)




16. Irudia: Tonu ertaina (E)

/aak/  
 (hark)



## 17. Irudia


Beheranzko-goranzko tonua (BG)  
/poste baten/



## 18. Irudia


Beheranzko-goranzko tonua (GB)  
/seras txikidaxas/  
(zerarekin txikiarekin)

Desberdintasunaren horien adibidetzat, ondoko grafikoetan sintagma bera ager-  
tzen zaigu amaieran; lehenengoan E tonuarekin eta bigarrean, ostera, B tonuarekin:



19. Irudia

Leioako "amarrata%" (E)




20. Irudia

Leioako "amarrata%" (B)

Muga tonu kopuruen batezbestekoak ondoko era honetara banatuta agertzen zaizkigu herri guztietan:

**11. Taula**  
Muga tonuen portzentaiak

|    | Kopurua | %   |
|----|---------|-----|
| B  | 965     | 48  |
| G  | 274     | 14  |
| E  | 538     | 27  |
| BG | 85      | 4,3 |
| GB | 138     | 6,9 |



**21. Irudia**  
Muga tonuen portzentaiak

Herrietan zehar tonu mota bakoitzaren kopurua zein den ondoko taulan ikus daiteke:

**12. Taula**  
Muga tonuen portzentaiak herrika

|         | B  | G  | E  | BG | GB |
|---------|----|----|----|----|----|
| Abadiño | 48 | 20 | 26 | 4  | 2  |
| Amaroto | 39 | 16 | 32 | 9  | 4  |


|            | B  | G  | E  | BG | GB |
|------------|----|----|----|----|----|
| Axangiz    | 51 | 6  | 28 | 7  | 8  |
| Berango    | 53 | 8  | 35 | 1  | 3  |
| Bermeo     | 61 | 9  | 22 | 8  | 0  |
| Buja       | 40 | 17 | 24 | 6  | 13 |
| Dima       | 44 | 17 | 28 | 4  | 7  |
| Elantxobe  | 51 | 6  | 31 | 3  | 9  |
| Errigoitia | 48 | 14 | 25 | 7  | 6  |
| Jatabe     | 51 | 14 | 31 | 4  | 0  |
| Leioa      | 50 | 8  | 30 | 2  | 10 |
| Lekeitio   | 62 | 13 | 19 | 4  | 2  |
| Lemoa      | 55 | 26 | 16 | 3  | 0  |
| Meñaka     | 53 | 8  | 35 | 1  | 3  |
| Ondarroa   | 51 | 19 | 22 | 5  | 3  |
| Orozko     | 36 | 20 | 19 | 2  | 23 |
| Otxandio   | 45 | 17 | 23 | 3  | 12 |
| Zaldibar   | 52 | 12 | 24 | 4  | 8  |
| Zamudio    | 48 | 10 | 31 | 6  | 5  |
| Zornotza   | 27 | 14 | 37 | 2  | 20 |

Eten mota bakoitza eta agertzen diren muga tonuekin egin daitezkeen konbinazioak honako hauek dira:

### 13. Taula

Muga tonuak eta eten motak

|     | B     | G    | E     | BG   | GB   |
|-----|-------|------|-------|------|------|
| %   | 33,4  | 8,5  | 3,6   | 1,65 | 3,15 |
| v%  | 0,9   | 1,4  | 11    | 1,6  | 0,8  |
| \$  | 13,21 | 3,4  | 2,2   | 0,55 | 2,25 |
| v\$ | 0,85  | 0,45 | 10,15 | 0,35 | 0,7  |



## 22. Irdia

Muga tonuak eta eten motak

Tonu mota bakoitzaren hedadura, portzentaiei dagokionez, ondoko taulan agerzten dena da:


## 14. Taula

Muga tonuen portzentaiaak eten moten arabera

|     | B     | G     | E     | BG    | GB    |
|-----|-------|-------|-------|-------|-------|
| %   | 69,22 | 61,82 | 13,36 | 39,76 | 45,65 |
| v%  | 1,87  | 10,18 | 40,82 | 38,56 | 11,59 |
| \$  | 27,15 | 24,73 | 8,16  | 13,25 | 32,61 |
| v\$ | 1,76  | 3,27  | 37,66 | 8,43  | 10,15 |

Taulako datuen arabera, Beheranzko (%96,37), Goranzko (%86,55) eta Goranzko-beheranzko (%78,26) tonu gehienak bokala luzatzen ez den kasuetan gertatzen dira. Tonu ertain gehienak bokal luzea daukaten etenetan gertatzen dira (%78,48). Azkenik, Beheranzko-goranzko tonu gehienak isilune aurrean (%78,32) gertatzen dira, bokal luzea edukita zein eduki ezta.





### 23. Irudia

Muga tonuen portzentaia eten moten arabera

## 5. Ondorioak eta hurrengo lanak

Behar honetan zehar irudikatu ditugun ondorio batzuk laburbilduko ditugu atal honetan. Batetik argi ikusten da eten guztiak ez direna berdinak eta sailka daitezkeena. Hemen eman ditugun erizpide biren arabera (hau da isilune egitea edo ez eta bokala txertatu edo luzatzea edo ez), lau eten mota bereiz ditzakegu:

- a) + isilunea, -bokal txertaketa
- b) + isilunea, +bokal txertaketa
- c) – isilunea, +bokal txertaketa
- d) – isilunea -bokal txertaketa

Beste alde batetik, eten mota eta muga-tonu moten artean badago erlazio estua. Etenekin batera agertzen diren bost tonuak edozein etenetan agertzen diren arren, aukera batzuk arruntagoak dira beste batzuk baino. Berbeta naturalean talde prosodikoak nahikoa laburrak direla ere esan dezakegu, alor honetan testu mota eta luzeraren arteko erlazioa ikertu beharreko puntu bat izango litzateke.

Azkenik, hemen egin dugun beharra hurbilpentzat baino ezin hartu badaiteke ere, uste dugu intonazioaren gaineko beharretan etenen arazo hau ezin bazter daitekeela. Horregatik hemen irudikatu diren joerak datu masa handi baten azterketaren bidez bermatu edo aldatu egin beharko litzatekeelakoa daukagu.

## Aipamenak

- Botinis, A., Kouroupetoglou, G. eta Carayiannis, G. (arg.), 1997, *Intonation: Theory, Models and Applications*. Proceedings of an ESCA Workshop, Athens, Grezia.
- Elordieta, G., 1997, "Accent, tone and intonation in Lekeitio Basque". In *Issues in the Phonology and Morphology of the Major Iberian Languages*, F. Martínez-Gil and A. Morales-Front (arg.), 3-78. Washington, D. C.: Georgetown University Press.

- , 1999, “Primer estudio comparativo de la entonación de tres variedades dialectales vascas” agertzeko in I *Congreso de Fonética Experimental*-eko agirietan, Bartzelonako Unibertsitateko argitalpen zerbitzua.
- , Gaminde, I.; Hernáez, I., Salaberria, J. eta Martín de Vidales, I., 1999, “Another Step in the Modeling of Basque Intonation: Bermeo”. In *Text, Speech and Dialogue*, Matoušek, V.; Mautner, P.; Ocelíková eta Sojka, P. (arg.), Plzen, Errepublik Txekiarra.
- Gaminde, I., 1997, *Gatikako Euskaraz*. Gatika, Gogoz.
- , 2000a, “Azentu eta Intonazioa: egoera eta ikerketa baliabideak”, in K. Zuazo (arg.), *Dialektologia Gaiak*. Arabako Foru Aldundia.
- , 2000b, “Mendebaldeko Doinu-azentudun Sistemen Intonazioaz”, in Tx. Ormaetxea (arg.), *Txillardegi Lagun Giroan*. Udako Euskal Unibertsitatea. Bilbo.
- , 2003, “Intonazio ereduak Zeanurin”, *FLV-93*.
- , Hernáez, I., Etxebarria, P. eta Gandarias, R., 1996, “Euskal Fonologiaren didaktikarantz: intonazioaren azterketa”, *Psicodidáctica-1*, 121-137.
- & B. Etxebarria, 1997, “An Analysis of the Intonation for a Pitch Accent Variety of the Basque Language”, in Botinis, Kouroupetroglou, eta Carayiannis (arg.), 137-140.
- Gandarias, R., 1996, *Ispasterko Intonazioaren Deskribapena: Azterketa Fonetikoa*, Doktorego Tesia, EHU.
- Hernáez, I., Gaminde, I., Etxebarria, B., eta Etxebarria, P., 1997, “Intonation Modelling for the Southern Dialects of the Basque Language”, in *ESCA: Eurospeech97*. Rhodes, Grezia. 807-810.
- Hualde, J. I., 1999, “From phrase-final to post-initial accent in western Basque” (esku-izkribua).
- , Elordieta, G. eta Elordieta, A., 1994, *The Basque Dialect of Lekeitio*. Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco y Diputación Foral de Gipuzkoa, Bilbo eta Donostia.
- Jun, S. A. eta Elordieta, G., 1997, “Intonational structure of Lekeitio Basque”, in Botinis, Kouroupetroglou, eta Carayiannis (arg.), 193-196.
- Navas, E., 2003, *Modelado Prosódico del Euskera Batúa para Conversión de Texto a Habla*. Doktorego tesia (argitaragabea) UPV/EHU, Elektronika eta Telekomuniazioa Saila.
- Sosa, J. M., 1999, *La Entonación del Español: Su estructura fónica, variabilidad y dialectología*, Cátedra, Madril.
- Uriarte, J. A., 1995, *Fruizko Hizkera: Azterketa Linguistikoa*. Doktorego tesia, Deustuko Unibertsitatean.

# “ADITZ BAKARRAREN” TEORIA XIX. MENDEKO EUSKAL GRAMATIKAGINTZAN

Ricardo Gómez  
(JUMI, UPV/EHU)

## 1. Sarrera<sup>1</sup>

Lan honetan XIX. mendeko zenbait gramatkarik euskal aditzari buruzko azterketan nola edo hala “aditz bakarraren” teoria deitu izan dena nola adierazi eta erabili zuten azaldu nahi nuke. “Aditz bakarraren” teoria aurreneko aldiz Port-Royaleko *Grammaire générale et raisonnée* lanean (1660) azaldu zen. Port-Royaleko lanek hizkuntza guztiek batera dituzten ezaugarriak aztertu zituzten, *gramatika orokorra* deitu ohi den joerari bide egin ziotelarik. Artikulu hau hasteko, XIX. mendea arteko gramatikagintzak euskal aditza aztertze erabili zituen irizpide nagusiak laburtuko ditut, atari gisa (§2). Hurrenik, gramatika orokorraren eta, haren barruan, aditz bakarraren teoriaren azalpen laburra emango dut (§3). Ondoren, zenbait adibide eskainiko ditut, aditz bakarraren teoriak XIX.eko euskalaritzan izan zuen lekuaren agerpen aski zabala erakusteko asmoz: Humboldtten lehen urratsak (§4); Darrigolen formulazio oraindik anbigua (§5); Abbadie (§6), Chaho (§7) eta Inchauspere (§8) aldezte garbia; Bonaparteren aditz-teoria bihurrian izan zuen leku nabaria (§9), eta, azkenik, Azkueren (§10) eta Arana-Goiriren (§11) lekukotasun berantiarak. Ondorioek (§12) emango diote buru artikuluari.

## 2. Euskal aditzaren sailkapenak XIX. mendea arte

Jakina denez, euskarak adizki sintetikoak eta adizki analitikoak ditu (azken hauei “perifrastiko” izena ere eman ohi zaie).<sup>2</sup> Aditz-forma perifrastiko bat adizki jokatugabe batek eta laguntzaile batek osatzen dute; lehen osagaiak aspektu-marka bat har dezake eta bigarrenak, aldiz, pertsona eta numero komunztadura-hizkiak eta denbora eta modua adierazteko morfemak hartzen ditu. Joko perifrastikoak modu eta aspektu bereizketa gehiago aurkezten ditu, baita aditzarekin komunztatzen

---

<sup>1</sup> Artikulu hau *III Congreso Internacional de la Sociedad Española de Historiografía Lingüística* biltzairean (Vigo, 2001eko otsailak 7-10) aurkeztutako komunikazioaren (Gómez 2002) euskarazko bertsio oso zabaldua da. Halaber, 1/UPV/EHU 00106.130-HA-8117/2000, BFF2002-03132 eta MEC0S/94 ikerketa proiektuen babespean burutu ahal izan da.

<sup>2</sup> Deitura hau Oihenartek dakar lehen aldiz (1638: 62).

diren argumentuen —absolutibo, ergatibo eta datiboaren— arteko konbinaketa posible guztiak ere. Aitzitik, joko sintetikoak ez du aspektu bereizketarik onartzen eta, pertsona-komunztadura anizkuna onartzen badu ere, halako adizkiak oso gutxi erabiltzen dira; bestalde, joko sintetikoaren erabilera atzeraka joan da euskararen historiaren hasiera-hasieratik bederen.

Paradigma perifrastikoaren aberastasun eta erregulartasun handiagoa dela eta, euskal gramatikari gehienek —Larramendirekin hasi (1729) eta, salbuespen bakanak gorabehera, XIX. mendearen bigarren erdia arte— joko perifrastikoa euskaraz berezkoa zela pentsatu zuten; joko trinkoa, berriz, Larramendiz geroztik *irregular* deitu izan zena, bigarren mailakotzat eta berriagotzat hartu zuten.<sup>3</sup> Hala ere, gaur egun euskararen historiak dakigunaz baliaturik, badakigu gauzak bestela gertatu zirela (cf. Gómez & Sáinz 1995, Trask 1997).

Joko perifrastikoaren gailentasuna aldarrikatu zutenen aldean, Oihenart dugu aditz trinkoen jatortasuna aldeztu zuten autore bakan horietako bat eta lehena. Zuberotarrak ohiko zehaztasun eta zorroztasunez aztertu zituen euskal aditz-joko motak, bi joko bereizi zituelarik, bata berezkoa edo jatorra (hots, trinkoa) eta bestea jatorra ez dena (perifrastikoa, alegia):

Duae sunt coniugandi formae. Altera *Propria*, Altera *impropria*, quae fit per circumloquutionem. *Propria* est cum verbum per seipsum inflectitur, absque villo alterius vocis adminiculo, vt à themate ek'us, id est, vide, fit *Decussat* video, *decussac* vides *decussa* videt, *decussagu* videmus, *decussasue* videtis, *decussate* vident. *Neccusan* videbam &c. *Conjugatio Impropria* est cum verbum coniugatur, non per se, sed *circumloquutione*, per participium suum & verbum substantium *nais* hoc est sum & eius auxiliare *adi*, si verbum sit *passium* vel *neutrum*, Actium vero per verbum possessium *dut*, hoc est, habeo, & eius auxiliare *esac* vt, *Eziten nais* iaceo, *Sehazen* vel *Sehatu nais* caedor, *Ecusten dut* video. Vtraque coniugatio *quinque* habet modos, *Indicatum*, *Imperatum*, *Optatum*, *Conditionalem*, & *Subiunctium*. (Oihenart 1656: 63)

Bidenabar esanda, aurreko pasartean Oihenartek lau laguntzaile bereizten ditu: haietako bi aditzak ere badira (*nais* eta *dut*) eta beste biak aurrekoen laguntzaileak (*adi* eta *ezak*, hurrenez hurren). Laguntzaile bakoitzaren erabilera esparrua ere ondo zehazten du (Oihenart 1656: 69).

Esan bezala, Larramendi da, bestalde, joko perifrastikoaren jatortasuna aldeztu zuen lehena eta, jesuitaren eragin handiari esker, haren ikusmoldeak luze iraun zuen euskal gramatikagintzan. Larramendik adierazten du (1729: 43) aditza aztertzeko eta sailkatzeko erabili ohi den terminologiarekin erabat ados ez dagoela, alabaina besterik ezean erabiliko badu ere. Funtsean, honako hau da proposatzen duen euskal aditzen sailkapena:

Supongo, que el Bascuence tiene verbos activos, passivos, y neutros; y estos son regulares, è irregulares: nombres, cuya significacion se explicará en sus lugares. (Larramendi 1729: 43-44)

<sup>3</sup> Joko perifrastikoaren jatortasunaren aldeko eta kontrako zerrrenda baterako, ik. Gómez (1989: 361).

Larramendik “erregular” deitzen die perifrastikoei eta “irregular”, trinkoei. Hauxe da azken deitura honen arrazoia: “Llamo irregulares à estos verbos, assi por que sus tiempos son simples, y no compuestos, como tambien por que su inflexion no corresponde à la raiz, de donde nacen” (Larramendi 1729: 233). Izan ere, Larramendik joko bakuna eta joko elkartua ere bereizten ditu hizkuntza baten aditzetan:

En una Lengua la conjugacion del verbo puede ser simple, y compuesta. La conjugacion simple se llama aquella, cuyas inflexiones son sencillas, y de una sola dccion: la compuesta de dos, ò mas dcciones. [...] Pues hablando de las Conjugaciones regulares del Bascuenze, digo, que todas son compuestas, y ninguna simple, por que todas sus inflexiones constan de dos, y tres dcciones. Componense de dos generos de dcciones: unas son los varios modos de infinitivo, y otras son las terminaciones del verbo, y de la varia combinacion destas dcciones resulta la variedad de los tiempos. (Larramendi 1729: 44-45)

Larramendi haratago doa eta, tubalismoari atxikirik, proposatzen du hizkuntza erromantzeek —gaztelania, frantsesa eta italiera<sup>4</sup> aipatzen ditu— adizki elkartuak euskaratik hartu zituztela, grekoan eta latinean halako adizkirik ez izaki:

De lo dicho infiero yo, que el Romance, y las demás Lenguas hijas del Latin, como imitaron, y aprendieron de su Madre la Conjugacion de los tiempos simples, assi imitaron, y aprendieron del Bascuenze la Conjugacion de los tiempos compuestos, y por consiguiente deben tambien recurrir al Bascuenze por su genealogia en esto, como otras prendas varias. (Larramendi 1729: 46-47)

Laguntzaileez (*terminaciones*) den bezainbatean, Larramendik aditz aktiboak eta neutroak bereizten ditu, eta aktiboen barnean, absolutuak eta iragankor edo erlatiboak:

Las terminaciones unas son del verbo activo, otras son del neutro. Destas ableremos en su lugar. Las terminaciones auxiliares del activo unas son absolutas, otras son transitivas, ò relativas: las absolutas se llaman assi, por que no embeben, ni dicen algun respecto, ù orden à ninguna persona del singular, ni plural: las transitivas se llaman assi, por que dicen, y conotan una transicion, ò relacion à alguna de las personas. Las absolutas son de dos generos, y no mas: el primero rige, ò embebe regimen de singular, y el segundo de plural. Las transitivas son de veinte y una especies, por veinte y una relaciones, que puede tener la accion verbal. (Larramendi 1729: 56-57)

Alegia, laguntzaile aktibo absolutuak *det* eta *ditut*-en paradigmek osatuko lituzkete eta aktibo iragankorrak, NOR-NORK eta NOR-NORI-NORK erakoek. Beste alde batetik, laguntzaile neutroetan joko absolutu bakarra dagoela (*naiz*) eta zazpi erlatibo edo iragankor, NOR-NORI erakoak, diosku gero (1729: 164-65).

<sup>4</sup> Oroit bedi Larramendik, euskararen beste apologista batzuek bezala, iberiarrak Italian ere izan zirela baieztatu zuela eta, beraz, iberiarrak euskaldunen arbasotzat hartzen baitzituen, Italiako biztanleek euskararekin harremanak izan zitzaizketen. Erromantzezko forma batzuk euskaratik datoze-lako proposamena Larramendik *Hiztegi Hirukoitzean* erabilitako etimologietan aurkituko dugu behin eta berriz (ik. Urgell 2000).

Hasieran iragarri duen bezala, Larramendik darabiltzan sailkapena eta terminologia tradizionalak dira (halako terminoen historiarako, ik. Gómez Asencio 1985). Hau dela eta, ez da ohartzen euskararen laguntzaileek dituzten erro desberdinez —edo ez die garrantzirik ematen— eta, beraz, erdal sailkapenean oinarrituta, laguntzaileen banaketa bitarra egiten du funtsean: *naiz* (neutro eta pasiboetan) eta *det* (aktiboetan). Nolanahi ere den, sailkapen eta terminologia hau izango da, neurri handi batean, XIX. mendea arte (eta XIX.ean bertan ere) euskalari gehienek erabiliko dutena.

Aditzaren sailkapen tradizionalaren beste adibide bat Harrietena (1747) dugu. Haren gramatikaren lehenbiziko zatian, euskaraz idatzitakoan, ez du gai honetaz xehetasun askorik ematen. Alabaina, bigarren zatian, frantsesez idatzian, euskarari buruzko oharrak ere ematen ditu eta bertan agertzen dira, hain zuzen, aditzari buruz espero litezkeen azalpenak eta sailkapen bitarra:

Dans la langue Basque d'ordinaire les verbes sont reguliers, sans qu'elle en ait d'irregulier ni d'impersonnel, & elle les fait en deux mots comme, *nic ematen dut*, je donne, [...] elle a deux conjugaison, les verbes dont l'une est composée desdits quatre infinitifs desdits participes passifs & d'un mot *Naiz*, &c. pour faire le substantif, le passif; & ceux qui prennent leur place. [...] & l'autre conjugaison se fait moyennant les quatre infinitifs, les participes passifs, & d'un autre mot *dut*, &c. qui sert pour faire tous les verbes actifs... (Harriet 1741: 480).

Bada, halere, puntu harrigarri bat Harrieten lanean. Liburuaren amaieran dagoen “Escualdunei gomendioa eta Abisua”-n, Harrietek, besteak beste, idatzi berri dituen bi libururen berri ematen du. Lehena maisurik gabe euskaldunek frantsesez irakurtzen ikas dezaten idatzi du, eta bigarrena, bi partetan:

lehenbicioa eskuaratik verbo gaitz eta erreguelan ez diren batçuen khenceco, hala nola *nago*, *noha*, *darasat*, &c. horlaco haifnitz, erreguela gabe dire, eta erreguelacoac dire *egoten naiz*, *goaten naiz*, *erasten dut*, &c. (Harriet 1741: 507)<sup>5</sup>

Eta, egia esan, gramatika guztian zehar Harrietek ez ditu aditz trinkoak behin ere aipatzen. Honen kariaz, agian Harriet garbizaletasunaren aitzindaritzat har genezake arlo honetan. Baina, zehazkiago jotzen badugu, ohartzen gara XX. mende hasierako garbizaleen alderantzizko joera hartzen duela, perifrastikoen aldekoa alegia, eta, beraz, trinkoak desagerrarazi nahi dituela; aranatarrek, ordea, trinkoen antzinasun eta jatortasunean sinisten zuten eta, ondorioz, joko trinkoa beste aditz batzuetara hedatu eta orokortu nahi izan zuten (Plazaola 1999).

### 3. Gramatika orokorra eta aditz bakarraren teoria

Gramatika orokorra, aise eta laburki esateko, hizkuntza guztien arazo orokorrei buruzko hausnarketa da; aurreneko formulazioetatik batez ere irizpide logikoetan oinarritu zen, harrezkero korrante filosofikoaren arabera “arrazoia” edo “izadia” eti-

<sup>5</sup> Bigarren partea, bidenabar, euskaldunek beste hizkuntzetarik hartu dituzten hitzak kentzeko dela dio.

ketez hornituko ziren irizpideetan (cf. Auroux & Clérico 1992, Dominicý 1992). Gramatika orokorraren tradizioan beste deitura batzuk erabili —eta sarritan nahastu— dira: *gramatika filosofikoa*, *gramatika arrazoitua* eta, Ingalaterran batez ere, *gramatika unibertsala*. Euren berezitasunak gorabehera, autore guztiok bilduko dituen haxe da: gramatikaren hatsarreak ideien jatorriari buruzko dotrina batetik eratortzen saiatzea.

Europako hizkuntzalaritzaren historian honelako hausnarketek tradizio luzea zuten: Erdi Aroaren amaieran, latinean oinarrituz, *modistae* izeneko filosofo eskolastikoei hizkuntza guztiak funtsean gramatika berdina zutela baieztatu zuten. Orobatsu, Humanismoaren garaiko zenbait gramatikaririk eta filosofok (Scaligerek, Sanctiusek, Vossiusek, Campanellak, etab.). Baina gramatika orokorrari erabateko ospe eta arrakasta eman ziotenak Paris ondoko Port-Royal komentu-eskolan egindako lanak izan ziren: *Grammaire générale et raisonnée* (Arnauld & Lancelot 1660) eta *La logique* (Arnauld & Nicole 1662), hain zuzen ere.<sup>6</sup> Port-Royaleko lanek helburu bikoitza bete nahi zuten: batetik, hizkuntzaren arau orokorrak aurkeztea eta, bestetik —baina aurrekoarekin loturik—, edozein hizkuntza partikular aise eta laster ikasteko gida lortzea. Neurri handi batean Descartesaren arrazionalismoan oinarritu baitziren, Port-Royaleko autoreen lanak honako premisa honetatik abiatu ziren: hizkuntza giza gogoaren eragiketen isla da eta, hortaz, gramatika ere bai. Ondorioz, gizaki guztiengan gogoaren funtzionamendua berdina bada, gramatika ere berdina izango da ororentzat. *Gramatikan* eta *Logikan* Port-Royaleko autoreek garatu zituzten analisisetan xeheki jarduteko tokia ez delarik, oraingo honetan bi arazo bakarrik nabarmendu nahi nituzke, perpausaren analisisa eta aditz-teoria hain zuzen ere.

Perpausaren analisiari dagokionez, Port-Royaleko logikak giza gogoaren lau eragiketa bereizten ditu; eragiketa horietako batzuek paralelismo garbiak erakusten dituzte gramatikaren unitateekin (Arnauld & Nicole 1662: 27-28). Hauexek dira eragiketok:

- a. Bururatzea (*concevoir*): gogoari aurkezten zaion zerbaitetan arreta jartzea; aurkezpen bakoitzari ematen diogun moldea *ideia* bat da.
- b. Juzgatzea (*iuger*): bi ideia batzea, norbaiti bururatu zaiona halakoa dela, edo halakoa ez dela, baieztatzea. Judizioa, hortaz, proposizioa ere bada.
- c. Arrazoitzea (*raisonner*): bi judizio baliatuz, hirugarren bat eratzea.
- d. Ordenamendua (*ordonner*): zenbait ideia, judizio eta arrazoiketaren hurrenkera, gai bat ezagutzeko modurik egokienean antolatua; hautatzen den moduari *metodo* deritzo.

Hauetarik aurreneko biak dira bereziki interesatzen zaizkigunak: Lehenik, ideien bururatzeak funtsezko eginkizuna betetzen du perpaus-atalen sailkapenean. Izan ere, Port-Royaleko gramatikak hitzen sailkapen bitarra ezartzen du, hizkuntza guztiarentzat balio duena, jakina: alde batetik, gure pentsamenduen objektuak adierazten dituzten hitzak ditugu eta, bestetik, gure pentsamenduen itxura edo modua adierazten duten hitzak. Lehenbiziko kategorian izenak (hala substantiboak nola adjek-

<sup>6</sup> Port-Royaleko lanez, ik. besteak beste, Harnois (1929), Donzé (1967), Auroux & Clérico (1992), Dominicý (1992) eta Wheeler (1995).

tiboak), artikulua, izenordainak, partizipioak, preposizioak eta adberbioak sartzen dira; bigarrenen, aditzak, juntagailuak eta interjekzioak.

Bigarrenik, Port-Royaleko autoreentzat gogoaren eragiketa nagusia judizioak egitea da; hots, bi ideia batzea, euren arteko identitatea baieztatzeko edo ezeztatzeko ( $A \equiv B$  edo  $A \neq B$ ). Ildo honetan, hitz egitea proposizioen bitartez judizioak adieraztea baino ez da. Perpausa proposizio bat da eta proposizioa bi ataletan banatzen da: subjektua eta atributua; biak dira gure gogoaren objektuak, bi ideia dira. Subjektua eta atributua kopularen bitartez batzen dira, kopularen eginkizun bakarra batasun hori baieztatzea delarik.

Aditz-teoriaz den bezainbatean, eta azaldu berri dudan proposizioaren egiturarekin zuzenean loturik, Port-Royaleko autoreen ustez aditza baieztatzeko erabiltzen den hitza da. Horregatik, dagoen aditz bakarra kopula da (hots, *da*). Ikuspuntu honen arabera, “aditz” deitu ohi diren gainerako hitzak banako konplexuak lirateke, bertan baieztapenari beste adieraren bat gehitu zaiolarik: subjektua (*naiz*), atributua (*Peru dabil = Peru ibiltari da*) edota denbora (*zen*). Horrela bada, aditzen arteko funtsezko banaketa bitar bat ezartzen da: aditz “substantiboa” (benetako aditz bakarra, baieztapen hutsa, kopula alegia) eta aditz “adjektiboak” (gainerakoak). Jakina, banaketaren oinarrian azterketa logiko bat hizkuntzen gramatikara hedatzea dago: logikaren ikuspuntutik *izan* aditza bakarrik *da beharrezkoa*; ondorioz, *izan* aditza bakarrik *dago* giza hizkuntzetan.

Port-Royaleko lanek arrakasta eta eragin handia izan zuten XVIII. mende osoan eta XIX.aren zati batean, bereziki Frantziar, non hizkuntzalaritza historiko-konparatzailearen nagusitasuna aski berandu iritsi baitzen. Baina, hizkuntzalaritza historiko-konparatzaile berria Alemaniatik gainerako herrietara zabaltzen zen heinean, gramatika orokorraren pisua eta omena apalduz joan ziren. Nolanahi ere den, XVIII. mendean zehar gramatika orokorraren helburuak eta formulazioak aski aldatu ziren, lehenbizi entziklopedisten eraginez (Beauzée, du Marsais), geroago filosofo sensualisten eskutik (Condillac nagusi) eta, Frantziako Iraultzaren ondoren, ideologo bitartez (Destutt de Tracy, Maine de Biran eta Thurot, besteak beste). Aditz-teoriari dagokionez, urte haietako autoreen berrikuntzarik nabariena honakoa da: aditz substantiboak ez du jadanik “baieztapena” adierazten, “existentzia” baizik.

Azkenik, ohartarazi behar da gramatika orokorraren metodo logiko-arrazionala eta haren argudiatze motak hizkuntza jakinen gramatikak ontzeko ere erruz erabili izan zirela. Gehienetan, haatik, ez ziren lan horietan hizkuntza guztien ezaugarri komunak bilatu nahi, baizik eta delako hizkuntza hark arrazoiaren eta logikaren legeei men egiten ziela frogatu. Gramatika-molde honetan sartu behar ditugu, hain zuzen ere, XIX. mendean gramatika orokorraren urratsei nola edo hala jarraitu zieten euskal autoreak. Agian, salbuespen bakarra Astarloa litzateke, bera baita euskarari buruzko gogoetak hizkuntzaren azterketa orokor baterantz bideratu zituen egile bakarra, era berezi batean izanda ere (ik. Gómez 1999). Bestalde, gramatika orokorraren eragina jaso zuten euskalari gehienak, espero zitekeenez, Ipar Euskal Herrikoak ziren eta, beraz, frantziar tradizioa zuzenean jaso zuten.



#### 4. Humboldt

Euskalaritzan aditz bakarraren teoriaren aurreneko agerraldi gisa har genezakeena Wilhelm von Humboldtte alemanez idatzitako euskal gramatikaren zirriborroan (Humboldt 2001) aurkitu ahal dugu:

2. (14.) Verba in dem Verstande, als unsere Sprachen, hat die Vaskische eigentlich gar nicht. Sie besitzt bloß eine Art# Hülfswerba, vermöge welcher sie alle übrige bildet; geradezu als sagten wir, statt ich esse, schlafe, stehe, immer ich thue essen, schlafen, stehen, und auf ähnliche Weise, als das Englische to do gebraucht wird. Nur dies Hülfswerbum ist in /378/ der grammatikalischen Bedeutung des Worts ein Verbum, der übrige Zusatz ist bald ein wahres Adjectivum, bald ein mit /379/ einer Praeposition verbundenes Substantivum (Gerundium), bald der unbestimmte Begriff der Handlung überhaupt (In /380/ finitiv) bald noch etwas andres. Dies einzige Verbum der ganzen Sprache verrichtet allen Dienst, dessen der Redende bedarf, u. erhält durch den Zusatz jedesmal seine bestimmte Bedeutung. Det, allgemein, ich thue, handle, bin beschäftigt, jaten det, ich bin beschäftigt im Essen, ich esse, ilten det, im Töden, ich tödte, u.s.f.

Ohar bedi, haatik, laguntzaile (*Hülfswerbum*) bakarraz mintzo dela, eta ez aditz bakarraz. Bestalde, aurreko pasartearen ondotik datozen lerroetan Humboldtte aditz trinko bakan batzuk daudela adierazten du eta irregularrak (*unregelmäßige*) deitu ohi direla gehitzen du.

Halarik ere, Adelung eta Vater-en *Mithridates*-i egindako zuzenketa eta eransketetan, bestelako iritzia agertzen du. Lan honetan Humboldt nabarmenki urruntzen da Larramendik abiarazi zuen tradiziote, joko irregularra “la más antigua y originaria sin duda alguna” dela adierazten baitu (Humboldt 1817 [1933-34: 98]). Era berean, Humboldtte honako formulazio hau hobesten du: “La lengua vasca no tiene, estrictamente hablando, más que una sola conjugación” (1817 [1933-34: 97]) eta ez du aditz bakar baten alde jotzen duela inon adierazten. Areago dena, euskal aditz-jokoa aurkezten duelarik, *aditz* deitzen die forma jokatugabete eta, ildo honete, Astarloak proposatu zuen analisiari orpoz orpo jarraitzen dio, alegia euskaran edozein hitz aditz bihur daitekeela *-tu* atzizkia gehituz gero.<sup>7</sup> Hortaz, Humboldtte arazo honen gainean zuen jarrera ez zaigu nahi bezain argia agertzen.

<sup>7</sup> Cf. “Los adverbios de cualquier naturaleza que sean, los pronombres, los numerales, en una palabra, cuantas voces tiene un idioma, cuantas son sus inflexiones, tantos son los verbos que pueden formarse, operacion que necesariamente ha de presentar en la voz la idea más perfecta de su signado” (Astarloa 1883 [1805]: 692). Ik. orobat Gómez (1996).

Bide batez, Astarloak espresuki idatzi zuen aditz bakarraren teoria aldete zutenen kontra, edo lehen hizkuntzan aditz bakarra zegoela aldete zutenen kontra gutxienez: “Es verdad que los filósofos, especialmente modernos, quieren que no hubiese verbos inflexionados en el mundo primitivo, fundándose en que un verbo en inflexion no es otra cosa que un participio como el *sum es fui*, esto es, un participio que es el atributo, y el *sum es fui* ó el ver *ser* que une à dicho atributo con el sujeto. Dicen que la expresion *los hombres aman* es lo mismo que *los hombres son amantes*: *los hombres amaban* equivale à *los hombres eran amantes*: *los hombres amaron* vale lo mismo que *los hombres fueron amantes*. Acerca del modo con que hubo de inflexionar sus verbos el idioma primitivo, hablaremos en su lugar y allí rebatiremos esta opinion en la parte que nos pareciese opuesta à la filosofia” (Astarloa 1883: 433).

Humboldtten aurreneko aipuari berriro bagagozkio, azpimarratu nahi nuke bertan autore prusiarrak *Zusatz* ('gehigarri') deitzen duena —hau da, adizki perifrastiko baten forma jokatugabea— noiz adjektibo bat, noiz preposizio batekin lotutako izena (gerundioa), noiz ekintza bat oro har adierazten duen zerbait (infinitiba), noiz besterik dela zehazten duela. Humboldttek gaingiroki azaltzen duen proposamen hau aztertuko dudan hurrengo autoreak, Darrigolek, askoz xehekiago garatuko du. Zerenahi gisaz, Darrigolen ideien iturria ezin izan zen, inola ere, Humboldtten baieztapena, prusiarraren eskuizkribua ez baitzuen ezagutzerik izan.

## 5. Darrigol (1827)

Euskal gramatikaren analisi arrazoituari ekiteko, Darrigol gramatika orokorraren hatsarreetan oinarritzen da, edo berak dioen moduan "hizkuntzaren oinarritzko hatsarreetan" (1827: "Préface", zenbatu gabe). Hala, Darrigolek aditzaren ondoko definizio hau ematen du: "l'on convient généralement que sa fonction essentielle est de lier l'attribut au sujet, de former le noeud de la proposition: de là vient que tous les siècles l'ont appelé unanimement *propositionis copula*" (1827: 89). Alabaina, harrigarriro, honelako definizio bat harako Port-Royaleko *Grammaire*-n eman zen harekin lotuagoa dagoke, Darrigolek darabiltzan iturri nagusien definizioekin baino.

Euskalari zaharren artean apaiz lapurtarra dugu aditzaren izaerari buruz zuen iritzia arrazoitzeko leku gehien eskaini zuena, auziaren inguruko hurrengo lanen oinarriak finkatu zituelarik. Gainera, ikusiko denez, Darrigolen lana aztertuz gero, nabariki konturatzen gara Port-Royaleko lanetan eta gramatika filosofiko batzuetan azterketa *logiko-semantiko* bat besterik ez zen aditz bakarraren teoria, euskarari ezarri ziolarik, azterketa *formal* ere bihurtzeko aukera ezin hobea eskaini nahi izan zuela. Hau dela-eta, ez dirudi lekuz kanpokoa denik Darrigolek aditz bakarraren teoriaren inguruan aurkeztu zituen ideiak ondoko lerroetan xeheki azaltzea.

Hasteko, Darrigolek adierazten du mundu zabaleko hizkuntzetan aditz guztiek, *izan* aditza salbu, atributu jakin baten ideia osagarria (*idée accessoire*) barneratzen dutela eta honek aditzaren benetako izaeratik urruntzen dituela:<sup>8</sup>

Ainsi *lego* n'est qu'une formule abrégée de *legens sum ego*: ce n'est pas la pure nature du verbe. On doit raisonner de même sur tout verbe français, latin, grec, &c., à l'exception du verbe *être* seulement: celui-là seul, si nous en croyons M. Beauzée, présente la pure nature du verbe en général. Tout autre verbe, selon le même auteur, renferme de plus dans la signification l'idée accessoire d'un attribut déterminé. (Darrigol 1827: 90)

Honelako sistema batean adizkiak forma laburtuak direla deritzo, solasaldi laster eta etorri bati ondo dagozkionak. Haatik, oztopo handiak ere badituztela uste du: atributua eta kopula hitz bakar batean nahasten dira; bestalde, horrelako sistema batek adizki asko eta askotarikoak sortzen ditu, maiz irregularrak, eta, beraz, arrazioren kontrakoak dira (Darrigol 1827: 91).

<sup>8</sup> Cf. orobat: "Ainsi *je lis* est la même chose que *je suis lisant*; et dès lors l'expression *lis* ne présente pas la pure nature du verbe, mais un verbe avec l'idée accessoire d'un attribut déterminé" (Darrigol 1827: 90).

Aitzitik, sistema bakun eta perfektu batek *izan* aditza besterik ez luke erabili behar eta horixe da, hain zuzen ere, Darrigolek euskarari aurkitzen duena.<sup>9</sup> Horretarako, Darrigolen abiapuntua *infiniitibo* deitzen direnak euskaraz bederen aditzak ez direla eta benetan izen-klasekoak direla pentsatzea da:

tous les mots qui répondent à ce qu'on appelle ailleurs infinitifs des verbes, sont de vrais noms dans notre langue; et, afin que le lecteur se familiarise avec cette assertion, il est bon de lui rappeler qu'elle se vérifie plus ou moins parfaitement dans chaque idiome. (Darrigol 1827: 93)

Izan ere, Darrigolek hizkuntza askotan<sup>10</sup> *infiniitiboek* duten izentasuna frogatzeko adibideak ematen ditu, irizpide distribuzionalak, funtzionalak eta formalak erabiltzen dituelarik:

- a. Distribuzionalak: *infiniitiboa* artikularekin batera ager daiteke; latinez izen deklinatu baten lekua bete dezake, edozein kasutan agertzen delarik ere.
- b. Funtzionalak: *infiniitiboak* perpaus baten subjektu edo osagarri izan daitezke.
- c. Formalak: arabieraz edo sirieraz *infiniitiboek* izenei dagozkien hizkiak har ditzaizkete.

*Infiniitiboek* eta izenek forman eta esanahian dituzten antzekotasunak aintzat hartu ondoren, *infiniitiboak* eta aditzak zertan bereizten diren zehaztea da hurren zeregina: hala, *infiniitibo* batek ideia orokor eta zehaztugabe bat (“vague et indéterminée”) aurkezten du; aitzitik, aditzak bakarrik eskaintzen du proposizio edo judizio bat eratzeko behar den indar elkartzaila (“la force unitive”, 1827: 97). Beste alde batetik, ordena naturalak eskatzen du lehenik ideia orokorra aurkeztea eta, ondoren, zehaztea. Horrexegatik *do* *infiniitiboa* aditza baino lehen (1827: 98).

Xehetasun hauek guztiak, dena den, Darrigolek euskal *infiniitibo*ei buruz duen teoria aurkezteko atarikoak baino ez dira. Haren abiapuntua Beauzée (1767) *action*, *acte* eta *passion* adigaien artean egindako bereizkuntza da. Bakoitzaren definizioa ematen du Beauzée eta, beraietan oinarriturik, Darrigolek uste du *acte* forma abstraktuena dela eta *radical*ekin lotzen du (hau da, *as* ‘has’ aditzoinarekin), *action* “*infiniitibo aktibo*” deitzen duenarekin (*aste* aditz izenarekin) eta *passion*, azkenik, “*infiniitibo pasibo*” delakoarekin (*asi* partizipioarekin, alegia):

Ainsi le mot radical *as*, qui n'exprime que l'*acte*, ou un sens de l'*abstraction la plus complète*, est susceptible de deux formes qui en déterminent l'espèce grammaticale. Si ce mot radical se revêt de la forme active *aste*, il répond exactement à ce qu'on a coutume d'appeler *infiniitif*; et c'est un nom d'existence, d'action ou d'état, un vrai nom, qui se décline, avec ou sans article, sur le tableau de déclinaison.

<sup>9</sup> Helburu apologetikoa begien bistan dago Darrigolen gramatika-lan guztian zehar, izenburutik hasita. Gramatika orokorraren oinarriak hizkuntza jakin bati ezarri nahi dizkioten autoreetan ohi den bezala, euren lanen bitartez delako hizkuntzaren bikaintasuna erakutsi nahi dute, zuzenean edo zeharka. Darrigoli dagokionez —eta baita ondorengo beste zenbait autoreri ere—, gramatika-azterketekin batera euskararen antzinatasunari eta balizko perfekzioari buruzko iritziak aurkitzen ditugu: “vestiges de son antique splendeur” direlakoak, hain zuzen (Darrigol 1827: 158).

<sup>10</sup> Darabiltzan hizkuntzak honako hauek dira: frantsesa, nederlandera, alemana, gaztelania, italiara, latina, grekoa, hebreera, arabiera eta siriera.

son que nous avons déjà tracé: il n'a rien de commun avec les inflexions du verbe. Se ce mot radical prend la forme passive *asi*, il répond au participe passif, et se décline, avec ou sans article, sur le même tableau que la forme précédente, sans jamais devenir verbe, quoi qu'on puisse dire. (Darrigol 1827: 100-101)

Hortaz, Darrigolen ustez, aditzoinak “erabateko abstrakzioa” adierazten du; infinitibo aktiboa, aldiz, benetako izena da eta infinitibo pasiboa, partizipio bat; hots, ez da inoiz *aditz* izatera iristen. Horrela, bada, bi infinitibo forma hauek deklinatu ahal dira, bietarako adibideak ematen dituelarik.<sup>11</sup> Azken buruan, “les infinitifs basques sont restés dans la classe des noms, soit appellatifs soit adjectifs” (1827: 107).

Azterbide honen barruan, erraz aurreikusten da euskal adizki perifrastikoen zati diren forma jokatugabeak izentzat edo partizipiotzat hartuko dituela Darrigolek, dagokion denboraren arabera deklinatzen direla edo ez esango duelarik:

- a. Orainaldiaz den bezainbatean, *erorten niz* “je tombe” adizkiari “je suis dans l’acte de tomber” analisia ematen dio; hau da, *erorte* infinitibo aktiboa kasu “positiboan” (=inesiboan) deklinatua.<sup>12</sup>
- b. Darrigolen iritziz, lehenaldiko *erori niz* “je suis tombé” honelaxe dago osatuta: *niz* aditza (“je suis”) eta *erori* partizipio pasiboa; *niz* aditzari buruz beharaxeago mintzatuko naiz berriz.
- c. Azkenik, Darrigolek adierazten du *erorico niz* “je tomberai” geroaldikoan partizipioa *-ko* amaieraren bitartez (Darrigolek “destinatibo” deitua) edo *-en* genitiboaren bitartez deklinatzen dela; biek adieraziko lukete etorkizunaren ideia.<sup>13</sup>

Honen guztiaren ondorioz, Darrigolek bi aditz besterik ez du onartzen euskaran, *n(a)iz* eta *dut* izendatzen dituenak;<sup>14</sup> orobat, iradokitzen du biak, azken bu-

<sup>11</sup> Besteak beste, *baratce* (‘gelditze’) / *baratce* (‘soro’) eta *aci* (‘hazi’) / *aci* (‘ale’) adibideak darabiltza distribuzio berdina dutela erakusteko. Gainera, *erortean*, *jatetic*, *edanic*, *hastera*, *ikhusiz* bezalako formak ere infinitiboa edo partizipioa gehi deklinabide kasuak direla adierazten du (Darrigol 1827: 101-105).

<sup>12</sup> Cf. “Le mot *erorten*, qui exprime l’action de tomber, n’est pas un verbe, mais bien un nom au cas positif” (Darrigol 1827: 105).

<sup>13</sup> Darrigolek (1827: 106) destinatiboa gaztelaniazko *está por llegar* gisakoekin erkatzen du. Eta analisi honek nahiko egiantzekoa dirudi. Oroit bedi, Mitxelena euskal adizki perifrastikoen eraketa auzoko hizkuntza erromantze eta germaniarren aditz sistemekin konparatu zuen eta bilakabide paralelo bat gertatu zela ondorioztatu: “El paralelo pasa por las formas analíticas, llamadas entre nosotros perifrásticas, del verbo, tanto en *perfectum* como en futuro: *etorri da*, *egin du*, *est venu*, *ist gekommen* (ant. *es venido*) / *ha hecho*, *a fait*, *hat gemacht*, *joanen*, *joango da*, lit ‘es de ir’, *eginen*, *egingo du* ‘ha de hacer” (Mitxelena 1981 [1987: 48]). Beste alde batetik, Darrigolek euskal adizki analitikoetarako eskaini zuen azterketa John Andersonen “hipotesi lokalistaren” oinarria izan zen. Andersonek, 70etako gramatika sortzailearen ereduari atxikita, ingelesaren eraikuntza progresiboetan predikazio lokatibo bat agertzen dela proposatu zuen (Anderson 1973).

<sup>14</sup> Honen antzeko sailkapen bikoitz bat proposatu zuen lehentxeago Fleury Lécusek (1826), nahiz eta autore honek aditz laguntzaileak bakarrik izan zituen hizpide eta ez zuen, beraz, aditz bakarraren teoriara hurbildu zezakeen ezer ere adierazi. Areago dena, Lécusek —lehenago Astarloak eta geroago Zabalak eta van Eysek bezala (ik. Gómez 1996)— euskaraz edozein hitz aditz bihur daitekeela adierazi zuen, delako hitzari *-zea* atzizkia erantsiz gero (Lécuse 1826 [1987: 902]). Halako iritzi bat, jakina, ez dugu aditz bakarraren aldekoengan sekula aurkituko.

ruan, aditz bakar baten bi aldaeratzat har daitezkeela, aditz bakarraren teoriara leurratuz.<sup>15</sup> Formari dagokionez, lehen aditz motaren bereizgarria hasierako *n-* izatea da (subjektua markatzen duena; adibidean lehen pertsona singularrekoa, hain zuzen) eta bigarren motaren bereizgarria, hasierako *d-* izatea (hirugarren pertsonako objektua markatzen duena). Hortaz, *niz* edo *naiz* “formula” laguntzaile iragangaitzen ordezkaria litzateke eta *dut* “formula”, aldiz, laguntzaile iragankorra:

Cette division, indiquée par le matériel des syllabes, est commandée par la nature et le sens de nos verbes: les uns (en *n*) ayant un sens affirmatif de la substance même de leur sujet, et les autres (en *d*) un sens affirmatif, non plus de la substance de leur sujet, mais de son action sur un autre. (Darrigol 1827: 108)

Il ne résulte pas seulement de ces observations, que les formules *niz*, *dut*, sont les deux verbes primitifs de notre langue; l’on doit en recueillir de plus que la nature du verbe ne se rencontre absolument que là où se trouve fondue en quelque sorte l’une desdites [*sic*] formules: ce qui nous conduit à cette dernière conséquence, que la langue basque n’a, à proprement parler, que deux verbes [...]. De là nos verbes sont deux. Le premier répond avec avantage au verbe substantif *être*, connu dans toutes les langues; et s’emploie dans tous les cas où il s’agit d’affirmer en quelque manière la substance du sujet. Le second est une sorte de verbe *avoir*, affirmatif de l’action la plus générale possible d’un sujet sur un autre. (Darrigol 1827: 109)

Ondoren, Darrigolek bi aditz hauen osagaiak aztertzen ditu, aditzak berez baieztapena adierazten duela frogatu nahian. *Niz*-ekin hasita, Darrigolek adierazten du mota honetako aditzak joka daitezkeela *ba-* aurrizkia (*prépositive*) lagun dutela edo ez dutela. Aurrizki hau *bai* baieztapen-partikula besterik ez dela onartu arren, aurrizkidun adizkiari (*baniz*) “subjektuaren existentzia” esanahia egotzen dio; aitzitik, aurrizki gabeko adizkiaren (*niz*) eginkizun bakarra perpaus baten atributua eta subjektua lotzea litzateke:

avec la prépositive, ce semble, quand il est employé pour exprimer l’existence du sujet; et sans la prépositive, quand il n’a d’autre fonction que de lier l’attribut et le sujet d’une proposition quelconque. (Darrigol 1827: 110)

Bestalde, aurrizki gabeko forma honen osagaiak lehen pertsonako izenordaina eta kasu “mediatiboaren” (hots, instrumentalaren) marka lirateke: *ni* + *z*, alegia:

Les deux premières personnes *niz*, *hiz*, paraissent d’ailleurs n’être autre chose que les pronoms *ni*, *hi*, au cas médiatif, d’où il résulterait que les formules *ba-niz* pour *bai-niz*, et *ba-hiz* pour *bai-hiz*, signifieraient, mot à mot, *oui de moi*, *oui de*

<sup>15</sup> Hain zuzen ere, Louis de Bonald-en ondoko aipamen hau baliatuz iradokitzen du: “L’*avoir* est une manière de l’être, et la plus générale possible... Être et avoir, idées fondamentales de l’être... Être et avoir, fondement de toutes les langues, qui sont l’expression de êtres” (*apud* Darrigol 1827: 109). Eta badirudi Darrigolen analisisan aditz bakarra ulertu zutela haren garaikideek eta gogaideek. Honelaxe adierazten du Campiónek (1884: 308), gai honi dagokionez: “se la [=Darrigolen aditz teoria — R.G.] puede considerar más como un unicismo mitigado que como un dualismo categórico”.

*toi*; façon de parler qui n'aura sans doute rien que de trivial, au jugement de la plupart des lecteurs, mais qui ne laissera pas d'avoir un vrai mérite aux yeux des meilleurs juges, en ce qu'elle rappelle l'enfance du langage. (*ibid.*)

Eta epaileon artean Court de Gébelin aipatzen du eta, nola ez, Lancelot eta “des autres grammairiens qui placent la nature du verbe dans l'affirmation” (*ibid.*). Azken batean, autore hauek bezalatsu, Darrigolek adierazten du benetako aditzaren osagaiak baieztapena eta pertsona direla eta, beraz, aditzak ez duela errorrik.<sup>16</sup>

*Niz*-en analisia burutzeko, Darrigolek ohartarazten du —bere ideiekin bat eginik— aditz honek ez duela modu infinitiborik, errorrik ez baitu. *Içan*, *içana* eta *içaittea*-k ezin dute modu infinitiboa osatu, forma hauek deklina daitezkeelako eta, gainera, “n'ont pas même des syllabes communes avec notre verbe substantif” (1827: 114).<sup>17</sup> Darrigolen iritziz, ustezko infinitiboak “nom[s] d'être ou d'existence” dira berez (*ibid.*); aditz substantiboak, berriz, baieztapena adierazten du nagusiki eta —beronen bitartez bakarrik— subjektuaren existentzia gero.

Jakina, Darrigolek uste du *dut*-ek ere ez duela infinitiborik, nahiz eta arrazoi praktikoak direla medio *avoir* itzuli ohi den. Aditzaren funtzio bakarra subjektuaren existentzia edo subjektuaren eta atributuaren lotura baieztatzea izaki, Darrigolen ikuspegitik aditza berez iragangaitza da. Baina erabilerak joko iragankor bat ere eman dio aditzari.<sup>18</sup> Joko honek subjektuak beste zerbaitekin edo norbaitekin duen erlazioa baieztatzen du:

Affirmer l'existence du sujet ou sa liaison avec l'attribut, étant les seules fonctions propres du verbe *être*, il est clair que ce verbe est essentiellement *intransitif*. Mais ce que sa nature n'exigeait pas, l'usage le lui donné; lui a donné, dis-je, une conjugaison *transitive*, selon laquelle il affirme son sujet avec relation à un autre. (Darrigol 1827: 118)

Erakutsi berri dudan analisi guztiaren ondorio zuzena delarik, Darrigolek proposatzen du aditz trinkoak (*verbes subalternes* izendatzen dituenak) *n(a)iz* eta *dut* aditzetariko bat eta forma jokatugabe bat konbinatzearen emaitza direla:

En effet, *nago* résulte de la combinaison de *naiz* avec *egon*: *naiz* avec *ibil* donne *nabila*; *naiz* avec *etor* fait *nator*. [...] car qui ne voit *dut* *erabil* dans *dabilat*, *dut* *eraman* dans *deramat*, *dut* *eraunts* dans *derauntsat*, &c.? (1827: 109)

Darrigolek ez du onartzen honelako formei “aditz irregularrak” deitzea. Larramendik (1729: 233) deitura horren alde eman zituen arrazoiak bi ziren: lehenik, bakunak dira, hitz bakar batez osatzen dira eta, aldiz, aditz “erregularrak” (hau da, perifrastikoak) elkartuak dira. Darrigol, bere jarrera filosofikoari atxikia, harritzen da bakuntasuna irregulartzat hartzeagatik eta uste du Larramendiren eta ondorengo autoreen errakuntza infinitiboak aditzaren ataltzat jotzen dutelako gertatu dela;

<sup>16</sup> *Izan* aditzaren analisi hau mende erdi bat geroago errepikatuko du Charencey kondeak (Charencey 1873, 1874, 1875). Bestalde, Bonaparte printzeak ere onartuko du errorrik gabeko aditz bat bere *terminatifs purs* direlakoak azaltzeko (ik. *infra* §9).

<sup>17</sup> Baieztapen honen atzean, silabez eta ez erroez baliatzeaz gain (Chahok ez bezala), bistan da Darrigolek grafiarekin egindako jokoia ere.

<sup>18</sup> Darrigolek “iragankor” terminoa nola erabiltzen duen ikusteko, ik. Gómez (2001: 175, 4. oh.).

oroit bedi Darrigolen analisisan izenak edo adjektiboak direla, azaldu berri dudanez. Ondorioz, Larramendiren aditz elkartuak bakunak dira zinez eta, alderantziz, Larramendik-eta bakuntzat harturikoak “elkartuagoak” dira, beraietan jatorrizko aditzari (*niz, dut*) atributu bat erantsi baitzaio (Darrigol 1827: 139). Bigarrenik, Larramendik ez zuen lotura argirik ikusten forma trinkoen eta bakoitzari dagokion aditz-erroaren artean; Darrigolek ez du Larramendiren baieztapenaren aldeko inongo frogarik aurkitzen.<sup>19</sup>

Bestalde, Darrigolek ohartarazten du aditz irregularrez mintzatzeak esan nahi duela aditz-jokoak arau orokor batzuk dituela eta aditz batzuek ez dituztela arauak betetzen. Aitzitik, Darrigolek nahiago du pentsatu aditz trinkoek, funtsean, jatorrizko bi aditzen jokabideari jarraitzen diotela, zeinek bere familiakoari eta salbuespen batzuk gorabehera. Beraz, *défectueux* terminoa hobesten du halako aditzak izendatzeko:

On les appelleraient *défectueux* avec plus de sujet; car ils ne se prêtent pas en entier à la conjugaison transitive à régime double, ni même à tous les modes et à tous les temps de la conjugaison à un seul régime. (Darrigol 1827: 142)

## 6. Abbadie (1836)

Abbadie gazte bat<sup>20</sup> izan zen *Études grammaticales sur la langue euskarienne* (Paris, 1836) lanaren egilea —Chahorekin batera, baina honi buruz hurrengo atalean mintzatuko naiz—. Abbadiek Chahoren gramatikaren hitzaurre luze bat idazten du (“Prolégomènes”, 1-50). Euskal aditzari dagokionez, iritzi filosofiko eta tipologikoekin nahastuta, euskara gainerako hizkuntzetatik bereizten duten ezaugarriak aurkezten ditu. Haien artean aditz-jokoa dago, jakina:

[P]eu d’entre eux [filologoak — R.G.] avaient vu que ce qu’ils appelaient verbes n’était que des noms employés sous diverses formes d’inflexions: que leur auxiliaire *Dut* n’est qu’un cas particulier de la forme conjuguée *Niz, nintzan*, et que tout se réduit, en dernière analyse, à des noms *iz, izan, izaitte*, qui servent à exprimer, sous différentes formes, la seule idée verbale proprement dite, l’expression de convenance entre un nom et son attribut, le verbe être. Plusieurs philosophes, quoique raisonnant d’après des langues où l’idée d’existence est syncopée et con-

<sup>19</sup> Andoaingo jesuitak xehetasun gehiagorik ematen ez badu ere, badirudi *idugu* / *daucat* bezalako bikoteak dituela gogoan; izan ere, honelakoetan zaila gerta daiteke adizki trinkoa eta partizipioa formalki lotzea, are gehiago Larramendik baliatzen duen grafia sistema aintzat hartuz gero. Hala ere, baliteke —bigarren aukera bat eskaintzearen— egun aditz ez-ergatiboak deitzen direnez aritzea, hala nola *iduri, iritzi, iraguin, irauin(dú)*, etab.; Larramendik aditz neutroen artean sartzen ditu baina, jakina, euren jokoa aditz aktiboenei dagokie.

<sup>20</sup> Antoine d’Abbadie (1810-1897) XIX. mendeko euskal kulturaren sustatzaile nagusia izan zen. Irlandan jaio zen, aita euskalduna eta ama irlandarra zituelarik. 1851etik 1896ra bitartean Euskal Jaiak antolatu eta ordaindu zituen, nahiz eta ondoren ere ospatu ziren, I Mundu Gerra arte. Etiopian bizi izan zen ia hamabi urtez eta bertako hizkuntzei buruzko zenbait lan argitaratu zituen. 1852tik aurrera, Parisko *Académie des Sciences*-eko kide izan zen eta 1892tik aurrera Akademiaren buru. Halaber, 1870etik Parisko *Société Philologique*-eko buru izan zen. Abbadieri eta haren garaia buruzko xehetasunetarako, ik. Eusko Ikaskuntza & Euskaltzaindia (1998) eta Urkizuk (2002) bildutako bibliografia bikaina.

fondue avec des modifications actives ou passives, étaient cependant arrivés, par abstraction, à ne reconnaître qu'un verbe. Cette assertion, pleine de sens, se trouve réalisée dans la langue *Eskuara*. (Abbadie 1836: 2)

Darrigolen proposamenen zantzuak nabari daitezkeen arren, ideia berriak ere aurki ditzakegu Abbadieren aurreko pasartean. Darrigolekin lotzen dira hurrengoak: infinitiboak izen deklinatutzat hartzea; *niz* eta *dut* aditzak aipatzea; aditza kopula delako ikuspegia; euskararen aditzaren analisi logiko-filosofikoa formalki gauzatzeko delako baieztatzea. Hala ere, diferentzia nagusia da Abbadiek —euskalaritzan aurreneko aldiz— argi eta garbi adierazten duela euskararen aditz bakarra dagoela. Agian, goiko pasartea Darrigolen eta Chahoren ideien arteko zubitzat jo liteke; Chahok, ikusiko dugunez (§7), aditz bakarraren analisia xehetasun handiagoz garrantzitsua du.<sup>21</sup>

Aurreraxeago, Abbadie saiatzen da hizkuntzen bilakabiderako bide bat proposatzen, lau egoera bereizten dituelarik:

1. Lehenengo egoeran izenak eta euren flexioa besterik ez zegoen; izen konkretuak aurrenik eta abstraktuak, adjektiboak, kasuak eta abar gero. Adibidea Afrikako hizkuntzetan aurkitzen du:

Comme on peut le voir par l'éducation du sourd-muet, tout langage commence par des noms concrets; puis on apprend à généraliser: de là naissent lentement les noms abstraits et qualificatifs, les cas et les terminatives dont on trouve des vestiges dans toutes les langues. Tel est le langage de tant de peuplades nègres; c'est ainsi que des nations peu avancées bégayent leurs idées. (Abbadie 1836: 25)

2. Bigarren egoeran aditza sartzen da, izen-osagaietatik aterea. Abbadiek euskararen adibidea ematen du:

Pour arriver au verbe, au lien de la proposition, il a déjà fallu un grand perfectionnement dans une nation. Les noms abstraits de l'existence présente ou passée combinés avec les noms abstraits des personnes, auront formé les premiers éléments de la conjugaison, c'est-à-dire le présent et le passé. Les formes *niz* (*ni iz*), *nintzan* (*ni izan*), montrent les traces du nom qui s'est fondu avec l'*iz*, essence ou base du verbe. [...] Dès qu'on a possédé le verbe être, on l'a combiné avec les noms verbaux pour exprimer les noms d'action. Cette marche est naturelle, positive, et a dû se présenter d'abord dans l'enfance de la société. (Abbadie 1836: 25-26)

Formari dagokionez, Darrigolekin dagoen diferentzia hau da: Abbadiek aditza osatzen duten bi izenen konbinaketa ikusten du; Darrigolek, aldiz, *ni* + *-z* azterketa egin zuen. Oroit bedi Darrigolek erabat bereizten dituela *niz* aditza eta *izan* infinitiboa. Abbadieren ustez (eta Chahoren ustez ere bai), *iz* eta *izan* euskal aditzaren

<sup>21</sup> Oyharçabalek (1998: 445) ohartarazten duenez, paradoxikoa gertatzen da euskal gramatikagintzan aditz bakarraren teoria ageriki sartu dutenak batik bat zubereraren oinarritu diren bi egile izatea, hain zuzen, Abbadie eta Chaho. Izan ere, zubereraren ongi bereizten dira laguntzaile bakoitzari dagokion aditz jokatuabeak, nahasmendurako aukera itxuraz txikiagoa litzatekeelarik: *izan* iragangaitza (*niz* laguntzaileari dagokiona) eta *ikhen* iragankorra (*dut* laguntzaileari dagokiona).



oinarriak dira. Bestalde, eta filosofiaren lekuari dagokionez, aintzat har bedi Abbadiek darabiltzan “natural” eta “positibo” terminoen erabilera.

3. Hirugarren egoerak adizki “sinkopatuena”, laburtuen, agerpena du bereizgarri; hau da, adizki trinkoak, “où le nom verbal s’intercale dans le verbe dédoublé” (Abbadie 1836: 26). Euskarak honelako adizkien adibide zenbait eskaintzen ditu eta, bistan da, Abbadiek uste du, Darrigolek bezala, trinkoetan “aditz izena” adizkian tartekatzen dela. Hirugarren hau da orobat latinari zegokion egoera.

4. Azkenik, hizkuntza analitikoetarako aldakuntza dugu, frantsesa adibidez. Hizkuntza hauetan deklinabidetik preposizio sistema bat sortzen da eta aditz-jokoan izena apurka-apurka aditzetik “askatzen” da. Halaber, Abbadiek egoera honetan kokatzen du aditz aktiboaren sorrera, hau da, objektuarekiko komunztadura duten aditzen sorrera (*ibid.*).

Abbadieren ikuspegiaren hipotesi glotogoniko hau gizakien pentsamoldearen bilakabidearekin lotzen da: “Les langues des races noires, le basque, le latin et le français, peindront successivement cette transformation dans la manière de rendre la pensée” (*ibid.*). Hogeit bat urte geroago, Alemanian Schleicher-ek hizkuntzen eta gizartearen bilakabideari buruzko teoria arrakastatsu bat proposatuko zuen (ik. Gómez 1989 eta bertan aipatutako bibliografia). Abbadierenarekin erkatuz gero, zenbait antzekotasun ditu, baina baita diferentzia nabarmen batzuk ere. Nagusiki bi dira: Schleicher-ek azaltzen duen bilakabidea nahitaezkoa da, naturala; Abbadieren ikuspegiaren, ordea, ez dago horrelakorik, bilakabide historiko hutsa da (Oyharçabal 1998: 448). Bigarrenik, Schleicher-ek proposaturiko bilakabidea R. S. Wells-ek (1987: 58) *acmenistic* deitu zituenen gisakoa da —hots, lehenik hobekuntza garai bat dago eta ondoren okertze bat—; aitzitik, Abbadieren lanari ikuspuntu *progressivist* bat antzematen zaio —non egoerarik onena azkena baita—: “Les nations les plus complexes par leur origine, les langues les plus hétérogènes par leurs emprunts semblent être appelées à guider l’avenir de l’humanité. [...] Les langues d’analyse ont pris le dessus dans le monde” (Abbadie 1836: 27-28).

## 7. Chaho (1836)

Aurreko atalean esan bezala, Joseph Augustin Chahok<sup>22</sup> “Grammaire euskarienne” idatzi zuen, Abbadieren “Prolégomènes”en ondotik agertzen dena. Chahok, Lécluse eta Darrigolen moduan, aditzaren banaketa bitarra jasotzen du; alabaina, Abbadiek bezala, *dut niz*-en aldaeratzat hartzen du. Horrela, Chahoren iritziz, euskaran aditz bakarra dago, aditz substantiboa. Eta aditz substantiboaren erroa *iz* da. *Iz* erroa eta *hitz* izena erlazionatzen ditu, eta azken hau zeharka Jainkoarekin lotzen du. Baina Chahok, bestalde, hitz mota bakarra onartzen du, izenak (*noms*); hau da, deklina daitezkeen hitzak. Beraz, aditza ere izenen sailean sartzen du.<sup>23</sup> Horrelaxe hasten da bere gramatikan aditzari eskainitako atala:

<sup>22</sup> Chaho (1811-1858) ezagunagoa da, agian, idazle erromantikoa izan zen aldetik; besteak beste, Aitorren alegia idatzi zuen eta bigarren karlista gerratean Euskal Herrian zehar egindako bidaia baten kontakizuna utzi zigun (Chaho 1836b). Autore honi buruz, ik., bereziki, Juaristi (1984-85) eta Urkizu (1992).

<sup>23</sup> Cf. “La langue euskarienne ne reconnaît qu’une seule espèce grammaticale de mots (*hitzak*), qui est celle des noms (*izenak*), régie par un système universellement régulier de déclinaison” (Chaho

Le mot ou *hitz*, créateur, le verbe fécond *IZ*, modifié par la déclinaison et combiné avec les divers pronominaux, forme à lui seul tout l'appareil de la conjugaison euskarienne. (Chaho 1836a: 51)

Analisi honen arabera, *niz* adizkia *ni* izenordaina gehi *iz* hitza besterik ez da, Abbadiek ere adierazi zuenez. Ohartarazi behar da, halere, Chahoren analisia ez da goela Darrigolen hartatik guztiz berezirik; azken batean, biek ikusi uste dute *niz* adizkian *-z* deklinabide-marka. Izan ere, Astarloaren ideiak gogora ekartzen dituen azalpen batean, Chahok *iz* erroaren honako interpretazio hau eskaintzen du:

La vocale *i* dont l'émission exige la plus grande contraction de l'organe vocal, et qui se trouve être la note la plus aiguë et la plus vibrante, le son le plus élevé de l'échelle parlée, se combine en euskarien avec la forme déclinaive *z*, signifiant appartenance, pour exprimer l'idée de la vie et de l'existence, *iz* est, sois, soit. (Chaho 1836a: 10)

Gramatika kategoria bakarra izaki, aditzak ere deklinatzen dira eta izenak, aldiz, joka daitezke. Ideia honetan oinarritzen da, *iz* errotik abiatuz eta deklinabide edo eratorpen atzizkiak erantsiz, adizki jokatu gabe deitzen ditugunak azaltzeko, hala nola (ik. Chaho 1836a: 170-73):<sup>24</sup>

- a) *iz* + *-an* ("positif", hots, inesiboa) = *izan*
- b) *izan* + *-en* (genitiboa) = *izanen* (geroaldia eta baldintzazko modua)
- c) *izan* + *-ik* (ablatiboa) = *izanik* (frantsesezko partizipioaren ordaintzat duena)
- d) *izan* + *-a*, *-aren*, *-ari*,... ("défini singulier") = *izana*, *izanaren*, *izanari*...
- e) *iz* + *-te* ('ugaritasuna' adierazten duen atzizkia) = *izate* ('existentzia' adieraziko lukeena) eta, berau deklinatuz gero, *izatean*, *izaten*, *izatera*, *izatetik*, *izatia*...

Chaho joko perifrastiko eta trinkoen arazoaz mintzo da, ohi duen estilo iluminista erabiliz. Hiru joko mota bereizten ditu: "abstraktu eta substantiboak" existentzia eta jabego absolutua adierazten ditu eta, berauek Jainkoaren atributuak direnez, gizakiak ezin du erabili eta egiatan joko hau ez da sekula erabiltzen. Bigarrenak, analitiko edo "elkartua" izendatuak, existentzia osagabe eta iheskorra adierazten du, gizakien ezaugarriak:

Tout nom se décline, toute déclinaison se conjugue dans la belle langue Eskuara. Les divers modes de la conjugaison abstraite et substantive expriment plus particulièrement l'existence et la possession absolues, qui sont les attributs de

1836a: 35), edo beste pasarte hau: "Nous savons déjà que le radical *iz* est un appellatif harmonique que la déclinaison modifie: le système euskarien ne reconnaissant qu'une seule espèce grammaticale de mots, le verbe lui-même se trouve rangé dans la classe de noms; il n'a point d'infinif" (1836a: 170). Ik. orobat Oyharçabal (1998: 439).

<sup>24</sup> Gainera, edozein hitz, deklinatua zein ez, joka daiteke *-tu* atzizkia atxikiz gero; cf. "Le *tu* leur imprime le sens actif que leur simple appellation ne saurait comporter" (Chaho 1836a: 176) eta "Non-seulement tous les mots euskariens sans exception prennent valeur active et se conjuguent avec un brillant cortège de relations déclinaives et de modifications secondaires, mais encore chacune de ces modifications, de ces relations marquées par une terminative, se conjugue à son tour" (1836a: 178). Chahok adibide batzuk eskaintzen ditu: *hebenkotu niz* / *dut*, *hebenkoarentu niz* / *dut*, etab. Honen antzeko ideia bat aurkitu genuen Astarloaren lanean (ik. 7 oh.).

Dieu; mais dès que le verbe prend une valeur auxiliaire dans la conjugaison composée, les temps se divisent et se modifient de manière à exprimer les situations accidentelles, qui sont le partage de toute existence fractionnelle et passagère, comme l’homme. (Chaho 1836a: 171)

Bigarren joko mota honetan aditz bakarrak laguntzaile gisa jokatzen du, beste hitz batzuekin elkartzen delarik (infinitibotzat hartzen ez dituen hitzak, jakina; ik. 23 oh.): “*Niz* accompagne alors les modifications neutres ou passives. *Dut* caractérise toutes les conjugaisons actives et régissantes” (1836a: 156). Azkenik, joko sintetiko edo “sinkopatua” aipatzen du eta Darrigolek bezalaxe aztertzen: “La fusion du nom avec le verbe forme la conjugaison syncopée” (1836a: 180-81).

## 8. Inchauspe (1858)

Inchauspe kalonje zuberotarra<sup>25</sup> da, ezbairik gabe, euskarak aditz bakarra duela sutzukien defendatu zuen euskalaria. Aski da bere *Le verbe basque* liburuia (Baiona/Paris, 1858) nola hasten duen irakurtzea, Bonaparte printzeari egindako eskaintzaren ondoren honelaxe esaten baitu: “La langue basque n’a qu’un verbe” (Inchauspe 1858: 1). Izan ere, liburuaren gainerako orrialdeetan baieztapen hori frogatzen ahalegintzen da. Halaber, hainbat eta hainbat taula eta paradigmaren birtartez, euskal aditzaren aberastasuna ere erakutsi nahi du, hala modu, nola denbora, pertsona eta gainerakoei dagokienez.

Inchauspek bi boz edo eratan banatzen du aditz bakarra, boz iragangaitza (*da*) eta boz iragankorra (*du*),<sup>26</sup> eta garbi utzi nahi du ez direla bi aditz desberdin. Berau frogatze aldera, ohartarazten du euskaraz aditz iragankorrek (edo aktiboek) iragangaitzari dagozkion laguntzaileak hartzen dituztela eraikuntza bihurkari eta sasi-pasi-boak osatzeko:

Ces deux voix sont le complément l’une de l’autre et ne doivent être considérées que comme composant un seul verbe. En effet, la même action a besoin des deux voix, de même qu’elle a besoin des divers modes, pour exprimer ses divers rapports [...]. Pour rendre *il l’a offert*, on dit *eskéntu* DU avec la voix transitive; pour exprimer *il s’est offert*, *eskéntu* DA avec la voix intransitive; *il le commençait* se dit *hásten zian*; *il commençait à*, *hásten* ZEN; *il l’aura perdu*, *gáldu* DUKE; *il se sera perdu*, *gáldu* DATE, etc. (Inchauspe 1858: 1)<sup>27</sup>

<sup>25</sup> Emmanuel Théodore Inchauspe (1816-1902) Bonaparte printzearen laguntzaile izan zen eta, haren enkarguz, zenbait lan erlijioso itzuli zituen zubererara. Beste lan erlijioso batzuen egilea izan zen eta 1864an Axularren *Geroko Geroren* hirugarren argitalpen zuzendu bat atera zuen (cf. Villasanté 1979).

<sup>26</sup> Aktibo-pasiboaren orde, bozei dagokiela “iragankor-iragangaitz” terminoak erabiltzea ez da inondik ere Inchausperen asmakizuna, ezta berak baino lehenago terminoak euskarari aplikatu zizkion Zaballarena ere (1848). Zaballaren hitzak irakurriz gero —“A esta ultima [pasiboa —R.G.] llaman también neutra, media é intransitiva: y á la activa transitiva” (Zabala 1848: 1)—, argi dago terminologi nahasketa artean hedatuta zegoela (cf. Gómez Ascencio 1985 eta, batez ere, Iglesias 1991).

<sup>27</sup> Cf., orobat, “Ces noms, que nous appelons transitifs, se conjuguent avec les formes transitives et intransitives. Lorsqu’ils se conjuguent avec les formes transitives, leur action se porte sur un objet étranger au sujet, et alors ils rendent le sens des verbes appelés actifs en français. Lorsqu’ils se conjuguent avec les formes intransitives, l’action qu’ils expriment retombe sur le sujet, et alors ils rendent le sens des verbes appelés en français *réfléchis* et *passifs*” (Inchauspe 1858: 21).

Aditzaren definiziorako, bidenabar ematen duena, irizpide sintaktikoa baliatzen du nagusiki, Port-Royaleko gramatikan bezalatsu, eta formala bigarrenik:

Le rôle du verbe en basque est de lier les idées exprimées par les noms et d'en indiquer les divers rapports, et ces rapports s'exprimant par les formes, les modes et les voix, l'ensemble de ces formes, de ces modes et de ces voix constitue le verbe complet (1858: 1-2).

Esan gabe doa, pasartearen hasieran aipatu izenen artean Inchauspek *noms verbaux* izendatzen dituenak daude —adizki jokatu gabeak alegia— eta aurreko autoreen moduan ez du uste aditzak direnik: “Nous ne comptons pas l'*infinitif* parmi les modes du verbe; les terminatifs que, par analogie, on a cru devoir rapporter à ce mode, appartiennent au nom verbal” (1858: 3).

Nahiz eta aditzaren definizioan Inchauspek ez zuen baieztapenaz deus ere esaten, testuan aurrerago agertzen da, aditz izenen eta benetako aditzen arteko aldea zehaztu behar duelarik:

On ne conçoit pas de verbes sans affirmation, sans indication de mode, de temps et de personne; or ces termes [aditz izenak — R.G.] exprimant simplement une idée, une manière d'être ou d'agir, sans aucune affirmation, sans indiquer aucun rapport soit au temps, soit aux personnes, sont dépourvus des propriétés essentielles du verbe, tandis qu'ils ont tous les caractères des substantifs et des adjectifs: ils se déclinent au défini, à l'indéfini, au singulier et au pluriel (1858: 7).<sup>28</sup>

Bestalde, Inchausperen iritziz, izen eta adjektibo horiei “aditz izenak” dei diezaiekegu, aditzarekin lotzeko aproposak direlako eta ekintza edo egoera bat adierazten dutelako. Delako ekintza objektu bati helarazten badiote, boz iragankorarekin (*dut*) lotuko dira. Aldiz, ekintza subjektuaren beraren gainean islatzen bada —pasibo eta bihurkarietan bezala— edo inork jasotzen ez badu —neutroetan—, aditz izenak boz iragangaitzarekin (*niz*) lotuko dira.

Inchauspek eskaintzen duen aditz trinkoen —edo, berak deitu bezala, *formes contractées* direlakoen— analisia Darrigol eta Chahoren lanetan ikusi berri ditugunak bezalakoxea da (Inchauspe 1858: 445-46) eta, hortaz, ez du merezi hemen xehetasun gehiago ematea.<sup>29</sup>

<sup>28</sup> Baieztapen honen ostean adizki jokatu gabe guztien analisi xehe bat dator eta, Darrigolek bezala, izen edo adjektibo deklinatutzat hartzen ditu Inchauspek. Aski da hurrengo pasartea irakurtzea bi egileon proposamenen arteko antzekotasunez jabetzeko, batik bat euskarazko adibideak frantse-sera nola itzultzen dituzten aintzat hartuz gero (cf. 12 oh.): “Les noms verbaux indiquent les diverses manières d'être et d'agir; le verbe unique exprime les relations de ces manières d'être et d'agir avec les personnes et les temps. Ainsi, dans *ebiltzen niz, je suis en marche, je marche*, — *ebiltzen, en marche*, exprime le genre d'action qui se fait; *niz, je suis*, exprime le sujet de cette action et le temps présent” (Inchauspe 1858: 12).

<sup>29</sup> Nolanahi ere den, ez dut aipatzeko utzi nahi *diot, dioát, diózu...* adizkiei buruz proposatzen duena. Gainerako aditz trinkoetan ez bezala (*noa = joan + niz, darámat = eráman + dut,...*), forma hauetan *érran* partizipioa ikusi ezin baitu, latinetik edo erromantzetik letozkeela adierazten du, *dicere*-tik alegia (cf. gazt. *digo*): “Les formes *diot, dioát, dioe, diok, dion, diózu, diozie*: je dis, ils disent, tu dis, vous dites, sont empruntées au latin ou à l'espagnol; elles peuvent parfaitement être remplacées par la conjugaison régulière de *érran*, mais elles n'en sont pas composées como les autres formes régulières” (Inchauspe 1858: 446).

Liburua amaitzeko, Inchauspek apologi kutsua duen solasa dakar. Bertan Jainkoari —hots, Aditzari, “Verbe Éternel” deitzen baitio— zuzentzen zaio eta iradokitzen du euskal aditzaren perfekzioak hizkuntza Jainkoaren dohaina dela frogatzen duela, orobat, euskaldunek euren hizkuntzan gorde ahal izan dituztela lehen hizkuntzaren ezaugarri batzuk —gainerako hizkuntzek galdu dituztenak—, egiazko fedeari eusten jakitegatik:

Au milieu de cette universelle dégénérescence du langage, l’esprit s’arrête avec complaisance devant ces magnifiques restes de grandeur et de perfection que nous offre la langue Basque et qui nous donnent une idée de ce que pouvait être la langue de l’homme avant sa chute [...] [T]ous ces caractères ne sont-ils pas autant de traits divins qui nous révèlent encore, ô VERBE incréé, votre manifestation dans la parole humaine? — Est-ce à sa fidélité au culte du vrai Dieu que le peuple Basque doit de les avoir mieux conservés que tous les autres peuples du monde? Nous aimons à le croire. (1858: 508)

## 9. Bonaparte (1869, 1876, 1877)

Bonaparte printzeak,<sup>30</sup> han-hemenka utzi zizkigun gramatika-lanetan, euskal aditzaren sailkapen bat baino gehiago proposatu zituen. Sakabanatze honek maizegi haren aditz-teoriaren ikuspegi orokor bat erdiestea zailtzen du. Bonaparte, oso *sui generis* bada ere, aditz bakarraren teoriaren aldekoa da. Ez du sekula baieztatzen benetako aditz bakarra dagoenik, baina aditz formen arteko hierarkia argi bat ezartzen du, adizki zenbait beste batzuk baino huts edo garbiagoak direla adieraziz eta, horretarako, arazo formal eta apologetikoak —are metafisikoak ere— nahasten dituen argudio sorta bat erabiliz.<sup>31</sup> Beste alde batetik, adizki iragankorrek beti objektua adierazten duten Darrigolen ideia bere aditz teoriaren erdigunean kokatzen du Bonapartek. Hurrengo lerroetan bi gai hauek ahal den modurik laburrenean azaltzen saiatuko naiz.

Adizki jokatuaren sailkapenaren barnean Bonapartek izen adiztuen (*noms verbisés*) eta aditz-bukaera hutsten (*terminatifs (verbaux) purs*) arteko bereizketa egiten du du. Lehenbizikoek izen-etorkiko erroa dute; bigarrenek, aldiz, ez dute inolako errorik agertzen:

a. Aurreneko sailean euskal aditz eta laguntzaile gehienak sartzen dira: adizki trinkoak, “*izan* iragangaitza” (*naiz, da*), eta *iraun*<sup>32</sup> (*diro, ziroen, diroke*), *adi* (*dadin*,

<sup>30</sup> Aski ezaguna denez, Louis-Lucien Bonapartek (1813-1891), Napoleon I.aren ilobak, euskalkien lehen sailkapen zehatza burutu zuen. Euskalki guztietako laguntzaileez inguratu baitzen, testu erlijiosoen hainbat itzulpen biltzea lortu zuen. Haietariko batzuk bakarrik moldiztegitatu zituen (ik. Arana Martija 1989), 1870ean Frantziako III. Inperioa desagertzearekin diru baliabideak galdu zituelako. Euskal aditzari buruzko argudio teorikoak zenbait artikulutan (ik., batez ere, Bonaparte 1876, 1877, 1884) eta *Le verbe basque en tableaux* (1869) bere lan nagusian sakabanatuta daude; oraingoz ez dugu Printzearen aditz teoriari buruzko monografia sakonik, baina hurbilketa aski xehe baterako ik. Suárez (2000). Bonaparteren bizitzaz eta gainerako lanez, ik. Gómez (1989) eta bertan aipatutako bibliografia.

<sup>31</sup> Euskal aditzari buruz idatzi zuen liburuaren azalean (Bonaparte 1869) honako pasarte bibliko hau sartzen du, bere asmoen aitortmentzat har daitekeena: “In principio erat Verbum.”

<sup>32</sup> Ekialdeko adizki laguntzaile hauen erroa *iraun* dela uste du Bonapartek (1876), van Eysek (1874, 1875) proposatu zuen *eroan*-en aurka (ik. orobat Gómez 2002b).

*nadila*) eta *ki*<sup>33</sup> (*dakion*, *zekiola*) laguntzaileak; Bonaparteren ustez, “*izan* iragankorra” deitua (*dezadan*, *dezake*)<sup>34</sup> eta *egin* (*dagidan*, *dagizula*) bi sailen arteko zubia lirateke, ez baitute indikatiboko adizkirik (Bonaparte 1869: 159).<sup>35</sup> Printzeak *izan* iragangaitzaren eta *izan* iragankorraren arteko bereizketan Inchauspek proposatu bi bozak frogatzeko oso argudio egokia aurkitzen du:

2° que le nom verbal *izan*, dans la majorité des dialectes,<sup>36</sup> a le sens de *être* et celui de *avoir*; on sera forcé de conclure, que dans les noms verbisés les plus importants et les plus usuels du basque, le radical du transitif est le même que celui de l'intransitif, et que ce sont bien deux voix et non pas deux verbes que cette langue nous présente en *nintzan* ‘j’étais’ et en *nezan* ‘que je l’eusse’ (*je l’avois*, en vieux labourdin). (Bonaparte 1869: xxvii)<sup>37</sup>

b. Aditz-bukaera hutsen bereiztea, bestalde, Bonaparteren aditz-teoriaren funtsezko puntua da. Errorik gabeko adizkiak dira; *izan* ere, adizkiok izenordainez (subjektua, objektu zuzena, zeharkako objektua, alokutiboak<sup>38</sup>), modu- eta denbora-hizkiez eta “letra eufonikoez” osaturik daude.<sup>39</sup> Eta osagai hauen guztien elkartzea da, hain zuzen ere, *aditza* sorrarazten duena eta, horrela, aditzari baiezta-pena adierazteko gaitasuna agerrarazten diona:

Les éléments constitutifs des terminatifs verbaux consistent essentiellement en pronoms soit à l’état de sujet, soit à l’état de régime direct ou indirect, soit à celui d’allocation. Ils se trouvent tantôt au singulier, tantôt au pluriel. Des lettres pronominales, tenant lieu de pronom, des syllabes caractéristiques de mode ou de futur, des lettres euphoniques pour faciliter l’union intime de tous ces éléments, complètent la série. Au moment de l’union, le Verbe avec sa qualité essentielle, l’affirmation, se manifeste. (Bonaparte 1869: 159)

<sup>33</sup> Adizkion erroa *egon* edo *egoki* (Bonaparte 1877: 42) *izan* litezke, baina *ki* bera ere badu izentzat (1877: 44).

<sup>34</sup> Jakina, gaur egun azken forma hauek *\*ezan* aditz berreraikiari dagozkiola pentsatzen da. *\*Ezan* aditz laguntzailea, baita *\*edin* ere, van Eysek berreraiki zituen bere gramatika konparatzailean (1879: 196 eta hh.). Laurogeietako hamarkadaren bukaeran aditz hauek leku handia hartuko zuten Berlingo *Euskara* aldizkarian Bonaparte, van Eys eta Vinsonek Etxepare eta Leizarragaren hizkeren inguruan *izan* zituzten eztabaidetan (lan hauen aipamenerako, ik. Gómez 1989).

<sup>35</sup> Cf. “Les deux noms verbaux *izan* et *egin* ne peuvent donc être assimilés aux autres que morphologiquement. Ils forment classe à part, quant au sens, et servent, pour ainsi dire, de transition entre les terminatifs verbaux purs et les noms verbaux ordinaires” (Bonaparte 1869: 159). Alta bada Bonapartek ez du inon argiegi azaltzen zertan datzan “trantsizio” izate hori.

<sup>36</sup> Oroit bedi 21. oin-oharrear esandakoa.

<sup>37</sup> Cf. orobat Bonaparte (1876: 8): “Ce nom verbal [*izan* - R.G.] qui signifie en même temps ‘eu’ et ‘été’ dans cinq des huit dialectes basques, de même que *ill* ou *hil* signifie ‘mort’ et ‘tue’, est un argument très-favorable aux deux voix dans le verbe”.

<sup>38</sup> Diodan, bidenabar, “alokutibo” terminoa Bonapartek berak sartu zuela euskalaritzan, euskarari buruzko bere lehenbiziko lanean (Bonaparte 1862: 19).

<sup>39</sup> “Letra” eta silaba hauen guztien zerrenda osoa da, euskalki bakoitzean jasaten dituzten aldakuntzekin batera, Bonapartek bere liburuaren taulen aurretik eskaintzen dituen “Observations” direlakoen gaia (1869: ix-xxxii). Nabarmendu nahi nuke Bonapartek ez diela batera begirunerik erakusten hots aldaketa erregularrei —adiera hertsian, garai hartan ezin baita oraingoz “lege fonetikoetz” mintzo—; aurreraxeago Printzearen jokamolde honen adibide bat eskainiko dut.

Garbitasun hau, aditzik gabeko aditz hau, oso deigarri gertatu zitzaion Bonaparteri, eta horrexegatik eskaini zion Printzeak leku berezia bere ohar teoriko urrietan, kutsu metafisikorik falta ez bazaio ere:

Le Verbe pur est pour nous quelque chose d’insaisissable, qui se manifeste toujours au milieu d’éléments matériels fort saisissables et qui, loin d’en être le produit, les domine de toute sa puissance en les vivifiant. Le Verbe c’est la Vie. (*ibid.*)

Alderdi formalari bagagozkio, Bonapartek proposatzen du *dut* bezalako aditz-bukaera hutsetan, betiere iragankorrak izaki, hirugarren pertsonako objektu zuzena adierazten duen erakusle bat aurkitzen dugula:<sup>40</sup>

De toutes les permutations que l’on observe dans le verbe basque, celles des syllabes *au*, *dau* sont sans contredit les plus nombreuses et les plus importantes. Ce sont bien ces syllabes en effet, ou leurs permutations (et c’est en cela surtout que consiste notre théorie du Verbe basque) celles qui représentent le régime direct singulier de troisième personne, *au* n’étant lui-même que le démonstratif français *ceci*. (Bonaparte 1869: xi)

Hau da, Bonaparteren iritziz, *dut* = *dau* + *t*, *nau* = *ni* + (*h*)*au*, etab. Beste alde batetik, *dau* erakuslearen aldaera bat baino ez da (*au*, *hau*, *haur*, *gau*, *kau* eta *kaur* gainerako aldaerekin batera)<sup>41</sup> eta aditz-bukaeretan bilakaera franko izan ditzake euskalki, azpieuskalki eta hizkeren arabera:

Nous disons donc que la syllabe *au*, telle qu’elle existe dans son intégrité primitive en *dau* ‘il l’a’ du bisciaïen, peut se transformer en *a*, *e*, *i*, *o*, *u* *ü*, *ai*, *ei*, *eu*, *aa*, *ao*, *ie*, *ii*, *io*, *iu*, *iü*, *oo*, *üi*, *üü*. (Bonaparte 1869: xi)

Ondoren, Bonapartek bilakaera guztien adibideak ematen ditu, bakoitzaren geografi jatorria ere zehazten duelarik.

Hortaz, Chahoren analisiaren oso antzekoa dugu Printzearena, nahiz eta teoria konplexuago batean txertaturik egon. Azken batean, bien helburua adizki iragankorretan objektuak nahitaez agertu behar izatea formalki azaltzea da. Eta, Bonaparteren kasuan, aditz-bukaera hutsak deiturikoez errorik ez dutela aldarrikatzea. Azken ideia honekin Vinson edo Zabala bezalako autoreen kontra agertzen zen; lehenak (Vinson 1868) *-u*- bokala *uk(h)an* aditzaren erroa zela zeritzon eta bigarrenak (Zabala 1848), aldiz, *eduki* aditzarena.<sup>42</sup>

Adizki iragankorretako erakuslearen beste adibide bat Bonapartek “*izan* iragan-korra” deitzen duen aditzean (= \**ezan*) kausitzen dugu:

Le changement de l’*i* initial de *izan* en *e* dans *dezan*, est dû au démonstratif qui s’amalgame, pour ainsi dire, avec l’adjectif verbal. (Bonaparte 1876: 8)

<sup>40</sup> Berebat zeharkako objektuari dagokionez, non *-o-* < *oni* proposatzen baitu (Bonaparte 1869: 159).

<sup>41</sup> Eta *dau*, bestalde, *gau*-ren aldaera litzateke, Printzearen teoriaren bertsioetariko batean behinik behin (Bonaparte 1877: 37).

<sup>42</sup> Esan gabe doa, gaur egun *dut* paradigmako adizkiak \**edun* aditz berreraikiari atxiki nahiago da, *uk(h)an* eta *eduki* haren partizipio eratorriak lirakeelarik.

Alegia, *dezan* “izen adiztuan” *dau* erakuslea, *iz(an)* “aditz izena” eta subjuntiboaren ezaugarria den *-n* kausitzen ditugu. Puntu honetan ere hurbiltzen zaio Bonaparte Chahori, baita *iz* erroa (*h*)*itz* izenarekin parekatzen duelarik (Bonaparte 1877: 42); oroit bedi latinean *verbum* hitzak duen esanahi bikoitzaz.

Bonaparteren aditz teoria zail da kokatzen bere garaiko ingurunean, hizkuntzalaritzan metodo historikoa garatzen ari zen garai bati baitagokio. Badakigu Bonapartek ederki ezagutzen zituela hizkuntzalaritzaren azken aurrerapenak —baina, jakina, ezagutzeak ez du esan nahi ados egotea—. Zernahi gisaz, ezin dugu zuzenean lotu gramatikari filosofoen tradizioarekin ere (Darrigol, Chaho eta Inchauspe bezala). Aintzat hartzeko faktoreak dira, orobat, euskarak Bonapartegan sor zezakeen lilura eta Printzearen kristau fede sakona, hala nola Inchausperen eragin nabarmena eta, oro har, gramatikari euskaldunen teoriakiko agertzen zuen hobespena, ziurrenik teoria osoa azaltzeko adinako arrazoiak ez izanagatik.

Laburbilduz, bistan da Bonapartek, euskaraz aditz bakarra dagoenik sekula esan gabe ere, aditz bakarraren teoriaren zenbait alderdi jaso zituela, hala nola aditzak ‘baieztapena’ edo ‘existentzia’ adierak<sup>43</sup> izatea, edo adizkiak funtsean izen-etorkikiko osagaietz eratzea, ondorioz benetako aditz-errorrik ez dagoela iradoki zuelarik.

## 10. Azkue (1891)

XIX. mendearen hondarrean, gramatika logiko-filosofikoen berpizte bat azaltzen zaigu, baina oraingoan Hego Euskal Herrian gertatzen da. Haren pizgarria, segurki, 1883an Astarloaren *Discursos filosóficos* argitaratzea izan zen, mende hasieran idatziak izan arren ordu arte argitaragabe baitziren. Joera honi atxikitzen zaizkion egileek euskararen ustezko lehengo egoera berreraiki nahi dute, bai eta erabilarazi ere, *a priori* ezarritako espekulazio logikazaleetan oinarrituz (Alberdi 1989). Berpizte honen lehen emaitza *Euskal Izkindea* izan zen, Azkuek<sup>44</sup> Bizkaiko Diputazioaren Euskarako katedrarako prestatu zuen gramatika-liburua hain zuzen ere (Azkue 1891). *Izkindearen* iturri nagusia, Lakak (1986: 712) nabarmendu zuenez, Astarloaren *Discursos filosóficos* lana da, hain zuzen ere, nahiz eta euskal aditzaren azterketari dagokionez Azkue sarritan apaiz durangarraren proposamenetatik urruntzen den.

Euskal “aditz miragarri ta laungoikozko au” (Azkue 1891: 145) behar bezala argitzeko zailtasun han-hemen errepikatuak aipatu ondoren, Azkuek aditzaren honako definizio hau eskaintzen, eta azaltzen, du:<sup>45</sup>

<sup>43</sup> Bigarren esanahia, espero zitekeenez, *izan* iragangaitzean aurkitzen du Printzeak: “Quant aux terminatifs intransitifs à base de *izan*, nous pensons que l’adjectif verbal auquel ils s’unissent représente un simple attribut, tandis qu’ils se trouveraient contenir *izan* dans le sens d’existence” (Bonaparte 1876: 8).

<sup>44</sup> Resurrección M<sup>a</sup> Azkue (1864-1951) XX. mendeko euskal hizkuntza eta kulturaren ikertzaile handienetakoa izan zen. Haren lan eremu nagusiak hizkuntzalaritza, literatura, musika eta folklorea izan ziren. Beste hainbat lanen artean, euskara batua sortu arte hizkuntzalarien zein idazleen ezinbesteko tresna izan zen hiztegia ondu zuen (Azkue 1905-1906), baita euskal morfologiari buruzko lan ospetsu bat ere (Azkue 1925). Halaber, 1918an Euskaltzaindiaren sortzaileetarikoa bat izan zen eta, hil arte, euskaltzainburu. Azkueri buruz, besteak beste, ik. Arana Martija (1983) eta Mítxelena, Caro Baroja & Tovar (1966).

<sup>45</sup> *Euskal Izkindea* bi zutabetan antolatuta dago: ezkerrekoan, Azkuek berak proposatutako hizkuntza eredu erabiliz idatzitako testua dugu (Dodgsonek *azcuence* izendatu zuena, alegia, eta ia ulertezina dena); aldameneko zutabeaz gatzelaniazko bertsioa dugu, maiz euskararen sintaxiari lotuegi badago ere.



«Gauzen izamen langotuan edo langogean itz agergarria» daila aditza uste daut.

Gizan izateak baino ezdagoz. Langotasun ta bezte gainerantzeko guztiak izateetan bizi daiz. Izate guztiak *izakizuna* ta *izamena* daukez: izakizuna’ izenak agertu daroe, izamena’ aditzak. Izamena (bardin izakizuna bere) langotua nai langotu bagea izan leike: gertaldi biotan *aditza* esan oi dakio izamena agertuten dauen itzari, estu estuan aditz egiazko bat baino ezegonarren.

Creo que verbo es «palabra expresiva de la existencia calificada ó no calificada de las cosas.»

En la naturaleza no hay más que seres. Las cualidades y todos los demás accidentes en los seres viven. Todos los seres tienen *esencia* y *existencia*: la esencia suelen manifestar los nombres, la existencia los verbos. La existencia (como también la esencia) puede ser calificada ó bien no calificada: en ambos casos se llama verbo á la palabra que suele expresar la existencia, aunque en rigor no haya sino un solo verbo.

(Azkue 1891: 146)

Jakina, Azkuek aipatzen duen “aditz egiazko” hori *izan* aditza da, “izamen langogea edo utsa” (*ibid.*) adierazten duena. Azkuek honela jarraitzen du: “bezte aditz guztiak izamen langotuak agertuten dauez, edo obeto esateko, izamenan langotasunak / todos los otros verbos suelen manifestar existencias calificadas, ó para decirlo mejor, cualidades de la existencia” (*ibid.*). Hauxe baita Azkuek euskal aditzean ezarritako lehen bereizkuntza: “langogea=no calificado (sustantivo)”, *izan* alegia, eta “langotuak —calificados”, hau da, gainerakoak. Bistan da, Azkueren sailkapena aditz substantiboaren eta aditz adjektiboen arteko bereizkuntza ezaguna baino ez dugu (cf. § 3). *Izan* aditz substantiboari dagokionez, bestalde:

Egintza bi daukaz aditz onek: batzuetan bakarrik oituten dai, bezte batzuetan aditz langotuak mugatu ta irabiateko balio izaten dau. Bakarrik oituten dainean’ *izamen utsa* agertu daroa, erderaz *ser*. Bezte aditzen laguntzailatzat oituez gero’ erderazko *haber* ta *haberse* n agerkizuna euki daroa: *haber*’ langotasun biralkoiakaz batuten dainean, eta langotasun euskoiakaz *haberse*.

Este verbo tiene dos oficios: á veces se emplea sólo, otras veces suele servir para limitar y conjugar los verbos calificados. Cuando se emplea sólo suele significar *existencia pura*, en otra lengua *ser*. Empléandose por auxiliar de los otros verbos, suele tener la significación de *haber* y *haberse*. *haber* cuando se junta con cualidades transitivas, y *haberse* con cualidades intransitivas.

(Azkue 1891: 148)

Hortaz, Azkueren ustetan laguntzaile guztiak, hala iragangaitzak nola iragankorrrak, *izan* aditzari dagozkio, zeinahi modu edo denbora dutelarik ere (Chaho eta Inchausperen ildo beretik, hain zuzen). Izan ere, aditz “langotu” guztiak, *izamen* mende baitira, ‘existentzia’ adierazten dute. Bestela esanda, Azkuek ezaugarri horri egotzen dio euskal aditz-jokoa batez ere analitikoa izatea:

Augaitik' aurrerantzean ikusiko dainez, *izan* aditza edo aditz langogea bear daue aditz guztiak irabiateko. Euskaraak daukan lege au iakituriz bereriko legea dai, gizako legea dailako; gizako legeak barriz euren Egile Iakin-tsuari iarraitu daroakioe. Gizako legea dai' langotasunak euren ezin bizi al izatea, izateetan bizitokia eukitea: aditz langotuak edo izamenen langotasunak *izatean* (*izan* aditzean) irabia ta bizi bear daue.

Por esto, como se verá en adelante, todos los verbos necesitan para ser conjugados el verbo *izan* ó el verbo sustantivo. Esta ley que tiene el eúskara es ley llena de sabiduría, porque es ley de naturaleza; y las leyes de la naturaleza siguen á su Sabio Criador. Es ley de la naturaleza el que las cualidades no puedan vivir en sí mismas y que tengan su vivienda en los seres: los verbos calificados ó las cualidades de la existencia deben conjugarse y vivir en el *ser* (en el verbo *izan*).

(Azkue 1891: 147)

Aurreko pasartean nabari daitekeenez, Azkuek, elizgizona izaki, ez du aukerarik galtzen erlijioarekin lotutako argudio apologetikoak behin eta berriz erabiltzeko. Honela bada, laguntzaile guztiak *izamen* sartzen dituelarik, Azkuek euskal aditz-jokoaren aniztasuna eta aberastasuna erakutsi ahal ditu, modu erraz bat baliatuz eta, aldi berean, euskararen jainkozko izaera aintzat hartuz (Laka 1986: 729). Hala ere, gramatika-liburuaren beste toki batean, Azkuek onartzen du laguntzaile bat baino gehiago daudela. Zehazkiago, Astarloaren (1883: 481-84) ideia bati jarraituz, Azkuek proposatzen du edozein aditz trinkok balio duela laguntzailearen eginkizuna betetzeko.

Beste alde batetik, eta espero zitekeenez, Azkuek euskararen aditz irregularrak izatea ukatzen du, “[g]ure izkeraak ez dauka[lako] araugetasunik” (1891: 146). Aditz trinkoen jatorriaz den bezainbatean, Azkuek berriro ere baliatzen ditu gramatikaz kanpoko argudioak, berak “irabiagarri” deitzen dituen adizkiok euskararen badirela justifikatzeko<sup>46</sup> eta *izan* aditz bakarrarekin erlazionatzeko:

Ene ustez' *aditz irabiagarri guztiak*' IZAN *aditzetik eratorri daiz*. Zelan eratorri daizan ezin bururatu badaut bere' *zergaitik izan*-etik eratorri daizan bada-kitala uste daut.

A mi juicio *todos los verbos conjugables se han derivado del verbo IZAN*. Aunque no puedo discurrir *cómo* se han derivado, creo que sé *por qué* se han derivado de *izan*.

Ezin argitaratu leikezan gauza asko dagoz' ukatu bere ezin leikezanak. Auts-e iazoten dai *eskutapenakaz* bere: euren *izamena* ezaun ezauna daugu, euren *izakizuna* andien andienaz ta argitasunan argitasunaz ezin beragandu dau gizonan adin *tś-atś*-arrak. Euskal-aditza dain miraritsua ezin ulertu leike:

Hay muchas cosas que no se pueden demostrar y que tampoco se pueden negar. Esto mismo sucede también con los *misterios*: su *existencia* nos es muy conocida, su *esencia* por su extrema magnitud y claridad no la puede hacer suya el menguado entendimiento del hombre. No puede comprenderse

<sup>46</sup> Beste toki batean euren zerrenda eskaintzen du (“Zenbat daizen aditz euren ez irabiagarriak”, 1891: 156).

bere mirariak eta eskutapenak gizakoak daiz baina andiak; eurak zakonduten dabilenak’ (gizako bezte mirari guztien astertzaileak legez) gizonan adina ta almenak baino adin argiagoa ta almen edatsuagoak daukazala euren egileak’ nai-ta-nai-ez autortu bear dau.

cuan misterioso sea el verbo eúskaro: sus maravillas y misterios son naturales, pero grandes; el que se ejercita en profundizarlos tiene que confesar por necesidad (del mismo modo que el escudriñador de todas las demás maravillas de la naturaleza) que su creador tiene entendimiento más claro y potencias más extensas que el entendimiento y las potencias del hombre.

(Azkue 1891: 157-58)

Aditz trinkoen izaerari dagokionez, Azkuek aditz-denboren teoria konplexu bat<sup>47</sup> garatzen du, Jaime Balmesen *Filosofía fundamental* lanean oinarriturik, aditz trinkoen beharra agerrarazteko. Azkueren eskema labur-labur azalduz —xehetasu-netarako ik. 1891: 161-68—, adizki *irabiagarriak* beharrezkoak dira “aidako usteak / ideas de momento”<sup>48</sup> direlakoak adierazteko, hala “urrekoak / próximas” (adib. *dakarri*) nola “urruneoak / remotas” (adib. *nekarren*). Aitzitik, *ekarten dau* edo *ekarten neuan* bezalakoetan “uste oituak / ideas habituales” agertzen dira.<sup>49</sup> Beraz, ikusi ditugun beste autore batzuk ez bezala, Azkuek argi eta garbi bereizten ditu adizki trinkoak eta esanahi bertuko adizki perifrastikoak.<sup>50</sup>

<sup>47</sup> *Izkindean* proposatzen den aditz-denboren sailkapenari buruz, ik. Laka (1986) eta bereziki Gutierrez (1999).

<sup>48</sup> Aditz-denborari eskainitako kapituluan zehar “ideas momentáneas” eta “ideas presentes” terminoak ere erabiltzen ditu gaztelaniazko zutabeen; euskarazkoan, “aidako uste(ak)” dagokie beti.

<sup>49</sup> Cf. “Ezdaiz aidako usteak eta *uste oituak* nastu bear: aidakoak gitsi daiz (475 garren esaldian ta urrengoetan erakutsi itzazan), oituak edozein aditzetan egon leikez. / No deben confundirse las ideas *presentes* y las ideas *habituales*: las presentes son pocas (se manifestaron en el párrafo 475 y siguientes), las habituales existen en cualquier verbo” (Azkue 1891: 168). Nahasi samarra da Azkueren aditz teorian *uste oituek* betetzen duten lekua. Terminoa aditz-denboraz aritzean erabiltzen dituenen antzekoa da (“uste” hitza erabiltzen baitu, alegia); alabaina *-ten* “irazgaia” hartzen duten adizkiez “Aditz mugean aldamenak eta aldagaiak / Modificaciones y modificativos del verbo infinitivo” izeneko atalean dihardu (1891: 189). Bertan *-ten* hizkia “ekanduzko aldamera / modo habitualinario (habitual ó consuetudinario)” delakoa adierazteko bide bat izango litzateke, *oi* “aldagaiarekin” eta *eroan* edo *ioan* aditzak laguntzaile gisa erabiltzearekin batera (1891: 190). Hala eta guztiz ere, eta hona nahasmendurako beste arrazoi bat, Azkueren sisteman “aditz mugean aldagaiak” ez dira hizkiak edo “irazgaiak”, grafikoki bederen, bereiz idatzen diren hitzak baizik; “aditz irabiarikoen aldagaiak”, berriz, hizkiak dira beti (cf. 1891: 171). *-Ten* izango litzateke, hain zuzen ere, sistema honetako salbuespen bakarra. *Izkindeako* aditz-moduen sailkapenaz, ik. Madinabeitia (1999).

<sup>50</sup> Diodan, bidenabar, adizki mota hauek adierazitako denboren artean erabat bereizteak eta, ondorioz, adizki trinkoen premia osoa izateak berehalako eragina izan zuten. Honela bada, XX. mende hasieran zenbait autorek, Arana-Goiri buru zelarrik, paradigma trinkoak asmatu zituzten sekula halakorik izan ez zuten adizetarako (ik. Plazaola 1999).

## 11. Arana-Goiri [ca. 1888]

Aditz bakarraren teorian oin hartu zuten euskal autoreen gainbegiratu hau amaitzeko, aurkez dezadan Arana-Goiriri buruzko ohar txo bat.<sup>51</sup> Gaztaroko lan batean (Alday haren argitaratzailearen arabera, 1888 ingurukoa litzateke), bizkaierazko aditzaren sailkapenaz ari zelarik, Arana-Goirik hiru sailkapen mota bereizi zituen: “1.<sup>a</sup> *clasificación morfológica*; 2.<sup>a</sup> *clasificación morfológico-significativa*. 3.<sup>a</sup> *clasificación significativa*” (Arana-Goiri 1991: 40). Hirugarren sailkapenari eskainitako atalean, *ixan* aditzaren bi esanahi bereizi zituen:

El verbo *ixan* (ser) tiene dos distintas significaciones: una la de *existir*, y por ella se llama *sustantivo*; otra, la de aplicar, a un sujeto, un predicado o atributo, y por ella se llama *copulativo*. *Jaungoikua da* (Dios es o existe) es ejemplo de lo primero; *Jaungoikua da deun* (Dios es santo) es ejemplo de lo segundo (Arana-Goiri 1991: 63).

Adiera kopulatio boaz ari delarik, Arana-Goirik Port-Royaleko lanen kutsu garbia erakusten du, azken buruan euskal partizipio bat adjektibo + *izan* formularen bitartez azaltzen baitu (oroit bedi §3. atalean esandakoa):

Como *copulativo*, el verbo *ixan* (ser) se resuelve con el verbo *haber*, el cual en Euskera se expresa con la raíz *eu*, que en su origen fue *au*; al efecto, no hay más que convertir en adjetivo abstracto el adjetivo concreto que en aquél significa el atributo. Así *Jaungoikua da deun* (Dios es santo) es lo mismo que *deundasuna dau Jangoikuak* (Dios ha santidad). Más aún este *au* (haber) se resuelve a su vez con el *ixan* (ser): *Jaungoikua da deundasunaren eu-le* (Dios es *habente* de santidad).

Egungo euskarak duen *-a* morfemaren inguruko zenbait gai jorratuko da ondorengo ataletan, hortaz. Ez dugu horietan sakon joko, baina haietako bakoitza artikuluen gainean egin daitezkeen azterketen lan ildo bezala aurkeztu nahi dugu; horregatik ondorengo ataletan ikusiko duguna ez da izango arazo baten inguruko arazoibide bete eta borobila; aitzitik, ikusiko duguna zenbait auzi desberdinen gaineko ohar multzoa izango da. Ondoko atalean, bigarren, artikuluen gainean ezarri diren analisi sinkronikoek diakroniarekin zein lotura duketen argitzen saiatuko naiz, hein batean, bederen; hirugarren atalean bigarren emandako lotura eta irizpideak egungo aldaera dialektologikoen argitara ikusi nahiko ditut. Laugarren errokariarazko erakusleek gaineko ohar bat emango dut, eta ondoren postposizio sisteman artikulua nola hedatu den aztertzea joko dut. Bosgarren atalean laburpen tiki bat emango dut.

## 2. Ikuspegi sinkronikoa eta diakronikoa

Artikuluen tipologia egiteko hurbilketez ari denean, bi modu nagusi aipatzen ditu Himmelmann (2001): batetik definitutasuna adierazteko hizkuntza naturalek darabiltzaten estrategia gramatikalen zerrendatzea egiten duena, definitutasunaren eta erreferentziaren gaineko teoria, esan dezagun sinkronikoa, bat eraikiz (Masica 1986 horren adibide izan liteke), eta bestetik artikulua historikoki beste nonbaitek eratorritako elementu gisa aztertzen dituen, hau da, erakusleek eta bestek izenen ondoko funtzioetan jasaten duten gramatikalizazio bilakaeraren faseak ezarri nahi dituen. Horra, bada, artikuluen tipologia egiteko bi modu; bada, hala ere, artikulua definitua aztertzeke beste modu bat gutxienez, tradizio sortzailetik heldu dena, eta artikulua definitua izen sintagmaren egitura funtzionalean zein toki duen zehazten saiatzen dena.<sup>3</sup> Lan sinkronikoa hauetan, euskarazko izen sintagmen egitura zertan den zehazten saiatzen diren artean, Artiagoitiaren lanak (1998, 2003) ditugu ezinbesteko aipagai, guk aztergai dugun *-a* horren zenbait gorabehera azaleratuz.

<sup>3</sup> Hizkuntzalaritzako tradizio honen bidetik bestelako lanak ere egin izan dira, umearen jabekuntza prozesua eta gramatikalizazio diakronikoarena paraleloan ezarritik. Honetan adibide esanguratsua da bi alor horiek determinatzaile sintagmarekiko aztertzen dituen Osawa (2003) lana.

Atal honetan agertu nahi genuke, modu labur batean, egituraren azterketa sinkroniko baten eta bilakaera diakronikoaren arteko harreman zertan den, eta bateko eta besteko emaitzak nola uztar eta ez hain modu diferentean uler daitezkeen.

## 2.1. Artiagoitia (2003)ren proposamena

Artiagoitia (1998) lanean euskal izen sintagma (IS hemendik aurrera) Abney (1987)k ingelesezkoa aztertzeke erabili zuen determinatzaile sintagma (DS hemendik aurrera) kategoria funtzionalaren arabera aztertzen du Artiagoitiak. 2003ko lanean, aldiz, Longobardiren lanak lagun, determinatzailearen eta izenaren arteko beste kategoria funtzional bat proposatzen du, ingelesarekin eta italierarekin euskarazko DS batzuek duten jokabide ezberdinaren bidetik; jokabide ezberdin hau normalean zera da, beste hizkuntzek artikulurik ez duten tokian euskarak artikuludun sintagmak agertzea.

Hizkuntzen arteko alde hau adibidezatzeko bi izen motari begiratzen zaie beriziki: izen zenbakaitz singularrei (*ardoa, ura...* bezalakoak), eta pluraleko izen zenbakarriei (*aulkiak, trenak, autoak...*). Ondoko perpausak ematen dira irakurketa ezberdinen gorabeherak aurkezteko; bere (8)koak errepikatzen ditut hemen, bere glosekin, eta etzanean ematen ditut aipagai diren DS-ak:

- |                                                            |                                             |
|------------------------------------------------------------|---------------------------------------------|
| (1) a. <i>Trenak</i> heldu dira.<br>'(The) trains arrived' | a'. ** <i>Tren</i> heldu dira. <sup>4</sup> |
| b. <i>Ardoa</i> edan dut.<br>'I drank (the) wine'          | b'. ** <i>Ardo</i> edan dut.                |


Ikusten dugun bezala a' eta b'.-ko perpausak ez dira gramatikalak, ez baitute inongo determinatzaile edo artikulurik. Baina orain eztabaidarako inportanteagoa dena zera da: Artiagoitiak dioen bezala, hizki etzanetan diren sintagma hauen interpretazio bikoitzaren berri ematen dute glosek, eta "specific description" gisa zein "existentially quantified expression" gisa irakur daitezke, Artiagoitiaren terminoetan. Hots, irakurketetako bat definitua da eta bestea indefinitua, edo, nahiago bada, inongo terminologiatan sartu gabe, bata artikulua definituarekin itzultzen da gainerako hizkuntzetan eta bestea batere gabe. Kontua da bitxia dela irakurketa existenziala edo indefinitua hartzea berez definitua markatzen duen morfema batek; auzi honetara italieraren eta ingelesaren adibideak dakartza autoreak, gogoratuz irakurketen arteko aldeak morfologian ere islatzen direla hizkuntza hauetan, irakurketa definituarentzat artikulua definitua erabiliz eta existenzialarentzat [Ø] artikulua nulloa. Honen aurrean aukeretako bat zera da, esatea euskarazko *-a*-k beste hizkuntza horietako bi morfemen funtzioa biltzen dituela bere baitan, morfema bakarrean. Baina, era berean, gogoratzen du euskaraz ere (aipatzen dituen italieran eta ingelesean bezala) kanpo-argumentuek ez dutela interpretazio existenzialik onartzen, honako perpausak adibide (bere (10b.)):

- (2) *Trenak* aurreratu gaituzte.  
'\*\* (the) trains have passed us'


<sup>4</sup> Bi izarrekin adieraziak ematen ditut forma ez gramatikalak (\*\*) eta bakararekin forma berreraikiak (\*).

(2)ko euskarazko esaldia eta ingelesezko glosa irakurketa bakarraren lekuko, ondorioztatzen du erromantzeko eta ingeleseko murriztapen sintaktiko beretsuak dituela artikuludun euskal IS-k, baina paradoxikoki artikulua agertzen duela euskarak murriztapen horrek kanpo uzten dituen inguru sintaktikoetan ere (barne argumentuetan, alegia, (1)en ikusi bezala). Hau moldatzeko, eta Longobardi eta erromantzea zein ingelesa jarraituz, egitura bana ematen du interpretazio bakoitzeko, irakurketa existentzialarentzako D gunea hutstzat joz. Horrela (bere (11) eta (12)):

(3) a.




b.




- a. Irakurketa existentziala / indefinitua, “*I drunk wine*”eko objektuak duena.  
 b. Irakurketa espezifikoa / definitua, “*I drunk the wine*”eko objektuak duena.

(4) a.



b.



- a. Irakurketa existentziala / indefinitua, “*I saw trains*”eko objektuak duena  
 edo  
 “*Trains arrived*”eko subjektuak duena.  
 b. Irakurketa espezifikoa / definitua, “*I saw the trains*”ko objektuak duena.  
 edo  
 “*The trains arrived*”eko subjektuak duena.

Agerikoa da, beti bezala, arazoa da zergatik irakurketa existentzialeko XS (proiektzio funtzional ezezagun) hori morfologikoki DS oso baten berdina den azalean, zergatik diren isomorfitiko; hots, arazoa irakurketa existentzietako XS hori ezaugarritzen, edo zer den esaten saiatzen garenean dator. Aukerei begira, XS hori IS hutsa izan litekeela dio, edo bestelako buru funtzionalen bat, izenarekin zerikusia daukana. Lehen aukera baztertzen du, bigarrenarekin aurrera joz, baina aukera logiko gisa agertze hutsa sintomatiko deritzogu, IS hutsaren aukera ere ez baita, beharbada, hain urruneko kontua, beherago ikusiko dugun bezala.

Bi puntutan laburbil dezakegu Artiagoitiaren lanaren gaineko oraingo gure interesa:

1. Irakurketa bikoitz horrentzako proposatzen diren bi egiturentzako ebidentzia gisa kuantifikazio existentzialaren gaineko murriztapen sintaktikoa erabiltzen da: (2)ko adibideko kanpo-argumentuan gaineko irakurketa bakar horri begiratuko diogu.
2. Bi egitura horiek proposatzearekin batera etortzen den XS horren izaeraren auzia, eta IS gisa hartzearen aukerari erreparatuko diogu.



Ohar orokor gisa, azken bi puntu hauek ere barne hartzen dituen, gogoratu beharrekoa da DS-en egituren proposamen hau bi izen mota jakinen gainean eraiki dela, zenbakaitzak eta pluralezkoak soilik aintzat hartuta, hain zuzen.

### 2.1.1. *Artiagoitia (2003)ren proposamenarentzako datu gehigarriak*

Bada Artiagoitia (2003) lanean esplizitoki agertzen ez den auzi zenbait DS artikuludun, artikulugabe eta haien irakurketa aukeren inguruan. Adibide zehatzen birtartez agerrarazten saiatuko naiz.

a) Badirudi irakurketa aukerak izenaren izaera semantikoaren arabera ere badirela:

(5) a. Gizona<sup>5</sup> iritsi da.

b. Ardoa<sup>6</sup> iritsi da.

Bi adibide hauetan aldagai bakarra izenen (*gizona*, *ardoa*) izaera semantikoa da: (5a.)n izena zenbakarria da eta irakurketa bakarra bideratzen du; eta (5b.)n, aldiz, izena zenbakaitza da, eta bi irakurketak onartzen ditu.

Bada horrelako adibideen harian aipatzekoa den beste kontu bat, ez seguru aski hemen agertu nahi dugun ideia nagusiarekin zerikusi zuzena duena baina bai, beharbada, barne eta kanpo argumentuen arteko irakurketa ezberdinen auzian zeresana eman lezakeena; izan bezate ondoko adibideok eztabaidan sartu berri diren datuen balioa:

(6) a. Tren horretan gizona iritsi da.

b. Tren horretan ardoa iritsi da.

(5) eta (6) adibideek irakurketa aukera pare-parekoak dituzte, bietako (a.)n DS-k irakurketa bakar, definitua hartzen baitu, eta (b.)n DS-k biak onartzen baititu. Ikus ditzagun, baina, (7)n emango ditudan esaldiak, (6)koen pareko direnak oro har, elementuen hurrenkeran izan ezik. Hona hitz hurrenkera kanonikoaren arabera (6)ko esaldien moldaketa:

(7) a. Gizona tren horretan iritsi da.

b. Ardoa tren horretan iritsi da.

Alde nagusia (6b.)tik (7b.)rako honetan dugu: ez dut beharbada oso termino ortodoxotan formalizatuko, baina itxura guzien arabera, DS aditzetik urrutiago, kanpora atera ahala, irakurketa existentziala galtzen da. Honi begira, seguraski gorde genezake kanpo-argumentuen murriztapenera eraman gaituen intuizioa, eta bide horretatik beste hauek ere azaldu. Ez dugu hemen, hala ere, fenomenologia honen azalpena ematen hasteko asmorik, noski topiko eta galdegai kontuak sartu beharko

<sup>5</sup> Bide batez, adibide honen arabera aurrera genezake barne-argumentuetan ere, zenbait kasutan, baldela irakurketa bakarraren, definituaren aldeko murriztapena artikuludun DSetan.

<sup>6</sup> Adibide honetan *ardoa*-ren tokian *jendea* jarri ahal izateak, irakurketak berdin gordez, erakusten du auzia zertan datzan, edo zertan ez datzan bederen, horrela ikusten baitugu bizidun/ez-bizidun kontua ez dela.

bailirateke jokoan; era berean, ez dugu adibide hauen araberako egitura proposamenik egingo DS-ri dagokionez, helburua ez baita oraingoz hori, izenen hautaketan bestelako irizpideak ere aintzat har daitezkeela gogoratzea baizik.

Dena dela ere, adibide hauek berresten dute atal honetan adierazi nahi izan duguna, hots, irakurketa aukerei dagokienez izen ezberdinen arteko aldeak azaleratzea, ikusten den bezala (5a.), (6a.) eta (7.a)ko *gizona*-k beti irakurketa bera baitu, *ardoa* bere konparagaiak ez-bezala.

b) Lehenago ere aurreratu dugu, baina modu esplizitoagoan gogoratzea da, izena biltzen duen DS-ren funtzio sintaktikoaren arabera ere irakurketak aldatzen direla. Adibide hauetan, Artiagoitiak bere lanean agertu duen kanpo-argumentuaren gaineko murriztapenaz gain, barne-argumentuaren gaineko murriztapena ere agertzen da:

(8) a. Julenek autoa erosi du.

b. Autoa etorri da.

(8a.)ko *autoa*-k bi irakurketak dituen bitartean (8b.)koak bakarra onartzen du, erreferentzia definituarena, hain zuzen ere. Bi perpaus hauekin, beraz, ikusten dugu nola DS berak, subjektu edo objektu gisa aritu, interpretazio diferentek hartzen dituen. Orain, barne/kanpo argumentuen terminologiara itzultzen bagara, ikusten dugu (8a.) zein (8b.)ko *autoa* barne-argumentua dela bietan, irakurketa diferentekin batean eta bestean. Hau dena gogoan hartuz, beraz, kanpo-argumentuen murriztapena osatu beharko da, beharbada, ez baitira soilean horiek irakurketa bakarreko murriztapena dutenak; era berean, aipatu ditugun barne-argumentu horietan behintzat egiletasuna, jasetasuna eta halakoak hartu beharko dira irizpide seguru aski, (8)k iradokitzen duen bezala bai baita alderik argumentuaren rol tematikoa “aktiboagoa” edo “pasiboagoa” den,<sup>7</sup> egiletasun mailari gagozkiolarik, jakina.

Atal honetan eztabaidara ekarri ditudan datu gehigarrien azalpenik ez dut eman, ez behintzat beharko nukeen moduan, Artiagoitiak darabiltzan egiturazko eta proiektio funtzionalen terminoetan; baina atal honen helburua ez zen hori, eta bertan gogora ekarri nahi izan dudana gauza bakarria ondokoa da: artikulua definitudun (-a-dun) DS-en irakurketak (bere erreferentzialtasunari dagokionez) hainbat faktoreren arabera direla, horien artean DS horretan biltzen den izenaren izaeraren arabera eta baita DS horrek perpausean hartzen duen funtzio sintaktikoaren arabera ere. Puntu horiek ere aintzat hartzekoak izango dira, beraz, egungo euskal DS-ren egitura funtzionala ezaugarritze aldera, baina baita, orain ikusiko dugun bezala, artikulua definituak IS ezberdinen artean izan duen hedapen diakronikoa arakatzeko tenorean ere. Horretara joko dugu orain.

## 2.2. Greenberg (1978) eta Company (1991)

Egungo euskal artikulua “definituak” duen jokabidea, bestalde, erakusleak artikulua “bihurtzen” dituen prozesuaren puntu bateko isla gisa ikusi beharrean gaude.

<sup>7</sup> Interesgarria izan liteke, halaber, ikustea Silversteinek (1976)n proposatzen duen bizitasun (“animacy hierarchy”) eskalak ba ote duen horrelakoetan inongo eraginik.

Bilakaera horrengatik ditugu, besteak beste, hizkuntzen arteko artikuluen erabilera diferenteak, baita antzekoetan ere; ikus Artiagotiak berak (1998 eta 2003) ematen dituen ingelesaren eta erromantzearen adibideak, biak ere elkarrengandik hurbilago euskararengandik baino, artikulua definituen jokabideaz denaz bezainbatean, bederen. Hizkuntzen arteko alde hauen iturria bakoitzaren garapen diakroniko diferentean ezarriko dugu guk; honek, argi da, artikulua definituaren definizioa zailtzen du, gogoan hartuta gainera kontzeptu hori Europako hizkuntzetatik abiatutakoa dela. Horrela, bada, zenbait hizkuntzatan artikulua ba ote zen ezartzeko, jadanik bere gramatiketan kontzeptu hori onartua zuten hizkuntzetara jo izan da, Europakoetara, alegia (ingeleza, frantsesa, kasurako). Artikulu definituaren kategoria hori, beraz, hizkuntza-artearen erkaketatik etorri da zenbait horietan; adibide onak dira auzi honetarako Montagnais hizkuntza algonkiarra (Cyr 1993), non artikulua zer den eta zer ez den arazoaren muina jotzen den, eta txinera bera, Huang (1999) lanean jorratutakoa. Bi hizkuntza hauetan abiapuntua bera da, hizkuntza horietako gramatiketan ez baita inoiz artikulua definituaren kategoriarik aitortzen; hartara, Cyr-ek “cross linguistic quantification” delakoaren bitartez, eta Huang-ek antzeko irizpideak erabilita, ezartzen dute bere hizkuntzetan erakusletzat jo izan dena askotan artikulua definitua dela soilik, berau hartzen duten egiturak eta hedadurak beste hizkuntzetako artikuluekin baitira parekagarri, eta ez erakusleekin. Lan hauen hazia, atal honetako gai nagusira itzuliz, Greenbergekin (1978) emandako erakusle/artikulu definitu/izen markatzaile morfemen bilakaeraren ezaugarritzean aurki dezakegu. Bertan hiru aro proposatzen dira hasieran erakusle zen morfema horren hedapenean, lau aro, aintzat hartzen badugu zero aroa erakuslearena dela. Bilakaera honen “bukaera”, inon bukaerarik bada, hirugarren aroan ezartzen du, non behialako erakuslea izen guztietan ageri den marka hutsa baino ez den, hauen izentasuna baino adierazten ez duena. Honen adibide hausa hizkuntza txadikoa litzateke, Nigeria eta Nigeren hitz egiten dena; bertan izenen %99ak amaierako bokal luze bat erakusten du, garai bateko artikuluen aztarna. Eman dezagun horren adibideren bat, bokal laburreko bertsioa ere baduen izen batena, esanguratsua daitekeelakoan: beti ere Greenbergi jarraiki, *gàmbóó* hitza bikien ondoren jaiotako umea adierazteko erabiltzen den izen arrunta da eta *Gàmbó*, aldiz, izen arrunt horren bertsio bokal luze gabea, ume horri eman dakiokkeen izen berezia. Esanguratsua da izen berezia izatea bokal laburra daukana, hain zuzen ere halakoak, pertsona izenak, izaten baitira artikulua hartzeko zailtasun handienetakoak dituztenak hizkuntza guztietan oro har, bere berezko definitutasuna medio.<sup>8</sup> Era berean adierazgarri suertatzen da horrelakoez gain mailegu berriak izatea bokal luzerik gabekoak, azaleraziz izen horiei ez zaiela inongo artikulurik ezartzen beste izen zaharretan artikuluen konzientzia ere galdua baita.<sup>9</sup> IS-ek, beraz, bere baitan dute txertatua garai

<sup>8</sup> Euskaraz, egun horrelakorik ez badugu ere, gogora ekarri beharrean gaude Kapanagak, Betolatzak eta bestek erabiltzen zituztenak, *Franziskua*, *Iesusa* bezalakoak. Mitxelena (1955) eta Lakarra (1983) biltzen dituzte horien zenbait lekukotasun. Bide batez, mendebaldeko adibideak hauek, gorago aurreratu bezala artikulua lehenik zabaldu zen eskualdea.

<sup>9</sup> Ez dakit zenbateraino egoera berdinarekin adierazle diren hitzunt gazte zenbaitengan aditu daitezkeenak, zenbait hitz berri eta mailegaturekin egiten direnak: *nahi duzu jogur?* bezalakoak, edo askoz esanguratsua, Bergarako hitzunt bati entzundako para: *ipini tele* baina *ipini telebisióna*.

bateko erakusle/artikulu definitua halako hizkuntzetan. Tarteko aroak ezaugarritzeko, I eta II deitzen dituen, egitura diferenteak ekartzen ditu gogora, eta horietan izenen forma artikuludunak edo artikulugabeak nagusitzen diren begiratzen, esaterako esaldi existentzialen subjektuak, predikatuak... Arazoa da II. aro hori ezaugarritzean modu negatiboan egiten duela gehienetan, esanez zein egituratan artikulua EZ den agertzen. Arazo honen harira gogora ekarri beharra dugu artikulua haren hedapenaz ari garenean asumitzen duguna: artikulua egitura eta sintagma batzuetatik besteetara hedatu dela, eta, beraz, aro diferenteetan hedadura diferenteak izan dituela. Era berean, pentsatzekoa da prozesu horren garai batzuetan artikulua hartu zuten egiturek, hurrengoetan ere hala gorde dutela, pixkan pixkana IS gehienetara zabalduz. Horrela bada, arestian aipatu dugun ezaugarritze negatiboak nahasmena ekar lezake, I eta II aroetako ezaugarriak nahasiz. Kontuak kontu, eta ikusita euskarak zein egituratan erakusten dituen artikuludun formak ondoriozta dezakegu Greinbergen arabera II.etik III. aroetako horretan dagoela gure hizkuntza.

Baina aro eta sailkapenak baino, ezinbestean hertsia direnak, beti da interesgarriago gauzak nola gertatu diren zehatz agertu eta deskribatzea, eta zein arazo eta jarraibide segitzen duen morfema horrek egituratik egiturara eta funtzio sintaktikotik funtzio sintaktikora hedatzean. Honetarako baditugu hizkuntza batetik bestera errepikatua ikusten ditugun patroiak, hasieran erakusle zen elementu horren gramatikalizazio eta hedapenaren bilakaerarenak, eta hartara espainolaren, frantsesaren, suomieraren eta txineraren artikuluen garapenaren arteko antzekotasunak ikus ditzakegu. Companyk (1991) horrelakoen sistematizazioa egin zuen Erdi Aroko espainolarentzako, bi irizpide nagusi bereiziz espainolaren artikulua definituaren zabalterako: batetik IS-ek zuten funtzio sintaktikoarena, eta bestetik IS horietako buru zen izenaren izaera semantikoarena. Bigarren irizpideari jarraiki, ikusi zuen eskala moduko baten arabera zabaldu zela artikulua; izen zenbakarriak berak aztergai dituen mendeetarako artikulua txertatua dute, eta ondoko izen mota hauetan hurrenkera jakin hau izan zuen artikulua hedatzeak:

1. Lehenik giza izen generikoetara zabaldu zen (*moros, maestros...*).
2. Gero erreferentzia bakarreko izenetara (*infierno, paraíso, sol...*).
3. Azkenik izen abstraktuetara eta zenbakaitzetara, egun ere bariazioan direnak (*fuego, alma...*).

Bestalde, perpauseko funtzioaren arabera, eta izenarentzat subjektu, objektu eta preposizio sintagma posizioak hartuz aintzat, ondorio du subjektu posizioa izan zela artikulua zabaltzearen bultzatzaile. Momentu berean, Huang-ek (1999) txinerazko artikulua objektua ematen du aldaketaren abiagune;<sup>10</sup> dena den, garrantzizkoa dena hemen zera da, perpausean IS-k duen funtzioak baduela artikulua definituaren hedapenean zeresana, eta hobeki azaldu beharreko gertakaria dugula hau ere.

<sup>10</sup> Bi hizkuntzen arteko alde hau hitz ordenaren ezberdintasunen arabera azal liteke, behar bada: espainolaren artikulua zabaltzen ari denean SOA > SAO hurrenkera aldaketa gertatzen ari dela aitortzen du Companyk berak, eta txinerarentzako, aldiz, SAO > SOA aldaketa dugu, bestelako lanetan ere ikus dezakegun bezala, Li & Thompson (1974, 1975), adibidez.

### 2.3. Sinkronia eta diakronia

Aurreko bi azpiataletan, artikulua definituaren alderdi sinkronikoaz arduratzen zena bata, eta alderdi diakronikoaz bestea, bi irizpide nagusi eman ditugu berorren azterketarako ezinbesteko suertatzen direnak: batetik ikusi dugu izenen izaera semantikoari begiratzeak zein esangura duen bai determinatzaile sintagmaren egiturazko azterketa sinkronikoarentzako bai artikulua hedatzea diakronikoki horren arabera neurtzeko. Bestetik agerian utzi dugu ikuspegi diakronikoan zein sinkronikoan izena hartzen duen determinatzaile sintagmaren funtzio sintaktikoak ere eragina duela artikulua jokabide sinkroniko zein hedatze diakronikoan.

Ikusi dugunez, deskripzio sinkroniko batek zenbait irizpide gehigarri ere bere barrenean hartu beharko luke, hain zuzen ere artikulua definituaren hedatze diakronikoan ere esanguratsu direnak. Hortxe sinkroniaren eta diakroniaren banaezina.

Bada ahanzi gabe gogoratu nahi nukeen azken gauza bat: joera diakroniko gisa Greenbergekek zera aipatzen du, hasieran artikulua definitudun diren izenek izen sintagma huts izaten bukatzen dutela, garai bateko artikulua izen markatzaile soila delarik izen horietan (hausu hizkuntza afrikarra eman dugu 2.2. atalean). Bestalde ikusi dugu, Artiagoitiak gerora baztertzen badu ere, izen artikuludun zenbaitentzako badela, egituraren arabera, beroriek IS huts gisa analizatzeko aukera logikoa. Pentsa genezake aukera hau arestian aipatutako joera diakronikoaren isla izatea, DS-ren egitura analizatzeko aukera onena ez bada ere. Honen guztiaren erakusle, beharbada, zenbait hizkeratan gerta daitezkeenak ditugu, mendebaldeko IS-k artikuludun eta erakusledun batera izan ahal izatea, kasurako, baina baita Bidasoa aldean entzun daitezkeenak ere, *laguna bat* eta halakoen modukoak. Nago, Artiagoitiaren analisisetan ere, horrelakoak modu bakarrean analiza daitezkeela eta hain zuzen “artikuludun” izena IS huts gisa hartuz dela modu hori, bestelako proiektzio funtzionalik behar izan gabe.

### 3. Artikuluaren hedatzerako ebidentzia dialektologiatik: Ekialdeko euskarak

Oraintxe berean aipatu dugun Bidasoa aldeko gertaera lokal horretaz gain, badugu euskal dialektologian orain arte aipatutakoen erakusle zabalago eta hedapen handiagorik; adibiderik agerikoena ekialdeko euskaretan artikulua definituarekin gertatzen (ez) direnetan dugu. Gauza jakina da ekialdeko euskara horietan artikulua gutxiago erabiltzen dela, edo, esan dezagun bestela, mendebaldean *-a* ezarriko litzaitekeen hainbat testuingurutan ekialdean ez dela jartzen. Honen muturreko adibide gisa erronkarierazko zitazio formak aipa ditzakegu, non, beste euskalki guztietan ez bezala, edozeren izenaz galdetuz gero artikulurik gabeko formak ematen zituzten, Trasken (1997: 200) aipatzen duen bezala; adibideetarako Mariano Mendigachak Azkueri bidaltzen zizkion gutunetara jo daiteke, Irigoyenek (1957) argitara emanak.

Eman dezagun orain ekialdean gertatzen direnen berri, zehazki Behe Nafarroako<sup>11</sup> datuak ekarriaz gogora, aurreko ataletan agertutakoei bestelako adibideak gehi-

<sup>11</sup> Eskerrak eman nahi dizkiot Maitena Xohobigarati datuon juzkuak segurtatzeko emandako laguntzarengatik.

tzeko; hartara ikusiko dugu nola bariazio diatopikoak ere lehen aipatu ditugun irizpide gehigarrien balioa berresten duen. Esaldi existentzialak, predikatuak eta objektu pluralen gorabeherak aipatuko ditugu banaka:

1) Esaldi existentzialak. Hauetan badirudi badela lehenago aipatutako izen zenbakarrien eta zenbakaitzen arteko aldea. Hualde & Ortiz de Urbina (2003) lanean bitan aipatzen dira, gutxienez, egitura existentzialak, behin artikulua gorabeheraz ari direla, eta beste behin esaldi existentzialen deskribapena emateko tenorean. Bi hauek aipatzen ditut bietan adibide modu diferenteak ematen baitira existentzia-lei dagokienez. Eman ditzagun Trasken lan horretako hitzak (2003: 119-20):

The label 'definite article' is misleading, since the article is of much broader use than the English definite article. It occurs: [...] (e) in an NP which is the subject of a non-negative existential sentence [...] (73) Ogi-a dago mahaian

Eta esaldi existentzialak direnean hizpide Etxeparek (2003: 368) du hitza:

Existential sentences are constructed with the verb *egon* in most Basque dialects:

[...] (513) b. Gizon bat atean dago.

Bi hauetarik ondorioa argia da, esaldi existentzialeko subjektua den IS-ren izena zenbakaitza baldin bada artikulua hartzen du, baina ez zenbakarria baldin bada (mendebaldean bederen):

- |                             |                                |
|-----------------------------|--------------------------------|
| (9) a. **Gizona dago gelan. | vs. a'. Gizon bat dago gelan.  |
| b. **Liburua dago gelan.    | vs. b'. Liburu bat dago gelan. |

Berriz ere dugu hemen izenaren izaera semantikoaren arabera banaketa. Bide batez, bitxia dena da horrelako egitura batean subjektuak artikulua hartzea, goiko *ogia* adibide, Milsark-ek (1977) definitutasunaren murriztapenarekin gogoratzen duen bezala horietan espresio definituak baztertzen baitira.

Zer gertatzen da ekialdeko hizkeretan, iparraldekoak esaterako? Horrelako adibideak aurki ditzakegu:

- |                                             |                         |
|---------------------------------------------|-------------------------|
| (10) a. Bada jende kanpinean. <sup>12</sup> | b. Bada toki kanpinean. |
|---------------------------------------------|-------------------------|

<sup>12</sup> Egia esan, hemen adibideztatzen dudak ekialdearen eta mendebaldearen arteko aldean askoz xehe-tasun gehiago eman behar dira; esate baterako, nire informatzailearen arabera honako pareak ge-neuzkake izen zenbakaitzentzat:

- |                   |                |
|-------------------|----------------|
| (i) a. Bada leku. | b. Lekia bada. |
|-------------------|----------------|

Orden aldaketak eragindako gorabeheraz gain, hona esaldi existentzialetako izen zenbakarriekin gertatzen dena:

- |                          |                    |                                      |
|--------------------------|--------------------|--------------------------------------|
| (ii) a. Gizona bada han. | b. ** Bada gizona. | c. Bada gizon bat. / Gizon bat bada. |
|--------------------------|--------------------|--------------------------------------|

Honek guztiak agerian utzi besterik ez du egiten horrelako datuen gainean egin beharreko bilketa eta lana.

Ikusten da, mendebaldean artikulua hartuko luketen bi izen ez-zenbakarrik hizkera hauetan ez dute artikulurik hartzen, Milsarken (eta beste hainbaten) arabera espero genukeen bezalaxe, bestalde. Hau kontuan hartuta, pentsatu beharrekoa da halakoetan ageri den artikulua ez dela zinezko artikulua definitua, beste zerbait baizik. Horrexen isla beharko genuke ikusi Artiagoitiaren analisia, honek *-a* determinatzailea ez den buru funtzional batean ezarri beharrean kausitzen duenean bere burua.

2) Predikatuak. Hauetan ere aurrekoaren antzeko zerbait gertatzen da: mendebaldean artikuludun formak ditugun bitartean, ekialdean ez da hala; Greenbergek (1978: 67) dioenaren arabera, bestalde, II aroko hizkuntzetan izen predikatuak ez dute artikulurik hartzen, ezta predikatu adjektiboek ere. Ikus dezagun, beraz, zer gertatzen den gure datuekin (etzanean interesaren gune den sintagma):

(11) Izen predikatua

- |                           |              |
|---------------------------|--------------|
| a. Jon <i>mediku</i> da.  | Ekialdean    |
| b. Jon <i>medikua</i> da. | Mendebaldean |

(12) Predikatu adjektiboa I

- |                                        |                                                      |              |
|----------------------------------------|------------------------------------------------------|--------------|
| a. Ez da <i>polit</i> (horren egitea). | vs. a'. ?Ume hori ez da <i>polit</i> . <sup>13</sup> | Ekialdean    |
| b. Ez da <i>polita</i> (hori egitea).  | vs. b'. Ume hori ez da <i>polita</i> .               | Mendebaldean |

Ezezkako adibideak dakarzkiz hona hauek baitira eskura ditudan datuak; ez dakit baiezko esaldietan zenbateraino gauzak berdinak diren, baina balio bezate hauek artikulua agertzearen aldagarritasunaren adierazle. Hauen baiezko ordainak, beste hainbeste egitura esanguratsu bezala, kanpo uzten ditut oraingoan, besteak beste luze joko bailuke egitura eta testuinguru esanguratsu guztien zerrenda eman eta adibideztatzeak. Etorkizunik hurbileneko lana da hau, argi da. Bestalde, gogora ekarri nahi nuke ezezkako esaldiak, denbora hipotetikoak eta abarrek izenen erreferentzialitatearen gainean duten eragina (Hopper & Thompson 1980), eta hartara Greenbergek berak ezezkako esaldiei esangura berezia ematen die artikuludun-artikulugabe formez ari denean. Segi dezagun, bada, adibide gehiagorekin:

(13) Predikatu adjektiboa II

- |                            |                                 |              |
|----------------------------|---------------------------------|--------------|
| a. Etxea <i>handia</i> da. | vs. a'. ?Etxea <i>handi</i> da. | Ekialdean    |
| b. Etxea <i>handia</i> da. |                                 | Mendebaldean |

Ikusten dugun bezala, predikatuaren gune izena denean ez da duda handirik: ekialdean forma artikulugabea eman dezakete eta mendebaldean ez. Aldiz, adjektiboa denean predikatu gauzak ez dira horren garbi ageri (ekialdeko erabileraz ari naiz, jakina, mendebaldean, b.koak, beti forma artikuluduna baititugu). (12) eta (13)ko adibideekin erakutsi nahi izan dut, beraz, ekialde horretan egun dugun ba-

<sup>13</sup> Ez-gramatikaltasunaren adierazle diren izartxoak ezarri beharrean galdera ikurra erabili dut predikatuen adibide hauetan, informatzaileak txartzat ematen baditu ere, adierazi nahi izan baitut ekialde-deragoko euskaretan, zubereraz alegia, erabat onak direla esaldi hauek. Ikus Álvarez (1977) euskalki honen gaineko zenbait xehetasunerako. Honek, berriz ere, agerian uzten du datuen bilketa sistematiko baten beharra, testuinguruz testuinguru eta euskalkiz euskalki.

riazioa adjektiboen eta artikuluen arteko elkarreragintzari dagokionez. Ez dut orain sakonduko zeri egotz dakioken adjektiboen arteko jokaera diferentea; baliteke, lehen esan bezala, ezezkako esaldiek eragina izatea horretan, baina (12) eta (13)ri begira batek galde lezake zein joko duen adjektibo bakoitzaren izaerak; azken galdera hau Milsark (1977)ko lanetik eratortzen da zuzenean. Bertan, esaldi existentzialen ezaugarritzerako, berorietan zein sintagma mota diren zilegi aztertzen da, azkenetarako zenbatzaile “ahul” eta “gogor” deitzen dituenen arteko (“weak” eta “strong”) aldea esanguratsutat joz (gogoan izan artikulua definitua “gogor”tzat hartzen duela, beronen existentzialetako subjektuan agertzeko ezintasuna agertuz horrela). Era berean, gogora ekartzen du “*There Insertion*” onartzen duten predikatuetan (hots, esaldi existentzialetan predikatu izan daitezkeenetan) badela adjektiboaren izaeraren araberrako muga bat: behin-behineko egoera adierazten dutenak (*gaixorik, harrituta...*) onargarriak dira esaldi horietan, baina denboran zehar dirauen ezaugarria adierazten dutenak ez (*argia, altua...*). Pentsatzekoa da esaldi existentzialetarako ingelesez agertzen den murriztapen modu honek badezakeela zerikusirik izan artikulua hedapenean jokoan diren irizpideekin. Berriz ere izango genuke, hortaz, izen mota baten barrenean, adjektiboetan kasu honetan, artikulua hedatzea azaltzeko garrantziazko datekeen banaketa, kategoria honetan bi adjektibo talde bereiztuz. Dena dela ere, aihar naiz horrelakoak zenbat eta ekialderago jo, zubererara, alegia, zalantza gutxiago ematen dutela, forma artikulugabeak nagusi baitira. Ez dugu hemen alde tiki hauen guztien azterketa xehekatua burutuko, baina argi da, (12) eta (13)ren arteko bariazioari begira ikusmiran jartzen zaigu etorkizunean egin beharreko lana, hizkeraz hizkerako artikulua erabileraren xehetasunak biltzearena, alegia.

3) Objektu pluralak. Kasu honetan objektu pluralez hitz egin beharrean gaude, izan ere, barne argumentuaren etiketa ez baita egoki. Artiagoitiaren lanean barne argumentuak ziren irakurketa bikoitza zutenak (*trenak heldu dira* eta *trenak ikusi ditut* bezalako adibideetan), baina orain aipagai ditudan eta pluralei dagozkien fenomenoak aditz transitibo zenbaiten objektuetan baizik ez dira gertatzen. Onena adibideekin abiatzea izango da:

- (14) a. Bertsu kantatzen ari izan gira.      b. Bertsien kantatzen ari izan gira.

Egia da mendebaldean ere (14a.)koen antzekoak ere baditugula, *onddo biltzera joan gara* eta halakoak, baina nago aski eihartua dela horien erabilera; aldiz, (14)ko adibideetan, badirudi eman ditugun bi adibideen arteko kontrastea produktiboa dela, hots, a.ko irakurketa bakarra existentziala litzateke, eta b.koak, mendebaldean ez bezala, irakurketa bakarra izango luke, definitua berau. Bada egitura modu honi egin beharreko zenbait ohar, hala ere: itxura guztien arabera, aditz izenekin baizik ezin da kontraste hau egin, aditzaren aspektua ez-burutua denetan, beraz. Hau horrela gertatzea aise uler daiteke Hopper & Thompson (1980)en ematen duten eskalaren arabera, non izenen definitutasuna eta aditzen aspektua harremantzen diren; harreman honetan aditzaren aspektu ez-burutuak bere objektuaren irakurketa ez-definitua bultzatzen du eta ez-markatuenetzat jotzen. Horrelako testuinguruak dira, dirudienez, inongo definitutasun markarik hartzen ez dutenak, edo gutxienean beranduen hartzen dutenak, ekialdeko euskara hauek erakusten duten bezala. Azke-



nik, honen guztiaren argitara pluralaren jatorrizko zentzua irakurketa definituarena zela pentsatzeko bidean jar gaitezke, datu hauek irakurketa existentziala berandua-goko zen ebidentzia gisa hartuta.

Ez da bete-beteko azterketa izan hau, bai baitira noski beste hainbat egitura eta testuinguru artikulu definituaren hedatzean esanguratsu direnak, baina balio bezate euskalkien arteko alde hauek artikulu definituaren hedatzearen xehetasunak argitze-ko, askotan, ikusi dugun bezala, aldeak zinez txikiak baitira, eta aldaketa mikropar-rametrikoaren isla. Bada, beraz, lana testuinguruz testuinguru, irizpidez irizpide *-a* horren hedadura ondo ezartzen, prozesu diakronikoen ondorio gisa agertu eta egungo egoera sinkronikoa azaltzeko. Era berean, eztabaidara ekarri ditugun tes-tinguru edo irizpide gutxi hauek gauza bat adierazten dute, eta zera da, artikulu definituaren zabaltzea mendebaldeko euskalkietatik ekialdekoetara izan zela; honen haritik joko dugu hurrengo atalaren hasieran, beste zenbait arazo eta puntu interes-garri plazaratuz.

#### 4. Euskarazko artikulu definitua mendebaldetik ekialdera zabaldu zen

Gorago ere esan dugu euskaraz, beste hizkuntza askotan bezala, artikulu defini-tua erakusle urrunetik eratortzen dela diakronian. Ez da, hala ere, honako hau hi-potesi arazorik gabea, ez eta bakarra ere; bai, ordea, arazoak arazo, egiantzekoena. *\*(h)a(r)* erakusle urrunean ikusten dugunean egungo artikulu definituaren jatorria (besteak beste Trask 1997), ezin ahantz dezakegu jatorri horren inguruko zenbait auzi argitu beharko dugula, besteak beste berreraikitzen dugun erakusle hori noiz-koa den, eta noizkoa Traskek supletibotzat eta beste batzuek (Altuna & Azkarate 2001) forma indartutzat jotzen duten *hura*, bizkaieraz ez beste euskalkietako forma. Artikuluaren jatorria erakusle urrunari estu lotzen zaion neurrian, erakusle urruna-ren kontu hauek ere ezinbestean aipatu beharrekoak dira, gutxienean. Baina bada beste kontu bat, orain eta hemen bertan sakonago aztertuko duguna, erakuslearen eta artikuluaren arteko harremanean zeresana duena eta artikuluaren hedatze geo-grafiko progresiboaren berri eman liezagukeena. Jo dezagun erronkarierak eskaini-tzen dituen datuetara, horixe baita oraingoan arduratuko gaituen arazoa.

##### 4.1. Erronkarierazko erakusle herskari ahoskabedunak

Erronkarierak erakusleetan ageri dituen herskari ahoskabeak zaharrenetzat jo-tzen baditugu, nola azaltzen dugu gramatikalizazio prozesuan bi hotsen artean suer-tatuko litzatekeen herskari ahoskabe hori erortzea (\*\**etxe ka(r)* > *etxea*, \*\**lan ka(r)* > *lana*)? Hona, argigarri daitekelakoan, herskari horietaz emandako iritziak:

[...] Aquí unos dialectos navarros, más conservadores al parecer, tienen una oclusiva dorsal inicial que falta en los demás: ronc. *kaur*, sal. *kau*, ronc. sal. *kori*, *kura* [...]. Es natural pensar que la conservación de la inicial sólo era regular cuando se empleaban como adjetivos e iban unidos estrechamente al nombre pre-cedente. [...] En a.-nav. de Elcano, tanto los adverbios como los pronombres tie-nen inicial vocálica: *or* ‘ahí’, *ori* ‘ese’ ‘usted’, pero *mai-goi* ‘esa mesa’ (Mitxelena 1961: 247).

Baina, 247. orrialdeko oharra

En a.-nav. de Elcano tienen en cambio inicial vocálica tanto el demostrativo de 3.<sup>a</sup> pers. en función de artículo como los otros dos en el mismo empleo: *ene eridu, nere escudu* [...].

Eta Traskena:

The Pyrenean dialects have *kau(r)*, *kori*, *kura*, or *gau(r)*, *gori*, *gura* for the demonstratives. There is no trace of such initial velars elsewhere, and these forms are mysterious. Michelena in several places concludes that the Pyrenean forms are conservative, and that all other varieties have lost the velars, but not everyone is convinced this is the right interpretation, and some would see the velars as representing some kind of reinforcing particle (Trask 1997: 198).

Bi aipamen hauek aintzat hartuta, argi da zein den eztabaidagune honetara ekarri nahi dudan arazoa: herskari ahoskabe horiek zaharrenak baldin badira, nola gertatu zen zehazki artikulurako bilakaera *\*ka(r)* batetik (eta ez *\*ha(r)* batetik!) ikusita ez dugula egungo artikularen erabileran hasierako hots horren inongo aztarnarik? Ez dirudi Mitxelenak kontu honi garrantziarik ematen dionik (Mitxelena (1979: 451)):

Admitida la identidad inicial de demostrativos y artículos vascos [...] los últimos sufren un cierto número de modificaciones [...]: 2) la aspiración, de acuerdo con una regla más general que no conoce excepción, desaparece, de modo que hay *-or* y también, con otro pronombre *-ori* / *hori*, al igual que el alto navarro de Elcano distinguía *-au*, *-o(r)i*, artículos, de *-gau*, *-gori*, adjetivos demostrativos [...].

Horra. Arazoa aurkeztuta, beronentzako zein irtenbide logiko atxeman dezakegun dugu hurrengo ekinbidea; hartara gogoratu zaizkidan hiru agertu nahi nituzke hemen, baina, jakina, baliteke besterik ere izatea:

1) Artikulua ez da *\*ha(r)* bezalako zerbaitetik heldu. Hortaz, beste nonbaitetik bilatu beharrean gaude artikularen jatorria:

- de Rijk (1992)ko *\*da(n)*? Interpretazioak honakoa beharko luke: *\*da* erakusle bat izan zen garai batean. Hau oso kontuz hartzeko eta garatzeko hipotesia da.
- Bestalde, hor dago *-aga* ere, Mitxelenak berak noizbait behintzat aukera posible gisa azaltzen duena (Mitxelena 1971: 146):

[...] mis ideas no son nada claras en cuanto a la relación posible de *-aga* con el artículo singular, cuyo origen demostrativo es bien conocido.

Jatorri alternatibo bakoitzaren aldeko eta aurkakoak hobeto adierazi behar dira hemen; hauek, bestalde, momentuan burura datozkidanak eta literaturan aurkitutakoak dira, baina horrek ez du esan nahi bakarrak direnik, ezta egokienak eta posibleenak ere.

2) Edo proposatu behar dugu ezaugarri hau mendebaldetik ekialdera zabaldu zela (honek euskalki bakoitzaren egituratzean dituen inplikazio guztiakin). Hots, mendebaldetik hasi zenean, erakuslearen gramatikalizazioa hasierako herskari hori

galdua zuten formatatik abiatu zen, *ha(r)* hasperendun formatatik adibidez (ikus Eranskinean hasperen horren zenbait lekuko); hortik abiatuta, errezagoa da ulertzea edozein gramatikalizazio prozesutan gertatzen den morfemaren higadura fonetiko, hasperena baita egungo egoerara iristeko galdu behar dena, eta ez bokal artean galtezko zailago dirudien herskari ahoskabea (-k-). Horrela, erronkarierara artikulua iritsi zenerako erabat morfema beregain gisa ailegatu zela pentsatu behar dugu, erakuslearekin loturarik gabekoa. Hipotesi honek aldeko du egun euskalkiek erakusten duten egoera, ekialdeko euskaretako hainbat adibide artikulugabe azalduko bailitzateke honela, hirugarren atalean agertu ditugunak, kasurako. Beste gainerakoan, horrelako hipotesian sakontzeak euskar(ar)en banaketa soziogeografikoan eta bere historia-aurrean bideak irekitzen ditu.

3) Beste aukera da, Mitxelena goiko aipamen horretan ageri denaren aurka, Erronkariko erakusle herskaridunak (*kaur, kori...*) berriagoak izatea, nolabaiteko fortizio baten ondorio; Trasken (1997) aukera hau aipatzen du, herskari horiek azaltzeko eman izan diren hipotesien barrenean. Galdera, hemen ere, zuzena da: zein hotsetatik abiatu zen balizko fortitio hori? Hasperenetik ala aezkerazko erakusleetan ikusten ditugun herskari ahostunetatik (*gau, gori...*)?<sup>14</sup> Kontuak kontu, hemengo sakoneko eztabaida, ikusten da, erakusleentzako forma zaharrak berreraikitzearena da, izan ere, Trasken gogoratzen duen bezala, ez baita hau oraindik erabakia eta aho-batez onartzen den auzia.

Agertu nahi izan dudan arazo honetan bada, azkenik, gogoratu beharreko zenbait datu, herskari ahoskabe eta forma hasperendunen arteko balizko alternantziaren eta forma batzuen edo besteren antzinatasunaren adierazgarri:

- Egungo euskararen topatzen ditugun Zuberoako Gamereko *Etxeberriko Karbia* (cf. Urkulu ondoko *Harpea*, berdina esanahiz) eta beharbada *Peña Karria* (artikuluarekin!) mendiaren izena.
- Egungo euskaratik atzera joz gero, hor ditugu Akitanierazko datuei begira aipatutakoak (Mitxelena 1954, 1961: 256): *Halsco, Talsco...* Ikusteko dago bi hauetako alternantzia herskarien kokagune guztietara zabaldua zen.

Erronkarierazko erakusle herskaridunek mahaiginean jartzen duten arazoa moldatzeko emandako hiru aukeretatik bigarrena da egiantz handiena erakusten duena, besteak beste elkarrekiko independente diren argudioak erabil ditzakegulako berori indartzen. Laburbilduz, bigarren aukera honek erakusletiko jatorriaren alde egiten du, orain arteko tradizioan aldarrikatu izan den bezala, eta artikulua mendebaldetik ekialderako hedatzearen ideia azterketaren jomugan ezartzen du. Beste aukerak izan badirela ahantzi gabe, hauxe hartuko dugu abiaburu eta neurri, beraz, hizkuntzaren beste hainbat alderdi aztertzearen tenorean, ondoren hizpide izango duguna, kasurako: mendebaldetik ekialderako zabaltze horretan nola txertatu zen artikulua postposizio sisteman?

<sup>14</sup> Eskerrak eman nahi nizkioke Jose Ignacio Hualderi herskari ahostunen aukera hau ere kontuan hartzekoa dela aipatzeagatik.

#### 4.2. Artikuluaren hedatzea eta postposizio sistema

Has dezadan atal hau Mitxelena-ren aipu batekin (1981: 48-49), ondoren argitu nahi dudan auziaren muina aipatzen baitu bete-betean; atal honetan zehar ikusiko dugu gure ekarpenak zertan moldatzen dituen bertan adieraziak:

Hay, de todos modos, un argumento interno que aboga también por una fecha no remota [*pluralaz ari da*]. En vizcaíno, como se sabe, se cumple, en los temas nominales en *-a*, cierto fenómeno de acomodación (disimilatoria), cuando el artículo determinado sigue a esa vocal: de *domeka* «domingo», tendremos *domekea* «el domingo», erg. *domekeak*, etc. Pero esto, de manera por demás curiosa, sólo se cumple en singular, con la señalada excepción del locativo: *domekaan*, de donde *domekan*, pero nunca *\*\*-ean*. De modo que, mientras de erg. sing. *domeka* + *-a* + *-k* sale *domekeak*, de abs. y erg. pl. *domeka* + *ak* [...] no se sigue más que *domekaak* y, por contracción, *domekak*. Caben otras explicaciones desde el punto de vista descriptivo: no sólo caben sino que sin duda son necesarias. Pero no invalidan, ni pueden hacer concurrencia, a las explicaciones históricas que aquí se reducirían a afirmar que el plural, como el locativo sing., se formó en vasco en época ya tardía, cuando la ley que convertía a *-a* + *-a* en *-ea*, etc., ya no era operante.

Aipu hau abiaburu,<sup>15</sup> ezinbesteko aipagarri suertatzen da artikuluak deklinabide sistemaren osieran izan zuen jokoak. Atal honetan, esan bezala, postposizio lokati-boaren inguruko bi auzi argitzen saiatuko naiz, bata Mitxelena-k “señalada excepción” izendatzen duen hori, hots, lokatibozko postposizioak mendebaldeko euskartan absolutiboak eta bestek lege duten disimilazioa ez erakustea (*aldapea* baina *aldapan*), eta bestea kontsonantez bukatzen diren izenetan lokatibozko postposizioak hartzen duen *-e-* epentetikoaren auzia (*mendi-an* baina *lan-e-an*), de Rijken (1981) eta besteren proposamenak gogoratu.

Auziari sarrera emateko, kasu eta postposizioen artean lehenik egin litekeen banaketa seguraski artikuludun eta artikulugabeak bereiztearena da, eta bakoitzak artikulurekiko zein jokoera duen ikustea. Egin daitekeen oinarrizko banaketa honakoa da: absolutiboak, ergatiboak, datiboak eta genitiboak artikulurekiko “jarrera” bera dute. Besteei dagokienez, leku-kasuetan bereziki (lokatiboa, ablatiboa, adlatiboa) gauzak ez dira horren garbi: artikulugabe edo artikuludun diren ez da horren erraz erabakitzen. Instrumentala, bi komitatiboak (*-rekin*, *-gaz*) eta oro har genitiboaren gainean eraikiak direnak alde batera utziko ditugu oraingoz.<sup>16</sup>

<sup>15</sup> Ez dakit zenbateraino den zilegi honela planteatzea, baina ezin al liteke pentsa, absolutibo pluralarentzako eta lokatibo singulararentzako Mitxelena-k dioen bezala, *-a+-a>ea* disimilazioa ez duten euskalkiek ere beranduagokoa dutela artikulua? Edo luzaroagoan gorde zutela hasperena? Dena dela erantzuna, aieru hau ondo lihoake artikulua mendebaldetik ekialdera zabalduko zerbaiten gisa ikusi nahi badugu.

<sup>16</sup> Instrumentalak egun aldaerak baditu (*eskuz*, *eskuaz*), baina seguraski definitu/indefinitu kontrastea egiteko. *-rekin* komitatiboak, genitiboaren gainean eraikia den neurrian, ez du harekiko alderik erakusten. *-gaz* komitatiboa interesgarriagoa izan daiteke, beharbada: artikulua darama, eta gainera mendebaldeko euskartan gertatzen den artikuluaren disimilazioa erakusten du; gero ikusiko dugu zertan den garrantzitsu hau.

Ondorengo bi azpi-ataletan arestian aipatutako lokatiboaren inguruko bi auzi horiek xeheki aztertzen saiatuko gara; horretarako *-e-* epentetikoarenarekin hasiko gara, eta 4.2.2. azpi-atalean Mitxelenaren aipuan adierazitakoa jorratuko dugu.

#### 4.2.1. Lokatibozko \*-eCan forma berreraikiarentzako proposamen berria

Esan bezala, leku kasuetan bada zenbait gorabehera artikulua denaz bezainbatean: hasteko adlatibo arruntaren ondoan, *-ra(t)*, baditugu Nafarroan *-arat* bezalakoak eta Zuberoan *-alat* bezalakoak. Oraingoan, dena dela ere, ez gara adlatibozko postposizioaz arituko, lokatiboa baitugu ikusmiran.

Lokatiboaz aritzeak luzeago joko du: ez da beti horren gauza segurutzat eman lokatibodun sintagmetan ageri den *-a-* hori artikulua dela (*mendi-a-n, lan-e-a-n...*). Mitxelenak, aipuan ikusi dugu, artikulutzat du lokatiboan agertzen den hori, baina Jacobsen, de Rijk eta Traskentzat, adibidez, *-a-* hori beste zerbaiten aztarna da, eta ez da artikulua definitua. Azken autore hauen proposamenaren nondik norakoa emango dut, eta azalduko nondik nora datorren haien ideia hori. Mahai-gainean jartzen duten arazoaren abiaburua kontsonantez bukatzen diren izenek lokatiboa hartzen dutenean ageri den *-e-* epentetiko horren azalpena bilatu nahi horretan datza: *ibarr-e-an, zuhaitz-e-an, lan-e-an* bezalako adibideak dituzte hizpide, *baso-an, etxe-an* bezalako ondoan, bokalez bukatutako izenen gainean egindako lokatibozko sintagmak. Banaketa osagarri honi begira, beraz, Jacobsen (1977), de Rijk (1981) eta Trasken (1997) lokatiboaren morfemak *\*-Can* forma-koa behar zuela (C = kontsonante ezezaguna) aldarrikatzen dute. *ibarrean* < *ibarreCan* batetik eratorri beharko dugu, hortaz, eta *basoan* < *basoCan* batetik. Arazoa balizko kontsonante horren nolakotasuna erabakitzerakoan heldu da: haiek *-g-* dela erabakitzen dute, hartara izen bizidunetan ikusten dugun lokatibo markarekin parekatuz (*gizon-a-ren-gan* bezalakoekin). Anlisi honen arabera *etxe-a-nen* ageri den *-a-*, hortaz, ez da artikulua definitua, jatorrizko formaren aztarna baizik (*etxe-gan* > *etxe-an* > *etxe-Øan*, gerora *etxe-a-n* gisa interpretatu dena). Baina proposamen hau ez da arazorik gabea; analisiaren puntu honetan bi gogoratuko ditut nik, Trasken (1997) berak ere aipatuak:

1. Nola azal toponimoetako formak *Maulen* eta *Irunen* bezalakoak izatea? Haiek berreraikitako *\*-gan* lokatibo horren arabera existitzen ez diren *\*\*Maulean*, *\*\*Irunean* behar genituzke, *\*Maule-gan* eta *\*Irun-e-gan* balizko protoformetatik eratorriak. Trasken honi zera erantzuten dio, toki izenetan agertzen den *-n* hori lokatibo zaharrago bat dela, toponimoetan gorde den arkaismoa. De Rijkentzako, berriz, leku izenek ez dute *-ga-* hori, berezkoa baitute "lekutasuna".
2. Baditugu, bestalde, Bizkaia aldeko *baten* eta ekialdeko (ipar Euskal Herria eta Erronkari gutxienez) *etxen* forma ustez arkaikoak. Argudiaketaren ildo beretik ditugu artikuludun eta artikulugabeko formen arteko txandakatzeak: iparraldeko *etxen niz* ("nire etxean") baina *Sophieren etxian*, adibidez. Bada, halaber, orain berean aipatu dugun erronkarieraz ere pare-pareko zerbait adlatibozko postposizioan, non forma orokorra *-ara* izaki *etxera* bezalakoak erabiltzen diren norberaren etxea denean aipagai, eta *etxeara* bezalakoak bes-

tela (ikus, argigarri, Angos (2005: 82)ko oinoharra). Ez dira, gainera, nolanhiko hitzak, Himmelmannek (1998) adierazten duen bezala halakoak izaten baitira artikulua definitua hartzeko lan handienak dituztenak hizkuntza-arte alderaketan; gogoan har Himmelmannek berak ematen duen zerrenda, ingeleseko eta alemanierako forma artikulugabeekikoa: *at home*, *zu Hause*... Eman dezagun, horretan ari garela, azken salbuespen bat, *-a-*gabeakoa, alegia: Tartasek (1666: 41) *soiñen* darabilenean *kurutzia soiñen karreiatu* bezalako esaldietan ez du *-ian (soiñian)* forma orokorra ematen; de Rijkek berak (1981: 93) adibide hau ekartzen du gogora, baita modu ilun eta lauso batean azaldu ere: “[...] *soiñen* testu inguru honetan *soiñian* baino artezago eta aproposago zirudiolako edo”. Atal honen bukaeran espero dut azalpen labur baina egokiago bat ematea horrelakoentzako eta baita aurrezago ikusiko ditugun beste salbuespenentzako ere. Oraingo honetan ere Traskek ez du urrutiago jotzen, *etxen* formarentzako azalpena inguruko hizkuntza erromantzeen eraginean bilatzen baitu, baina ez du *baten* formaz deus esaten, ezta erronkarierazko adlatiboaz eta Tartasen horretaz ere.

Auzia honela aurkeztuta, aitortu beharrean gaude ez dugula ez bi lokatibo proposatu nahi ez *baten* eta *etxen* bezalakoak ondo azaldu gabe utzi nahi. Hipotesi alternatibo baten bila, egin dezagun de Rijkek eta bestek proposatzen dutenaren aurka, baina ez erabat: onar dezagun hor, tartean, kontsonanteren bat behar genuela, *lan-e-an* bezalakoetako loturazko *-e-* hori azaltzeko, baina esan dezagun tar-teko kontsonante hori ez zela *-g-*, hasperena baizik (ikus, gainera, Oñederraren 2005eko lanean *-g-* honek, maila sinkronikoan bederen, aurkezten dituen arazoak zorrotz zerrendatuak). Hasperena artikulua jatorri beretik azaltzen da, *\*ha(r)* erakusleko hasierako soinu horretatik eratorritzen baita<sup>17</sup> (ikus Eranskinean /h/ horren aztarnak). Gure ustez hipotesi honek aldeko du jatorri ezagun batean topatzen duela kontsonante ezezagun hori, eta jakina, bertatik jarraitzen da lokatiboetako *-a-* horiek artikulua edo artikuluaekin harreman dutako zerbaite direla. Buka dezagun, baina, proposamen berri hau dakarren atal hau beronentzako arazo den zerbaitekin:

- Zergatik eragiten ditu jatorrizko balizko hasperenak emaitza diferenteak absolutibozko eta lokatibozko formetan? Hots, zergatik dugun lokatibozko *lanean* baina ez absolutibozko *\*lanea*, *lan* + *ha(r)* batetik eratorri nahi izan duguna beti.

Arazo hau gogoan hartuta jo dezagun hurrengo atalera. Bertan beste auzi jakin bat deskribatuko dugu, eta espero dut 4.2.3. atalean aurretik azaleratutako bi kontu horiek modu bateratu batean azalduko ditudala. Baina, deus aurreratu gabe, ager dezadan zein den bigarren kontu hori.

<sup>17</sup> Puntu honetan tentagarria izan liteke zubereraz aurki daitezkeen epentesirik gabeko formak, *goizan* vs. *goizean* orokorra, mendebaldetik ekialderako artikulua hedatzearen seinale gisa ikusteko. Hala izan bazen, artikulua ekialde “urrun” hartara iritsi zenerako ez zuen batere hasperenaren zantzurik izango eta hartara ez zuen inongo epentesirik eragingo. “Tamalez”, itxura guztien arabera zubererazko forma hauek berrikuntzak baizik ez dira, Tartas eta Oihenarten lekukotza lagun, hauek *-ean* formakoak baizik ez baitituzte.

4.2.2. *Mendebaldeko euskaretan: absolutiboa aldapea, lokatiboa aldapan*<sup>18</sup>

Argitu dugu (horren esperantza dut behintzat) lokatiboetan dugun *-a-* hori ere artikulua dela, eta ez *\*-gan* bezalako zerbaiten aztarna. Jar gaitzen orain atal hone-tako izenburuan adierazten den txandakatzeari begira, 4.2. atalari hasiera eman dion Mitxelenaren aipuan ere jasotakoa: mendebaldeko hizkeretan, hortaz, *-a-*z bukatzen diren izenek artikulua hartzen dutenean zenbait disimilazio bilakaera agertzen dute, eta horrela *aldapa + a > aldapea*<sup>19</sup> bezalako absolutiboak ditugu; bestalde, hasieran aipatu bezala, ergatiboak, genitiboak eta baita datiboak ere jokabide bera erakusten dute. Arazoa begien bistakoa da: zergatik ez da disimilazioaren emaitzarik agertzen lokatiboan, artikulua gainean eraikia bada? Hemen lokatibozko postposizioaren bilakaera diakroniko zehatza proposatzeko premia gailentzen da; horretarako deskriba dezadan xehean xehe orain artean bistaturiko aukera:

— Esan bezala, izen artikuludunaren gainean *-n* gehituz eratu zen postposizio hau. Hona bilakaera kronologikoa, laburbilduz eta zenbait pausoren abstrakzio eginez:

(15) *etxe + ha > etxea*                      *etxea + n > etxean*

baina

(16) *aldapa + ha > aldapea*                      *aldapea + n > \*\*aldapean*

Lokatiboa izen artikuludunaren gainean eraiki izan balitz disimilazio gertaera horiek berdin-berdin erakutsi beharko lituzke, (16)ko adibideak adierazi nahi duen bezala; argi da horrelako azalpen bat ez dela baliagarria, egun *aldapean* bezalako lokatiborik ez baita entzuten.<sup>20</sup> Honek tinko segitzen duen galdera berriz ere pausatzera garamatza: zein izan zen lokatibozko postposizio definituaren eraketa zehatza? Hona bada gure hipotesia, (15) eta (16)k asegabe utzi duten galdera erantzuteko dakardana:

— Lokatibozko postposizio definitua izen hutsaren gainean lokatibozko erakuslea gehituz eratu zen. Hona eskema, berriz ere tarteko pausoen abstrakzio eginez:

(17) *etxe + han > etxean*                      (18) *aldapa + han > aldapan*

<sup>18</sup> Eskerrak eman nahi dizkiot Andoni Rodriguezi datuon juzkuak segurtatzeko emandako laguntza-rengatik. Era berean, datu hauen herriz herriko berri zehatza eskaini eta erraztu didan Ignazio Carrera ere eskertu nahi nuke.

<sup>19</sup> Bada arau morfonologiko hau (Oñederraren terminoetan) betetzen ez duen zenbait hitz; eman dit-zadan Oñederrak berak (2005: 393) gogoratzen dituenak: *ama, aita, amama, aitiba*. 4.2.1. atalean emandako salbuespenekin batean (*etxen, soiñen*) saiatuko naiz hauek ere azaltzen 4.2. atal honen bukaeran.

<sup>20</sup> Entzun entzun, zenbait tokitan, eta beharbada zenbait hiztun gazteren ahotan entzun daitezke, baina hiztunek eurek esaten dute disimilaziorik gabeko forma nahiago dutela. Bestalde, testuetan ageri den forma zaharrena zein den ez da dudarik. Egun horrelakoak aditzea analogia huts batez uler daiteke.

Jakina, horrelako proposamena egiteak berehalako inplikazioak ditu alde batean baino gehiagotan: hasteko, pentsatu beharrekoa da *han* eta *hartan*-en arteko harremana zein den zehazki, kronologikoa bereziki, bietan zaharragoa zein den erabakitzeko. Ez dirudi astakeria pentsatzea *han*, gerora adberbio gisa espezializatu bada ere, garai batean erakuslearen forma lokatiboa zela, Diesselen lanak (1997, 1999) lagun. Horrela bada, *hartan* egungo erakuslearen lokatiboa forma berriagotzat ematea ez da zaila, *-ta-* hori tarteko gainera.<sup>21</sup> Hobeto azaltzeko geratuko litzateke berreirikitzean beti ematen den erakuslearen bukaerako *-r* hori, zenbait arazo eman bailezake agian. Baina ez dugu oraingoz horretan sakonduko. Itxura guztien arabera, eta aldarrikatu nahi genukeen bezala, (17) eta (18) adibideetan emandako lokatibozko postposizio definitua eratzeko modua egokiagoa da absolutibozko formaren gainean eraikitzea baino, (15) eta (16) adibideetan irudikatua.

Lokatiboari eskainiko diodan azken atalean, hurrengoan, hemengo proposamena (esan bezala (17) eta (18)koa) 4.2.1. atalaren bukaeran agertu dugun arazoa-ekin uztartu nahiko dut. Jo dezagun horretara.

#### 4.2.3. Lokatibo eta absolutibo definituen bilakaera kronologiko erlatiboa

Ikusi dugu, 4.2.1. atalean, zein zen arazoa: hasperena proposatzen baguenen *lan-e-an* bezalakoen *-e-* epentetiko horiek azaltzeko, absolutibozko formak, *lana* eta ez *\*\*lanea*,<sup>22</sup> “desazaltzen” genituen. Bestalde, 4.2.2. atalean ikusi dugu, mendebaldeko disimilaziodun formei jarraiki, hobe genuela lokatibozko postposizio definitua lokatibozko erakusle zaharraren (*han*) gainean eratzzea, absolutiboaren gainean eraikitzea baino. Bi auzi hauek elkarren osagarriak izan daitezke, eta batetik ateratzen ditugun ondorioak bestearentzako suposa dezakegun bilakaerari ondo egokitzen zaizkiola uste dugu; uztar ditzagun biak kronologia erlatibo zehatza eskainiz. Lehendabizi mendebaldeko euskaretan gertatutakoa irudikatuko dugu; lehen lerroan garaiak zenbakitu ditut, bigarreanean absolutiboaren bilakaera garai horietako bakoitzean eta azken lerroan lokatiboarena:

#### 1. Taula

Mendebaldeko absolutibo eta lokatiboaren bilakaerak, bukaeran *-a* duten izenekin

|      | 1            | 2              | 3            | 4           | 5          | 6         |
|------|--------------|----------------|--------------|-------------|------------|-----------|
| ABS. | aldapa ha    | > aldapa a     | > aldapaa    | > aldapea   | ...        | ...       |
| LOK. | (aldapa han) | > (aldapa han) | > aldapa han | > aldapahan | > aldapaan | > aldapan |

<sup>21</sup> Horrelako egoeraren aurrean zinez esanguratsuak dirateke *han bertan* eta *han berean* bezalako bikoteak. Markel Lizasoaini eskertzen diot ohar hau.

<sup>22</sup> Egia da, halere, eta lehenago arazoa aurkezterakoan ez dut aipatu, badela zenbait adibide horrelako itxura erakusten dutenak: Altsasu ondoko *Ibarrea* toponimoa da bat, eta Orpustanek (1999) lekukotzen duen 1060ko *aranea* bestea, gogoratuz 828ko *aranna* baten berri ere ematen duela (kronologia erlatibo bitxia bien artekoa, bide batez). Orpustanekin arazoa da, halere, ez duela zehatz adierazten non aurkitutakoak diren aipatzen dituen formak; irakur Salaberriren (1999) iruzkina. Nolanahi ere den, ez da orain lekua eta garaia horrelako adibideen esanguratasunaren alde edo aurka egiteko.



Hemen irudikatu nahi izan dudana zera da, postposizio sintagma lokatibo definituaren garapena, beti ere absolutibozko sintagma definituak erakusten duen bilakaeraren kronologia erlatiboarekiko. Pluralarentzat pentsatu izan den bezala (ikus atal oso honi hasiera eman dion Mitxelenaren aipua) lokatibo definitua ere beranduagoko, edo bestela nahi bada, artikulua absolutibo singularra baino gramatikalizazio maila apalagoko kontua da; taulako lehen lerroan adierazi dugun hirugarren garaitik laugarrenerakoan dago gakoa, izan ere garai horretan gertatzen baita absolutiboan Bizkai-Gipuzkoetako disimilazio ezaguna. Lokatiboaren lerroan, aldiz, ikusten dugu ez dela orduan horrelakorik gertatzen, izena eta erakuslearen arteko muga oraindik aski nabaria zela suposatu behar baitugu. Jakina, esan gabe doa honen arabera lokatibozko erakusle urrunak (*han-ek*) denbora luzeagoan gorde zuela bere izaera morfologiko izenarekiko berezia. Gogoratu beharrekoa da, halaber, absolutibo definitua eratzean gertatzen den hasperenaren galerak ez duela zertan bat egin hasperenaren galera orokorrarekin, gauza jakina baita gramatikalizazio prozesuetan horrelako izaera fonologikoaren higatzeak edo leuntzeak arruntak direla.

Osa dezagun orain 2.1.1. ataleko arazoa argituko duen taula, 1. taulan eman ditugun garai erlatibo horiek errespetatuz; bigarren taula honetan, berriz ere, lehen lerroan garaiak adierazten dituzten zenbakiak jarri ditugu, bigarrenean absolutibozko formak, eta hirugarrenean lokatibozkoak; aldatzen den gauza bakarra zera da, bilakaera zein izen motari ezartzen diogun, hemen, esan bezala, kontsonantez bukatzen diren izenak izango baititugu jokoan:

### 2. Taula

Absolutibo eta lokatiboaren bilakaerak, kontsonantez bukatutako izenekin

|      | 1         | 2 | 3         | 4 | 5       | 6 |           |     |        |     |
|------|-----------|---|-----------|---|---------|---|-----------|-----|--------|-----|
| ABS. | lan ha    | > | lan a     | > | lan a   | > | lan a     | ... | ...    |     |
| LOK. | (lan han) | > | (lan han) | > | lan han | > | lan-e-han | >   | lanean | ... |

Espero dut bigarren taula honekin 4.2.1. atalean eman dudana arazoa ez dela honezkeror arazo, gertaera bakoitzaren kronologia erlatiboa ondo zehaztuz gero argi gertatzen baita absolutiboarentzako ez dugula zertan espero lokatiboan gertatzen dena. Horrela bada, bai kontsonantez bukatzen diren izenentzako bai mendealdean *-a* bukaera duten izenentzako kronologia erlatibo bateratu bat eskaini dut, bi kasuetan ikusi izan diren gorabeherak ondo azaltzen dituen. Eman dezagun azken taula bat, aurreko bien batuketara baino ez dena, kronologia erlatibo bateratuak eskaintzen dituen azalpenak hobeto irudikatzeko xedez (ikus 3. taula).

Egia esan, lokatibo eta absolutibozko formen arteko garapen erlatiboa inportanteagoa da garai bakoitzarentzako eman dugun formaren sorrera eta iraupen erreala baino, bereziki hirugarren garaitik laugarrenerako jautsian, non *-a-z* bukatutako izenen absolutibozko formetan disimilazioa gertatzen den; honekin batean, aintzat hartu behar den puntu nagusia zera da, garai horietan lokatibozko erakuslea, postposizio lokatibo definitua emango zuena, aski beregaina zela, ez erabat IS-n txertatua. Bertatik literaturan aipatu izan den plurala eta lokatiboa beranduagokoak diren intuizioa.

## 3. Taula

Kontsonantez zein *-a-z* bukatutako izenen bilakaera

|      | 1                         | 2                             | 3                         | 4                          | 5                      | 6                  |
|------|---------------------------|-------------------------------|---------------------------|----------------------------|------------------------|--------------------|
| ABS. | aldapa ha<br>lan ha       | > aldapa a<br>> lan a         | > aldapaa<br>> lana       | > aldapea<br>> lana        | ...                    | ...                |
| LOK. | (aldapa han)<br>(lan han) | > (aldapa han)<br>> (lan han) | > aldapa han<br>> lan han | > aldapahan<br>> lan-e-han | > aldapaan<br>> lanean | > aldapan<br>> ... |

Azkenaurreko ohar gisa, 1. taulako datuak mendebaldeko gertaerak azaltzeko helburuz osatu den neurrian, emandako azalpen osoa euskara horientzako bete-beteko argibidea dugu. Euskara horietan dugu hiru izen motaren araberrako banaketa osagarria: kontsonantez bukatzen diren izenak (*lan*), *-a-z* bukatzen direnak (*aldapa*) eta beste edozein bokalez bukatzen direnak (*baso*, *mendi*). Beste euskarak, *-a-z* bukatzen diren hitzekin disimilaziorik erakusten ez duten neurrian, bilakaera horrekiko indiferenteak dira; era berean, nago 2. taulan emandako bilakaera euskalki guztietan berdintsu gertatu zela.

Atal honetako azken oharra, aspalditxo hitz emana baitut, “zintzilik” utzi ditudan salbuespen horietaz arduratuko da. Badirudi badela hitz zenbait artikulu definitua hartzeko trabak dituztenak: absolutiboan 4.2.2. atalean gogoratutako *aita*, *ama*, *aitite*, *amama* eta lokatiboan 4.2.1.eko *etxen-etxean*, *etxera-etxeara*, *soiñen*.<sup>23</sup> Honetarako emango dudana azalpena hitz hauen izaera semantikoa bilatuko dut. Ez da, noski, nik aurkitutako azalpena; aitzitik, beste hizkuntzetako lekukotzek indartuko duten patroï ezaguna dugu hau. Izan ere, ikusten dugu hitz hauek erreferentzia bakarrekiko edo edute besterenezina adierazten dutenak direla; horrelaxe aurkeztuak heldu du Himmelman (1998) bezalako lanetan, eta halaxe eman digu aditzera Companyk ere (1991), gaztelaniazko erreferentzia bakarrekiko izenak artikulu beranduen hartzen dutenen artean daudela gogoratzean (ikus gorago, 2.2. atalean artikulua hedatzerako emandako eskala). Ez ahanztu, bestalde, *errege* hitza nola erabili izan den euskal tradizio eta literaturan, Etxeparerekin hasita: artikulurik gabe eman izan da, eta zer, hain zuzen ere, *gure errege* baino adierazpide erreferentzia bakarrekikoagorik? Hona hemen salbuespen horiek modu bateratuan azalduak, artikulu definituaren hedatzeaz hizkuntza-artearen azalerazitako bilakabide orokorren argitara. Honenbestez, uste dut bizkaierazko *baten* dela salbuespen hauek okerren azaldu dudana; ez dut oraingoz azalpen zehatzik buruan, baina agian ez gara oso urrun ibiliko berori artikulu indefinitu gisa hartzen badugu zenbatzaile baino, eta hortik artikulu definituarekin ezin elkartua.

Hona bada, atal honetan ikusi dugun bezala, artikulua zabaltzearen azterketak nolako laguntza ekartzen duen euskal deklinabidearen gorabeherak argitzen. Azterketa postposizioz postposizioz egin beharrekoa da, bakoitzaren nondik nora-

<sup>23</sup> Ezin bikoteak bete-betekoak izan, dirudienez Tartasek (1666) ez baitu *soiñian* bezalakorik erabiltzen; gure burua zuritzeko esan beharra dago, halere, testu horretan ez dugula *soiñ* hitzaren beste adibiderik topatu.

koa xedatzeko; ez gara orain horretan arituko, baina balio beza lokatiboarekin burutu dugun saiotoxoak bide horretan hasierako urrats gisa. Bukatzeko, gogoratu nahi nuke deklinabide sisteman artikulua hedatzea ezin dela aztertu gorago bezala, testuinguruka egin dugunean bezala; Himmelman (1998)ri jarraiki, ondo ikusten da postposizioen (eta preposizioen) artean ere badela hierarkia jakin bat definitutasun markak hartzeko tenorean, eta askotan marka hori gabeak markadunak baino zaharragoak izan daitezkeela, baina baita alderantziz ere. Honetan guztian etorkizuneko lanetan sakondu beharko dugu, ezinbestean, seguraski bertan baitugu euskalkien arteko bariazio interesgarri eta ez erabat sakonki aztertua.

## 5. Laburbilduz

Lan honen arrazoibidearen ildoak ideia ezagun orokor baten gainean eraikiak dira: euskarazko artikulua definitua mendebaldetik ekialdera hedatu zen.<sup>24</sup> Bigarren atalean zabaltze horren patroien berri eman eta euskal artikulua definituaz egiten diren analisi sinkronikoekin uztartu nahi izan dut, azpimarratuz bi analisi mota horietan, sinkronikoa eta diakronikoa, izen mota eta testuinguru sintaktiko berberak har daitezkeela irizpide. Hirugarren atalean “diakronia sinkronikoari” begira jarri gara ondoren, esan nahi baita egun euskarak dituen aldaera dialektologikoei begira, ikusiz horietan ere irizpide beretsuak har zitezkeela aldaerak azaltzeko. Azkenik, laugarren atalean bi ohar ematen ditut: bata erronkarietarako erakusle herskari ahoskabetunaz, zeintzuen arabera mendebaldetik ekialderako artikulua zabaltzea berresten den, eta bestea postposizio sisteman zabaltze hori nola gertatu zen argitu nahian, lokatibokoan bereziki sakonduz, zenbait lanetan berreraiki izan den *\*-gan* lokatiboa baztertuz eta *-g*-ren ordez postulatu beharreko kontsonantea *-h-* zela aldarrikatuz.

Nolanahi ere den hori guztia, bada beste ildo nagusi bat gai hau diakroniaren ikuspegitik aztertzen dugunean, lan honetan batere jorratu ez duguna: artikulua beraren sorreraren auzia da, barruan beste hainbat azpi-atal biltzen dituena. Artikulu definitua bezalako zerbait agertzearen motibazioa, horrelako kategoria funtzional berri bat sortzeko hizkuntzak bere garaian eskaintzen zuen testuinguru tipologikoa, artikulua definitua agertu baino lehenagoko definitutasuna markatzeko moduak zein izan ote zitezkeen... horrelako galderetan sakontzeak hizkuntzaren egitura orokorraren berri asko eman diezaguke, eta guk lantxo honetan hartu dugun ildoaren ezinbesteko osagarria izan behar dira halako hausnartzeak. Oraingoan, baina, ez da horretarako parada izango lan honetan, eta hurrengoetan argitara emango ditudan ideietan espero dut ildo horri ekin eta emaitza interesgarriak ekartzea.

<sup>24</sup> Honetaz ari garenean, aintzat hartu beharra dugu abstrakzio maila batekin egin behar dela gogoeta, ez baitakigu zehatz orain 1500 urteko euskalkien konfigurazioa eta elkarren arteko harremana zein zen; horregatik, neurri batean anakroniko sueta baliteke ere, egungo egoera linguistikorekin koordenada geografikoak erabiltzen ditugu garai bateko gertaeraz aritzeko.

## Eranskina

Artikuluia eta 1025eko Arabako herrien zerrenda<sup>25</sup>

Bada Mitxelenaren testu zaharren bilketan (1964) Arabako herri izen asko dituen zerrenda bat. Herri izen horiek itxura arkaikoa dute: egungoak baino luzeagoak dira eta hasperenez josiak. Sailka ditzagun haietako batzuk:

- (i) *-zaha: Hillarrazaha, Hascarzaha, Adurzaha, Otazaha, Gerfalzaha...*

Mitxelenaren esanetan (1964: 29) *-zaha* egungo *-za* atzizkiaren jatorrizko forma da; honen aurka bi motako adibideak ditugu:

- (ii) *-za: Larraza, Izarza.*  
 (iii) *-ha: Arroiaha, Udalha, Aialha.*

Mitxelenaren analisiaren arabera (ii)koetan *-ha* gabeko *-zaha* genuke; (iii)koetan, aldiz, irudiz *-ha* hutsa dugu, *-za*-rik gabe. Zergatik ez pentsatu (ii)koa eta (iii)koa, zein bere aldetik, gauza diferenteak zirela? *-za* ezaguna dugun atzizkia genuke, eta *-ha* artikulua forma arkaikoa, hasperena gorde zuena. Eman ditzadan honen alde, neurri batean, egin lezaketen adibideak:

- (iv) *-a: Larrea, Carrelucea, Olhaerrea, Zuffia, Zubiabarrutia, Hazpurua, Hurigurrenna, Zavalla...*

Hauetan ez da dudarik, amaieran artikulua definitua dute. Zergatik ez zuten hasperena gorde? (i)ekoak ez bezala (eta (iii)ko *Arroiaha* ez bezala) ez baitira *-a* bukaeradun izenak: *larre, zubi, buru...* Banaketa osagarrian dugu, beraz, artikuluko hasperena: *-a* bukaeradunetan gorde zen, *-aa* bilkura ez suertatzeko, noski. Bada hemen adibide esanguratsu bat, *Elhorzahea*, non seguruenik *-a + -a > -ea* disimilazio ezaguna dugun, artikulua eihartu baten gainean berri bat ezartzetik letorkeena. Orain artekoek gain ditugun *Larrahara, Haiztara* eta *Bocara* izenentzako alde batetik, eta *Artahaza* eta *Barizahaza* izenentzako bestetik ez ditut gauzak hain garbi.

Etekin handia atera dakieke hasperena agertzen duten Erdi Aroko lekukotasunei, erakusleatiko hasperena aitortzen badiegu:

- (v) *-heta: Erroheta, Bagoheta, Azazaheta, Gazaheta, Sansoheta...*

Hauetarik ondoriozta liteke 1) *-eta* atzizkia ez dela latinetik mailegatua, eta 2) erakusleatiko jatorria onartuta, *-ta-* bakartu genezakeela, leku-kasuetakoarekin harmanduz (*har-ta-n*).

- (vi) *-hen: Arbelgoihen, Goiahen...*

Hauetan jatorria beharbada argiagoa da, beti onartua izan baita genitibo superlatiboarena, lehen adibidean bai, bederen.

<sup>25</sup> Ricardo Gómez, Joseba Lakarra, Céline Mounole eta Blanca Urgelli datu hauen gaineko eztabaida eskertu nahi diet.

## 6. Bibliografia

- Abney, S., 1987, *The English noun phrase in its sentential aspect*. MITko doktorego tesia.
- Altuna, P. & Azkarate, M., 2001, *Euskal morfologiaren historia*. Donostia: Elkarlanean.
- Álvarez, J. L., 1977, "L'emploi de l'indéfini en souletin", *FLV* 25, 29-55.
- Angos, A., 2005, *Erronkariara (I). Gramatika*. Donostia: Hiria Liburuak.
- Artiagoitia, X., 1998, "Determinatzaile sintagmaren hipotesia euskal gramatikan", *Uztaro* 27, 33-61.
- , 2003, "The functional structure of the Basque noun phrase". In X. Artiagoitia, Goenaga, P. & Lakarra, J. A. (arg.): *Erramu Boneta: Festschrift for Rudolf P. G. de Rijk, ASJUren Gehigarriak XLIV*, 73-90. Bilbo: EHU-UPV.
- Company, C., 1991, "La extensión del artículo en el español medieval", *RPh* XLIV, 402-24.
- Cyr, D., 1993, "Cross-linguistic quantification: definite articles vs demonstratives", *Language Sciences* 15. 3, 195-229.
- Diessel, H., 1997, "The diachronic reanalysis of demonstratives in cross-linguistic perspective", *Chicago Linguistic Society* 33, 83-97.
- , 1999, "The morphosyntax of demonstratives in synchrony and diachrony", *LT* 3, 1-49.
- Exepare, R., 2003, "Valency and argument structure in the Basque verb". Hualde & Ortiz de Urbina (arg.), 363-426.
- Euskaltzaindia, 1993, *Euskal Gramatika Laburra: Perpaus Bakuna*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Frajzyngier, F., 1996, "On sources of demonstratives and anaphors". Fox, B. (arg.): *Studies in anaphora. Typological studies in language*, 33, 169-203. Amsterdam-Philadelphia: John Benjamins.
- Greenberg, J. H., 1978, "How does a language acquire gender markers?". Greenberg, J. H., Ferguson, J. & Moravcsik, E. (arg.): *Universals of Human Languages*, Vol. III, 47-82. Stanford: Stanford U. P.
- Himmelman, N. P., 1998, "Regularity in irregularity: article use in adpositional phrases", *Linguistic Typology* 2, 315-53.
- , 2001, "Articles". Haspelmath, M., König, E., Oesterreicher, W. & Raible, W. (arg.): *Language Typology and Language Universals*, Vol. 1. 831-41. Berlin-New York: Walter de Gruyter.
- Hopper, P. J. & Thompson, S., 1980, "Transitivity in grammar and discourse", *Lg* 56, 251-99.
- Hualde, J. I. & Ortiz de Urbina, J., 2003, *A grammar of Basque*. Berlin-New York: Mouton de Gruyter.
- Huang, Sh., 1999, "The emergence of a grammatical category definite article in spoken Chinese", *Journal of Pragmatics* 31, 77-94.
- Irigoyen, A., 1957, "Cartas de Mariano Mendigacha a D. Resurrección María de Azkue, escritas en vascuence roncalés y en castellano", *Euskera* II, 119-70.
- Jacobsen, W. H. Jr., 1977, "The Basque locative suffix". Douglass, W. A., Etulain, R. E. & Jacobsen, W. H. Jr. (arg.): *Anglo-American contributions to Basque studies: Essays in honor of Jon Bilbao*, 163-68. Reno: Desert Research Institute Publications on the Social Sciences, no. 13.
- Lakarra, J. A., 1983, "Oharrak zenbait arkaismoz", *ASJU* 17, 43-68.
- Li, Ch. & Thompson, S. A., 1974, "An explanation of word order change SVO--> SOV", *Foundations of Language* 12, 201-14.

- & —, 1975, “The semantic function of word order: a case study in Mandarin”. Li, Ch. (arg.): *Conference on word order and word order change*, 163-95. Austin-London: University of Texas Press.
- Masica, C., 1986, “Definiteness-marking in South Asian languages”. Krishnamurti, B. (arg.): *South Asian languages: Structure, Convergence and Diglossia*, 125-46. Delhi: Motilal Banarsidass.
- Milsark, G. L., 1977, “Toward an explanation of certain peculiarities of the existential construction in English”, *Linguistic Analysis* 3.1, 1-29.
- Mitxelena, K., 1954, “De onomástica aquitana”, *Pirineos* 10, 409-55.
- , 1955, “*Franziskua, Peria, Jesusa*”, *BAPXI*, 113-15.
- , 1961-1977, [1990], *Fonética histórica vasca 2ª edición, corregida y aumentada*. Anejos de ASJU, IV. San Sebastián: Diputación de Gipuzkoa.
- , 1964, [1990], *Textos arcaicos vascos*. ASJUren Gehigarriak XI. Donostia: EHU.
- , 1971, “Toponimia, léxico y gramática”, *FLV* 3, [Mitxelena, K. 1987, 141-67].
- , 1979, “Miscelánea filológica vasca IV”, *FLV* 11, [Mitxelena, K. 1987, 435-63].
- , 1987, *Palabras y textos*. Gasteiz: EHU Argitarapen Zerbitzua.
- Oñederra, M. L., 2005, “Fonologiaren mugak: alabea eta birjinak elexan”, Etxeberria, P. & Knörr, E. (arg.): *Nerekin yaio nun. Txillardegiri omenaldia*. IKER-17, 379-97. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Orpustan, J. B., 1999, *La langue basque au Moyen Âge (IX-XV siècles)*. Baigorri: Izpegi.
- Osawa, F., 2003, “Syntactic parallels between ontogeny and phylogeny”, *Lingua* 113, 3-47.
- de Rijk, R. P. G., 1981, “Euskal morfologiaren zenbait gorabehera”. *Euskal linguistika eta literatura: bide berriak*, 83-101. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.
- , 1992, “Nunc! Vasconice”, *ASJUXXXVI-3*, 695-724.
- Salaberri, P., 1999, “Reseña: Orpustan, J. B.: *La langue basque au Moyen Âge (IX-XV siècles)*”, *RIEV* 44.1, 205-209.
- Tartas, J., 1666, *Oña hilzeco bidia*. www.armiarma.com web-guneko bertsiio informatikoa, Josu Lavinek paratua.
- Trask, R. L., 1997, *The History of Basque*. London-New York: Routledge.
- , 2003, “The noun phrase: nouns, determiners and modifiers; pronouns and names”. Hualde & Ortiz de Urbina, 113-70.
- Silverstein, M., 1976, “Hierarchy of features and ergativity”. Dixon, R. M. W. (arg.): *Grammatical categories in Australian aboriginal languages*, 112-71. Canberra: Australian Institute of Aboriginal Studies.

## UN TEXTO INFORMAL VASCO MANUSCRITO EN UN IMPRESO DE 1505

Francisco A. Marcos-Marín

(University of Texas at San Antonio (UTSA)  
Università degli Studi di Roma "La Sapienza")

El “descubrimiento” de la colección Foulché-Delbosc en la Biblioteca Nacional de la República Argentina<sup>1</sup> y, sobre todo, su catalogación y estudio, puso a disposición del investigador una serie de curiosos textos, manuscritos e impresos. Uno de los impresos contiene, como es frecuente en estas ediciones antiguas, un conjunto de notas manuscritas, algunas de las cuales son simples pruebas de pluma, mientras que otras pueden revestir cierto interés.

La descripción del libro según el catálogo informatizado de la colección es la siguiente:

Juan de Mena. Las .ccc. del ll famosissimo ll poeta juan de ll mena co(n) glosa. Nº Catálogo Subasta: 317. Signatura en la Sala del Tesoro de la Biblioteca

---

<sup>1</sup> Sobre las vicisitudes de la colección Foulché-Delbosc desde la subasta de 1936 hasta el estado actual de la parte del fondo adquirida por la Biblioteca Nacional de la República Argentina se encuentra cumplida información en Francisco Marcos Marín: “Presente y futuro de la Filología Electrónica en la recuperación de la Colección Foulché-Delbosc de la Biblioteca Nacional Argentina”, *Boletín de la Academia Argentina de Letras*, LXIII, 1998 [1999], 15-52, “La recuperación de la colección Foulché-Delbosc de la Biblioteca Nacional Argentina y una referencia a manuscritos de Quevedo”, *Estudios de Filología y Retórica en Homenaje a Luisa López Grigera*, Edición coordinada por E. Artaza, J. Durán, C. Isasi, J. Lawand, V. Pineda y F. Plata. Bilbao: Universidad de Deusto, 2000 [2001], 311-22, “La recuperación de la colección Foulché-Delbosc de la Biblioteca Nacional de la República Argentina”, *La Corónica* 29, 2 (Spring, 2001): 147-57, “Filología electrónica: sobre métodos. Catalogación y análisis como prerrequisitos de la edición crítica”, *Studia in honorem Germán Orduna*, Leonardo Funes y José Luis Moure (editores), Universidad de Alcalá: Servicio de Publicaciones, 2001, 429-38, “Where is electronic philology going? The present and future of a discipline”, *New Media and the Humanities: Research and Applications*. Proceedings of the first seminar *Computers, literature and philology*, Edinburgh, 7-9 September 1998, ed. Domenico Fiormonte & Jonathan Usher, University of Oxford: Humanities Computing Unit, 2001, 11-22, “Libros de contenido lingüístico en la colección Raymond Foulché-Delbosc de la Biblioteca Nacional de la República Argentina”, en *La Gramática. Modelos, Enseñanza, Historia*, coord. H. Albano, L. Ferrari, M. Giammatteo, Universidad de Buenos Aires, Facultad de Filosofía y Letras: Instituto de Lingüística, 2001, 71-95. Sobre ediciones de *La Celestina* en ese fondo véase Georgina Olivetto, “Las ediciones de *Celestina* de la colección Foulché-Delbosc en la Biblioteca Nacional de la República Argentina”, *Celestinesca* 1998, 22.1, 67-74. El catálogo informatizado, con una amplia descripción filológica, que incluye transcripciones y facsímiles, sobre todo de manuscritos, se encuentra a disposición de los investigadores en <http://www.lllf.uam.es/~fmarcos/informes/BNArgentina/BN.htm>.

Nacional de la República Argentina, FD 590. Impreso en Granada, el 7 de noviembre de 1505, por Juan Varela de Salamanca.<sup>2</sup>

De su historia se sabe que entre sus dueños estuvieron el Conde de Ezpeleta y Raymond Foulché-Delbosc<sup>3</sup> y que se menciona también a un Llorente Gutiérrez.<sup>4</sup> Está impreso en un papel cuya marca de agua es una mano enguantada que sostiene flor de cinco pétalos [f. X]. Se trata de un in-folio que parece menor por la acción de la cuchilla, con unas dimensiones actuales de 190 x 265 mm. Letra gótica y tintas roja y negra.<sup>5</sup>

Este ejemplar impreso de las CCC incluye abundantes marcas, sellos, anotaciones<sup>6</sup> y pruebas de pluma. De ellas interesan especialmente aquí las tres líneas del

<sup>2</sup> El colofón dice así: ¶ Acabanse las trezientas del famoso poeta Juan de Mena: glosadas por Hernand ll nuñez de Toledo Cauallero dela orden de Santiago: y emendadas en esta segu(n)da ymp(re)-llsion por el mismo Comendador quitando el latin que no era necessario y añadiendo alllgunos dichos de Poetas enel comento muy p(ro)uechosos para entender las coplas. Imp(re)sllsas con grandissima diligencia por Juan Varela de Salamanca en la muy nomb[rada y] ll grand ciudad de Granada. En el año de Mill y quinientos y cinco años[:a siete siete días del] ll Mes de Nouiembre. En el Manual de Palau tiene el número 162689. En el recto de la hoja de guarda final hay una nota de Raymond Foulché-Delbosc, a lápiz, que dice: "R 2<sup>a</sup>. ed de la glosa de Fernan Núñez".

<sup>3</sup> Su estado general es regular. Vermes en los primeros ocho folios. La cuchilla del encuadernador se ha llevado buena parte de la foliación y de las cabezas de página. Restaurado el recto del f. VII y el f. final. Reforzado el recto del f. VIII. Cortado con navaja el margen inferior del f. LVII. Rasgado el f. CIII. Manchas de tinta en el vuelto de la portada y en algunos folios. Humedad y foxing.


<sup>4</sup> En realidad, de este personaje lo único que sabemos, por ahora, es que su nombre aparece en el folio 37r, en nota manuscrita al margen.

<sup>5</sup> La portada es tipográfica. El resto está impreso en una columna o en dos, cuando el comentario flanquea la copla. Las dimensiones de la caja son 152 x 230 mm. (Se dan las dimensiones de acuerdo con el criterio moderno de base x altura). Está foliado en romanos a partir del folio aij, primero del texto, precedido de la portada, sin foliar, pero que correspondería a ai, en cuadernillos: a-r [8]. Total, 136 ff. de 48 líneas por folio [F. XXIIr]. Tiene rúbricas e iniciales, en la portada, tipográfica, como se ha dicho. En el prólogo, inicial iluminada. La portada es una xilografía compuesta por cuatro líneas de texto escrito en caracteres gruesos. La encuadernación es moderna, se halla en buen estado. Cuero sobre cartón. En el lomo, dos tejuelos negros decorados con guarda dorada superior e inferior. En el primero, con letras doradas: «MENA ll LAS ll TRESCIENTAS». Entre autor y título, una línea dorada. En el segundo: «GRANADA ll 1505». Papel de guarda marmolado en tonos de verde, morado, negro y blanco. El refilado del corte inferior no es regular. 198 x 278 x 38 mm.

<sup>6</sup> En el vuelto del papel de guarda, ángulo inferior izquierdo, a lápiz: «4700». En mitad del folio, margen interno: «60». En el recto de la portada, ángulo superior derecho, con tinta negra: «c.93 n 16». Abajo, en tinta negra desvaída: «S señor». En el margen superior, mano de pulgar y tres dedos dibujada con tinta negra. Sobre el título, figura humana que empuña un arma, dibujada con tinta negra. A su derecha, con tinta negra: «ccc l las cl». Debajo del título, en tinta negra muy desvaída, el texto de cinco líneas que se analiza en esta exposición. A su derecha, sello azul: «CONDE DE EZPELETA» debajo de una corona. En el ángulo inferior derecho, rúbrica en tinta negra. A su lado, inicial gótica «a», en gruesos trazos negros. En el vuelto de la portada, dibujo en tinta negra, hecho por la misma mano que en el recto dibujó una figura humana. Aquí el guerrero sostiene una espada en su mano derecha y un escudo de mínima dimensión en la izquierda. A su alrededor, manchas de tinta, pruebas de pluma e inscripciones. En el margen externo, números romanos. En el margen inferior, con tinta negra, texto de tres líneas en vasco. En el vuelto del f. 2, al término del prólogo, con tinta negra: «martes en la noche lleuo villandieg(uez) derecho ca-



vuelto de la portada, escritas en vasco. Puede afirmarse que es una letra del siglo XVI,<sup>7</sup> por lo que podría ser del primer o uno de los primeros propietarios del impreso. A simple vista se lee con dificultad, pero aplicando la luz ultravioleta la tinta se percibe con absoluta nitidez



y se lee lo siguiente, transcrito sin otra modificación que el uso de la <s> ordinaria, que es siempre *s alta* en el texto:

Mutila nescatoa andrea gizona mutil txaperuge // antonjo gandaygu suque-  
 tanjque gandaygu // armosadu meryendadu // [zue<sup>8</sup>] //  
 (mutila, nescatoa, andrea, gizona, mutil txaperuge Antonio, jan daigu[n] suk  
 eta nik jan [¿edan?] daigu[n] armosadu meriendadu) // [zue]

nonico // y ciuil. 22.de junio 1610—». El texto continúa en latín. El texto está abundantemente subrayado y anotado en sus márgenes. En el recto del f. XXXVII, ángulo inferior, con tinta negra: «llorete // gutierrez».

<sup>7</sup> El autor agradece a María Vilaplana, catedrática de Paleografía de la Universidad Autónoma de Madrid, su ayuda en el análisis de la letra y en una primera lectura, anterior al estudio detenido que pudo realizar sobre el texto en julio de 2002, con rayos ultravioleta y limpieza digital y la ayuda técnica de Laura Rosato, funcionaria de la Sala del Tesoro de la Biblioteca Nacional de la República Argentina. Cualquier error de lectura e interpretación es exclusivamente del firmante.

<sup>8</sup> Esta palabra, al margen e interlineada entre la primera y la segunda línea. Parece tratarse de la forma sufijada *-zue*, que indicaría, o bien que las formas en *-gu* (nosotros) podrían ser sustituidas por formas en *-zue* (vosotros, ustedes), o bien que la forma *zu* se refiere a un plural (*zuek* sería así equivalente de *zuek*). Véase también la nota siguiente.

Se ha comprobado la lectura con la fotografía digital y la limpieza electrónica, que no aportaron nada a lo que ya se lee claramente con la lámpara de cuarzo.

El texto en sí carece de interés, puede ser una prueba de pluma, sin más, con la peculiaridad de que se haya usado el vascuence. Ahora bien, en el siglo XVI tampoco era tan usual escribir en esta lengua y, desde luego, que se hiciera da algunas pistas sobre la historia del libro. La traducción<sup>9</sup> sería la siguiente:

El mozo, la moza, la mujer, el hombre, mozo sin boina // Antonio, comamos vos y yo, comamos [¿bebamos?], // almorcemos, merendemos // [vosotros ?]

Parece tratarse de una invitación, quizás del borrador de una invitación a una boda, en la que *mutila*, *neskatoa*, es decir, los jóvenes, se habrían convertido socialmente en *andrea*, *gizona*, algo así como “los novios, ya mujer y marido” de las notas

<sup>9</sup> La ayuda de Joseba Abaitua y Joseba Lakarra permitió precisar la traducción de *jan daigu*. P. Salaberri proporcionó una amplia información junto con una propuesta de traducción que sirve de base a la que se ofrece: “*Mutila, neskatoa, andrea, gizona, mutil txaperuge // Antonio, jan daigu[n] suk eta nike jan daigu[n] // [zue] // armosadu, meriendadu*. Está sin duda escrito en euskera occidental, por el auxiliar *daigu[n]* equivalente al central y oriental *dezagun*, formas de subjuntivo de verbos transitivos de dos argumentos, del tipo de *jan* ‘comer’ o *edan* ‘beber’, por los finales en *-du* en lugar del más extendido *-tu* y quizás también por la pronunciación apicoalveolar de la fricativa sorda vasca de *su*, en origen *zu*, con dorsoalveolar, si no se trata de una cuestión meramente gráfica, lo que también es posible. *Andrea* es una forma determinada, con artículo, como *mutila*, *neskatoa* y *gizona*, lo cual quiere decir que la forma nuda puede ser *andra*. Es decir, *andra* + *a* > *andrea*, rasgo del euskera central-occidental. Hay algún punto que para mí no está del todo claro, pero creo que se puede traducir así: Mozo, moza, mujer, hombre, mozo sin boina / sin gorro // Antonio, comamos tú y yo también, almorcemos, merendemos. Creo que el *zue* del margen no pertenece al texto; lo digo porque de otra manera sería incoherente en gran medida. *Chaperuge*, por otro lado, parece que es un compuesto de \**chaperu*, que podría estar por \**kaperu* (cfr. *kapelu*, *kapela*) o por \**txaperu* (cfr. *txapela*) y *-ge* relacionado con *bage*, *gabe* ‘sin’ (cfr. *ahalke*, *aholge* ‘vergüenza’, de *ahal* ‘poder’ y *-gabe* ‘sin’, según Mitxelena, *Fonética Histórica Vasca*, 354). Quiero decir que el sonido inicial podría ser tanto palatal como velar, pero el digrama *ch-* hace que me incline por la africada palatal.”

Prosigue: “Es dudoso que en *suquetanjque* tengamos *suk / zuk eta nik e[re]* ‘tú y yo también’, pues esperaríamos la forma occidental *bere*, reducida en la actualidad en el habla oral a *be*, como *ere* a *e*, aunque no sería, creo, imposible que apareciera *ere* con otros rasgos más occidentales como *daigu[n]* y *-du*. Sin embargo, el hecho de que el texto sea de fecha temprana también habla en contra de la reducción mencionada, trátase de *bere* > *be* o de *ere* > *e*. Por todo ello, considero que no es imposible que en *suquetanjque gandaygu* tengamos *suk / zuk eta nik edan daigu[n]*, es decir, ‘tú y yo bebamos’, que haría pendant con el *jan daigu[n]* ‘comamos’ anterior. En este supuesto habría que pensar que hay un error gráfico de <g> por <d> causado tal vez por el *gandaigu* anterior. Para terminar, quiero recordar que *mutila* y *neskatoa* en las hablas orientales significan también ‘criado’, ‘criada’, pero al ser un texto occidental parece que hay que preferir la traducción arriba expuesta. A los verbos *armosadu*, *meriendadu* les falta el auxiliar *daigu[n]*, pero estas supresiones son normales en euskera, para evitar repeticiones pesadas (*etorri zen, eseri zen eta hizketan hasi zen* ‘vino, se sentó y empezó a hablar’ -> *etorri, eseri eta hizketan hasi zen*).” También señala la falta de nasal en *daigu* ‘daigun’. Otro informante, que desea el anonimato, coincide en que es occidental. Discrepa en el final: le extraña que el auxiliar *daygu*, que puede ser común para los tres verbos, no se encuentre, como es normal, tras el último. Dado que éste y el anterior están sin conjugar, lo cual también es extraño, piensa que la nota *zue* debe ser *zuen*, marca de tercera persona para dichos verbos, de modo que a ‘comamos nosotros’ (precisa que en el sentido amplio de ‘comer’), se opone ‘desayunó y merendó él’. Gracias a Fernando González Ollé por su ayuda en el proceso de recabar datos de vasquistas navarros.

de sociedad. Naturalmente, un contexto tan escaso da pie para diversas interpretaciones, por lo que lo anterior no pretende pasar de una sugerencia, cuya aceptación o rechazo no altera para nada el interés del texto.

Aunque *suquetaniquē* (zuk eta nik), no planteó ningún problema de interpretación como caso ergativo de las formas pronominales de segunda y primera persona, unidas por la conjunción copulativa *eta*, esta opinión se refuerza con el apoyo de Joseba Lakarra, quien escribe, en nota privada, “si bien no habrá abundantes paralelos en los textos vascos de la época, <-niquē> puede no ser más que una forma «extraplena» (como en micénico o en celtibérico en escritura ibérica) de escribir /-nik/ dado que las velares finales son fonológica y morfológicamente inexistentes en romance y es este el que impone sus usos gráficos al vascuence (cabén recordar bastantes casos comparables [hasta el XVII] con <-s> en vascuence por /-z/, en textos de dialectos sin la neutralización de sibilantes que, en aquella época, no alcanzaba a cubrir más de la mitad occidental del territorio de dialecto vizcaíno)”. En cambio, para *gandaygu*, su interpretación resultó fundamental y convincente. A partir de una propuesta de Joseba Abaitua de interpretación de *daygu* como forma del verbo auxiliar *egin*, ‘hacer’, escribe: “se debería aclarar el valor de la consonante inicial de *gan-*, más la sintaxis del fragmento y el valor de *suquetaniquē*: abreviando, no descarto que *daygu* sea una especie de futuro (hay múltiples ejemplos, muchos recogidos en mi edición del [libro<sup>10</sup>] *Refranes y Sentencias* de 1596) y en concreto de imperativo para lo que creo que podría encontrar algunos paralelos. Por otro lado, cabría pensar en una <g> por /x/ como en, entre otros, un texto de 1658 editado por Mítxelena y luego por Sarasola”. Puesto que el vasco sigue la grafía del castellano, la adscripción al siglo XVI permite aceptar este dato, que se podría situar en relación con los abundantes textos en los cuales la incipiente fricativa velar sorda del romance se representa con la única fricativa velar posible, la sonora <g>, fonológicamente /g/, pero fonéticamente también [ɣ], fricativa. Sin embargo, es también posible interpretar la <g-> inicial como una grafía palatal, que es lo esperable, en principio, para el resultado de la semiconsonante <j-> del vascuence<sup>11</sup> y que encaja con la tradición navarra de emplear la <g> para la representación de palatales,

<sup>10</sup> Joseba Andoni Lakarra, *Refranes y Sentencias (1596)*. *Ikerketak eta edizioa*. Bilbao: Euskaltzaindia, 1996.

<sup>11</sup> Para la evolución de los diptongos ascendentes en vascuence cfr. Luis Michelena, *Fonética Histórica Vasca*, San Sebastián, 1977<sup>2</sup>, capítulo 9. En castellano, la grafía <g> podrá utilizarse incluso para la [h] aspirada, como se ve en un documento de 1563, otorgado en Mojácar (Almería), en el que unos cristianos cautivos de los turcos dicen de otro, al que recomiendan, que “*gazia* [haθía] todo bien a xristianos”, Juan Martínez Ruiz, “Cautivos precervantinos. Cara y cruz del cautiverio”, *RFE L*, 1967, p. 239, citado por Rafael Lapesa, *Historia de la Lengua Española*, Madrid: Gredos, 9ª ed., 1981, §92.7. <g> ante *a, o, u*, con valor de /x/ es frecuente hasta hoy en cartas de semianalfabetos e iletrados. En el mismo siglo XVII, aunque en época posterior a este texto vasco, se encuentran las grafías <enogar, semegante, degar, aroga, espego, trabago, megor>, en la mano 7 de los documentos que analiza Laura Hortelano en su *Estudio lingüístico del coloquio en seis expedientes de la Inquisición de Cuenca de 1684 a 1689*, tesis doctoral de la Universidad Autónoma de Madrid dirigida por F. Marcos Marín. Esa mano séptima corresponde a Juana de Salcedo, monja de dieciocho años, natural de Madrid, profesa en el convento de las Bernardas de Cuenca, autora de cinco cartas amorosas aducidas como prueba en el expediente abierto al Licenciado Francisco de León, por solicitudación, en 1684.

tanto ante vocales no palatales como en combinación para indicar la nasalización de consonante.

Las formas verbales *armosadu meryendadu* ofrecen claros ejemplos de préstamos romances, con la forma *-du*, del vascuence occidental, que corresponde a la zona de origen propuesta. El texto es de gran banalidad, desde el punto de vista de su contenido, aunque no mayor ni menor que otros testimonios primitivos de otras lenguas; en cambio, plantea interesantes cuestiones lingüísticas.

La escritura del vasco,<sup>12</sup> recuérdese, con precedentes onomásticos en inscripciones latinas, va unida a la del castellano en las *Glosas Emilianenses*, en el siglo X. A continuación se encuentran restos esporádicos en documentos romances, en forma de palabras sueltas, topónimos o antropónimos por lo general.<sup>13</sup> Para comprender mejor la importancia de estos fragmentos téngase en cuenta que los de más de cinco palabras son escasísimos hasta el XVI: se encuentra uno en las *Bienandanças e Fortunas* de Lope García de Salazar (1399-1476),<sup>14</sup> y otro en el Vocabulario incluido en el relato de la peregrinación de Arnold von Harff, de 1499.<sup>15</sup> En el siglo XVI hay que esperar a 1521 *a.q.* para la fórmula de profesión de la regla de la tercera orden de San Francisco (*ibid.* p. 142-143) y el primer texto más largo es el del capítulo IX del libro segundo de *Pantagrue*, de Rabelais, ed. 1542, que, curiosamente, se refiere también a actividades manducatorias (Michelena, *cit.* p. 148). Sin necesidad de entrar ahora en la historia de la lengua vasca, recuérdese, por la muy posible proximidad de fechas, la carta del primer obispo de México, Fray Juan de Zumárraga, a Carolina Ruiz, viuda de Íñigo Martínez de Arzola, fechada el 15 de febrero de 1537.<sup>16</sup>

El carácter occidental del texto, que lo hace inmediatamente identificable para un hablante actual de vizcaíno, no está reñido con su localización histórico-geográfica en el centro-sur de Navarra. Tampoco es necesario pensar que la nota fuera redactada por un vizcaíno, sino que la extensión de las hablas occidentales a principios del siglo XVI podía abarcar una zona al sur de las hablas orientales, particularmente del guipuzcoano, desde Vizcaya a Navarra por el norte de Álava. Una vez

<sup>12</sup> Cfr. Luis Michelena, *Textos arcaicos vascos*, Madrid, Minotauro, 1964 y Joaquín Gorrochategui “Euskararen historiaurreaz zenbait gogoeta. Algunas reflexiones sobre la prehistoria de la lengua vasca”, lección inaugural, Universidad del País Vasco, s.d., s.l. [1998].

<sup>13</sup> En este mismo fondo Foulché-Delbosc, Catálogo de la Subasta 1519, signatura de la BN Argentina: FD702. Es una traducción castellana, al parecer del siglo XVI, por encargo de Jerónimo Zurita, con notas de su mano, del libro del conde de Barcelos, D. Pedro de Portugal, que se titula *Libro de los linajes de España*. En el tit. IX, de Vizcaya, f 15 v: “todo / el campo quedo lleno de sangre y de piedras q(ue) ay auia y por esta / mortandad que hauia ay tan grande q(ue) las piedras y el campo / fue todo vermejo pusieronle nombre al campo el campo de Ar/guriega q(ue) tanto quiere dezir en su le(n)guaje de vascuence como pie/drás Bermejas. y oy en este día tiene este nombre”. En vasco unificado: *harrigorriaga*, comúnmente *arrigorriaga*.

<sup>14</sup> En el libro XXIII, f. 108 s., p. 252 s. de la ed. Rodríguez Herrero, según Michelena, *cit.* p. 61,

<sup>15</sup> *Ibid.* p. 63.

<sup>16</sup> Antonio Tovar, Enrique Otte y Luis Michelena, “Nuevo y más extenso texto arcaico vasco: de una carta del primer obispo de México, Fray Juan de Zumárraga”, *Euskera* XXVI, 5-14. [Citado por separata s.d., pero fechado en Donostia, “1980-IX-26”, el número de la revista corresponde a 1981]. En el entorno de este vasco ilustre se produjeron varios de los documentos arcaicos vascos recogidos por Michelena, *op.cit.*

más, la condición aislada del fragmento impide extraer datos más precisos, que han de buscarse en la historia del libro que lo contiene.

La presencia de esta nota en vasco en el ejemplar impreso de *Las Trescientas* conservado en Buenos Aires, aparte de su relativa importancia lingüística, tiene un interés quizás mayor en lo que concierne a la historia del libro, vinculada al sello con la corona del conde de Ezpeleta. Se trata de la historia de una familia navarra ilustre, descendiente de San Luis Rey de Francia por la rama Beaumont. Francisco de Ezpeleta, cuarto barón de Ezpeleta y quinto vizconde del valle de Erro se casó con Engrace de Luxe, décima generación de descendientes de San Luis, hija segunda de Juan IV de Luxe y de Isabel de Gramont, cuyo matrimonio se había celebrado en 1534 ó 1535.<sup>17</sup> Anteriormente, una Ezpeleta, doña Juana, se había casado en 1406 con Mosén Pierres I de Peralta,<sup>18</sup> el viejo, gran personaje de la corte navarra<sup>19</sup> que figura en primer lugar en muchos acontecimientos célebres, como la coronación de D. Juan II y de Doña Blanca en Pamplona o el matrimonio de la infanta Doña Blanca con el Príncipe de Asturias en Alfaro. Fundó en el año 1438 el mayorazgo de Marcilla, que fue el primer mayorazgo establecido como tal en Navarra, cuya licencia había otorgado el rey Carlos III (1387-1425)<sup>20</sup> hacia 1409. Mosén Pierres de Peralta estableció ese mayorazgo para su primogénito, el malogrado Juan de Peralta.<sup>21</sup>

<sup>17</sup> Bisnieta, por lo tanto, de Juana de Beaumont, de la casa real navarra. En 1469 se casó con Juan, segundo señor de Luxe. Era la sexta hija de Luis I de Beaumont, primer conde de Lerín, nacido el 25/8/1424 y muerto en Madrid en 1462, casado en 1424 con doña Juana de Navarra. Luis I de Beaumont, a su vez, era el primer hijo del segundo matrimonio de Charles de Beaumont, señor de San Martín de Unx y de Beire, condestable de Navarra (1361-1432), celebrado en 1407 con Anne de Curton, Dame de Curton y de Guissens.

<sup>18</sup> Señor de las Villas de Peralta y Andosilla, Marcilla y Villanueva, Maestre-hostal o Mayordomo mayor del rey D. Carlos III y de su Consejo, Consejero y Secretario del Rey. En él se inicia el tronco genealógico de los Marqueses de Falces.

<sup>19</sup> Cuando Mosén Pierres recibió la rica-hombría de Carlos III de Navarra, en el año 1416, añadió a su escudo heráldico (de gules con el grifo de oro, alado y armado de azur, la bordura cosida de gules, los ocho sotueres rebajados de oro) un cuarto de las armas del rey, en su caso, la cuarta parte de las cadenas procedentes de la batalla de las Navas de Tolosa (1212.)

<sup>20</sup> A Carlos III le sucedió su hija Blanca (1425-1441), casada con Juan II de Aragón. El enfrentamiento entre éste y su hijo Carlos, Príncipe de Viana, por el poder en Navarra, dividió a la nobleza navarra entre los agramonteses, que apoyaron a Juan II, y los beaumonteses, que apoyaron a Carlos. Juan II rigió Navarra de hecho hasta su muerte, en 1479. Lo sucedieron sus nietos Francisco Febo (1479-1483) y Catalina (1483-1512), casada con el francés Juan de Albret, lo que les llevó a buscar la alianza con Francia, en un intento de alejarse de la influencia de Castilla. Fernando el Católico invadió Navarra en 1515 y la incorporó a la Corona de Castilla, aunque él era rey de Aragón y no de Castilla (la reina era su hija doña Juana, la madre del emperador Carlos).

<sup>21</sup> Nació a los trece años de matrimonio, fue apadrinado por el rey Carlos III y por la reina viuda de Sicilia, pero murió pronto, por lo cual heredó el mayorazgo de Marcilla el hijo segundo Mosén Pierres II, el Joven, casado dos veces, la primera con Ana de Bravante, el día 27 de diciembre de 1440, siendo menor de edad y la segunda con Isabel de Foix, de la familia real navarra, el 8 de junio de 1462, de la que tuvo una hija, la infanta de Navarra Ana de Peralta. De Ana de Bravante, su primera mujer, tuvo un hijo y una hija. Pierres III murió mozo, por lo que doña Juana de Peralta heredó todos los títulos y propiedades. En 1467 se casó con D. Troilos Carrillo, Conde de Agosta, célebre caballero toledano, que liberó a D. Juan de Aragón cuando los franceses lo tenían sitiado en Perpignan en el año 1474. Don Troilos y doña Juana tuvieron sólo un hijo que se



llamó Alonso Carrillo y de Peralta, el cual vino a ser el primer marqués de Falces. Tercer conde de Santisteban de Lerín, dos veces Gran Condestable de Navarra, Gran Mariscal, Barón de Marcilla, Peralta y Falces. El emperador Carlos V le escribió a Marcilla el 5 de marzo de 1520 desde Valladolid, dándole cuenta de que se iba a coronar en Aquisgrán como emperador, lo que confirma su importancia. Testó en 1533 y dejó la voluntad de ser enterrado junto a su mujer, Ana de Velasco, de la familia de los Condestables de Castilla. Don Alonso y doña Ana tuvieron tres hijos, Antonio, Pedro y Luis. Don Antonio Peralta y Velasco, I del nombre, II marqués, heredó la baronía y por lo tanto el palacio y el pueblo de Marcilla. En la guerra dinástica de Navarra defendió los intereses de don Juan de Albret y doña Catalina de Foix. El 17 de marzo de 1516, al frente de las tropas invadió Navarra, ayudando a D. Juan a recuperar el trono. Tras muchos sucesos se retiró a Marcilla. Su mujer era francesa, doña Ana de Bosquet. Tanto el marqués como la marquesa murieron seguidamente, ambos en 1545. Tuvieron varios hijos que murieron jóvenes y sin hijos. El heredero fue D. Gastón de Peralta, III marqués y barón de Marcilla. Nació en Pau cuando sus padres andaban al servicio del de Albret. Obtuvo muchos títulos y preeminencias en la corte de Felipe II, llegando a ser virrey de México.

En lo lingüístico, la vinculación con Beire y San Martín de Unx es significativa. En *Orígenes del español*, Menéndez Pidal cartografiaba el límite de predominio del vascuence en los siglos IX-X,<sup>22</sup> situando entre las poblaciones más meridionales a Beire. Un documento de 1587, conservado en la Biblioteca del Seminario de Vitoria y editado por M. Lecuona,<sup>23</sup> incluye una lista de las poblaciones del obispado navarro de Pamplona en la que se diferencian las que hablan vasco de las que no lo hablan. San Martín de Unx era todavía vascohablante en 1587, según ese documento, aunque, a la luz de otras interpretaciones,<sup>24</sup> es probable que se tratara ya de un núcleo bilingüe, en fase de castellanización avanzada. (Véase el mapa, tomado de <http://www.angelfire.com/co2/muzaraquelllingua/vasco/navarra/navarra.htm>)

El desarrollo histórico de Beire se inició como un núcleo repoblado desde San Martín de Unx, del que se independizó administrativamente, con el título real de villa y una serie de privilegios, en el año 1212, por el valor demostrado por sus voluntarios en la batalla de las Navas de Tolosa. El texto objeto de comentario parece corroborar que a principios del XVI, cuando se escribió, la zona seguía teniendo presencia y uso de la lengua vasca, si bien, a juzgar por el mismo texto, ya marginal.

La vinculación de los Ezpeleta con la villa de Beire se concretó en 1457 con la concesión a mosén Bernart de Ezpeleta, por parte del rey Juan II, del Señorío de Beire, con la jurisdicción y demás derechos. La princesa Leonor confirmó en 1475 la donación; pero excluyó la jurisdicción. En 1510 Juan de Albret (o Juan III) y Catalina de Foix recuperaron la villa, vinculándola al patrimonio de la Corona. Sin embargo, esa relación hubo de ser más antigua.

Aunque el rey Carlos II concedió en 1378 el señorío perpetuo de la villa a Roger, vizconde de Castelbón, en 1391 Carlos III atribuyó sus rentas al Alférez Carlos de Beaumont. A fines del siglo XIV, por lo tanto, estaba ya en el ámbito de poder y administración de los Beaumont, descendientes de San Luis de los Franceses, como se sabe, que emparentarían luego con los Ezpeleta. Ambas familias concentraron poder y tierras a lo largo del siglo XV, a fines del cual tomaron partido a favor de Francia en la disputa dinástica, que se saldaría finalmente con la incorporación histórica de Navarra a los reinos de España.

Desde 1457 la historia de la familia Ezpeleta aparece vinculada a su palacio, concedido en 1457 por Juan II a Bernart de Ezpeleta. La edición de *Las Trescientas* pudo, por tanto, adquirirse directamente, en 1505 o poco después, puesto que el tema encajaba perfectamente con las vicisitudes de la fortuna familiar, y formar parte de la biblioteca del palacio, de cuyos propietarios sabemos que, en 1548, don Miguel de Ezpeleta obtuvo las prerrogativas de Cabo de Armería con derecho de llamamiento de cortes. En 1586 su sucesor, León de Ezpeleta, logró una merced de acostamiento de 30.000 maravedíes anuales, que luego disfrutaron, en 1596, su

<sup>22</sup> 4ª edición, Madrid: Espasa Calpe, 1956. Mapa entre las páginas 464-65.

<sup>23</sup> *RIEV*XXXIV, 1933, 365-74. Citado por Ana María Echaide, "Iturri y bide en la toponimia y la situación histórica del euskera en Navarra", *Pulchre, bene, recte. Estudios en Homenaje al Prof. Fernando González Ollé*, Pamplona: EUNSA, 2002, 435-48.

<sup>24</sup> Resumidas por Ana María Echaide, *loc.cit.* 436.

hijo Miguel de Ezpeleta, en 1616 Ignacio Antonio de Ezpeleta<sup>25</sup> y en 1660 León de Ezpeleta y Goñi, cuyo sucesor Miguel de Ezpeleta solicitó en 1686 que el palacio se anotase como de cabo de armería en los Libros Reales. En 1719, Agustín de Ezpeleta litigó por la exención de los bienes agregados. Joaquín de Ezpeleta solicitó rebate de cuarteles en 1781. El hermano de éste, José de Ezpeleta, fue nombrado Conde de Ezpeleta de Beire por Carlos IV el 31 de agosto de 1797.<sup>26</sup> El libro fue sellado verosímilmente en esos años finales del siglo XVIII con la corona y el título de conde, como figura en el ejemplar de Buenos Aires.

Bien sea porque lo poseyera la familia desde su impresión, bien porque lo adquiriera, la nota en vascuence permite suponer que el ejemplar estuvo en una zona vascohablante desde muy pronto, en el siglo XVI con seguridad, verosímilmente desde su compra inicial: el tema de la Fortuna, la fecha de su edición y los acontecimientos navarros de fines del siglo XV (en los que los Beaumonteses apoyaron al perdedor, el príncipe de Viana) y principios del siglo XVI, con la victoria de Fernando de Aragón y la incorporación a Castilla (los beaumonteses apoyaron también la causa perdedora, la francesa en este caso), se combinan de modo interesante en esta hipótesis.

El patrimonio de los Ezpeleta en Beire se deshizo en 1895. En esa fecha los Padres Blancos adquirieron el palacio y por entonces debió producirse la compra del impreso de *Las Trescientas* por Raymond Foulché-Delbosc, al deshacerse la biblioteca.<sup>27</sup> Es el único ejemplar con el sello del Conde de Ezpeleta que figura en la colección de Buenos Aires y, salvo error por parte de este crítico, el único que poseyó el estudioso francés. Desde ahí fue a parar, como se vio, a Buenos Aires, donde ha sido posible recuperar y descifrar este texto en vasco, junto con toda una posible historia de un libro en una familia.

---

<sup>25</sup> Esta fecha tan cervantina lleva a recordar, inmediatamente, el penoso episodio de 1605 en Valladolid, donde ocupaban una casa la esposa de Cervantes, Catalina de Salazar, su hija Isabel de Saavedra, con la que el autor tenía desavenencias, y sus hermanas Andrea, con su hija Constanza de Ovando, y Magdalena. En la investigación sobre la muerte en extrañas circunstancias de un caballero navarro, Gaspar de Ezpeleta, los vecinos señalaron las relaciones que algunas mujeres de la familia mantenían con éste y otros personajes.

<sup>26</sup> Se le incorporó la grandeza de España el 22 de marzo de 1866.

<sup>27</sup> A lo largo del siglo XIX la historia de los Ezpeleta fue también interesante. El 13 de febrero de 1808, siendo el Conde de Ezpeleta Capitán General del Principado de Cataluña, permitió a los soldados franceses del general Duhesme la entrada en Barcelona y, además, les autorizó a compartir la guardia con las tropas españolas, por lo que la puerta principal estaba guardada por veinte soldados españoles y una compañía de granaderos francesa. Pese a que el 16 de febrero los franceses habían ocupado Pamplona, tras engañar a la guarnición distrayéndola con juegos en la nieve, mientras les quitaban las armas, hecho conocido de Ezpeleta, puesto que protestó por él a Duhesme, el 29 de febrero la división Chabrán se desplazó de Mataró a las puertas de Barcelona y la división Lechi, que ya estaba en la ciudad, formó ante la ciudadela en parada de revista. Con el pretexto de saludar al Gobernador de la Ciudadela, Lechi y un oficial de Estado Mayor cruzaron el puente, sobre el que el general francés se paró, dio instrucciones al oficial al mando de la parada y los soldados franceses del batallón de Vélites corrieron hacia el puente, penetraron en la ciudadela y tomaron preso al Gobernador. Ya en el XVIII los Ezpeleta aparecen vinculados a Cuba, donde, del primero de diciembre de 1785 hasta 1789 José Manuel Ignacio Timoteo de Ezpeleta Galdeano Dicastillo y del Prado (nacido en 1740 ó 41, muerto en 1823) fue Gobernador. Entre 1828 y enero de 1840 ocupó el mismo cargo Joaquín Ezpeleta y Enrile (1786-1863).



# ADJEKTIBOA AITZIN-EUSKARAZ

Mikel Martínez Areta

(UPV / EHU)

## 0. Sarrera

Lan honen helburua<sup>1</sup> aitzin-euskarazko adjektiboaren kategoria ikertzea da. Baina ‘aitzin-euskara’ esateak bi zentzu ditu. Lanaren izenburuan dagoen zentzua orokorra, etxetik ibiltzeko modukoa da: ‘euskararen aurre-historia’, besterik zehaztu gabe. Lanean zehar topatuko dugun zentzua, ostera, teknikoagoa, zehaztuagoa da: akitaniar inskripzioen garaiari dagokio eta jorratuko dugun kronologiaren barneko fase bat besterik ez da. Aurreko garaiak ere jorratuko ditugu, horretarako barne-berreraiketa behar dugularik. Jakina denez, barne-berreraiketa ez da metodo konparatzailea bezain fidagarri, baina hainbat disziplinan beraren bidez orokorki onartu diren emaitzak lortu dira. Beraz, ezin dugu aldeztu aurretik baztertu.

Lehenengo atalean egungo euskarazko adjektiboaren hastapen batzuk ezarriko ditugu. Bigarrenean, ‘adjektibo’ kategoriaren tipologiaren inguruko hausnarketa batzuk aurkeztuko ditugu, batik-bat Dixonen artikulua ezagun batean oinarrituz. Hirugarrenean, beste lan batean proposatu dugun kronologia laburbildu ondoren, Dixonen hastapenak aitzin-euskararen aurreko garaiei egokituko dizkiegu, azkenean adjektiboaren kategoriaren garapenari buruzko proposamen bat burutzeko.

## 1. Adjektiboa euskaraz

Indoeuropar hizkuntza batzuetan, adjektiboaren ezaugarri formala deklinaturik izatea da. Euskaraz, ordea, izenaren atzean agertzea da. Honek esan nahi du ‘izen + adjektibo’ sintagmetan dtu.-dle.<sup>2</sup> egitura dugula, semantikaren aldetik izena beti sintagma-burua eta adjektiboa determinatzaile-moduko zerbait baitira. Haatik, itxuraz behintzat hau hizkuntzaren beste egitura batzuekin kontraesan nabarmenean dago. Bai erlatiboko esaldietan (*Peiok ikusi duen txakurra*), bai ‘X-(r)en edo -(e)ko Y’ egiturako sintagmetan (*Mirenen urte-betetzea, horrelako zerbait*), bai menpetasunezko konposatuetan (*bizkar-hezurra*), elementuen hurrenkera dle.-dtu. da.

---

<sup>1</sup> Lan hau 1999 eta 2003 urteen artean Eusko Jaurlaritzak emandako diru-laguntzaren babesean burutu da. Bestalde, lan honen aurreko bertsio bat irakurri duen eta zehaztapen baliotsuak egin dizkigun J. A. Lakarrari eskerrak zor dizkiogu.

<sup>2</sup> Dtu.: determinatu; dle.: determinatzaile.

‘Izen + adjektibo’ hurrenkera orokorrean finkoa izan arren, Lafonek (1964: 247-48) baieztapen honi fiabardura batzuk egiten dizkio. Etxeparengan *gaixo bekatharia* eta *gaixo amorosa*<sup>3</sup> aurkitzen ditugu. Jatorria edo bizilekua adierazten duen *-ar* edo *-tar* atzizkia batzuetan determinatzen duen izenaren aurrean kokatzen da. Azkueren (1923-25: 132) erregelaren arabera, izenek sexua edo lanbidea adierazten baldin badute, orduan hauen aurrean kokatzen dira: *Lekeitiar neskatilak, Ondarrutar maisua*. Baina izen bereziak baldin badira, atzean: *Mari Bati Lekeitiarra*. Bestalde, behe-nafarreraz *eskuin beharria* zein *beharri eskuina* esan daiteke. Halaz ere, postulatu orokorpena benetan hartzekotan, badirudi hauetariko lehena konposatu baten moduan aztertu behar dugula, *beharria ezin* baitugu inolaz ere adjektibotzat jo.<sup>4</sup> Egia esan, kasu guzti hauek ez dute orokorpenaren balioa ezeztatzen. Etxepareren *gaixo bekatharia* eta *gaixo amorosa* esapideetan, sintagmaren bi osagaien arteko harremana koordinatibotzat har dezakegu, biak sintagma-buruak izanik. *Lekeitiar neskatilak* sintagma, bere aldetik, *Lekeitioko neskatilak*-en antza handia du, nahiz eta lehen sintagmaren lehen osagaiak eratorpeneko atzizkia duen, bigarrenarenak ordea deklinabidekoa. Adjektiboa izenaren atzean egotea, beraz, kategoria honen ezaugarri bat da.<sup>5</sup> Beste bat eratorpenean behatzen da. Atzizki batzuk izenak eratzeko erabiltzen diren bitartean (*handi > handi-tasun*), beste batzuetatik adjektiboak eraten dira (*harri > harri-tsu*).

Hau honela bada ere, Lafonek (1964: 255) ohartarazten digu erroaren egitura behatuz gero ikus dezakegula adjektiboak eta izenak antzekoak direla. Konpara bitez honako bikote hauek: *handi - mendi, gizen - gizon, hotz - hitz, eder - epher, berri - herri*. Zubereraz, hauek guztiek azentuera berbera dute. Honetaz gain, hitz batzuk izen- zein adjektibo-moduan funtziona dezakete: *gose, egarri, laster, lo, argi...* Zaharra dirudien *-i* atzizkiaren morfologia historikoa aztertzen baldin badugu, nolabait partizipio-itxura duela ondorioztatuko dugu. Baina *-i* hau izenetan (*harri, herri, iturri, orri, \*arrani* “arrain”) nahiz adjektiboetan (*berri, gorri, zuri, hori, urri, ebili, ekusi*) agertzen bide zaizkigu.

Itzul gaituzen dle.-dtu. eta dtu.-dle. egituren arteko aipatu adostasunik ezera. Beste hainbat kasutan bezala, Martinet<sup>6</sup> kopernikar biraketa baten bidez saiatzten da euskararen fenomenoak azaltzean. Bere aburuz, erlatiboko esaldiak, ‘X-(r)en edo -(e)ko Y’ egiturako sintagma eta euskaraz oso sarritan gertatzen diren menpetasunezko konposatuak behatuz gero, ondorioztapen logikoa da euskaraz elementuen hurrenkera naturala dle.-dtu. dela. Egitura sintaktiko osoa, bere ustetan, hurrenkera honetan oinarritzen da. ‘Izen + adjektibo’ sintagmetan bestelako egitura bat agertzea itxurazkoa baizik ez da (ik. Lafon 1964: 257): “Pour les Basques d’aujourd’hui, généralement bilingues, *etxe berri* correspond à un autre type de relation que *etxe xori*, ce qu’ils résumeront en disant que *xori* est un nom et *berri* un adjectif: amenés à

<sup>3</sup> Bertso berean *amoras gaixoa* aurkitzen dugu.

<sup>4</sup> Halaber, *zahar-hitzak, zuhur hitzak* Oihenarten atsoitzean (420) bi konposatu ditugu, ez bi sintagma. Esanahia ez da “hitz zaharrak, hitz zuhurrak”, “zaharren hitzak, zuhurren hitzak” baizik.

<sup>5</sup> Nolanahi ere, kontuan har bedi zenbait determinatzaile (*zenbait, zein, hainbat, beste*), bai eta zenbakiak ere, izenaren aurrean doazela.

<sup>6</sup> Ik. Lafon (1964: 256-59). Ezin izan dugu Martineten artikulua aurkitu. Lafonen laburpenean oinarritzen gara.

traduire l'abstrait "nouveauté", ils fabriqueront le dérivé *berritasun* avec un suffixe *-tasun* qui a tout l'air de remonter, en dernière analyse, au latin au latin *-tātīōnem*.<sup>7</sup> En fait, *berri* s'emploie très largement dans des constructions substantivales pour désigner tout ce qui est nouveau ou neuf. Pour mieux comprendre la structure de la langue, on aurait intérêt à traduire *etxe berri* comme "nouveauté de maison" plutôt que comme "maison neuve". Le traitement de ce qui est, dans nos langues, un adjectif épithète comme le déterminé d'un syntagme de détermination est attesté dans de nombreuses langues et, bien qu'il nous paraisse étrange, il n'est pas inconnu en français où *amour d'enfant* a volontiers le sens d'enfant aimable". Jarraian, Martinetek paralelo tipologiko bat eskaintzen digu. Ipar-Ameriketako Ipar-Mendebaldean dagoen chinook-*ez*, izakien eta gauzen ezaugarri edo nolakotasun asko adierazteko hitz abstraktuak erabiltzen dira. Hizkuntza honetaz, "gizon gaiztoak haur gizajoa hil du" honela esango litzateke: *gizonaren gaiztotasunak haurraren gizajotasuna hil du*. "Neska batek saski txiki bat erabiltzen du", bere aldetik, *neska batek saski baten txikitasa erabiltzen du*.

Halaz ere, esan behar dugu gure ustetan Martineten ikuspegi hauek defendaezinak direla. Euskaraz epiteto-moduan erabiltzen diren hainbat adjektibotan (eta konkretuki berak adibide-moduan jartzen duen kasuan), azterketa morfologiko batek eratorpeneko atzizki bat erakusten digu. *Berri*-ren kasuan, argi dago *-i* atzizkia beste hainbat adjektibotan eta izenetan (*gorri*, *zuri*, *harri*, *herri*...) agertzen den berbera dela. Atzizki honen esanahi zehatza zeinahi den ere, ziurra da hitz hauek ezin direla hitz abstraktuak izan. Atzizki hau hainbat aditzetan agertzen diren *ekus-i* eta *ebil-i* bezalako partizipio perfektiboekin konparatu da (ik. Trask 1990). Izen batean bederen, alegia, arriskurik gabe berreraiki dezakegun *\*arran-i-n* (> *arrain*), badirudi paralelo semantiko onargarri bat dugula gazte-lerazko *pesc-ado*-rekin erkatzen badugu. Edozein kasutan, *-i-z* amaitutako hitz gehienetan esanahi singulatzaila-moduko bat antzeman daiteke. Ezin dira inolaz ere hitz abstraktuak izan. Gauza berdintsua esan dezakegu *handi* adjektiboaz, non seguruenek *-ti* atzizkia dugun, eta atzizki honen esanahiak pertsona bati edo gauza bati ezaugarri bat eransten zaio (*lotsa* > *lotsati*, *beldur* > *beldurti*, *seta* > *setati*, *lo* > *loti*). *Handi* ere, beraz, ezin da hitz abstraktu bat izan. Kontuan hartu behar dugu *-i* edo *-ti* (honen forma zaharra ziurrenik *-di* delarik) bezalako atzizkiak oso zaharrak direla, eta lexikoan esanahi singulatibo bat duten atzizkizko izenondoak (adibidez, *lur berr-i*) aurkitzen ditugun momentutik, horrek esan nahi du izenondo hori epiteto-moduan interpretatzen dela, ez hitz abstraktu-moduan, eta egungo euskara sinkronikoaz (honetaz ari da Martinet), beraz, izenondo guztiak era horretan interpretatuko dira.

Martinetek erabateko simetria bat bilatzen du euskararen sintaxian, dena dle-dtu. egiturara egokituz. Haatik, erabateko simetria hauek ez dira inolaz ere derrigorezkoak, hurrengo atalean ikusiko dugun legez.

Ondorengo atalean saiatuko gara 'adjektibo' kategoriaren tipologia bat zirriborratzen.

<sup>7</sup> Zubererazko *-tarzun* forma kontuan hartzen badugu, etimologia hau behintzat zalantzarria da.

## 2. 'Adjektibo' kategoriaren tipologia

### 2.1. Adjektibozko hizkuntzak eta beren ezaugarri tipologikoak

Iruzkin ditzagun jarraian nolabait 'adjektiboaren akzidente tipologikoak' izenda ditzakegun ezaugarriak. Dixonen (1982) lanean oinarrituko gara eta, hortaz, ingelesezko adibideak aipatuko ditugu nagusiki, baina kasu bakoitzean euskarak berezitasunen bat erakusten badu, aipatuko dugu (batik-bat hitz-hurrenkerari dagokionez). Bestalde, egokia izatekotan bestelako egiturak erakusten dituzten hizkuntzetako datuak ere tartekatuko ditugu.

#### 2.1.1. *Tipo semantikoak*

Adjektiboaren kategoria duten hizkuntzetarako, Dixonek (1982: 16) zazpi 'tipo semantiko' proposatu ditu, ustez adjektibozko hizkuntza guztietan gertatzen direnak eta beraz 'linguistic universal'-tzat har ditzakegunak. Berak adibide-moduan jartzen dituen ingelesezko adjektiboekin aurkezten ditugu hemen:

- 1) *Dimentsioa*: *big* "handi", *large* "handi", *little* "txiki", *small* "txiki"; *long* "luz", *short* "labur"; *wide* "zabal", *narrow* "mehar"; *thick* "lodi", *fat* "gizen", *thin* "argal"...
- 2) *Ezaugarri fisikoa*: *hard* "gogor", *soft* "leun"; *heavy* "astun", *light* "arin"; *rough* "latz", *smooth* "leun"; *hot* "bero", *cold* "hotz"; *sweet* "gozo", *sour* "mingots"...
- 3) *Kolorea*: *black* "beltz", *white* "zuri", *red* "gorri"...
- 4) *Giza-ezaugarriak*:<sup>8</sup> *jealous* "jeloskor", *happy* "zoriontsu", *kind* "atsegin", *clever* "azkar", *generous* "eskuzabal", *gay* "alai", *cruel* "anker", *rude* "zakar", *proud* "harro", *wicked* "zital"...
- 5) *Adina*: *new* "berri", *young* "gazte", *old* "zahar"...
- 6) *Balorea*: *good* "on", *bad* "txar"; *proper* "egoki", *perfect* "ezin hobe", *pure* "garbi", *excellent* "bikain", *fine* "trebe", *delicious* "atsegingarri", *atrocious* "krudel", *poor* "behartsu"...
- 7) *Abiadura*: *fast* "azkar", *quick* "bizkor", *slow* "motel"...

Hizkuntza bakoitzean, tipo semantiko hauen kuantitatezko banaketa ezberdina izango da eta zenbait faktoreren menpe (kultura, gizartea, erlijiozko pentsakera...) egongo da.<sup>9</sup> Baina, printzipioz, Dixonen sailkapena abiapuntu tipologiko onargarria izan daitekeelakoan gaude.

#### 2.1.2. *Oposaketa semantikoak*

Hizkuntza baten adjektiboetan, bi motatako oposaketa semantikoak egon daitezke:

- a) *Antonimia*: bi adjektiboen arteko oposaketa erlatiboa, gradualala da: *large* "handi" - *small* "txiki". Esan dezakegu oposaketa hau aipatu tipo semantiko guztietan gerta daitekeela.

<sup>8</sup> Hauetariko batzuk animalietarako (batez ere etxeakoetarako) ere balio dute.

<sup>9</sup> Adibidez, koloreen eremu semantikoa eskimalen hizkuntzaz eta boskimanoenaz ezberdina izango da.

- b) *Osagarritasuna*: baten ezeztapenak bestearen baieztapena inplikatzten du: *single* “ezkongabe” - *married* “ezkondu”.

### 2.1.3. *Aurrizki pribatzaileen bidez adierazitako antonimiak*

Bai antonimiako bai osagarritasuneko oposaketetan, kontrako adjektibo bat aurrizki pribatzaile baten bidez era daiteke: *kind* “atsegin” - *unkind* “zakar”, *polite* “edukazio oneko” - *impolite* “edukazio txarreko”, *happy* “zoriontsu” - *unhappy* “zorigaitzoko”. Ingelesez, kontrakotasuna adierazteko baliabide hau ia soilik GIZA-EZAU-GARRI tipo semantikoaren barnean agertzen da. Baina beste hizkuntza batzuetan baliabide hau are emankorragoa da eta beste tipo semantiko batzuetan ere agertzen zaigu.<sup>10</sup>

### 2.1.4. *Atzizki eratorleak*

Adjektibozko hizkuntza gehienetan, badira eratorpeneko atzizki batzuk, zeinen bidez adjektibo eratorriak eratzen diren. Ingelesez, adibidez, *-ish* eta *-y* KOLORE tipo semantikoan batik-bat agertzen dira: *red* “gorri” > *reddish* “gorrixka”, *pink* “arrosa” > *pinkish* “arrosa-koloreko”, *green* “berde” > *greeny* “berdexka”, baina *terrible* “itzel” > *\*terriblish*, *excellent* “bikain” > *\*excellentish*. Hizkuntza gehienetan, adjektibo eratorri hauek adjektiboetatik nahiz izenetatik era daitezke, batzuetan hau lexikoki baldintzatuta dagoelarik.<sup>11</sup> Marka dezagun bidenabar ikuspegi tipologiko batetik pribazioa adierazten duten morfemak ia beti aurrizkiak direla, nolabaiteko eratorpen semantikoa adierazten dutenak atzizkiak ohi diren bitartean.

### 2.1.5. *Adjektiboetatik eratorritako aditzak*

Jakina denez, izenetatik nahiz adjektiboetatik batzuetan aditzak ere erator daitezke. Normalean, izenetatik aditz transitiboak (denominatiboak) eta adjektiboetatik aditz intransitiboak (esanahi ingresibokoak) lortzen ditugu. Baina sarritan adjektibo batetik eratorritako aditz batek esanahi transitiboa ere izan dezake. Honela, *deep* “sakon” > *deepen* “sakondu” eta *rough* “latz” > *roughen* “lazu” ingelesezko aditzek zentzu intransitiboa nahiz transitiboa har dezakete.<sup>12</sup>

<sup>10</sup> Errusieraz, adibidez, baliabide hau oso emankorra da eta aurrizki pribatzaile honen bidez ekoizten diren adjektiboak beste tipo semantikoetakoak izan daitezke. Ik. *красивый* “eder” / *некрасивый* “itsusi”, *внимательный* “arretadun” / *невнимательный* “arretagabe”, *терпеливый* “pazientzia handiko” / *нетерпеливый* “pazientzia gutxiko”. Euskaraz ere badira honelako oposaketa batzuk (*berdin* / *ezberdin*, *bezalako* / *ez bezalako*), baina baliabidea ez da bereziki emankorra eta ia erabat konparaketa adierazten duten adjektiboetara mugatzen da.

<sup>11</sup> Euskaraz, esateraz, *-tsu* atzizkiak izenetatik adjektiboak eratorzen dira: *arreta* > *arretatsu*, *lohi* > *lohitsu*, *gogo* > *gogotsu*; *-ska* atzizkiak, adjektiboetatik adjektiboak: *gorri* > *gorrixka*, *hori* > *horixka*. *-Txu* atzizki diminutibatzailea, ordea, izenei nahiz adjektiboetara itsats dakieke: *txori* > *txoritxu*, *txiki* > *txikitxu*.

<sup>12</sup> Halaber, euskaraz, *zikindu* eta *handitu* aditzak intransitiboak nahiz transitiboak izan daitezke. Bestalde, izenetatik eratorritako ia aditz guztiak denominatiboak dira (*bazkari* > *bazkaldu*, *afari* > *afaldu*, *orrizi* > *orraztu*), baina salbuespenak ere badira (*harri* > *harritu* “harri bihurtu (zentzu intransitiboaz)”).

### 2.1.6. *Sintagma-barneko adjektiboen hurrenkera eta adjektiboaren inguruko hitz-hurrenkera*

Adjektiboaren inguruko hitz-hurrenkerak iruzkin berezi bat merezi du. Azaletik esan dugun legez, euskararako Martinetek *etxe berri*-ren moduko ‘izen + adjektibo’ eraikuntzetarako ‘izen + izen’ azpiko egitura bat proposatzen du, euskaraz dena dle.-dtu. egiturara egokitzen delakoan. Nolanahi ere, simetria hauek ez dira inola ere derrigorrezkoak. Azken urteotako tipologiak ondo frogatu du GN eta NA egiturak aldi berean dituzten hizkuntza ugari daudela.<sup>13</sup> Hawkins-en lanean (1980) kategoria sintaktiko ezberdinetan agertzen zaigun hitz-hurrenkeraren behaketaren bidez ondoriozta daitezkeen orokorpenak aztertzen dira, Greenberg (1966) lanaren adabakian dauden datuak (142 hizkuntzatatik hartuak) oinarri harturik. Bertan ateratzen diren ondorioen arabera (1980: 196), euskararen egitura sintaktikoa (SOV/Po/GN/NA) ez da inola ere bitxia: 24 hizkuntzatan agertzen da. Zifra hau beste egitura bakar batek, SOV/Po/GN/AN motakoak, gainditzen du, hau 28 hizkuntzatan agertzen delarik. Kontuan hartu behar dugu Hawkinsek postulatzen dituen unibertsalak baldintzapean zorrotzen pean daudela. Bere orokorpenak tankera honetakoak dira (1980: 201): VSO hizkuntzetan, adjektiboa izenaren atzean agertzen baldin bada, orduan genitiboa ere izenaren atzean dago. Hots,  $VSO \supset (NA \supset NG)$ .

SOV hizkuntzei dagokienez, Hawkinsek (1980: 200-201) ondorioztatzen duen unibertsal bakarra hau da: SOV hizkuntzetan, adjektiboa izenaren aurrean agertzen baldin bada, orduan genitiboa ere izenaren aurrean dago. Hots,  $SOV \supset (AN \supset GN)$ . Hortaz, \*SOV/GN/AN motako hizkuntzarik ez dago (edo behintzat Hawkinsek darabilen hizkuntza-sortan ez da mota honetako inongo kasurik agertzen).

Baina, adierazi dugun legez, SOV/GN/NA motako hizkuntza ugari daude. Nolanahi ere, markatu behar dugu mota honetako hizkuntza guztiak (beti Greenbergen lanean agertzen direnak) Po hizkuntzak direla: ez dago \*SOV/Pr/GN/NA motako inongo kasurik. Gauza bertsua gertatzen da VSO hizkuntzei dagokienean; ez dago, beraz, \*VSO/Pr/GN/NA egitura duen hizkuntzarik. Hau ere Hawkinsen unibertsal-tan jasota dago. Honen arabera (ik. Hawkins 1980: 202-203), Po hizkuntzetan, hurrenkera VSO edo SOV baldin bada, eta adjektiboa izenaren aurrean agertzen baldin bada, orduan genitiboa ere izenaren aurrean dago. Hots (1980: 203):  $Po \& (VSO \vee SOV) \supset (AN \supset GN)$ .

Laburbilduz, tipologiak eskuratzen dizkigun datuak euskararen gertakizunei ondo moldatzen zaizkie eta Martineten eragozpenak ez daude inola ere justifikaturik.

### 2.1.7. *Adberbio eratorriak*

‘Adjektibo’ kategoria duten hizkuntza gehienetan, atzizki eratorle baten bidez adberbio bat era daiteke. Adberbio eratorri hauek GIZA-EZAUGARRI tipo semanti-

<sup>13</sup> Ik. Hawkins (1980). Jarraian aurkeztuko dugun terminologia lan honetan aurkezten dena da. GN = ‘genitibo + izen’; NG = ‘izen + genitibo’; NA = ‘izen + adjektibo’; AN = ‘adjektibo + izen’; Pr = preposizio; Po = postposizio. Honela, arabierak adibidez honako patroio tipologiko hau du: VSO/Pr/NG/NA.

koan bereziki emankorrek dira: *stupid* “ergel” > *stupidly* “ergelki”, *jealous* “jeloskor” > *jealously* “jeloskorki”, *quick* “bizkor” > *quickly* “bizkorki”. EZAUGARRI FISIKO tipo semantikoan ere batzuetan adberbioak erator daitezke, baina hauek normalean zentzu metaforikoaz erabiltzen dira: *dryly remark* “idorki ohartarazi” (*dry* “idor”), *bitterly protest* “mingoski protestatu” (*bitter* “mingots”), *coldly assert* “hozki baieztatu” (*cold* “hotz”). DIMENTSIÓ tipo semantikoan, ordea, adberbio eratorriak bixiagiok dira: *big* “handi” > *\*bigly* “\*handiki”, *small* “txiki” > *\*smallly* “\*txikiki”. Nolanahi ere, ik. *narrow* “estu” > *narrowly* “estuki”.

Dena den, hau adberbioak eratzeko baliabiderik emankorrena (ez-markatua) bada ere, bai ingelesez bai euskaraz badaude atzizkirik gabe eratzen diren adberbio (markatu) batzuk. Ingelesezt: *fast* “azkarki”, *hard* “gogorki”. Euskaraz, nolabait, adjektibo guztiak adberbio-moduan erabil daitezke hizkera arruntean edo expresiboa, honako esaldi honetan kasua den legez: *mutila apal-apal etxeratu zen*.<sup>14</sup>

Halaber, alemanez adberbioak eratzeko baliabide emankorra (ez-markatua) ezer ez gehitzea da, honela adjektiboa eta adberbioa formalki identikoak direlarik: *plötzlich fragte er mich* “bat-batean galdetu zidan”. Baina zenbait kasutan atzizkiaren bidetako baliabide (markatu) bat erabil daiteke: *zufälligerweise* “kasualitatez” (*zufällig* “kasualitatezko”).

### 2.1.8. Adberbio eratorrien konparaketa

Ingelesak ez du baliabide morfologikorik aipatu adberbio eratorri hauetatik konparatiboak eratzeko. Euskarak, ordea, bai: *cleverly* “azkarki” > *\*cleverlier* “azkarkiago” (zuzena *more cleverly* izango litzateke), *slowly* “astiro” > *\*slowlier* “astiroago” (zuzena *more slowly* izango litzateke).

## 2.2. Noiz izan ditzake hizkuntza batek adjektiboak?

Aurreko azpi-atalean adjektiboaren kategoria duten hizkuntzez jardun dugu. Baina zenbait hizkuntzatan ez dago ‘adjektibo’ kategoriarik. Hizkuntza batean adjektiboaren kategoria dagoen ala ez auresateko, alde batetik baliabide sintaktikoak ditugu. Euskaraz nahiz gazteleraz, esaterako, sintagma-barneko hurrenkeran adjektiboa izenaren atzean dago; hartan derrigorrez, honetan erabilera ez-markatuan: eusk. *etxe ederra*, gazt. *la casa hermosa*.<sup>15</sup> Frantsesez nahiz ingelesez, ordea, adjektiboa ia beti izenaren aurrean dago: fr. *la belle maison*, ing. *the beautiful house*.<sup>16</sup> Alemanez, ‘adjektibo + izen’ hurrenkera derrigorrezkoa izateaz gain, adjektiboak deklinabide berezi

<sup>14</sup> Kasu honetan *apal-apal* adberbiotzat jotzea *mutila*-ren aposiziotzat jotzea baino egokiago delakoan gaude.

<sup>15</sup> Euskaraz, sintagma bakoitzaren azken adjektiboari (egotekotan) zehaztapena, zenbakia eta kasua adierazten dituen morfema bat gehitzen zaio, baina hau sintagma osoari dagokio, ez adjektiboari soilik. Gazteleraz, adjektiboak zenbakiko eta generoko konkordantzia izan behar du sintagma beraren izenarekin: *las casas hermosas* “etxe politak”, *el jardín hermoso* “lorategi polita”.

<sup>16</sup> Frantsesez, adjektiboak zenbakiko eta generoko konkordantzia izan behar du sintagma beraren izenarekin: *les belles maisons* “etxe politak”, *le bel jardin* “lorategi polita”. Ingelesezt, ostera, adjektiboa ez da inoiz numerorako deklinatzen (kasurik ez dago hizkuntza honetan, ez eta generoaren ezberdintze morfologikorik): *the beautiful houses* “etxe politak”.

bat eskatzen du, erakusleena eta izenena (hau da, honetatik geratzen dena) ez bezalakoa: *das schöne Haus*.<sup>17</sup> Errusieraz, halaber, 'adjektibo + izen' hurrenkera derrigorrezkoa den bitartean, adjektiboak deklinabide berezi bat du (erakusleekin partekatzen duena), izenena ez bezalakoa: *красивыи дом*.<sup>18</sup> Arabieraz, oster, derrigorrezko hurrenkera 'izen + adjektibo' dugu, eta gainera kokaleku atributiboan adjektiboak artikulua eraman behar du,<sup>19</sup> baina aurreko bi kasuetan ez bezala, adjektiboak izenaren deklinabide berbera du: (a)*l-baytu l-ġamīlu*.<sup>20</sup> Latinez eta beste hainbat indoeuropar hizkuntzatan ere adjektiboak izenaren deklinabide berbera du, baina sintagma-barnean izena eta adjektiboaren arteko hurrenkera ez da tinkoa (joerak badaude ere): *pulchra domus*, baina *populus Romanus* "erromatar jendea".<sup>21</sup>

Beste alde batetik, baliabide morfologikoak ere erabil ditzakegu adjektiboak auresateko, baina hauek ez dira lexiko osorako baliagarri. Euskaraz, *-tsu* edo *-ti* atzizkia duten ia hitz guztiak adjektiboak dira, baina *gorri*, *maker* edo *bizardun* adjektiboek ez digute berez esaten adjektiboak ala izenak diren, beraien alboan itxura morfologiko berdintsua duten *herri*, *aker* edo *hiztun* izenak aurkitzen ditugularik. Azken sei hitz hauetan, semantik eta sintaxiak soilik aurrean diezagukete hitza adjektiboa ala izena den. Hurrengo galdera da: eta semantikaren eta sintaxiaren artean, zein baliabide da nagusi? Euskarazko *erromatar soldaduak*, gaztelarazko *la bella flor* "lore polita (poet.)" eta ingelezko *problems hypothetical* "arazo hipotetikoak"<sup>22</sup> bezalako kasuak markatzen baldin baditugu, kontura gaitezke sintagma-barneko hurrenkera sintaktikoak ez direla beti erabat murriztaile. Hiru kasu hauetan, adjektiboak *erromatar*, *bella* eta *hypothetical* dira, hurrenez hurren, semantika hizkuntza bakoitzean ohikoa den sintaxiaren gainetik nagusitzen delarik. Hortaz, Dixonekin bat gatoz (1982: 8) adjektiboari buruzko bere lan ezagunean esaten duela: "We work from the

<sup>17</sup> Kasu honetan, adjektiboak numeroko, kasuko eta generoko konkordantzia izan behar du sintagmaren gainerako elementuekin. Ikus bitez: *die schönen Häuser* "etxe politak", *ein schönes Haus* "etxe polit bat", *der schöne Garten* "lorategi polita", *den schönen Garten* "lorategi polita (ak.)", *die schöne Frau* "emakume polita", *der schönen Frau* "emakume polita (gt., dt.)".

<sup>18</sup> Alemanez bezalaxe, adjektiboak numeroko, generoko eta kasuko konkordantzia izan behar du sintagmaren gainerako elementuekin. Ikus bitez: *красивые дома* "etxe politak", *красивая девушка* "neska polita", *красивую девушку* "neska polita (ak.)", *красивое ждѣлице* "ostatu polita", *красивое ждѣлице* "ostatu polita (ak.)".

<sup>19</sup> Salbu eta sintagma ez-determinatua baldin bada: *baytun ġamīlun* "etxe polit bat". Bestalde, kokaleku predikatiboan, adjektiboa artikulurik gabe eta ez-determinatuta agertzen da: (a)*l-baytu ġamīlun* "etxea polita da".

<sup>20</sup> Baina, alemanez eta errusieraz bezala, adjektiboak numeroko, kasuko eta generoko konkordantzia izan behar du izenarekin: (a)*l-buyūtu l-ġamīlūna* "etxe politak", (a)*l-bayta l-ġamīla* "etxe polita (ak.)", (a)*l-bayti l-ġamīli* "etxe polita (gt.)", (a)*l-muslimatu l-ʿarabiyātu* "arabiar (emakume) musulmana"...

<sup>21</sup> Hemen ere, adjektiboak numeroko, kasuko eta generoko konkordantzia izan behar du sintagmaren gainerako elementuekin: *pulchrae domus* "etxe politak", *pulchram domum* "etxe polita (ak.)", *pulcher puer* "ume polita".

<sup>22</sup> Egoera zehaztu batzuetan, azken adibide hau gramatikala izan daiteke ingelesez. Hala nola: *he had no patience with problems hypothetical* "berak ez zuen pazientziarik arazo hipotetikoekin". Sintagma-barneko 'izen + adjektibo' hurrenkera zuzena izan dadin, bi baldintza behar ditugu: a) sintagma ez-determinatua izatea (*\*the problems hypothetical*); b) izenaren esanahia oso orokorra izatea. Honela, adjektiboak izena azpi-sailkatzen du, hurrenkerearen bitartez esanahi zehatzagoko elementua (hots, adjektiboa) gailentzen delarik.



assumption that the syntactic properties of a lexical item can largely be predicted from its semantic description. Semantics is thus held to be prior to syntax”.

Rijkhoff-ek (2000: 221) 50 hizkuntza aztertu eta hitz-moten inguruko honako hizkuntza-sailkapen hau egiten du:<sup>23</sup>

1. *mota*: V/N/A; samoera.
2. *mota*: V-N/A; hurrita, imbabura ketzua.
3. *mota*: V-N-A; abkhaz, alablak, euskara, berbice, bukiyip, burushaski, nederlandera, guarani, hetita, hmong njua, hungariera, ika, kayardild, ket, nama hottentot, nasioi, ngalakan, ngiti, oromo, sumeriera, wambon.
4. *mota*: V-N; babungo, bambara, burmera, chukchi, galela, gilyak, gude, hixkaryana, kisi, koasati, koreera, krongo, lango, mandarin txinera, nung, nung-gubuyu, pipil, sarcee, tamil, tsou, vietnamera, mendebaldeko groenlandiera.
5. *mota*: V(-N); cayuga.

V (edo V(-N)) motako hizkuntzak izateak oso zalantzazkoa dirudi; honi buruz (ik. Dixon 1982: 2). Honek esan nahi du (ia) hizkuntza guztiek nola edo halako lexema nominalen kategoria bat dutela. Badirudi, ostera, zenbait hizkuntzatan adjektiboaren kategoria lexematikorik ez dagoela. Kasu honetan, bi aukera ditugu: a) adjektibozko esanahia duten hitzak lexema nominalen kategoriaren barnean daude; ez dago baliabide morfo-sintaktikorik izena eta adjektiboa ezberdintzeko, baina testuinguruak zehazten digu halako hitz bat izena ala adjektiboa den (2. mota: V-N/A); eta b) ez dago adjektibozko esanahiko hitzik, eta adjektibozko kontzeptuak bestelako hitz-moten bidez adierazten dira (4. mota: V-N). 2. motako hizkuntza bat Australiako ngiyambaa dugu. Bertan (ik. Rijkhoff 2000: 219): “The class of nominals includes nouns as well as lexemes that would be translated as adjectives in English. Although there is a morphological difference in that only a subclass of lexemes of the N/A type permits reduplication, this is attributed to ontological rather than linguistic factors”. Mota hau txit urria da, zerrendan dakusagun legez. 4. motako hizkuntzak, ostera, ugariagoak dira. Hauetariko kasu bat galela papuar hizkuntza dugu. Hizkuntza honi buruz ari dela, Rijkhoff-ek dio (2000: 220): “If we take the Galela equivalent of the English adjective ‘big’ *lamo* and let it function as a modifier of the noun, we must also add a third person pronoun. This is because in Galela this property is expressed through a verbal predicate (“be.big”) whose sole argument must be explicitly expressed in the form of a pronominal element. Thus the whole phrase is rather like a subordinate clause”.<sup>24</sup>

<sup>23</sup> Bertan, V = aditz, N = izen, A = adjektibo. Gidoiek ( - ) hitz-moten arteko muga zehatzak adierazten dituzte; barrek ( / ), muga zehatzik eza. Adibidez, V-N-A motako hizkuntza batean, irizpide morfo-sintaktikoetan nahiz semantikoetan oinarrituz adjektiboaren kategoria argi-argi zedarri dezakegu. V-N/A motako beste batean, ostera, irizpide morfo-sintaktikoek bi lexema-mota bakarrik ezberdintzen dituzte: aditz-lexemak eta lexema nominalak. Baina azken hauek V-N-A motako hizkuntza batera itzultzen baldin baditugu, batzuetan izenezko, beste batzuetan adjektibozko esanahiak lortuko ditugu.

<sup>24</sup> N/A eta N-A egiturak ezberdintzeko, Hengeveld-ek (1982: 63-67) hizkuntza *malguak* eta *zurrunak* bereizten ditu. Ezberdintasuna geuk deskribatutakoa da: hizkuntza malguetan (tonga kasu), hitz-moten izaera testuinguruak zehaz dezake, baina ez dago baliabide morfo-sintaktikorik N bat eta A bat bereizteko. Hizkuntza zurrunetan, ostera, ‘parts of speech’ direlakoak baliabide morfo-sintaktikoen bitartez adierazten dira.

3. motako hizkuntzetan adjektiboaren kategoria baliabide morfo-sintaktikoen bitartez azaltzen da, eta beraz hizkuntza hauek 2. motakoetatik argi eta garbi ezberdintzen dira. V-N-A motako hizkuntza bat (ingeleza) eta V-N/A motako beste bat (ketxua) erkatzeko, ikus bitez ketxuazko esaldi hau eta sintagma hau (ik. Hengeveld 1992: 64):

- |        |                          |              |                 |
|--------|--------------------------|--------------|-----------------|
| (1) a. | <i>rikaška:</i>          |              | <i>hatun-ta</i> |
|        | ikusi (lehenaldia, 1sg.) |              | handi (ak.)     |
|        | “Handia ikusi nuen”      |              |                 |
| b.     | <i>chay</i>              | <i>hatun</i> | <i>runa</i>     |
|        | hori                     | handi        | gizon           |
|        | “Gizon handi hori”       |              |                 |

(1a)-n, *hatun*-ek ezaugarri bat adierazten du (“handitasun”), baina (1b)-n ezaugarri hori daukan objektu bat (“handi bat”). Hau ezberdintasun semantiko handia da, baina ezberdintasun hau hizkuntza honetan soilik ageri zaigu. Ingelesezt, osteraz, *big* “handi”-k ezaugarria bakarrik adieraz dezake. Hengeveld-en esanetan (1992: 64), “Quechua combines the functions of adjectival and nominal predicates in one part of speech”.

Aurrera jarraitu baino lehen azpimarratu nahi genuke hizkuntzalari guztiek ez dutela sailkapen hau onartzen. Croft-en aburuz, esate baterako, V, N eta A ez dira hizkuntzaren araberako (‘language-specific’) kategoriak, unibertsalak baizik. Hizkuntzaren araberako ezberdintasunak semantikan daude, ez gramatikan. Tongarako V-N/A egitura ingelesezko V-N-A egiturarekin erkatzerakoan, Croft-ek sailkapen tradizional honen jarraitzaileei ihardesten die (2000: 71): “The problem with this argument is that there are language-specific semantic differences in the meanings of the lexical items used in each function. [...] English school used predicatively does not mean the same thing as Tongan *ako* used predicatively, namely ‘study’. Going in the opposite direction, English study used referentially does not mean the same thing as Tongan *ako* used referentially, namely ‘school’. Finally, English *small* used referentially does not mean the same thing as Tongan *si’i* ‘childhood’ used referentially. [...] All of these language-specific semantic differences imply that, as in English, Tongan and Tuscarora lexical items have multiple conventional meanings, each of which happens to fall into different parts of speech of the usual sort (Noun, Verb, Adjective)”. Antzerako eragozpen bat Wierzbicka-k (2000) planteatzen du. Hizkuntzalari honek ‘parts of speech’ direlakoen definizio klasikoaren kritika bat burutzen du. Bere ustetan (2000: 286-87), kasu gehienetan hauek ez dute auresaten halako kontzeptu bat unibertsalki hitz-mota zehaztu batean sartuko den ala ez. Azken finean, Wierzbicka-k planteamendu murriztaile bat proposatzen du (2000: 287): “In my view, this can only be done on the basis of empirically established linguistic universals, that is, concepts which can be found in an identifiable form in all languages, and which can also be accepted as intuitively intelligible (non-technical) conceptual primitives”. Bere irizpideak oso eztabaidagarri izan daitezkeela onartu arren, Wierzbicka-k (2000: 295-98) unibertsal hauen zerrenda bat eskaintzen digu. Adjektiboak dagokienez, berak proposaturiko lau unibertsalak (Dixonen artikuluan oinarrituz) hauek dira: “handi”, “txiki”, “on” eta “txar”. Eta gehitzen du (2000: 297): “But suppose that in a certain language

the words for BIG and SMALL behave in some respects differently from the words for GOOD and BAD-which pair would we then treat as the deciding one? In my view, in a case like this the best solution will be to go with BIG and SMALL, rather than with GOOD and BAD; for it is more likely that the words for GOOD and BAD will behave in some respects like the words of the class including DO and HAPPEN (that is, “verbs”) than that the words for BIG and SMALL will”. Nolabait, eragozpen hauek guztiak oso zentzudunak diren arren, eremu teorikoan sartzen dira. Diakroniaz jarduteko, planteamendu funtzional tradizionala baliagarri izan daitekelakoan gaude.

Jarraian 3. motako eta 4. motako hizkuntzen azterketara mugatuko gara, bi arazoirengatik batik-bat: a) motarik ohikoenak dira; eta b) hurrengo atalean ikusiko dugun legez, aitzin-euskararen berreraiketakako hauek dira interesgarrien gerta dakizkigukeen motak.

3. motako hizkuntzetan (hots, V-N-A egiturakoetan), Dixonek (1982: 1-7) bi azpi-mota aurkitzen ditu: a) adjektibo-klase zabala, irekia eta emankorra duten hizkuntzak; b) adjektibo-klase murrizta, itxia eta ez-emankorra duten hizkuntzak. Haietan, adjektiboak oso ugari dira eta adjektibo berriak sortzeko baliabide morfologiko anitz daude; hauetan, adjektibo gutxi daude eta adjektibo-klasea itxia ohi da, hots, ez dago adjektibo berriak sortzeko eratorpeneko baliabiderik. Semantikaren ikuspegitik, adjektibo-klase zabaleko hizkuntzetan adjektiboek esanahi zehatzagoak adierazten dituzte, eta esanahi hauek erlatiboki aldaketa gutxirekin itzul daitezke hizkuntza batetik beste batera; adjektibo-klase murrizteko hizkuntzetan, ostera, adjektibo bakoitzak okupatzen duen hedadura semantikoa zabalagoa da eta ez aurreko kasuan bezain zehatza.

Ez dago esan beharrik bereizte hau erlatiboa dela. Zenbat adjektibo behar ditu hizkuntza batek bere adjektibo-klasea zabala izan dadin? Erabaki hau subjektiboa izango da beti. Irizpide morfologikoak kuantitatiboak baino sinesgarriagoak direlakoan gaude. Adjektibo-klase murrizteko hizkuntza batean adjektiboak urriak eta aldaezinak dira. Gainera, klasea itxia denez gero, ez da erraza bestelako hitzak (izenak eta aditzak adibidez) adjektibotzat berrinterpretatu daitezzen eta jadanik dagoen sortaren adjektibo-kopurua areago dezaten. Bestalde, sarritan adjektibo-klase murrizteko V-N-A hizkuntzen eta V-N(/A) hizkuntzen arteko muga zehatzik ez dago, Dixonek (1982: 34-54) aztertzen dituen hizkuntzen analisisan ikus dezakegun legez. Hortaz, joerez bakarrik ari gara eta ohartu behar dugu konbentzionalki ‘motak’ deituko ditugun kategoria hauek *continuum* baten barnean ulertu behar ditugula. *Continuum* honen muturrak adierazteko kasu argiak aukeratu behar ditugu. Adjektibo-klase zabaleko V-N-A hizkuntza baten kasu argia ingelesa da. Ingelesezh ehunka adjektibo daude, eta adjektibo berriak eratortzeko baliabideak aski ezagunak dira. Adjektibo-klase murrizteko V-N-A hizkuntza baten kasu argia igbo hizkuntza da. Igboz, zortzi adjektibo dira bakar-bakarrik, hauetariko lau gainerako lauren aurkako antonimiako oposaketan daudelarik.

Dixonek aurkezten digun hizkuntza-corpusean (ik. Dixon 1982: 34-54), hizkuntzalari honek 17 hizkuntza aztertzen ditu, hauetariko bakoitzean honako galdekizun hauek iruzkinduz: a) zenbat adjektibo dituen hizkuntzak; b) formaren aldetik, nolako baliabide morfo-sintaktikoak dauden hizkuntzan adjektiboaren kategoria bereizteko (egotekotan, zeren V-N egiturako pare bat hizkuntza ere aztertzen bai-

titu); d) nola antolatzen diren lexikoan berak proposaturiko zazpi 'tipo semantikoak' (ik. 2.1.1.), eta nola tipo semantiko batzuk ia era aldaezin batean hitz-mota batzuei dagozkien.

Orain azterketa honetatik atera daitezkeen ondorioetara mugatuko gara. Datuen behaketatik, Dixonek (1982: 46-62 eta 1-7) honako joera, orokortasun, uni-bertsal edo hausnarketa orokor hauek aurkezten dizkigu:

1) Hizkuntzak bi taldetan sailka daitezke: a) adjektibo-klase zabal eta ireki bat dutenak; eta b) adjektibo-klase murriztuta eta itxi bat dutenak. Lehen taldean ingelesa, dyrbal eta tzotzil bezalako hizkuntzak ageri zaizkigu. Hizkuntza hauetan, zazpi tipo semantikoetako adjektiboak daude. Bigarren taldeko hizkuntzen artean hauexek dira: hua (12 adjektibo inguru), hausa (12 inguru), telugu (30 inguru), bamba (20 inguru), luganda (40 inguru), acoolli (40 inguru), alambak (40 inguru), kiriwini (45 inguru), sango (45 inguru), swahili (75 inguru). Hizkuntza hauetan, normalean ez dago zazpi tipo semantikoetako adjektiborik: tipo semantiko batzuk adjektiboaren kategorian sartzen dira eta beste batzuk bestelako hitz-motetan. Ondorengo bost orokortasunak tipo semantiko hauen agerpenaren inguruko zehaztapenak dira.

2) Adjektiboak dituzten hizkuntza guztietan, ADIN, DIMENTSIO, BALORE eta KOLORE tipo semantikoak gehienetan adjektiboaren kategorian sartzen dira.

3) Adjektibo-klase murrizteko hizkuntzetan, GIZA-EZAUGARRI tipo semantikoa nagusiki izenaren kategorian sartzen da. Honela, 12 adjektibo bakarrik dituen hauszaz tipo semantiko honetako hitz guztiak izenak dira. Adjektibo gehixeago dituzten hizkuntza batzuetan, tipo semantiko honetako hitz bakar bat edo bi besterik ez dago. Adjektibo-klase zabaleko hizkuntzetan, GIZA-EZAUGARRI tipo semantikoko hitz batzuk izenak dira, baina orokorrean adjektibo izateko joera erakusten dute.

4) Adjektibo-klase murrizteko hizkuntzetan, EZAUGARRI FISIKO tipo semantikoa nagusiki aditzaren kategorian sartzen da. Adjektibo gutxitako hizkuntzetan, tipo semantiko honetako adjektiborik ez egoteko joera dago; adjektibo-kopurua areagotu ahala, hauetarikoren bat aurki dezakegu.

5) EZAUGARRI FISIKO tipo semantikoa adjektiboaren kategorian sartzen baldin bada, orduan ABIADURA tipo semantikoa ere kategoria honetan sartuko da. Hau adjektibo-klase zabaleko hizkuntzetan (ingelesa, dyrbal, yurok eta tzotzil bezalakoe-tan) nahiz adjektibo-klase murriztuta baina honen barnean adjektibo-kopuru ertaina duten hizkuntzetan (japoniera eta swahili bezalakoetan) gertatzen da.

6) EZAUGARRI FISIKO tipo semantikoa aditzaren kategorian sartzen baldin bada, orduan ABIADURA tipo semantikoa adberbioaren kategorian sartuko da. Hau bamba eta sango hizkuntzetan gertatzen da.

7) Adjektibo-klase zabalen eta murriztuta arteko dikotomia honen alboan, badugu beste bat: *biziki adjektibozko hizkuntzak* ('strongly adjectival languages') eta *biziki aditzeko hizkuntzak* ('strongly verbal languages'). Orokorrean, zenbat eta adjektibo gehiago izan hizkuntza batek, orduan eta gertuago egongo da hauetariko lehen eredutik, baina hau ez da beti kasua. Biziki adjektibozko hizkuntzetan (dyrbal kasu), adjektiboaren kategoriak zazpi tipo semantikoak monopolizatzen ditu: zazpi tipo semantiko hauetako ia hitz guztiak adjektiboak dira, ez dagoelarik berauei dagoen ez aditzik, ez izenik. Biziki aditzeko hizkuntzetan (hausa kasu), ostera, ia le-xiko osoa adjektiboa ez beste kategorietan sartzen da.

Hemen ere *continuum* bat besterik ez dugu. Bi mutur hauen artean badago tar-teko kasurik: ingelesa, adibidez, oposaketa honen aurrean *hizkuntza neutral* bat da. Hizkuntza honek ehunka adjektibo ditu, baina aztergai ditugun zazpi tipo semantikoetako hitz asko bestelako kategorietan ere sar daitezke. Hortaz, dualtasun honen mutur batean edo bestean egotea ez da arazo kuantitatibo bat, arazo erlatibo bat baizik. Ingelesak adjektibo asko ditu (bere eratorpeneko baliabide morfologikoei esker batik-bat), baina corpus lexiko orokor esker duen neurrian, adjektiboaren kategoriak ez du lexiko osoa monopolizatzen.

8) Biziki adjektiboko diren hizkuntzetan, adjektibo guztien antonimoak adjektibo dira, hain adjektibozko ez diren hizkuntzetan adjektiboen antonimoak bestelako hitz-motetan sar daitezkeelarik. Beraz, biziki adjektibozko hizkuntza bat den dyirbal-*ez*, oposaketa antonimiko guztiak A-A (adjektibo-adjektibo) egiturakoak diren bitartean, hizkuntza neutral bat den ingelesez oposaketa antonimiko batzuk A-A egitura-koak dira (*sharp* “zorrotz”-*blunt* “kamuts”) eta beste batzuk A-V (adjektibo-aditz) egiturakoak (*raw* “gordin”-*cooked* “kozinatu”). Azken kasu hauetan, joera nagusia hauxe dugu: oposaketaren osagai ez-markatua aditza da. Bestalde, A-V motako oposaketek ekintza baten inguruko semantika bat ohi dute (‘action oppositions’), A-A motakoek ez dutelarik inolako ekintzarik inplikatzan (‘non-action oppositions’).

Biziki aditzezko hizkuntzei dagokienez, hauek adjektibo-klase zabalekoak nahiz murriztekoak izan daitezke. Orokorrean, kasu hauetan oposaketaren osagai markatua aditz bat izango da eta ez-markatua: a) adjektibo bat, hizkuntza adjektibo-klase zabalekoa baldin bada; edo b) izen bat (gehienetan, baina batzuetan adjektibo bat ere posible da), hizkuntza adjektibo-klase murriztekoa baldin bada (ik. Dixon 1982: 55). Hortaz, honako eskema hau postula dezakegu (cf. Dixon 1982: 51):

|                                                | Ekintzazko oposaketak<br>(“gordin” - “kozinatu”) | Ez-ekintzazko oposaketak<br>(“zorrotz” - “kamuts”) |
|------------------------------------------------|--------------------------------------------------|----------------------------------------------------|
| 1. Biziki adjektibozko<br>hizkuntzak (dyirbal) | A – A                                            | A – A                                              |
| 2. Hizkuntza neutralak<br>(ingelesa)           | A – V                                            | A – A                                              |
| 3. Biziki aditzezko<br>hizkuntzak (hausa)      | A – V                                            | A – V                                              |

9) Adjektibo-klase murrizteko hizkuntzetan normalean adjektiboak antonimikoki oso parekaturik badaude ere (ik. Dixon 1982: 3-7), batzuetan zenbait adjektibok ez dute antonimorik. Adjektibo hauen antonimoak aditzak ohi dira. Oposaketa hauetan, osagai ez-markatua normalean adjektiboa da. Beraz, hizkuntza hauetan A-A motako oposaketa antonimiko batzuk aurkitzen ditugu (baina kontuan har dezagun adjektibo-sorta murrizta izanik oposaketa hauek erlatiboki urriak izango direla), eta hauen aldamenen A-V motako beste batzuk. Orokorrean, banaketa hau lexikoki baldintzatuta dago. A-V motako oposaketak honako tipo semantiko hauei ohi dagozkie: DIMENTSIO, EZAUGARRI FISIKO, ABIADURA, eta agian ADIN.<sup>25</sup> Adibide mo-

<sup>25</sup> Gainerako oposaketak (A-A motakoak albo batera utzita) N-V (izen-aditz) motakoak ohi dira. Mota hau oso ugaria da adjektibo-klase murrizteko hizkuntzetan oposaketa antonimikoak sortzeko. Honen inguruan ‘the N/V syndrome’ delako auziaz eztabaidatu da hizkuntzalarien artean,

duan hona hemen alambak-*ezko* A-V motako oposaketa batzuk: *nfri* “gordin, heldugabe” / *huk(kföt)* “heldu, umotu (V)”, *wafkha* “osasuntsu” / *dböhna(kföt)* “gai-xotu (V)”, *nfri* “bizirik, berri” / *nob(kföt)* “hil (V)”, *briöh* “huts” / *frkih(kföt)* “betirik egon”.

10) Adjektibo-klase murrizteko hizkuntzetan, adjektiboaren kategoriaren edukin semantikoa hizkuntzatik hizkuntzara berdintsua da.<sup>26</sup> Dixonek (1982: 7) jorrazten dituen mota honetako 20 hizkuntzetan marka dezakegu adjektiboaren inbentarioa ia beti binakako oposaketa antonimikoetan egituratuta dagoela. Maiztasun handienaz agertzen diren esanahiak honako hauek dira: “handi” (20 hizkuntzetan), “txiki” (19tan), “luze” (14tan), “labur” (15etan), “berri” (15etan), “zahar” (14tan), “on” (13tan), “txar” (14tan), “beltz” (13tan), “zuri” (14tan), “gorri” (8tan), “gordin, berde, heldugabe” (7tan). Agertzen diren beste adjektibo batzuk hauek dira: “astun” (5etan), “arin” (5etan), “zorrotz” (4tan), “argal” (3tan), “indartsu” (3tan), “bero” (3tan), “basati, haserre” (3tan), “femenino” (3tan), “eder” (3tan), “lodi” (2tan), “kamuts” (2tan), “leun” (2tan), “hotz” (2tan), “busti” (2tan), “garratz” (2tan), “oso, bete” (2tan), “esku-zabal” (2tan).

11) Hizkuntza hauetan, sintagma nominaletan bi hurrenkerak aurkitzen ditugu (AN nahiz NA). Zenbaitetan (hala nola, huaz, teluguz eta kiriwiniz), badirudi adjektiboak kokaleku atributiboan soilik ager daitezkeela. Beste zenbaitetan, kokaleku predikatiboan ager daitezke, baina bakarrik nolabaiteko marka morfologiko bat eranstean baldin bazaie.<sup>27</sup>

Orain egin diezaiegun aipu labur bat 4. motako hizkuntzei, hots, V-N egitura-koei. Hizkuntza hauek ere ez dira batere urriak (ik. goiko sailkapena). Adjektiboak kontzeptuak adierazteko, hauek bestelako hitz-motetan sartzen dira. Gehienetan, izen abstraktuak eta batik-bat aditz intransitiboak dira adjektiboaren kategoriaren ordezkioak. Hau japonieraz gertatzen da, non ehunka adjektiboak kontzeptuak diren, hauek aditzen azpi-mota bat osatzen dutelarik. Yurok-*ez* ere adjektiboak aditzen hitz-motan sartzen dira, bai eta samoeraz, non hala ere GIZA-EZAUGARRI tipo semantikoko kontzeptu batzuk izen abstraktuen bidez adierazten diren. Batzuetan adjektiboak kontzeptuak hitz-mota ezberdinetan banatzen dira eta banaketa hau tipo semantikoen araberrako kontua da. Chinook-*ez*, esate baterako, ADIN tipo semantikoko kontzeptuak aditzen hitz-motan sartzen dira; DIMENTSIO, BALORE tipoetakoak eta EZAUGARRI FISIKO tipoko gutxi batzuk izen maskulinoen bidez adierazten dira; GIZA-EZAUGARRIkoak bestelako izenen bidez; eta ABIADURAKO nahiz KOLORERAKO guztiak eta EZAUGARRI FISIKOKO gehienak flexiorik gabeko partikulen bidez (hauek beste hitz-mota bat direlarik).

Sarritan ez da erraza V-N hizkuntzen eta adjektibo-klase murrizteko V-N-A hizkuntzen arteko muga zedarritzea, ez eta halako V-N hizkuntza bat benetan ad-

baina, arazo honek adjektiboari zuzen-zuzen eragiten ez diolarik, oraingoan saihestuko dugu. Ik. Dixon (1982: 51-54).

<sup>26</sup> Dixonen orokortasunak eta iruzkinak interesatzen zaigun hurrenkeran kokatu ditugu. Ik. orain Dixon (1982: 1-7). Bestalde, adjektibo-klase murrizteko hizkuntza baten azterketa interesgarri baterako, ik. Levy (1992).

<sup>27</sup> Azken iruzkin hau ez du Dixonek berak bere lanean esplizituki egiten; guhaurk aurkezten dugu bere datuen behaketan oinarrituz.

jektiborik gabeko hizkuntza den ala ez zehaztea. Azken kasu honetan, eztabaida semantika eta morfo-sintaxiaren arteko galdekizun bat da. Ikus dezagun adibide arketipiko bat: mandarinar txinera.<sup>28</sup> Hizkuntza honen deskribaketan, hiru argudio morfo-sintaktiko daude aditza eta 'adjektiboa' hitz-mota berberari dagozkiola pentsatzeko. Lehen erabilpen predikatiboa da. Kokaleku predikatiboan ez aditzak ez 'adjektiboak' aditz kopulatiborik behar ez duten bitartean, izenak *shi* aditz kopulatiboa behar du kokaleku honetan. Bigarrena, erabilpen atributiboa da. Mandarinez, edonolako izenei era ezberdinetako atributoak erants dakizkieke: aditzak, 'adjektiboak' nahiz beste izenak. Kasu guzti hauetan, sintagma-burua bere atributoarekin elkartzeko *DE* partikula behar dugu, eta honek ere ikuspegi morfo-sintaktiko batekin aditza eta 'adjektiboa' lotzen ditu. Hirugarren argudioa aspektu-markaketa da. Bai aditzek bai 'adjektiboek' aspektu-markak har ditzakete. Adibidez, *-le* atzizki perfektiboaz honako eratorpen hauek lortzen ditugu: *shui* "lo egin (inf.)" > *shuile* "lo egin du", *nūli* "arretatsu" > *nūile* "arretatsu (izan da)".

Aditza eta 'adjektiboa' hitz-mota berberan sartzearen aurkako argudioak ere badaude, baina sinologo gehienek ustez ahulak dira eta azalpen tradizionala bertan behara utzi gabe uler daitezke. Hauetariko bat erreduplikazioen jokaera da. Aditz bisilabikoak ABAB egiturako erreduplikazioa duten bitartean, 'adjektiboena' AABB egiturakoa da. Era berean, aditz monosilabikoen erreduplikazioak AyiA egitura du, eta 'adjektibo' monosilabikoenak AA. Esanahiaren aldetik ere badago ezberdintasunen bat. Hark "gauza bat 'pixka bat' egin" adierazten du; honek intentsitatea gehitzen dio forma ez-erreduplikatuari. Argudio honi, Sackmann-ek (1996: 268) ihardesten dio: "However, this analysis obviously suffers from a confusion of syntax with morphology. In Mandarin Chinese, the phenomenon of reduplication is clearly morphological, not syntactic: ABAB-reduplication must be treated either as a type of inflection (if one subscribes to the view that it yields aspect *forms* of verbs) or as a type of word formation (if one takes the resulting forms as forms of a semantically different lexical word). AABB-reduplication, on the other side, has to be treated as word formation because it creates words with different, 'intensive' lexical meanings".

Sinologo gehienak, beraz, bat datoz txinerazko 'adjektiboak' aditzen hitz-mota berean sartu behar ditugula baieztatzean. Baina nola txerta daitekeen adjektiboaren kategoria aditzenean zehazterakoan, desadostasun handia dago.<sup>29</sup> Orokorrean, 'adjektiboak' esanahi estatiboa duten aditzekin estu lotuta daude.

Azkenik, Rijkhoff-ek (2000) ondorioztatzen duen unibertsalak iruzkin labur bat merezi du. Hizkuntzalari honen aburuz, adjektiboaren kategoriarik ez duten hizkuntza (ia) guztietan, 'zenbakari + izen' moduko sintagmetan bi osagaien arteko harreman sintagmatikoa sailkakari baten bidez adierazten da (2000: 217): "Data from a representative sample of the world's languages indicate that adjectives only occur in languages in which the numeral is in a direct construction with a noun (that is, the numeral does not occur with a sortal classifier), but not viceversa". Hona hemen sailkakariak dituzten V-N hizkuntza batzuen adibide batzuk (2000: 222-23):

<sup>28</sup> Ondorengo analisirako, ik. Sackmann (1996). Bertan, 'adjektibo' komatxoaren artean idatziko dugu, adjektibo-kategoriarik ez egon arren, ustezko adjektiboak nolabait izendatu behar ditugulako.

<sup>29</sup> Azalpen baterako, ik. Sackmann (1996: 268-75).

- (2) a. Mandarin txinera  
*wǔ*                      *bě'n*                      *shū*  
 bost                      SAILK                      liburur  
 “bost liburur”
- b. Koreera  
*mal*                      *du*                      *mali*  
 zaldi                      bi                      SAILK  
 “bi zaldi”
- d. Hmong njua  
*ob*                      *tug*                      *naab*  
 bi                      SAILK                      suge  
 “bi suge”

Adjektiboaren kategoria duten hizkuntzetan, ostera, ez dago honelako sailkakaririk. Arrazoiren batengatik (hauxe da Rijkhoff-en aierua) hizkuntza batek adjektiboak izan ditzake bakarrik baldin eta bere izenak [+Eite] ezaugarriko lexikoki zehaztuta baldin badaude, “which means that the properties that are designated by these nouns are characterised as having a spatial boundary” (2000: 217). Gure aburuz, proposamen honek hitz-moten inguruko arazoetan bide berriak urra litzake, baina horretarako ikasketa sakonagoak (eta hizkuntza-kopuru handiagoak jorratzen dituztenak) beharko genituzke.

### 3. Adjektiboa aitzin- eta aurre-aitzin-euskaraz

Atal honetan euskararen adjektiboak garai ezberdinetan pairatu duen bilakaera aztertu gogo dugu. Horretarako gure aurrenengo eginbeharra hemendik aurrera manciatuko dugun kronologia erlatiboa zehaztea da. Gure esparru teorikoa beste lan batean definitu dugu (ik. Martínez Areta-prestatzen). Lan honetan, orokorrean Lakarrak (1995) postulatatu printzipioetan oinarritzen gara eta zehaztapen batzuk burutzen saiatzen gara.

Lakarrak (1995) markatzen du aitzin-euskararako berreraiki daitezkeen erro bisilabiko guztiak<sup>30</sup> (edo gehienak behintzat) esanahi lexematiko bat duten bi osagaitan zati daitezkeela. Honen guztiaren ondorioztapen diakronikoa izango litzateke garairik zaharrenean euskararen egitura morfo-fonemikoa monosilabikoa izan zela. Esate baterako, *gi-bel* hitza hartzen baldin badugu, badirudi hemen aurkitzen dugun *gi* elementua *gi-harre*-n eta besteren batean ere agertzen zaigula, agian “haragi” esanahiaz. Bigarren elementua, *bel*, baliteke *ar-bel*-en, *os-pel*-en eta *u-bel*-en agertzen zaigun berbera izatea, agian “beltz” esanahiaz. Euskal lexiko zaharrenean barrena azterbide hau aplikatzen baldin badugu, konturatuko gara oso baliabide emankor eta baliotsua gertatuko zaigula, hitz zahar bisilabiko gehienak bi elementu monosilabikotan zatika daitezkeelarik.

<sup>30</sup> Lakarrak (1995: 194) hitz monosilabikoak, bisilabikoak eta trisilabikoak sailkatzen ditu euskal lexiko zaharrenean, baina trisilabikoak (*egia*, *herio*, *lehia*...) ez dira aztertzeko hain errazak, eta ez bide dute aitzin-euskararen lexiko estrukturalarekin lotura esturik.



Lakarraren prozedura, beraz, aitzin-euskararen lexikoaren analisi morfologikoan aurrera-pausu handia delakoan gaude. Dena den, ondorioztapen diakronikoak ateratzerakoan arreta handiz ibili behar dugu. Berreraiki ditzakegun elementu monosilabiko guztiek ez dute esanahi lexematikorik; batzuen esanahia morfematikoa da. Adibidez, *harri*-ren *-i* elementua ziurrenik atzizki singulatzailer bat dugu, aditz-partizipioetan agertzen den berbera alegia (*ikus-i*, *ekarr-i*, *etorr-i*...). Kasu honetan *harr-* eta *-i* garai zaharrago batean elementu burujabeak zirela postulatzeak espekulatiboagoa dirudi. Kontu hau ez da erabakigarria izango lan honetan, hemen batez ere ‘izen monosilabiko + adjektibo monosilabiko’ egiturako eraikuntza bisilabikoez arituko baikara, non bi osagaiak lexemak diren.

Gure aipatu lanean (ik. Martínez Areta-prestatzen) zehazten saiatu gara garai monosilabikotik beste bisilabiko baterako igarotze-prozesu hori nola burutuko zen. Gure aieruaren arabera, garairik zaharrenean euskarak egitura morfo-fonemiko monosilabikoa edo quasi-monosilabikoa izango zukeen. Baliteke garai honetan silaba guztiek azentu-esparru bana edukitzea ([ \_ ] egiturakoa), hizkuntza agian tonala zelarik. Nolanahi ere, lotura zehatu batzuetan azentu-esparrua bi silabakoa izan zitekeen ([ \_ - \_ ] egiturakoa). Lotura hauek zeintzuk ziren zehaztea ez da batere erraza, baina badirudi eraikuntza hauetatik bi silabako azentu-unitateak gainerako lexikora hedatu zirela, hitz-eraketa faktore prosodikoen menpe zegoelarik. Azentu-unitate hauek deuterotonikoak ziren ([ \_ - ˊ ] egiturakoak), hots, azentua bigarren silaban zuten eta oin yanbikoak osatzen zituzten.<sup>31</sup> Gure lanean egitura hau zuten egitura bisilabikoak bost motatakoak izan zitezkeela proposatu dugu: a) *deskribatzaileak*: ‘izen-adjektibo’<sup>32</sup> egiturakoak (*gi-bél*, *\*han-kér* (> *aker*), *\*hen-bór* (> *enbor*)); b) *menpetasunezkoak*: ‘izen-izen’ egiturakoak (*\*orz-tóts* (> *ostots*), *\*ur-bár* (> *i-bar*)), *\*zur-bí* (> *zubi*)); d) *atzizkidunak*: ‘izen-atz.’ egiturakoak (*zur-í*, *han-dí*, *\*hor-só* (> *otso*)); e) *koordinatuak*: ‘izen-izen’ egiturakoak (*gi-zén* (?), *gi-zón* (?)); f) *erreduplikazioak*: ‘izen-izen’ egiturakoak (*go-gó*, *ze-zén*, *\*de-dér* (> *eder*)).

Hortaz, halako une batean bisilabismoa lexikoan zabaldu zen. Semantikari begiratzen baldin badiogu, agian iradoki dezakegu bisilabiko bihurtzen ziren eta azentuera deuterotoniko hau hartzen zuten izenek esanahi singulatzailer (*harr-í*, *berr-í*) edo zehaztatzailer (*gi-bél*, *\*han-kér*) bat izateko joera erakusten dutela. Esanahi singulatzailer edo zehaztatzailer zuten izenek, beraz, bisilabiko deuterotoniko bihurtzeko joera zuten, eta horretarako bi erro monosilabiko elkartu behar zituzten, hauen arteko harreman sintaktikoa aipatu berri ditugun lau motetakoa izan zitekeelarik. Halaber, hitz-eraketa faktore prosodikoen menpe zegoenez gero, uste dugu hauetariko hainbat lotura erredundante samarrak zirela, oin monosilabiko batetik beste bisilabiko deuterotoniko bat egiteko helburua zutelarik. Hala nola, *\*bor* “borobil” epitetoa berez borobilak diren gauzei eransten zaie: *\*(h)en-bór*, *zil-bór*. Halaber, *\*han* “lau hankako animalia (?)” izenak badu ziurrenik esanahi deunga bat (konpara bedi *han-dí*, zeinaren aurrengo esanahia ziurrenik “itzel” edo den), eta behintzat bi izen bisilabikotan esanahi deungako epitetoekin agertzen da: *\*han-kér*,

<sup>31</sup> ‘Yanbiko’ terminoa azentuzko zentzuaz darabilgu hemen, nahiz eta bere jatorrizko zentzuak (metrika klasikokoak) kuantitatea, eta ez azentua, adierazi.

<sup>32</sup> Azpimarratuta dagoen osagaia sintagma-burua da.

*\*han-dúr*. Gainera, marka dezagun garai honetarako berreraiki ditzakegun bai zenbait izen monosilabiko (*\*han*, *\*(h)ez*, *\*(h)en...*), bai zenbait adjektibo monosilabiko (*\*bur*, *\*bor*, *\*ker*, *\*bel*) mota honetako konposatu bisilabikoetan fosildurik geratu direla eta lexiko monosilabikotik desagertu direla. Hau ere, gure aburuz, baldintza-pen prosodikoaren alde mintzatzen zaigu.

Geroztik, unitate bisilabiko guzti hauek lexikalizatu ziren eta erroak bisilabiko bihurtu ziren. Prozesua, beraz, honako era honetan irudika dezakegu: [ \_ - \_ ' ] > [ \_ \_ ' ]. Une honetan erro bisilabikoak jadanik ez ziren analitikoki interpretatzen. Adibidez, [ \_ - \_ ' ] egiturako oin prosodiko bat ekoizteko helburuaz *gi* “haragi” + *bel* “beltz” elkartu zirenean, *gi-bel* sortu zen. Aurrenik *gi-bel* “haragi beltz” esanahiko konposatu bat izango zatekeen, honek guztiak “gibel” adierazteko perifrasi bat osatuz. Baina geroztik azterbide analitiko hau ezabatuko zatekeen eta *gi-bel* “haragi” erro bisilabikotzat joko zatekeen. Nolanahi ere, hemendik aurrera konposakerako baliabideak emankor jarraitu zuen. Garai berri honetan konposatuak erro bisilabikoen artean sor zitezkeen, honela [ \_ ( \_ ) - \_ ' ( \_ ) ] egiturako<sup>33</sup> konposatu tri- edo tetrasilabikoak sortu zirelarik. Adibide klasiko bat jartzearen, *begi* eta *buru* erro bisilabikoen elkartetik menpetasuneko konposatu bat era daiteke, eta emaitza trisilabikoa da: *be-puru*.<sup>34</sup>

Jarraian burutuko dugun analisisan adjektiboaren arazoa baino ez dugu aztertuko. Beraz, muga gaitezen orain konposakera bisilabikoaren garaiako konposatu bisilabiko deskribatzaileetara (hots, ‘izen-adjektibo’ egiturakoetara), printzipioz garai berriagoetan ageri zaizkigun adjektiboak nagusiki mota honetatik sortu baitira. Ikus ditzagun konposatu bisilabiko deskribatzaile batzuk: *\*han-ker* (> *a-ker*), *\*ar-bel* (> *ar-bel*), *\*hen-bor* (> *enbor*), *gi-bel*, *la(r)-bur*, *\*ba(r)-ker* (> *ma-ker*), *\*bur-ker* (> *mu-ker*), *sa-bel*, *\*sa-bin* (> *sa-min*), *\*sa-bur* (> *samur*), *\*su-bin* (> *su-min*), *zil-bor*. Leku-kotasun historikoetan, hauetariko batzuk izenezko esanahia erakusten dute; beste batzuk, ordea, adjektibozko esanahia. Balitekeena hauxe da: konposatu hauek, jatorriz, ‘izen-adjektibo’ egitura sintaktikoa zuten, baina egitura hau, ikuspegi semantiko batetik, ‘izen-adjektibo’ nahiz ‘izen-adjektibo’ moduan interpreta zitekeen. Honen ondorioz, lexikalizazio bisilabikoak burutu zirenean konposatu osoaren esanahia izenezkotzat nahiz adjektibozkotzat interpreta zitekeen. *\*Sa-bin*-ek, adibidez, “erri mindu” esanahia izango zuen, baina metaforikoki “mindu, samin” adierazteko ere erabil zitekeen. Adjektibozko esanahi metaforiko hau bigarrenkaria eta exozentrikoa izango litzateke. Beste konposatuak, ordea, izenezko esanahi endozentrikoa mantendu bide dute (*\*han-ker*, *\*har-bel*, *\*hen-bor*, *gi-bel*...). Lexikalizatutakoan, beraz, ‘izen-adjektibo’ egiturako konposatu batzuk izen, beste batzuk adjektibo, bihurtu ziren.

Gure kronologian, beraz, honako garai hauek ezberdinduko ditugu:<sup>35</sup>

<sup>33</sup> Konposatu hauetan azentua ziurrenik bigarren osagaiaren lehen silaban legoke. Galdekizun hau aipatu lanean xehe aztertzen dugu.

<sup>34</sup> Elkartze hauetatik sortzen diren aldaketa eta txandaketa fonetikoak ere gure lanean aztertzen ditugu.

<sup>35</sup> Konpara bedi kronologia hau Igartuarenarekin (ik. Igartua 2002: 385-87). Gure esparru teorikoa lan honetan aurkezten denaren antzerakoa denez gero, orrialde hauetan irakur dezakegun kronologiari lotzen gatzazkio. Funtsan, Igartua irizpide fonologikoetan oinarritzen da bere kronologiarako; gu, irizpide morfo-sintaktikoetan.

- a) *aurre-aurre-aitzin-euskara*.<sup>36</sup> garai honetan, hizkuntzaren egitura monosilabikoa edo quasi-monosilabikoa zen. Hitz monosilabiko bakoitzak azentu-esparru bat izanez gero, prosodia - [ \_ ] [ \_ ] [ \_ ] [ \_ ] [ \_ ] [ \_ ] - moduko egitura izango zukeen. Baliteke tonala izatea, baina hau aukera bat besterik ez da. Nolanahi ere, egitura honen barnean ziurrenik bi (edo hiru (?)) hitzen arteko sintagmek azentu-batasuna erakutsi zezaketen, dela tonu-sandhiaren bitartez (eman dezagun: [ \_ ] [ \_ ] [ \_ ] [ 1 - 2 ] [ \_ ]), dela intentsitate-azentueren bitartez (eman dezagun: [ \_ ] [ \_ ] [ \_ ] [ \_ - \_ ] [ \_ ]).
- b) *aurre-aitzin-euskara*.<sup>37</sup> garai honetan, bi erro monosilabikoz osaturiko sintagma bisilabikoak sortu ziren. Sintagma bisilabiko hauek aipatu ditugun lau motatakoak izan zitezkeen. Hemen interesatzen zaiguna 'izen + adjektibo' egiturakoa da: *gi-bél*, *\*har-bél*, *\*ur-bél*, *\*han-kér*, *\*or-kér*, *\*bur-kér*, *\*han-dúr*, *bil-dúr*, *\*hen-bór*, *zil-bór*, *\*zin-búr*, *\*sa-búr*... Hitz hauek eratu zirenean, hitzunez ziurrenik analitikoki interpretatzen zituzten (*gi-bél* "haragi beltz", *\*or-kér* "oin kaskar"...), baina gero bi lexemez osaturiko sintagma hauek zentzu eratorriak, exozentrikoak hartu zituzten eta erroak monolexematikoki berrinterpretatu ziren (*gibél* "haragi beltz > gibel", *okér* "oin kaskar > oker"). Gure hipotesiaren arabera, gainera, prosodiak oin bisilabiko deuterotonikoen eraketaren alde ziharduena, eta elkartzeko honen emaitza semantikoa batzuetan bortxatua izan zitezkeen.
- d) *aitzin-euskara*.<sup>38</sup> funtsean, akitanian inskripzioen garaiko hizkuntzari dagokio. Garai honetan, konposakerako beste fase bat hasi zen. Oraingo honetan, lexema bisilabikoak sortu direlarik, hauetariko bi elkartzuz gero konposatu tri- edo tetrasilabikoak eratzen dira. Prozesu honek azentu-aldaketa bat eragin zuen: konposatuak azentu bakarra zuen eta hau bigarren osagaiaren lehen silaban zegoen. Azentu-aldaketa hau honako era honetan irudika de-

<sup>36</sup> Garai hau Igartuaren 'aitzin-euskara I'-ari dagokio. Azpimarratu nahi genuke garai honetako nondik-norakoak urrunegi geratzen zaizkigula ondorio tinkoak ateratzeko. Garairik zaharrenean euskara hizkuntza (quasi-)monosilabikoa zen galdekizuna bera txit espekulatiboa da. Baina hemen batik-bat aztergai dugun garaia 'aurre-aitzin-euskara' izanik, planteamendu estruktural oso bat burutu behar dugu, eta horretarako garai honen aurreko ustezko garaia aipu bat egin behar diogu. Bestela azalduko dugu. Hemen 'aurre-aitzin-euskara' deituko dugun garaian *gi-bél*, *bil-dúr*, *ez-kér* eta abarrek hitzak sortu ziren. Gure ustetan, hitz guzti hauek jatorriz 'izen + adj.' egiturako sintagmak ziren, beranduago lexikalizatu zirenak. Baina, hasieran sintagmak baziren, orduan bi elementuak elkartu aurretik garai zaharrago bat izango zen, zeinean bi elementu horiek burujabe ziren. Adibidez, *\*bel* "beltz" epitetuaren aurreko kokalekuan, hots, [ \_ -bél-en kokagunean, paradigmatikoki hainbat elementu monosilabiko ager zitezkeen: *har-bél*, *gi-bél*, *\*ur-bél*, *\*orz-bél*, *goi-bél*, *\*zin-bél*... Honek esan nahi du konposatuaren lehen elementu hauek aurreko garai batean monosilabiko eta burujabe izan behar izan zutela. Ustezko fase honi, hain zuzen, dagokio guk 'aurre-aurre-aitzin-euskara' izendatu dugun garaia.

<sup>37</sup> Igartuaren 'aitzin-euskara II'-ari eta IIb-ri dagokio. Igartuaren aburuz, aitzin-euskara IIb-ko garaian bi aldaketa fonetiko garatu ziren: *d-z* hasitako bi erroz osaturiko konposatu bisilabikoetan, lehena disimilatu zen (*\*do-dól > odól*, *\*da-dár > adár*); eta bi hasperen zituzten hitzetan, lehena disimilatu zen (*\*ha(n)khér > akher*, *\*harthó > artho*). Baina bi garai hauen arteko ezberdintasuna galdekizun fonologikoetan oinarritzen da eta beraz ez da ezinbestekoa morfo-sintaxiaz ari garen lan honetan.

<sup>38</sup> Igartuaren 'aitzin-euskara III'-ari dagokio.

zakegu: [ \_ ' ] + [ \_ ' ] > [ \_ ( \_ ) - ' \_ ].<sup>39</sup> Honela, *ardí + alté > art-álte*, *basó + herri > bas-érri*, *burú + kide > bur-kide* eta abarreko konposatuak sortu ziren. Azkenik, hauetariko asko monolexematikoki berrinterpretatu ziren eta beren azentuera gainerako lexikoaren era egokitu zuten (azentua bigarren silaban ezkerretik hasita). Adibidez, *besó + be > besa-pé* “besape” konposatu-moduan sortu zen, baina geroztik *besape* erro bakartzat jo zen eta azentua bigarren silabara igaro zen: *besápe*.

Ondorengo azpi-ataletan hauetariko fase bakoitzean ‘adjektibo’ kategoriak zein izatera izan zezakeen aztertuko dugu. Hurrenkera hemen aurkeztutakoaren alderantzizkoa izango da. Hau da, historian zehar aurretik atzera joango gara.

### 3.1. Adjektiboa aitzin-euskaraz

Jadanik esan dugun legez, funtsean aitzin-euskararen garaia akitanian inskripzioen garaiari dagokio. Hortaz, honen gainean emango dugun edozein epaiketak akitanian datuetan oinarritu beharko du. Beste hainbat galdekizunetan akitanian datuak ondorio finkoak ateratzeko urri badira ere, kasu honetan (hots, ‘adjektibo’ kategoria zen ala ez eta izatekotan nolakoa zen argitzerako orduan) ez dago zalantza izpirik. Kategoria bazen eta honek egituraren aldetik egungo euskarak erakusten dituen ezaugarri berdintsuak zituen.

Aipa ditzagun gure azterketarako interesgarri gerta dakizkigukeen lekukotasunak: *BELEX*,<sup>40</sup> *BONBELEX*, *CISSONBONNIS*, *HARBELEX*, *HONTHARRIS*, *ILLVNA*, *SENIPONNIS*, *SENTARRI*, *VM.ME.SA.HAR*, *AHERBELSTE*, *ASTOILVUNNO*, *BAIGORIXO*, *HERAVSCORRITSEHE*, *ILVRBERRIXO*, *ILVRBERRIXON*, *ILVMBER*, *LVRGORR*. Datu hauen azterketatik, garai honetako ‘adjektibo’ kategoriaren egoera estrukturala eta egungo euskararena berdintsuak direla ondoriozta dezakegu. Ikuspegi sinkroniko batetik, halako hitz bat adjektiboa den ala ez jakiteko irizpide sintaktikoetan oinarritu behar dugu, ez irizpide morfologikoetan. Paradigmatikoki, normalean ezerk ez digu esaten aurrean daukagun hitza izena ala adjektiboa den. Izan ere, euskaraz (bai gaur egun, bai garai zaharragoetan) zenbait hitz izenak nahiz adjektiboak izan daitezke (*berri*, *argi*, *goibel*, *makal*). Salbuespen bakarrak izenezko esanahi lexikoko atzizki bat duten hitzak izango lirateke: *-to*, *-so*, *-le*, *-bo*... Hauek izenak dira beti: *\*(h)arz-to* (> *asto* ?), *\*hor-so* (> *otso* ?), *\*bel-le* (> *bele*), *\*(h)al-bo* (> *albo*). Beste atzizki batzuk, *-i*, *-di* eta *\*(e)tz* kasu, izenak nahiz adjektiboak ekoiztu dituzte: *harr-i*, *herr-i*, baina *berr-i*, *urr-i*; *\*(h)ez-di* (> *ezi* ?), baina *han-di*; *\*hor-(e)tz* (> *hortz*), baina *\*bel-(e)tz* (> *beltz*).<sup>41</sup> Sintagmatikoki, ordea, hitz-

<sup>39</sup> ( \_ ) ikurrak *herri / herkide* edo *sagu / sator* moduko txandaketak adierazten ditu. Ik. Trask (1997: 183-92). Txandaketa hauek ziurtasun osoz agertzen zaizkigun lehen lekukotasunak Erdi Aroko dokumentazioan daude. Akitanian datuak eskasegiak dira aitzin-euskaraz jadanik ziren ala ez jakiteko. Baina honek ez du gure planteamendua baliogabetzen. Lehen osagaiaren azken bokala kokaleku protoniko ahulean erortzen da, erorketa hau noiz-nahi burutzen delarik ere.

<sup>40</sup> Konpara bitez ib. *icorbeles*, *iscerbeles*, *iltubeles*, *ecerebels*, *anbels*, *atabels*.

<sup>41</sup> Argi dezagun hemen ez gairela akitanian datuak aztertzen ari, berauetatik ondoriozta dezakegun egoera orokorra baizik. Honexegatik apatu ditugu garai horretarako (ziurrenik arazorik gabe) berrearaiki daitezkeen atzizki batzuk. Bestalde, egungo euskaraz adjektiboak esanahi lexikoa duten atzizkiak ere baditugu: *-tsu*, *-garri*, *-ti*...

hurrenkerak zalantza-izpirik gabe adierazten digu halako hitz bat izena ala adjektiboa den: sintagma nominaletan, adjektiboa beti izenaren atzean dago, inolako salbuespenik gabe. *BONBELEX*, *CISSONBONNIS*, *HARBELEX*, *VM.ME.SA.HAR*, *AHERBELSTE*, *ASTOILVUNNO*, *BAIGORIXO*, *HERAVSCORRITSEHE*, *ILVRBERRIXO*, *ILVRBERRIXON*, *ILVMBER* eta *LVRGORR* lekukotasunetik, erabat ziurra da akitanieraren garaian honen inguruan egungo egoera berbera dugula: sintagmen hurrenkerak NA zen. Dena den, zenbait hitzek ziurrenik izenezko nahiz adjektibozko eginkizuna bete zezaketen. Akitanian datuetan bertan, badirudi hauetariko kasu ziur bat dugula: *ILVRBERRIXO*, *ILVRBERRIXON*, *ILVMBER* kasuetan, *ilun*<sup>42</sup> izena da; *ASTOILVUNNO*-n, ordea, *ilun* adjektiboa da. *ILLVNA*-n, *ilun* isolaturik agertzen bide zaigu. Halaber, badirudi *BELEX*-en ere *\*bel(e)tz* isolaturik dagoela. Bi izen hauek antroponimian epiteto-moduan agertzen bide ziren.<sup>43</sup>

Ikuspegi diakroniko batetik, garai honetako adjektiboek jatorri morfologiko ezberdinak izan ditzakete. Gure aipatu lanean azaldu bezala (ik. Martínez Areta-pres-tatzen), aurre-aitzin-euskararen garaian faktore prosodikoak direla medio hitz bisilabiko-mordoxka sortu ziren. Hauen artean, ‘izen + adjektibo’ egiturako deskribatzaileak (*gi-bél*, *bil-dóts*, *goi-bél*, *\*sa-bín*); beste batzuk nolabaiteko atzizki singulartzailiaz (*\*bel-lé*, *harr-í*, *bur-ú* (?), *berr-í*); beste batzuk ‘izen-izen’ egiturako menpetasunezkoak (*\*ur-bí*, *\*ur-bár*); beste batzuk koordinatuak (*gi-zón*, *gi-zén*); eta beste batzuk erreduplikazioak (*ze-zén*, *go-gó*, *\*de-dér*, *go-gór*). Antzaenez, ondorengo garaian (hots, aitzin-euskaraz edo akitanieraz, erro bisilabiko hauek zentzu exozentrikoa lexikalizatu eta monolexematiko bihurtu zirela) hauetariko guztiak izen nahiz adjektibo bihur zitezkeen, salbu eta izenezko esanahi lexikoko morfema bat tartean baldin bazegoen. Adibidez, *-le* atzizkia zuten hitz guztiak izen bihurtu ziren, atzizki honek ‘nolabaiteko agente’ ideia inplikatzan baitzuen. Baina printzipioz, halako hitz bat, bere jatorria zein-nahi zen ere, izen nahiz adjektibo bihur zitezkeen. Dirudienez, erro bisilabikoak lexikalizatu ziren unean erroen erabateko berrinterpretazio morfologiko bat burutu zen. Hitz bisilabiko bakoitza bi hauetariko edozein ‘hitz-mota’-tara<sup>44</sup> egoki zitezkeen. Halako hitz bat izen ala adjektibo bihurtzeko irizpide bakarra semantikoa zen.<sup>45</sup> Baina, izen bat eta adjektibo bat konbinatzen zituzten sintagmetan, sintaxiak ederki argitzen zuen zein zen adjektiboa, hau izenaren atzean agertzen baitzen.<sup>46</sup> Iku-

<sup>42</sup> *Ilur-*, ustez, *ilun*-en aldaera da, tartean *-n/-r* txandaketa dagoelarik (*jain / jaur-* edo *soin/sor-* daku-sagunaren modukoa).

<sup>43</sup> Ik. Gorrochategui (1984: 159): “Si el término *Belex* ‘negro’ es muy empleado para la formación de antropónimos, no lo es tanto para los nombres de dioses. Excepto *Aherbelste*, en todos los demás casos la noción de ‘negro, oscuro’ se expresa por medio de *ilun(n)-*”.

<sup>44</sup> Eta hemen ‘hitz-mota’ “kategoria gramatikal” zentzuaz ulertu behar dugu (‘izen’ edo ‘adjektibo’).

<sup>45</sup> Ohar gaitzen aipatu ditugun adibideak aurre-aitzin-euskararen bost motetatik hartuta daudela, eta bostetan izenen nahiz adjektiboen kasuak konbinatu ditugula.

<sup>46</sup> Egoera hau errepikakorra izan da euskararen historian zehar. Honela, euskarak hizkuntza erromani-koetatik mailegatu dituen hitzak semantikaren arabera soil-soilik bihurtu dira izen edo adjektibo. Eta hau lexiko osoan gertatzen da. Halako hitz bat izena, adjektiboa ala bi gauzak aldi berean izan ahalko da, baina honek jokaera sintaktiko bat dakar: izena baldin bada, sintagma-hasieran agertuko da; adjektiboa baldin bada, ordea, izenaren atzean. Morfologikoki izenak ala adjektiboak diren aurrean daitezkeen hitz bakarrak izenezko edo adjektibozko atzizki lexiko bat dutenak dira. Era honetan, *egi-le* eta *iratzar-gailu* izenak izango dira; *hodei-tsu* eta *poz-garri*, adjektiboak.

siko dugunez, hau aurre-aitzin-euskaraz ere gertatzen zen, eta baliteke garai bateko eta besteko sintaxien artean nolabaiteko jarraitasun bat egotea.

### 3.2. Adjektiboa aurre-aitzin-euskaraz

Esan dugu aitzin-euskaraz erro tri- eta tetrasilabikoak sortu zirela. Aurre-aitzin-euskaraz, ordea, hitz nominalek (izenek eta adjektiboek) bisilabikoak izateko joera nabarmena zuten, hainbat monosilabiko oraindik bazeuden ere.<sup>47</sup> Halaber, azaldu dugu nola erro bisilabiko hauek bi erro monosilabikoz osatutako sintagmen lexikalizazioaren bidez sortu ziren, sintagma hauek lau motatakoak izan zitezkeelarik. Hemen jatorriz ‘izen + adjektibo’ egiturako sintagmak ziren kasuetara mugatuko gara. Hain zuzen ere, lan honen helburu nagusia honako galdera honi erantzun batzuk ematea da: garai honetako ‘adjektibo’ kategoriak, nolako ezaugarriak zituen? eta nola txerta daitezke hauek 2.1. puntuan ikuspegi tipologiko batetik zehaztu ditugun adjektiboaren akzidenteeekin? Ikus dezagun.

Gure aipatu lanean berreraiki ditugun hitzen artean, ‘izen + adjektibo’ egitura hau duten 37 daude. Etimologia hauek batik-bat Lakarraren lanetatik aterata daude (ik. bibliografia), eta gu etimologia berauen analisi ‘mikro-sintaktiko’ bat egiten saiatu gara. Hitz guzti hauen bigarren elementuaren jatorrizko esanahia adjektibozkoa zela baieztatzeko, nagusiki hiru arrazoi eman ditugu (bi semantikoak, bestea sintaktikoa):

- a) hauetariko elementu bakoitza agertzen den hitz guztiak erkatzen baditugu eta bigarren elementu hauetatik esanahiren bat ateratzen baldin badugu, esanahi hau adjektibozkoa da argiro. Adibidez, *ar-bel*, *gi-bel*, *goi-bel*, *sa-bel* eta *u-bel* erkatuz gero, *\*bel*-en jatorrizko esanahia “beltz” edo antzerako zer-bait izango da, edozein kasutan adjektibozkoa.
- b) bigarren elementu hauekin agertzen diren lehen elementuak erkatzen baldin baditugu eta bertatik esanahiren bat ateratzen saiatzen baldin bagara, esanahi hau argi eta garbi izenezkoa da. Aipatu berri ditugun hitzetan, lehen osagaien gutxi gora-beherako esanahiak, hurrenez hurren, honako hauek izango lirateke: “harri”, “haragi”, “goialde”, “sabel, barrualde” eta “ur”.
- d) adjektibozko esanahia duten elementu hauek beti izenaren atzean agertzen dira. Koherentzia sintagmatiko hau hitz-kategorien ezberdintze egituratu batekin bat bide dator.

Lau arrazoi hauei behaketa fonemiko bat gehi dakieke: elementu hauetariko gehienek TVR egitura morfo-fonemikoa dute. Nolanahi ere, hau beste arrazoiekin lot dezakegun laugarren arrazoi bat dela baieztatzea gehiegi izango litzateke.

Bestalde, markatu behar dugu adjektibozko hizkuntza gehienetan gertatzen den legez aurre-aitzin-euskaraz ere zenbait adjektibok testuinguruak baldintzatutako izenezko eginkizuna ere bete zezaketela. Honela, *\*bin* (egungo *min*-a) adjektiboa bide da *\*sa-bin*-en (> *samin*) eta *\*su-bin*-en (> *sumin*), baina izena *\*bin-katz*-en (> *minkatz*).

<sup>47</sup> Hau, jakina, gure esparru teorikoaren barnean (ik. Martínez Areta-prestatzen).

Hemen 37 hitz hauek taldekatzen eta bertatik ondoriozta ditzakegun adjektibo guztien zerrenda bat burutzen saiatuko gara, azkenik zerrenda honen gora-beherak iruzkintzeko. Adjektibo hauek hurrenkera alfabetikoan ezarriko ditugu, bakoitza forma berreraikian aurkeztuko dugularik. Aldamenean, agertzen diren hitzen zerrenda burutuko dugu. Ez dago esan beharrik bai berreraiketak bai aldamenean proposatzen ditugun esanahiak (kasu batzuetan beste batzuetan baino neurri handiago batean) espekulatiboak direla.<sup>48</sup>

Hona hemen zerrenda:

- *\*bal* “txepel, motel (??)”: *\*(h)ez-bál* (> *ezpal*) “zuhaitz (?) motel (??)”, *gar-bál* “buru (?) motel (??)”, *her-bál* “X motel (??)”,<sup>49</sup> *za-bál* (?) “??”.
- *\*bel* “beltz”: *\*har-bél* “harri beltz”, *gi-bél* “haragi beltz”, *goi-bél* “goialde beltz”, *sa-bél* “barrualde beltz”, *\*ur-bél* (> *ubel*) “ur beltz”, *\*zin-bél* (> *zimmel*) “ehun (??) belztu”.<sup>50</sup>
- *\*bin* “mingarri”: *\*sa-bin* (> *samin*) “barrualde mingarri”, *\*su-bin* (> *sumin*) “su mingarri”.
- *\*bor* “borobil”: *\*(h)en-bór* (> *enbor*) “enbor (??) borobil”, *\*han-bór* (> *hamar*) “hamarreko (?) borobil”,<sup>51</sup> *zil-bór* “zilbor borobil”.
- *\*bur* “leun, bigun, samur”: *\*la(r)-búr* (> *labur*) “larre (??) leun (??)”,<sup>52</sup> *\*sa-búr* (> *samur*) “barrualde samur”, *\*zin-búr* (> *zimur*) “ehun (??) leun”.<sup>53</sup>
- *\*dar* “indartsu (??)”: *in-dár* “X indartsu (??)”, *\*da-dar* (> *adar*) “??”.
- *\*der* “on, eder (??)”: *\*de-dér* “eder, on (?)”, *\*iz-dér* “izter (??)”, *baz-dér* “bazter (??)”.
- *\*dots* “ar”:<sup>54</sup> *han-dóts* “animalia (?) ar”, *bil-dóts* “arkume ar”, *\*hor-dóts* (> *ordóts*) “animalia (?) ar”.
- *\*dur* “deunga”: *\*han-dúr* (> *andur*) “animalia (?) deunga”, *bil-dúr* “arkume (?) deunga”, *su-dúr* “su (??) deunga (??)”.<sup>55</sup>

<sup>48</sup> Bestalde, ohar gaitezen hemen gauzak formalki bakarrik ikertu nahi ditugula. Hortaz, itzulpenetan lehen esanahia, endozentrikoa, soilik adieraziko dugu.

<sup>49</sup> Ik. bizk. *herren* (??).

<sup>50</sup> *\*Zin*-en esanahia oso iluna da. *Zimmel*-en (< *\*zin-bel*) eta *zimur*-en (< *\*zin-bur*) agertzen den elementua berbera baldin bada, baliteke *\*zin* nolabaiteko azal organiko bat (“larru”, “landare-ehun”) izatea, zeinari degradazioko adjektiboak (agian ukimenarekin zerikusia dutenak) erants dakizkiokeen.

<sup>51</sup> Kasu honetan, *\*han*-en esanahi zabal bat onartu beharko dugu. Agian, lehen esanahia “lau hankako animalia” izanik ere, testuinguruak baldintzatutako bestelako esanahiak ere har zitzakeen (“handi”, “itzel”...). Esanahi bigarrenkarietan, badirudi nolabaiteko konnotazio tabuistiko bat duela.

<sup>52</sup> Hau bereziki espekulatiboa da. Berrito ere, hemen berreraiketak formalki soilik interesatzen zaizkigu.

<sup>53</sup> Ik. *\*bel*-en esandakoa.

<sup>54</sup> Adjektibo honek ez du adjektiboetan ohikoa den TVR egitura morfo-fonemikoa. Aitzitik, TVS egitura du.

<sup>55</sup> Kasu honetan, esanahia erabat zentzugabea da. *\*Dur* elementua agian *ur-dur-i*-n ere ikus dezakegu. Dena den, ez dugu lexikoan sartu ez baita bisilabikoa. Izan ere, egituraren aldetik *ur-dur-i* berezi samarra da. Gainerako lexikotik espero genukeen forma *ur-dur* izango litzateke. *Ur-dur-i* lexikoko hitz bakarra bide da, non *-i* atizki singulatzaila bigarren silaban dagoen adjektibo monosilabiko bati hirugarren silaban eransten zaion.

- *\*gal* “makal, eskas (?)”: *ar-gál* “haragi (??) eskas (?)”,<sup>56</sup> *\*ba-gál* (> *makal*) “‘zuhaitz-mota’ (??) makal (?)”.
- *\*gatz* “latz, lakatz”:<sup>57</sup> *\*la(r)-gátz* (> *lakatz*) “larre (??) latz”, *\*don-gátz* (> *lokatz*) “lohi (??) zatar”, *\*ba-gátz* (> *makatz*) “‘zuhaitz-mota’ (??) latz”, *\*hor-gátz* (> *orkatz*) “animalia (?) latz”.
- *\*gor* “gor, gogor” (?): *\*sag(u)-gór* (> *sator*) “sagu gor”, *\*zen-gór* (> *zekor*) “zezen gor”.
- *\*gur* “makurtu”: *\*(h)ez-gúr* (> *ezkur*) “‘zuhaitz-mota’ makur”, *\*ba-gúr* “‘zuhaitz-mota’ (??) makur”, *\*zan-gúr* (> *zakur*) “zaindari uzkurtu”.
- *\*kar* “latz, zakar”: *\*la(r)-kár* (> *lakar*) “larre (??) latz”, *su-kár* “bero latz”, *za(n)-kár* (> *zakar*) “X latz”.
- *\*ker* “txar”: *\*han-kér* (> *aker*) “animalia (?) txar”, *ez-kér* “ez (??) txar”,<sup>58</sup> *\*ba-kér* (> *maker*) “‘zuhaitz-mota’ (??) txar”, *\*bu(r)-kér* (> *muker*) “buru txar”, *or-kér* (> *oker*) “oin txar”, *\*buz-kér* (> *puzker*) “putz txar”.
- *\*kon* “sakon” (??): *\*sa-kón* “barrualde sakon (?)”.
- *\*kor* “azkar” (??): *\*haz-kór* (> *azkar*) “haziera azkar (?)”, *biz-kór* “prestutatsun (?) azkar (?)”.

Hortaz, 17 adjektibo genituzke. Tipologikoki, hau oso kopuru murrizta da. Egia da hain hipotetikoak diren adjektibo hauen kopuruari buruz espekulazteak ez garamatzala inora. Hauetariko adjektibo batzuen berreraiketa txit eztabaidagarria da; zerrendan egon litezkeen aurre-aitzin-euskararen beste adjektibo batzuk, ordea, ez daude, dela guk uste izan dugulako ez dagoela beren berreraiketarako froga argirik, dela formalki hauen aztarnak lexikotik erabat desagertu direlako.

### 3.2.1. Aurre-aitzin-euskararen adjektiboaren akzidente tipologikoak

Egoki diezaiegun adjektibo-sorta hau 2.1. puntuan zehaztu ditugun adjektiboaren akzidente tipologikoei. 17 adjektibo hauek aipatu ditugun tipo semantikoetan txertatu behar izanez gero, honako sailkapen hau lortuko genuke:

- 1) *Dimentsioa*: *\*gal*, *\*kon*.
- 2) *Ezaugarri fisikoa*: *\*bin*, *\*bor*, *\*bur*, *\*dar*, *\*gor*, *\*gur*, *\*kar*.
- 3) *Kolorea*: *\*bel*.
- 4) *Giza-ezaugarriak*: *\*dots*.
- 5) *Adina*:

<sup>56</sup> Dena den, *argal* fonetikoki konplikatu da. Ikusten ari garen konposatu guzti hauetan, bigarren elementuak TV(R/S) egitura du. T hori belarea izatekotan, orduan bigarren osagaiaren hasieran beti ahoskabetzen da (sakonean ahostuna baldin bada). Kasu hau salbuespena izango litzateke.

<sup>57</sup> Adjektibo honek ere ez du adjektiboetan ohikoa den TVR egitura morfo-fonemikoa. Aitzitik, TVS egitura du. Horretaz gain, kasu honetan beste arazo bat dago: nekez sines daiteke *\*gatz* honen egungo *gaitz*-ekin ez duenik zerikusirik. Eta hitz hau, TVWS egiturakoa izateaz gain, izen bat dugu. Bestalde, “gaitz, ondoez” esanahia zaharra izan arren (bizk. *gatx*, erronk. zub. *gaitz* “gaitz, ondoez”), honen alboan badugu goi-naf. gip. lap. erronk. *gaitz* “izugarri, eskerga”. Hortaz, ez dugu baztertu behar *\*gatz*-en esanahi zaharra “handi” zen hipotesia.

<sup>58</sup> Hitz honen inguruko problematika iluna da. Beste azterketa baten arabera, *ez-kér* < *\*esku-kér*. Ik. Trask (1997: 292) eta Lakarra (2002a: 436).



6) *Balorea*: \**der*, \**bal*, \**dur*, \**gatz*, \**ker*.

7) *Abiadura*: \**kor*.

Edozein hizkuntzalarik pentsatuko duen legez, ez du inolako zentzurik hone-lako sailkapen bat egiteak. Alde batetik, adjektibo hauetariko gehienen esanahiaz espekulatu besterik ezin dugu egin. \**Bal*-i, esate baterako, “txepel, motel” esanahia esleitu diogu, baina *gar-bal*, *za-bal* eta *za-pal* erkatzen baditugu, “zabal, lau, zelai” edo azal bati esleai diezaiokegun bestelako esanahiren bat ere izan lezake, honek *ez-pal*-erako eta *her-bal*-erako balio ez duen arren. Bertsua esan dezakegu gainerako adjektiboetz. Bestalde, beste adjektibo askok zerrenda honetan egon beharko lukete ziurrenik, baina beren forma desegin edo lexikotik desagertu da arrastorik utzi gabe.

Ondoren proposatuko dugunez, elementu hauek adjektiboak ziren garaian euskara adjektibo-klase murrizteko hizkuntza bat bazen, adjektiboen zerrenda binakako oposaketa antonimikoetan egituratuta egotea espero genuke. Honelako oposaketak islatzeko kandidatu bakarrak \**der* “on” / \**ker* “txar” eta \**bur* “leun” / \**kar* “latz” dira, baina behin eta berriz errepikatu behar dugu berreraiketaren esanahia hain lausoa izanik hau espekulazio bat besterik ez dela. Dirudienez, zenbait oposaketa antonimikoren osagai bakar bat aurkitzen dugu, eta hau BALORE eta KOLORE tipo semantikoetan ere gertatzen da, non A-A (adjektibo-adjektibo) motako oposaketak unibertsalak diren. Adibidez, \**bel* “beltz” dugu baina “zuri” esanahiko adjektiborik ez dago. Era berean, \**dur* “deunga (?)” eta \**gatz* “txar” ditugu baina hauen parekoak ez dira inon agertzen.<sup>59</sup> Gure ustetan, honek ez du esan nahi ez zegoenik honelako adjektiborik (hori tipologikoki erabat ulertezina izango litzateke), baizik eta adjektibo horien aztarnarik ez dugula. Nolanahi ere, aski nabarmena da binakako oposaketa antonimikoetan sar daitezkeen adjektibo hauetarik, nolabait denak osagai negatiboak izatea: \**bel* “beltz” dugu baina ez “zuri”-rik; \**ker* “txar”, \**gatz* “txar” eta \**dur* “deunga (?)” ditugu baina “on” edo antzerako esanahietarako kandidatu bakarra dugu: \**der*. Halaber, ikus bitez \**gal* “makal, eskas”, \**kar* “latz, lakar”, \**bin* “mingarri”, \**gor* “gor” eta \**gur* “makur”. Hauek ez bide dute pareko positiborik. Berreraiki ditugun esanahi guztien zerrenda begiratu gero, lortuko dugun zirrara da ia denek semantika negatibo bat dutela. Agian, arrazoiren batengatik, itxura tabuistiko bat duten adjektiboen aztarnak hobeto mantendu dira. Hau espekulazio bat besterik ez da, baina edozein kasutan tipologikoki ez da onargarria adjektibo negatiboak bakarrik dituen hizkuntza bat postulatzeara.<sup>60</sup>

Antonimiaz gain, osagarritasuneko oposaketak agertzen dira hizkuntzetan (ik. 2.1.2.). \**Dots*-en pareta aurkituko bagenu, hauetariko bat genuke. Akitaniar inskripzioetan esanahi maskulino edo femeninoa izan dezaketen zenbait atzizki daude (ik. Gorrochategui 1984: 369): *-eia-* eta *-se(n)-* femeninoak omen dira. Hemen bi

<sup>59</sup> Nolanahi ere, gogora dezagun \**gatz*-en esanahi zaharra adjektibo gutxitako hizkuntzetan ohikoa den “handi” izan litekeela. Izan ere, adjektibo gutxitako 20 hizkuntzetako Dixonen zerrendan, “handi” hizkuntza guztietan agertzen den adjektibo bakarra da.

<sup>60</sup> Markatu nahi genuke norbaitek, gure teoriaren aurka, elementu hauek ez zirela adjektiboak postulatzen badu, oztopo bera topatuko duela. A-A motako oposaketarik ezean, ziurrenik N-V motakoak izan beharko lukete, baina “handi” / “txiki” motako oposaketak nola edo hala hizkuntza guztietan agertzen dira.

arazo ditugu. Lehena da ez dakigula zer dagokion eta zer ez aitzin-euskarari; *-se(n)*-ek itxura ona duen bitartean, *-eia*-k ez dirudi aitzin-euskara. Bigarrena da bukaera hauetan ezin dugula ezberdindu zer den adjektibo eta zer atzizki.

Ez dugu uste garai honetan aurrizki pribatzaierik zegoenik (izan ere, ez dugu uste inolako aurrizkirik zegoenik). Guk dakigula, iradoki den honelako kasu bakarra *\*ez-ker* “ez txar” da (ik. Lakarra 1995: 193). Semantika ulergaitz samarra izateaz gain, ez dago lexikoan egitura honen parekorik. Gainera, honek *\*ker*-en erabilera predikatibo bat inplikatu luke, *ez* adjektiboaren menpeko adberbio bat besterik ez bailitzateke. Eta *\*ker* ez bide da agertzen kokaleku predikatiboan. Azkenik, Lakarra (2002a: 436) berak ohartarazten duen legez, ezeztapenaren aitzin-euskal forma bigarren bokal bat inplikatu du (*\*eze*).

Atzizki eratorleen bidez eraturako adjektiborik zegoen galdekizunari dagokionez (ik. 2.1.4.), gu ezezkoan gaude. Gure aipatu lanean (ik. Martínez Areta-prestatzen) postulatu dugu *-i*, *-u* (?), *-di*, *-to*, *-(e)tz*, *-so*, *-bo* eta abarreko atzizkiak oso zaharrak direla, baina aurrengo garaian izenak eratzeko bakarrik erabiltzen zirelakoan gaude. Gure adjektiboetan, hauetariko atzizki bat har dezaketen hiru kasu bakarrik aurkitu ditugu: *\*gor > gorr-i*, *\*bel > bel(e)tz* eta *\*bor > bor(e)tz*. Kasu gehienetan, ordea, hauetariko atzizki baten bidez lortzen den emaitza izen bat da. Hurrengo atalean lau salbuespen hauei azalpen bat emango diegu. Momentuz azpimarratu nahi genuke garairik zaharrenean, elementu hauek adjektiboak zirenean, kokaleku atributiboan agertzen zirela beti, izen baten epiteto-eginkizunetan. Gure lanean iradoki dugu garai honetan burutu zen hitz-eraketaren prozesua faktore prosodikoetan oinarrituta zegoela: helburua oin bisilabiko yanbikoak eraikitzea zen. Hortaz, izen monosilabikoei adjektibo monosilabiko bat eransten zitzaien. Baina, era honetan, ez zen beharrezkoa adjektiboari beste atzizki bat eranstea. Ez dugu *\*\*gi-bel-i*, *\*\*sa-kon-di* edo *\*\*zil-bor-to* bezalako eraikuntzarik inon aurkitzen. Gure ondorioztapena da elementu hauek adjektibo-moduan funtzionatzen zuten garaian ez zegoela adjektibo eratorriak ekoizteko baliabide morfologikorik.<sup>61</sup>

Adjektibo hauetatik eratorritako lau aditz ditugu: *galdu*, *mindu*, *gortu* eta *gurtu*. Hauetarik, *mindu*, *gortu* eta *gurtu* modernoak izan daitezke, *min*, *gor* eta *gur* kokaleku isolatuan euskara historikoan mantendu direlarik, baina *galdu* deigarri suertatzen zaigu, *gal* ez baita isolaturik mantendu, *galdu*-ren aditz-erro moduan ez bada.<sup>62</sup>

<sup>61</sup> Haatik, honek ez du esan nahi atzizki hauek ez daudenik inoiz hirugarren silaban. Aditz-partizioetan adibidez *-i* aurkitzen dugu: *e-torr-i*, *e-karr-i*. Bestalde, ikus bitez *o-rraz-i*, *i-tsa-so*, *a-ma-so* bezalako kasuak. Gure azalpena hauxe da: atzizkiak, eratorpeneko (eta ez konposakerako) baliabide bat direnez gero, lexikalizazio bisilabikoetatik bizirik irten ziren eta emankor jarraitu zuten. Ostera, ez dago kasu bat ere, non gure zerrendako adjektibo bat erabateko ziurtasunez hirugarren silaban berreraiki daitekeen. Testuan aurkeztu dugun orokorpenari aurkitu diogun salbuespen bat *ur-dur-i* da, behintzat hitz honen bigarren elementua gure *\*dur* baldin bada (eta semantika ez dago inola ere honen aurka). Baina, guk iradoki legez *-i* atzizkia emankor mantendu bazen, orduan onar dezakegu *-i* hau jadanik lexikalizaturiko *\*urdur* bati erantsi zitzaiola. Kasu honetan, zatikatze zuzena *urdur-i* izango litzateke. Beste bat akit. *HAR-BEL-EX* da. Gure ustetan, hau *harri-bel-etz* konposatutik dator eta, beraz, bi lexema bisilabikoren elkartzetik sortu zen. Azalpen hauek *ad hoc* dira, zalantzarik gabe, baina salbuespen gehiagorik aurkitzen ez dugun bitartean ezin dugu (gure ustetan) estrukturalki ondo funtzionatzen duen planteamendu bat eraitsi.

<sup>62</sup> Lakarraren iritziz (2002a: 436), *gari* < *\*gal-i* “galdutako”. Halaber, ikus bedi *gal-soro*, non *soro* (< lat. *solum*) oso mailegu zaharra den.

Gogora dezagun Trasken aieruaren arabera (1995: 211-12) *-tu* atzizkia zenbait aditzetan zaharra izan daitekeela (*saldu, hartu, sartu, sortu, kendu, heldu*). Dena den, kasu hauetan ez dirudi aditza adjektibo batetik eratorri denik, ez eta *galdu-n, mindu-n* eta *gurtu-n* ere, non erroak izen-itxura duen. Beraz, aditz hauek denominatiboak dira gure aburuz; adjektibozko-itxura duen (hots, adjektibo batetik eratorritakoa den) bakarra *gortu* bide da. ‘*e-* + aditz-erro + *-i*’ egiturako aditz zaharren artean, ez dugu kasu bat ere aurkitzen, non aditz-erro hori gure adjektibo batekin ziurtasunez lot daitekeen: *e-torr-i, e-karr-i, \*e-bil-i, \*e-kus-i, \*e-ban-i...* Orokorrean, ez dirudi garai honetan aditzaren eta adjektiboaren kategoriak estu-lotuta zeudenik.

Azkenik, sintagma-barneko elementuen hurrenkerari buruz balio beza euskara modernorako esandakoak (ik. 2.1.6.). Gure lanean<sup>63</sup> garai honetarako bost konposatu-mota (izan ere, sintagma-mota) berreraiki ditugu, hauen artean ‘izen-izen’ nahiz ‘izen-adjektibo’ egiturakoak daudelarik (*\*ur-bar, \*orz-tots*; baina *gi-bel, zil-bor*). Hortaz, hizkuntza honetan GN eta NA hurrenkerak ditugu. Azaldu dugun legez, antza asimetria bat inplikatzan duen fenomeno hau hizkuntza askotan agertzen da. Gainera, GN/NA egitura bat postulatzea ez da erabat mugatzaile gainerako parametrotarako: Hawkinsen lanean (1980: 196) VSO/Pr/GN/NA nahiz VSO/Po/GN/NA egituretako hizkuntzarik ez dagoen bitartean, SVO/Pr/GN/NA egiturako hizkuntza bat dago eta SVO/Po/GN/NA egiturako 11.<sup>64</sup> Gure garaiko euskara mota hauetariko zeini legokiokeen galdekizuna gure lanetik at geratzen da. Behingoz har dezagun gogoan GN/NA konbinaketak ez duela inolako bitxitasunik inplikatzan.<sup>65</sup>

### 3.2.2. *Kronologia*

Azpi-atal honetan 2.2. puntuan deskribatu ditugun irizpideak aitzin-euskararen garai ezberdinei egokituko dizkiegu, eta honela garai bakoitzeko aitzin-euskara zein motari zegokion aztertzeari ekingo diogu.

Harira jo aurretik, gure esparru kronologikoaren inguruko zehaztapen batzuk burutu behar ditugu. ‘Aurre-aitzin-euskara’ deitu dugun garai honetan, hizkuntzan unitate bisilabikoak eraikitzeke joera garatu zen. Nolanahi ere, bertan bi fase ezberdindu behar ditugu. Lehenengoan, unitate bisilabiko hauek bi lexema monosilabikoz osaturiko sintagmak ziren. Hortaz, bi osagai hauek era analitiko batean interpretatzen ziren: *gi-bel* “haragi beltz”, *sa-bel* “barrualde beltz”, *\*han-ker* “animalia gaizto”, *\*or-ker* “oin oker”, *\*ur-bar* “uraren behealde”, *\*orz-tots* “zeruko hots”. ‘Izen-adjektibo’ egiturako sintagmetan, adibidez, sintagma-burua izena zen eta adjektiboak izen hau modifikatzen zuen (NA); halaber, ‘izen-izen’ egiturakoetan, sintagma-burua bigarren osagaia zen, eta lehena honen osagarri bat zen (GN). Fase honi ‘aitzin-euskara-a’ izena eman diogu. Ondorengo bigarren fase batean, ziurrenik zenbait aldaketa fonetikoren bitartez sintagma bisilabiko hauek lexikalizatu ziren eta monolexematiko bihurtu ziren. Lexikalizazio hauen emaitza semantikoak endozen-

<sup>63</sup> Ik. Martínez Areta-prestatzen.

<sup>64</sup> Honen arabera, GN/NA egiturak eragiten duen ondorioztapen bakarra hizkuntzak SVO motakoa izan behar duela da.

<sup>65</sup> 2.1.7. eta 2.1.8. azpi-ataletan aurkeztu ditugun iruzkinak, adberbioei buruzkoak, hemen saihesten ditugu.

trikoak nahiz exozentrikoak, izenezkoak nahiz adjektibozkoak izan zitezkeen: *gibel* “gibel”, *aker* edo *\*haker* (< *\*han-ker* “aker”, *zeker* (< *\*zen-gor* “zezen gor (?)”) “zeker”; baina *goibel* (< *goi-bel* “goialde beltz”) “goibel”, *samin* edo *\*sabin* (< *\*sa-bin* “barrualde mingarri”) “samin”, *samur* edo *\*sabor* (< *\*sa-bur* “barrualde leun”) “samur”. Honela sortu ziren hitz guztiak monolexematikoak ziren, eta hitz-motari dagokionez, izenak ala adjektiboak: N ala A. Fase honi ‘aitzin-euskara-b’ izena eman diogu.

Laburbilduz, ‘aurre-aitzin-euskara-a’-z unitate bisilabiko hauek bi hitz monosilabikoz osaturiko sintagma (‘two-word constituents’) ziren bitartean, ‘aurre-aitzin-euskara-b’-zkoak bi silabako hitzak (‘one-word constituents’) ziren. Hitz-motei dagokionez, ‘aurre-aitzin-euskara-a’-zko sintagma (*izen-adjektibo*), ‘izen-*izen*’, ‘izen-atzizki’ edo nolabaiteko *izen-izen* egitura mikro-sintaktikoak izan zitzaizkion bitartean,<sup>66</sup> ‘aurre-aitzin-euskara-b’-zko hitzak ‘izen’ ala ‘adjektibo’ ziren. Printzipioz, lexikalizazioaren bitartez sortutako erro bisilabiko hauek ‘izen’ ala ‘adjektibo’ izatea ez zen aurreko mikro-sintaxiaren arabera kontu bat. Guk ‘aurre-aitzin-euskara-a’-rako postulatu ditugun bost konposatu-motetarik, lauk behinik-behin izenak nahiz adjektiboak ekoiztu dituzte. Ikus dezagun:

| AAEa                                                       |   | AAEb                 |               |
|------------------------------------------------------------|---|----------------------|---------------|
| 1. Deskribatzaileak<br>(‘ <i>izen-adj.</i> ’ egiturakoak)  |   | ‘izen’               | ‘adjektibo’   |
| <i>*sa-bel</i> “barrualde beltz”                           | > | <i>sabel</i>         | <i>*sabin</i> |
| <i>*han-ker</i> “animalia gaizto”                          |   | <i>*haker</i>        | <i>goibel</i> |
| <i>*sa-bin</i> “barrualde mingarri”                        |   |                      |               |
| <i>*goi-bel</i> “goialde beltz”                            |   |                      |               |
| 2. Menpetasunezkoak<br>(‘ <i>izen-izen</i> ’ egiturakoak)  |   | ‘izen’ <sup>67</sup> |               |
| <i>*ur-bar</i> “uraren barrualde”                          | > | <i>*ubar</i>         |               |
| <i>*orz-tots</i> “zeruko hots”                             |   | <i>*ortzots</i>      |               |
| 3. Atzizkidunak<br>(‘ <i>izen-atz.</i> ’ egiturakoak)      |   | ‘izen’               | ‘adjektibo’   |
| <i>*harr-i</i>                                             | > | <i>harri</i>         | <i>berri</i>  |
| <i>*(h)ez-di</i> “ezti”                                    |   | <i>*(h)ezti</i>      | <i>handi</i>  |
| <i>*berr-i</i>                                             |   |                      |               |
| <i>*han-di</i>                                             |   |                      |               |
| 4. Koordinatuak (??)<br>(‘ <i>izen-izen</i> ’ egiturakoak) |   | ‘izen’               | ‘adjektibo’   |
| <i>*gi-zon</i> “haragiz eta lohiz egindako”                | > | <i>gizon</i>         | <i>gizen</i>  |
| <i>*gi-zen</i> “haragi asko duen, zezen-moduko”            |   |                      |               |

<sup>66</sup> Guk proposatu ditugun eta oso eztabaidagarriak diren konposakeraren moten arabera, noski.

<sup>67</sup> Ez dugu kasu bat ere aurkitu, non ‘*izen-izen*’ egiturako konposatu zahar bat euskara historikoan adjektibo bihurtzen den. Baina hau kasualitate hutsez gertatzen delakoan gaude, hau da, semantikaren aldetik *\*ur-bar* “uraren bide”, *\*ortz-hots* “zeruko hots”, *\*zur-bi* “zurezko bide” eta antzerako eraikuntzak ez direlako adjektibo bihurtzeko kandidatu probableak. Morfo-sintaxiaren aldetik, izen hauek ere adjektibo bihurtzeko daitezke.

|                                                                                       |   |                            |                             |
|---------------------------------------------------------------------------------------|---|----------------------------|-----------------------------|
| 5. Erreduplikatuak<br>(‘izen-izen’ nahiz<br>‘adj.-adj.’ egiturakoak)                  |   | ‘izen’                     | ‘adjektibo’                 |
| * <i>go-go</i><br>* <i>da-dar</i> “adar”<br>* <i>go-gor</i><br>* <i>de-der</i> “eder” | > | <i>gogo</i><br><i>adar</i> | <i>gogor</i><br><i>eder</i> |

Honek guztiak honako ondorio hau proposatzera garamatza: ‘aitzin-euskara-a’-tik ‘aitzin-euskara-b’-rako igarotzean lexikoaren erabateko berregituraketa burutu zen. Berregituraketa honek lengoaiaren bi planoei erasan zien: adierazleenari nahiz adierazienari. \**Sa-bel* “barrualde beltz”, \**ar-bel* “harri beltz” eta \**goi-bel* “goialde beltz” sintagmak lexikalizatu zirenean, bai \**bel* adierazlea bai “beltz” adierazia (esanahia) lexikotik desagertu ziren. Une honetan, sintagma zaharretatik sortu ziren lexikalizazio bisilabikoetarik inolako “beltz” esanahirik ez bazegoen, une batez behintzat lexikoa “beltz” esanahirako adierazlerik gabe geratuko zen. Eta Dixonek frogatu legez, adjektiboaren kategoria duten hizkuntzetako lexiko guztietan esanahi hau halabarrezkoa da. Halaber, \**ker* adierazle zaharra sintagma lexikalizatueta fosildurik gelditu zenean (\**baker*, *oker*, \**buzker*), adierazlea ezezik lexikoan derrigorrezkoa den “txar” adierazia ere lexikotik desagertu zen. Bertsua esan dezakegu izenei dagokienez. \**Gi* “haragi” (*gibel*, *gihar*), \**har* “harri” (*harri*, \**harbel*) eta \**sa* “barrualde” (*sabel*, \**sabin*, *sakon*) bezalako monosilabiko zaharrak sintagmetan fosildurik geratu zirenean, esanahi hauek ere lexikotik desagertu ziren. Baina, era berean, sintagmen lexikalizazioetatik sortutako lexiko berri bat eratzen ari zen. Sintagma hauen lexikalizazioaren emaitza semantikoei aipatu ditugun esanahi-hutsuneak betetzeko joera izan behar zuten.

Hortaz, bi fase ezberdinetako bi lexiko ezberdinez ari gara. Bietan ditugu ‘izen’ eta ‘adjektibo’ hitz-motak, baina ‘aurre-aitzin-euskara-a’-z hitz nominal (izen nahiz adjektibo) bakoitzak ‘izen-adj.’, ‘izen-izen’ nolabaiteko ‘izen-izen’ edo ‘adj.-adj.’ egiturako sintagma bisilabikoetan agertzeko joera bortitza zuen. ‘Aurre-aitzin-euskara-b’-z, ostera, ‘izen’ zein ‘adjektibo’ kategoriak izateaz gain, hitz nominal (izen nahiz adjektibo) bakoitzak autonomia gehiago zuen. Jarraian fase bakoitzean izan zitezkeen adjektiboaren kategoriaren nondik-norako zenbait gora-behera argitzen saiatuko gara.

‘Aurre-aitzin-euskara-a’-zko adjektiboei dagokienez, honako ezaugarri semantiko nahiz morfo-sintaktiko hauek markatu nahi genituzke:

- a) Semantikaren aldetik, adjektibo-sorta erlatiboki murrizta da. Nola edo hala berreraiki ditzakegun esanahiak oinarritzko lexikoari dagozkio. Behin eta berriz, esanahi zaharrak lausotu izana oztupo ikaragarri gertatzen zaigu epaiketa fidagarri bat emateko, baina berreraiki ditugun esanahien multzoa adjektibo-klase murrizteko hizkuntzetan tipologikoki ohikoenak diren adjektiboen zerrendarekin erkatzen badugu (ik. 2.2, 1); edo Dixon 1982: 7), orokorrean egiantzekoa dirudi hura honi ondo dagokiola sinesteak. Esanahi eratorriko, agerpen urriko edo nolabaiteko konplexutasuneko adjektiborik (“nekatu (A)”, “herren”, “adimentsu”, “ergel”, “zital”, “karratu”, “dentso”) ez dagoelakoan gaude. Ezin dugu (adjektibo-klase murrizteko

hizkuntza batetik espero beharko genukeen legez) binakako oposaketa antonimoko garbirik postulatu (\**der* “on” / \**ker* “txar” (?), \**bur* “leun” / \**kar* “latz” (?)), baina tipologiaren datuak kontuan harturik ziurrenik egongo ziren.

Hainbeste iluntasunen gainean argiren bat botatzeko, agian normalean zehaztu samarra den tipo semantiko batera mugatzea komeni zaigu: KOLORE. Ere mu semantiko honetan aurki dezakegun adjektibo bakarra \**bel* “beltz” delakoa gaude. Dixonek aztertu adjektibo-klase murrizteko 20 hizkuntzen artean, “beltz” 13tan agertzen da. Baina, “beltz” agertzen den hizkuntza guztietan, “zuri” ere agertzen da, hau 14tan agertzen delarik. “Zuri”-rako, ostera, gure adjektiboaren artean ez dugu kandidatu garbirik; beraz, izatekotan (eta ziurrenik horrela izango zen), ez du adjektibo honen inongo aztarnak bizirik iraun.<sup>68</sup> Bi kolore hauek ohikoenak dira; hurrengoak “gorri” (8 hizkuntzatan) eta “berde” (7tan) dira, azken hau batzuetan beste kontzeptuekin (“gordin”, “heldugabe”) lotuta agertzen bada ere. Aieru ausarta izan arren, agian adjektibo monosilabikoen zerrendan “beltz” kolore bakarra izatea adjektibo-sistema honen antzinatasunaren zantzu bat da.

Beste tipo semantikoei dagokienez, Dixonen unibertsalaren arabera EZAUGARRI FISIKO tipo semantikoko adjektibo gutxi espero genituzke,<sup>69</sup> baina proportzionalki dezente daude (\**bin* “mingarri”, \**bor* “borobil”, \**bur* “leun”, \**dar* “indartsu”, \**gor* “gor”, \**gur* “makur”, \**kar* “latz”). Honek teorikoki gure aurka dihardu, baina Dixonen unibertsalaren bigarren zatia da kasu hauetan tipo honetako hitzak aditzak direla, eta hau *gurtu*-n eta *mindu*-n baino ez da betetzen, non erroa izen bat ere izan daitekeen. Berriro ere, semantika hain iluna izanik ez dago egungo errealitatetik ateratako hizkuntza sinkronikoetan oinarrituz unibertsal tradizionalak berreraikitako hizkuntza bati aplikatzerik. Tartean dessemantizazioa izanez gero, baliteke hauetariko adjektibo batzuk DIMENTSIO tipo semantikotik etortzea.

- b) Morfologiaren aldetik, adjektibo-sorta itxia da. Gure aburuz, berreraiki ditudun 17 adjektiboak *adjektibo-erro hutsak* dira. Ez dago adjektibo hauetatik adjektibo gehiago eratoritzeko baliabide morfologikorik. Esan dugun legez, ez dago \**sa-kon-i*, \**zil-bor-(e)tz* edo \**gi-bel-bo* bezalako eraikuntzarik. Badiara salbuespenak, baina bestelako azalpen bat izan dezaketelakoan gaude. Gure aieruaren arabera, ‘aitzin-euskara-*a*’-z izan zitezkeen atzizki singulatzailerarik, batzuk (-*i*, -*di* eta -*le* kasu) bizirik iraun zuten lexikalizazio bisilabikoen ondoren. Beraz, hirugarren silaban dakuskigunean arrazoa izan daiteke lexikalizaturiko izen bisilabiko bati erantsi zaizkiola. *Beldur-ti*-ren kasuari azalpen hau nahikoa erraz aplikatu daioke. \**Ur(-)dur-i*-ren kasuan, irtenbide hau ez da hain agerikoa, ustezko \**urdur* izen bat ez dugularik inon ere, baina

<sup>68</sup> Salbu eta gainerako 16 adjektiboetarik baten esanahia “zuri” baldin bazen, geroztik meta-semantizatu eta beste esanahi bat hartu duelarik.

<sup>69</sup> Ik. 2.2, 4; edo Dixon (1982: 47). Halaber, Dixonen arabera (ik. 2.2, 6); edo Dixon 1982: 47-48) EZAUGARRI FISIKO tipo semantikoko hitzak adjektiboak izanez gero, ABIADURA tipo semantikoak ere adjektiboak izango dira.

zalantzaszkoagoa izan arren ez da erabat sinestezina. Akit. *HAR-BEL-EX*, gure us-tetan, < \**harri-béletz*, baina aburu hau gure teoriatik ondoriozta daitezkeen printzipioetan soilik oinarrituta dago. Oztopoak oztopo, lexikorik zaharre-nean adjektiboek ez zutela inolako luzapen morfologikorik uste dugu.<sup>70</sup>

- d) Sintaxiaren aldetik, garai honetan gure 17 adjektiboak *atributiboki bakarrik* erabiltzen zirelakoan gaude. 17etarik, kokaleku isolatuan 4k bakarrik bizirik iraun dute euskara historikoan: \**bin* (> *min*), \**gor* (> *gor*), \**gur* (> *gur*) eta \**gatz* (> *gatz*, *gaitz* (?)).<sup>71</sup> Hauetarik, *gor* adjektiboazko esanahi bat daukan bakarra dugu. *Min*, *gur*, eta *gatz* (*gaitz* (?)) monosilabikoek izenezko esanahia dute euskara historikoan.<sup>72</sup> Gure planteamenduaren arabera, ‘aurre-aitzin-euskara-*a*’-ren garaian adjektibo batzuk testuinguruak baldintzatutako izenezko eginkizunak ere izan zitzaizketen, eta kasu hauetan kokaleku isolatuan nahiz sintagmaren lehen kokalekuan ager zitezkeen. Honelaxe azalduko lirateke *min*, *gur* eta *gatz* historikoak, bai eta *minkatz* (< \**bin-gatz* (?)) eta *bele* (< \**bel-le*) bezalako kasuak ere.<sup>73</sup> Ostera, ez da euskara historikoan inolako adjektibo monosilabikorik kokaleku isolatuan (hots, predikatiboki) mantendu: \*\**kon* “sakon”, \*\**dur* “deunga”, \*\**bur* “leun”, \*\**ker* “txar”... Ohartarazi nahi genuke badaudela kasu batzuk, non adjektibo monosilabiko hauetariko batzuk atzizki bat hartu duten izen nahiz adjektibo eratorri bat eratzeko, isolaturik agertzen ez diren bitartean: \**bel* > *bel(e)tz* (baina \*\**bel*), \**bor* > *bor(e)tz* (baina \*\**bor*), \**gal* > *gari* (?) (baina \*\**gal*); ik. Lakarra (2002a: 436). Hiru kasu hauetan, badirudi jatorrizko zentzua adjektiboazkoa zela. Beste hiru kasutan, adjektibo-erroak erreduplikazioetan soilik mantendu dira: \**dar* > (\**da-dar* >) *adar* (baina \*\**dar*), \**der* > (\**de-der* >) *eder* (baina \*\**der*), *gor* > *gogor*.

Orokorrean, beraz, adjektiboazko erro monosilabikoak eraikuntza bisilabikoetan soilik mantendu dira. Gure azalpena da atributiboki baino ez zirela agertzen. ‘Aurre-aitzin-euskara-*a*’ adjektibo-klase murrizteko hizkuntza izatekotan, hau ondo legokioke Dixonen (1982: 36-46) datuetan dakusagunari.<sup>74</sup> Halaber, planteamendu hau guk

<sup>70</sup> Gure teoriaren arabera, beraz, garairik zaharrean atzizki singulatzailak erro monosilabikoei erants zekizkiekeen, baina ez sintagma baten bigarren elementuko kokalekuan zegoen adjektibo bati. Froga ukaezina ez izan arren, inork ez du ukatuko ziurrenik maila lexiko eta kronologiko berberari dagozkion \**bor-(e)tz* “bost” eta \**han-bor* “hamar” gure eskemari ederki moldatzen zaizkiola.

<sup>71</sup> Zerrenda honetan, agian \**gal* ere sartu behar dugu, kontuan harturik hau *galdu*-ren aditz-erro moduan soilik mantendu dela.

<sup>72</sup> *Min*-erako, orokorra den “min” esanahiaz gain behe-naf. gip. lap. erronk. “garratz” eta orok. “min, pikante” ere baditugu. Berehala azalduko dugun legez, predikatiboki erabil daitezkeen izenek adjektibo bihurtzeko joera bortitza izan dezakete. Hau ere *gor* “gor” historikorako azalpena izan liteke, antzinako *gor* “haragi (?)” onartzen baldin badugu (ik. *gor-din*, *gor-i*, *gorr-i*).

<sup>73</sup> Beste bi kasu posible: *bel-dur* (!?), nahiz eta agian < *bil-dur*: gip. heg. bizk. Berc. *bildur* (ik. Mitxelena 1977: 63); eta *belar* < \**bel-lar* (!?), baina < *be-lar* ere posible da: heg. eta bizk. zah. *berar*. Gainera, Mitxelenak dio (1977: 315): “La variante *berar* debió estar muy difundida por la Alta Navarra. Cf. “unas yerbas llamadas *berarbelça* y *berar andia*” en el proceso por brujería de Logroño en 1610 [...]”.

<sup>74</sup> Huaz, esate baterako, 12 adjektibo baino ez daude eta hauek atributiboki soilik agertzen dira. Adjektibo-klase murrizteko hizkuntza bat den teluguz ere adjektibo bat izen baten aurrean bakarrik

proposaturiko hitz-eraketari buruzko teoriari ondo moldatzen zaio. Honen arabera, garai honetan hizkuntzak sintagma bisilabikoak eratzeko joera bortitza izango zukeen. Honela, oin yanbiko bat osatzeko helburu bakarraz hainbat izen monosilabikori adjektibo hauetariko bat itsatsiko zitzaien, eta adjektibo honen semantika erredundantea izan zitekeen (\**(h)en-bor* “enbor borobil (?)”, *zil-bor* “zilbor borobil”, \**(h)ez-gur* “zuhaitz (?) makur”, *sa-kon* “barrualde sakon”). Adjektiboek ezaugarri berezirik adierazi behar ez zuten zere, lexikoa molda zitekeen kopuru murrizt batekin.

Sintagma-barneko hurrenkera NA zen, eta, ikusi dugun legez, hau ez da inola ere bateraezina GN hurrenkerarekin. GN/NA egitura SVO nahiz SOV hurrenkera sintaktikoarekin uler daiteke, hizkuntza ia ziurtasun osoz Po zelarrik.

Hau guztia kontuan harturik, eta 2.2. puntuan aurkeztu dugun sailkapenaren arabera, ‘aurre-aitzin-euskara-a’ adjektibo-klase murrizteko V-N-A hizkuntza bat zelakoan gaude.

Hel diezaiegun orain ‘aurre-aitzin-euskara-b’-zko adjektiboen ezaugarri semantiko eta morfo-sintaktikoei:

- a) Semantikaren aldetik, garai honetako adjektibo-kopurua askoz ere zabala goa da. Garai honetarako berreraiki ditzakegun adjektiboak (eta kontuan hartu behar dugu oraingo garai honetako berreraiketaz askoz ere fidagarriagoak direla) Dixonek adjektibo-klase murrizteko hizkuntzetarako berreraikitzen duen zerrendarekin erkatuz gero (ik. 2.2, 1; edo Dixon 1982: 7), erraz ikus daiteke esanahiak agerpen urriagokoak eta konplexutasun handiagokoak direla: \**buker* “muker”, \**baker* “maker”, *ezker*, *gizen* (?), *gogor*, *goibel*, *handi*, \**bakal* “makal”, \**bakur* “makur”, *oker*, *urri*, *zakar* eta abarreko esanahiak, adibidez, ez daude zerrendan. Bestalde, aurreko garaiko adjektiboen artean ez zeuden (edo argi-argiak ez ziren) hainbat esanahi ere aurkitzen ditugu: *berri*, \**zakar* (?) “zahar” (ik. Lakarra 2002a: 436), *luze*, *labur*, *handi*,<sup>75</sup> *lodi*, *argal*, *ilun*, *gordin*...

Berrito ere KOLORE tipu semantikoak hartzen badugu kontuan, ikus dezakegu oraingo honetan adjektibo gehiago berreraiki ditzakegula: *bel(e)tz*, *zuri*, *hori*, *gorri* eta *urdin*.<sup>76</sup> Hauetarik, azken biak ez daude Dixonen zerrendan. Azkenik, GIZA-EZAUGARRI tipu semantikoak kasu honetan baditu hitz batzuk adjektiboaren barne: *goibel*,<sup>77</sup> *maker*, *muker*.

- b) Morfologiaren aldetik, adjektibo-klase hau irekia da. Aurreko garaian adjektibo-erro hutsak aurkitzen genituen bitartean, garai honetakoak *adjektibo*

---

ager daiteke sintagma nominal baten barnean. Beste kasu batzuetan, predikatiboki ager daitezke baina bakarrik nolabaiteko marka morfologiko batekin lotuta. Acooliz, adibidez, 40 adjektibo inguru daude. Hauek atributiboki zein predikatiboki ager daitezke, baina lehen kasuan *mà* partikularekin agertu behar dute, eta bigarrenean, izenei bezala, aurrizki kopulatio bat erantsi behar zaie. Alablak-ez ere 40 adjektibo inguru daude. Izenak bezala, predikatiboki ager daitezke baldin eta *-e* atzizki kopulatioa edo *-ti* atzizki inkoatioa eranstean baldin bazaie.

<sup>75</sup> Baldin eta esanahi hau \**gatz*-en ez baldin badago.

<sup>76</sup> Hemen ere agian *arre* sar genezake, Van Eys-en etimologiaren arabera < \**harr-e* “harriaren koloreko”. *Zur-i* “zuraren koloreko” eta *hor-i* “horaren koloreko” bezalako eraikuntzen pareko izango litzateke. Nolanahi ere, hitz honen lekukotasunak Mendebaldean bakarrik ditugu.

<sup>77</sup> Dena den, hitz honen adjektibo berria izan liteke.



*eratorriak* dira.<sup>78</sup> Beren jatorria ‘izen-adj.’ (\**subin*, *sakon*, *labur*), ‘izen-izen’ (*gogor*, \**deder*), nahiz ‘izen-atz.’ (*berri*, *handi*) izan daiteke.<sup>79</sup> Eraikuntza hauek analitikoki interpreta zitezkeen eta baliabide morfologikoen bidez gainerako adjektiboak asma zitezkeen neurrian, adjektibo-klasea irekia zen. Koloreetan eraketa analitiko hau ederki ikusten da. Aurreko sisteman adjektibo-erro huts bat besterik ez dugun bitartean (\**bel* “beltz”), oraingo honetan ditugunak argi eta garbi eratorriak dira nolabaiteko atzizki singulatzailen baten bidez: \**bel* > *bel*-(e)tz “beltz-moduko (?)”, *zur* > *zur*-i “zur-moduko, zuraren koloreko”, *hor* > *hor*-i “hor-moduko, horaren koloreko”, *gor* > *gorr*-i “haragi-moduko, haragiaren koloreko (?)”, *ur* > *ur*-din “ur bihurtuaren koloreko”.

Gure aburuz, koloreen arteko konparaketa hau nahikoa esanguratsua da eta bi sistemak izan diren tesiaren aldeko zantzu sendoa da. Lehenengo sisteman (‘aurre-aitzin-euskara-a’-renean), \**bel* dugu; bigarreanean (‘aurre-aitzin-euskara-b’-renean), *bel*-(e)tz, *zur*-i, *hor*-i, *gorr*-i eta *ur*-din. \**Bel* adjektibo-erro hutsa da; gainerakoak nolabaiteko eratorpen batetik datoz. \**Bel*-ek silaba bakarra du; gainerakoek bi silaba dituzte. \**Bel* atributiboki baino ez da agertzen; gainerakoak egungo adjektibo autonomoak dira. \**Bel* adjektibo-klase murrizteko hizkuntzetan agertzen diren adjektibo-zerrendei ondo moldatzen zaie; gainerakoak, dirudienez, adjektibo-klase zabal bati dagozkio. Kolore berberaren bi forma agertzeak eta forma bakoitzaren morfologia dagokion sistema morfologikoarekin bat etortzeak bi sistemen arteko ezberdintzearen alde biziki dihardute.

Sistema batetik besterako motibazioa argi egongo da: \**bel* (eta, izatekotan, beste koloreen bat) sintagma lexikalizatueta fosildu zenean, lexikoa koloretarako adjektiborik gabe gelditu zen. Adjektiboaren kategoria duten hizkuntza guztietan koloreak kategoria honetan sartzen direnez gero, lexikoa koloreak behar zituen. Hauek sisteman zeuden elementuetatik sortu ziren, aztertu ditugun baliabide morfologikoen bidez. Eta era honetan, kolore-inbentario are zabalago bat sortu zen.

- d) Sintaxiaren aldetik, garai honetan sortu ziren adjektiboak *atributiboki nahiz predikatiboki* ager zitezkeen. Ikus bitez akit. *BELEX*, *ERDITSE* (?), *ILVUNNO*. Zalantzarik gabe, predikatiboki agertu ahal izateak ‘izen’ > ‘adjektibo’ nahiz ‘adjektibo’ > ‘izen’ moduko prozesuak erraztu ditu, eta hauek barra-barra gertatu dira mendeetan zehar. Hau dela medio, halako forma bati esleitu diogun kategoria (‘izen’ ala ‘adjektibo’) ez da beti fidagarria.

Adjektibo hauek atributiboki agertuz gero, sintagma-barneko hurrenkera NA zen (ik. akit. *AHERBELSTE*, *ASTOILVUNNO*, *BAIGORIXO*, *HARBELEX*, *HERAVSCORRITSEHE*,

<sup>78</sup> Baina ez denak. *Hotz*, *hits*, *huts*, *gai* eta beste monosilabiko batzuk adjektiboak dira edo izan daitezke euskara historikoan. Nolanahi ere, ez dugu uste hauek jatorrizko adjektiboak direnik. Ziurrenik adjektibo bihurtutako jatorrizko izenak dira (ik. Martínez Areta-prestatzen).

<sup>79</sup> Hauetariko batzuen adjektibo-bihurtzea beranduago gertatu ahal izan da, baina gauzei sistemaren ikuspegitik begiratzen ari gatzazkie, eta ez dago zalantzarik lexikalizazio bisilabikoen ondorioz bi motatako hitzak sortu zirela: izenak nahiz adjektiboak. Ik. akit. *AHERBELSTE*, *ASTOILVUNNO*, *BAIGORIXO*, *HARBELEX*, *HERAVSCORRITSEHE*, *ILVRBERRIXO*, *VM.ME.SA.HAR*.

ILVRBERRIXO, VM.ME.SA.HAR). GN/NA hurrenkerak<sup>80</sup> erabat bateragarriak dira euskara historikoan dakuskigun egiturekin (SOV/Po).

Hau guztia kontuan harturik, eta 2.2. puntuaren aurkeztu dugun sailkapenaren arabera, ‘aurre-aitzin-euskara-b’ adjektibo-klase zabaleko V-N-A hizkuntza bat zelakoan gaude.

Bukatzeko, eta espekulazioa are urrunago eramanez, saia gaitezen asmatzen nola izan litekeen adjektibo-kategoria ustezko ‘aurre-aurre-aitzin-euskara’ baten garaian. Oraingoan irakurleari gaztigatu nahi genioke orain arte esandakoa izugarri espekulatiboa bada, hemendik aurrerakoa iruzkin informal bat besterik ez dela.

‘Aurre-aurre-aitzin-euskara’, deskribatu dugun legez (ik. goian), oin prosodikorik gabeko hizkuntza monosilabiko bat izango zen. Hau da, hitz bakoitzak silaba bakar bat eta esparru demarkatzaile bat izango zituen, agian tonuak tartean zirelarik. Honela, baliteke prosodiak - [ \_ ] [ \_ ] [ \_ ] [ \_ ] [ \_ ] [ \_ ] - moduko egitura bat izatea, beharbada tonu-sandhi-ekin. Haatik, baldintza hauetan, guk ikertu ditugun adjektiboak ezin ziren sisteman egon. Gure adjektiboen ezaugarri sintaktikoa [ \_ - ‘ ] egiturako sintagma nominal bisilabikoetan izen baten atzean agertzea zen, baina, garai honetan ‘izen-adjektibo’ motako sintagma bisilabikorik ez bazegoen, orduan adjektiboaren kategoriarik (behintzat guk ezagutzen ditugun ezaugarri morfo-sintaktikoen) ere ez zegoen.

Har dezagun \**bel*. Elementu honi adjektiboko kategoria gramatikala eta “beltz” esanahia esleitu dizkiogu, baina honek [ sa - ‘ ] , [ har - ‘ ] eta [ gi - ‘ ] bezalako kokalekuetan agertzen den kasuetarako (hots, ‘aurre-aitzin-euskara-a’-rako) balio du bakarrik. Zaharrago den [ \_ ] kokalekuan, \**bel*-ek ez ditu ezaugarri sintaktiko berberak. Kasu honetan ez dakigu ezer \**bel*-en jokabide morfo-sintaktikoaz. Garai honetan adjektibo bat ote zen ere ez dakigu.

Jadanik esan dugun legez, deskribatu ditugun 17 adjektiboetarik lauk bakarrik bizirik iraun dute kokaleku isolatuan: *gor*, *gur*, *min* eta *gatz*. Hauetarik, azken hirurek izenezko adiera pan-dialektal bat dute, bestelako adierak ere izan baditzakete ere. Lehenak ere antzina izenezko esanahi bat zuen susmoa Azkuek berak aditzera ematen du bere hiztegian, *gorr-i* eta *gor-din* azterketa analitiko baten bidez interpretatu daitezkeela ohartarazten digularik: “haragiaren koloreko”, “haragi bihurtu”. *Gor* albo batera utzita, gure adjektibo monosilabikoetarik batek ere kokaleku predikatiboan adjektibozko funtzioarekin bizirik iraun ez duenez gero, ondorio naturala da hitz hauen ‘izen’ kategoria arkaismo bat dela.

Arrazoibide hau gainerako adjektiboetara estrapolatzen baldin badugu, orduan ondorioa izango da ‘aurre-aitzin-euskara-a’-ren adjektibo guztiak izen zaha-

<sup>80</sup> GN hurrenkerarako zantzu argirik ez dago akitaniar inskripzioetan: *A-BI-SVN-HA-RI* (*abi* (?) + *zunar* (?)), *ASSPERCIUS* (*aitz* (??) + *barr* (??) + *egi* (??)), *AXTOURI* ((*h*)*artzio* (??) + *uri*(??)), *NAR-HUN-GE-SI* (*Narhun* + *ges*), *OSAHERR*[*osa* + *herr*-]. Hauetariko bat ere ez da ‘izen-izen’ egiturakoa ziurtasun osoz. Nolanahi ere, hiru arrazoiengatik ziurra da GN egitura zaharra dela: a) egun pan-dialektala delako (*otseme*, *basurde*, *baserri*); b) aurreko sistemari (\**orz-tots*, \**ur-bar*) legokiolako, eta ez dago arrazoi irmorik zalantzan jartzeko hemen ere bi sistemen arteko jarraipen bat dagoela; eta d) Erdi Aroko testurik zaharretan ere aurkitzen dugulako: *Lamiturri*, *Zaldubondo*, *Ibarguren* (CSM), *Erretzubi* (1125), *Menditartea* (1284).

rrak direla, eta agian ‘aurre-aurre-aitzin-euskara’ adjektiborik gabeko hizkuntza zela, V-N motakoa. Kasu honetan, adjektibozko kontzeptuak izenekin lotuta egongo ziratekeen, baina ‘aurre-aitzin-euskara-a’-ren sintagma bisilabikoak area-gotu ahala adjektibozko izenak adjektibotzat berrinterpretatuko ziratekeen. Teoriaraz, ‘aurre-aurre-aitzin-euskara’-rako imajinatzen ditugun ezaugarriak (*monosilabismoa, tonaltasuna...*) V-N motari ondo dagozkio, baina honen inguruan ez dago inolako unibertsalik ezartzerik.

#### 4. Amaierakoa

Ez genuke baikorregi azaldu nahi hemen aitzin-euskarazko adjektibo-kategoria-  
ren inguruan eskaini dugun proposamenari buruz. Berreraiketa guztiak fantasia-  
tsuak badira, esanahiez dihardutenak are fantasiatsuagoak dira. Hjelmslev-ek ohar-  
tarazi zigun legez, halako forma baten berreraiketa zuzena ziurtasun osoz lortuko  
bagenu ere, ezerk ez digu ziurtatzen forma horrekin ageri zaigun esanahia zuzena  
denik. Izan ere, esanahiak lengoaiaren elementurik irristakorrenak dira, hiztunaren  
irizpide subjektiboaren mende baitaude eta berrinterpretazioen aurrean formak  
baino askoz ere sentikorragoak baitira.

Hauxe izango da, ziurrenik, aurkeztu berri dugun planteamenduaren arazo na-  
gusia. Berreraiki ditugun formak zentzugabeak ez izan arren (eta ziurrenik ez dira  
erabat zentzugabeak izango), esanahi asko, ordea, jatorrizkoetatik oso urrun gera-  
tuko dira. Koloreen eremu semantikoan puntu mugiezin baten lanak egiten dituen  
irizpide bat bilatzen saiatu gara. Honela, uste izan dugu *\*bel*-i “beltz” esanahia eslei-  
tzea zalantza kanpoko abiapuntu bat izango zela premisa honen gainean sistema  
bat eraikitzeko. Lakarraren iritzi (ahozko komunikazioa), ordea, *\*bel* “beltz” esa-  
nahiari dagokion sinesmena bera kaltegarri gerta dakiguke, esanahiei dagokienez  
ez baitago ziurtzat har dezakegun ezertxo ere. Dena den, gure lanak ikuspegi berri-  
ren bat urra dadin lagundu badu, helburua sobera beteta izango da.

#### Bibliografia

- Artiagoitia, X., P. Goenaga eta J. A. Lakarra (arg.), 2002, *Erramu boneta: Festschrift for Rudolf P. G. de Rijk* (ASJU-ren Gehigarriak, 44). Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Azkue, R. M., 1923-25, *Morfología vasca*, in *Euskera* 4-6.
- Croft, W., 2000, “Parts of speech as language universals and as language-particular categories”, in Vogel eta Comrie (arg.), 65-102.
- Dixon, R. M. W., 1982, *Where have all the adjectives gone? and other essays in semantics and syntax*, Berlin, Mouton Publishers.
- Gorrochategui, J., 1984, *Estudio sobre la onomástica indígena de Aquitania*, Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Greenberg, J. H. 1966, “Some universals of grammar with particular reference to the order of meaningful elements”, in Greenberg, J. H. (arg.), *Universals of language*, Cambridge, MIT Press, 73-103.
- Hawkins, J. A., 1980, “On implicational and distributional universals of word order”, *JL* 16, 193-235.

- Hengeveld, K., 1992, *Non-verbal predication: Theory, typology, diachrony*, Functional Grammar Series 15, Berlin, Mouton de Gruyter.
- Hualde, J. I., J. A. Lakarra eta R. L. Trask (arg.), 1995, *Towards a History of the Basque Language*, Amsterdam, John Benjamins.
- Igartua, I., 2002, "Euskararen hasperena ikuspegi tipologiko eta diakronikotik", in Artiagoitia, Goenaga eta Lakarra (arg.), 367-89.
- Lafon, R., 1964, "L'adjectif, épithète et les déterminants en basque", in Lafon 1999: 241-60.
- , 1999, *Vasconiana (=Iker-11)*, Bilbo, Euskaltzaindia.
- Lakarra, J. A., 1995, "Reconstructing the Pre-Proto-Basque Root", in Hualde, Lakarra eta Trask (arg.), 189-206.
- , 2002a, "Etymologiae (proto)uasconicae LXV", in Artiagoitia, Goenaga eta Lakarra (arg.), 425-42.
- , 2002b, "Adar, ahuntz, handi: sobre la identificación de sustratos y morfología de la protolengua", in *TIMHΣ XAPIN: Homenaje al Profesor A. Gainzarain*, Gasteiz, Veleiaren Gehigarriak, 17.
- Levy, P., 1992, "Adjectives in Totonac: descriptive statement and typological considerations", *IJAL* 58, 269-98.
- Martínez Areta, M., prestatzen, "Euskara eta aitzin-euskararen hitz-konposakeraz".
- Mitxelena, K., 1977, *Fonética histórica vasca*, 2. argitalpena, *ASJU*-ren Gehigarriak 4, Donostia.
- Rijkhoff, J., 2000, "When can a language have adjectives? An implicational universal", in Vogel eta Comrie (arg.), 217-57.
- Sackmann, R., 1996, "The problem of 'Adjectives' in Mandarin Chinese", in Sackmann, R. (arg.), *Theoretical Linguistics and Grammatical Description. Papers in honour of Hans-Heinrich Lieb*, John Benjamin Publishing Company, Amsterdam/Philadelphia, 257-75.
- Trask, R. L., 1995, "On the History of the Non-Finite Verb Forms in Basque", in Hualde, Lakarra eta Trask (arg.), 207-34.
- , 1997, *The History of Basque*, Londres, Routledge.
- Uhlenbeck, E. M., 1952-53, "The study of word-classes in Javanese", *Lingua* 3, 323-54.
- Vennemann, T., 1972, "Analogy in generative grammar: the origin of word order", in *11<sup>th</sup> International Congress of Linguistics*, Bolonia.
- Vogel, P. M. & Comrie, B. (arg.), 2000, *Approaches to the Typology of Word Classes*, Berlin-Nueva York, Mouton de Gruyter.
- Wierzbicka, A., 2000, "Lexical prototypes as a universal basis for cross linguistic identification of 'parts of speech'", in Vogel eta Comrie (arg.), 285-317.

# QUELQUES REMARQUES À PROPOS DE L'HISTOIRE DES PÉRIPHRASES BASQUES

Céline Mounole Hiriart-Urruty

(UPV/EHU-Bordeaux3)

## 1. Introduction<sup>1</sup>

Ce modeste article vise à donner quelques pistes pour la recherche diachronique du verbe basque. Il s'inscrit dans le cadre d'un projet de recherche de thèse de doctorat, et loin de prétendre donner la clé de l'évolution du verbe basque, il espère offrir quelques remarques de morphologie et syntaxe qui selon nous ont leur importance au moment de faire l'histoire des formes verbales.

Les verbes périphrastiques ont attiré l'attention de nombreux bascologues. Tout d'abord Lafon (1943) consacra le deuxième tome de sa thèse aux formes périphrastiques des textes du XVI<sup>ème</sup> siècle. Après lui, d'autres comme Yrizar en ont répertorié les quelques nuances morphologiques et les nombreuses nuances phonétiques que l'on retrouve d'un dialecte à l'autre. Dans ce court article nous n'entendons pas traiter la composition phonétique des formes périphrastiques, mais plutôt leur structure morpo-syntaxique.

Pour cela, nous allons étudier les trois périphrases<sup>2</sup> principales des XVI<sup>ème</sup> et XVII<sup>ème</sup> siècles, à savoir, (i) racine verbale + auxiliaires \**edin*, \**ezan*, \**iro*, *egin*, (ii) nom verbal à l'inessif + auxiliaires *izan*, \**edun*, (iii) participe + auxiliaires *izan*, \**edun*; et les classer selon leurs structure, emploi(s), niveau de grammaticalisation à cette époque.<sup>3</sup> Comme nous le verrons plus bas, il a souvent été pensé que la périphrase verbale du basque est attribuable au contact avec les langues romanes. Après l'étude de chacune de ces trois périphrases, nous verrons que parmi elles, seule une, a des parallèles dans ces langues, et que les deux autres semblent être issues

---

<sup>1</sup> Je tiens à remercier Joseba Lakarra, Guillaume Gibert et Julen Manterola pour leurs remarques précieuses. Participer à un hommage rendu à R. L. Trask me rappelle encore mon grand regret de ne l'avoir pas connu mais aussi la source d'inspiration que représentent pour moi ses articles concernant la morphologie et la syntaxe basques.

<sup>2</sup> Nous employons le terme de 'périphrase' dans l'acception suivante: « *Periphrasis* refers to a situation in which a multi-word expression is used in place of a single word in an inflectional paradigm » (Haspelmath 2000: 655).

<sup>3</sup> Nous n'allons traiter ni de la périphrase de futur de type participe + *-ren* / *-ko* (suffixe de génitif) + *izan* / \**edun*; ni des autres périphrases de présent habituel composées du participe comme verbe principal et des verbes *joan*, *eroan*, et *eraman* (selon les dialectes) comme auxiliaire.

d'une évolution interne au basque. Nous tenterons enfin de proposer une chronologie relative de ces périphrases, mais aussi de celles-ci par rapport aux formes simples, ou fortes.<sup>4</sup>

## 2. La périphrase verbale

Le verbe basque possède deux types de verbes: (i) des verbes forts, ou simples; (ii) des verbes périphrastiques. Cependant, dès le XVI<sup>ème</sup> siècle, les verbes forts sont en déclin, laissant peu à peu toujours plus de place à ceux de formation analytique. Selon Lafon (1943), à cette époque, le basque n'a qu'une soixantaine de verbes forts, qui possèdent par ailleurs une forme composée; et une dizaine de verbes qui ne possèdent que des formes simples (trois d'entre eux servant d'auxiliaire: *\*iro*, *\*ezan*, *\*edin*).<sup>5</sup>

Les verbes de formation périphrastique sont formés d'un verbe principal et d'un auxiliaire, les auxiliaires principaux étant *\*edin* 'devenir', *\*ezan*, *egin* 'faire', *\*iro*, et *izan* 'être', *\*edun* 'avoir'. Les quatre premiers auxiliaires, vont accompagnés de la racine verbale, qui est en général de type *e-RACINE*, pour les verbes d'origine basque.<sup>6</sup> Quant aux deux derniers, ils se construisent avec un participe en *-tu* / *-i*<sup>7</sup> selon le verbe (soit, la racine verbale à laquelle on ajoute le suffixe participial *-tu* ou *-i*), ou avec un nom verbal (racine verbale + *-te* / *-tze*) terminé en *-n*, suffixe de l'inessif.

Quant à leur valeur, au XVI<sup>ème</sup> siècle, les formes à auxiliaire *izan* 'être' et *\*edun* 'avoir' et à nom verbal à l'inessif comme verbe principal expriment<sup>8</sup> l'imperfectif (au présent comme au passé: Leizarraga *Jn.*, 4, 21, *ecen ethorten dela orena* '(croy-moy) que l'heure vient',<sup>9</sup> Leizarraga *Act.*, 2, 6, *ceren batbederac ençuten baitzitzen...hec mintzatzzen* 'pourtant chacun les entendait parler'; les formes à auxiliaire *izan* 'être' et *\*edun* 'avoir' et à verbe principal participe, expriment le parfait au présent, l'aoriste ou l'antérieur (équivalent du plus-que-parfait) au passé:<sup>10</sup> Leizarraga, *Mt.* 1, 20, *hartan concebitu dena, Spiritu sainduaganic duc* 'ce qui est conçu en elle, est du Saint Esprit', Etxepare *ene gaizqui penaceco segur sorthu cinaden* 'c'est pour me faire male peine, pour sûr que vous êtes née'. Quant aux formes à auxiliaire *\*edin* 'deve-

<sup>4</sup> Appellation de Lafon par laquelle il désigne —et nous aussi dans cet article— les verbes fléchis: par ex. *nabil*, *nago*, de *ibili* et *egon*.

<sup>5</sup> Pour être plus précis, Esther Zulaika (1998: 113) précise dans sa thèse que Etxepare possède 37 verbes ayant au moins une forme forte, les proverbes de Garibay 17, *RS* 30 et Leizarraga 47 (dont 11 intransitifs, et 36 transitifs).

<sup>6</sup> En général, nous insistons, parce que nous avons aussi des verbes d'origine basque qui ne répondent pas exactement à ce patron: *apur* 'casser', *sar* 'entrer'.

<sup>7</sup> Ceci en général, car certains participes sont aussi terminés en *-o*, et d'autres paraissent plutôt être des adjectifs que des verbes: *hil*, *maite*, *ezagun*, *ageri*, *bizi*... Nous n'entrerons pas dans les détails car l'étude des formes du participe n'est pas notre objectif dans le présent travail. (Pour plus de détails cf. Trask 1990, Oyharçabal 2003).

<sup>8</sup> De nos jours, cette forme peut avoir d'autres emplois tels que l'aspect continu, le présent habituel, le futur proche (voir Oyharçabal 2003).

<sup>9</sup> Traductions selon Lafon (1943).

<sup>10</sup> Comme le précise Lafon « chez Leizarrague, le prétérit du parfait sert le plus souvent à exprimer l'antériorité dans le passé » (Lafon 1943: II, 102).

nir', et \**ezan*, *egin*, \**iro* et à racine verbale comme verbe principal aujourd'hui réservées aux domaines des subjonctif, impératif et potentiel, dans nos textes du XVI<sup>ème</sup> siècle ce sont des formes de l'indicatif (les formes à auxiliaire du présent exprimant le présent simple et le futur; et celles à auxiliaire du passé, exprimant l'aoriste), ou des formes des subjonctif, impératif et potentiel.

Nous l'avons dit, Lafon consacre le deuxième tome de sa thèse aux formes périphrastiques. Il décrit les spécificités d'emploi de chacune des formes citées ci-dessus et leurs valeurs par rapport aux formes simples. Cependant, même si Lafon et tous ceux qui après lui ont présenté les formes périphrastiques du basque les ont étudiées conjointement et sous la même appellation, il nous semble qu'il faut dès maintenant observer les différences qui existent entre les périphrases à auxiliaire *izan* et \**edun*, et celles à auxiliaire \**edin* et \**ezan*, les étudier séparément et les nommer différemment. Nous pensons effectivement que ces formes par leurs structure, composition et évolution nous montrent qu'elles ne sont pas nées à la même date, que leurs valeurs initiales et leurs processus de grammaticalisation<sup>11</sup> respectifs ont dû être bien différents, et qu'elles n'appartiennent pas au même type de périphrase.

Ceci étant, étudions chacune d'entre elles individuellement.

## 2.1. Périphrases à auxiliaire \**edin*, \**ezan*, *egin*, *iro*<sup>12</sup>

2.1.1. Nous l'avons dit, ces périphrases sont composées de la racine verbale comme verbe principal, et d'un auxiliaire intransitif \**edin*, ou transitif \**ezan*, *egin*, \**iro*. Dans nos textes du XVI<sup>ème</sup> siècle, seuls deux de ces verbes possèdent des formes simples: \**edin* et *egin*. Cependant, elles sont comblées de restrictions quant à leur emploi. Au présent, \**edin* possède des formes simples, mais pas de formes simples nues,<sup>13</sup> selon la terminologie de Lafon. En effet, les seules formes simples de présent de \**edin* qui sont attestées vont toutes accompagnées d'un préfixe (*ba-* par ex.) ou d'un suffixe relatif *-n(a)*, potentiel ou futur *-te / -ke*, de temps *-ean*: RS 249 *asto dina zordun* 'celui qui se fait garant, débiteur', 275 *aroz dinean çirola* 'quand le cordonnier se fait charpentier, (peu de souliers se déchirent)'. Quant aux formes de présent de nu de *egin*, dans les RS, elles ont valeur de futur (RS 28 *Obea nay* 'il me rendra meilleur', 422 *nic yñes dayda* 'je fuirai').<sup>14</sup> Au passé, \**edin* et *egin* possèdent des formes simples. Comme nous l'avons dit plus haut, elles ont valeur aoriste: RS 358 *autsazala euriaz loyza cidi* 'comme il y avait de la poussière, avec la pluie il se fit de la boue', Leizarraga Act. 16, 15, *othoitz ceguigun* 'elle nous pria'. \**Iro* et \**ezan*, eux, ne possèdent pas de forme simple dès nos plus anciens textes. Ils vont obliga-

<sup>11</sup> La grammaticalisation est le processus par lequel des catégories lexicales deviennent des catégories fonctionnelles.

<sup>12</sup> 'Verbes à valeur déterminée', selon la terminologie de Lafon.

<sup>13</sup> C'est-à-dire pas de forme simple sans aucun affixe ajouté.

<sup>14</sup> On retrouve les dernières formes de ce type dans les vers biscayens *Bertso Bizkaitarrak* (1688): *Arabac ecarrico dau Guipuzcoa onestera, lagun ezteyo guerrara*. Alava va amener Guipuzcoa à l'harmonie elle ne l'accompagnera pas à la guerre. Etxepare et Leizarraga ne possèdent pas de formes simples nues de *egin*. Les formes qu'ils emploient sont dotées du suffixe relatif *-n*, ou du complétif *-la* et expriment le subjonctif: Etxepare *arrazoin da mundu oroc daguien çuri ohore* 'c'est raison que tout le monde vous honore'.

toirement accompagnés soit de la racine verbale comme verbe principal, soit de *ahal* ou *ecin*: Leizarraga *Phil*, 4, 13, *ahal ditzaquet* ‘je peux le faire’, Etxepare *Suyak vano gaizquiago erradiro guisona* ‘il (l’amour) est capable de brûler l’homme plus malignement que le feu’.

Tous ces faits nous suggèrent deux choses:

- 1) dès nos textes du XVI<sup>ème</sup> siècle, les processus de grammaticalisation visant à la spécialisation de ces verbes comme auxiliaires, étaient très avancés,
- 2) il faut distinguer différents niveaux de grammaticalisation entre ces auxiliaires. Parmi ces quatre *\*ezan* et *\*iro* paraissent être les auxiliaires les plus grammaticalisés, à tel point<sup>15</sup> (i) qu’ils en ont perdu leur autonomie syntaxique: on ne les retrouve employés que dans les périphrases du type racine verbale + auxiliaire ou accompagnés de *ahal* ou *ecin* dans quel cas ils expriment le potentiel; (ii) qu’il paraît difficile de donner leur signification avec précision (autonomie sémantique perdue, *semantic bleaching*, *desemantization* Bybee & al. 1994, Heine 1993).<sup>16</sup> *Egin* paraît être le moins grammaticalisé puisqu’on le retrouve employé comme forme simple dans *RS*, Garibay, comme dans Leizarraga et Etxepare, au présent comme au passé et qu’il n’a pas perdu sa signification ‘faire’.

Cependant, même si *\*edin* paraît être moins grammaticalisé que *\*ezan* et *\*iro* car il possède des formes simples au passé et qu’on peut encore en deviner le sens (‘devenir’); il semblerait que de ces auxiliaires, ce soit le plus ancien dans la mesure où il est le seul auxiliaire intransitif attesté dans tous les dialectes basques pour ce type de périphrase. Si dans nos textes, l’expression de la transitivité peut se faire par les auxiliaires *\*ezan*, *\*iro*, et *egin* (selon les dialectes et les contextes) l’intransitivité apporte l’unanimité quant à son expression: tous les dialectes emploient *\*edin*, et seulement *\*edin*.<sup>17</sup>

2.1.2. Comme nous le verrons plus bas, les périphrases à auxiliaires *\*edin*, *\*ezan*, *egin*, *\*iro* paraissent être plus anciennes que celles à auxiliaires *izan* et *\*edun*.

Bestalde,  $\emptyset$  edo *-(e)a*, *-koa* (ez izen bereziekin, bai, ordea, lanbide izenekin), *-rena* eta *-(re)nekoa* elkarrekin txandakatzen edireten ditugu batzuetan (komunzki ez denak aldi berean). Zenbaitetan, Mezkititzen erraterako, erdarazko aldaerak eskas du euskarazkoak daraman leku genitiboaren hondarkia, baina hura hala ere genitiboarenaz horniturik agertzen zaigu, gehienetan, ez beti. Beraz, bukaeraren nolakoa, lan honen hasieran erran dugun bezala, hizkuntza kontua ere bada hein handi batez: *Aierra*, *Aierrarena*, *Aierrarenekoa* (Añezkar), *Andonékõa* (Mezkititz; *Antoréna* erdaraz), *Büruzuriñékõa* (Mezkititz, *Casa Buruzuri* erdaraz), *Kantonekoa* edo *Kantorena* (kanton edo kantoi batean zegoelako, antza, Berriobeiti), *Mururena*, *Murunekoa* (Elkarte), *Tomasenekoa* edo *Tomasenea*, *Txurikonekoa* edo *Txurienea* (*Tomàsenkwé* edo *Tomàsenjé*, *Txurikonekwé* edo *Txurienjé* Lakuntza), etab.

#### 3.4.2. *-a vs. leku genitiboa*

Beste aukera bat *-a* eta *-koa* txandakatzea da: *Apeztegia* (Saragueta, 1623) / *Apeztegiakoa* (ib., 1614), *Etxeberria* (orain) / *Etxeberriakoa* (dok.) (Elkarte).

### 3.5. *-aga*

Toponimian milaka aldiz kausitzen dugu atzizki hau, baina oikonimian, *-eta* bezala, bakanetan baizik ez da agertzen. Dokumentazioan *Buztinaga* dugu Erratzun 1726an, *Laurnaga* eta *Legarraga* Iruritan hurrengo urtean, *Odoloaga* Oronozen 1726-27an. Bizirik dauden etxe izenen artean Azkarateko *Gorostiaga*, Oskozko *Eliçaga* (*Eliçaga* 1619an, Ih.p., 4) eta Sunbillako *Ondartzeaga* (*Ondarzagaga* 1726an) aipa daitezke.

### 3.6. *-baita*

Nafarroako alderdi batean eta Iparraldeko zenbait lekutan *-baita* atzizkia aurkitu ohi dugu oikonimo batzuetan. Hau agian toponimian azaltzen den erlatiboaren kide dateke (cf. *Aritzabaita*, *Elorriabaita* = *Aritzaden(e)a*, *Elorriaden(e)a* leku izendegian), edo bizidunen deklinabideko *baitan*, *baitatik*, *baitako*... eta bestetan opatzen dugun *-baita* bera, baina ez da segurua. Vinsonen arabera (1909: 350) “Les terminaisons *enea* et sur la côte *baita* sont des locatifs sans le *n* final et correspondent exactement au ‘chez’ de certaines régions de la France: *Dantcharienea* et *Dagieubaita* doivent donc se traduire ‘chez les Dantchari’ et ‘chez Dagieu’”.

Atzikiaren hedaduraz kestione, Iñigok dioenez (1996: 428-29, 2000: 144) Bortzerrietan ageri da, Arantzan, Beran, Igantzin eta Lesakan, baina ez Etxalarren. Beran, Obiek (1989) ondoko hauek biltzen ditu, besteak beste: *Agerrabaita* (*Aguerrebaita* 1726an), *Arbelaitzbaita*, *Arotxabaita*, *Arrosabaita* (berdin 1726an), *Bonbabaita* (*Bombabaita* 1726an), *Donsimonbaita* (berdin 1726an), *Indianobaita* (berdin 1726an), *Lazarobaita*, *Leonbaita*, *Leonperikobaita*, *Pablobaita* (berdin 1726an), *Plazidobaita*, *Sastrebaitako borda* (*Sastrebaita* 1726an), *Txuriobaita*, *Zarpalbaita*, *Zipiribaita* (*Zipiripaita* 1726an). Ikusten den gisan, gehienak antroponimo bati edo lanbide izen bati itsatsirik ageri dira. Lesakan, besteak beste, *Alzatebaita*, *Anbrosiobaita*, *Antxobaita*, *Arrosabaita*, *Baltasarbaita*, *Bezinobaita*, *Elenabaita*, *Gillemontobaita*, *Junbobaita*, *Morronbaita* eta *Sasikobaita* agertzen dira; kasu guztietan ebakera *-batta* da. Dokumentazioan ere ugariak dira *-baita*-dunak (ikus Ariztegi 1999). Igantzin, egun, bakarrik *Belarbaita* (*Belárbatta*) eta *Simonbaita* (*Simónbatta*) oikonimoetan kausitzen dugu; Etxalarren, berriz, Apezetxeak (1985) ez du alerik biltzen, ez dokumentazioan eta ez orain bizirik dauden oikonimoetan ere. Sunbillan orain *Anbrosabaita*, *Arterobaita*, *Erreflabaita*, *Eskribaita*, *Gartzibaita*, *Gillenbaita*, *Indinabaita*, *Martulapaita*, *Ordabaita*, *Oringlabaita*, *Pepabaita*, *Petrilapaita*, *Tresabaita*, *Txaladabaita*, *Txinepaita*, *Txipitabaita*, *Txuripaita* eta *Xinorbaita* erabiltzen dira; ebakera *-batta*, *-patta* ohi da.

Iñigok (1996: 429) XVIII-XIX. mendeetako *Amekabaita*, *Donjuanbaita*, *Eskribobaita*, *Gartziabaita*, *Gillenibaita*, *Juanbaita*, *Mariandibaita*, *Pablobaita*, *Sanjuanbaita* eta *Txaladabaita* aurkitu ditu Donezteben, bat ere ez Elgorriagan eta Zubietan, eta *Mariestebanbaita* (bizirik orain) Iturenen.

Iparraldean Lapurdin azaltzen da, ditugun datuen arabera honako herri hauetan: Azkainen (*Sabinabaita*, *Sabadinabaita*...), Behobian (*Artolabaita*, *Bergarabaita*...), Bidarten (*Pierrebaita*), Biriatur (*Betrikobaita*, *Frantxabaita*, *Salapiobaita*), Getarian (*Bernadettebaita*), Hiriburun (*Gurebaita*), Senperen (*Bixentebaita*, *Galtzagorribaita*, *Ganixbaita*), Urruñan (*Jatxubaita*, *Malobaita*...), Uztaritzen (*Betrikobaita*, *Portabaita*, *Urdinbaita*...) eta Ziburun (*Berruetbaita*). Etxegaraik (1926: 120-21) Donibane Lohizuneko *-baita*-dun oikonimo batzuk biltzen ditu (*Eleizalde-baita*, *Piarrño-baita*, *Urdin-baita*, *Urkixo-baita*).

Beste kontua da atzikiaren bilakaera diakronikoa zein izan den, hots, noiz has ten den agertzen eta nola joan den berretuz edo gutxituz; hemen ez dugu horrelako azterketarik egin gogo, baina, zernahi gisaz, Iñigo (1996: 429) ikus daiteke. Dena dela, erran nahi dugu lehen *-rena* zuten oikonimo batzuek gero *-baita* hartu zutela; Sunbillan, erraterako, *Arterorena* eta *Ordagorena* dokumentatzen dira 1726an, baina

egun *Arterobátta* eta *Órdagobattà* dira. *Borda* izena eransterakoan, hala ere, genitiboaz azaltzen da berriz orain: *Artéron borda*, *Órdon borda*. Datuetan ikusten da *baita*-dun izen batzuk berriak direla, atzizkia oraino ere emankorra delako frogatzen.

### 3.7. *-eta*

Toponimian milaka aldiz agertzen zaigun atzizki ezagun hau oikonimian ere opatzen dugu batzuetan: *Adameta* (Sara), *Altsueta* (Sunbilla), *Bastagilleta*, *Tolareta* (Lesaka), *Gerezieta* (Beruete), *Gorostieta* (Atallu), *Harotxeta* (Sara), *Harrieta*, *Kurutxeta* (Donostiri), *Lakoizketa* (Narbarte; *Lacuizqueta* 1727an), *Madaritxeta* (Luzaide) eta abar.

### 3.8. *-(t)egi*

Zenbaitetan *-(t)egi* atzizkia kausitzen dugu, antroponimo bati, lanbide izen bati, edo beste zerbaiti erantsirik: *Aldaitegia* (Etxalar, Ituren), *Amarrendegia* (Ezkuerra), *Andrestegia* (Sara), *Apeztegia* (Beruete, Etxalar, Irisarri, Ituren, Luzaide...), *Ahoztegia* (Arboti-Zohota), *Hargindegia* (Irisarri), *Irategi* (Leitza, *Yrattegui* 1726an), *Jaundegia* (Leitza; *Jaundeguia* 1726an), *Lizundegia* (Amaiur; *Lizundeguia* 1726an), *Lohitegia* (Amendüze-Unaso), *Medikutegia* (Sara), *Ofizialdegia* (Ainhize-Monjolose), *Paskualdegia* (Elgorriaga), *Pillotegi* (*Pillóti*, Lesaka; *Pillotegui* 1607an), *Txokotegia* (Elgorriaga; honek lekuari egiten dio erreferentzia. Ikus Iñigo [1996: 494]), *Xarlextegia* (Irisarri) eta beste.

Ohikoa da *Sutegia* oikonimoa (Arruazu, Beruete, Zugarramurdi; Elgorriagan 1774an ageri da); Goizuetan *Sutegizar* (*Xutéixár*) dago. Berueten, Imanol Rekon-dok dioskunez, herriarena da etxe hau; ijitoei eta uzten zaie, gaua non eman izan dezaten. Etxegarairen arabera (1926: 115) “zuarozkintzako lantegiari” erraten zaio *Sutegi*: autore honek, bildu ditugunez landara, Elizondoko, Lekarozko eta Urdazubiko *Sutegia* eta Iruritako *Suteigañea* aipatzen ditu.

### 3.9. *Etxea*

Izen hau duten oikonimo ohiko batzuk aski desitxuraturik daude gaur egun: *Artxea* (Amaiur, *Arrechea* 1726an; Berroeta, *Arrachea* 1727), *Barrantxea* (Amaiur, Arizkun; lehen herrikoa *Barrenechea* zen 1726an), *Barrantxegaraia* (*Barrenechegaraia* 1727an), *Barrentxia* (*Barrenechea* dokumentatua oraindik 1888an; Elgorriaga), *Bekitxea* (*Becoechea* 1726-27an, Goizueta), *Bekotxia* (< *Bekoetxea*, Beintza, Zubieta), *Berekotxia* (< *Bekoetxea*, Erratzu), *Dolatxea* (< *Dolareetxea*, Arizkun), *Gañikutxia* (< *Gainekoetxea*, Aniz), *Goikitxea* (*Goicoechea* 1726-27an, Goizueta), *Gontxea* (< *Goienetxea*, Arizkun, Azpilkueta), *Guantxea* (Etxalar, Zugarramurdi, *Goienetxeatik*), *Karakotxia*, *Karakotxea* (< *Garaikoetxea*, Erratzu, Labaien, Lekaroz, Oitz), *Kokotxia* (< *Goikoetxea*, Aniz, Oitz, Zubieta... Bigarren herrikoa *Cocoechea* zen 1726an), *Mingotxia* (< *Bengoetxea*, Beintza), *Pekotxia* (Anhauze), *Tolantxea* (Berroeta, *Tornalechea* 1727an) eta abar.

*Etxea* batzuetan nagusiaren izenari, deiturari edo lanbide izenari itsasten zaio, jabeago genitiboren bidez: *Apezaan itxa*, *Kaxkaloan itxa* (Arruazu), *Apezan itxe*, *Arro-*

*xan itxe* (Lakuntza), *Apézanitxia*, *Arótzan itxia* (Zubieta), *Àrghiñen itxja* (Etxaleku), *Arótzantxia* (Saldias), *Ezpóndain ètxeà*, *Garridoìn ètxeà* (Zilbeti), *Pédron itxe* (Golaratz), *Sakristau zaarraan etxje* (Etxarri Aranatz)... Zenbait aldiz lotura zuzeneko da (ikus beheitixeago).

Beste askotan kokalekua adierazten duen izen edo izenlagun batekin ageri da: *Aldakoetxea* (Ainhize-Monjolose), *Arakoetxea* (Atondo), *Azpikoetxea* (Sunbilla; herrriaren azpiko aldean dago. Igoan 1726an *Azpicoechea* ageri da), *Barrenetxea* (Amaiur, Beruete, Elgorriaga, Lesaka, Oskotz, Zugarramurdi; herrira iritsi eta lehenbiziko etxea da Berueteakoa, denetan beherenekoak), *Bazterretxe* (Etxalar), *Bazterretxea* (Zugarramurdi), *Bekoetxea* (Goizueta, Sara; lehenekoak herria igarota dago, Hernani aldera), *Bengoetxea*, *Berekoetxea*, *Beheretxea* (Sara), *Berekoetxea* (Erratzu), *Gainekoetxea* (Sara), *Garaikoetxea* (Etxalar, Erratzu), *Gibelekoetxea* (*Guibelecoechea*, Gorrontz-Olano, 1727; cf. *Aurrekoetxea*), *Goienetxea* (Luzaide, Sara, Zugarramurdi; lehen herriko etxea “frango gora” dago, erran digutenez. Zugarramurdikoa aldapan gora dagoen etxea da, elizaren parean ia), *Goietxea* (Etxalar, Igantzi, Sara, Sunbilla), *Goitikoetxea* (Artika), *Goikoetxea* (Beruete, Goizueta; bigarren herrikoa aski goian dago, nahiz badiren beste etxe batzuk gorago, beharbada berriagoak), *Urrutikoetxea* (*Urruticoechea*, Oskotz [1616, Ih.p., 4 eta 1727]; *Urrutia*, *Urrutea* auzoak ugariak dira Nafarroan —Urzainkin dugu bat, erraterako— eta beti ubideaz, erreka edo ibaiaz beste aldean dauzain auzoak dira).

Bestelakoei ere eranstzen zaie “etxea”: *Arronetxea* (Lekaroz, *Arróntxia* orain, *Arroetxea* 1727an), *Auzoetxea* (Oteitza Antsoain, udaletxea), *Auzetxea* (Errazkin), *Ballekoetxea* (Baztan, ibar osokoa ≠ *Errikoetxea*, herri bakoitzekoa), *Bordakoetxea* (Zugarramurdiko plazan dagoen etxe handia da), *Erreboteetxea* (Irurita, Etxegarai 1926: 115), *Errikoetxea* (Aurizperri, Beruete, Errazkin, Goizueta, Igantzi, Ituren, Lakuntza, Zugarramurdi... Iruritakoa 1727an ageri da), *Herrikoetxea* (Luzaide), *Geliyetxea* (Ituren), *Iturrikoetxea* (Etxaleku, Lesaka), *Labetxea* (Donamaria, 1726), *Landakoetxea* (Sunbilla), *Larretxea* (Lekaroz), *Ualdetxea* (Etxalar) eta abar.

Etxea handia, txikia, berria, zaharra, luzea den edo beste ezaugarri nabarmen bat duen ere maiz zehazten da oikonimoan: *Etxaundia* (Etxaleku, Luzaide, Zugarramurdi), *Etxatxiki*, *Etxetxiki* (Arruazu, Leitza, Zubieta), *Etxeberria* (Berroeta, Elgorriaga, Etxalar, Igantzi, Ituren, Lesaka, Oskoz, Sunbilla...), *Etxezar* (Arruazu, Igantzi), *Etxezarrea* (Saldias), *Etxebertzea* (Amaiur, Etxalar, Irisarri, Lekaroz, Orabidea), *Etxeluzea* (Berroeta, Lesaka), *Etxeparea* (Amaiur, *Echaparea* 1726an; Irisarri), *Etxetoa* (Irisarri, Lekaroz, Orabidea, Oskotz), *Etxetxoa* (Saldias), *Etxetxutea* (Zugarramurdi, *Echechutea* 1726an, *Etxutea* orain), *Etxaxuria* (Etxalar), *Etxezuria* (Amaiur; *Echezuria* 1726an)...

Batzuetan *etxe* izena aitzinean nahiz giblean agertzen da, antzeko balioarekin: *Etxabere* (Arizkun, 1726) / *Berekoetxea*, *Beheretxea* (Sara); *Etxebertzea* (Amaiur, Ituren, Lekaroz, Irisarri, Orabidea) / *Bertzetxea*<sup>2</sup> (*Berzeechea* Lizason 1727an, *Bertzítza* Beuntzan, *Bertzétxja* Arnegin, *Bertítzia* Iturenen); *Etxegaraia* (Arizkun, Irisarri) / *Garaikoetxea* (Erratzu); *Etxebarnea* (Beruete, Irisarri) / *Barrenetxea* (Elgorriaga); *Etxegoiena* (Irisarri) / *Goienetxea* (Irisarri, Luzaide) eta beste.

<sup>2</sup> *Etxeberria*-ren antzeko adiera du; honetaz ikus Iñigo (1996: 513, 520).



### 3.10. Jabego genitiboa

Oikonimoetan gehien aurkitzen dugun bukaera *-(a)rena*, *-(a)renea* edo *-enea* da. Dударik ez dago hemen genitiboaren hondarkiaren aurrean gaudela, eta hiru aldaera horiek elkarrekin estuki loturik daudela. Jatorrizko *-(a)rena*-ren azpian *-(a)ren etxea* dago, Sarako *Erretorarenea* / *Erretorainetxea*-n eta bestetan ikus daitekeenez. Goizuetan XVIII-XIX. mendeetan azaltzen zen bukaerako *-a* hori (Hernandorena 1978) gehienetan galdu egin da, Euskal Herriko beste toki batzuetan agitu den bezala. Errate baterako, XVII. mendean aurkitzen dugun *Zabaletarena* oikonimoa *Zabaletaenea* da XVIII eta XIX.ean, eta *Zabàltené* egun; *Lubienea* XVIII-XIX. mendeetan, *Lùiné* orain, *Franciscochonea* XVIII-XIX. mendeetan, *Frantxìskené* orain, *Pasqualluzene* 1726-27an, *Pascual-acenea* XIX.ean, *Paskòltzené* orain. Artikulua, halere, ez da kasu guztietan galdu: *Barbàreneá*, *Goikìtxeá* eta abar.

Genitiboaren hondarkiak bilakaera desberdinak izan ditu, herriaren arabera: *-arena* (*Sastrearena*, Garralda, Orbaizeta), *-ena* (*Xubienea*, Garraldan), *-ina* (*Kondeina*, Hiriberri), *-oina* (*Xubròina*, Garaioa)... Aezkoan (Camino 1997), *-enea* (*Alonsoenea*, *Androtenea*, *Ernautenea*), *-renea* (*Agedarenea*), *-inea* (*Anaenea*)... Aurizperrin ([-éněa], [-íněa] segur aski), *-ené* edo *-ené*: (*Mittoné*, *Plàzené*): Berueten, *-ana* (*Màisterrána*) Espartza Zaraitzun, *-énja*, *-nja* (*Domikénja*, *Ernatónja*, *Julínja*, *Màrimigelénja*, *Mikelénja*, *Txurdánja*, *Zapeteñénja*...) Etxalekun, *-ení* (*Juaní*, *Lòpení* < *Loperena* 1578an [HA.p., 4], baina *Lòpe:nekoá*) Goldaratzen, *-(e)njé* (*Angèlenjé*, *Argñénjé*...), *-añá* (*Emáañá* < *emagin*) Lakuntzan, *-(e)nia* (*Adámenià*, *Barbérenià*, *Mitxelènià*, *Petrinià*) Lesakan, *-ainja* (*Argináinja*, *Lasarráinja*), *-enja* (*Xapitelénja*), *-inja* (*Putikóinja*, *Ttippitóinja*) Luzaiden, *-aña* (*Bartolóna*, *Rikárdóna*, *Paskuálanà*, *Pàtxikóna*) Mezkitzen. Ikusten den bezala, atzizkiaren bilakaera, neurri batez, oinarriaren bukaerako soinuaren arabera da.

Batzuetan izen berezia du azpian, ikusi dugun bezala: *Antonena* (Atondo), *Añeserena*, *Balentiñena* (Lete), *Beltrarena* (Otxobi), *Betrienea* (Sara), *Migeltxorena* (Eritzebeiti), *Migeltorena* (Saratsa), *Nabarkonea* (*Narkonéa*, Zugarramurdi)... Beste batzuetan deitura dago: *Erbitirena* (Saratsa), *Lazkanorena* (Eritzebeiti), *Lapitzenea* (Luzaide), *Orokietarena* (Otxobi)... Zenbait aldiz izen-deiturak daude, eta maiz erdarazko *de* preposizioa aurkitzen dugu bien artean: *Juanderrozena*, *Juandemururena*, *Juanlopezenea*, *Martinsanzenea* (Saratsa), *Juanperitzenea* (Etulain)... Izen-izengoitiak ere maiz kausitzen ditugu oikonimian: *Juanbeltzenea* (Saratsa), *Juanestoandiarena* (Luzaide, 1765), *Juaniskoandiarena* (Itza), *Marimotzenea* (Azpillueta, 1726)... Maiz izengoitia bakarra dugu: *Atxoanea* (*Atxòané*, Beruete), *Beltxarena* (Aldaba), *Besugorena* (Ziritza, 1727), *Buruxurinea* (*Buxúinja*, Luzaide), *Galantenea* (Sara), *Gorritxorena* (Itza), *Jakaluxenea* (Luzaide), *Motzarena* (Atondo), *Niminoarena* (Arizkun, 1726) eta abar.

Zenbait aldiz lanbide izena dugu: *Harginaenea* (Sara), *Auspagin* (Leitza, *Auspaginènea* 1726an), *Illallenea* (Ituren), *Kapagillenea* (Elgorriaga, Ituren), *Merionea* (Doneztebe), *Sastrenea* (Arizkun, Ituren, Zugarramurdi), *Unainea* (Arizkun, *Unaiarena* 1726an), *Urtzallenea* (Etxalar), *Zapataginenea* (Goldaratx; *Zapatani* egun), *Zillargillenea* (Doneztebe, XVIII-XIX. mendeak)... Honetaz Etxegarai (1926: 115-17), San Martin (1997) eta Iñigo (2000) ikus daitezke. Beste batzuetan herritarren izena dago oikonimoaren oinarrian: *Amalaindarrarena* (Berriogiti), *Biurrundarrarena*

(Galar, 1727), *Etxarriarrarena* (Beraskoain, 1727), *Lasarraenea* (Luzaide), *Xubieta-rrenea* (Elgorriaga)..., edo (lehen) jabearen (jatorrizko) herriaren izena: *Guliarena* (Elkarte), *Labiorena*, *Labianorena* (Berriozar), *Oarritzena* (“Oarrichena” idatzia, Arizkun, 1726), *Taxoarena* (Artika)... Kasu hauetakoren batean deitura ere izan liteke herri izen hori.

Tarteka kokalekua da oikonimoaren sorrarazlea, eta hau aski harrigarria da, honelakoetan *-ko* espero izaten baita, edo artikulua, baina ez jabego genitiboak: *Baratzondonea* (Elgorriaga; herriaren bazter batean dago, baratzeen ondoan), *Plazanea* (Arruazu), *Plazenea* (Beruete, Ezkurra, Goizueta, Labaien; herriko plazan daude etxe hauek), *Puentene* (Goizueta; herriko zubiaren aurre-aurrean dago).

#### 4. Oikonimoen oinarriak ikertzea

Erran dugun moduan, oikonimoetan lehen izenak, deiturak —abizenak—, izengoitiak, lanbide izenak... eta beste agertzen dira, maiz elkarrengandik bereiztea ezinezko gertatzen bada ere. Garbi samar ikusten da, halarik ere, leku genitiboaren hondarkia kokapenarekin lotua dagoela ardura (*Iturrikoa*, eman dezagun), eta edutezko genitiboarekin antroponimoak azaltzen direla, hots, etxeen garai bateko jabeen izenak (*Petrinea*, erraterako). Salbuespenak ere badira, ordea, harritzeko aukera eman digutenak (*Plazenea*, *Puentene*... Ikus aurreko puntua).

Oinarrien azterketarekin loturik dagoen gaia oikonimiaren eta dialektologiaren artean dauden harremanak ikertzea da. Hau Iñaki Caminok garbi ikusi du, eta horregatik bere tesi lan bikainean orrialde batzuk eskaini dizkio gaiari (1997: 99-110). Honela dio Aezkoako euskara bildu eta aztertu duen ikertzaile honek:

Egin dezagun jauzi bat orain etxe izenetara. Etxe izenez ari garenean, gure ihardunaren helburua ez da sistematikoak diren atzizkien arteko paralelismoak bilatzera eta ibarrik ibar alderatzera mugatzen; ahalegin txiroegia litzateke hori oikonimoen erroen banaketa geografiko asistematikoagoa kontuan har ez baleza. Ongi da etxe izenetako atalik sistematikoena diren atzizkiak geografikoki erkatzea, alderaketa dialektologikoan morfologiako atal bat gehiago balitz bezala, baina are interesgarriago deritzogu inolaz ere, kulturarekin eta izenen hautapen moduekin loturik dauden oikonimoen erroak alderatzeari, lexikoa alderatzen arituko bagina bezala iharduteari.

Caminok halako lotura bat dakusa Aezkoako oikonimoetan —oinarrietan—, eta uste du Nafarroa Garaikoetatik hurbilago daudela Zaraitzukoak baino. Bestalde, autore honen arabera “garden” ageri da Pirinioetako bi ibarretan Ipar Euskal Herriko mugaren hurbiltasunaren eragina (1997: 100). Eragin hori bera ikus daiteke, baita ere, Luzaideko etxe izendegian. Hemen, adibidez, Frantziako hirietan oinarritutako *Bordelea* eta *Parisea* ditugu, mugakide diren *Arnegi* eta *Lasa* herri izenetan oinarritutako *Arnegizarrea* eta *Lasarraenea*-rekin batean. Dena dela, *Bartzelona* ere badago, bai eta *Granada* ere; hondarreko honek erreferentzia Andaluziako hiriri egiten dion ez da segurua, baina bai egiantzekoa.

## 5. Izen bereko etxeen bereizketa

Izen bereko bi etxe bereizteko bide bat baino gehiago daude. Normalean etxe bateko seme edo alaba batek beste etxe bat eraikitzen duenean *-berri* eransten zaio habia berriaren izenari eta, bereizte aldera, *-zarra* eraikuntza zaharrarenari. Batzuetan oikonimo zaharrak ez darama gehigarririk, baina bai berriak, edo alderantziz: *Antoneneberri / Antonenezarra* (Errazkin), *Apezenea / Apezeneberria* (Ituren), *Bidondoa / Bidondoxaharrea* (Luzaide; bigarren hau eroria dago), *Isaberrizarra / Isaberriberria* (Igantzi), *Iñatea / Iñateberria* (Beintza), *Martineneberria / Martinenezarra* (Arizkun)... Bereizketa bera egiteko *etxeberria* ere ibili izan da: *Agerrea / Agerretxeberria* (Igantzi), *Arretxea / Arretxeberria* (Etxalar), *Eiherazabalea / Eiherazabaletxeberria* (Irisarri).

Kokalekuaren arabera ere bereizten dira etxeak eta baserriak (ikus gorago *etxe* izen oikonimikoaz mintzatzean erran duguna). Kasu honetan *-garaia / -artea / -beherea, -bera, -azpia; -gañekoa, -goikoa / -bekoa, beikoa* edo *-azpikoa; -goia / -beia; beko, peko / gaineko, goi-* eta beste ibiltzen dira: *Agerrea / Agerreberea / Agerreondoa* (Lekaroz), *Aldalurra / Aldalurberea* (Etxalar), *Apezeneagoia / Apezenebeia* (Beintza), *Argaínea / Argainbeherea* (Donostiri, Irisarri), *Argarate / Argarategarai* (Igantzi), *Astibiagoiko / Astibiabeiko* (Leitza), *Beko Adamenea / Goiko Adamenea* (Igantzi), *Errekaldea / Errekaldeazpia / Errekaldegaraia* (Zubieta), *Etxeberria / Goietxeberria* (Igantzi), *Ezkurbideberea / Ezkurbidegaraia* (Etxalar), *Peko Ortxesenea / Gaineko Ortxesenea* (Ondarrola, Arnegi), *Sagardibea, Sagardiberea / Sagardigaraia*<sup>3</sup> (Ituren) eta abar.

Etxeek tamaina desberdina badute *-aundia* eta *-txikia, -ttikia, -txipia, -ttipia* ibiltzen dira normalean eta Arizkun bezalako herri batean *-itarrea, -txarra* eta *-talla* ere bai: *Artxea / Artxetxipia* (Berroeta), *Auspagin / Auspagintxiki* (Leitza), *Barrantxea* edo *Barrantxeaundia / Barrantxetxarra, Barrantxettalla* edo *Barrantxetxikia* (Arizkun), *Bidegaña / Bidegainttarrea* (Arizkun), *Etxeberria / Etxeberritikia* (Elgorriaga), *Erasoandi / Erasotxiki* (Errazkin), *Gogortza / Gogortzaundia* (Leitza), *Larrondoa / Larrondottipia* (Donostiri), *Latsaganea / Latsaganetikia* (Ituren), *Urto / Urtotxiki* (Leitza).<sup>4</sup>

Frankotan multzo desberdinetako zehaztaileak nahasten dira: *Arrosakoa / Arro-sattikia* edo *Arrosazarra* (Zubieta), *Erregenea / Erregenegaraia / Erregenetikia* (Lesa), *Garrotxipi / Garrobere* (Igantzi) eta abar.

Bestelako bide batzuk ere ibili izan dira izen bereko etxeak bereizteko: cf. *Etxeberria / Etxeberriasoraldea / Etxeberriairia* (Ornoz, 1727), edo *Otaolabarrena / Otaolabazterra / Otaolaberri* (kale baserria) / *Otaolaerdikoa / Otaolaetxeberri* (Eibar), non *Otaola* haranaren izena den. Ibar edo auzoaren izena baserriaren izenari aurretik jarririk agertzea arrunta da, kokalekua zehazkiago adierazte aldera edo: *Urkidi-Hipolitonekoa / Hipolitonekoa* (Eibar), *Pertalax Iruin* (< \**Pertalaxirigoi*en?) / *Pertalax Iribarnea* (Arizkun). Luzaiden, Satrustegiren datuen arabera, gibelean ere aurkitzen dugu: *Martiño Gaindola* eta *Martiño Gañekoleta*, eta izan ere horixe da er-

<sup>3</sup> Dokumentazioan *Sagardibecoa* edo *Sagardi beiticoa* eta *Sagardia Goiticoa* ere ageri dira (Iñigo 1996: 542 eta 1726ko apeoa).

<sup>4</sup> Nafarroatik kanpo *-txo* atzizki txikigarriaren bidez ere egin daiteke bereizketa: *Atxuri / Atxuritxo* (Elgoibar, Etxegarai 1926: 104).

daraz ibiltzen den hurrenkera, baina euskaraz *Gaindola Marttinoenea* eta *Gainekoleta Marttinoenea* erraten da, etxe horien beren adierazteko.

6. Oikonimoen sorburutako hartzen diren izenak: *bazter, bidea, dinda - inda, eliza, erreka, hiria, iturria, larrea, plaza, zubi...*

Oikonimo sortzaile diren izenen artean, garrantzizkoena eta zabalduena segur aski, *hiri* dugu, gutxienez Nafarroan, ditugun datuak ikusirik antzeman dakiokkeen neurrian. Izen hau, *hiri*, herrietako auzoak eta inguruak adierazteko ere biziki usaia-koa da, etxeek berezko izena duten alderdietan, eta horrelakorik ez dutenetan ere bai. Horrela ba, *Iribarren(a)* (*El barrio bajo*), *Iriarte(a)* (*El barrio medio, El barrio de medios*), *Irgoiien(a)* (*El barrio alto, El barrio de arriba*) aski zabalduerik daude gurean. Herriaren ondoko eremuak adierazten dituzten *Iribazter, Iriburu, Iriondo* eta *Irigibel* ere ezagunak dira.

Izen horiek, edo batzuk behintzat, maiz aurkitzen ditugu oikonimotako: *Iribarrene*, *Iribarnea* (Aintzila, Arizkun, Berroeta, Beruete, Etxalar, Gamue, Igantzi, Iri-sarri, Lekaroz, Luzaide, Zubieta), *Iriarte* (Ainhize-Monjolose, Aintzila, Amendüze-Unaso, Arizkun, Berroeta, Etxalar, Irisarri, Leitza, Lekaroz, Saldias, Zubieta, Zugarramurdi; Etxegaraik [1926: 103] Arraioz, Arrarats, Erratzu, Ezkurra, Gar-tzain, Irulegi, Irurita, Oronoz eta Ostitzen ere jasotzen du), *Irgoienea* (Igantzi, Zubieta), *Irgoienea* (Arizkun, Etxalar, Irisarri, Ituren, Zugarramurdi), *Iriondoa* (Aintzila, Arizkun, Etxalar, Igantzi). Normalean lehena herriaren beheko aldean egoten da, bigarrena erdialdean, hirugarrena goian eta laugarrena aldamenean.<sup>5</sup> Arizkunen *Iribazterra* dago, herriaren ondoan baina kanpoan, eta *Iriberria* ere bai, Karrikatik lekora; irudi du honek etorkiz *Etxeberria* edo *Salaberria*-ren antzeko adiera zuela. Zernahi gisaz, ustekabekoak ere izan daitezke, inoiz *Iribarrene* (*Iribarnia*) adibidez herriaren erdialdean egon daitekeelako, Labaienen bezala, eta ez beheko aldean; Igantziko *Iriberea*, ordea, herriaren beheko aldean da, izenak adierazten duen bezala. Etxalarren *Irisarria* dugu bizirik. *Hiria*-ren adieratik franko hurbil dago, zenbait lekutan, *karrika* 'erdigunea' izena: *Karrikarte* (Irisarri), *Karrikaburua* (Ainharbe, Anhaize, Luzaide, Sara), *Karrikaburu* (Elbete), *Karrikaburuttipia* (Hazparne), *Karrikiri* (Aloze-Ziboze-Onizegaine). Inoiz *Kale* ere agertzen da: *Kalegurutzea* (Doneztebe, XVI. mendea; cf. Arrangoitzeko *Bidekurutzea*).

Eliza da herri guztietan kausitzen dugun eraikuntza (ikus Etxegarai 1926: 110-13). Honek ere oikonimo anitz sorrarazi ditu, etxea elizaren ondoan dagoelako (*Elizondoa*, Amorotze-Zokotze, Beintza, Irisarri, Sara, Zugarramurdi, *Elizaga*, Os-kotz, *Elizegia*, Lekaroz), haren gaineko aldean (*Elizagarai*, Orbaizeta, 1774, A.p., 37, 2; *Elizgain*, Zubieta; berria da), azpiko aldean delako (*Elizabehere*, Aldude), hurbil delako (*Elizalde*, Arruazu, *Elizaldea*, Aurizperri, Azkarate, Berroeta, Beruete, Etxalar, Irisarri, Lekaroz, Sunbilla, Zubieta; *Elizalt*, Aloze-Ziboze-Onizegaine; *Elizari*, Artozki, 1616 [A.p., 2, 186], Jaurrieta, 1697 [Z.p., 20, 42]), elizaren aitzinean

<sup>5</sup> Gavelek (1920: 58) honela dio *hiri, iri* izena aztertzean: «...on a fait remarquer que dans certains villages, tels que Lichans, plusieurs noms de maisons comportant l'élément *hiri* semblent se rapporter à la situation qu'elles occupent dans l'agglomération».

(*Elizaintzinea*, Arizkun, *Elizaizinen*a 1826an [Baztango hipotekak 1, 92 zkia., 72-73. orr.]; *Elizabelarrea*, Irisarri) edo gibelean dagoelako (*Elizaguibel*, Orontze, 1687, Z.p., 12, 10, *Elizaguibelea*, Oiategi, 1727, *Elizaguibelecoa*, Getze Galar, 1727, *Elizguibela*, Doneztebe, 1883), harako bidean (*Elizabidea*, Arnegi), edo elizaren beraren etxea delako (*Elizetxea*,<sup>6</sup> Beintza, Elgorriaga, Sunbilla, Zugarramurdi; *Elizakoetxea*, Azpilkueta, 1726 eta 1826 [Baztango hipo-1, 92. zkia., 36]). Azken kasu honetan oikonimoa biziro ohikoa den *Apezetxea* edo *Apeztegia*-ren adierakidea da ("casa parroquial" Satrustegiren arabera, 1965-66: 20; ikus Etxegaraik [1926: 112] Vinsonen iritzia iruzkintzean dioena), edo iruditsua behintzat (Errazkinen biak ditugu; Leitza, berriz, *Apezenea* eta *Apezetxea*), eta ez dago arras urruti *Apezarena*, *Apezenea* (Etxaleku, Ituren, Leitza, Sunbilla...) hedatutik edo *Bikarioenea* murriztuxegotik (Ahetze, Lakuntza, Lesaka; Etxegaraik [1926: 112] Ataungo *Bikarioetxe* jasotzen du). Zugarramurdiko egungo *Elizagonea* ez da, irudi duen moduan, \**Elizagoienea*-tik atera, nahiz elizaren goitiko aldean dagoen, 1726an *Elizagunea* dokumentatzen baita. Ez dugu uste XVIII. mendearen lehen laurdenerako \**Elizagoienea* > *Elizagunea* pausoa egina zen, baina, zernahi dela, ez da ezinezkoa. Beintza elizaren eraikin berean *Elizetxea* (*Elitxià*) dago, elizatik hurbil *Elizondoa*, eta beste aldean, baina elizaren eraikinetik urrunkoago, *Elizaldegoia* eta *Elizaldebeia*.

Erreferentziazat maiz herriko erreka hartzen da eta hau dela-eta ohikoak dira *Errekalde* (Goizueta), *Errekaldea* (Amendüze-Unaso, Amorotze-Zokotze, Beruete, Iragi, Irisarri, Ituren...), *Errekartea* (Amorotze-Zokotze), *Laspidea* (Ituren), *Uhaldea* (Amorotze-Zokotze, Anhaize, Irisarri), *Uhaldeberria* (Lekuine), *Ugaldea* (Atallu, Lekaroz), *Uartea* (Doneztebe), *Uhartea* (Irisarri), *Urtxipia* (Zubietza) bezalako oikonimoak. Erreka eta ubide horiek gainditzeko erabiltzen diren zubiak ere oikonimo sortzaile oparo gertatu dira: *Zubialde* (Espartza Zaraitzu), *Zubialdea* (Arizkun, Ituren), *Zubiartea* (Arizkun, bi zubiren artean dago), *Zubigain* (Sunbilla), *Zubiria* (Arraioz, 1727), *Zubimusua* (Goizueta), *Zubipunta* (Erratzu), *Zubiondoa* (Etxalar, Irisarri), *Zubizargaña* (Sunbilla)... Polita da burdinazko zubi baten ondoan zegoen Luzaideko *Burdinzuha* etxearen izena (*Casa puentehierro* erdaraz; orain hondatua dago. 1726an *Burdinerreca* izeneko etxea ageri da), eta orobat herri bereko *Zuhiaundia* (*Çubiandia* 1644an, *Zuhiaundi* 1770ean; Satrustegi 1968: 141 eta 1965-66: 29, hurrenez hurren).

Herrietan aurkitu ohi dugun beste oikonimo sortzailea iturria da. Hemen ere, elizaren kasuan bezalatsu, mota bateko edo besteko postposizioak agertzen dira *iturri*-rekin batean, etxearen kokagunea xehekiago zehazte aldera: *Iturrialdea* edo *Iturraldea* (Ainhize-Monjolose, Arizkun, Berroeta, Etxalar, Ituren, Labaien, Lekaroz...), *Ithurrartea* (Irisarri), *Iturberea* (Etxalar), *Iturbidea* (Elgorriaga), *Iturburua* (Luzaide), *Iturburu* (Sunbilla), *Iturregi* (*Yturreguy*, Irurita, 1531, E.p., 1, 148), *Iturrikoetxea* (Etxaleku, Lesaka), *Iturriondoa* (Arizkun), *Iturriria* (Erratzu, 1726)... Inoiz *iturri* izena aski da, huts-hutsa, atzizkiren batekin edo leku genitiboaren laguntzarekin: *Iturria* (Beruete, Lesaka, Zugarramurdi), *Iturrieta* (Aldude), *Iturrikoa*

<sup>6</sup> Larraungo Iribasen, 1726an, hau ageri da: «Juan de Arttola dueño dela Cassa Vezinal llamada Elizalde ô Elizechea».

(*Iturricoa*, Orotz-Betelun, 1613an eta 1625ean, A.p., 2, 169 eta 2-bis, 247. Egun Urritzola Arakilen dago bizirik, Etxegarai 1926: 94).

Beste erreferentzia puntu garrantzizkoa plaza da; hau bere inguruan eraiki diren etxeak izendatzeko erabiltzen da, huts-hutsa (*Plaza*, Zugarramurdi), postposizio batekin (*Plazaburua*, Arizkun), leku genitiboarekin (*Plazacoa*, Adiots eta Getze Galar, 1727) edo jabego genitiboarekin, hau bitxia bada ere edo izan behar balu ere (*Plazania*, Arruazu, *Plazene(a)*, Beruete, Goizueta, Labaien). Ezkina edo kantoiek ere oikonimoak sortzen dituzte: *Eskiñea* (*Ixkiñià*, Ituren), *Eskinakoa* (Ezkirotz, 1727), *Kantonea* (Ainhize-Monjolose), *Kantonekoa* edo *Kantorena* (Berriobeiti), *Kantorena* (Berriozar). Zoko eta bazterretan egoteak ere izena eman diezaioke etxeari: *Xokoa* (Anhauze), *Zokokoa* (Arraitza, 1727), *Bazterrekoa* (Espartza Galar, Ziritza, 1727) eta abar.

*Bide*, *dinda* - *inda*, *galtzada*, *gamio*, *kamioa* (< *camino*), *kaminoa* odonimoak ere oikonimo frankoren oinarrian kausitzen ditugu (ikus Etxegarai 1926: 97-98): *Bidagorria* (*Vidagorria*, Narbarte, 1727), *Bidartea* (Aldude, Anhauze, Luzaide), *Bidegainea* (Lasa), *Bidegarria* (Irisarri), *Bidondoa* (Luzaide), *Dinda* (Goldaratz, Oskotz), *Galtzada* (Elgorriaga), *Gamioa* (Arizkun, Elbete, Erratzu, Lekaroz), *Kamioa* (Ituren, Labaien), *Kaminoa* (Zugarramurdi), *Indea* (Aniz), *Inda* (Berroeta, Lekaroz), *Indartea* (Arizkun, Elgorriaga, Irisarri, Lekaroz, Orabidea), *Indaburua* (Zugarramurdi).

Nekazaritza eta abeltzaintzan garrantzi handia (izan) duten izenak ere aurkitzen ditugu etxe izenen iturritako: *babatze*, *baratze*, *berro*, *ira*, *landa*, *larrain*, *larre*, *sagardi*, *soro* eta beste: *Babatzea* (Arizkun), *Baratzezabal* (Arizkun), *Berroa*, *Berroaundia* edo *Berrobeltza*, *Berrozuria* (Arizkun), *Lakainberro* (Etxalar), *Irategi* (Leitza), *Landartea* (Anhauze), *Landaberroa* (Arizkun), *Larraldea* (Amorotze-Zokotze, Arizkun, Irisarri, Lekaroz), *Larraña* (Gamue), *Larrañekoa* (Zubieta), *Larrabazterrea* (Arizkun), *Larraburu*, *Larrakaitz* (Sunbilla), *Larrasaiets* (Etxalar), *Sagardia* (Zubieta, Zugarramurdi), *Sorhoeta* (Irisarri), *Soroa*, *Xoraxuria* (Sunbilla) eta beste.

Toponimo itxura izugarria duten izenak ere kausitzen ditugu oikonimoetan, aipatutakoez landara: *Ameztoia* (Irisarri), *Arburua* (Doneztebe, Etxalar, Zugarramurdi), *Elordi* (Azkarate), *Gaztainaldea* (Zugarramurdi, *Gastaña aldea* 1726an), *Gogortza* (Leitza), *Intxauspea* (Irisarri), *Korostartzua* (Arizkun, Lekaroz), *Istilartea* (Zugarramurdi, *Estillartea* 1726an), *Itxauburu* (Sunbilla), *Mendiburua* (Gamue), *Nabarlatzea* (Luzaide; *Navarr Olatze* 1284an. Ikus *TAV*, 2.1.8, *Nabarlaz* 1644an, Satrustegi 1968: 140), *Oianburua* (Arbona), *Zelaia* (Etxalar)... Hauetako batzuk izen bereko alderdian eraiki direlako deitzen dira horrela (ikus Caro Baroja 1974: 63); beste batzuek, berriz, kokaguneari edo eremu horretako ezaugarri nabarmen bati zor diote izena, hots, deskribatzaileak dira.

## 7. Etxe izenen eta deitura-izengoitien arteko harremanak

Antroponimiaren eta oikonimiaren bidegurutzean, askotan etxe izena “deitura” edo “izengoiti”-tzat ibili izan da, beste anitzetan antroponimoak oikonimoari sorrera eman dion gisan: *Sancho Ansoseme* (Ilarratz, 1605, UE.p., 39), *Mariajuan Papachena* (Garralda, 1613, A.p., 2, 169), *Martin de Beunza Sebillarena* (Beuntza, 1616, Ih. p., 4) eta abar. Luzaiden, 1726an, garbi ikusten da jende batzuek deitura oikonimotik hartzen dutela; adibidez, *Graciana de Yrazoqui* alarguna *Dorre* izeneko etxean bizi zen eta haren senar orduko hila *Pedro de Dorre* zen. Herri bereko *Echeve-*

rrri etxean (*Etxeberria* orain) *Juan de Echeverri* bizi zen garai hartan, *Granada* etxean *Juan de Granada*, *Bordel* etxean (*Bordelea*-n) *Juan de Bordel*, *Nauarlaz* izenekoa (*Nabarlatzea*-n) *Juan de Nauarlaz*, *Martinena*-n (*Martinenea* gure egunotan) *Martin de Martinena*, etab.

Beste herrietan gauza bera gertatzen zen; Amaiurren *Pedro de Salaberri* bizi zen *Salaberria* etxean 1726an, Zugarramurdi *Juan de lapizea Lapizea*-n (*Lapitxea* egun), *Juan de Barrenechea Barrenechea*-n, *Lorenzo Vizcarrondo Vizcarrondoa*-n, *Martin de Salaberria Salaberria*-n (*Salaberria* orain), *Martin de Camino Camino berea*-n (*Kaminoa* orain; *Camino Garaya* ere bazen XVIII. mendean), *Baptista de Sansinena Sansinena*-n, *Esteban de Mendiondoa Mendiondoa*-n, *Miguel de Goyenechea Goyenechea*-n, *Miguel de Echinique Echiniquea*-n (*Etxenikea* orain)...

Ez da dudarik egungo *Barrenetxea*, *Bizkarrondo*, *Etxeberri*, *Etxenike*, *Kamino*, *Goienetxe(a)*, *Martinena*, *Nabarlatz*, *Salaberri(a)*, *Sansinena*... deiturak aipatutakoen ondorengoak direla, garai batetik aitzina izendapen horiek deituratzat finkatu baitziren. Orain deiturak, ezaguna denez, ez dira aldatzen, baina horietako anitzen oinarrian dauden oikonimo-izengoitiek oraino osagarri ona dute gure herrietan, nahiz uste izatekoa den euskararen gibelamenduarekin eta bizimodu aldaketarekin usadio hau ere arriskutan egon daitekeela. Salabururekin batean (1984: 312) erran dezakegu ohitura zaharra dela etxe bateko nagusiari etxeko izenaz deitzea eta ez bataioz eman ziotenaz. Zernahi gisaz, normalean ez da oikonimo osoa ibiltzen izengoiti horiek —antzina deitura iturri zirenak— sortzeko, nolabaiteko oinarria baizik. Gainera, izengoitian oikonimoan ageri ez den osagairen bat ere ager daiteke, atzizki hipokoristikoa, erraterako, eta palataliza daitezkeen kontsonanteak maiz bustirik aurkitzen ditugu, goitizenetan ohikoa den bezala; hain zuzen ere, oikonimoa motza denean palatalizatzea da zenbait aldiz oikonimoaren eta izengoitiaren arteko aldea, honelakorik beti ez badago ere (*Elórğa / Elórğa, Meáka / Meáka* Arizkun, Salaburu 1984: 312). Bestalde, oikonimoaren luzera eta honetan oinarritutako izengoitiarena ez da bera izaten, eta, honen ondorioz edo, azentuaren kokapena ere bana ohi da. Hona hemen adibide batzuk, izan duten bilakarearen arabera sailkatuak:

- a) Palatalizazioak oikonimoa eta izengoitia bereiz ditzake: *Bénta* → *Béntta* (Aniz), *Índe* → *Índde* (Berroeta), *Pertaláts* → *Pertalátx* (Arizkun, Salaburu 1984: 312). Inoizka palatalizazioarekin batean bokal erortzea ere gertatzen da: *Erratxúríz* → *Erratxútx* (ibid., 312).
- b) Genitibo hondarkiaren ezabaketa: *Antonjóinja* → *Antónjo / Antonjósa* (Ondarrola, Arnegi), *Errándenià* → *Erránddo* (Ituren), *Kanakónja* → *Kanáko* (Aniz), *Kartxótenià* → *Kartxót* (Donamaria), *Kaxáinja* → *Kaxáu* (Arnegi), *Maestráinja* → *Maéstru* (Luzaide), *Maitonéa* → *Máito*, *Martiskenià* → *Martisko* (Saldias), *Matxintonéa* → *Matxínto* (Arizkun, Salaburu 1984: 312), *Mikeláinja* → *Mikeláu* (Luzaide), *Mingótxenià* → *Mingótx* (Donamaria), *Noblerenea* → *Ñoble* (Beskoitze, Duhau 2003: 334), *Oxeténja* → *Oxét* (Arnegi), *Petrínja* → *Pétri* (Aniz), *Xabáltenià* → *Xabált* (Donamaria), *Zapatonéa* → *Xapáto* (Arizkun, Salaburu 1984: 312).
- c) Behin edo beste genitiboaren hondarkia baino gehiago ezabatzen da: *Oztabanéa* → *Ózta* (Arizkun, Salaburu 1984: 312).

- d) Genitiboaren hondarkiarekin ageri den bukaerako *-a*-ren ezabaketa: *Albinià* → *Albíne*, *Apézenià* → *Apéxenè*, *Arrósenià* → *Arróxenè* (Ituren), *Ernótenià* → *Ernóntenè* (Oitz), *Gartxénja* → *Gartxéne* (Aniz), *Jwánià* → *Jwáne* (Ituren), *Lopétenià* → *Lopéttenè* (Gaztelu), *Loprénià* → *Lopréne* (Saldias), *Lwísenià* → *Lwísne* (Zubietea), *Martínià* → *Martíne* (Saldias), *Martjórnià* → *Martjórne* (Oitz), *Otxónià* → *Otxóne* (Labaien, Saldias), *Xixtérnià* → *Xixtérne* (Ituren).
- e) Genitiboaren hondarkiarekin ezabaketa eta atzizki hipokoristikoaren gehiketa: *Arginénja* → *Argíntto* (Amaiur).
- f) Oikonimoaren azken segmentuaren ezabaketa eta, batzuetan, atzizki hipokoristikoaren gehiketa; hau oikonimoak *borda* osagaia duenean gertatzen da: *Zipuntekobórda* → *Zipúnt* (Arizkun, Salaburu 1984: 312), *Mokotikoborda* → *Mokótto* (Oitz), baina *Agerrekoborda* → *Agerrekoborda*, *Harrietakoborda* → *Harrietakoborda* (Beskoitze, Duhau 2003: 334).
- g) Oikonimoaren azken *-a*-ren edo *-ea*-ren ezabaketa. Hau edozein jatorritako izenei gertatzen zaie, baita genitiboaren hondarkia dutenei ere, gorago ikusi moduan: *Agorreta* → *Agorret* (Beskoitze, Duhau 2003: 334), *Albérruà* → *Albérrro* (Amaiur), *Arrétxia* → *Arrétxe* (Sunbilla), *Barbáñja* / *Barbájn* (Amaiur), *Batzabaléa* → *Batxábal*, *Batxabál* (Arizkun, Salaburu 1984: 312), *Bidóndwa* → *Bidóndo* / *Bidondósa*, *Bidártja* → *Bidárt* / *Bidartésa* (Luzaide), *Danbólínià* → *Danbólíñ*, *Txéberrià* → *Txéberri* (Saldias), *Etxézarrià* → *Etxézar* (Oitz), *Garroa* → *Garro*, *Hananedérrea* → *Hananeder*, *Harrieta* → *Harriet* (Beskoitze, Duhau 2003: 334), *Hégja* → *Hégi* (Ondarrola, Arnegi), *Indartéa* → *Indárt*, *Iriertéa* → *Iriért* (Arizkun, Salaburu 1984: 312), *Ixinikja* → *Ixiniki* (Aniz), *Kamiuà* → *Kamio* (Ituren), *Kokótxja* (Aniz), *Kokótxià* (Oitz) → *Kokótx* (Aniz, Oitz), *Kortaria* → *Kortári* (Arizkun), *Máixtamattià* (< *Mariestebanbaita*) → *Máixtamattè* (Ituren), *Olásuà* → *Oláso*, *Olázarrià* → *Olázarre* (Saldias), *Ormartéa* → *Ormárt* (Arizkun, Salaburu 1984: 312), *Uhagonea* → *Uhagon*, *Uzpuruià* → *Uzpuru* (Beskoitze, Duhau 2003: 334), *Zamálla* → *Zamáil* (Aniz), *Zubildja* (< *Zubialdea*) → *Xubilde* (Ituren). Luzaideko *Maatxéta*, *Maéxta* (*Madaricheta* 1726an; *Casa Madaríttx* erdaraz) kasu berezia da: etxeko jaunari *Madaríttx* edo *Maatxét* erraten zaio eta etxekoandreaki *Maàtxetésa*.
- h) Beskoitzen *-tegia* atzizkia ere desagertu daiteke: *Xurtotegia* → *Xurto*, *Xuxutegia* → *Xuxu* (Duhau 2003: 334).
- i) Beintzan eta Labaienen genitiboaren hondarkia edo bukaerako *-a* galtzen direnean, gehienetan, *-o* aurkitzen dugu izengoitian, beti gizonekikoetan: *Arráintzenià* → *Arráintxo* (B, *Arraizenea* 1726-27an), *Béintxenià* → *Béintxo* (B, *Benhonea* 1726-27an), *Borósenià* → *Boróso* (L), *Buxíndenià* → *Buxíndo* (L), *Garáxnja* → *Garáxo* (B), *Iñárrrià* → *Iñárrro* (B), *Joándenià* → *Joándo* (L), *Joántenià* → *Joánto* (L), *Joántxenià* → *Joántxo* (L), *Miándenià* → *Miándo* (L), *Petriknià* → *Petriko* (B), *Pizárnià* → *Pixárrro* (B), *Suíttenià* → *Xuítto* (L), *Txíspià* → *Txíspo* (L), *Xaráxià* → *Xaráxo* (L), *Xorgíñ(e)nià* → *Xorgíño* (L). Hauetako batzuen arrazoa historikoa, etimologikoa izan daiteke: *Béintxenià* (< *Benhonea*), *Joándenià* (< *Joandonea* 1726-27an, *Joandotik*), *Joántxenià* (< *Joanchonea* 1726-27an), *Petriknià* (< *Petricorena* 1599an



[ih.p., 2] eta 1726-27an), *Pizárnià* (< *Vizargorrienea*, 1726-27an), baina ez denena, jakina: *Borósenià* (*Borossenea* 1726-27an), *Garáxnià* (segur aski 1726-27ko *Gragirena* bera), *Iñárrìa* (*Yñarrea* 1599an, Ih.p., 2), *Miándenià* (< *Meramendiñena*, 1726-27), *Xorgiñ(e)nià* (< \**Zurgiñenea?*)... Hortaz, analogiak eragin diela pentsatu beharko dugu; bada salbuespenen bat, -o-z bukatzen ez den izengoitiren bat: *Iñátià* → *Iñáte* (B).

Hemendik hurbil, Iturenen, bada horrelako kasuren bat, nahiz eta bukaera ohikoa ez den: *Errándenià* → *Erránddo* (hemen etimologikoa da, oinarrian *Errando* baitago), *Katxálinià* → *Katxálo* (hemen, izatekotz ere, analogikoa izanen da bukarako -o hori, oinarrian *Katxalin* hipokoristikoa baitago). Saldiasen ere badira horrelakoak; arrazoia etimologikoa ohi da: *Koskórrenià* (*Coscorrena* 1709an) → *Koskórro*, *Martískenià* (*Martiscorena* 1726an) → *Martísko*... baina ez beti: *Intxúrià* (*Onchuria*, 1726) → *Intxúro*, *Zurgíñia* (*Zurgiñenea* 1726an) → *Zurgíño*.

## 8. Gure egunotako etxe eraiki berrien izendabideak

Gure egunotan herri euskaldunetan eraikitzen diren etxeak maiz euskarazko izen batez bataiatuak izaten dira; hau batzuetan gure tradizioarekin bat dator baina gehienetan bestelako izen “desirazko”agoak jartzen zaizkie etxeei. Anizen, erraterako, *Irigoi*en deiturako familia batek eraikitako etxe berriari *Irigoienea* izena eman diote, euskal usadioaren arabera ohikoa *Irigoieneña* izanen balitz ere. Herri berean, *Iantzi* deiturako beste familia batek eginikako etxe berriari *Iantzineña* ezarri diote, oraingoan gure tradizioaren bidetik. Kontuan hartu behar da, dena dela, *Irigoieneña* ebakitzen aski zaila dela, *Iantzineña*-rekin alderatzen bada bederen; cf. Iturengo 1655eko *Joanarena*, *Juanenea* 1712an, *Juareña* 1773an, *Joánià* egun (Iñigo 1996: 527). Tradizioaren ildoko beste izen batzuk Zubietako elizaren gaineko aldean dagoen *Elizgain* txalet berria, errotaren ondoan dagoen Beintzako *Errotondoa* eta gutrutzaren ondoan dagoen herri bereko *Gurutzondoa* dira. Bestalde, Beintzan *Iñateña* etxeok etxe berria egin dutenean *Iñateberria* deitu dute, gure hizkuntzan ohikoa izan den bideari jarraikiz.

Gaur egun “nahizko”, “desirazko”, “maitasunezko”, “ametzeko” izenak ohikoak dira eta usu *gure* izaten dute osagai: *Bethi Nahia* (Angelu), *Ene Ametsa* (Angelu), *Ene Desira* (Arrangoitze), *Gure ametsa* (Ainhua, Angelu, Baigorri, Basusarri, Hazparne, Igantzi, Isturitze, Jatsu Lapurdi, Martxueta, Mugerre, Zubieta), *Gure atsegina* (Goizueta), *Gure desira* (Irisarri, Uharte Garazi), *Gure doia* (Angelu, Arboti-Zohota, Azkarate Baigorri, Basusarri, Donazarre, Donibane Garazi...), *Gure etxea* (Donazarre), *Gure nahia* (Amorotze-Zokotze, Beskoitze, Hazparne, Mithiriña...), *Nahi bezala* (Biriatu), *Nahi nuena* (Azkaine), *Nahi genduená* (Gipuzkoako Aginaga), *Nere doia* (Angelu)... Usaiakoak dira, orobat, *txoko*, *xoko*, *kaiola*, *ohantzeta* izenak beren baitan biltzen dituztenak: *Gure Txokoa* (Igantzi, Udabe), *Gure Xokoa* (Amendüze-Unaso), *Nere Xokoa* (Aiziritze), *Xoko Ona* (Ahetze, Arberatze-Zilhekoa), *Gure Kaiola* (Beruete, Igantzi, Urruña). Bakanagoak dira *egoitza* dutenak: *Egoitza* (Arrangoitze), *Gure Egoitza* (Arbona, Uharte Garazi).

Bikote eraikitzaileari edo bederen bertan bizi denari erreferentzia egiten diotenak ere badira: *Bi Anaiek* (Azkaine), *Biena* (Angelu, Arrangoitze, Getaria Lapurdi), *Bien artean* (Arrangoitze), *Gu Biena* (Ainhua), *Gurea Da* (Arrangoitze), *Guretzat*

(Lekorne edo Makea), *Elgarrekin* (Arrangoitze, Eihalarre), *Elkarrekin* (Zugarra-murdi), *Zuk eta Nik* (Azkaine).

Tokiaren argitasunaz mintzo zaizkigunak ere maiz kausitzen ditugu: *Argia* (Angelu), *Argi Alba* (Urruñia), *Argi Alde* (Azkaine), *Argi Eder* (Azkaine, Urruñia), *Argi Leku* (Igantzi), *Argi Lore* (Saldias), *Argi Tirrintta* (Kanbo), *Argialde* (Aniz), *Argitzea* (Arbona, Arrangoitze), *Argizabal* (Arbona), *Beti Argi* (Amendüze-Unaso), *Goiz Argi* (Ainhoa, Aiziritze, Etxalar, Igantzi), *Goiz Argirat* (Donibane Garazi), *Goizargi* (Ituren), *Itzalarisiko borda* (Elizondo)... Azkenekoan, ikus daitekeenez, *argia*-rekin batean *itzala* ere ageri da; Etxalarko *Gure Itzala*-n, berriz, bakarrik hondarrekoa dago.

Lekuaren edo etxearen edertasuna, egokitasuna, goxotasuna adierazten dutenen artean, berriz, hurrengo hauek ekar daitezke hona: *Alderdi Eder* (Igantzi), *Bizkar maitea* (Igantzi), *Emen Ongi* (Arbona), *Etxe goxo* (Etxalar), *Etxe goxoa* (Hazparne), *Etxe maite* (Etxalar), *Etxe maitea* (Aiziritze, Hazparne), *Hemen Ongi* (Arrangoitze), *Hemen ontsa* (Hazparne), *Goxo-Goxua* (Aloze-Ziboze-Onizegaine), *Lakelekua* (*Lakelekja* < *laket* + *lekua*; Pekotxetako ostatua, Luzaide. Ainhoan ere bada *Lakelekua* izeneko etxea), *Lekueder* (Igoa), *Lekuederra* (Etxalar), *Leku Eder* (Elbete, Azkaine, Igantzi, Zugarraurdi), *Lur Ederrean* (Azkaine), *Nun hobeki* (Ainhoa, Arnegi), *Toki Eder* (Ainhoa, Arizkun, Azkaine), *Toki Ona* (Amorotze-Zokotze, Angelu, Etxalar, Kanbon). Bakea ere ohikoa da oikonimo berrietan: *Bakea* (Angelu, Arboti-Zohota, Arrangoitze, Bidaxune, Bidarte, Igantzi, Ortzaize, Senpere, Urruñia...), *Bakean* (Bidarte, Donibane Garazi...), *Hemen bakean* (Basusarri), *Bake ona* (Azkaine), *Emak bakea* (Baigorri), *Gure bakea* (Urduñarbe), *Orai bakea* (Lakarra?).

Toponimian bezala (*Mirabuenos*, *Vistabella*...) oikonimian ere usaiakoak dira *bista* edo *bixta* osagaia dutenak, hots, normalean leku goretan kokatutako etxeetatik ikusten denari erreferentzia egiten diotenak: *Bista Eder* (Amendüze-Unaso), *Bista Ederra* (Angelu), *Bixta Eder* (Ainhoa, Amendüze-Unaso, Angelu, Arnegi, Arrangoitze, Azkaine, Irisarri, Uharte Garazi...), *Bixta ederra* (Arrangoitze), *Itsaso Bista* (Arrangoitze) eta abar.

Etxea dagoen alderdia haizetsua dela erraten dutenak ere badira:<sup>7</sup> *Aire Ona* (Arbona, Arrangoitze, Arruta-Sarrikota, Azkaine, Irisarri), *Airosa* (Kanbo, Urruñia), *Aize Egoa* (Angelu), *Aize Hegoa* (Haltsu), *Aizepean* (Urruñia), *Haize* (Luhuso, Mugerre), *Haize Alde* (Arrangoitze, Beskoitze), *Haize Egoan* (Azkaine), *Haize Hegoa* (Arrosa, Bidarra, Irisarri), *Haizehegoa* (Ligi-Atherei), *Haize Garbia* (Hazparne), *Haize Garbian* (Angelu), *Haize Leku* (Ainhoa), *Haize Lekua* (Arrangoitze), *Haizetxu* (Hazparne), *Lau Aizetan* (Basusarri), *Lau Haizeak* (Uharte Garazi), *Lau Haizeta* (Lekaroz), *Leku Airosa* (Baigorri), *Mendi Aire* (Azkaine), *Ortz Aizean*<sup>8</sup> (Ortzaize).

Toki eguzkitsuan dagoela adierazten dutenak ere ardurakoak dira: *Agur Iduzkia* (Getaria Lapurdi), *Agur Iguzki* (Larresoro), *Eguzkialde* (Amaiur, Berroeta, Lakarra), *Iguzkialde* (Kanbo), *Eguzkialdea* (Igantzi, Ituren, Oitz), *Goizeko Iguzkiari* (Irisarri), *Iduzki Eder* (Arruta-Sarrikota), *Iduzki Sartzea* (Getaria Lapurdi), *Iduzkia* (Angelu), *Iduzkiari* (Azkaine), *Iguzkian* (Angelu, Bidarra, Uharte Garazi), *Iguzkiko etxea*

<sup>7</sup> Badaiteke Ipar Euskal Herriko oikonimo batzuetan *airosa* 'alaia, bizia' izatea.

<sup>8</sup> Hemen, bistan denez, izen arrunta (*haize*) eta herriaren izena (*Ortzaize*) nahasi dira, berariaz, hitz jokoa eginez.

(Ahatsa-Altzieta-Bazkazanen), *Iguzkirat* (Anhauze), *Iruzkipean* (Donibane Garazi), *Oro Iduzkian* (Angelu)... Honelakoak, dena dela, gure tradizioko izenekin nolabaiteko lotura badute; cf. Sunbillako 1726ko *Iguzkiagirre* oikonimoa eta 1625erako dokumentatzen den Etxalarko *Iguzkiagerrea*.

Urte sasoi baten izena dutenak ez dira ezezagunak: *Primadera* (Beskoitze, Hazparne, Jatsu Garazi, Lasa, Lekorne...), *Primaderako lorea* (Senpere), *Larrazkena* (Donibane Garazi, Uharte Garazi), *Udazkena* (Kanbo). Izen “idilikoak” ere badira: *Ixilean* (Azkaine), *Jauzi kanta* (Azkaine), *Kuku kanta* (Azkaine), *Lilia* (Getaria Lapurdi), *Lorea etxea* (lehenago *Zubipunta* deitua, Iruñea; eraitsi egin zuten), *Loretzkoa* (Aldude), *Paraiso* (Oiartzun), *Ttiunta* (Izpura), *Txori Toki* (Igantzi), *Udako lorea* (Senpere), *Xori* (Bastida), *Xori kanta* (Ahetze, Arrangoitze), *Xori kantu* (Donibane Garazi), *Xori kantua* (Uztaritze), *Xoriak kantuz* (Ahetze), *Xoriekin* (Arruta-Sarrikota, Senpere, Zuraide).

Egungo euskal oikonimia berriaren beste joera bat, Hegoaldean behintzat, etxea egin dutenen deituren nolabaiteko batuketatik atera diren etxe izenak sortzea da: *Bere-Lain* (Bereau & Etulain), *Estebetxea* (Santesteban & Telletxea, Zubieta), *Urzamendi* (Urtzainki & Mendizabal; Arruazu), *Iriar-Mendi* (Iriarte & Mendiola, Goñi)<sup>9</sup>... Behin edo beste etxearen izena jabearen deituraren itzulpena da: *Elur-Etxea* (Goldaratz; nagusia *Miguel Nieve* da, Imotz eta Basaburuko telefono gidaren arabera).

Zenbait aldiz kokaguneari egiten diote erreferentzia: *Muga Alde* (Arnegi), *Mendi Alde*, *Mendigain* (Igantzi), *Goialdea*, *Mendialdea* (Ituren), *Ameztialde* (Zubieta), *Saraldea* (Zugarramurdi; Sarako bidean dago)... Beste batzuetan etxe berriak eraikia izan den aurkintzaren izena hartzen du, gure tradizioko oikonimo anitzek bezala: *Larrexar* (Ituren), *Muñagain* (Arruazu); Saldiasko *Urtasetxea* berria da eta *Urtasa* izeneko alderdian eraikia izanari zor dio izena.

## 9. Etxe izenen arautzea

Gauza ezaguna da oikonimian, toponimian bezala, egungo aldaerak sarri asko itxuragabeturik egoten direla, izan dadin euskara galdu eta euskal izenak erdaldunendako ebakigaitz gertatzen zirelako, izan dadin izen horiek euskal hizkera arrunteko tokian tokiko gertakarien eragina nozitu dutelako. Edozein modutan batak eta besteak, hau da, euskara galtzeak eta gordetzeak, biziki egoera desberdinak sorrarazi dituzte, modu banatara epaitu eta aztertu behar direnak. Etxe baten izen araututako zer hartzen den erabakitzeke orduan oso garrantzitsua ohi den aldaera baten historia —noizdanikakoa eta noiz artekoa— erabat erregela desberdinez neurtu beharko dugu, demagun, Elortzibarren eta Baztanen, muturreko bi adibide paratzeagatik.

Askok kontrakoa uste badute ere, badirudi P. Mujikak ez zuela hitz bakar bat asmatu bere hiztegirako, eta bildutako gaiez soilik baliatu zela ia erabat. Antza denez, txartel bakoitzak iturriaren ezaugarria zuen: esaterako, «vicios capitales - grina nagusiak 91, 1285», non 91-k Orixeren *Urte guziko meza-bezperak* adierazten baitu eta hurrengo 1285 horrek orrialdea.<sup>23</sup> Antza denez, Mujikaren txartelak Loiolako liburutegian daude, eta ez litzateke lan hutsala haien azterketa exhaustibo bat, biluztu zituen liburuetako aipuei dagokien txartelena batez ere.

*Gaztelania-euskara hiztegiaren egitura.* Esan berri dugun bezala P. Mujikaren hiztegiak Espaniako hiztegi handien —Errege Akademiaren Hiztegiaren edo garai hartako VOX hiztegi handiaren— hedadura du. Nolanahi ere, badirudi argitaraldi zahar xamarra erabili zuela —hots, 1965 urtean zaharkitu xamarra gertatzen zena: *transistor* bezalakoak ez dira agertzen, noski, baina VALVULA sarreran *válvulas coniventes* (!) bai, eta *válvula termoniónica* edo *válvula electrónica* ez; *electrón* bai, baina ez *protón*, eta NUCLEAR sarreran *membrana nuclear* eta *jugo nuclear* bai, baina *energía nuclear* ez; FUTBOL bai, baina ez RUGBY, CANZONCILLOS bai, baina ez COMBINACION (jantzia).

Adierak zenbakiz bereziak agertzen dira bat baino gehiago direnean. Adiera barenko bereziketak puntu-komez egiten dira. Kasu guztietan, erdal adieren edo esapideen eta euskal ordainen artean «=» ikurra ezartzen da, eta euskal ordainen artean, koma; euskal ordainak euskalki marka badarama, zuriune batek bereizten ditu.

Oso hiztegi hedatua bada ere, P. Mujikak ez du adierazten, sistematikoki bederen, hitzen gramatika kategoria. Adierazten du, ordea, beharrezko iruditzen zaionean, hau da, gaztelaniazko hitzaren gramatika kategorian gorabeheraren bat dagoenean. Adibidez ABADENGO, GA sarreran, lehen adiera «(adj.)» markatzen du, «V. *abacial*» gehituz, eta bigarrena «(m.)». PERIODICO-n, aldiz, «(adj.)» lehendabizikoa, baina «(sust.)» bigarrena. Gainera, ikusten dugunez, izenondoak formalki markaturik gertatzen dira, bi generoak markatzen baitira gramatika kategoria horretako sarreran.<sup>24</sup> Aditzetan ere, beharrezkoa iruditzen zaionean aditz mota adierazten du; esaterako, ABANTAR sarreran lehen adiera «(intr.)» markatzen da. Orobat ABASTADARSE-n, «(intr.)» markatzen da bigarren adiera, eransten diren sinonimoak —*bastardear*, *degenerar*— ez direlako aski aditz mota finkatzeko. Pronominalei dagokienez, adiera berezian —eta adiera *-se*-ren bidez hasiaz— adierazten dira: horrelakoak dira esaterako, ABANDONAR sarrerako 5., 6. eta 7. adierak. Batzuetan bi sarreratan ematen dira —ABATIR // ABATIRSE, esaterako—. Interjekzioak harridura markez adierazten dira sarreran, eta interjekzio erabilerak, dagozkion adieran markatuz harridura markak: esaterako, FUERA sarreran 5. adiera *fuera!* hitzaz hasten da.

Nahiz eta laburduretako «Zool.», «Bot.» eta kideko guztiak agertzen diren sarreretan, nahiago bide du P. Mujikak «ave», «pez» eta horrelako hitzez ezaugarritzea adierak: «ABANTO 1. (ave) [...]», «ABARBADA *lechera* (pez) [...]», etab. Baina «ABEDULLILLO (Bot.) [...]» eta orobat «FUSTETE (Bot.) [...]» eta, oro har, ezezagunak gerta-

<sup>23</sup> Ik. *Egan* 1957 (3-4) 129. orr.

<sup>24</sup> Ez ordea beti, eta ez diot inondik ere antzematzen agertze edo ez agertze legeari; esaterako, zergatik ematen duen PERIFERICO, CA, baina PERIODICO, soilik, CA gabe; eta areago HERBIVORO, RA, baina CARNIVORO.

tzen diren landare asko. Nolanahi ere, gramatika kategorietan erabili duen irizpideari jarraituz, marka horiek irakurlearentzat beharrezkoak iruditzen zaizkionean soilik erabiltzen ditu: esaterako, ABEDUL sarreran ez du ez «(Planta)» ez «(Bot.)» ezartzen, irakurleak *abedul* zer den badakielakoan. Adierak bereizteko ere erabil ditzake laburdurok: ABDUCCION sarreran lehen adiera «(Lóg.)» laburduraz ezaugarritzen du; bigarrena *rpto* sinonimoaz.

Adierak ezaugarritzeko sinonimoez baliatzea da Mujikaren praktika ohikoena. Hiztegiko sarrera gehienak «MOLER 1. *triturar, machacar* [...] 2. *molestar gravemente, importunar* [...] 3. *destruir, maltratar* [...]», edo ESCUDO 1. (*arma defensiva*) [...] 2. *escudo de armas* [...] 3. *amparo, defensa, patrocinio* [...] 4. (*moneda*) [...]» bezalakoak dira. Bigarrego sarreran ez diot antzik hartzen zergatik agertzen diren sinonimo batzuk kako artean eta besteak ez.

Euskal ordainak, kasu askotan, espero zenez eta egoki denez, hitz elkartuak edo are glosak dira: «baba-leiko, baba-eltzeko <al->» FABADA sarreran; «elder-oial, lepoaitzineko, lepo-aurreko, adur-zapi, bilder-zapi, lerre-zapi» BABERO-n; «azukre-lapa, ezti-ondarrak» MELAZA-n; «bakteri-eraile» BACTERICIDA-n; «eskean ibilli» GALLOFAR-en, «gudariz ornitu» GUARNICIONAR-en; «longain motz» GABAN-en; «dafail-gaineako» GUARDAMANTELES-en, «azpiko-zai» GUARDAPIES-en etab., gorago edo beherago aipatuez gainera.

Ordainak euskalkikoak direnean euskalki markaz adierazten dira. Euskalki markarik gabe agertzen direnek liburuetatik-eta atereak dirudite. Badira galdera marka ezartzen zaien hitzak, esaterako «LUCHARNIEGO (*perro*) = gau-eiztari?, illun-eiztari?, gau-zakur». Bestalde, ez dago P. Mujikaren jardunean inongo asmo arauemailerik, eta hitz beraren euskalki aldaerak metatzen ditu askotan. Milaren artean, ESCURRIR sarreraren hirugarren adieran —«*se, resbalar, deslizar*»— ikus daitezkeen «lerratu (c), txirristatu G, irristatu ANG, linburtu L, labaindu L, limurtu AN, limuritu BNS, leiñatu S, zirristatu LR [...]» aipa ditzaket; ildo beretik, beherago aipatzen den CENAR-en ere bada erakusgarri on bat.

Ez ahozko euskaran, ez literatura tradizioan ordain garbirik ez duten sarreretan bi modutara jokutzen du P. Mujikak. Hitz teknikoetan eta, euskal elkarketara jotzen du, ongi menderatzen zuen alemanaren bidetik: esaterako, PERIHELIO sarreran «ekurbil, eki-urbil, eguzki-urbil,<sup>25</sup> eguzki beren» —cf. al. *Sonnennähe*— ematen edo proposatzen ditu;<sup>26</sup> baina hitz arruntagoetan, nahiz eta aski gutxitan, *komoda, sarjentu, teniente* erdarazkoak edo gaztelaniazkoak onartzen ditu.

*Gaztelania-euskara hiztegiaren badaezpadako alderdiak*. Hiztegi gintzaren aldetik, erakusten saiatu naizen bezala, aski hiztegi ona da P. Mujikarena. Ez da ahaztu behar gaztelania-euskara argitaratu aurretik bazuela eskarmentua lanbide horretan: latina-espainiera/espainiera-latina hiztegi bat publikatu zuen 1940n, zazpi argitaraldi izan zituena, eta orobat, esku hartu zuen 1942an argitaratu zen grekoa-espainiera hiztegi batean ere. Nola nahi ere baditu P. Mujikaren gaztelania-euskarak zenbait alderdi badaezpadako.

<sup>25</sup> Salatu behar da ezin harrigarriago gertatzen dela horrelako hitz tekniko batean hiru aldaera dialektal ematea.

<sup>26</sup> Orobat BOMBARDINO-n ematen dena ere, *bombardin*, alemanetik hartua dirudi. Dena dela, harri-garriki, QUIROFANO sarreran *kirofanu* besterik ez du ematen.

Alderdirik badaezpadakoena, hiztegi gaietako buruzko kritika falta da. Material asko, iturriaz fidaturik besterik gabe hiztegiatuta dira. Nire artikuluko batean (Sarasola 2002: 619) ikusten ahal dira Azkueren hiztegietatik harturiko gaiak direla-eta Mujikaren hiztegiaren gertatzen diren arazoak *desarra* edo *lauka* bezalako hitzetan. Dena dela, esan behar da Azkueren beste huts batzuk zuzendu direla; baina badirudi kritika filologikorik eskatzen ez dutenak direla zuzendurikoak batez ere: esaterako, CENAR sarreran *tiempo después de cenar* «apal-ondo G, apal-oste B, afal-ondo (c), aigal-ondo R» ematen da, Azkuerenari «tiempo» hori erantsiz.<sup>27</sup> Beste batzuetan aldaketa egiten da, baina beharbada ez gauzak erabat zuzenduz: Azkueren *lausei-k* —«(G-and), echar á suertes quién saca la carta mayor para repartir el naipes»—, «a suertes»-en ordaina eta, hortaz, adizlagunen sailekoa dirudi; Mujikarenean, ordea, izen bihurturik agertzen da:<sup>28</sup> «SUERTE [...] 4. Lotería, sorteo = lausei [...]».

Sistematikotasun gabeziak ere badira. Adibidez ABEADORES sarreran «(m. pl.)» ezartzen du, eta euskal ordaina pluralean ematen du: «balus-irazkikordak»; ABEACAS-en, ordea, ez du gramatika argibiderik eskaintzen, eta sinonimoa ematen du pluralean —*orejeras del arado*—, baina bigarren sinonimo bat ezartzen du, singularrean hori, *vertedera*; ondoren, euskal kidea singularrean —«belarri, golde-belarri, bearri»— ematen du.

Azkueren bidetik, badirudi P. Mujikak ere nahasten dituela hitz erregistroak. Esaterako, ABDOMEN adigairako *ventre*, *panza* ematen ditu sinonimo gisa. Argi dago ez direla horiek sinonimoak, hots, ez direla trukagarriak, eta (Anat.). laburdura —Mujikak laburduren taulan badakarrena— zela kasu honetan *abdomen* ezaugarritzeko modu egokia; bestalde, eta hori da okerrera, Mujikak ematen dituen euskal ordainak, «vientre» edo «tripa»-renak dira, ez «abdomen»-enak. Mujikak zilegi zuen horietako ordain bat —sabel (c) G [sic], *sabel-alde* G, *sabel-zorro* (c) G [sic], *bilkor* AN, *buzkantz* BG, *zilbor* BG, *zingur* AN, *zilbot* B, *marda* (c), *maribarna* R [...]— *abdomen* hitz teknikoarentzat espezializatzea, baina ez du egiten: adibidez, ez dio horietako ezein hitzi euskalki marka ezabatzen, eta dialektaltasuna galtzea da hitz tekniko batek bete behar duen lehen baldintza. Bestalde, bere euskara-erदारan ere «abdomen, panza, barriga, ventre» —BILKOR sarreran esaterako— sinonimotzat jotzen jarraitzen du.

Ildo bertsutik, MEGALOCEFALO-ren euskal ordaina ezin da *buru-aundi* izan, hizkuntza arrunteko hitza delako, aski markatua gainera, eta nekez bete ditzakeelako forma batek, horrelako egoeran, erregistro arrunta eta tekniko bat. *Makrozefalo* gustukoa ez izateko eskubide osoa zuen P. Mujikak, baina orduan *buru-larri* edo horrelako zerbait proposatu behar zuen. Ez da, dudarik gabe, kontu bera HERBIVORO, RA-ren ordain gisa *belar-jale* ematea, hitz horrek ez duelako konotazio arruntik, eta Europako hizkuntza gehienek bidetik doalako.<sup>29</sup>

<sup>27</sup> Begien bistako gauza da horrelako erdal esapide bat euskal ordainak eragin duela —ez dago horrelakorik gaztelania-frantsesa edo gaztelania-ingelesa hiztegiatan—; bestalde, esapide honen iturria P. Mujikarenean Azkueren hiztegi nagusiko «*afalondo* (BN, G, L) [hots, =(c) Mujikarentzat], *después de cenar*» eta «*apaloste* (Bc), *después de cenar*» bide dira.

<sup>28</sup> Ik. hitz honi buruz, orobat, Mujikaren euskara-erदार hiztegiari buruzko atala.

<sup>29</sup> CARNIVORO-n *carnicero* sinonimotzat emanez eta «aragikoi, aragi-jale, aragi-zale [...]» denak nahaste ezarritik, ABDOMEN-ez mintzatzean aipatu dudana hutsa errepikatzen du.

Oso zilegi ez diren gauzak egiten ditu batzuetan gaztelaniazko hitzen ordainak emateko. Adibidez, *txerketx*, «AN parásito de las plantas, nublo, negrilla, tizón de los cereales» Mujikak bere euskara-erdaran ematen duena Azkueren *vasco-español-francés-etik hartuaz*<sup>30</sup> hitz izatetik termino izatera igarotzen da erdara-euskarari: «PARASITO 1. (*Bot.*) txerketx AN, [...]» eta areago «PARASITARIO, *relat. a los parásitos* = txerketx-: *peste parasitaria* = txerketx-izurri», edo «PARASITOLOGIA, = txerketx-izti» non AN marka, harrigarriki teoriarik, desagertu baita bi azkenotan.

*Gaztelania-euskara hiztegiaren erabiltzailea.* P. Mujikaren gaztelania-euskara hiztegiaren metahizkuntza gaztelania da. Gaztelaniaz daude hiztegiaren inguruko argibide guztiak, laburdurak, esker emateak, etab. Bestalde, erabiltzaileak, espainola ongi dakiena —*abedul* zer den dakiena adibidez— izan behar du. Horiek horrela, aurrekoak bezala edo are gehiago, euskaraz dakien gaztelarazko hitzunarentzat dago prestatua hiztegi hori, euskal testu bat ondu nahi duen erdal hitzunarentzat.

Ez dut uste inork erabili duenik P. Mujikaren hiztegia gaztelaniazko testu bateko hitz ezezagun bat irakurtzean haren esanahiaz jabetzeko. Baina erabil daiteke: esaterako FUSLINA, nik bederen ezagutzen ez nuena, Mujikak ematen duen ordainaren bidez —«urtu-toki, galda-tegi»— badakit orain zer den, gutxi gorabehera bederen.

*P. Mujikaren euskara-erdara hiztegia.* 1981 argitaratu zen, eta egileak aurkezpenean dioenez, erdara-euskara hiztegian jasotzen diren hitz guztiak biltzen ditu,<sup>31</sup> eta orobat hainbat aldizkaritatik azken urteetan jaso zituenak. Bere hitzetan esateko, hiztegi horrek hau izan nahi du: «Un registro, no exhaustivo, pero sí relativamente completo del *euskera hablado por el pueblo* como también *el euskera autorizado por los buenos escritores*» (letra etzana egilearena da).

Horiek horrela, erdara-euskararen argitalpen trinkotuak 1027. orrialde hartzen dituelarik, euskara-erdarak tankera ber-bereko 2098 hartzen ditu, ia 150.000 sarrearekin. Sarrera kopuru izugarri hori, hitz eratorri eta batez ere elkartuen ugaritasunean oinarritzen da batez ere, baina orobat hitzak onartzeko irizpide aldaketa batean: ez dira gutxi —milaka dira— *autonomia* bezalako hitzak, gaztelania-euskarari tokirik ez zutenak eta euskara-gaztelanian aldiz agertzen direnak. Orobat, Azkueren hiztegi nagusia areago ustiatzen da euskara-erdaran alderantzizkoan ustiatu den baino. Esaterako, gorago aipatu dugun Azkueren *lausei*, gaztelania-euskarari «sorteo» gisa agertzen da, baina ez «echar suertes» esapidea, ez ECHAR sarreran, ez SUERTE-n ere. Euskara-erdaran, aldiz, LAUSEI sarreran, «G = suerte, lotería, sorteo: B lausei egin = sortear, rifar, echar suertes sobre».<sup>32</sup>

Egiturari dagokionez, euskara-gaztelania gaztelania-euskararen antzekoa da, baina egoera desberdinerik egokitua. Ez da adieren buruan sinonimorik ematen, adi-

<sup>30</sup> Ez dator, dena dela, bere tokian, *txertatu* eta *txerto*-ren artean baizik; hortaz, badirudi *txertex* dela Azkuek bildu zuena; hori da gainera Lakoizketak —Azkuek hitzaren bigarren adieran, «parásito de plantas» en hain zuzen, aipatzen duen iturriak— ematen duena, *chertecha* idatzia.

<sup>31</sup> Eta bere hartan jaso ere: esaterako, gaztelania-euskarari PARENTELA sarrerako «*algún grado de parentesco* = aaide bits bat ANBN» agertzen zena, euskara-gaztelanian AAIDE sarreran agertzen da «aaide bits (lits) bat ANBN = *algún grado de parentesco*», bitxitasunean ezer galdu gabe.

<sup>32</sup> Litekeena da *lausei*-ren «*itxuraldatze*» hori P. Mujikak zuzenean egina ez izatea, baizik eta —hori salatzen bide du *lausei egin*-en B-ak— Azkueren sarrera irakurri zuten idazleren batek tankeratua izatea. Nolanahi ere, erabiltzen ari naizen ikuspuntutik gauza bertsua da.



bidez. Bestalde, hitz elkartu gehienak sarrera beregain gisa agertzen dira, ez azpisarrera gisa. Euskara-erdara honetan, alderantzizkoan bezala, ez da sarreren gramatika kategoria adierazten. Dena dela aurkezpenaren 13. orrialdean esaten denez, horretara datoz adibideak: «se ha procurado ser conciso en la frases, que se aducen como ejemplos para indicar el régimen de los verbos».

Euskalki markak, aldiz, euskalki hitz eta adiera guztietan markatzen dira. Sarrera galdera-markadunak ere atxikitzen dira —eta ez gutxi, antza—: adibidez, gorago aipatzen nuen «illun-eiztari?», ILUN-EIZTARI?? sarrera<sup>33</sup> bihurtu da —nahiz eta bestea «gau-eiztari?», GAU-EIZTARI bihurtu den—; adierak ere badira galdera-markadunak, esaterako BURNA [...] 2. ?? B punta, cabo, pico [...], non ez baitakit —antza denez Mujikak ez du esplikatzen— galdera marka euskalkiari ala adierari dagokion.

Materialen kritikari dagokionez, ez dago inongo alderik bi hiztegien artean: hor ditugu euskara-erdaran ere, beste askoren artean, gorago aipatu diren AILEKITU «BN = levantar, alzar, izar, elevar» edo AZKORAIEN «G = escarmiento, castigo, multa, pena». Azkueren bi hutsegite horiek aipatzen ditut, salatuak izan zirelako 1976an —Mujikarena kaleratu baino bost urte lehenago, hortaz— zabalkunde handiko obra batean, *Diccionario Retana de autoridades del euskara*-ren hitzaurrean, xlv. orrialdean.

Euskara-gaztelania hiztegi horren erabiltzaileari buruz, alderantzizkoa aztertzean esan dudana errepikatu behar dut. Nahiz eta euskaldungoaren eta euskaldunen egoera nabarmen aldatua zen 1965etik 1981era, P. Mujikaren euskara-gaztelania hiztegia gaztelania-euskara bezalakoxea da irakurlearekiko jarrerari dagokionez: metahizkuntza gaztelania da, eta gaztelaniaz daude euskarazko sarrera eta esapideetatik at gertatzen den guzti-guztia, are bidaltze sarreretako V. [=véase] delakoa. Ez da samurra, antza denez, adin batetik aurrera ohiturak eta azturak aldatzea.

## 5. Euskalki edo testu hiztegiak

Hogeigarren mendean asko ugaritu dira euskalki edo hizkera jakin bateko gaiak batetik, eta testu baten edo idazle baten hitz ondarea bestetik, biltzen duten hitz zerrendak. Are ugariagoak gertatu dira besterik gabe Azkueren hiztegiari eransteko pentsaturiko artikuluxka eta lantxoak, haren hiztegian aurkitzen ez diren hitz, aldera eta esapideak biltzen dituztenak. Hauen artean tipikoak dira J. Garateren «Primera contribución al diccionario vasco»-rekin hasi ziren ia ezin konta ahalako «Contribución»-ak. Atal honetan, dena dela, horrelako lanez baino areago,<sup>34</sup> horien arteko nagusiez mintzatuko gara, bereziki liburu gisa atera direnez.

*Euskalki edo hizkera hiztegiak.* Atal honetan, K. Izagirreraren lan bikainak —horien artean «El vocabulario vasco de Aránzazu-Oñate», 1970. urtean ASJU-n argitaratu zen lan mardula— alde batera utzirik, Larrasqueten *Le basque de la Basse-Soule Orientale* eta T. Etxebarriaren *Lexicón del euskera dialectal de Eibar* aztertuko ditut, eta bidenabar, M. Izetaren hiztegia Baztango euskalkiaz, eta J. M. Elexpururen tesia Bergarako hizkerari buruz.

<sup>33</sup> Ikusten denez, euskara-erdararen beste berritasun bat da euskal hitzak bustidurarik gabe ematea.

<sup>34</sup> Horien erakusgarri zabal bat *Orotariko Euskal Hiztegia*-ren Bibliografian aurki daiteke.

Jean Larrasquet zuberotar euskalariak hainbat lan egin zituen bere jaioterriko euskalkiaz. Horien artean *Le basque de la Basse-Soule Orientale*, Parisen, 1939. urtean argitaratu zuen liburua da aipagarriena. 220. orrialdeko lana da, eta haren hiru laurdenak azpieuskalki horren hiztegiak hartzen ditu. Hiztegi zabala da, 6000 bat sarrera dituena, guztiz fidagarria eta hiztegi gintzaren aldetik profesional baten lana ematen duena.

Sarrera bakoitzean hitzaren hots transkripzioa, gramatika kategoria eta frantses ordaina ematen dira, eta orobat morfologia oharrak, sinonimoak, hitzaren «zentzu familia»<sup>35</sup> eta jatorria; eta, amaitzeko, baita euskalki-eremua eta, dagokionean, beste euskalkietako aldaerak edo aldaera zabalagoak ere. Zenbait sarreretan oharrak egin ditu Larrasquetek, batez ere Lhanderen hiztegian bere ustez oker dauden puntuak salatzen. Hitz bakunetan haren eratorriak adierazten dira; esaterako, ADAR sarreretan *adarzū, adarkhūlo, adarmutx, adarpalet, adarzabal, adartsū, adartxūt* eta *adarrondo* ezartzen ditu. Hauek guztiak, gainera, sarrera bana dute hiztegian. Izenak eta izenondoak, jakina, artikulurik gabe ematen dira. Aditzek bi sarrera hartzen dituzte, bata erroa eta bestea aditz izena: AGERT eta AGERTZE, esaterako. Lehenengoan morfologia atalean era burutua eta etorkizuna —«inf. fut.» deitzen duena— eta orobat *-rik* bidezko eratorria bildu ditu: «*agertūik, appar*» esaterako; bigarreanean *-tzen, -tzera* eta *-tzez* atzizkien bidezko eratorriak.

Era honetako hiztegien artean zabalena eta aipatuena Toribio Etxebarriaren *Lexicón del euskera dialectal de Eibar. (Arratetikuen izketia)* da, 1966an Euskaltzaindiak *Euskara* agerkarian argitaratu zuena. 647. orrialdeko liburukia da, ia hamar mila sarrera dituena. Egileak erbestean, Caracasen, ondu zuen hiztegia, oroimenaren<sup>36</sup> eta bere emaztearen laguntzaz, inongo «landa lan»-ik egin gabe, jakina.

Hitz bakunak, eratorriak eta elkartuak dira sarrerak osatzen dituztenak.<sup>37</sup> Izenak eta izenondoak artikuluz ezartzen dira, eta aditzetan<sup>38</sup> era burutua eta aditz izena sarrera banatan ematen dira. Idazkerak Eibarko fonetismo gehienak onartzen ditu, baina ez dira zalantzak eskas: EIÑ, ERAIÑ, ATZERA ERAIÑ irakurtzen ditugu, baina orobat DART ERAIÑ, sarrera buruan nahiz adibidean.

Izenei ez dagozkien sarrera guztietan-edo gramatika kategoria markatzen da, eta aditz eta adizlagun motak bereizten dira. Ondoan gaztelaniako ordaina ezartzen da, eta dagokionean, oharren bat erabileraz, mailaz nahiz bestez. Sarrera guztietan adibide bat ematen da gutxienez, egileak asmatua eta erdal itzulpenaz hornitua.

T. Etxebarriaren lanak ongi erakusten du horrelako hiztegiek dituzten mugak. Zein dira «Eibarko hitzak», zer esan nahi du esapide horrek? Esaterako, zer adierazi nahi du Etxebarriak *damukizuna* «cosa de arrepentirse» bere hiztegian sartzean? Ohargarria da eransten duen adibidea berak itzuliriko «Rasputine'n erakutsixa» la-

<sup>35</sup> Liburuaren azken orrialdeko taulan —Table Alphabétique des Familles de sens— adierazten diren sarreretan, hitzaren familiako beste hitzak biltzen dira; esaterako OSKI sarreran oinetako motak —*eskalanpu, esklupeta, eskarpi* etab.—, edo NI sarreran izenorde guztien saila.

<sup>36</sup> «En este lexicón, en el que he trabajado sin más ayuda que la memoria y el deleite del recuerdo» dio hitzaurrean.

<sup>37</sup> Batzuetan bestelakoak ere bai: adibidez ATZA EMON ETA BESUA ARTU esapidea sarrera gisa ematen da, «refrán» adierazgarriarekin.

<sup>38</sup> Aditz elkartuetan, *dart eiñ* bezalakoetan, hori da sarrera bakarra.

netik hartua dela;<sup>39</sup> orobat esan daiteke «NARRU-ATERPIA. Tienda, tabernáculo» sarreraz, Bibliako Hasierako liburuko pasarte baten itzulpenaren euskarria duena. Eta, izan al daiteke *ezerezdakua* «adj. pobre, desheredado» —hemen ere adibidea literarioa da, Lukasen ebanjeliokoa— «Eibarko hitza»? Are okerragoa da *ezillbiartasuna* «inmortalidad», nire ustez Eibarko hizkerako sistematik at dagoena. Edo *entzunmena* «sentido del oído», hitz ikasia Eibarren eta nonahi, inongo markarik gabe ematen dena; eta zer esanik ez *emakia* «Gram. Género femenino» Azkueren neologismoa, edo *euskaltarra* «vasco», berak moldatua ematen duena.

Bestalde, hiztegia ez da deskriptibo hutsa —eta ez dut esan nahi hori hutsegitez hartzen dudarik—. Esaterako, ERRUA sarreran «en Eibar [...] decimos comúnmente *kulpia*, con todo el sabor teológico de la raíz y sus derivados» irakur daiteke. Ohargarria da sarrera horretako adibidean *nere kulpia izan da* irakurtzen dela, ez *nere errua*, eta KULPA sarrerarik ez dagoela.

Hortaz, T. Etxebarriaren lana aski interesgarria da, eta bestela ezin bildu diren hitz eta esapideen berri ematen du. Baina Eibarko hiztegia baino areago, eibartar batena da. Eibartar euskaldun ikasi, autodidakta baino aski landu batena, frantsesetik *Heptameron* itzuli zuena, besteak beste.

Alde honetatik, «fidagarriago»ak dira M. Izeta eta J. M. Elexpuren lanak. Izetak Baztango hizkeraz egin dituen artean aipagarriena, liburu gisa 1996an, Iruñean, publikatu zuena da. Hiztegi aski hedatua da, 3500 sarrera gutxi gorabehera dituen. Sarrerak aski landuak dira bai egituraz, bai mamiz. Adibideek —bilduak nahiz Izetaren burutikoak, «erran erraten diren bezala emanak»— interes berezia dute.

Are interesgarriagoa da *Bergara aldeko lexikoa* izeneko lana, J. M. Elexpurenena, batez ere 60 ordu grabaketetan oinarritzen dena, eta hortaz «ahozko testu»en ustia- ketaren gainean erazten dena, aho hizkuntzan bizirik dauden hitzak eta esapideak bilduz. Bilduriko hitzok lau sailetan biltzen ditu: A, edozein hiztunek erabiltzen dituen hitzak; B, ongi hitz egiten dutenek soilik ezagutzen dituztenak; C, helduek soilik erabiltzen dituztenak; D, zaharrek bakarrik ezagutzen edo erabiltzen dituztenak. Jokaera horrekin, nire ustez, ezinezko-edo diren hizkera hiztegiei irtenbide interesgarri bat ematen die.

*Testu hiztegiak: hitz hautatuen hiztegiak.* F. Mendizabalek 1956an F. I. Lardizabali buruz, B. Fagoagak 1959an J. Lizarraga Elkanoakoari buruz eta A. de Lizarrak 1967an A. Rodriguezi buruz moldatu zituzten hiztegitxoek ireki zuten testu hiztegien bidea. Hiztegi mota hau asko ugartu zen hurrengo urteetan, eta oro har, gero eta egokiagoak gertatzen ziren hiztegi gintzaren teknikaren aldetik. Horien artean aipagarriak dira J. M. Satrustegiren lanak —bereziki *Euskal testu zaharrak*, Iruñean, 1987an argitaraturiko liburuaren amaiera aldeko hiztegi zabala— eta F. Ondarrarenak, batez ere goi-nafarrerazko testuei dagozkienak. Ondarrarena da orobat Migel Ignazio Zuzaetaren idazlanetatik ateratako<sup>40</sup> hitz hautatuen zerrenda bikaina.

<sup>39</sup> Orobat *luzekizun* «dilación», *Ibiltarixanak* liburuan, 460. orrialdean, esaterako, erabiltzen duena.

<sup>40</sup> Fr. Jose Arakistainen idazlanekin batera, Bilbon, 1997an argitaraturiko *Idazlanak* liburuan publikatu zen.

Hitz hautatuzko hiztegien alor horretan, lanik garrantzitsuena, hedaturagatik bederen, *Bonaparte ondareko eskuizkribuak* izeneko sailean<sup>41</sup> eskaintzen diren *lexiko*-ak dira, hiztegi bana euskalki bakoitzeko testuentzat. Hiztegi zabalak dira: gipuzkerazko testuei dagokienak ia 3000 sarrera ditu, esaterako. Euskarazko sarreraren ondoan euskarazko sinonimo bat (edo gehiago) ematen da, gero sarrerako hitza aurkitzen den tokiaren erreferentzia (bat gutxienez), eta ondoren adibideak, bat gutxienez. Adibidez, iparraldeko goi-nafarrerazko testuen hiztegian, «ASTE: hasiera, hastapen. (37), (73). *Eta beldurtasun au izanenda sabiduriaren principio, eta astea* (37)» sarrera.

Nolanahi ere, ugari dira arazoak hitz zerrenda horietan. Lehenik ez da beti asmatu hitzak irakurtzean eta «zuzentzean»; esaterako, Hiribarrenen *Napoleon Lehena* poemako *lekho*, bi aldiz gutxienez —134 eta 138. orrialdeetan— *lekhu* gisa interpretatzen da, argi eta garbi dagoenean *lekhoa*-ren aldaera dela; gipuzkerako hiztegian, aldiz, Uriarteren Bibliaren itzulpeneko JUIZEN (1 Reg 12, 10), zuzendu gabe ematen da, nahiz eta argi dagoen hutsa —irakurketa hutsa seguru asko— dela, eta *gizen*<sup>42</sup> behar duela. Bestalde, hitzen hautaketa ez da beti egokiena: bizkaierazko testuen hiztegian, adibidez, ez dut esango OSTU, DOMEKA edo JAUBE sobran daudetik, baina interesgarriagoa dirudi, esaterako, *otsanditu*, 913. orrialdean ikus daitekeena eta hiztegian jasotzen ez dena.

Bigarrenik, lema ez da beti ongi ateratzen: esaterako, lapurterazko sailean *hilen juyatzeko ordua* [...] *eta lurra gaizkindu dutenen kalitzekoa* esaldian, azken hitzari *kalitu* lema dagokio, jakina; hala ere KALITZ sarrera sortzen da adibide horrentzat; hiztegi berean *bertzekin yostetan nahaste* esaldian, *yostetan* testu hitzarentzat JOSTATU sarrera eratzen da, nahiz eta hurrengo sarrera JOSTETA den. Ildo beretik, hiztegioko gipuzkerazko hiztegian, badirudi *aban* [=ahoan] testu hitzarentzat «ABA: aho» ez dela sarrera egokiena, eta sail bereko 197 testuan agertzen den *quibistea*-ri, Goierriko testua denez gero,<sup>43</sup> *kibiste* nahiz *kibista* dagokioke lematzat; zuzena *kibista* da, noski; hiztegiaren paratzaileak KIBISTE hautatu du.

Hirugarrenik, sarreraren ordaina euskaraz emateko kontuari dagokionez, antza denez ez da dena urre gorria: adibidez, gipuzkerazko hiztegiaren hasieran bertan, badirudi ABAIL sarreraren eskaintzen diren «angail, ubal» bitxiak eta dialektalak, P. Mujikaren Hiztegian HONDAN begiratzuz jarri direla; orobat, hiztegi bereko JOMUGAN [=helburura jaurtitzen] sarrerako «terreilka, artezkarrean» txundigarriak, Mujikarenean BLANCO sarreraren *tirando al blanco*-n begiratzuz ezarri dira, zalantzarik gabe; hortaz, ez dakit ez ote den eraginkorragoa, itxurakeriak alde batera utzita, zuzenean *honda* eta *tirando al blanco* ematea, hots, ordainak gaztelaniaz ematea, ABAILen eta JOMUGAN gertatzen dena sarrera askotan gertatzen baita.

Askotan euskal hitzen esanahia ez da zuzen atzeman: milaren artean begien bistakoenetako zenbait besterik ez aipatzeko, lapurterazko testuen hiztegian KINKIN

<sup>41</sup> Rosa Miren Pagola eta beste. *Bonaparte ondareko eskuizkribuak: bizkaiera* (3 liburuki). Bilbo 1992; *Bonaparte ondareko eskuizkribuak: gipuzkera* (6 liburuki). Bilbo 1993; *Bonaparte ondareko eskuizkribuak: lapurtera* (2 liburuki). Bilbo 1994. *Bonaparte ondareko eskuizkribuak: iparraldeko goi-nafarrera* (3 liburuki). Bilbo 1995.

<sup>42</sup> Uriartek beti *gizen* erabiltzen du, eta ez dago *juizen*-en arrastorik ez Uriarterengan ez bestetan.

<sup>43</sup> Ez da euskal dialektologian oso aditua izan behar testua —cf. *urkau zon be burue*— Zegamakoa-edo dela ikusteko.

sarrerak KINKINA behar luke, eta dena dela ez da «gezi»;<sup>44</sup> goi-nafarrerazko testuen hiztegian KEXATU ez da «haserretu, sumindu» Iparraldean bezala, testuan bertan ematen den *lastertu*-ren sinonimoa baizik; gipuzkerazko testuen hiztegian KOROE ez da «ganga, sabaia», baizik eta — *Vulgata*-n begiratzea asko—, azken batean, «koroa». Ildo beretik, eta gipuzkerazko testuen hiztegian orobat, ETZIGI sarreran esaldi bera —*munduan viotza ichatsi edo etzigui ezdedin*— bi aldiz ematen da; lehengoan «eskegi, lotu» esanahia ematen zaio *etzigui* horri; bigarrean «grinatu, ahiertu [sic]» esanahia.

Azkenik, okerrenak, testuak aurkitzeko erreferentziak —obran «laburdurak» esaten zaienak— dira. Bizkaierazkoan ez dago arazo larririk testua aurkitzeko —bai, beste guztietan bezala, testuaren barruan esaldia aurkitzeko, harrigarria badirudi ere<sup>45</sup> ez baita orrialdea adierazten—; baina lapurterazkoan, goi-nafarrerazkoan eta batez ere gipuzkerazkoan testu asko ez dago inondik ere aurkitzerik, ez bada kanpoko bideak erabiliaz eta egiazko ikerketa baten ondorioz. Adibidez, gipuzkerazkoan, Uriarteren Bibliari dagozkion gehienak konkordantziak erabiliaz aurkitu ditugu *Orotariko Euskal Hiztegia*-ren bulegoan: horrela konturatu gara, esaterako, 1.2 ataleko zati den «Erregeen irugarren liburua» testuari gipuzkerazko hiztegian «136.7» erreferentzia dagokiola, eta 1.15ko testuari «143» erreferentzia, nahiz lehenago dagoen 1.12ko testuari «152» erreferentzia ematen zaion; orobat, aski da lapurterazko sailaren 457. orrialdeari begiratzeko hutsa, zenbakiak ezartzeko sisteman kaosa besterik ez dagoela ikusteko. Gainera, badaude liburuan orrialde horretan aipatzen ez diren testuak, eta ezinezkoa da, jakina, testuoi dagokien zenbakia inferitzea.

*Testu hiztegiak: hitz guztien hiztegiak.* Hitz hautatuen hiztegien ondotik, nahiz oso bakan, hitz guztiak biltzen dituzten hiztegi lanak hasi ziren argia ikusten gure artean. Bide erakusle L. Villasanteren *Axular-en hiztegia. Euskara-Español-Français* izan zen, 1973. urtean argitaratu zena. L. Mitxelenak (Michelena 1974) kritika gogoangarria egin zion hiztegi horri, eta hortaz, ezer gutxi dut harenari eransteke. Soilik esatea zenbait sarrera falta direla: *aizpa* —*Ierusalem, zure aizpa Sodomaren behatua [...]* (380)—, *defota* —*esterila, defota, antzua* (407)—, *erhaile* —*kruel eta erhaile* (352)—, *fintkagarri* —*berretgarri eta fintkagarri* (555)— eta besteren bat agian; bestalde XOPIN-ek bidaltze sarrera bat behar luke, NEGAR-XOPIN-era; KARNAZERA sarrerak KARNAZER izan behar luke, eta, jakina, ERAIN-ek, ERO; ildo beretik, BERANTU sarrerak BERANDU<sup>46</sup> izan behar luke. Bestalde, DESOHORAGARRI sarrerako bigarren adibidean zati bat eskas da, *desohoragarri* testu hitza agertzen dena, hain zuzen; EGUNDAIÑO sarrerako erdal ordainak —*jamás, nunca, en ningún tiempo; siempre, alguna vez; jamás; toujours, quelques fois*— ez bide dira egokienak: «Hasta hoy, alguna vez; (en contextos negativos) nunca, jamás» edo horrelako zerbait behar luke, eta orobat MENDEKATU-koa «vengar(se)».

<sup>44</sup> Bekatua larria da, zeren testua Iturriagaren jolasen itzulpena baita; hara jotzea asko Iturriagak eta Uriartek *kina* erabiltzen dutela eta gaztelaniazkoan *quina* agertzen dela ikusteko.

<sup>45</sup> Kontua ez da orrialdeak emateak «lan gehiago» eskatzen duela, ez baitu eskatzen; eskatzen duena lanaren antolaketa hobe da.

<sup>46</sup> Axularrean *berant* erroa eta *berantzeaz* soilik agertzen dira; dena dela, kontuan izan behar da lapurtarrak, ik. *Orotariko Euskal Hiztegia*, *berandu* erabiltzen dutela era burutu gisa.

Autore baten hitz ondare osoa jasotzen duen hurrengo lan nagusia, F. M. Altunaren *Etxepareren hiztegia*. *Lexicón dechepariano* da, 1979an argitaratua, laurogeita hamar urte lehenago V. Stempf-ek argitaratu zuen «Glossar zu Bernard Dechepare's baskischen Poesien» ez txarra argi eta garbi gaintitzen duena. Altunarenak ez ditu adibideak ematen, baina, Villasantek ez bezala, lemaren morfologia aldaera guztiak<sup>47</sup> adierazten ditu, eta forma bakoitzarentzat, hura gertatzen den agerraldi guztien kontua ematen du, adieraziz beti dagokion poema eta lerroa. Orobat joskerak eta esapideak, hitz formak bezala jatorrizko ortografian eta egungoan ezartzen direnak, eta lemen gisa, espainol eta frantses itzulpenekin ematen direnak. Erabilerari buruzko oharrek ere behar adina ematen ditu, eta orobat gramatika kategoriak: (n) —izenak eta izenondoak—, (v) —aditza: *da, du, nau* bereizten ditu—, (inv) —adizlagun eta beste—, (adv) —adizlagunak, HAN, HEBEN, HONAT, HOR, HUNA sarreretan bederen—. Eranskin gisa adizki guztien zerrenda ematen da alfabeto ordenan, forma bakoitza dagokion aditzaren lemara bidaliaz.

Hiztegitzaren aldetik hiztegi ona da Altunarena, nabarmen ona. Dena dela baditu, nola ez, nire ustez zuzendu beharreko zenbait xehetasun. Lehenik (inv) laburduraren pean, gauza gehiegi —adizlagunak, interjekzioak, *ahal* bezalako aditzak...— sartzen dira; horietako askorentzat, gainera, *inv* nahasgarria gertatzen da: zer adierazi nahi da *orai*, esaterako *inv* dela esanaz? *oraiko* ezin ager daitekeela? Eta *non-i* eta *nondik-i* zergatik eskaintzen zaie sarrera bana eta ez *leqbutic-i*, *leqhu*-ren ondoan, esaterako? Eta zergatik dira *heben* edo *han* adizlagunak eta *orai* ez?

Bigarrenik, aditzen lema, ohiturari egoki jarraituz, era burutuaren bidez ematen dira; baina, ohitura hautsiz eta Arestik —uste dut— ezarri zuen modaren arabera, partizipioen bidez ematen da erdal ordainetan. Nire iritziz, jokaera hori aurreiritzi teoriko baten ondorio da, eta deskribaketaren ekonomiaren kontrakoa gertatzen da: pronominalak itzulpenaren bidez adierazteko era eroso bati bidea ixten dio, adibidez.

Xehetasunei dagokionez, *varnetic* eta *varnian* ez nituzke BARN<sup>48</sup> sarreran sartuko, BARNE-n baizik; BER sarreran, *verian* eta *vertan*-ek oharren bat merezi dute; (ERANZUTE)-ren ordaina «recriminación» dirudi, ez «respuesta, contestación»; «reina»-ren lema (ERREGINA) da, noski: *erregina dignia*, I, 391; orobat, VII, 16-ko *ia* ezin da «casi» izan, hori hegoaldekoa eta XIX. mendearen hasieratik honanzkoa delako; gaur *ja* idazten duguna da, zalantzarik gabe; KREAZALE behar luke *creaçalia* testu hitzaren sarrerak, ez KREATZALE; (LOTSATU)-ren ordaina ez da inondik ere «avergonzado, sonrojado», «asustado, espantado» baizik, Etxepare Iparraldekoa denez gero; *çuyendako*, badirudi hobeto legokeela ZUIEN sarreran ZUIEK-en baino.

## 6. Retanaren euskara-erdara hiztegia

*Atarikoak*. 1976. urtean, Bilbon, *La Gran Enciclopedia Vasca* argialetxearen eskutik, *Diccionario Retana de autoridades del euskara* izeneko euskara-gaztelania hiz-

<sup>47</sup> Adizki guztiak aditzetan, adibidez, eta izenetan eta bestetan deklinabide formak.

<sup>48</sup> Bestalde Etxepareren *barna*, *han barna* esaldian agertzen dena ez da (n), eta ez da «profundo, interior, dentro [sic]»-en kidea, adizlaguna baizik eta «(precedido de inesivo) en el interior de»-ren kidea.

tegia kaleratzen hasi zen. Urte hartan hiztegiaren lehen bi aleak argitaratu ziren, lehena A-ARRAIA (lvi + 432. orr.) eta bigarrena ARRAIARI-BET (504. orr.). Hurrengo urtean hirugarrena BETHI-ERRE (504. orr.) argitaratu zen, eta 1978an laugarrena ERREIGUZUZ (472. orr.). Bosgarrena, H-JUSTUKI (482. orr.) eta, antza denez, seigarrena, K-METZ (474. orr.) 1980an inprimatu ziren, baina ez ziren banatu hiztegiaren argitaletxearen kiebra jotzea zela medio. Azken hiru aleak, MEULA-PREMU (432. orr.), PREMU-URDEZ (384. orr.) eta URDEZ-ZUZU (422. orr.), «Grupo editorial Ernesto Amaia»-k argitaratu zituen 1989. urtean. Guztira 4107. orrialde, 9 liburuki marduletan, hots, egundaino osorik argitaratu den euskara-erdara hiztegitik hedatuena.

Obraren hitzaurrean azaltzen denez, hiztegiaren oinarria Manuel de la Sotak bere adiskide R. Ma de Azkueren hiztegi nagusia osatzeko bildu zituen hiztegi gaiak dira, Maurice Harrieten eta Duvoisinen hiztegietatik eta *Fedearen Propagacioneco urtecaria*-tik atereak, besteak beste. Sotaren txartel eskuz idatzi horiek P. Lafittek osatu zituen, harekin elkarlanean. 1968. urtean, Lafitte kalonjeak Euskaltzaindiaren Donostiako bulegoan utzi zituen lehen eskuizkribuak P. Berrondoren eskuetan. Berrondo, orduan Euskaltzaindiaren Donostiako bulegoko idazkaria zenak, harrigarria badirudi ere, Martin de Retana argitaratzailearen eskura eman zituen eskuizkribu horiek. Horrela, Azkueren Hiztegia osatzeko pentsatuak izan ziren material horiek «Retanaren Hiztegi» bihurtu ziren. Horretarako, Sota-Lafitteren lanari, J. Garatek, T. Etxebarriak, K. Izagirrek, K. Mitxelenak, Totorikak, P. Iraizozek, D. Inzak eta abarrek argitaraturiko hiztegi gaiak erantsi zitzaizkion, L. Akelosoren zuzendaritzapean, Jose Lasa Apalategi laguntzaile zuela. Txartelak Markinan, Lauro ikastolan, Itziarren eta Salamankan makinatu ziren. «Las pruebas, prestas para la imprenta [sic]» Aita J. Mokoroak aztertu zituen, eta proben zuzenketa A. Irigaraik, G. Manteolak eta J. Kerexetak egin zuten.

*Retana hiztegiaren egituraz.* Gorabehera bihurri horiek bete betean hartzen dute *Diccionario Retana de autoridades del euskara* hiztegia egituraren aldetik. Bestalde, gorago aipatu ditudan hiztegi gai horiek landu zituztenek sistemarik «ekonomikoa»ena, baina hiztegi gintzaren aldetik okerreana, erabili zuten Retana hiztegia egituratzeko: salbuespenak salbuespen, sarrera bakoitzean, lehenik, Retanak eskuratu zituen hiztegi gaiak —inongo irizpiderik gabe, antza— ematen dira; ondoan paragrafo berean, Azkueren sarrera osoa bere hartan eransten zaio.<sup>49</sup> Aski da horren ondorioz sortzen den kaosa azaltzeko lehen orrialdetako zenbait sarrera, ia-ia ausaz hautatuak, deskribatzea.

ABA sarreran, lehen adiera «La boca» —artikulu eta guzti— da, Iñarra, Azkue eta Agirre Asteasukoaren aipuz —ordena horretan— hornitua; bigarrena «Padre: religioso y sacerdote» *Euskal Esnalea*-ko aipu batekin; hirugarrena «Panal» da, baina aipatzen diren bi lekukotasunetan *abaa* agertzen da, non bigarren *a* ez baita artikulua; laugarrena «Desgracia súbita», nahiz eta gehitzen duen «más bien es *Abe*. Vid. esta palabra». Hala ere, horren ondoren Milia Lasturren eresiko adibidea *Zerurean jausi da abea* [...] hor bertan ezartzen du; bosgarrena, «Pértica, varal», eta seigarrena,

<sup>49</sup> Lehen liburukietan bederen; azken liburukietan badirudi kontuak alderantziz antolatzen direla: lehenbizi Azkuerenak, gero gainerakoak, ORREN edo URTE sarreretan adibidez, baina ez ORRI-n; bestalde, URTEEN sarreran T. Etxebarriaren adibide bat Azkueren hiztegitik jasotzat markatzen da, eta orobat ORREN sarrerako Arantzazu egutegikoa.

«Retoño de roble», Darricarrere-ren hiztegitik aldatzen ditu. Horien ondoren Azkuerenak eransten dira: zazpigarrena «Haba», zortzigarrena «Panal de miel» berriro, bederatzigarrena «Padre» berriro. Azkena, hamargarrena, ez da Azkuerena, Garaterena baizik. Are kaos handiagoa eta errepikapen eta nahaste larriagoa dago ABAR sarrera luzean.

ABE sarrerak 22 adiera ditu. Lehena «Arbol» da, bigarrena, «Columna»; bigarren horretan Azkueren testu bateko *abe-arria* aipatzen da, nahiz eta beheago ABERRI «Columna» sarrera datorren. Laugarrena «Tronco» da, baina aipatzen den adibideko *abe*-a «poste»-ren kidea da;<sup>50</sup> bosgarrena «Rodrigón, sostén» da, hurrengoak «Restos que trae el mar» eta «Cavidad»; zazpigarrenean esapide bat —*etxe orrek abea du*— komentatzen da, eta hurrengo adieretan izenak ematen ordaintzat, baina hamabigarrena «Estos, estas» da, adibideetan *itz abetatik*, *alderdi bi abetako* irakurtzen baita; «Tábano»-ren ondoren hamalaugarrena dator, «Te han» [sic], adibideko *ilten baabe* baten oinarritua. Hurrena «Boca» da *abean* bat dela medio. Ondoren Azkuerenak datoz, «rodrigón» eta abar errepikatuz. Azken sarreran *etxeak abea euki* esapidea komentatzen da berriro...

Hori da hiztegiaren tankera orokorra: ABIADURA sarreran «comienzo, partida» lehen adierako lehen adibidea, —*ezkontzeko den gutieneko abiadurarik denean*— hirugarren adierari —«disposición»-i— dagokio. ADA sarreraren «Rama» lehen adieran *adaganetik* bat aipatzen da, eta hirugarrenean «Var. de *adar* en [...] *adagane*»; gainera, ADAGANEAN eta ADAGANEKO sarrerak eskaintzen ditu hiztegiak, Azkuerenetik hartuak; Harrieten *addar*, ADAR eta ADDAR sarreretan agertzen da, lehenengoan zuzenean: «*Ad-dar* (dim.): diablo. (S) Harriet, Dic.»; bigarrenean Azkueren Hiztegi nagusiaren gehigarritik hartua: «(S, ms. Harriet) El diablo. Azkue, Dic, Apéndice, 496»; etab., etab. Gauzak horrela izanik, gaitz da hiztegiaren egituraz ezer funtsezkorik esatea.

*Beste zenbait arazo*. Dena dela, eta aipatuez gainera, badira zenbait zernolako Retana hiztegia kolokan jartzen dutenak eta hiztegi gintzaren aldetik, are Azkuerenari buruz, atzera pauso nabaria dela erakusten dutenak.

Lehenik Retana Hiztegiaren oinarria ez dira euskal hitzak, hitzen aldaerak baino, ia aldaera bakoitzarekin sarrera bat osatzen denez gero. Horiak horrela, irakurleari ahal adina traba jartzen zaizkio AABIXO eta AAFIXO hitz beraren bi aldaera besterik ez direla jabetu dadin. Ildo beretik, *aho* euskal hitzari buruzko argibideak, dozenaka sarreratan —horien artean gorago ikusi ditugun ABA eta ABE sarreretan, adibidez— sakabanaturik daude.<sup>51</sup> Bestalde, ez dago irizpiderik aditz formei buruz: batzuetan erroa eta era burutuua sarrera banatan ematen dira; beste batzuetan ez; ez gutxitan erroaren sarreran era burutuaren adibideak gerta daitezke; eta askotan erroaren argibideak era burutuaren sarreran gertatzen dira.

<sup>50</sup> Nahastea, kasu honetan, hasiberriena da, eta *edo* juntagailuaz batzen diren hitz guztiak sinonimo izan behar dutelako uste tolesgabean datza: *abe bat edo anpor bat legez* dio adibideak, eta hortik nahastea. Orobat, beste milaren artean ABIA sarrerako bigarren adiera «sitio», *eureen abija edo tokija* esalditik oker interpretatua.

<sup>51</sup> H letrari hitzen ordenan balioa ematen zaionez gero *hasi*, *horren...* euskal hitzei buruzko informazioa, Azkuerenean sarrera batean ematen zena, bitan ematen da Retana Hiztegian, ASI eta HASI, HORREN eta ORREN sarreretan hurrenez hurren. Dena dela azken liburukietan ez da *h* kontuan hartzen gehienetan bederen.



Ez dira gramatika kategoriak ematen, noski, baina erdal kidea adizlagun-izenon-doa duen sarrera batean —ik. ERIOSUAR, «Afanosamente, afanoso», adibidez— *eriosuar egundoko arek* bezalako izen erabilerak ager daitezke abisurik gabe; eta ez dira falta «LABALDE: cerca del horno» bezalako sarrerak, nahiz eta eransten den adibidean *labalde* argi eta garbi izena den eta, are larriagoa dena, bigarren adiera Azkueganik erantsian «Lugar en que está el horno» esaten den.

Harriet, Darricarrere eta frantsesezko gainerako iturrietan, jatorrizkoak gaztelaniaz ematen dira beti, batzuetan ongi itzuliak, beste batzuetan ez hainbeste. Nolanahi ere, frantsesaren erabilera dela eta, harrigarriena, beharbada, LEPITXULI sarrerako iruzkina da, non harriduraz eta espantuka bezala salatzen baita Hiribarrenek egin eta Lhandek kopiatu omen zuen huts izugarria, alegia, Larramendiren «torcecuello» «torticolis»-ren bidez itzultzea:<sup>52</sup> nik neuk ere badakit *torticolis* dela frantsesez, *torcol* haren sinonimoarekin batera, espainolezko *torcecuellos* izeneko txoriaren kidea.

Azkueren zenbait iratxo eta interpretazio oker saihesten dira —*aillekitu* eta *azkoraien*, adibidez, hitzaurrean bertan— baina beste asko sartzen dira; esaterako, milaren artean, *hestekotan* testu hitzetik HESI «Cerrar» sarrera eratzten da, eta hamar leerro beherago *hesten* batetik HESITU «Acotar, cerrar», biak HETSI «Cerrar» sarreran sartu beharrene; eta orobat, *berantzeko*-tik BERANTU ateratzen da, BERANDU-ren orde; edo LIKINDU sarrera bat sortzen da ezerezetik, hots, Iturriagaren *bigundu* batetik; edo, agian marka guztiak hausten ditutena, BATELEZ IBILI «Andar una muchacha formal, como una señora» *andra batelez ibiltzen da bera* esalditik aterea.

Esanahiaren interpretazio okerrak ere nonahi dira. Gorago aipatu ditugunez bestalde, *Herria* aldizkariako adibide bateko *zirga-bidea*, «camino de sirga» dena, jakina, «camino de trigo»-tzat interpretatzen da, eta ZIRI sarreran, *Herria*-ko beste adibide bateko *elektrika ziri*, «poste eléctrico» dena dudarik gabe, «alambre»-tzat hartzen da. Horrelako interpretatze hutsak ez dira gutxi, eta, okerrago dena, askotan ez dira detektaerrezak: adibidez, ASMAKARI sarreran, Iztuetaren *Kondaira*-ko aipu baten interpretazio okerretik —*Etzitzaiozkan baliatu bere ames galgarriak. Asmakari oek ondo ezin moldatuz [...]*— ateratzen den «Inventor, soñador»: arretaz berrirakurri behar da aipua, hor, beste agerraldietan bezala, «invento» dugula ikusteko.

Nabaria da zenbait sarreratan erdal itzulpenaren mendekotasuna. Adibidez ABENTAU-n ez da zuzentzen Azkueren «Empezar a», non *a* hori, ez *Euria abentau da* euskal esaldiak, baizik eta «empieza a llover» haren itzulpenak eragina baita.

Atal honetan edo aurrekoan aipatu ditugun akats eta alde txarrak ez dira hain hiztegi zabal batean nahitaez aurkitu behar diren hutsak, baizik eta joera eta jokaera orokorren erakusgarriak. *Orotariko Euskal Hiztegia*-n ari garenon eskarmentuen arabera, ez dago ia sarrera apur bat korapilotsurik akatsen bat ez duenik.<sup>53</sup>

Bukatzeko, Retana Hiztegiak Azkuerenari eransten dion bibliografia, Azkuereana ez bezala, ezin erabilizkoa da, izenburuen arabera ordenatua baita, eta ez laburduren

<sup>52</sup> «Hiribarren en su Dic. Ms., citado por Lhande, tradujo el «torcecuello» de Larramendi por «torticolis!».

<sup>53</sup> Gauza bitxiak ere ez dira eskas: ADIUR sarreran bada «me parece» bat irakurleak ezagutzen ez duen erredaktorearen usteari dagokiona.

arabera. Hots, hiztegiko sarrera batean *Ibañetan* laburdura aurkitzen dugunean, bibliografia osoa igaro behar dugu, azken hirugarren erreferentzian, «ZIBERO. *Uskaldunak Ibañetan. Trajeria hirur phartetan*. Bayonan. Autor: Clement d'Andurain»-en, *Ibañetan* laburdura aurkitu arte.

*Retana hiztegiaren irakurlea*. Ez da erraz hiztegi honen hartzailearen zernolakoak zehazten. Metahizkuntza —hitzaurre, eskaintza, argibide eta gainerako guztien hizkuntza— salbuespenik gabe gaztelania da, eta gorago esan dudanez, gaztelaniara itzultzen dira orobat frantses jatorrizko aipuak. Bestalde, euskalariei —eta zer esanik ez euskal idazleei— ez zaie bidea errazten aldaeren oihan tapitu horretan.

Begien bistakoa da Retana hiztegiaren ekarpen handiena —handiena eta benetan handia—, tradizioetik biltzen diren milaka eta milaka aipuetan datzala, batez ere *Fedearen Propagacioneco urtecaria*-tik eta Iparraldeko beste zenbait iturri eskuragaitzetatik bildu diren gai ugari, garrantzitsu eta aberatsetan. Baina ikusi dugunez, erdal ordainek, askotan, testu horiek zuzen interpretatzen baino areago, irakurlea desbideratzen laguntzen dute.

## Aipuak

- Gelpí, C., 1997, *Mesures d'avaluació lexicogràfica de diccionaris bilingües*. Doktore tesi argitaragabea.
- Landheer, R., 1983, «Ambiguïté et dictionnaire bilingue» in *Le dictionnaire. Actes du Colloque Franco-Néerlandais. 28-29 avril 1981*. Lille.
- Lhande, P., 1926, *Dictionnaire Basque-Français*. Paris.
- Mitxelena, K., 1974, «De lexicografia vasca (A propósito de *Axular-en Hiztegia* del P. Luis Villasante)», *FLV*6, 103-22.
- Sarasola, I., 2002, «Euskal hiztegi gintzaren historiarako oharra: Añibarro, Izueta eta Aizkibelen hiztegiez, eta Azkueren hiztegi gintzaz». In X. Artiagoitia, P. Goenaga & J. A. Lakarra (arg.), *Erramu Boneta: Festschrift for Rudolf P. G. de Rijk*. ASJU-ren Gehigarriak 45, EHU/UPV: Bilbo.

# PARA LA HISTORIA DEL SUSTANTIVO VERBAL EN VASCO

Blanca Urgell  
(JUMI, UPV/EHU)

## 1. Introducción<sup>1</sup>

No se me ocurre mejor modo de manifestar lo mucho que admiro el rigor y el ingenio con que se aplicó el profesor Trask al estudio del euskera, y lo mucho que hemos perdido con su temprana falta, que tomar como punto de partida un trabajo suyo, uno de los más sobresalientes: “On the History of the Non-Finite Verb Forms of the Basque Verb” (Trask 1995).

En ese trabajo, como es sabido, el prof. Trask reúne y completa una minuciosa labor de reconstrucción de las formas no finitas del verbo vasco, tarea en la que había estado interesado desde el principio (Trask 1981 y 1990).

No voy a extenderme en elogios, porque creo que todos pensamos que esta parte de la gramática histórica dio un vuelco al paso del prof. Trask: nada tan sistemático y sugerente había hasta entonces, y sin duda costará encontrar explicaciones mejores —seguramente no las haya— para varios de los temas que ha dejado explicados.

Sin embargo, cualquier filólogo vasco de formación preferentemente histórica y/o dialectológica no habrá dejado de observar que la descripción que precede a la explicación en el caso de lo que Trask, con otros muchos, llama el “gerundio” (1995: § 4), si bien no obstaculiza la brillante argumentación posterior, es bastante deficiente. La culpa, con todo, deberíamos asumirla nosotros: la bibliografía que cita el prof. Trask es antigua (Azkue 1923-25; Gavel & Lacombe 1937) y no refleja, no diré *todo* lo que se puede decir, sino ni siquiera lo que cualquiera de nosotros sabe o ha oído sobre ello: lo que podríamos llamar “cultura general” sobre el tema.

Las cosas no han mejorado desde 1995: en la monumental *A grammar of Basque*, el prof. Hualde (2003: 200-201) se limita a presentar la distribución de las formas en vasco estándar de lo que llama, también con otros, el “participio imperfectivo”;<sup>2</sup>

---

(3) Prosekutiboko *-ti* aldaera zaharra ageri da Garibairen esaeretan: *Erregueri vere aceti pusesa emon doa*. Beraz, *aceti* ‘atzetik’. Ablatiboan XVIII. mendean bertan ere singularrean *-ti* eta pluralean *-etati* aldaerak erabili zituen Barrutiak: *nundi, zeruti, es-cuetati...* eta are *orric* ‘hortik’. Dena dela, *-tik* berriaren aztarna ere bada: *esetiĉ* ‘etxetik’. Motibatiboan ere *-ga(i)ti* erabili zuen gehienbat, baina *-gaitic* ere bai inoiz: *esana-gaitic, jaiogaitic*. Antzeko egoera azaltzen zaigu Arrasateko udal aginduan: *-ti* eta *-etati* ablatiboan (behin *batetiĉ*), eta *-gaitik* motibatiboko adibide bakarrean. Esan dezadan honen harira, motibatiboko *-gaitik* aldaera ablatiboko *-tik* baino lehenago hedatu zela. Milia Lasturkoaren kantuan ere *apucaduagatic* ‘gertatuagatik’ ageri da.

XVII. mendeko Antzuolako ikasbidean, ostera, *-tik* berria da nagusi: *vioz osotic, curucetic, oetic jagui, eceberecetic* ‘ezer ere ezetik’, *ileen artetic, nundic...* Behin, hala ere, *certaric formadu eban gorpuza?* azaltzen da. Pluralean, era berean, *-etatic* aldaera erabili zuen: *apartaceco ocasinoetatic, gueure esaietatic, pensamentu gaicetatic...* Motibatiboan ere, azkenik, *-gaitik* erabili zuen gehienetan: *mercimentuegatic, erioceagatic, sepultureagatic...* Baina *-gati* zaharra ere ezaguna zuen: *salvaduĉeagati* idatzi zuen behin, eta *cegati* nahiz *cegatic* sarri.

Garai beretsuko Eibarko kopletan hiru adibide daude, eta denetarik ageri da: ablatiboan *-ti* zaharra (*gustiti*) eta mendebalean arrotza den *-tikan* (*Aldasetican*), eta motibatiboan *-gaitik* (*zeloegaitic*). 1754ko udal aginduan aldaera berriak nagusi dira erabat: *-tik* eta *-etatic* ablatiboan, eta *-gaitik* motibatiboan.

XVII. mendeko Martin Iturbek, azkenik, *-gati* eta *-gatic* erabili zituen motibatiboan, eta *-tik* ablatiboko adibide bakarrean: *orregati, zugati | zugatiĉ, azpico aldetiĉ*.

Garbi dago Debabarrena izan dela berritzaile eta Debagoiena gordetzaile. Gaur egun ere Aramaioko helduen eta adinekoen jardunean bizirik dira ablatiboko *-ti* eta motibatiboko *-gati* aldaerak (Ormaetxea 2002).

(4) Gaur egun Ipar Euskal Herrian eta Nafarroako ekialdean erabiltzen da *-ganik* aldaera bizidunen ablatiboan, baina Euskal Herri osokoa zen antzina. Amiletaren ikasbidean, esate baterako, erabatekoa da: *aganic* ‘harengandik’, *noganic* ‘norengandik’, *inoganic* ‘inorengandik’, *Maria Virgineaganic...* Horixe berori agertzen da XVIII. mendean Barrutiaren teatroan —*gainik* itxurapean sarri— eta Eibarko udal aginduan.

(5) Gaur egun, era berean, Ipar Euskal Herrian eta euskara nafarrean barrena erabiltzen dira *-kotz* (*ordukotz*), *-tekoztz* (*ikustekotz*), *-lakotz* (*egin zuelakotz*) aldaiak. Eredu zabalagoak ziren horiek ere antzina. Barrutiaren teatroan *guretacoizat jaio da Jesus* ageri da, eta *elecinuetaracoz* mende bereko Eibarko udal aginduan.

(6) Gaur egun *-an* da genitibo singularreko morfema Deba ibarrean. Milia Lasturkoaren kantuan, ostera, *-aen* agertzen da: *andra erdiaen çauria; gilça porra andiaen jabe*. Garibairen eseretan ere *gureaen* daukagu. Amiletak, berriz, *-aren* erabili zuen: *Jaungoicoaren, Espiritu Santuaren, eternoaren, jaunaren...* Irureren adibide bakarrean (*aren*) eta Eibarko kopletoak bietan ere (*vicarioaren, bolsearen*) *-aren* agertzen da, eta aldaera horixe daukagu Barrutiaren teatroan eta 1754ko Eibarko udal aginduan. Hemen, dena dela, *-an* berria ere bada: *Jangoicuan bildur бага; gueure Ama Provinciakuan fueruac*.

(7) Genitiboa erabiltzen da gaur egun Ipar Euskal Herrian eta Nafarroako ekialdean aditz izenaren osagarria denean: *lagunaren ikustera joan naiz* (beraz, *lagunaren* vs *laguna*). Badirudi antzina Euskal Herriko gainerako alderdietan ere ez zela erabiltzen. Erabili ditudan lanabesetan Martin Iturberen poesian aurkitu dit adibidea: *goaçen Mairu errira MairuEN zatiçen*. Dena dela, ez da mendebaleko lekuko bakarra. Arrasate erre zeneko kantuan (Mitxelena 1964: 83) *bergararroc asi dira trajio baten asmaçean* ageri da, eta Ibon Sarasola (1983: 122-23) ohartu zenez, Kapanaga mañariarrak ere ezaguna zuen. Adibide gehiago bildu ditu Lakarrak (1997: 191-92) harrezkero, eta horietako bat —niretako gardena ez dena— Barrutiaren teatroan: *escatu zaquioz doa ascoren*.

(8) Euskal Herriko ekialdean erabiltzen da gaur egun genitiboa destinatibo baliorekin, baina adibide bat behintzat, Deba ibarreko lekuko zaharretan ere bada. Hauxe dio Amiletak: *neure becatuen erregucen deusudana leguez* (beraz, *becatuen = bekatuen alde*).

#### 4. Beste zenbait ezaugarri

(1) Bada Barrutiaren teatroan genitiboa erabiltzeko era berezi bat: *labur da guizonaren adimentua adizeco JaunaREN ordenadua; guretacoizat jaio da Jesus, ascoren deseadaua*. Perpaus bi horietan ergatiboa erabiltzea da ohikoena, eta ergatiboa erabili zuen Barrutiak berak ere antzeko ingurune batean: *cumplidu bidi beti secula zeru al-tuaq ordenadua*.

Dena dela, ez da Barrutiaren egitura berezia, eta ezta Deba ibarrera edo mendebalera mugatzen dena ere. Mitxelenak (1964: 143), esate baterako, San Frantziskoren 3. ordenako formularen aurkitu zuen perpaus bitan: *ayta sanctu Nicolao laugarrenaren emona* eta *ayta santu Sist laugarrenaren aprobadua*. Isasti gipuzkoarraren Salbean ere aurkitu zuen beste bat (164-65): *Christoren prometituen*. Bretañako kantuan ikusi zuen Ibon Sarasolak (1983: 78) beste adibide bat: *nobleza guztiaren aniz estimatua*.

(2) Garibairen eseretan eta Barrutiaren teatroan ageri den *-ginen* atzizkia nabarmendu nahi dut: *noc vere gogoaz esaguinen* (*esaguinen* ‘etxeginen’) zioen Garibaik, eta *beti zaode, Jauna, favoreguinen* Barrutiak. Gaur egun ere bizirik dago Deba ibarrean ‘*gintzan*’ adiera daukan atzizki hori: *eskopetaganan, torlojuginan, zulo-ginan...* tankerako hitz ugarirekin erabiltzen da.



## Aditzaren morfologia

### 1. Mendebaleko ezaugarriak

(1) Berez bilakaera fonetikoak badira ere, ezaugarri morfologikotzat jo izan dira \**edun* aditzaren erroko emaitzak. Mendebalean *-o-* eta *-au-* dira orainaldiko errook adizkien arabera, eta *-eu-* iraganaldikoa. Mendebalarekin bat datozen, gehienbat, Deba ibarreko lekukoak. Amiletak, esate baterako, *dot*, *dozu*, *dogu*, *dau*, *dabee* (< *dauee*) ‘dute’, *eban* (< *euán*) ‘zuen’, *eeben* (< *eueen*) ‘zuten’ erabili zituen.

Deba ibarreko lekukoetan, dena dela, *-e-* erro giputza ere agertzen da noiz-behinka. Garibairen esaera zaharren bildumetako batean *det* azaltzen da, nahiz eta mendebaleko ohiko adizkiak izan, oro har, nagusi. Irureren poesian *dot* agertzen da birritan, eta *det* behin. Barrutiaren teatroan ere bada *dezu*, eta jatorri ezezaguneko Martin Iturbek, azkenik, *det* erabili zuen bere poesiako adibide bakarrean.

(2) NOR-NORI-NORK saileko *eutsi* erroa da mendebaleko bereizgarriarik esanguratsuenetakoa. Lekukorik zaharrenetarik hasita ageri da. Adibide ugari dago, esate baterako, Amiletaren ikasbidean: *ofrecicen deusut* ‘dizut’, *esan deustazu* ‘didazu’, *esan deuscu* ‘digu’, *ici ceuscun* ‘utzi zenigun’...

Nabarmentzekoa da Milia Lasturkoaren kantuan gertatzen dena: *eutsi* eta \**i* biak ageri dira. Lehena da ugariena, baina datiboa ‘hari’ denean, biak dira aukeran: *eguin deuscu* ‘digu’, *eguin deust* ‘dit’, alde batetik, eta *artu deusat* eta *edegui dio*, bestetik. Gauza berbera daukagu Martin Iturbereen poesian: *eguin deusa* eta *eman dio*. Adibide bakarra dago Irureren poesian, ‘hari’ da datiboa, eta \**i* erroa: *ecarri digo*.

Amiletaren ikasbidean, berriz, gaur egun ere Antzuolan, Bergaran eta Oñatin dagoen ezaugarri bat ageri da: datiboa 3. pertsona denean, NOR-NORI eta NOR-NORI-NORK sailetako adizkiak gurutzatzen dira. Hauxe da Amiletak dakarrena: *vere gracion ilten diranai emoten jaguen gloria* (beraz, *jague* ‘die / diete / diote’).

(3) NOR-NORI saileko adizkietan bilakaera fonetiko berezia izan da mendebalean: *j- / y- / d- / dx-* tankerako ahoskerak hedatu dira hizkeren arabera (orok. *z-*). Deba ibar gehienean *j-* bilakatu da, eta Milia Lasturkoaren kantuan daukagu, dagoeneko, adibidea: *onrra andi asco cumplidu jacan* (beraz, *jacan* ‘zitzaion’). Amiletaren ikasbidean ere badira horrelako adizkiak: *aplicacen jaaco* ‘zaizkio’, *valiacen jacuna* ‘zaiguna’... Antzekoak erabili zituen Barrutiak eta, gainera, ezezko adizkietan mendebalean gertatu den bilakaera bereziaren berri daukagu haren izkribuan: *ez + j- → etx-* (orok. *etz-*). Horren adibide dira *echat* ‘ez zait’, *echazu* ‘ez zaizu’, *echacu* ‘ez zaigu’.

Mendebalean —baina hau ez da bertako bereizgarria— NOR-NORI saileko aditzen iraganaldia osatzeko ‘oraina + N’ bidez egin izan da, *zit-* erantsi gabe. Arestian aipatutako Milia Lasturkoaren kantuko adibidean daukagu lekukotasuna: *cumplidu jacan* ‘zitzaion’.

(4) NOR-NORI saileko adizkietan bezala, \**edun*-en hitanokoetan ere *j- / y- / dx-* ahoskerak daukagu mendebalean (orok. *d-*) eta, oraingo honetan ere, *j-* egin da Deba ibar gehienean. Garibairen gramatika oharretan daukagu lekukotasuna (Ur-kizu 1989: 57): *joaat / jonat* ‘diat / dinat’. Barrutiarenak dira <x> grafema duten beste hauek: *ardan truque saldu xoc*; *beste alderuz izulico xoc aisiac* (*xok* ‘dik’). Adizki horiek *ez* partikularekin batzean, berriz, *ez + j- → etx-* izan ohi da emaitza, NOR-NORI saileko adizkietan bezala. Barrutiarenak berarenak dira adibideak: *casi buruan yleriq echoc*; *echoc osoric ediroco*.

Bilakaera berbera izan da NOR-NORI-NORK saileko eta trinkoen iraganaldiko hitanoko adizkietan: mend. *j*- tankerakoak vs orok. *z*-. Barrutiaren teatroan dauzkagu horren adibideak: *ac ari sarri emon oi jeusac apa gozo dulzea (jeusac 'ziok'); orain xaucat neure aldi (xaucat 'zaukat')*.

(5) Iraganaldiko adizkietan, 3. pertsonetako absolutibo argumentuaren morfema *ø*- izan ohi da mendebalean, eta gisa horretakoak dauzkagu Amiletaren ikasbidean: *eban* 'zuen', *ebeen* 'zuten', *euscun* 'zigun', *eoden* 'zeuden', *eucan* 'zeukan'. Jakina, adizki jakin batzuek *z*- dute beti: *izan*-enak (*zan*, *ciran*), \**edun*-en objektu pluralekoak (*cituan* 'zituen', *cituen* 'zituzten') eta \**edin*-enak (*citeala* 'zitezela').

Amiletaren izkribuan bezala dira gauzak Barrutiaren teatroan: *eban*, *eben*, *egui*an 'egin zezan', *egoan* 'zegoen', *euzan* 'eutsan [zion]', alde batetik, eta *zan*, *ziran*, *zituen* 'zituzten', bestetik.

Gaur egun *z*- ari da nagusitzen Deba ibarrean, baina agerian dago bere berritasuna. Martin Iturbek, dena dela, *çeban* 'zuen' idatzi zuen XVII. mendean.

(6) Mendebaleko ezaugarritzat jo da partizipioetako *-gi*, nahiz eta horren aztarnak Euskal Herriko beste bazter hizkera batzuetan ere badiren, lehen orain baino gehiago. Deba ibarreko izkriburik zaharretan hasita daukagu euren lekukotasuna: *ebagui* 'ebaki' (Bar), *edegui* 'edeki [kendu]' (Gar), *edugui* 'eduki' (Amil, Bar),<sup>2</sup> *iraxegui* 'irazeki [piztu]' (Artazubiaga), *iregui* 'ireki' (Bar), *isegui* 'eseki' (Bar), *jagui* 'jaiki' (Gar, Amil, Bar). Garibaik, gainera, gaur egun Leintz-Aramaio aldean bizirik dirauen *egogui* 'egoki' ere badakar.

(7) Mendebalean erdal *-ado* partizipioak *-adu* eta erdal *-ido* → *-idu* egin dira lekukorik zaharretarik hasita. Milia Lasturkoaren kantukoak dira *apucadu* 'geratu' eta *cumplidu*. Ugari dira Amiletaren ikasbidean: *crucificadu*, *forzadu*, *juntadu*, *obligadu*, *visitadu*..., eta *concedidu*, *concevidu*, *padecidu*... Jatorriz euskal aditzak edo maillegu zaharrak badira, *-atu* eta *-itu* bere horretan gorde dira mendebalean: *escatu*, *gueratu* eta *aditu* dakartza, esate baterako, Amiletak.

1754ko Eibarko udal aginduan agertzen da lehenengoz gaur egun erabat nagusi den *-au* aldaera: *acabau* 'akabatu', *pagau* 'pagatu'...

(8) Mendebalean \**edun* laguntzaile zereginetara ia erabat baztertu eta *eduki* nagusitu da. Milia Lasturkoaren kantuan bada, dagoeneko, horren lekukotasuna: *bere idea dauco* 'bere kidea dauka', *eç dauco Peru Garciac bearrik* 'ez dauka Peru Garziak errurik'. Amiletarenak dira ondorengoak: *daucat proposito firmea*; *cerren gauza guztia bere escuan dauzcan*; *bere escuan eucan nun nai gu salvacea*; *gloria igoala dauqueela (dauquee 'daukate')*...

Aldakuntza erabatekoa ez zela erakusten duten adibideak ere badira, jakina. Garibairena da ondorengoa: *asco badoc*, *asco bearco doc*. Amiletarena da beste hau: *Jaungoicoaq gorpuciq eztau*. Barrutiarenak dira ondorengoak: *casi buruan yleriq echoc (echoc 'ez dik')*; *afari onec eroan deust esean neban guztia (neban 'nuen')*.

(9) *igo* eta *irten* aditzak iragankorrek dira mendebalean. Amiletaren ikasbidean daukagu *igo*-ren lekukotasuna: *igo beeban ceruetara?* 'igo (ba)zuen zeruetara?' Barrutiarena da, berriz, *irten*-en ondorengoa: *ecusi dozu urtezen daben?*

<sup>2</sup> Garibairen esaera bildumen arabera, *eugui* eta *euqui* agertzen dira, eta gaur egun nagusi den *euqui* dago 1754ko Eibarko udal aginduan.

## 2. Euskalki barruko aldeak

(1) Mendebaleko euskalkiaren berrikuntzarik esanguratsuenen artean aditzetako *-z* pluralgilea aipatuko nuke. Deba ibar gehiengan, ostera, ez da hain erabatekoa. Amiletaren ikasbidean, esate baterako, *dauzca* eta *dauzcagu* ditugu (vs mend. *daukaz*, *daukaguz*). Mitxelena (1958 [1998]: 42) Landuchioren hiztegiko euskara mendebalek banatu eta beregaina zela aldarrikatzeko aipatu zuen *daode* ere bada Amiletaren izkribuan (vs mend. *dagoz*), eta baita *geonden* eta *eoden* ere (vs mend. *gengozen*, *egozen*). Deba ibarreko izkribu zahar guztietan, bestalde, *-it-* da \**edun-*en adizkietako pluralgilea: *ditut*, *ditu*, *ditue* ‘dituzte’, *cituan* ‘zituen’, *cituen* ‘zituzten’ dakartza, esate baterako, Amiletak. Eibarko kopletan daukagu Deba ibarreko lehenengo pleonasmoadibidea: *ditus* (eta *ditu*) ageri da.

Indartsu dago *-z* Barrutiaren teatroan: *xataz* ‘zaizkit’, *dacaz* ‘dakartza’, *bequioz* ‘bekizkio’, *demaguzan* ‘emaizkiogun’, *ezazuz* ‘itzazu’ eta *zaituz* pleonastikoa ageri dira. Baina beste hauek ere baditugu horiekin batera: *daode*, *zaode*, *daiztan* ‘ditzadan’ eta *leizque* ‘ditzake / litzake’. Jatorri ezezaguneko Martin Iturbek *dacaz* ‘dakartza’ eta *daude* erabili zituen.

Bizkai aldeko egoerarekin bateratsu dator Eibarko 1754ko udal aginduak erakusten duena: *jacus* ‘zaizkigu’, *daucas* eta *dagoz* azaltzen dira, *-z* pluralgilearen indarraren lekuko.

(2) Jakina denez, aditz iragankorren 3. pertsona pluraleko *-te* morfema ez da mendebalera hedatu, baina horren ordezkoa ez da bat eta bera euskalkiaren eremuan barrena. Esate baterako, ‘dute’ adizkiaren ordezkoak *daude* tankerakoak dira sartaldean, eta *dabe* tankerakoak, berriz, sortaldean. Bigarren horren lekuko dira, esate baterako, Amiletak darabiltzanak: *dabee* ‘dute’, *ditue* ‘dituzte’, *ebeen* ‘zuten’, *cituen* ‘zituzten’, *dauqueela* ‘daukatela’, *dacuseela* ‘dakusatela’, *daguiela* ‘dezatela’...

(3) Aditz izenak egiteko aukera zabala izan ohi da mendebalean, baina aldeak daude leku batzuetatik besteetara. Deba ibarreko iparraldean *-ten* eta *-tzen* orokorrak dira ia erabat nagusi, eta horren adibidea da Amiletaren ikasbidea. Aditz izen berezi bakarrak *ilten* ‘hiltzen’ eta bokal geminatuko *arceen* ‘hartzten’ dira, baina bigarren hau dela eta, ohar bat egin behar da. Partizipioan *-tu* eta silaba bi dutenak aditz izena *-tzeen* egitea gauza ezaguna da alderdi horretako hizkeretan (ikus, Oñatirako, Izagirre 1994), baina Amiletaren ikasbidean bokal bakarreko *arcen* eta *elcen* ere ageri dira. Lausotuta zegoen, nonbait, bokal bikoitzaren balioa.

Deba ibarreko iparraldeko jokabidearekin bat dator Irureren poesia: mendebalek aldentzen diren *atribuicen* eta *deseacen* dira bertako aditz izen adibide biak. Eredu berekoak dira Eibarko lekukoetako adibide gehienak. 1754ko udal aginduan *idacorten* ‘irakurtzen’, *ilten* ‘hiltzen’ eta *joten* ‘jotzen’ dira berezi bakarrak.

Debagoienak, ostera, mendebaleko aukera zabalarekin egiten du bat: *galçaygarri* (cf. *galdu* → *galzaiten* ‘galtzen’) eta *gaxtigaetan* ‘gaxtigatzen’ ageri dira Garibairen esaera zaharretan, *apaynquetan* ‘apaintzen’ Milia Lasturkoaren kantuan, eta *aguinquetan* ‘agintzen’, *parcatuten* ‘barkatzen’, *asenteetan* ‘asentatzen’, *merezietan* ‘merezitzen’, *adietan* ‘aditzen’ eta *arseco* ‘hartzeko’, Arrasateko udal aginduan. Barrutiaren teatroan daukagu ezustekoa, *-ten* eta *-tzen* direlako harengan nagusi. Salbuespenak *xarten* ‘jartzen’, *emaiten* (eta *ematen*) eta *xaiten* ‘jotzen’ dira.

Debagoieneko aditz izenetan badira nabarmendu beharreko gertakari bi. Alde batetik, gaur egun bertako bereizgarria den, baina aspaldi Araba aldean ere bazen *-ketan* (*aginketan*, *apainketan*) eta, bestetik, gaur egun gehienbat Ipar Euskal Herrian gordetzen den *-iten*, baina antzina Euskal Herri osokoa zena (*emaiten*, *jaiten*).

(4) Objektu pluralarekin komunztadurarik ez egitea da Deba ibarreko zenbait hizkeraren bereizgarria. Gaur egun Bergara-Antzuola lerroan hasi eta Aramaio eta Leintz Gatzaga bitarteko guztian gertatzen da. Alderdi horretatik kanpo, Goierri gehienez ere bada, eta Araba aldean ere bazen antzina. Amiletarenak dira adibideak: *Christoq vide vi ici euscun gueure escuan* (*euscun* 'zigun'); *Jauna, ici ceuscuna ceure pasino santuco señaleac* (*ceuscuna* 'zeniguna')... NOR-NORI saileko adizkietan ere ez dago komunztadurik, baina gorago esan denez, pluralean bikoiztu egiten da bokala: *jaco* vs *jaaco* 'zaio / zaizkio'. Hona hemen adibidea: *amudiozco obraac dira Espiritu Santuari aplicacen jaaconac* (*jaaconac* 'zaionak'). Arauak baditu bere salbuespenak, eta \**edun*-en adizkiekin beti dago komunztadura: *cein sacramentuq parcacen ditu beca-tuac?* Amiletaren hizkeran, gainera, *eduki*-ren adizkietan ere gauzatzen da, gaur egun Antzuolan eta Bergaran gauzatzen den bezala: *dauzca* eta *dauzcagu* ageri dira.

Jakina, Barrutiaren teatroan ere badira horrelako adibideak: *abrasazen deust errai guztiac* (*deust* 'dit'); *ona nun ofrecicen deusut mundo bioz guztiac* (*deusut* 'dizut'); *vear neusquio zancazanac ebagui* (*neusquio* 'nioke'). Baina komunztadura zuzen betetzen dutenak ere ugariak dira: *emon daiztan salto vi* (*daiztan* 'ditzadan'); *calchapotat* (sic, *calchapotac*) *emon leizque* (*leizque* 'ditzake / litzake'); *xaunari demaguzan graziac* (*demaguzan* 'emaizkiogun'); *biurrezazuz orain gueugana, Jesusa, zeure beguiac* (*ezazuz* 'itzazu'); *deseguindu beiz zeure arguiac* (*beiz* 'bitez'); *viozerean emon bequioz mila grazia veroni* (*bequioz* 'biezaizkio'); *barveru бага osatu xataz neure azur ausiac* (*xataz* 'zaizkit'). Gaur egun behintzat, adizki horiek arrotzak dira Leintz-Aramaio-Oñati aldean.

Arrasateko udal aginduan ere, azkenik, bada komunztadura ezaren adibidea: *eu-reen buruaq ecusi estaguien* (*daguien* 'dezaten').

(5) *-tzeke* / *-tzaka* 'gabe' aditz atzizkia dago Deba ibarreko erdigunean: Antzuola, Bergara, Elgeta, Soraluze eta Eibar daude gaur egun eremu barruan. Amiletaren izkribuan bada bere oihartzuna: *aren mandamentuequin aprobechazaca; pasinoaz valiaçaca; sein bateazacaac* 'haur bataiatu gabeak'.

### 3. Galdutako ezaugarriak

(1) \**ezan* eta *egin* erroak aukeran zeuden mendebalean antzina. Garibairen esatera bilduman badira bien adibideak: \**ezan* daukagu *jagui cidin naguia, erra ciçan uria* esaeran (*ciçan* 'zezan'), eta *egin*, berriz, *hora il daguien mendian guiçona idoro ez didila* dioen bestean (*daguien* 'dezaten').

XVII. menderako, nonbait, galduta zegoen Antzuolan, *egin* baizik ez zuelako Amiletak erabili: *aditu daigun* 'adi dezagun', *biaq gozadu daguiela* 'biek goza deza-tela', *concedidu eiguzu* 'kontzedi iezaguzu', *libradu naguian* 'libra nazan'. Behin baizik ez da \**ezan* ageri: *libra gaiçaçu*. Garbi dago, baina, esapide fosildua dela.

XVIII. mendeko Arrasateko udal aginduan zazpi bider agertzen da *egin* erroa eta behin ere ez \**ezan*. 1754ko Eibarko udal aginduan ere ez da \**ezan*-en aztarnarik. Aldiz, Barrutiaren teatroan \**ezan*-en adibide ugari dago: *paga dezeela danzea* (*dezee-*

la 'dezatela'), *viozoc garvi ezazuz* (ezazuz 'itzazu'), *adi ezazu gure negarra, aseguin arrezazu...* Nabarmentzekoa da, gainera, NOR-NORI-NORK saileko adizki bat ere \**ezan* erroduna dela, ez baita hori ohikoa: *veroni sal ezozu vioz guztia* (ezozu 'ie-zaziozu'). Dena dela, *egin* errodunak sarriago erabili zituen: *nigaz gura dozuna eguin eguizu, xo eguic, artu daigun...*

(2) \**ezan* eta \**edin* erroak Euskal Herri osoan erabiltzen ziren indikatiboan antzina. Bizkaiko zenbait alderditan oso berandu arte iraun dute, XIX. mendearen erdialdeko Juan Mateo Zabalaren (1848: 18, 56) lekukotasunak ere erakusten duenez. Deba ibarrean lehenago galdu zen, baina hango izkribu zaharretan ere bazen. Garibairen esaera hauek dira adibide: *jagui cidin naguia, erra ciçan uria // arçaiac aserra çiteçen, gastac aguiri çiteçen.*

(3) \**edin* eta mendebaleko *egin* erroak alegiazko baldintzetan ere agertzen dira lekuko zaharretan. XVIII. mendeko Barrutiarenak dira ondorengoak: *xagui nendi al banegui; xagui banadi, isico deustat molsuarequin aoa; bardin* (sic, 'baldin') *ossa banadi, laster da ondo egingo deusat pagu erreala verari.*

(4) Aditz oina Euskal Herri osoan izan zen garai batean ezaguna. Garibairen esaera honetan daukagu horren oihartzuna: *arçaiac aserra çiteçen, gastac aguiri çiteçen.* Ohar bedi *aserra*, alde batetik, eta *aguiri*, bestetik, dauzkagula esaera berean. Badu horrek bere arrazoiak: aditz oina lehenago galdu zela partizipioa *-i* zenean, *-tu* zenean baino. Garibaik jasotako kantu eta esaeretan, hain zuzen, sekula ere ez da ageri *-tu* duen partizipiorik, aditz oina baizik.

XVII. mendeko Amiletaren hizkeran partizipioa da nagusi. Horixe agertzen da beti: *concedidu eiguzu, libradu naguian, sinistu daigula, amadu daigula, ecin salvadu gueindezquean...* Bakarra da salbuespena, gorago aipatu den esapide fosildu bera: *libra gaiçaçau.*

XVIII. mendeko Arrasate eta Eibarko udal aginduetan ere ez dago aditz oinik. Aldiz, Barrutiaren teatroan adibide ugari dago: *paga dezeela, acorda didin, osa banadi, desterra vidi, publica vidi, alista vitez, alegra vitez, apareja vequio, adi ezac, arrezazu, garvi ezazuz, biur ezazuz, acomoda zaitetz, quen zaitetz, sar zaytez, gal adi...*

(5) Euskararen bilakabidean berria da 'zuek', eta berriak, era berean, berari dagokion *-e / -te* morfemak. Deba ibarreko hizkerak gordetzaila izan dira ezaugarri honi dagokionez, Juan Mateo Zabala bera ere (1848: 57) ohartu zenez. Gaur egun bertan, hain zuzen, badira aldaera zahararen aztarnak. Aspaldiko izkribuei dagokienez, berriz, hona hemen Barrutiaren zenbait adibide: *zuenzat ostaturiq eztago emen, acomoda zaitetz bazterren baten* (zaitetz 'zaitetzte'); *pastoreac, ea varrura sar zaytez* (zaitetz 'zaitetzte'); *aseguin arrezazu, Belengo pastoreac* (ezazu 'ezazue')...

(6) Mendebaleko izkribu zaharretan *-e* agertzen da datiboa duten adizkien erroan, eta *-a* datiborik ez dutenetan. Halaxe da Amiletaren XVII. mendeko ikasbi-dean: *cumpliceco penitencia confesoreac iveni deguidana* (deguidana 'diezadana'), *jucioa etorri dequionean* (dequionean 'dakionean'). Datiborik ez dagoen honetan, ostera, *-a* erabili zuen: *Jaungoicoagan sinistu daigula* (daigula 'dezagula'). Hurrengo mendeko Arrasateko udal aginduan ez dira bereizten batzuk eta besteak, eta *-a* agertzen da denetan, gaur egun bezala: *avisadu daguiola* 'abisa diezaiola'. Barrutiak, hala ere, ez zuen arrotza: *fiesta deguiogun infante oni.*

(7) Badirudi antzina 'partizipioa + RIK' zela Euskal Herri osoko egitura. Deba ibarrari dagokionez, horixe da ohikoena, XVIII. mendean bertan, Barrutiaren tea-

troan: *zeruac ala nairiq; Espiritu santuac queriza eguinic; zuc emonico sentenziorrec; ordenaduric dago; jaioric dago...* Dena dela, geroago nagusitu den -TA ere badago: *neure azurrac pedazaduta emeti jagui eci[n] non; ugazabari artuta nator ysiliq lucainquae; mila golpe artuta nago.* -TA berria da erabat nagusi 1754ko Eibarko udal aginduan.

(8) Oraintsu arte iraun du Zuberoan botibo moduak *ailedi jin!, aileza egin!* tankerakoetan. René Lafon (1944: I, 73) ohartu zenez, Garibairen esaera bilduman ere bada horrelako bat: *ederra vay liz, ona eç eyliz.* Dena dela, hauxe da, dakidala, mendebalean aurkitu den adibide bakarra, eta ezin, hortaz, erabateko ondoriorik atera.

(9) *eskatu* aditza iragangaitz gisara jokatzekoa da mendebaleko lekuko zaharretan, Euskal Herriko beste alderdi batzuetan bezala. Amiletaren izkribuan daukagu jokamolde horren adibidea: *cer escatuco gaiçacan Jaungoicoari (gaiçacan 'gatzaizkion')*. Baita Barrutiaren teatroan ere: *escatu zaquioz*.

(10) Gaur egun arrotzak diren adizki trinko zenbait ere ageri dira lekuko zaharretan. Garibaik *daguidan* 'egin dezadan', *daidi* 'egingo du', *darraiču*, *engarren* 'ekarri hinduen' erabili zituen. Irureren poesian *indaçu* 'emaidazu' ageri da. Amiletak, berriz, *ikusi-ren dacuscu* eta *dacuseela* 'dakusatela', *jarraitu-ren baguerraingon*, eta bi txiakoak diren *etsi-ren beste* hauek erabili zituen: *arimea gorpuzari beusan?* (*beusan* 'baeutsan'); *guizonari ezpatea ta maguinea biac dausa (dausa 'dautsa')*; *ala arimea ta gorpuzari bere Jaungoicoari eusan (eusan 'eutsan')*.

Barrutiaren teatroan ere badira gaur egun galduta dauden trinkoak: *egin-enak (deguiogun 'egin diezaiogun')*, *eman-enak (indazu 'emaidazu', iguzu 'emaiguzu')*, *demaguzan* 'emaizkiogun', *etzan-enak (daza, gauza)*, *eratzan-enak (daraza)* eta *ikusi-enak (dacust, dacusu, bacusgu)*.

#### 4. Beste zenbait gertakari

Deba ibarreko lekukoetan -a- da erroa *izan*-en orainaldi pluraleko adizkietan: *gara, zara*. Martin Iturberen poesiako *çera* da erro giputza daukan bakarra.

### Morfosintaxia

#### 1. Mendebaleko ezaugarriak

(1) Badirudi antzina perpaus kontzesiboetako *arren* zabalduago zegoela Euskal Herri osoan barrena, baina gaur egun mendebalean erabiltzen da gehienbat. Jakina, Deba ibarreko lekukorik zaharretan ere ageri da; Olasoren kantuan, esate baterako: *dardoac eguin arren vere aldia, Olaso da ene egoteco aulquia*.

(2) Kontzesiboetako *arren* horren oihartzunera beharbada, kausa eta helburuzko perpausetan -*terren* hedatu da mendebalean (-*terren* izkribu zaharretan). Amiletaren ikasbidean bada bere lekukotasuna: *icenac diferenciacerren esaten dogu*.

(3) Mendebalean eta Ipar Euskal Herrian gorde da *ala* hautakaria, Gipuzkoa eta Nafarroa gehienez *edo* baizik erabiltzen ez delako. Amiletaren ikasbidekoa da adibidea: *zu ala zure aita dira nagusiago?*

(4) Mendebaleko euskararen eta bere ondoko Urolalde eta Goierriko hizkeretan erabiltzen da gaur egun perpaus osagarrietako -(e)na morfema, eta Amiletaren izkribuan ere bada bere lekukotasuna:

— *Siniscen bozu Espiritua Jaungoicoa dana?*

— *Bai jauna, siniscen dot Trinidadeco irugarren personea dana Jaungoicoa.*

Barrutiarenak dira ondorengoak: *baquigu zeu zarana piadosoa; zeruco erreguea dana baquigu; baquizu gure vnozoc zeureac dirana.*

Badirudi morfema hori eremu zabalagoan zela antzina ezaguna. Hain zuzen, Juan Lazkanoren kantuan aurkitu zuen Mitxelenak (1964: 100) lehenengo lekukotasuna: *Frances osteac jaquingo du ura Ondarrabian zana.*

## 2. Euskalki barruko aldeak

(1) Gaur egun perpaus hautakariak osatzeko *nahiz* orokorraz gainera, bertako bereizgarria den *zein* ere erabiltzen da Bizkai aldean: *bata zein bestea*. Berria dirudi bigarren honek, bestea delako izkribu zaharretan agertzen dena. Gaur egungo Deba ibarreko jardunean ere ez da oso ezaguna, eta *nahiz* daukagu, era berean, Amiletaren ikasbidean: *Aitearen da curuce santuaren, naiz ceinacen da persignacen.*

(2) Beste zenbait bazter hizkeratan bezala —Erronkarin eta Zaraitzun, gehienbat—, mendebalean ere izan da moduzko perpausetan aditza mugatzeko joera. Gaur egun, dena dela, Bizkaiko sartaldean baizik ez da ezaguna, eta han ere, jakina, galbidean da. Garai bateko eremu zabalagoaren lekuko da Garibaik bildutako esaera: *garean, gareana leguez*. Beranduagoko Amiletak ere ezaguna zuen: *erregucen deusudana leguez*.

## 3. Beste zenbait ezaugarri

Arrotza da *bait-* aurrizkia Deba ibarreko gaur egungo jardunean, eta lekuko zaharretan ere ez da ohikoa. Behin, ostera, *lastazacuba baininzan ala* idatzi zuen Barrutiak. 1754ko Eibarko udal aginduan sarri agertzen da, betiere *zeina baita* esapidan; ondorengo honetan, esate baterako: *urtebarrico ylian, ceina baita urtarrilian*. Dena dela, ez du ematen herri horretako egitura jatorra. Horren ordez, hain zuzen, gaur egun ohikoa den ‘aditza + *eta*’ egitura agertzen da Amiletaren ikasbidean:

— *Ostia consagrada ausicen danean, Christoren gorpuz ausicen da?*

— *Ez jauna, milagrosamente dago ta.*

Gaur egun mendebaleko eta erdialdeko euskalkietan indartsu dago egitura hori, eta euskara nafarrean ere barneratu da.

## Sintaxia

### 1. Mendebaleko ezaugarriak

Mendebaleko ezaugarritzat jotzen da *bi* zenbatzailea izenaren eskuinetara jartzea, nahiz eta antzina Euskal Herriko beste alderdi batzuetan ere ezaguna izan (Zuazo 1988: 370-71). Eskuinean erabiltzen da, jakina, Deba ibarreko lekuko zaharretan: *vide vi* eta *modu vitan* idatzi zituen, esate baterako, Amiletak.

### 2. Galdutako ezaugarriak

Hego Euskal Herriko izkribu zaharretan behinik behin, ohikoa da ‘partzipioa + *ez* + laguntzailea’ hurrenkera. Garibairen hauetan daukagu adibidea: *valizco oleac*

*burdiarik eguin eçtaroa; erregue vere oguiz ase eçtoa; mendiac mendia bear eçtau; gura ez joaat.* XVII. mendeko Amiletak ere ezaguna zuen: *nola esaten eztoçu; ecer obradu ez ebeen.* Baita Eibarko koplak egileak ere: *falta estitu.* XVIII.eko Barrutiak erruz erabili zuen, baina errima arrazoiak ere kontuan eduki behar ditugu haren jardunean: *leen leguez egongo enaiz; lo eguiten isczuzu, goiza etorri echazu; bestelaco tratamenturiq merezizen eztozu; senar gaizac emaste ona esperadu ezpegui; nola confundizen ezta mundua...* Esan dezadan, honen harira, egitura horretakoa dela X. mendearen erdialdeko Donemiliagako glosetan agertzen den adibidea: *guc ajutu ez dugu* (Mitxelena 1964: 42).

### 3. Beste zenbait ezaugarri

(1) Gaur egun ia erabatekoa da erakusleak izenaren aurretik jartzeko joera mendebalean: *hau gizonau, hara etxera.* Dena dela, ez dirudi oso zaharra. Esku artean izan ditudan lanabesetan sekula ere ez dut aurkitu, eta gaur egungo Deba ibarreko hizkera batzuetara ere ez da hedatu. Amiletaren ikasbidekoak dira, esate baterako, ondorengoak: *cegatic eguiten doçu vequoquico curuce ori?; fedeco gauza oneec eguiac bira?...* Barrutiaren teatrokoa da hurrengoa: *niq ezin aditu dot misterioau.*

(2) Gaur egun *egin* indargarri erabiltzeak esanahi berezia ematen dio mendebaleko eta erdialdeko euskalkietako jardunari: *etorri da* vs *etorri egin da.* Berria dirudi horrek ere. Erabili ditudan lanabesetan ez da ageri. Hona hemen, esate baterako, Amiletaren izkributik hartutako adibidea:

- *Oneec memoriaz xaquitea asco da?*
- *Ez jauna, aditu bere bear dira.*

Gaur egungo jardunean *aditu ere egin behar dira* izan ohi da horren ordaina.

## Lexikoa

### 1. Mendebaleko hitzak

*a* erakuslea ‘hura’ (Irure, Eibarko koplak), *atzamar* ‘hatza’ (Bar), *behar* ‘lan’ adierarekin (Amil, Bar), *berba* ‘hitz’ (Olaso, Amil, Bar), *buzkantza* ‘ardi odolkia’ (Bar), *giputz* ‘euskara giputza darabilena’ (Milia), *goru* ‘ardatza’ (Gar), *gura* ‘nahi’ (Gar, Bar, Eibarko udal agindua), *jausi* ‘erori’ (Milia, Iturbe, Bar), *osatu* ‘sendatu’ adierarekin (Bar), *otzara* ‘saskia’ (Gar), *ugazaba* ‘jabea, nagusia’ (Bar), *zeintzu(e)k* eta *nortzu(e)k* (Amil), *zertzuk* (Eibarko koplak), *zemai* ‘mehatxua’ (Bar). Garibaik, mendebalean gaur egun bezala, *hagin* erabili zuen ‘hortza’ adierazteko, eta gaur egun galduta dagoen *lataagin* ‘hagina’ esateko.

Mendebaleko hilabete izen bereziak ere aipatu zituen Garibaik: *bagil* ‘ekaina’, *garagarril* ‘uztail’ adierarekin, *zemendi* ‘azaroa’. Baita asteko egunen izenak ere: *martitzen* ‘asteartea’, *eguzten* ‘asteazkena’, *eguun* —eta dagoeneko galduta dagoen *eguzari*— ‘osteguna’, *bariiku* eta Debagoieneko *eguakotx* ‘ostirala’, *zapatu* ‘larunbata’ eta *domeeka* ‘igandea’. Eibarko kopletan *bariaku* eta *zapatu* agertzen dira.

Mendebaleko ohiko mugak gainditzen dituzte beste hauek: *abade* ‘apaiz’ adierarekin (Eibar eta Bergarako udal aginduak), *albo* ‘aldamen’ (Gar, Bar), *arran* ‘zintzarría’ (Bar), *bekoki* ‘kopeta’ (Amil), *berna* ‘zangoa’ (Gar, Bar), *bider* ‘aldiz’ (Bar), *eroan*



‘eraman’ (Gar, Milia, Amil, Bar), *e(u)rak* izenordaina ‘berak, beraiek’ (Amil, Eibarko koplak, Arrasate eta Eibarko udal aginduak, Bar), *gabon* ‘eguberri’ adierarekin (Bar), *igerri* ‘nabaritu’ (Gar), *ira* ‘iratzea’ (Gar), *izara* ‘maindirea’ (Amil), *kuma* ‘sehaska’ (Bar), *legez* ‘bezala’ (Gar, Amil, Eibarko koplak eta udal agindua, Bar), *okela* ‘haragia’ (Bar), *ostera* ‘berriro’ adierarekin (Eibarko koplak), *osteruntzean* ‘bestela’ (Eibarko udal agindua), *sarri* ‘maiz’ adierarekin (Bar).

## 2. Euskalki barruko aldeak

*aditu* (vs *ulertu*) (Amil, Bar, Bergarako udal agindua), *aitajaun / amandre* (vs *aita / amama*) ‘aitona / amona’ (Milia), *baldin* (Irure, Amil, Bar, Eibarko udal agindua), *berandu* (vs *belu*) (Gar, Bar), *berehala* (Eibarko udal agindua), *esnatu* (vs *itzartu*) (Bar), *etsai* (vs *arerio*) (Iturbe, Amil), *ezkaratz* (vs *suete*) (Bar), *gaizki* (vs *txarto*) (Iturbe, Bar), *hura* erakuslea (vs *a*) (Amil, eta *ura / axe* Bar), *jarri* (vs *jesarri*) (Amil, Bar), *lan* (vs *behar*) (Gar), *Peru* pertsona izena (vs *Peria*) (Gar, Milia, Bar), *puska* ‘zattia’ (Bar).

Garibairen esaera zaharretan agertzen diren *artzai* eta *nola* Deba ibarreko zenbait hizkeratan baizik ez dira gaur egun (vs mend. *pastore*, *zelan*), baina mendebaleko gainerako izkribu zaharretan ere bada euren lekukotasuna. Amiletak, Arrasateko udal aginduak eta Barrutiak erabili zuten *nola*, eta *artzain / pastore* bikotea Barrutiak.

Garibaik egindako ñabardura bat ere nahi nuke gogora ekarri: “*lana* es propiamente ‘trabajo de manufactura’, como quien dize labor, porque al trabajo en general dizen *nequed*” (in Urkizu 1989: 50). Gaur egun ere *lana* esaten da Deba ibarreko herri askotan, eta *beharra* erdiguneko hizkeretan. Aldiz, zeharo arrotza da adiera horrekin *nekea* hitza.

## 3. Galdutako hitzak

*abegi* ‘aurpegi’ adierarekin (Bar), *abere* (gaur egun *ganadu*) (Bar), *abondo* ‘ugari’ (Bar), *adikatu* ‘gogaitu’ (Bar), *adinon* ‘egokia, orekatua’ (Gar, Bar), *abaide* ‘senidea’ (Arrasate, Eibar eta Bergarako udal aginduak), *alabaia* ‘ostera’ (Milia), *apukadu* ‘gertatu’ (Milia, eta *opukadu* Bar), *araisteko* ‘arestiko’ (Bar), *arean* ‘ezer’ (Bar, gaur egun Bizkaiko sartaldean), *arren* ‘otoi’ (Milia, Irure, Bar), *asko* ‘nahikoa’ adierarekin (Amil, Bar), *ate* ‘kanpo’ (Bar), *atsegin* (Bar), *aztura* ‘ohitura’ (Gar), *baizen* ‘baino’ adierarekin (Amil), *behar* ‘erru’ adierarekin (Milia), *bera* ‘bigun’ (hitz elkartuetan baizik ez gaur egun) (Gar), *donge* ‘gaiztoa’ (Gar), *edegi* ‘kendu’ adierarekin (Gar), *egun* ‘gaur’ adierarekin (Gar, Iturbe, Bar), *eli* ‘abere taldea’ (Milia), *emazte* (gaur egun *andra* beti) (Gar, Bar), *ene* ‘nire’ (Gar, Milia, Olaso, Bar), *errai* (Amil, Bar), *ez-pabere* ‘bestela’ (Arrasate eta Eibarko udal aginduak, Bar, gaur egun Bizkaiko sartaldean), *gezi* (Artazubiaga), *gidal* ‘hanka’ (Bar), *gosaldu* (gaur egun *armozau*) (Gar), *herren* (Amil), *hobi* (Milia), *hordi* ‘mozkorra’ (Bar), *ide* ‘kide’ (hitz elkartuetan baizik ez gaur egun) (Gar, Milia), *idoro* ‘aurkitu’ (Gar, eta *ediro* Bar), *iraxegi* ‘piztu’ (Artazubiaga), *or* ‘txakurra’ (Gar), *sehi* ‘haurra’ (Gar, Amil, Bar), *urde* (gaur egun *txarri*, baina *basurde* hitz elkartua) (Gar), *zuzi* (Artazubiaga).

Bitxiak dira —eta, beharbada, okerrak— Garibairen izkribuetan ageri diren zenbait hilabete izen: *hil ulze* ‘abendua’, *urri* ‘martxo’ adierarekin (beste bilduman

eta gaur egun *marti*), *urtarril* ‘urri’ adierarekin eta *zezeil* ‘apiril’ adierarekin (gaur egun *zezeil* ‘otsaila’). Baita *egunene* ‘igande’ adierarekin ere.

Garibairen esaera zaharretan, bestalde, ohikotasuna adierazteko erabiltzen dira *joan* eta *eroan*. Euskal Herri osoan izan dira horren aztarnak (Azkue 1905-1906; s.v. *joan* eta Lafon 1944: II, 148 hh), baina mendebalean iraun du beranduen arte, Juan Mateo Zabalak (1848: 23-24) argiro esan zuenez. Mendebaleko eremu barruan, os-tera, Bizkaia izan zen gordetzaille, Araban eta Deba ibarrean lehenago galdu baitzen. Hona hemen Garibairen adibideak: *Erregue vere oguiz ase eçtoa // Erregueri vere aceti pusesa emon doa // valizco oleac burdiaric eguin eçtaroa*. Gainerako izkribuetan ez dut lekukotasunik aurkitu.

Martin Iturbek *bide* erabili zuen ‘nonbait’ adierarekin (*andia bide çera*), eta Bar-rtutiak *nola* ‘bezala’ esanahiarekin (*ollosa nola ysquin toquian*).

#### 4. Euskara giputzaren eragina

*emen* ‘omen’ (vs *ei*) (Iturbe), *hitz* (vs *berba*) (Gar), *hots egin* (vs *deitu*) (Eibarko udal agindua), *ilargi* (vs *i(re)targi*) (Iturbe), *ilbeltz* (vs *urtarril*) (Gar), *zein* ‘nor’ adierarekin (Amil, baina ez da erabatekoa: *cein da Jaungoicoa?* eta, aldi berean, *noc esan deuscu?*).

### Aldaera lexikoak

#### 1. Mendebaleko aldaerak

*ardao* ‘ardo’ (Gar, Milia), *azkero* ‘ezkero’ (Amil, Bar), *azur* ‘hezur’ (Bar), *baltz* ‘beltz’ (Gar, Bar), *barri* ‘berri’ (Gar, Milia, Eibarko koplak eta udal agindua, Bar), *emon* ‘eman’ (Gar, Amil, Eibarko udal agindua, Bar), *guzur* ‘gezur’ (Bar), *iruntsi* ‘irentsi’ (Bar), *itxi* ‘utzi’ (Bar, eta *itzi* Amil), *lelengo* ‘lehenengo’ (Eibarko udal agindua, baina *leenengo* Amil), *otzitu* ‘hoztu’ partizipioa (Eibarko koplak), *uri* ‘hiri’ (Gar, Iturbe, Bar), *urten* ‘irten’ (Bar), *zan* ‘zain’ (Bar). Nabarmentzekoa da *bere* ‘ere’ ageri dela Garibai, Amileta, Barrutia eta Eibarko koplak eta udal agirian; ez gaur egun esaten den *be* laburtua.

Mendebaleko euskalkiaren ohiko eremua gainditzen dute ondorengoen: *agiri* ‘ageri’ (Gar), *altara* ‘aldare’ (Amil), *arrain* (vs *arrai*) (Bar), *artzain* (vs *artzai*) (Bar), *bardin* ‘berdin’ (Gar, Bar, Eibarko udal agindua), *denpora* ‘denbora’ (Bar, Eibarko udal agindua), *ete* ‘ote’ (Milia, Bar), *jente* ‘jende’ (Bar), *kuma* ‘sehaska’ (Bar), *narru* ‘larru’ (Gar, Bar), *parkatu* (Amil, Arrasateko udal agindua, Bar), *sur* ‘sudur’ (Gar), *zinar* ‘zilar’ (Gar).

#### 2. Euskalki barruko aldeak

*aingeru* (Amil, baina *angeru* Bar), *baina* (Amil, baina *baya* Gar eta gaur egun Bizkaiko sartaldean), *bekatu* eta *bekatari* (Amil, Bar, baina *pekatu* Eibarko udal aginduan), *berriz* (vs *barriz*) (Amil), *biur* (vs *bior*) (Iturbe, Amil, Arrasateko udal agindua, Bar), *donge* (vs *deunga*) ‘gaiztoa’ (Gar), *erak* (vs *eurak*) (Amil), *eskuma* (vs *eskoe*) ‘eskuina’ (Amil), *gain* (vs *gan*) (Milia, Amil, Eibarko koplak eta udal agindua, Bar), *gutxi* (eta *gixi* Bar), *ibeni* (Amil, *ifini* Eibarko koplak eta udal agindua, eta

*ibini / efini* Bar), *izen* (vs *uzen*) (Gar, Iturbe, Amil, Bar, Eibarko udal agindua), *jabe* (vs *jaube*) (Gar, Milia, Iturbe), *naar* 'lahar' (Gar), *nahiz* hautakaria (vs *naiz*) (Amil).

### 3. Galdutako aldaerak

*anra* 'andrea' (Arrasateko udal agindua), *bage / бага* (gaur egun *barik*) 'gabe' (Gar, Amil, Eibarko koplak, Arrasate eta Eibarko udal aginduak, Bar), *barazkari* (gaur egun *bazkari*) (Gar), *eben* 'hemen' (Gar), *ekusi* 'ikusi' (Irure, Iturbe, Amil, Arrasate eta Bergarako udal aginduak, eta *ekusi / ikusi* Bar), *txipi* 'txiki' (Gar, Milia), *zerren* 'zeren' (Amil, Bar).

### 4. Euskara giputzaren eragina

*ere* (eta *bere* Bar), *farre* 'barre' (Iturbe), *gabe* hitz elkartuetan (*lotsagabe*, *paregabe*) (Gar, Irure, Bar), *gasta* (vs *gaztai*) (Gar), *gezur* (Gar), *guzi* 'guzti' (Irure), *igo* (vs *igon*) (Amil), *ile* (vs *ule*) (Bar). Garibairen esaera bildumetako batean *berri* eta *burria* ageri dira, baina *barri*, *burdia*, bestean.

### 5. Aldaera bereziak

*arkutu* (Amil, baina *aurkitu* Bar), *etxura* 'itxura' (Amil), *itxaden* 'itxaron' (Amil), *kurutze* 'gurutze' (Amil), *nun* 'non' (eta *nundik* Amil, Bar), *orapilo* 'korapilo' (Bar), *peliburu* 'peligru' (Bar), *urrin* 'urrun' (Bar), *zeinbat* (Bar, *zeinbat / zenbat* Amil).

## ZENBAIT ONDORIO

Deba ibarreko lekukoak aztertuta, hona hemen gertakaririk esanguratsuenak.

### 1. Mendebaleko euskararen izaera berezia

Euskalkien artean mendebalekoa da nortasunik handienekoa, eta bertako bilakaera berezi asko XVI. menderako bazirela ikusi da. Ezaugarri horiek, gainera, mendebal osoan edo gehienez betetzen ziren, eta ondo nabarmendu beharreko gertakaria da hori, zabala zelako antzinako mendebaleko eremua: Bizkaia, Gipuzkoako Deba ibarra eta Arabako alderdi zabala hartzen zuena. Ezaugarri jakin horiek hain eremu zabalean izateak oso aspaldikoak direla esan nahi du ezinbestean; XVI. mendea baino askozaz lehenagokoak.

Hona hemen Deba ibarreko lanabesetan agertu diren mendebaleko bilakaera berezien zerrenda:  $a + a \rightarrow ea$  disimilazioa (*arima + a \rightarrow arimea*), erro bereko erakusleak singularrean eta pluralean (*onek* 'honek / hauek'), *neuk* saileko izenordainen aldeko aukera, erdal  $-(c)ión \rightarrow -(z)ino$  bilakaera (*satisfazino*), \**edun*-en erroko *-o-*, *-au-*, *-eu-* (*dot*, *dau*, *neban*), NOR-NORI-NORK saileko *eutsi* erroa (*deusku* 'digu'), NOR-NORI saileko adizkietako *j-* (*jako* 'zaio'), \**edun*-en adizkien hitanoko *j-* (*joat* 'diat'), trinkoen eta NOR-NORI-NORK saileko adizkien hitanoko *j-* (*jaukat* 'zaukat', *jeutsat* 'zioat'), iraganaldiko 3. pertsonetako  $\emptyset$ - (*eban* 'zuen'), *-z* aditz pluralgilearen

nagusitasuna (*dakaz* ‘dakartza’), erdal jatorriko partizipioetako *-adu* eta *-idu* (*konfiadu*, *konzedidu*), aditz izenak osatzeko aukera zabala (*-etan*, *-zaiten*...), *igo(n)* eta *urten* iragankorrak, helburuzko perpausetako *-te(a)rren* (*ikusterren*).

Lexikoan ere agerian dago bere nortasuna: *berba*, *gura*, *jausi*, *otzara*, asteko egunen izenak... Baita aldaera lexiko zenbaitetan ere: *ardao*, *baltz*, *bardin*, *barri*, *bere* ‘ere’, *emon*, *ete*, *(h)uri*, *narru*...

Mendebaleko euskararen izaera berritzailearekin batera, agerian dago bere izaera gordetzaila ere, eta horren adibide dirudite *baten* vs *batean* bereiztea, NOR-NORI saileko iraganeko adizkietan *zit-* ez izatea (*jakon* ‘zitzaion’), partizipioetako *-gi* (*jagi* ‘jaiki’), perpaus kontzesiboetako *arren* (*ikusi arren*), moduzko perpausetan aditza mugatzailearekin erabiltzea (*esan dozuna legez*), eta *bi* zenbatzailea izenaren eskui-nean jartzea. Horri guztiorri lexikoa eta aldaera lexikoak gehitu behar zaizkio.

## 2. Mendebal barruko aldeak

Mendebaleko bereizgarri zenbait ez direla Deba ibarrera iritsi ere ikusi da, edo Deba ibarrean bertan aldeak direla leku batzuetatik bestetara. Gehienetan, Debagoiena agertzen da mendebalari lotuen, eta argia da horren arrazoia: Gipuzkoarekin gabe, Arabarekin izan duelako alderdi horrek hartu-eman. Horrek, bide batez, agerian uzten du Gasteiz aldeko euskara gehienbat mendebaleko eremukoa zela.

Hona hemen erabili ditugun lanabesek Deba ibarreko berezitasunez erakutsi dutena: sozietibo singularrean *-kin* / *-gaz* eta *-kin* baizik ez pluralean, hurbiltze adlatiboko *-rutz* (vs *-rantza*), destinatiboko *-endako* (eta *-entzat*), moduzko adverbioetako *-n* eza (*ala* vs *alan*), \**edun*-en erroan inoiz *-e* agertzea (*det*), NOR-NORI-NORK sailean, datiboa ‘hari’ denean, *eutsi* eta \**-i-* erroak aukeran izatea (*deutsa* / *dio*), NOR-NORI saileko adizkietan, eta \**edun*-en, NOR-NORI-NORK saileko eta trinkoen hitanoko adizkietan [x] ahoskera izatea (*jako* ‘zaio’, *jok* ‘dik’, *jeutsak* ‘ziok’, *jaukak* ‘zaukak’).

Deba ibarreko iparraldean beste hauek ere badira: *j* ondorengo *z* eta *tz* (*naiz* vs *nax*, *gaiz* vs *gatx*), aditz izenak mugimenduzko aditzen osagarri direnean adlatiboa erabiltzea (vs inesiboa), *-z* pluralgilearen ahultasuna (cf. *daude*, *dauzka*, *leizke*...), aditz izenetan *-ten* eta *-tzen* orokorrak nagusi izatea, eta *-tzaka* aditz atzizkia (*eltzaka* ‘heldu gabe’).

Lexikoan ere badira Deba ibarra Bizkaiko beste alderdi batzuetatik bereizten duten hitzak: *aitajaun* / *amandre*, *berehala*, *esnatu*, *gaizki*, *jarri* (vs *jesarri*), *lan* (vs *behar*), *zein* (vs *nor*)... Debagoienean *eguakotx* ‘ostirala’ dago, eta Debabarrenean (*a)ura* ‘hura’ erakuslea.

Aldaera lexikoetan ere badira gorabeherak: *bi(h)ur* (vs *bior*), *eskuma* (vs *eskoe*), *gain* (vs *gan*), *izen* (vs *uzen*)... Debagoienean, *gainera*, *gutxi* (vs *gitxi*) eta *naar* (vs *lahar*) ere badira.

## 3. XVI. mendetik honako galtzeak

Aztergai izan dugun garaitik hona erabat galdu diren ezaugarriak ere aipatu dira: bokal sudurkariak, \**edin*-en adizkietako *e* / *a* - *i* → *i* - *i* asimilazioa (*bidi* ‘bedi’), txistukari sail biak bereiztea, hitzak mugagabeen erabiltzeko aukera, ablati-

boko *-rean* atzizkia, bizidunen ablatiboko *-ganik* aldaera, genitiboa ergatiboaren ordeztaraztea (*jaunaren ordenadua* vs *jaunak ordenadua*), genitibo singularreko *-aen / -aren* aldaerak (gaur egun *-an*), *-kotz* aldaera (*elezinuetarakotz*), aditz izenaren osagarria genitiboan (*traizio baten egiten* vs *traizio bat egiten*), \**ezan* erroa (*ar ezazu*), \**edin* eta *egin* alegiazko baldintzetan (*jagi banadi*), aditz oina (*bihur zaitez*), *-e* bokala datibodun adizkien erroan (*emon degion*), partizipioa + RIK (*ikusirik*), aditz izenetako *-iten* aldaera (*emaiten*), adizki trinkoak (*indazu, daidi...*), *eskatu*-ren jokamolde iragangaitza, eta 'partizipioa + ez + laguntzailea' hurrenkera (*esaten ez dozu*).

Lexikoan, jakina, asko dira galdutako hitzak: *abere, adikatu* 'gogaitu', *abai*, *apukadu* 'gertatu', *arren, aztura, behar* 'erru', *donge, egun* 'gaur', *emazte, ene* 'nire', *errai, gezi, idoro, or* 'txakurra', *sehi, urde...* Baita aldaerak ere: *bage* / *baga, eben* 'hem', *txipi, zerren...*

Inoiz, gainera, berrikuntzak Deba ibarrean Bizkaian baino lehenago gauzatu dira ikusi da: lehenago galdu ziren indikatiboko \**ezan* eta \**edin* erroak (*erre zezan* → *erre eban*), moduzko perpausetako mugatzailea (*esan dabena legez*), eta *joan* / *eroan* aditzak ohikotasuna adierazteko erabiltzea (*egin daroa*).

Beste batzuetan, berriz, gordetzaila izan da Deba ibarra, eta horren adibide dira bokal geminatuak eta 2. pertsonako *-zu* (*zuek ikusi dozu*). Eskualde honen barruan, berriz, Debabarrena Debagoiena baino aurreratuagoa izan da: lehenago hedatu ziren ablatiboko *-tik* eta motibatiboko *-gatik* aldaerak, eta Debabarreneko hizkera batzuetara, gainera, *-tikan, -rikan* tankerako aldaerak iritsi dira euskara gipuzetik.

#### 4. XVI. mendez geroko berrikuntzak

XVI. mendetik honako bidean, ostera, dena ez da galtzea izan, eta berrikuntzak ere gertatu dira. Hona hemen gure lanabesetan azaldu direnak: hiatotako *e* → *i* (*etsia*) eta *o* → *u* (*itsasua*) disimilazioak eta *i* ondorengo epentesia (*mendixa*), asimilazio bustiduraren zabalkundea, iraganaldiko 3. pertsonetako *-z* (*zeban* 'zuen'), perpaus hautakarietako *zein* (Deba ibarrean ez da askorik zabaldu), erakusleak izenaren ezkerrean jartzeko joera (Deba ibarreko hizkera batzuetan gaur egun ere ez da ohikoa),<sup>3</sup> eta *egin* aditz indargarria.

Bestalde, gaur egungo *doia* 'doa' / *daroia* 'daroa' tankerako adizkirik ez da gure lanabesetan ageri, eta ezta Debagoieneko hizkera batzuetako *i* eta *u* ondoren gertatzen den *a* → *e* asimilazioaren aztarnarik ere (*ogixe* 'ogia', *dirue* 'dirua'). Nabarmenezkoa iruditzen zait, azkenik, *u* ondorengo <b> epentesiaren bizitza laburra (*eskuba* 'eskua'): XVIII. mendearen erdialdera hedatu zen eta ez du ematen XX.era iritsi denik.

Badirudi, azkenik, hitz amaierako *-e* ordeztaraz *-a* hedatzeko joera ere (*hobe* → *hoba*) handitu egin dela mendeen joan-etorrian. Joera hori ere, dena dela, ahulagoa da Deba ibarrean Bizkai aldean baino.

<sup>3</sup> Iñaki Caminok (2003: 77) oraindik orain arkaismotzat jo ditu *hori mendiori* tankerako esapideak, baina ez du ematen zuzen dabilenik. Arkaismoa zer den eta zer ez erabakitze bide bakarra dago: izkribu zaharretan. Eta izkribu zaharretan ez da horrelakorik ageri: ez Deba ibarrekoetan, ez mendebaleko gainerako alderdikoetan, ez eta Euskal Herri osokoetan.

## 5. Barrutia eta Iturbe

Beste auzi zehatzago batzuei helduaz, Barrutiaren gainean esan nahi dut zertxobait. Bere jatorriaren eta bere hizkeraren artean ez dut ikusten erabateko desadostasunik, baina ez zait iruditzen erabili zuen hizkera erabat Arrasatekoa edo Aramaiokoa zenik. Arrasaten baditugu Barrutiaren aurreko lekukotasunak, eta horiekien alderatuta, desberdin jokatu zuen.

